

**MANUEL LARRAMENDI
HIRUGARREN MENDEURRENA
1690-1990**



Andoain, 1992

MANUEL LARRAMENDI
HIRUGARREN MENDEURRENA
1690 - 1990

MANUEL LARRAMENDI
HIRUGARREN MENDEURRENA
1690-1990

**MANUEL LARRAMENDI
HIRUGARREN MENDEURRENA
1690-1990**

JOSEBA ANDONI LAKARRA
PRESTATZAILEA

Andoain, 1992



ANDOAIN UDALAK



EUSKALTZAINDIA



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Editorearen arduraketa:

Joseba Andoni Lakarra

Azaleko ilustrazioa:

Eugenio Azkue (Kutxuren jabetzakoa)

7. orrialdeko marrazkia:

Serafin Zabillaga Arana

© *Lehen edizioarena:*

Andoaingo Udala

Euskaltzaindia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

© *Lamienak:*


Egileak

I.S.B.N.: 84-604-2150-3

Lege gordailua: 1.082/91 Donostia

Fotokonposaketa eta inprimaketa:

IZARBERRI S.A. - 36. Industri poligonoa - Usurbil



AURKIBIDEA

<i>Aurkezpena / Presentación</i> , Joseba Arregui.....	x
<i>Prestatzailearen abisua</i> , Joseba Andoni Lakarra.....	xiii

BIOGRAFIA

PATXI ALTUNA, Aita Larramendiren bizitza	3
J. IGNACIO TELLECHEA IDÍGORAS, Personalidad humana de Larramendi	27
PATXI ALTUNA, Larramendi euskaldun berritua	39
J. IGNACIO TELLECHEA IDÍGORAS, La Guipúzcoa descrita por Larramendi	49

HISTORIA

XABIER ARZALLUZ ANTIA, Las ideas políticas de Larramendi	65
PABLO FERNANDEZ ALBALADEJO, Imposible vencido, imposible vencida: la provincia invencible de Manuel de Larramendi	77
GREGORIO MONREAL ZIA, Larramendi: madurez y crisis del régimen foral	91
ANTONIO ELORZA, El protonacionalismo de Larramendi	137

IIIZKUNTZA

ELIXABETE PEREZ GAZTELU, Larramendi Mitxelena ren begietan	153
GIDOR BILBAO TELLETXEA, Larramendiren garaikide bat: zenbait xehetasun Joanes Eixeberri Sarakoaz	177
RICARDO GÓMEZ, Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia	193
MIREN AZKARATE, Larramendiren hitz-eraketa	207
BLANKA URGELI, Axular eta Larramendi	221
ROSA MIREN PAGOLA, Larramendi eta dialektologia	247
JOSÉ IGNACIO HUALDE, Manuel de Larramendi y el acento vasco	267
JOSEBA ANDONI LAKARRA, Larramendirekin aurreko hiztegi gintza ren historia z : aztergai eta gogoeta	279
PATRI URKIZU, XVIII. mendean Larramendiren Hiztegi Hirukoitzak iparraldeko zenbait idazlerengan duen eraginaz	313
XABIER ALTZIBAR, Larramendi eta literatur-gipuzkera	325
MANUEL BREYA CLARAMONTE, Las ideas lingüísticas del siglo XVIII en Lorenzo Hervás: la descripción de las lenguas del mundo	361

ERASKINAK

<i>Epilogo</i> , José Ignacio Tellechea Idígoras	375
<i>Izenen aurkibidea</i>	381
<i>III. Mendurrenaren kronika</i> , Jon Unanue	389
<i>Erreportai grafikoa</i>	399

Presentación

El tercer centenario del nacimiento de Aita Manuel Larramendi fue una ocasión espléndida para refrescar en nuestra memoria la intensa vida de este jesuita comprometido. Andoain, su pueblo natal, le brindó el más importante reconocimiento en nombre de todas las gentes de Euskal Herria. Gracias, por ello, al Ayuntamiento de Andoain como promotor de estos actos conmemorativos de la figura de Larramendi, y gracias también, a todos los participantes en los mismos por acercarnos con sus preciados conocimientos a la labor y obra de Larramendi. No quiero dejar de agradecer la colaboración de todos los que han hecho posible que el recuerdo de Aita Larramendi sea reavivado entre nosotros.

Ilustre hijo de Andoain y perteneciente a la orden de los Jesuitas, Manuel Garagorri Larramendi fue un hombre destacado en su tiempo por su carácter inquieto, su afición al estudio y la lectura y su genio vivo, sobre todo, para quienes despreciaban su querida lengua materna.

El gran amor que siente por su tierra también merece su atención y su dedicación literaria. Sintiendo la muerte cercana y movido por su fidelidad hacia la tierra que le vio nacer, pleno de ternura escribe un delicado elogio a Gipuzkoa y a sus habitantes. Es justo estar agradecidos.

Aita Larramendi nació y vivió en la Euskal Herria de hace tres siglos, pero su carácter y trabajo le hicieron desmarcarse de su propio tiempo. Algunos historiadores le consideran el "primer abertzale" por su defensa foral y su identificación con la idiosincrasia de su pueblo.

En el marco de una fructífera y larga vida, Manuel Larramendi fue, tanto en su actividad escrita como en su elocuente actividad oral, guía, promotor e investigador del euskera y de la cultura, sociedad y política vascas, en un siglo en el que la ilustración promovió abundantes cambios y novedosas aportaciones a todas las sociedades y culturas occidentales.

La personalidad y obra de Manuel Larramendi han permanecido durante largos años sumergidas entre las sombras de un reconocimiento no adecuadamente explícito. Sabemos que, durante los años posteriores a su fallecimiento, el nombre de Larramendi tuvo gran eco y resonancia, un reconocimiento público que, según una permanente interpretación, se debió a las obras que escribió y publicó en vida en beneficio de su amada lengua. Hoy, las investigaciones realizadas durante estos últimos años y la publicación de algunas de sus obras inéditas nos brindan la oportunidad de conocer la auténtica razón y la medida de ese reconocimiento y esa proyección pública de la que Larramendi y su obra no gozarían durante largo tiempo.

Por todo ello, los que hoy vivimos en Euskal Herria no debemos olvidar su valor y el amor que Larramendi profesaba a su tierra, su gente, su lengua. Y esto nos lo hizo recordar el Ayuntamiento de Andoain con la iniciativa de organizar unas jornadas de estudio sobre Aita Larramendi que hoy se recopilan en esta oportuna publicación.

Joseba Arregi Aranburu

Aurkezpena

Aita Manuel Larramendiren jaiotza-aren hirugarren mendeurrena aukera ezin hoba izan zen jesuita adoretzu horren bizitza sakona gure gogora ekartzeko. Andoainek, bere jaioterriak, euskaldun guztien izenean, eskerronik garrantzitsuena eskaini zion. Hori delu eta, eskerrak eman behar dizkiogu Andoaingo Udulari, Larramendiren oharrezko ekintza hauen antolatzailea izan den aldetik, eta iharduera horietan parte hartu duten guztiei beren ezaguera preziatuaz Larramendiren lanetara hurbiltzeagatik. Ez nuke ahaztu nahi Aita Larramendiren gogoeta gure artean biziagotzea bidezkoa egin duten guztien lanikidetzaz.

Andoaingo seme kulturea eta jesuitarra, Manuel Garagarri Larramendi here garaian naharmendu zen here izakera egonezinagatik, here ikasketa eta kulturarekiko zaletasunagatik eta bere jenio biziagatik, batez ere, here amahizkuntzari gorroto ziotenentzako.

Bere herriarekiko maitasun handiak ere bere ardura eta arreta literarioa merezi du. Heriotza hurbiletik sentitu duela eta bizitza eman zion lurparekiko fidelotasunak bultzatua, "samurtasunez heterik" Gipuzkoa eta bere biztanleei goresmen delikatu bat idazten die. Zuzena da eskerronekoak izatea.

Aita Larramendi duela hiru mendetako Euskal Herrian jaio eta bizi zen baina here nortasun eta lanak here garaian aurrea hartu erazi zioten. Zenbait historiagilek "lehen abertzale" izat jotzen dute foruen alde burutu zuen defentsagatik eta bere herriaren nortasunarekiko identifikazioagatik.

Dizitza luze baten oinarriusunean, Manuel Larramendi, hitz sarkor eta berot zein idatzi landu eta zorrotzet, euskeraren eta euskal kultura, gizarte eta politikagintza-aren ikertle, eragile eta biderakusle izan genuen, mendebaldeko gizarte eta kultura ororen baitara aldakuntza eta herrikuntza ugari ekarri zuen ilustrazioren mende.

Manuel Larramendiren gizatasuna eta obra urte luzez onespren ilun baten itzulean egon dira mirgilduta. Jakin badakigu bera hil ondorengo urteetan oihartzun handia izan zuela Larramendiren izenak, goretasun handia, birritan egindako interpretazio batez, euskararen mesedetan idatzi eta bizi zela argitaratu zituen lanei zor zitzaieen eskerronagatik. Gaur, azken urteotan egindako ikerketak eta aurkitu eta plazaratutako haren obra ezezagun zenbaitek aipatu oihartzun horren benetako arrazoiak eta neurria ezagutzeko aukera eman digute.

Guzti horrengatik, gaurregun Euskal Herrian bizi garenek ez dugu here adorea ahantzi behar eta bere herri, jende eta hizkuntzarekiko maitasuna. Andoaingo Udalak gogora ekarri zigun guzti hau Aita Larramendiri buruzko ihardunaldi hauen antolaketarekin, eta gaur, zorionez, ihardunaldi haieiako hitzaldiak argitalpen egoki honetan bilduta hartzen ditugu.

Joseba Arregi Aranburu

Prestatzailearen abisua

Hemen dituzunak, irakurle, 1990ean Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Andoaingo Udala eta Euskaltzaindiak antolatu *Manuel Larramendiren III. Mendeurreneko* hitzaldien izkribuzko islada duzu. Nahiz ez dagokigun lotu egin dugun erabakitzea (hitzatze gisa aurkitu ahal da José Ignacio Tellecheak, ezagun zaion gutasunaz, eman balorazioa), erakunde eratzaileren aginduz hizlarien zerrendak prestatzerakoan omenduaren ikuspegi ahalik eta zabal eta gaurkotuena eman asmoz aritu ginen. Ez nuke ahortzi nahi honetan Patxi Altuna adiskideari zor zaiona, ezta Jon Unanuek azpiegitura prestakuntzan eman laguntza bikaina ere.

Mendeurreneko egitarauen barnean Donostian, Gasteizen, Bilbon eta Andoainean 30 bat hitzaldi (hiruzpalau batean edo bestean errepikatuak) eta 3 mahai inguru antolatu ziren; eman, hiruzpalau gutxiago (Jon Juaristi, Ines Pagola eta Ibon Sarasotak ez bai zuten, arrazoi diferentengatik zegokiena burutu; Manuel Brevaren testua Jon Ortiz de Urbinak irakurri zuen egilea bera atzerrian izaki). Geroztik egileek, norkegiago norke gutxiago, beren testuak hobetzeko eta zuzentzeko astia izan dute prestatzaileak beharrezko zen nolabaiteko sailkapen, ordena, batasun eta egokitzapena eman eta amaierako izen aurkibide, ustez interesgarri eta lagungarria, atondu baino lehen. Bihoakiez ene eskerrik beroenak, gehienek, izan duten eroapenagatik eta eman dizkidaten erraztasunengatik.

Emandako hitzaldiak oro bildu dira, Antonio Elorzak amaitzerik izan ez duen bigarrena salbu; aldez, gehitzerik izan dugu artean José Ignacio Hualdek prestatu Larramendi eta azentuarekikoa.

Lehenago ere II. Mendeurrenean Euskalerrria-k, 1929an Andoaingo Udalak eta bestetan bestek, egokitu dio omenaldirik Euskal Herriaren historiaren gailur honi; espero dut, halabeharrez, ez dela ezinezko gertatuko orduetik hona haren inguruan ezagutza eta balioztapenean— izan aldaketaz oharreza. Anekdota bildumatik aldentzen, anakronismo historikoetarik urruntzen eta ezezagutza filologikoa saihesten saiatu gara, behinizat, eta neurriten batean erditsi ere egin dugulakoan naiz. Hala biz.

Joseba Andoni Lakurra

BIOGRAFIA

Aita Larramendiren bizitza

PAIXI ALTUNA

(Deusua - EITB)

Merezi du aita Larramendik, ene ustez sortu zeneko hirugarren mendeurren hone-tan bil ditzagun batean, han eta hemen barreiatuak dauden haren bizitzako zertzelada eta argibide guztiak eta haren biografia osoaren begirada guzizko bat eskain diezai-egun gaurko euskaldunci.

Bada, duela ehun urte, bigarren mendeurrenoko ospakizunetan Txomin Agirre idazle famatuak gauza bera egin zuen, *Euskal-Erria* aldizkarian argitaratu zuelarik Aita Larramendiren bizitzaren berri labur bat. Baina ez da zer duda orduan baino as-koz gehiago dakigula orain aita Larramendiz. Tellechea Idigoras jaunari eskerrak ba-tez ere.

Hau haren bizitza, pentsamendua eta obra osoa aztertzen aitzindari izan da eta ar-gitara eman dizkigun haren hiru liburuen —*Corografía, Autobiografía* eta *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*-ren— hitzaurreetan eta eraskinetan aurkitzen ditugu aipatuak argibiderik gehienak.

Barreiatuak ordea, damurik, eta arrimu handirik gabe. Haiek guztiak, edota ahalik gehienak bederen, eta joan den udan neronek Eliz-barrutiko Artxiboan aurkituriko argibide berriak urtez-urteko hurrenkera gisako batean eskaintzea izan da ene harxeda.

1. Andoainen sortu zen. Horretaz inork izan zitzakeen dudak aspaldi gelditu ziren haizeatuak. Duda horiei, egia esan, Larramendik berak eman zien bide hein batean. Garai hartan Lagundiko katalogoak hiru urtez behin argitaratzen ziren, jesuita bakoi-tza non eta noiz sortu zen, Lagundian noiz sartu zen, nolako osasuna zuen eta gaine-rako argibideak emanez. Bada Larramendiren bizitzako azkenekoan, 1764ekoan, izan ezik, gainerako guzietan esaten zaigu —eta gainerako guzi horiek hemeretzi izan ziren— Larramendi Hernanin sortua zela. Ez da erraz aditzen nolatan iragazi zen lehenik oker hori Katalogoetan, Larramendik ez bazuen nahi izan, eta gero nola-tan iraun zuen hainbat urte zuzendu gabe, azkenean zuzendu ahal izan zelarik. Ala Larramendik berak garai batean hernaniartzat eduki ote zuen bere burua?

Bada arrazoirik hori pentsatzeko. Gurasoak, egia esan, ezkondu ondoan eta biz-pahiru urte kenduz gero, beti Hernanin bizi izan ziren hil arte. Ez zuen arrazoi falta Larramendik Lagundian sartzean idatzi zuenean bere gurasoak "vecinos de la villa de Hernan" zirela (*Autob.*, 290); bera ere halaxe zen, harik eta etxetik atera zen arte.

Baina sortu, Andoainen sortu zen. Hortxe dugu haren bataio agiria hori sinesteko. Hortxe ditugu azken urteotan aurkitu diren haren sermoiak eta batez ere hemengo parroki zaharrean Agustín de Leiza Argentinan hil zenean egin zuena. Tituluak be-

rak salatzen du Larramendiren jaioterria: "...Andoaindar sona andico hiztun baten doluzco hitzaldia". Geroxeago honela dio: "...gogoratzen zait non jaioa naizan, ta pizten zaizquit Aiurri-errecac eransi cizquidan suac eta garrac". Eta aurrerago: "Equin bada, nere ertar preciatuac, bacoitzac bere eguicari horiei...". Eta azkenik: "Esan ditudan oiecgatic poie ta gozoro ematen diozcat Andoain nere jaieterriari esquerrie asco ta iori" (Altuna-Lakarra 1990: 73 hh.).

Beraz egungo egunean ez da dudarik Andoainen etorri zela mundura aita Larramendi. Halabeharrez eta ustekabean etorri al zen ordea Andoainen, orduko paper batek dioen bezala? Laster ikusiko dugu.

2. Elizak Jesusen jaiotza ospatzen duen egun berean sortu zen gainera, 1690eko abenduaren 25ean. Bataiatu bai bederen, guk bataio egunaren berri soilik baitakigu agiriari esker. Haurrak eskuarki jaiotegunean berean bataiatu ohi zirenez gero, bataio eguna hartu ohi dugu jaioteguntzat, kontrakorik jakin ezean. Honela dio agiriak: "A veynte y cinco de diciembre de mil seyscientos y noventa bauticé a Manuel de Garagorri, hijo legítimo de Domingo de Garagorri y Manuela de Larramendi, siendo padriños Joan de Echagoyen y Maria de Zumeta..." (Lib. 4^o de Baut. 1684-1726, Andoain 2)

Abenduaren 25ean! Gauzak nola izaten diren! Handik urte batzuetara, Salaman-kan teologia ikasle zelarik, bera bezalaxe abenduaren 25ean jaio zen erregin zendu Margaritaren urteoroko hiletetan hitzaldia egin behar izan zuen latinez, eta guztiz poli-ki baliatu zen parada hartaz, haren eta bere jaiotegunaren txitezkoak kantatzeko, beste gehiagoren artean honako hauek esanez: "Ezen nork ez ziokeen Margaritaren horoskopoiari arras dohatsu izango zela igerriko, ez patuak amarruz eta azpikeriaz ikerturik, baizik burubidez eta zuhurtziaz? Ez zuten, izan ere, astrologoen begiek sekula izarren bateratzerik ikusi, hark erdietsi zuena baino amultsuagorik. Abenduaren 25ean sortu zen, zuzentasunaren eguzkia Ama Birjinaren sabel distiratsutik jalki zen egunean". Harro zegoen agidanean sortu zen egunaz eta azkenean hauxe esatea falta zitzaion: "ni ere egun berean sortu nintzen!" (Autob., 66).

3. Bera Andoainen. Eta gurasoak non sortu ziren? Aita ere, Domingo de Garagorri, andoaindarra zen; ama, Manuela de Larramendi, berriz, hernaniarra. Hala diosku garbiro ezkontza agiriak, laster ikusiko dugunez. Garagorritarrak jatorriz andoaindarrek direla ez da dudarik. Hernaniko bataio liburuetan ageri diren lehen Garagorritarrak gure Manuelen bost senideak dira: lehenago ez da han Garagorririk, Larramenditar-rrak jatorriz nongoak diren ez da hain garbi ageri liburuetan; herri batean zein bes-tean agertzen dira, eta bietan goiz, bietan piloa. Badirudi halere etorkia Andoainen dutela. Zergatik? Hernanin ez omen da Larramendi izeneko baserririk ez bordarik; Andoainen aldiz badira Larramendi eta Larramendi txiki eta Larramendi borda, esan didatenez.

Egin ditogun ahaleginakgatik ezin asmatu izan dugu zein diren aitaren eta amaren bi-garren deiturak. Gauza bat eduki behar da gogoan: Andoainen bai Hernanin —hemen baino han gehiago— liburu asko galdu, ostu, izkutatu edo hondatu dela parrokiari, mende honetako eta aurreko gerrate denboran batikpat, dirudienez, eta ez duzu nahi zenukeen guzia aurkitzen. Baina hori ez da beti liburua falta delako gertatzen. Ba-tzuetan liburua han dago eta bila zabiltzan agiriak han egon behar luke, eta halere ez dago han. Esate baterako, Manuela Larramendiren bataio agiria ez da inon ageri, eta

egotea legokiokkeen liburua falta delako ez, baizik hutsegite edo hutsarteren bategatik.

Hara: Francisco Larramendi bat 1657ko uztailaren 8an Maria Juana Barcaiztegui batekin ezkondu zen Hernanin. Egingo nuke horien alaba dela Manuela. Bada alferrik; horien bederatzi seme-alaben agiriak aurkitu ditut, baina Manuelarenik ez. Ez eta, ordea, Margaritarenik ere, nahiz ziur dakigun Margarita hau, gero herriko alkate izandako Franzisko Beroizekin ezkonduko zena¹ Francisco Larramendi eta Maria Juana Barcaiztegui horiexen alaba zela. Laburki esan: gure Manuelen amaren bigarren deitura Barcaiztegui dela esango nuke, baina ezin dezaket frogatu. Aitarenenari berriz ezin izan diot hurrik ere eman.

4. Domingo eta Manuela Hernanin ezkondu ziren, andregaiaren herrian. Hantxe dago agiria 2. liburuan, 49. or. Honela dio: "A veinte y ocho de Octubre del año de mil seiscientos y ochenta y ocho se casaron en mi presencia Domingo de Garagorri, natural de la villa de Andoain, y Manuela de Larramendi, natural de esta villa..." (*Ibid.*, 29-X-1688). Horra nongoa zen ama. Urte batzu geroago beste apaizen batekin honako ohar hau erantsi zion azpikaldean agiririari: "Advertencia: Los dichos Domingo de Garagorri y Manuela de Larramendi fueron los padres legítimos del Rmo. P. M(aestro) Manuel de Larramendi, de la Compañía de Jesús, que por casualidad fue bautizado en Andoain el año 1690 por Navidad; y están enterrados en esta Parroquia". Hernanin ezkondu, beraz, eta Hernanin hil eta ehortzi. Eta gure Manuel hala-beharrez edo txiripaz jaio zela Andoainen? Laster ikusiko dugu ezetz.

5. Ezkondu zireneko ordea arin samar ibiliak ziren eta ez guztiz alfer egonak, orduko ckarria baitzuten alabatxo bat mundura, Maria Josefa. Hona zer irakurtzen dugun Hernaniko bataiatuen liburu batcan, 1687ko abuztuaren 21ean: "...fue bautizada Maria Josefa de Garagorri, hija natural de Domingo de Garagorri y de Manuela de Larramendi, siendo padrinos Don Francisco de Beroiz y Ana de Garagorri..." (Lib. de Baut., Hernani: A. 1-2, 1-3, 1-4: 21-VIII-1687). Artcan ezkondu gabe zeuden, gezurra badirudi ere, eta ez pentsa gero ere presa handirik izan zutenik ezkontzeko. Lasai eta patxadan hartu zituzten gauzak eta egin baino lehen ongi pentsatu. Umea bataiatu eta handik hamalau hilabetera ezkondu ziren gurasoak han berean.

Ez zuten, ordea, dirudinez luzaro iraun Hernanin, bada urtebete baino lehen —lau egun falta— Andoainen munduratu zuten eta bataiatu Martin (1689-X-24) eta han berean hamalau hilabete geroago gure Manuel (1690-XII-25). Beraz hiruzpalau urte bizi izan ziren Andoainen eta horrenbestez ez da erabat egia "por casualidad fue bautizado en Andoain". Hernaniarra izaki nonbait hitz horiek idatzi zituen apaiza eta ezin eraman aita Manuel handia Hernanin sortu ordez Andoainen sortu izana.

6. Beste lau seme-alaba ere izan zituzten Domingok eta Manuelak, beraz zazpi danera. Hauen berri Maria Josefarena bezalaxe Hernaniko parrokiako liburuei esker dakigu. Orain arte Martin uste genuen izan zuela gure Manuelek senide bakarra; besteren izenik ez zuen aurkitu, izan ere, Tellecheak Andoaingo liburuetan. Orain ordea Hernanikoek agertu digute, Maria Josefa zaharrenaz eta sasikoaz gain, beste lau ere izan zituela, Martin eta Manuel ez bezala Hernanin sortuak eta bataiatuak bostak.

(1) Libro 2º de Casados, Hernani: 15 Febrero 1682. Francisco de Berriz hauxe izango da gero gure Manuelen arreba zaharen Maria Josefaren bataioan aitaponteko.

Beraz, lehen esan bezala, hiruzpalau urte Andoainen bizi ondoren Hernanira itzuli ziren berriro gurasoak eta hiru seme-alabak.

Hona hemen izan zituzten azken lau seme-alaben izenak eta jaiotegunak: Maria Ignacia (1694-V-20), Juana Bautista (1697-X-8), beste Juana Bautista, lehengoa jaio berria hil zitzaielako edo (1699-X-27), eta azkenik Domingo Ignacio (1701-IV-17), aitaren izen berekoa Ignacio gchiturik. Gero ikusiko dugu zergatik.

7. Aurrera baino lehen galdera bat: Domingo de Garagorri aita eta Manuel de Larramendi semea? Nolatan? Zergatik ez Manuel de Garagorri? Lehen entzun duzuen bataio agirian izen-deitura horiekin dago izendatua: "...baptisé a Manuel de Garagorri...". Agiri horrek berak badu haatik behean eraskin labur bat, geroago berretua noski, honela dioena: "Manuel de Garagorri, aviendo entrado jesuita, mudó el apellido en Larramendi". Baina ez dirudi jesuita sartzerakoan harturiko barbateko erabakia izan zenik deitura trukatzeko hori.

Loiolan 1766an hiltzean haren hilberria idatzi zuena egiatik hurbilago zegoen agian. Honela zioen: "Lleváronle de muy niño a Hernani, donde aprendió la escuela y dieron en llamarle Larramendi del apellido de su madre, y con él continuó en la religión, aunque con algún sentimiento de su parentela por línea paterna, que es noble y larga" (*Autob.*, 301). Eskolako lagun mutikoak hasi zitzaizkion Hernanin hala deitzen. Jakina! Andoaingoek ez zioketen hala deituko. Ama hemaniarra izanik, haren semea ere Hernanin eta hemaniarrentzat Larramenditarra zen ezinbestean: "Hi, adi zak, Larramendi", esango zioten eskolatik ateratzean, "hartu egingo dek, e!"

Halaz guztiz ere, geure buruari galdegiten diogu: arrazoi hori aski al zen bospasei urte geroago Lagundian sartzean aitaren deiturari muzin egin eta amarena beretzeko, eta gero bizi osoan hartaz bakarrik baliatzeko? Ez al zuen izan arrazoi bortitzagorik hori egiteko? Ondoko gertaecek lagun diezagukete galdera horren erantzuna aurkitzen.

8. Ama mutil koskorretan hil zitzaiola esan izan dugu guztiok Tellechea jaunak Andoaingo liburuetan aurkitu zuenetik (*Autob.*, 259. 1. oh.) Domingo de Garagorri aurrerago Catalina de Echagoyen batekin ezkondu —ez ahanzt Joan de Echagoyen izan zela gure Manuelen bataioan aitabitxia— eta beste zazpi seme-alabaren guraso gertatu zela. Hortaz, pentsatu genuen guziok, gure Manueli mutikotan ama hil zitzaion.

Baina horra non irakurtzen dugun orain Hernaniko liburuetan Manuela de Larramendi bat bederen bizi zela urte horietantxe eta arte hurrengoetan zenbait bataiotan amabitxi izan zela eta, areago dena, izen-deitura beretako (beste?) emakume bat Francisco Antonio de Beroizekin ezkondu zela 1708ko abenduaren 9an. "Gure Manuelen amaz beste Manuelak izango ziren horiek agian", pentsatuko du norbaitek. Bai, badaiteke hala izatea, eta zergatik ez da gure Manuelen aitaz beste Domingo Garagorriren bat Catalina de Echagoyenekin ezkondu zen hura? Noren umezurtz gelditu zen, hortaz, amaren ala aitaren? Ala ez bataren eta ez bestearen, baldin bata zein bestea beste Domingo bat eta beste Manuela bat baziren? Hala al ziren, ordea?

Catalinaren senar Domingo delakoak badirudi baietz, beste bat zela, bada Andoainen bizi izan ziren beti ezkonduz gero, hango liburuetan aurkitu zituen Tellecheak eta han izan zituzten eta bataiatu beren zazpi seme-alabak. Aldiz gure Manuelen aita badakigu, hiruzpalau urte kendurik, beti Hernanin bizi izan zela ezkonduz gero eta han ehortzi ere zutela bere emaztea bezalaxe (ikus ezkontza agiririari

erantsi zioten *Advertencia* delakoa). Hori bakarrik ez, Domingo de Garagorri baten heriotzaren agiria gorde digute beharrik Hernaniko liburuek, eta ez da zer duda hau gure Manuelen aita dela, Hernaniko liburuetan ez baita beste Domingo de Garagorri-rik. Hona agiria-ren testua: "A tres de Septiembre de mil y setecientos murió Domingo de Garagorri y testó ante Antonio de Ayerdi" (Lib. Finados, 1662-1739, Hernani 20, A 1-20). Aitaren umezurtz gelditu zen hortaz gure Manuel, oraindik hamar urte ez zituela.

9. Zinez egoera negargarrian utzi zuen hiltzean senarrak alarguna. Etxean beraz zen bakarra lanerako eta bizimodua aurrera ateratzeko. Jatorduan hertiz bost ume hankagorri biltzen zitzaizkion mahaiaren inguruan, txitoak bezala aho zabalik. Hiru neska ziren eta bi mutiko. Zaharrenak hamairu urte zituen egin berriak, txikienak hertiz hamaika hilabete. Ez zen hori okerrena; beste umetxo bat ere bidcan zen, ama gajoa haurdun baitzegoen. Zazpi hilabete geroago ekarri zuen mundura beste mutikoa. Hiru eta hiru harrez gero, Juana Bautista lehenbizikoa jaio berria hil baitzen, esan bezala. Orain aita hil berria zelarik, nola ez zioten mutiko berriari haren izena ezarriko? Bai horixe. Domingo Ignacio 1701eko apirilaren 17an bataiatu zuten.

Gure Manuelek, esan bezala, ez zituen oraindik hamar urte. Gizagaxoa! Zerua goian eta lurra behean, ez zuen besterik munduan, Nork lagundu, bai, bazuen, baina horretarako lehenbiziko gogoia behar. Larramenditarrek, asko baitziren. Andoaingo eta Hernaniko etxerik onenetako familiei zuden lotuak, hala nola Leizaur, Beroiz, Berrozpe, Mimendi, Galardi, Ubillos eta abarri. Minertarrei ere bai. Hauek Hernaniko familiarik zaharrenetako eta ahaltsuenetako bat ziren, Miner bat parrokiako erreto-re izan zen, beste bat alkate, beste bat eskribau eta beste bat, Antonio de Miner, "licenciado y abogado de los reales consejos", Gertudis Beroizekin ezkondu zen —hara hertiz ere Beroiz—. Beroiztarrek Larramenditarren ahaide zirela garbi erakusten digu gure Manuelen *Autobiografía*-ko pasarte honek: "Vínome un propio de Hernani diciéndome que mi primo Beroiz estaba de mucho cuidado" (*Autob.*, 20).

Antonio de Miner horrek anaia bat jesuita zuen, apaiza ez baina anaia laguntzailea, Migel. Hogeitabost urte zituela sartu zen jesuita eta gure Manueli aita hil zitzaion garaian. Bilboko jesuiten ikastetxean bizi zen eta sakristiako lanetan aritzen zen. Katalogoak dio "ocdituus" zela. Honek bere iloba Manuelen etxeko berri ikasi zuen nonbait eta Manuel txikia berarekin Bilbora eramateko erabakia hartu zuen. Ez zion mesede txikia egin ama Manuelari berak Bilbon haziko, heziko eta eskolatuko zuela esan zionean.

10. Bilbora noiz eramán zuen ez dakigu, baina "lehen bait lehen hobe, bat gutxiago", esango zion nahigabez Manuelen amak; "nik baino hobeki haziko duzue". Hamar urte ote zituen? Hamaika? Ikusi ote zuen anaia txikia bataiatzen? Puntu honek badu gorabehera, ez baitio etxetik umetan ateratzen den haurrak modu berean eusten umetako hizkuntzari, hamar urtez edo hamabiz atera. Gorabehera badu, baina ez dakigu gauza ziurrik. Larramendi hiltzean haren hilberria idatzi zuenak hauxe diosku: "Estudió Gramática en el Colegio de Bilbao, donde se crió y adonde lo llevó un tío suyo, Hermano Coadjutor y llamado Miner, que fue como su padre y a quien debió su educación y estudios y fortuna, como decía él mismo. No estudió en el siglo más antes" (*Autob.*, 302).

Bai noski, irakurtzen eta idazten Hernaniko eskolan ikasi zuen, hilberri emaileak

berak lehen esan digunez. Orain ordea "no estudió en el siglo más antes" esanez, adierazi nahi du hortik goragoko ikasketarik agidanean ez zuela egin Bilbora arte, eta han "estudió Gramática", hasieran esan duen bezala.

Ez pentsa, ordea, ikasle gisa joan zenik gure Manuel Bilboko jesuiten ikastetxera. Ez eta hurrik eman ere. Etxe handietako semeen dohaia zen hori. Morroi gisa eta etxeko lanetan laguntzeko eraman zuen osabak —horrelakoci guk duela berrogei urte "morroi txiki" deitzen genien— eta, artean oso umea zelako eta osabak baino hobeki inork etxean zainduko eta hartuko ez zuelako, sakristian jarri zuen bere ondoan Meza zatak atropak prestatzen, aldarretako argiak pizten eta itzaltzen, Meza laguntzen eta abar. Egingo nuke txolarteetan han aritzen zela sakristiako txokoren batean osabak emandako gramatika ikasten eta, ez jakin, agian bere gisa eta osabak pixka bat lagunduta, latina ikasten ere bai. Denbora alferrik galdu ez zuela badakigu bederen.

Ikus nota dioen hilberri emaeleak: "...él por sí era muchacho de aquella sacristía, y apenas tuvo más maestros ni tiempo que su ingenio...". Besterik ez zen "por sí" — berez, alegia— morroia baizik, ez ikaslea. Baina "por su despejo y muestras de habilidad le aplicaron al estudio...", eta morroi izatera joan bazen ere, ikastetxe hartako gramatika ikasle izatera iritsi zen. Hona hilberri egile beraren beste bi iritzi balios: "empezó algo tarde y acabó presto". Lehen urteetan morroi soila izan zelako eta Lagundian sartu, berriz, hamazazpi urte gabe sartu zelako. Azkenik "era franco y divertido, pero honrado y fiel a maravilla". Ez zioten nonbait umetan etxeko gertariek izakera garraztu (*Ibid.*).

11. Mutiko zolia eta argia zela igerri ziotenean, "le aplicaron al estudio". Hemen nahitaez iritzira eta abespelean jardun beharta dugu, ez baitakigu aita hil eta handik zenbatera utzi zuen Hernani Bilbora joateko, ez eta Bilbora joan eta handik zenbatera utzerazi zioten "morroi txiki" izatea ikasteari ekiteko. Zernahi gisaz, bai danera Bilbon, bai eta "morroi txiki" izatea utzi ondoren han bertan ikasten, urte multzo handixea egon zela pentsatu behar dugu nahitaez —sei danera eta hiru bederen ikasten?—, zeren epe laburrean ezin zitzakoen, oso mutiko azkarra izanik ere, gramatika eta gaztelera-latinak hain ongi ikas, nola ondoko lerroetan ikusiko baitugu ikasi zituela. Hala ez izanik, ez zuketan gainera jesuitek hartuko apaiz izateko, baizik gehienez ere bere osaba bezala anaia laguntzaile izateko. Beraz Lagundiko ateak alderik alde zabaldu zizkioten apaiz izateko eta hartarako ikaskuntzak egiten hasi zen.

Bilbon bertan sartu zen jesuita eta egun gutxiren buruan Valladolid-ko Villagarafia de Camposa abiatu, bi urtetako Nobiziadua egiteko. Ezagutzen dugu orduan sinatu zuen agiria. Han utzi zuen idatzirik bere gurasoak "vecinos de la villa de Hernani" zirela eta azpian ezarri zuen sinadura —ezagutzen dugun lehenbizikoa— hau izan zen: Manuel de Larramendi, eta ez 'de Garagorri'. Sinadura dotorea, zoragarria! (*Autob.*, 286-7).

Zenbat haurretako oroitzapen gogorazi ote zizkion sinadura horrek! Eta zenbat borroka izan ote zuen bere bamean hala sinatzeko erabakia hartu baino lehen! Aitarren deitura betiko zapuztu, alegia. Zergatik? Eskolako haurrek 'Larramendi' deitzen zutelako bakarrik? Esan al zion Lagundian hartu zuen Bilboko ikastetxeko jesuiten buruari, aita Fernando Navarretei, bere lehen deitura Garagorri zela? Nahitaez esan behar. Kontatu al zizkion hura utzi eta amarena betiko erabiltzeko zituen arrazoiak? Nahitaez kontatu behar. Eta halere hori egiten utzi? Eskolan haurrek hala deitzen zu-

telakoa baino arrazoj bortitzagorik izan behar, horratio, jesuiten buruak hori egiten uzteko! Bai al zuen zerbait aita zenaren kontra?

Galdera horiek oraingoz ez dute erantzunik. Guk bakar bakarrik dakigu geroztik amaren deitura beretu zuela, lehenbizikoa izan balu bezala, eta horretaz ezagutzen duela hurrez gero mundu guztiak. Bazekien halere non ez zuen bere burua 'aita Larramendi' izendatu behar, zer gerta ere, espada 'aita Garagorri': Andoainen, noski. Eta hala hil baino urte batzu lehenago hango parrokiari egin zuen sermoi ederrean, halako batean entzule bat kontra ateratzen balitzaio bezala, honako hitz hauek ipintzen ditu haren ahoan: "Arriari zagozca, aita Garagorri" (Altuna-Lakarra 1990: 79). Aldiz beste batean Oiartzungo bi familiaren arteko haserreak gozatu nahirik zebilela, bateko amona zaharra honela mintzatu omen zitzaion: "Y ¿por qué, aita Larramendi,...?". Andoaindarrei bazien, ikusten denez, lotsaizun pixka bat edo agian belkurra.

12. Nobiziaduko bi urteak Villagarcían eman zituen, esan bezala, eta horien ondoren hantxe egin zinitzak, 1709ko azaroaren 13an. Lehen ere aipatu dudan eta gero gehiagotan aipatu beharko dudan hilberri emaileak honela dio: "Tuvo su noviciado y el seminario, como los demás de la Provincia de Castilla, en Villagarcía de Campos" (*Autob.*, 302). Beraz, nobiziaduaz gain, eta haren ondoren, "seminario" zeritzan ikasturtea ere han egin zuen.

Gauza jakina da, izan ere, Nobiziadu ondoren urtebete ematen zietela Giza-zientzia zirelako gaiet: "Longe vero utilius videtur scholis humanitatis et grammaticae, ut has nostri doceant antequam audiant philosophiam, quam postea"². Aita Mendiburuk, esate baterako, Burgosko ikastetxean igaro zuen urte hura hango motikoei gramatika irakasten. Larramendiz aitzitik, urte hartan ez baitzen suertatu hiru urtez behingo katalogorik, gerokoei diotena bakarrik dakigu, hauxe alegia: "Docuit Gram. annum unum", non esan gabe, ordea. Gainerakoa hilberri emaileari esker dakigu.

Badirudi ikasturte hartantxe (1709-1710) lehenik, eta ez hurrengoan Campoko Medinan filosofia ikasterakoan, orain arte uste genuen bezala, ezagutu zuela eta irakaskide izan aita Luis de Losada famatua. Hona zer dioen Juan Luis Cortinak bere liburuan: "Losada estuvo dos años (1708-1710) en Villagarcía de Campos, en los que, además de cumplir el año de su tercera probación, se dedicó a la docencia de las humanidades"³. Larramendi gazteak lehen maila, gramatika, irakatsi zien dirudienez nobizio gazteei eta aita Luis de Losadak, orduko apaiza baitzen, humanitate direlakoak gehixeago zekitenei.

13. Lagundiko hazibidearen eta ikaskuntzen gorpilari jarraituz, Larramendi hurrengo ikasturtean Medina Kanpoko-n —Mendiburuk liokeenez— aurkitzen dugu. Filosofiarri ematen zitzaizkion hiru urteetatik lehena ikasten. Aita Losada ere hara igorri dute agintariek: "En 1710 es destinado a Medina del Campo, con la misión de enseñar la filosofía a los estudiantes jesuitas" (*Ibid.*).

Larramendiri dagokionez, hilberri emaileari utziko diogu berriz ere hitza, guk egin genezakeen baino gaitasun eta burupe handiagoaz kontatzen baitugu zer izan ziren Larramendirentzat hiru urte haiek: "De allí pasó a estudiar las Artes o Filosofía al Colegio de Medina del Campo, y tuvo por maestro en ella al célebre P. Luis de

(2) Ratio Studiorum, *Monumenta Historica Societatis Iesu*, vol. 129, 116. or.

(3) Cortina Iceda, Juan Luis: *El siglo XVIII en la pre-ilustración salmantina (Vida y pensamiento de Luis de Losada: 1681-1748)*, 56. or.

Losada, que se gloriaba con razón de tener tal discípulo y descubrió y aun admiró sus fondos. Salió el más aventajado de todos y, como tal, fue graduado por ser primero de curso y tuvo el Acto Mayor en Filosofía con aplauso universal de domésticos y extraños" (*Autob.*, 302). Nekez egin daitezke laudorio handiagoak.

Hitz horien eta orduko azturen arabera ez dirudi dudan jar daitekeenik Larramendik Filosofia 1710eko irailetik 1713ko ekaina bitartean ikasi zuela Medinan. Zergatik diogu hori? Urte horietako eta ondoko katalogoak, 1714koa eta gainerakoak, okerrez eta hutsegitez beteak daudelako, bateko eta besteko datuak eta are bat beraren baitakoak elkarrekin ezin uztar daitezkeelarik eta, hori dela eta, Tellecheak eta nik ematen dugun Larramendiren ikaskuntzen urte hauekako kronologia osoro bat ez datorrelako. "El catálogo de 1714 lo es en efecto de ese año, pero en él Larramendi no figura en Salamanca, como señala el índice final, sino en S. Ambrosio de Valladolid y bajo la fecha de 1715", esan zidan arrazoi osoarekin Loiolako artxibari aita Eguilleorrek. Gauza bertsua idatzia zuen aspaldi Tellecheak (*Autob.*, Intr., xxiii eta oh.): "A partir de 1714, Larramendi se encontraba en Salamanca estudiando Teología...". Bai? Ala urtebete lehenagotik?

14. Hilberri emaileari sinetsi behar badiogu, Medinan Filosofia bururatzean Salamankara igorri zuten, ez Valladolida: "En cualidad de tal y celebrado ya por monstruo en la habilidad, ingenio y lucimiento, le destinaron a estudiar la Teología en el Colegio Real de Salamanca, y allá la concluyó con créditos del mayor teólogo de su tiempo" (*Autob.*, 302). Askok esatea da eta goresmen ezin handiagoa, baina ez dugu pentsatu behar aho handikeriak direnik, ez baitira hakarrak, beste gehiagok ere horien antzekoak egingo dituzte.

Hor esana egia bada, 1713ko udazkenean ekin zion Teologiari eta Salamankan gainera. Nik ere hala uste dut, hala zen ohitura: bata bururatu eta berehala bestea hasi. Katalogoetan anabasa handia dagoela esan dugu eta ez datozela beti bat. Ene usitez 1714koa oker dagoen bezala —ez guztiz oker, noski, egia da teologiako lehen urtea ikasten ari zela—, 1717koa aldiz oso ondo dago: "Theol. agit annum 4.", Alegia, baldin 1716-1717ko ikasturtean teologiako laugarren ikasturtea ikasten ari bazen, horrek esan nahi du 1713-1714koan eman ziola hasiera. Bestalde, horiek horrela badira, 1716ko udan gertatu behar izan zuen inon datarik gelditu ez zaigun haren bizitzako egun handi batek, apaiz egin zenekoak.

Ongi dator gainera hori Larramendiren urte hartakoxe beste gertari batekin. Gorrango laburki kontatu bezala, Espainiako Errege ohi Felipe IIIgarrenaren emazte Margarita zenduaren hiletak ospatu ohi ziren urteoro handikiro Salamankako jesuiten erret ikastetxean —Espainia osoan jesuitek zuten ederrenean—, bada erregina hark bere ondasunez eraiki eta jesuiten eskuetara zituen ikastetxea ez ezik, hari datxekan eta Klerezia deritzan eliza zoragarria ere. Urte hartan, bada, erregina hil zenetik ehun eta hogeitabosgarren urteurrenean, Larramendi hautatu zuten bere agintariak. 27 urte baizik ez zituela hil zen erreginaren laudorioak latinezko hitzaldian egin zitzaizkion. Eliza mukuru zegoen agidanean; han ziren Teologiako eta Filosofiako irakasleak, ikasleak, hiriko agintariak eta kristau sail handia. Larramendik elizako pulpitu batetik egiten zuen lehen predikua zatekeen hura, edo lehenetakoa. Horregatik diogu orduko apaiztua behar zuela izan.

Larramendiri ez zitzaion itzuri puntu bat bere hitzaldi ederrean: erregina zendua ere abenduaren 25ean sortua zela, eta haren jaiotegunaren goresmenak berearenak

ere bazirela: "Abenduaren 25ean sortu zen, zuzentasunaren eguzkia Ama Birjinaren sabel distiratsutik jalki zen egunean". Hurrengo urtean beste sermoi bat egin zuela, Hernanin gainera, berak kontatzen digu, hau latinez ez, noski, baina euskaraz ere ez, dirudienez: "La Junta General ordinaria de mayo se celebró aquel año en la villa de Hernani, donde me hallé y tuve la honra de predicar a la Junta y oportunidad para saber lo que sucedía en ella y sus consecuencias" (*SFG*, 302).

15. Gure kontuen arabera 1717ko udaren hasieran amaitu zuen Larramendik teologiako azken ikasturtea, laugarrena, eta ondoren Lagundiko usuarioei jarraituz Hirugarren Probantza deritzagun urtea egitea zegokion. Bakanak ziren lege hori hausten zutenak, bienbitartean beste eginbide batzu txertatuz eta hainbestez Hirugarren Probantza atzeratuz. Bakan horietako bat izan zen Larramendi. Ikus nola jarraitzen den hilberri emalearen kontakizuna: "Luego entró a Pasante de Teología y Maestro de Artes, en lo que duró tres años, admirado ya de todos. Y tuvo, como es costumbre, sus Actos menor y mayor de la Orden en aquella famosa Universidad; pero con tal despejo y aplauso, que hasta hoy dura su fama, y es voz común de todos, y lo fue, que ni antes ni después, ni en las religiones ni fuera de ellas, no vio la Universidad de Salamanca actuante más agudo y brillante en sus aulas".

Eta ondoren, ez lehenago, hauxe dio: "Después tuvo su tercera probación por un año..." (*Autob.*, 303). Beraz teologia amaitu bezain laster "pasante —alegia, re-pasante— de Teología y Maestro de Artes" hiru urtez. Urte hauetako katalogoak pixka bat hobeki dabilta eta 1720koak honela dio: "...Recoluit 2 (annos) et docet Philosophiam", hots, irakasle nagusiaren laguntzaile izan zela, haren ikasgaiak ikasleei errepikatzen eta laburtzen zizkielarik.

Tellecheak behin bere harridura agertu zuen aita Larramendiri inoiz Unibertsitate mailako batere titulurik itsasten ez zaiolako: "...nunca se asigna grado alguno académico al P. Larramendi, ni siquiera consta un bachillerato en quien será llamado a boca llena Padre Maestro" (*Autob.*, 297). Hala da eta mirestekoa da, baina arestian entzun dugu "Acto menor y mayor" izan zituela Salamankako "Unibertsitate famatu hartan", eta lehenago esan zaigu Medinan ere filosofia amaitzean "fue graduado por ser primero de curso, y tuvo el Acto mayor en filosofía...".

Horrez gain, jakinik batetik jesuiten *Ratio*-ak dioela "Nostri ad magisterium vel doctorandum promovendi essent, cum docturi sunt philosophiam aut theologiam ob maiorem auctoritatem" (84. or.), eta ikusirik bestetik teologiako "saio handi eta txiki" horiek ez zituela izan mundu guztiak ikasten zituen teologiako lau urteen bitartean, ezpada horien ondoan oso lagun gutxi pasante gisa egiten zituzten beste hiru haietan barrena —1718an eta 1719an (*Autob.*, 79-83)—, bidezko dirudí pentsatzea bazuela Unibertsitateko tituluren bat.

Saio handi edo "Actus maior" horri nagokiola puntu butsal bat argitu nahi nuke. Amaieran Larramendik erantsi zion bertsoari buruz honela dio Tellecheak: "Es una rara muestra poética de Larramendi que refleja su posesión de la lengua latina, aunque la perspicacia de L. Michelena descubra algún pie cojo en su último verso" (*Autob.*, Intr., xxv). Bai, azken bertsoa hanka motza da, baina garbi dago ez dela Larramendiren erruz edo gutxi jakitez, ezpada bertso horiek orijinaletik liburura bitartean egin duten bideko lagun baten ezaxolaz, ezen bertsoaren "potoa" bezain nabaria da berorren jatorrizko molde zuzena. Larramendik ez zuen bertso hori horre-

la ondu —“...ediditque melos”—, baizik honela: “Audiit hoc orbis, edidit atque melos”. Egingo nuke lepoa. Eta gero okertu zion, auskalo nork.

16. Amaitu du Larramendik Lagundiko ikaskuntzen ibilbide luzea eta 1720garren urteaz gero ez da gehiago. Tellecheak dioskunez (*Autob.*, 291). Unibertsitatean matrikulaturik ageri. Hirugarren Probantza delakoa egitea falta du soilik: “Después tuvo su tercera probación por un año, según el uso de la Compañía de Jesús, en el Colegio de San Ignacio de Valladolid” (*Autob.*, 303). Garizuman kanpora atera ohi ziren apaiz lanetan aritzera, herri batean misioa emanaz, bestean igandeetako predikuak eginez eta nonnahi ordu pilo batean aitortzak entzunez. Larramendik bere lehen apaiz saio horiek non egin zituen ez dakigu.

Eskolario —hala esan ohi zuten euskaldun zaharrek— izatea utzi eta bizimodu berriari ekitera doanez gero, merezi du eman dezagun laburki Larramendik gure usuez Lagundian sartu zenetik honaino urtez urte ibili duen bidaldi luzearen berri:

1707-1709: Nobiziadua Villagarcian.

1709-1710: Gramatika irakasle han berean.

1710-1713: Filosofia ikasle Medinan.

1713-1717: Teologia ikasle Salamankan.

1717-1720: Teologian pasante eta Filosofia irakasle.

1720-1721: Hirugarren Probantza Valladoliden.

Hogeitamaika urte ditu orain. Aritu da hiru urtez irakasle lanetan, baina inoren babesean eta mendean, haren manura eta esanera, gero bere gisa aritzeko lehen saio koxkorrak egiten. Ez dirudi bere egitekoa gaizki bete zuenik: balio zuela irakaskuntzarako eta, hirugarren probantza delakoa amaitu bezain laster, Filosofia berri besterik hiru urte irakastera bidali zuten, orain beste ikastetxe batera: “De aquí pasó al Colegio de Palencia por Maestro de Provincia y en él enseñó Filosofía a los jesuitas y se hizo más célebre” (ibid.). Garai honetan inon sermoirik egiten eta geroko predikari fama handia irabazten hasia zenik ez dakigu. Geroagokoak dira egin zituela guk dakigunak eta guzietan lehena han bertan, Palencian, egin zuena, baina geroxeago Salamankatik joanda. Izan ere, Palenciako hiru urte horien ondoren Salamankara joanerazi zuten agintariek: “Y acabado su trienio, fue destinado a Maestro de Teología en Salamanca y duró enseñándola allí algunos tres o cuatro años...” (ibid.).

Hori 1724eko udan gertatu bide zen, zeren urte horretako azaroan Salamankan egin baitzuen Felipe Vgarrenaren seme Luis Ienaren —hamazazpi urte zituela Toledon hilberriaren— hiletetako hitzakdia latinez, bai eta katabutaren inguruan ezarri ziren olerkietako bat ondu ere euskaraz, gero *El imposible vencido*-n sartu zuena eta *Euskera* titulua daramana.

17. Urte horietan, 1724-1728, jo zuen gailurra Larramendiren famak Salamankan, irakasle nahiz predikari zen aldetik. Horretan bat datoz guztien lekukotasunak eta ez dirudi gezurretan ez eta handikeriatan ari direnik. Hilberri emalleak honela dio:

En el poco tiempo que vivió en el magisterio de Salamanca fue predicador del Real Colegio como Maestro; y en ambos ejercicios que unió en sí y a un tiempo, cobró tal fama y fue tan celebrado, que era reputado por el hombre más famoso en la cátedra y en el púlpito a juicio de todo el mundo. Y la Universidad, la Catedral, los Colegios mayores, las Religiones, el Clero y el pueblo, todos le miraban como a un monstruo y un oráculo (ibid.).

Berak ere bizitzako azken urteetan idatzi zuen *Autobiografía* delakoan, honela dio:

En Salamanca fui tan celebrado, que no conocieron antes ni entonces otro que hubiese tenido mayor ni igual aceptación, dentro ni fuera de la Universidad. En el ministerio de Maestro me llamaron *azotafrailes*, y sin embargo me llevé todas las aclamaciones, a pesar de cien indigestiones domésticas, que siento no decir las. Yo fui el que mantuve el ardor y emulación honrada escolástica, que hacía estudiar a todos en las comunidades; y desde que salí y falté de allí, ha faltado aquel ardor y aplicación. Así me lo dijeron el P. Tobar y Zárate, provinciales, y el Rmo. P. Vidal, provincial también de los Agustinos (*Autob.*, 3).

Hori Unibertsitateko eskolei dagokienez, *Azotafrailes* delako hori nola adi? Orduko eta lehenagoko fraide ziren zenbait irakasleren iritziak eta usteak eta teoriak inarrotzen eta makilatzen zituen nonbait.

Garai hartan egin zituen predikuei dagokienez, berriz, honela mintzo da ondoren:

En el ministerio de predicador, pongo por testigo a todos los de Salamanca, que aun el día de hoy se acuerdan que, a cuantas partes iba a predicar, allí iban a oírme cuantos podían, de todas clases; y no dirán que les predicaba flores (*Autob.*, 4).

El imposible vencido atera zedin libururen alde iritzia eman zuten Jose de Larumbe eta Juan Domingo de Arzac jaunak ere ez ziren goresmen eta laudorioetan urri eta exkax izan. Bi horietarik lehenak esan ondoren liburua egiten Larramendik enplegatu zituela soilik "muy breves ratos, que pudo usurpar a más altas tareas", honela dio gero:

pues en la Cátedra de Theología, que años ha regenta, y en el púlpito, a que le precisan sus talentos, y los molestos encargos en las funciones más plausibles, ha sabido merecerse universales aplausos de este Theatro tan sabio y crítico; porque son tan sobresalientes sus prendas para uno y otro ministerio que solo deja la duda, si en alguno se excede a sí mismo (Larramendi 1729).

Bigarrenak berriz honela:

...sólo dedicó a ella los desperdicios del tiempo, que le permiten las tareas de su magisterio, en que se emplea con los créditos que Salamanca sabe y publica, sin negarse a repetidas funciones del púlpito, donde logran sus singulares talentos univesales aclamaciones.... (*ibid.*)

Hori horrela izanik, ez gara harritzen 1726an predikari nagusi eta ofizial izendatu bazuten erret-ikastetxean, eta urte beraren irailean aita Sebastian Manjón-ekin batean misioak eman bazituen hamabost eguncz Palenciako hiru herritan. Hiru hilabete geroago Xabierko Frantziskoren festa eguneko sermoia ere egin zuen, abenduaren 3an ez ordea, ezpada 20an, Larramendi eri gertatu eta atzeratu behar izan baitzen. Ez dakigu noiz izan zen, orduan ala hurrengo urtean, Valladolidtik hartarakoxe apropos joanik, berak honako hitz hauetaz kontatzen diguna:

quando prediqué en Salamanca la Cuaresma como un apóstol, según decían, pensé que estaba sumamente desengañado del mundo.... (*Autob.*, 18).

18. Ikusi dugu nola 1717an, apaiz eginberritan, sermoia egin zuen Hernanin Junten batzarrean. Beste ihesi batzuk ere egingo zituen dudarik gabe Euskalerra aldera, batez ere apaiztu ondoren, lehenago nekez, eta egin zituzkeenak ere labur eta presakakoak. Laster ikusiko dugu Gramatika argitaratu zuenean ere deitoratu zuela Euska-

lerrira nahi baino gutxiago etorria. Bidaldi baten berri orain ikasi dugu Bizkaiko Diputazioan gorderik dagoen Larramendi beraren eskutitz bati esker.

1727ko uda ondoan egina da. Hortik dakigu uda hartan Bilbo inguruan ibili zela eta Hernanin ere bai, dirudienez. Atzera Salamankara joan eta handik idazten dio Andrés de Ansotegui —hori ote da *Fueros de Guipúzcoa* liburuan (307. or.) aipatzen duen “don Andrés Ignacio de Ansotegui, caballero de la Orden de Calatrava y superintendente de las rentas reales de Cantabria, a quien entonces traté mucho y después más”?— Bilbora, esanez gogojardunak egiten ari zela “recobrando el espíritu esparramiado por esos cerros” eta haruntzakoan “vi en Medina a nuestro Gabriel, que está bueno y ganoso de hacer viaje a Vizcaya...”. Gabriel hori itxura guzien arabera aita Gabriel Barco da, bilbotarra, zenbaiten ustez Larramendi hiltzean honen hilberri emaile izana, izenik gabe lan honetan dagoeneko hainbeste bider aipatu duguna.

Geroko izkribuetatik ezagutzen dugun Larramendi berbera agertzen zaigu gutun honetako leerroetan. Mesede bat eskatzeko idazten dio Ansotegui jaunari:

para embiarme el chocolate que quedó ahí, y el de Hernani, si acaso le han embiado, con los seis saquitos de polvos y seis cajas de jalea, que dejé en poder de aquel Arzac. Y sea cuanto antes, porque estoy hecho un Adán y un pordiosero, que pide por las mañanas una xícara de chocolate de puerta en puerta, oyendo tal vez 'Dios le socorra, hermano' que estas Maestras llevan nuestros Colegios.

A ze eztenkada azken hitz horiek! Maisu ospetsu eta irakasle handi eta Ordenako elkarren anaiak, baina zerbait eskatu eta ‘tirrit’. Eta zer esan Larramendi goizero atez ate txokolate eske ikusirik! Lanak ditu sinisteak Larramendi horrek berorrek urte batzuk geroago honako hitz hauek idatzi zituela: “¡Maldito chocolate, que tienes perdida a mi Provincia!” (*Autob.*, 50).

19. Salamankan arrakastarik handiena uztatzen eta esku zatarik beroenak jasotzen ari zenean, agintariek handik atzerazi —ez dakigu zergatik— eta Valladolida igorri zuten. 1728ko udan ene ustez, hango teologia fakultatean irakasten jarrai zedin. Han izan zuen ikasle aita Kardaberatz (*Autob.*, 300). Hilberri emaileak honela dio: “También fue Maestro de Teología en San Ambrosio de Valladolid, aunque poco tiempo” (*Autob.*, 303).

Bai, denbora apurra, baina ez antzua eta agorra. Salamankan aurreko lau urteetan zain handiak bota zituen eta, Valladolidko ikasleei ematen zizkien eskolez kanpo, sarrir deitu zuten urte hartan Salamankatik ekintza akademikoetara nahiz elizakoetara. Hala badakigu bere ikasle izana zen jesuita baten agiriko ekitaldi batean mahaiburuko izatera joan zela otsailaren hasieran eta hilabete geroago esenplu zeritzan sermoia egitera (*Autob.*, 293. oh.). Urte bereko San Inazio egunetz Loiolako santuaren goresmenak eta laudorioak berak kantatu zituen Meza nagusiko sermoian. Hurrengo urtean Martxoko Ama Birjinaren festa eguncan, 25can, ikasle kongregantei egin zien prediku bat (*ibid.*).

Baina ekintza horien gainetik Larramendiren beste orduarte ezagutzen ez zen alderdi bat agertu zen urte hartan, etxeko eta auzoko lagun askoren begirada harritarren aurrean: euskalzaletasuna. Ez dakigu noiz eta nola euskalzaletu zen, baina itxura guzien arabera Euskalerritik urrutu egin zen, Gaztelau aldean; beraz gizaseme heldua zelarik. Ez dakigu ere norik eta zerk piztu zuen haren bihotzean grina hori, baina ez

dirudi etxeko inork —beste jesuita zaharrago batek, esate baterako— begiak zabalerazi zizkionik.

Gehiago dirudi berak zabalerazi zizkiola begiak bere buruari, barneko bilakaera luze baten ondorioa izan zela, kanpoko zenbait gertarik eta erasik laguntzen ziotela, noski: euskara “*lingua bárbara e inculta*” omen zelako aita Marianaren hark, Madrilen ‘diarista’ izeneko Mayansek, Armestok eta bestek Espainiaren Akademian babesturik euskararen kontra esaten zituztenek, eta azkenik, ez gutxiena beharbada, etxeko zenbait anaia jesuitengandik behin baino gehiagotan entzun beharko zituen erdeinuek eta isekak, euskarak gramatkarik ez omen zuelako, literatur hizkuntza ez omen zelako, eta abar. Larramendiren izaerari ongi dagokio inguruko —hurbileko nahiz urruneko— giro txarraren eta jazarbidearen aurka jaikitzea eta hala egunen batean sumindurik, Teologia irakasle izatea utzi gabe euskararen alde ahal zuen guzia egiteko erabakia haru izatea.

Urte hartan *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España* liburua argitaratu zuen. Espainian hizkuntzarik zaharrena eta antzinako garaietan lurralde guzietara zabaldua euskara izan zela frogatu nahirik. Hurrengo urtean eman zuen argitara egileak berak eta ondoko guziek lichen euskal gramatikatzat eduki izan duten *El imposible vencido*, ez lichenago inork besterik egin ez zuelako, egin baitzuen nahiz hori Larramendik ez zekien, baizik argitara eman gabe gelditu zelako. Entzun ditzagun bere hitzak: “No he tenido guía que vaya delante y me dirija, me ha sido preciso romper el camino...” “Es obra de muchos años, no sólo por las dificultades intrínsecas, sino también porque no ha podido ser el principal asunto de mis tareas”. Bi xedek bultzatu omen zuten lantegi horretara: “...la pasión de ennoblecere e ilustrar nuestra lengua y por este lado acreditar a la Patria”, eta “...el gran bien y utilidad que de esto se ha de seguir a todo el país del bascuence. Allí es necesaria esta lengua, sirviendo muy poco el romance para el común de la gente...”. Deitoratzen du liburuan barrera zenbait hutsegite itzuri izana: “no he podido corregir algunos defectos, que reconozco en esta obra, por estar lejos del País, donde pudiera instruirme más” (Prólogo).

Guri hemen aski zaigu Mitxelenaen hitzak entzutea: “*El imposible vencido* es en su brevedad una descripción clara y suficiente de lo esencial de la estructura de la lengua vasca, en la que se tienen en cuenta tres dialectos” (Mitxelena 1960: 97). Bi liburu horiek Larramendik “en los muy breves ratos que pudo usurpar a más altas tareas” ondu zituela esan digu Jose de Larumbek, baina lanak ditu sinesteak gramatika hori txolarteetan eta denbora pasako aldi apurretan egina dela. Hermanitik hamaika edo hamabi urte zituela atera zen mutiko hark ordu piloa sartu behar izan du nahitaez urmetango euskara berreskuratzen eta euskararen egiturak aztertzen, inork irakatsi gabe halako gramatika ia “*ex nihilo*” atera ahal izateko.

20. Valladoliden bi ikasturtez eskolak eman eta hirugarrenari ekin berria zelarik, Larramendiren bizibidea arras aldatuko zuen gertari ustegabeko batek inarrosi zituen bera, bere adiskide eta arerioak, bai eta haren agintariak ere. Hauek baino goragoetik etorri baitzen agindua eta ezin jazarri izan baitzitzaizkion. Guztiz laburki —ezin laburkiago— kontatzen ditu Larramendik gertaria eta arerioen harridura: “Llevóme la Reina a Bayona y les pareció a los indigestos, y no tales, cosa de encantamiento...” (*Autob.*, 4).

Zerbait xehetasun gehiago erasten dio beste izkribu batean:

Quando la Reina escribió al Confesor (aita Larramendiri berari, alegia), llamándole a

Bayona, puso la carta en manos de los superiores, y también a sí mismo con total resignación en la obediencia. Los superiores le mandaron marchar y servir su empleo y salió con patente de la obediencia, como si le mandaran ir de un Colegio a otro (*Autob.*, 92).

Erregina ohiak, Mariana de Neoburgok, ez ezik, haren iloba errege Felipe Vgarrenak ere idatzia izan behar zion eskari bera eginez: "...y por ese mismo título me mandó Felipe V que fuese a servir a su tía" (*Autob.*, 5). Esan behar 1731garren urte hasieran, katalogoa atera zenean, ez zekitela oraindik zer egingo zuen Larramendik eta non kokatuko zen, ez baita katalogo hartan Probintziako ezin etxetan agertzen; ondokoan berriz "extra Provinciam" bizi omen zirenen artean sartu zuten.

Loiolako artxiboko karta batek Larramendiri heldu zitzaion mezu horren berri ematen zuen Donostiatik: "...Este correo avisan de Valladolid que al P. Larramendi le a llamado la Reyna Viuda, que está en Bayona, y se discurre sea para su confesor, pues despidió al Barco que tenía consigo; no sé lo que harán", idatzi zion anaia Rafael Sarraoak Loiolako anaia Vergarari. Gutun hori 1730eko azaroaren 17koa da; beraz urte horren bukaeran edo hurrengoaren hasieran joan zen Baionara. Garizuman han zela bakakigu: "Prediqué tres cuaresmas, cada semana dos veces, a la española, acabando con el cristo a la mano,..." (*ibid.*).

Valladolidtik aldegitan, eskolak ematen hasi eta bi hilabetera edo, iadanik ikasleak erdi txoratuak zeudenean halako maisu bikainarekin, aho bete hortzekin utzi zituen. Ez dakigu nor izan zen orduan ordezeko maisua, baina hurrengo ikasturtekoa bai, aita Gabriel Barco. Ez da harritzeko, zeren orduarte Larramendiren laguntzaile izan baitzen hango '3. katadera' zeritzan hartan. Hori esan nahi dute hor goiko hitz horiek: "despidió al Barco que tenía consigo", hots, Baionara joateko katadera uztean, bere laguntzaile izatetik jaregin zuela aita Barco. Agintarick, ordea, hurrengo ikasturterako bera izendatu zuten maisu. Ez dago esan beharrik aita Gabriel Barco horixe dela, lehen esan bezala, Larramendiren heriotza ondoko hilberria idatzi zuena askoren ustez.

Arerioak aipatu ditugu hor goian eta Larramendik "indigestos" deitu ditu eta, zer esanik ez, etxekoen eta jesuiten artekoak ziren arerio horiek. Aski ankerrak, dirudieenez, Larramendiren hitzak sinesten baditugu: "No son de creer los resortes y medios indignos de que se valieron para sacarme de los pies de la Reina" (*ibid.*). Hiru urteren buruan, Baionatik atera eta Loiolan bildu nahi izan zuenean ere, Larramendirekin nola aritu ziren ikusiko dugu.

21. Baionan erregina ohiaren aitortze lanetan igaro zituen hiru urteen berri hemen ematea ezinezko arloa litzateke. Tellechea jaunak argitara zuen *Autobiografía* paregabea irakurtzea duzu hobereana; ez zaizu damutuko, baldin Larramendizale bazara. Gizonaren kemenak eta ausardia! Idazlearen gauzak kontatzeko indarra! Maisuaren eztabaidan aritzean arrazoiei punta ateratzeko buru argi- eta zolitasuna!

Neri puntu batzuk agerian ipintzea dagokit soilik, eta ezer baino lehen, eman zitzaion karguaren handitasuna. Ez zen edozein igotzen hain gora. Zeinen gora, berak diosku poliki: "...hallándose de Confesor de la Reina, me hallaba en un término que ya lo era de graduados⁴, Provinciales, Obispos, etc..." (*Autob.*, 19).

(4) Ez ote zen, bada, "graduatu"?. Ikus gorago esana, 11. orrialdean. Ez baitzen Probintzial eta Apezpiku ere. Arrazoinamendua hau dela esan behar: "ez nintzen horietako ezer, baina ez eta behar ere. Erreginaren aitortze izanik, gehiago bainintzen".

Erreginaren ez ezik, haren etxean bizi ziren guzien aitortle eta arimen arduradun ere bazen, eta ez ziren guixi; orduko —eta oraingo— zenbait herrixkatakoto biztanleak adina. Mila lagun pasa, alafedea, morroien eta neskameen, korteko andereen eta zaldunen, izkribau, mediku eta gainerako zerbitzarien artean: "...en 26 años no se había oído un sermón ni una explicación de doctrina a la familia real, que pasaba de mil entre hombres y mujeres" (*Autob.*, 5).

Eskerrak artalde hura zaintzeko bazuen Larramendik laguna, hemendik apropos eramana, aita Domingo Elemendi lekeitiarra, Bien artean banatzen zituzten elizako eginkizunak, mezak, sermoiak, aitorzak, eta abar.

Larramendik Baionako hiru urteen berri ematen duen hogeitortietan barrena ez du behinere aipatzen euskara, ez eta iparraldeko euskal idazlerekin harremanik izan zuen kontatzen ere; baina horrek ez gaitu batera harritu behar, ez eta ez digu pentsarazi behar kasu honetan isiltzeak ez izatea salatzen duela. Inondik ere ez. Aski da gogoan hartzea noiz eta zertako idatzi zuen bere *Autobiografía*, eta bertan aitortu beharko dugu hor euskararekiko kontuak alfer zirela, eta ez bere burua zuzitze-ko lagungarri.

Ez du ere, esate baterako, Baionako apezpikuaren izena aipatzen, nahiz liburua- ren lehen orrialdeek erakusten diguten harekin izan zituela harremanak. Eta ez zen edonor euskara eta euskal literatura maite zituenez: Pedro Guillermo de Lavieuvville, alajaina, euskal katexima famatuaren egilea. Badakigu gainera katexima hori —horiek, hobeki esan, bi atera baitziren, luzea eta laburra— bere eskuratu zitu-ela Larramendik eta hil arte gorde berekin. Beraz isiltasuna gorabehera, esan deza-kegu aita Villasantekin batean: "Iparraldeko euskal literatura aski ongi ezagutzeko aukera izan zuen..."⁵.

Aski ongi, bai, eta Lavieuvvilleren katexima ez ezik, iparraldeko beste liburu mordoxka ere beretu zuen. Loiolako gelan hiltzean zituen eta argitara eman nuen li- buruen zerrendan ageri denoz. Galdera bat hala ere: bai al zekien nor izan zen Etxe- pare? Etxeparerik izan zela bai al zekien? Ez baitu aipatzen eta Leizarragarena baita ematen duen lehen euskal liburu.

Etxepare bat izan zela ez jakitea ere, bestalde, oso harritzekoa da. Sarako Etxebe- rri, Azkoitiko medikua, Loiolako jesuitena ere izan baitzen, Larramendi han bizi izan zenean. Eta nolatan ez zion esan Larramendiri bere Hiztegiko zerrenda zuzen- tzea hobezuela, euskal literatura ez zelako Leizarragaz hasten, baizik Etxeparez? Ala Sarako Etxeberrikeri ere Etxepare izan zenik ez zekien? Ala Larramendik ere jakin bai, bazekien, baina haren bertsoak lizunak edo zirelako, ez zen ausartu —edota ez zion gogoak eman— liburu hura eta egile hura aipatzea?

22. Bere 'jabca' —hala deitzen du gazteloz erregina ohia, "mi ama"— bizia arriskatuz ere defendatzeagatik Sevillara egin zuen bidaia eta han Erregeren kortean gertatuak hemen kontatzeko baino hobekak dira filme batean ipintzeko —"lances que ni aun se ven en las comedias" (*Autob.*, 21), berak esanda—. Ez litzateke batera fil- me aspergarria. Guretzat ondorio on bat izan zuen bidaldi hark: "En Sevilla determi- né el retirarme" (*Autob.*, 18) edo, geroxeago dioen bezala, "empeñado en dejarlo todo y retirarme a un rincón" (*Autob.*, 19), eta txoko hori Loiola izatea suertatuko zen laster.

(5) Hala dio Lavieuvville-ren *Bayonaco Diocesano Bigarren Catichimu*-ren edizio kritikoan (L. Villasante arg., "Euskararen lekukoak", 11. Euskaltzaindia, Bilbo 1985, 8. or.).

Horretarako ordea ia gudukatu behar izan zuen hiru etsairekin; lehenik 'bere jabea'-rekin, hau jiluratua, are txoratuua baitzegoen bere konfesariarekin —"yo le he querido tiernamente, me ha correspondido más que si fuera hijo mio" (*Autob.*, 20)— eta ez baitzion inola ere aldegiten utzi nahi. Gero etxeakoekin: "...escribí desde Bayona a nuestro Padre Provincial, al P. Miranda y al P. Losada. Respondieronme alborotados..." (*Autob.*, 19). Eta azkenik auzokoekin: "Descubríme con el Obispo, con el Guardián de San Francisco, consultor de la Reina, y con Mr. Brethous... Resistieronme y desaprobaron mi propósito fieramente" (*Autob.*, 20).

Etxekoak ordea okerrenak, erregina ohiak esateraino: "Por más políticos os tenía yo, que aun después de tres años y tantas pruebas y experiencias y mi informe sincero, os pintan con la envidia y ruindad que al principio... Con tales sujetos no lo pasaréis bien en vuestra Provincia; mejor será que viváis en otra" (*Autob.*, 23). Eskerrak Larramendi gizon gogorra zen eta erregina ohiaren aholkuari muzin egin zion: "Confieso que tuve tentación de seguir este consejo, pero la vencí con la gracia de Dios" (*ibid.*).

Luzamendutan zebilkion 'jabea', ordea, jaregiteko baimenik ez eman nahirik, eta onez ezin zuena txarrez egitea erabaki zuen azkenean: "...no había modo de despedirme ...Quítame de cuentos... Madrugué por la mañana y metido en el coche, ya estaba en S. Juan de Luz para cuando la Reina me llamó. Cuando lo supo, volvió a sus quejas, gritos, suspiros, que luego me los escribieron. Mi compañero (aita Elementdik, alegia) lloraba como un niño; yo no sé lo que es llorar, pero tuve grande sentimiento y ayudóme Dios a vencerle" (*Autob.*, 24). Irailcan edo urrian gertatu bide zen Larramendiren ihesa.

23. Erregina ohiarekiko borroka irabazia zuen hainbestez, baina gogorrena eta txarrena gelditzen zitzaion oraindik; etxeoketikoa. Eskerrak, zer gertatuko zitzaion aurretik igerririk, Erromako aita Jeneralagandik erdietsia zuen orduko, Baionako eginbidea uztean berak hobekien iritziko zion edozein probintzitako edozein etxetan bizitzeko baimena.

Horixe ez zioten, ordea, bertako agintariek eta kidekoek opa: gogoak ematen zion lekuan edo txokoan euskarazko txorakerietan urteetan zehar aritzea, Salamankan lehen bezala eskolak eman ordez: "...que no podía yo salir con honra, sino para el grado de Salamanca, y que esperase un año hasta que se dispusiese el teatro" (*Autob.*, 19), hots, harik eta hango gauza batzuk aldatu eta harentzat tokia egin arte; eta hala Baionatik Donostira iritsi zenean, ez zioten berak nahi zuen tokira joaten utzi nahi: "Siete meses me detuvieron en San Sebastián, sin oficio ni beneficio, con el pensamiento de llevarme a Salamanca, hasta que escribí a Nuestro Padre (Erromako Jeneralari, alegia) lo que pasaba; y entonces me dejaron ir a Loyola, diciéndome el Provincial Prado: "¿Soledad quieres? Pues soledad tendrás" (*Autob.*, 25). Horra zergatik 1734eko katalogoan Larramendi agertzen den Donostiko ikastetxean bizitzen; maiatzean edo joana izan behar zuen erabat Loiolara.

Zerk darama ordea Larramendi Loiolara? Guk bere ahotik entzun nahi genukeen erantzunik ez du inon ematen, baina hitzek baino hobeki erakutsiko digute bere Loiolako egintzek eta lanek zertara joan zen hara.

Hitzei sinetsi behar badiegu, munduarekiko nazkak, higuinak eta etsipenak bulztatu zuten Loiolara. Bere *Autobiografía*-n Baionatik aldegitako asmoen berri emateko puntura iristen denean, 24garren atal laburra honela izenburutzen du: "Empiezo a

pensar en retirarme al confesionario" (*Autob.*, 18). Sineskaitz gertatzen zaigu, egia csan, Loiolara biltzeko arrazoi eta xedea hori izan zuela.

Ondoren honela dio: "Cuando prediqué en Salamanca la cuaresma como un Apóstol, según decían, pensé que estaba sumamente desengañado del mundo; pero cuando lo traté de cerca y de dentro, conocí que el desengaño que se saca de los libros es como pintado solamente en comparación de estotro desengaño" (*ibid.*). Hori bai, hori sinesgarriago da, Erregina ohiaren kortean ezagutu eta ikusi dituen gizon-emakumeen hantusteez eta handinahiez eta azpilan zikinez higuindua eta okatua egotea. Berrogeitalau urte bakarrik ditu, ordea, eta ezin dezakegu pentsa, nazkak eta etsipenak bultzatu badute ere Loiolara, han eskuak antxumaturik eta konfesionarioan egun osoan sarturik egotera doala. Ondoko urte zaratsuek erakutsiko digute hori pentsatzean ez gabiltzala oso oker.

24. Salamankako katadran eta pulpitoetan bost urte lehenago bezala berriz bil zitzakeen txaloei eta goresmenei muzin eginik Larramendi Loiolako txokora bizi guz irako heldu zen eguna zinez egun handia eta pozgarria izan zen euskararentzat eta euskaldunontzat. Tellechea jaunak badirudi hein batean deitoratzen duela Larramendik bide hori hartu izana, Salamankan irakasle famatua, bere mendeko handienak bezain handia, izatera iritsi zitekeelarik eta bere ondoren betiko iraungo zuen obra larria eta pisua utzi zezakeelarik:

No se atrevo, dio Tellecheak, a reiniciar su carrera universitaria, y con ánimo decidido recusa la tentación y el futuro brillante al que le empujaban sus propios Superiores. Esta circunstancia decide definitivamente su vida y la marca con el sello de la frustración. Larramendi es en buena parte un gigante frustrado (*Corografía*, viii).

Bai ote? Larramendiren beraren ustez ere bai? Halakotzat ote zeukan bere burua, Salamankan egin zezakeenaren eta izan zitekeenaren truke Loiolan egin zuena ikusirik? Bere gogoz eta jakinaren gainean utzi du, barren, bertan behera Salamankako distira eta arrakasta!

"Pudo ser", dio gero Tellecheak, "un Losada, un Calatayud, un Rávago, un Masdeu, un Isla, un Hervás, por no mencionar sino a otros jesuitas contemporáneos, que pasaron a la posteridad ligados a una especialidad del saber". Bai, horiek guziak izan zitezkeen Larramendi, nahi izan balu, baina Larramendik ez zuen horiek guziak izan nahi izan. Bere "especialidad del saber" (*ibid.*) euskara izan zedin nahi izan zuen, eta izan ere izan zen. Nik horregatik maiteago ditut Mendibururen hitzak, bere lehen libururen hitzurrean esaten dizkigunak: "Zori onean utci cituen Valladolidco ta Salamancaco cathedrac, baira Españiaco Erreguinaren confessorarioa ere. Oriec utci ta bere Aita San Ignacioren echera bildu ezpaliz, ecin eguin citzaquean aguertu dituen euscararen gañeco bere bi libru andi ederrac"⁶, hiztegiaren bi tomoak, alegia.

Bestela esan: nik Salamankako "Padre Maestro Manuel de Larramendi" baino maiteago dut Loiolako eta Gipuzkoa osoko jendeek izendatzen zuten "aita Manuel". Horregatik aitortzen du Tellecheak gero ezinbestean: "Guipúzcoa recuperó a Larramendi, sin duda el hombre que más ha amado a su Provincia. Y Larramendi volvía a Guipúzcoa, a la que consagró por entero los últimos lustros de su vida (*Corografía*, Intr., ix). Gipuzkoari eskaini zizkion, bai, baina Gipuzkoaren bitartez Euskalerrri osoari eta euskarari. Arrazoi osoa du horrexegatik beste pasarte batean (*ibid.*, xxviii) idazten duenean: "...el nombre de Larramendi figura con honor indisputado como el

(6) Mendiburu, Sebastián, *Jesusen Biotzaren Devocina*, "Iracurleari" deritzan Sarrerakoan.

artifice máximo de esta renaixença euskérica...". Egin al zezakeen beste horrenbeste Salamankatik?

25. Hor dugu azkenik Larramendi hainbat irrikatu duen Loiolan. Ongi kostata, egia esan! Zerbait lagunduko zion seguru asko aita Pradoreen ordez Probintziburua izendatu berria zen aita Francisco Mirandak, bere aspaldiko lagun minak.

Hogei jesuita bizi ziren orduan gutxi gorabehera Loiolan. Jakina, 1734eko Loiola egungo egunekoaren erdia baino txikiagoa zen, nahiz berrogei urte baino gehiago zen obrak hasi zirela. Hogei lagun haietatik dozena bat euskaldunak ziren: hiru nafar, arabar bat, bizkaitar bat eta zortzi gipuzkoar. Bazuen norekin mintza euskaraz, baldin Erretoreak uzten bazien, hau Kadizko andaluziarra baitzen, alafede: aita Juan Escon. Badakigu zein gelatan bizi izan zen hogeitamabi urte haietan: sortaldera, Ernio aldera, jotzen duen etxearen kantoikoan, bigarren bizitzan, gelak zituen bi leihoe-tako batetik Azeptia eta bestetik Oñazko kaskoa ikusten zuelarik. Bi egoitza handixko zituen gelak: bata lanerako eta bestea lotarako. Hantxe bizi izan zen hogei-tamabi urte handiz.

Hirualdi edo hiru aro bereiz daitezkeela uste dut garbiri, bakoitza hamar urtekoa gutxi gorabehera, Loiolako egonaldi luze horretan. Lehenean eta hirugarrenean ordu gehiago eman zuela esango nuke etxean auzoan baino, gutxiago atera zela eta gehi-go lan egin zuela. Bi garai horietakoak dira bederen, eta ez bigarren garaikoak, Loiolako egonaldian ondu zituen liburu guztiak. Ez dugu esan nahi, haatik, bigarren txandan ez zuela lanik egin; egin zuen, baina etxetik kanpo gehiena, bada 1745etik 1754erako txandan Gipuzkoako arazo, auzi eta barikutze guzietan buru eta belarri sartua ikusten dugu eta bospasei konbentutako monjen bizimodua konpontzen. Ikus ditzagun, xeheki ezin izango badugu ere, hiru arlo horietako bakoitzean bururatu zituen lan nagusiak.

26. 1734-1745. Harrigarri gertatzen zaio haren *Autobiografía* irakurtzen ari denari nola, "Voy a Loyola" (*Autob.*, 25) ataltxoaren ondoan, eteten duen batbatean urteen araberako gertarien kontakizuna, eta nola, Loiolako lehen hamar urte haietaz zer kontu ez baleki bezala, txertatzen duen pasarte horretan liburuaren azkencan kontatzea bidezkoago irudikeena, alegia, nolako mesedeak eta abantailak ekarri dizkioten euskarari bere bizi guztiko lanek eta ardailek. Eta kontararen haria berriz hartzen duenean, 1745eko Oartzungo pasadizu bat jalkitzen digu, lehenbiziko hamar urteetan zer egin zuen jakiteko gogoarekin uzten gaituelarik. Pasarte horretan idazten dituen hitz laburrok bakarrik salatzen dute, ene ustez, urte haietako Larramendiren egitekoa Loiolan: "...en Loyola ninguno vive más retirado a su aposento" (*Autob.*, 29).

Zein izan zen, bada, Larramendiren eginbide nagusia urte haietan? Neretzat ez da dudarik, bere Hiztegia, 1745ean Donostian argitara eman zuena. Hori sinesteko aski da Hiztegi beraren hitzaurte luzean lehenbiziko zatia XXVIIgarren kapitulua irakurtzea, "De la gran dificultad que he tenido en componer este Diccionario", non kontatzen baitugu trebeki eta ezin hobeki zenbatetarainoko lanak eta nekeak, gatazkak eta ardaillak gainditu behar izan zituen bere harxedearen burutan ateratzeko: "Pensé luego en trazar el Diccionario que había ofrecido al público y contra toda mi expectación me hallé con dificultades casi invencibles". Egia, bai; Salamankan 1729an bere Gramatika atera zenean argitara, haren hitzaurtean agintzen eta iragartzen zuen

iadanik euskal hiztegia: "...Diccionario, que siendo Dios servido se dará también a la luz pública". Horrek pentsarazten digu, berak inon esaten ez duen arren, gutxienez hamabi urtetako gatazken eta ekinbideen fruitua izan zela Hiztegia. Berak "A la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa" hiztegia eskainiz egiten dizkion erroetan hauxe bakarrik esaten digu: "...el fruto de un prolijo estudio y tarea de muchos años".

Ez dugu pentsatu behar, izan ere, nahiz *Autobiografía*-n horretaz hitz erdirik egiten ez duen, ez eta euskaraz bera urte haietan ezertarako aipatzen, Baionan egon zen bitartean ez zela euskaraz batere arduratu; aitzitik badirudi hiztegirako beharko zuen mila informazio baliok bildu zuela. Hitzaurre berean aitortzen baitu, euskal hitz asko eta asko liburuetan ezin aurki zitezkeelako, "se hizo preciso el recurrir a todas las Provincias y adquirirlas de viva voz. Las he andado todas con sobrada fatiga, aunque algunas con más celeridad de la que quisiera, preguntando y apuntando cuantas voces oía para colocarlas después en las correspondientes castellanas". Eta ondoko erroetan espresuki aipatzen du Labort, eta esaten euskaraz eta frantsesez zekitenei egiten zizkiela galderak eta beheraxeago Lapurdi aipatu gabe aditzera ematen, ez zela hara —eta beste euskalki batzuetako herrietara— gehiago itzuli lehengo lana osatzera eta hobeki egitera: "...no he podido hacer ni repetir esta diligencia a mi satisfacción" (*DT*, § XXVII).

27. Larramendiren hiztegiak asko hitzegina da; ez beti ongi, gehienetan gaizki. Erdeinua gehiago jaso du estimua baino. Mitxelena honela idatzi zuen: "...su Diccionario ha caído en completo descrédito, y no sin razón, a causa de los sigilosos y arbitrarios neologismos" [...] "que en él sembró a manos llenas, aunque afirmó sin pestañear que sólo contenía tres voces de su invención" (1960: 97). Gero ordea hau erasten dio: "Sería injusto, sin embargo, que las deficiencias de su obra nos hicieran olvidar sus altos valores [...] La disposición del Diccionario (castellano-vasco-latín) es un pie forzado que le obligó a rellenar con neologismos los huecos sin traducción, pero una razón para ello [...] se halla en el deseo de Larramendi de facilitar su tarea a [...] los malos predicadores [...] que predicaban en castellano o en mal vascuence...".

Ez dago haatik dena esana eta azken urteotan gauzaren ezagupide handiagoaz mintzatzeraz ateratzen ari zaigu plaza erdira zenbait ikerlari gazte. Ez dut nik hemen gauza handirik esan nahi. Badira ni baino burupe handiagoko pertsonak, egun hauean hiztegiaren lausoez eta argiez mintzatuko direnak. Neri aski zait hauxe esatea Larramendiren alde, hor arestian Mitxelena esanak iruzkinduz: biderik zailena, malkarrena eta pikeena hartu zuen hiztegia egiteko. Geroko euskaldunen aurrean ongi gelditzea bakarrik nahi izan balu, atzekoz aurrera egin behar zukeen hiztegia: euskara-erdara-(latinezkoa). Mila katramiletatik libratuko zukeen bere burua. A!, baina hartara ez zituzkeen zenbait erdalduen aho handiren eta farregileren mihiak isileraziko.

Autobiografía-n, esan bezala, berak ez diosku deus ere lehen hamar urte haietan Loiolan egin zuenaz, ikasteaz landan: "trabajador incansable", "escritor continuo", bere hitzez esateko; eta areago, "no he perdido un cuarto de hora en aposento ajeno ni en el mío en conversaciones inútiles, noticias, bagatelas, Gacetas, Mercurios, que renuncié totalmente al retirarme, sin haber leído siquiera después acá una Gaceta" (*Autob.*, 29). Langile porrokatua, horratio! Berak kontatzen ez digun arren, ordea, badakigu beste eginkari txiki batzuk ere burutu zituela; hala nola, Loiolara heldu eta zortzi hilabetera edo egin zuen bere biziko lehen euskal sermoia: "1735. El día 25 de

Marzo predicó la doctrina y ejemplo el P. Manuel de Larramendi y fue la primera vez que había predicado en vascuence”, hala diosku Loiolako Egunkariak. Sinesteak ere lanak ditu, berrogeitalau urte arte ez zuela euskaraz sermoirik egin. Zergatik? Beste idazlan batean emango ditugu ustezko arrazoiak.

28. Madrilen 1736an eman zuen argitara *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria* izeneko liburua. non frogatu nahi baitzuen Oihenarten kontra, euskaldunok antzinako erromatarren garaiko kantabroen ondorengoak ginela. Hurrengo urtean Aita Santuak Regisko Franzisko jesuita santu aldarrikatu zuelarik. Donostian eta Iruinean egin zuen prediku bana. gaztekeraz ordea.

Loiolan urtebete exkax zeramala, bere irakasle ohi maitearekin, aita Losadarekin, hitz egiteko aukera izan zuen, han izan baitzen hamar egunez edo 1735eko uztailaren azkenaldean. Aita Losada hori izan zen, hain zuzen, aita Larramendik Baionatik aldegiteko erabakia hartu zuenean, bere asmoa iragarri zien hiru jesuitetatik bat. Ez ote zeraman Loiolara izkutuko mandaturen bat, aita Probintzialak edo emana, Larramendiren setakeria biguntzen saia zedin eta Loiola utzirik Salamankara joateko amore eman zezan?

Beste batean ere Larramendiren baitan zuen burupeaz eta itzalaz baliatu zela badakigu, eskatuz ez zezan Mayans jauna hain lazki eta gogorki erabil:

Al P. Larramendi, mi discípulo, cuando disponía su Diccionario para la imprenta, exhorté mucho a suavizar en su dilatado prólogo la acrimonia del estilo, nominatim en la impugnación de Mayans; y así me lo ofreció, mas no parece que se temple tanto como yo quisiera, según lo que Vd. me insinúa. Ya me remitió un ejemplar impreso, pero todavía no he podido leerlo⁷.

Getun hori 1746koa da eta hiztegia aurreko urtean argitaratu zen Donostian bi tomatan, bertako Diputazioak ordainduz osorik. Aurreko urte hura, 1745garrena, beste mugari gogoangarri batek ere seinatlatzen du euskal literaturan, ene ustez, Larramendiren hiztegia kaleratzeaz gainera, hegoaldeko euskal literaturari abiada eman zion lehen liburua ere —liburua diot, ez ditut dotrinak eta erretrau bildumak kontuan hartzen— urte hartantxe idatzi zen, eta Loiolan idatzi gainera hiztegia bezalaxe.

Urte hartantxe bakarrik, guk dakigula, bizi izan ziren batera eta etxape berean Larramendi, Kardaberatz eta Mendiburu. Hau Iruinetik urte baterako etorria zen Loiolara bizitzera: garizumako sermoiek eta urtean zehar eman zituen zortzi misioek utzi zioten denboran moldatu zuen *Jesusen Biotzaren Debozioa* deritzan liburua: “...bada ara ni joan ezpanintz, ez nuen urte hartan beintzat libururic eguinen” (Altuna 1982: 52) —berrehun urte lehenago emana zen argitara Bordelen lehen euskal liburua—; Mendibururena bi urte geroago argitaratu zen, halere, eta Larramendik estalki gabe agertu zuen poza bere karta famatuan.

29. 1745-1754. Hiztegia bukatzearekin sorbalda gainetik pisu handi bat kendu balioite bezala, libro sentitzen du Larramendik bere burua handik aurrera lagun hurkoari biderra irten eta ahaleginean laguntzeko, hartarako etxetik ghexeago atera beharko badu ere: “Operario de la caridad en empresas mayores”, esango digu berak (*Autob.*, 26). Batbatean Probintziaren dei sarkorra entzun zuela esan behar, hari laguntzera atera zedin.

(7) Cortina Iceta, Juan Luis: *El siglo XVIII en...* 66. eta ondoko or.

la hamar urte hauetako atze-aurreen eta joan-etorrien kontaerak hogeitamar orrialde hartzen ditu bere *Autobiografía*-n. Gipuzkoako lapiko guzietako buruntzalia izan zela esan liteke, baldin ez bageneki askoz eltze gehiago zirela orduan Gipuzkoan irakiten zeudenak. Ibilera guzi haien berri hemen xeheki ezin eman baitezakegu inola ere, aski izango da bere liburutik har ditzagun atal nagusien tituluak.

Hiru sailetan bil daitezke urte haietan Gipuzkoan barrena konpontzen saiatu zen auziak: familia batzuen arteko haserreak, udalek Administrazioarekin zituzten bariak eta konbentuetako monjen arazoak. Hona nola izendatzen dituen berak batzuk eta besteak atalen buruan: "43. Enemistades de Oyarzun compuestas. 44. Disensiones terribles de Tolosa acabadas gloriosamente. 45. Pleito sobre golillas. 46. Sobre beneficios. 47. Sobre cuentas y su libro. 48. Sobre rozaduras de Hernani. 51. Historia horrenda sobre el Asiento de anclas. 66. Reforma de las Agustinas de Hernani. 74. Movimientos buenos de San Bartolomé. 78. Reforma de las de Mendaro, aprobada por el Obispo. 79. Las de Motrico se mueven con el ejemplo. 80. Las de Placencia me piden la Reforma. 85. Reduzco a las Carmelitas de Zumaya".

Berari sinetsi behar badiogu, auzirik gehienak ongi burutu zituen. Hain ongi ere! Heraniko istiluen buruan oroitarri bat eraiki nahi izan zioten: "Los cuales todos me aclamaron padre de la patria y querían levantarme estatua, si no lo hubiera yo impedido" (*Autob.*, 43). Hori gainera auzi horietako batzuk konpontzen Larramendi baino lehen apezpikuak ere saiatuak zirelarik; alferrik ordea, Tolosakoan aita Mendiburu ere ibilia omen zen, apezpikuak aurrera botata: "Metió la mano el obispo para ajustarlos y no pudo hacer nada. Envió a Mendiburu a hacer Misión, y le echaron a pasear y quedó el cuento sin esperanza de convenio" (*Autob.*, 32).

Istilu eta kalapita horiek ez ziren, dirudienez, samurrak. Askí da horretarako Larramendik nolako izenondoz bataiatzen dituen ikustea: "enemistades horrendas", "terribles disensiones", "pleito atroz", "pleito ruidoso", "historia horrenda". Eta apenas monjen artekoak samurragoak ziren. Hainbeste urtetako zabarkeria eta lasaieria zirela medio, haien artean zenbait ohitura gaiztok erro sendoak eginak zituzten. Aita Larramendik lehengoratu egin nahi izan zuen haien bizimodua, antzinako arau jatorren eta aztura hertsien arabera bizitzen has zitezen berritri, eta bost borroka egin behar izan zuen monjekin berekin, inoiz apezpikuarekin, bai eta monjen konfesariekin ere.

Ez dakigu Larramendik urte horietan libururik idatzi zuenik. Astirik ere nekez izango zuen. Hainbeste katramila bideratzeak denbora eskatzen baitzuen eta nahitaz eman behar izan zuen urte horietan denbora asko etxetik kanpo, eta ez hainbeste Loiolan. Hona horren seinale izan litekeen gertari txiki bat. 1750ean osabaren izendotura berberak zituen mutiko gazte bat, Manuel Garagorri, sartu zen jesuita, eta Filosofiako bigarren urtea ikasten ari zela, larriki gaixotu Valladoliden eta hango medikuek bere herriko haizeak hantzerá bidali zuten. Alferrik, ordea. Loiolara iritsi eta hilabetera hil zen hantxe 28 urte bete ondoko egunean, abenduaren 27an. Osaba Loiolatik kanpo gertatu zen, agian, eta haren ordez aita Manriquek eman zuen biharanonean hiletako meza, Loiolan daude osaba-ilobert hezurrak elkarren ondoan.

30. 1754-1766. Loiolako lehen hamar urteetan zer egin zuen esan ordeaz, ikusi dugu nola aritu zaigun kontatzen euskararen aldeko bere liburuek eta lanek zenbatetainoko mesedea egin zioten euskarari. Pasarte haren bukaeran ezarri zituen hitzek ematen digute laburki aditzera Loiolako egonaldi luzeko arken hamar urteetan bere gain hartu zuen lanaren fruituen berri. Honela dio: "Dejo otros escritos, que despues-

tos para la prensa, están estancados por motivos políticos, y otros que en poco tiempo pudieran aprontarse para la impresión" (*Autob.*, 29).

Aita Larramendiren azken testamentua dei daitezke hitz horiek. Zein izkribu ziren haiek, inprimategirako prest egon arren, arrazoi politikoak zirela bide bere gelan langatuak omen zeuzkanak, ondoko lerroetan ikusiko dugu. Larramendi idazle gara-tuaren obrarik ederrenak dira, dudarik gabe, iuiamendu honetan liburuetako hizkuntza alde batera uzten dugularik. Hirurogei urte ditu gutxi gorabehera eta adimendu bortitza, argia eta zorrotza erakusten du, nahi duena zehazki adierazteko eta inoren kontrako arrazoiak itxuraz behintzat zeharo birrintzeko.

Horietan lehenari *Corografía de Guipúzcoa* deritza eta 1754ean ondua da: "este año de 1754" jalki zaio idazleari ustekabeen. Azpiko tituluak hobeki adierazten du zein den liburua-ren edukia: "o descripción general". Gipuzkoa nahi du deskribatu gaingiroki, bere garaiko Gipuzkoa ezagutzera eman. Eta aitortu behar erdietsi zuela guttiz bikainki bere xedea. Entzun Tellechearen hitzok: "La *Corografía* es mucho más que una obra de interés local. Sólo el desconocimiento explica que se silencie el nombre de Larramendi en las historias de la cultura y más específicamente de la Literatura [...] Yo quiero recabar un puesto honroso para Larramendi en la consideración de los especialistas europeos y españoles del siglo XVIII; y ello, no sólo por su estilo literario, sino por su contenido" (Intr., ix).

Gaur badakigu —hau ere Tellecheari eskerrak— *Corografía* argitara eman nahi izan zuela eta, horretarako nahitaezkoa baitzen hiru iritzi-emailek baiezkoa eman zezaten, haien esanera jarri zuela bere liburua eta azken epaia ezezkoa izan zela: "La *Corografía* quedó sepultada en el olvido por impedimentos surgidos dentro de la Compañía [...]; no deja de ser evidente que fueron razones de política, adobadas con alta prudencia, las que impidieron que viera la luz la obra de Larramendi" (SFG, 341).

31. Bigarrena. *Historia de Guipúzcoa*, berak aipatzen duelako bakarrik dugu ezaguna, ez baitu oraino inork aurkitu. "Si tenemos presente", dio Tellecheak, "que la *Corografía* la escribió hacia 1754 y que en estas *Conferencias* menciona una *Historia de Guipúzcoa*, hoy perdida. Llegaremos a la conclusión de que Larramendi desplegó una gran actividad literaria en ese lustro de su vida que va de 1754 a 1759, legándonos una gran Trilogía manuscrita: *Corografía, Historia, Fueros*".

'Fueros' direlako hauek eta goraxeagoko *Conferencias* liburu berbera dira, titulu osoan bi hitzak agertzen baitira eta batuz nahiz besteaz izendatu ohi baita. Hona titulu osoa: *Sobre los Fueros de Guipúzcoa. Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los Fueros de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*. "Libro histórico" deitzen du hori Tellecheak eta ez du arrazoi falta. Orainsu arte, 1983 arte, ez dugu ezagutu ahal izan, Francoren garaian ez baitzen Tellechea ausartu argitara ematen. Hortik atera nolakoa dukeen gaia: hasi eta buka politikoa, orduan eta geroago Madrileko zenbait jauntxoren berrak dardarazteko modukoa.

Obra bien construida y acabada, desbordante de ideas y de pasión, preparada para la imprenta en años de madurez y que ya hace más de dos siglos que tuvo dificultades para ser publicada (*ibid.*, xix).

Azkenik artikulua honetan behin eta berretan aipatu dugun *Autobiografía* edo *Autopología*; biak da eta Tellecheak ez daki nola izenda bere autoreak izenik eman ez dion txosten hau. Bere bizitza kontatzen du, baina bere xedea besterik da: bere burua

zuritzea. Beraz bi izenak ongi datozkio. Badu Larramendik zer zuri: bere etsaiek kupidak gabe beztu dute eta gainera Lagundiko nagusien aurrean beztu: 'fraide' eta festazale omen zela.

Hil baino urtebete edo gehienez bi urte lehenago luma hartzea eta bere burua defenditzea erabakitzen du.

Si bien es verdad que en toda su producción literaria centellea de alguna forma su personalidad, en ésta, escrita después de sus setenta años largos, su alma aflora con especial diaphanía, dejándonos ver lo que sabe, lo que piensa y, sobre todo, cómo es (*Autob.*, Intr., xvi)

dio Tellecheak. Asko daki ordea Larramendik munduaz eta gizonaz, eta ez du espero etsaiek iritzia aldatuko dutenik: "es perro que rabió y ha de ser perro que rabía" esaten jarraituko dira gero ere. Berrehun urte lehenago gauza bera esan zuen Etxeparek: "Mirakulu banagi ere orai one hogena". Aita Probintzial Franzisko Xabier Idiaquezentzat egina da txostena; honek bederen sines badeza Larramendik kontatua, gaitz erdi. Badaki ordea Idiaquezek ere ez duela oso begiko.

Txosten honen aurreko hiru liburukak argitaraturik ikusi gabe joan zen Larramendi beste mundura. Esan digu zergatik: "por motivos políticos". Horregatik ez baino, liburua bururatu gabe herioak harrapatu zuelako, gelditu zen beste bat gure egunotaraino zoko batean izkutatua: euskara-ordarazko hizlegia: "no pudo completar prevenido por la enfermedad que le llevó al sepulcro", idatzi zuen aita Fitak, duela chun urte *Corografía* lehen aldiz argitara eman zuenean.

32. "Prevenido por la enfermedad": ez dirudi gaitzaldi luzea izan zuenik. Hil baino hiru urte lehenagokoa da bere adiskide Agustín de Leiza Argentinan hil zenean. Andoainan egin zuen sermoi luzea, eta gero ere hango parroki berriaren eraikitze lanak bere ardurapean eta begirapean egin ziren, hura beti gainean zegoela. Nekez har zitzakeen bere gain lan horiek eri egon balitz. Garai beretsukoa da Gemikako apaiz de la Gandarari egin zion gutuna eta han lainoki aitortzen du: "Ni hirurogei ta amairugarren urtean sartua nabil; zaru naiz, ez ordea oraíndican elzartu (chochotu, caduco): burua daucat soilla, baña fresco ta sendo, aurpegiua cimurric bague..." (Altuna-Lakarra 1990: 39). Areago, hil ondoan bere lagun batek honela idatzi zuen: "A los 74 años de su edad escribía sin rastro de tembleque y cantaba como un angel..." (*Autob.*, 305).

Larramendiren azken hilabeteetako gaitzaren albiste apurrak Mendibururen eskutitz baten bitartez ezagutzen ditugu. Honek bere betiko bizitoki zen Iruñean egina zekukan 1763 inguruan *Christau Dotrin edo Catecismo luzea* delako liburu lodixkoa eta Larramendi hautatu zuten agintariek liburu haren iritzi-emaitetako bat izateko. Seigarren manamenduan dantzei buruz zioena ez zen Larramendiren gogoko gertatu eta honek ez zela liburu hura argitaratuko, dantzei buruzko dotrina hura aldatzen ez zueino.

Mendiburuk bere dotrinaren alde aita Idiaquezi egin zion eskutitz luzeari esker dakigu honako hau: "(Larramendi) se reduce a decir que, como quien se halla, haze seis meses, tullido de piernas y con la proa de sus pensamientos vuelta hacia la eternidad..." (Altuna 1982: II, 367). Eskutitzak 1765eko abenduaren 10eko data darana

beraz Larramendi hil baino berrogeitamar egun lehenagokoa da — eta baldin Larramendik berea bizpahiru hilabete lehenago egina bazion, pentsu dezakegu azken urtebetean egon zela Larramendi elbarriturik eta pentsamenduen branka beste mundura itzulirik.

Lehen bere lagun batek esan digun "escribía sin rastro de tembleque" hura ez da nonbait gehiago egia, baldin Mendibururi sinetsi behar badiogu. Honek "grafologo" antzetsua balitz bezala Larramendiren gutunaren grafian ikusi eta atzeman uste ditu "los interiores alborotos que manifiesta su pluma" (*ibid.*, 375). Bai ote? Larramendik heriotzaren aurrean ezinegonez eta arrenkuraz betea bihotza?

Ez dakigu Larramendiren azken egunak nolakoak izan ziren. Badakigu aldiz —hark ez zekien eta mundu honetatik jakin gabe joan zen, eta hala hobe— haren azken egunetan eta hura zela bide, nolako eskutitzak egin zizkioten elkarri etxeko erre-tore aita Juan Bautista Mendizabalek eta aita Idiaquez probintzialak. Ezin alda hona guziak. Irakurri nahi dituenak Tellecheak argitaraturiko *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* liburuaren 338garren orrialdean eta hurrengoetan aurkituko ditu. Hitz gutxitan esateko, Loiolako erretoreari Probintzialak eskatzen zion, aita Larramendi hil bezain laster, itxierazi zitza inori sartzen utzi gabe honen gelako ateak harez eta karez, sar zedin bera bakarrik, har zitza paper guziak eta igor ziezakzion berari Valladolida:

precepto de santa obediencia de que no se saque del aposento del difunto ningún papel..." "Tengo causas gravísimas y en que se interesa mucho el bien de la Compañía..." "Véome forzado a proceder así, y sé que sobre los papeles del difunto se ha hablado ya en la Corte, en la Secretaría de Estado.

Zin paper ziren aita Idiaquezek lehen bait lehen eskuratu nahi zituenak, esan beharrik ez dago: Larramendik bere gelan "por motivos políticos" langatuak zeudela esan digun haiek. Eskerrak Idiaquezek surtara bota ez zituen bederen!

Nolako heriotza izan zuen Larramendik? Uste dugu inguruan izango zituela azken egunetan etxeko lagunak, anaia laguntzaileak batez ere, oso maite baitzuten, Loiolako artxiboko gutunek erakusten diguten bezala. Badakigu aita Juan Bautista Mendizabal, etxeko erretorea, eta aita Kardaberatz alde banatan zituela eman zuela azken arnasa 1766ko urtarrilaren 29an. Orainsu arte San Inazioaren jaiotetxeko —Etxe Santuko— Ama Errugabearen kapilatxoa zeritzan hartan ezarri dituzte berriro aita Larramendiren eta garai hartan han bildakoen hezurrak.

Ez zukeen berak betiko atsedeteko hainbat maite zuen Loiolaz beste lekurik nahiko!

Bibliografia

- Altuna, P., 1982, (arg.), *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , Lakarra, J. A., 1990, (arg.), *Manuel Larramendi. Euskal Testuak*, Andoain.
- Autob.*: Tellechea Idígoras, J. I., 1973, (arg.), *Manuel Larramendi. Autobiografía y otros escritos*, SGEP, Donostia.
- Mitxelena, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid, 2ª ed. Donostia 1988.
- Corografía*: Tellechea Idígoras, J. I., (arg.), 1969, Manuel Larramendi. *Corografía de Guipúzcoa*, SGEP, Donostia.
- SFG*: Tellechea Idígoras, J. I., 1983, (arg.), *Manuel Larramendi. Sobre los fueros de Guipúzcoa*, SEGP, Donostia.

Personalidad humana de Larramendi

J. IGNACIO TELLECHEA IDÍGORAS

(Universidad Pontificia Salamanca)

*¡Ay, nere biotzeko
Aita Larramendi!
Bost egiya esanda,
joan ciñan emendik.*

Con esta sabrosa copla de Juan Ignacio de Iztueta, que he repetido hartas veces en conferencias, cerraba yo mi introducción a la edición, notablemente corregida y hasta aumentada respecto a las anteriores, de la preciosa *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, hace exactamente veintiún años, esto es, en 1969. Tres años antes se había celebrado el segundo Centenario de la muerte de Larramendi, de muy escaso eco social, fuera de algunas conferencias en su villa natal, Andoain, y de un modesto eco historiográfico: publiqué un extenso artículo con muchas aportaciones nuevas en el *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* y casi la totalidad del n. 7 de la *Colección de documentos inéditos para la Historia de Guipúzcoa*, dirigido por el amigo D. Fausto Arocena y editado por la Exma. Diputación de Guipúzcoa, dedicado enteramente al P. Larramendi.

Me complace recordar hoy la circunstancia de aquella colaboración. Trabajaba yo muchas tardes de la primavera del año 1965 en la R. Academia de la Historia en el proceso de Carranza, cuando para distraer la atención de la lectura fatigosa de sus folios, solía "echar la caña" a otros fondos, entre ellos el llamado "Jesuitas". Una tarde topé con el tomo 62, repleto en buena parte de textos y autógrafos larramendianos a los que me fui asomando con creciente interés, porque en ellos fui descubriendo la personalidad de Larramendi y, además, con esa sensación singularísima de pisar el primero nieve recién caída o tierra virgen y totalmente inexplorada. Mi entusiasmo fue creciendo y aquel mismo verano de 1965 propuse a D. Fausto Arocena la idea de dedicar a Larramendi un tomo de su colección citada, dando a conocer numerosos inéditos del jesuita andoaindarra. Aceptó complacido la propuesta, colaboró con unas páginas extraídas del archivo de Hernani y asoció a la empresa a D. José Beruete que aportó también alguna documentación. Tras el hallazgo madrileño, que aún me daría harto quehacer, vino el descubrimiento de documentación en el archivo de Loyola. Muchas tardes me trasladé a Loyola en mi 600 para transcribir pacientemente muchos de aquellos folios. Tras muchos esfuerzos salió el tomito, que sigue hoy olvidado, y la Diputación —Excelentísima, pero no Foral— me retribuyó el tra-

bajo de muchos meses y previas muchas firmas, con cerca de 2.500 pts. Estos datos pertenecen a la historia de mi larramendismo militante.

Mi "envenenamiento" larramendiano siguió funcionando contra viento y marea y tres años más tarde editaba la *Corografía*, llamando la atención sobre Larramendi, aportando datos biográficos y cronológicos desconocidos extraídos de Salamanca y Villagarcía de Campos, y recabando para él el título de gran escritor en lengua castellana —título que precedentemente había reclamado también Koldo Mitxelena—, y para su *Corografía* el título de "Breviario de Guipúzcoa, de guipuzcoanía y de guipuzcoanismo". Nada de ello tuvo mayor eco. *Contra spem in spem* (Rom 4.18), inasequible al desaliento, seguí trabajando y en 1973 publiqué el segundo tomo de sus *Obras*, con casi trescientas páginas de inéditos y un riquísimo apéndice de documentos y datos biográficos. La perla de este tomo es la que llamé *Autobiografía* o *Autoapología* de Larramendi, escrito íntimo, totalmente reservado a su Superior y absolutamente desconocido. Gracias a él podemos llenar la biografía de Larramendi y conocer múltiples actividades suyas, en Salamanca, en Bayona y, sobre todo, en sus largos años de permanencia en Loyola —más de treinta—, actividades que van más allá de la edición de *El imposible vencido* y del *Diccionario Trilingüe* y que nos descubren un Larramendi totalmente ignorado. Resucitaba un muerto, comenzaba a tener sentido la copla de Iztueta antes citada. Esta obra tuvo algún eco y recibió algún galardón de la Feria del libro vasco de Durango.

En efecto, la figura de Larramendi permanecía hasta entonces completamente olvidada. La bibliografía sobre el era escasisima y pobrísima. El benemérito jesuita P. Arana había llegado a escribir una biografía, pobrísima en datos y que sigue inédita; y acaso inspirado en ella, D. Domingo de Aguirre publicó un boceto biográfico en euskera en la revista *Euskal Erria* 23 (1890), 545-561, precisamente para conmemorar el segundo centenario del nacimiento de Larramendi, que este año de 1990 resulta ya el tercero. Fuera de la breve introducción del P. Fita a la edición primera de la *Corografía* en el siglo pasado y de breves alusiones a Larramendi en los libros de Nicolás de Soraluce, *Historia general de Guipúzcoa* I (Vitoria 1870) p. 391 y de M. Rodríguez Ferrer en *Los Vascongados* (Madrid 1873) p. 160, de los apuntes bibliográficos de C. Sommervogel, *Bibliothèque de la Compagnie de Jésus*, nouv. éd., (Bruxelles-Paris 1893) IV, 1532-5 y IX, 574-5, nada había. El primer "aireador" moderno de Larramendi fue Koldo Mitxelena, *La obra del P. Manuel de Larramendi*, precioso trabajo entonces perdido en los "Cuadernos de la Cátedra Feijóo", n. 6 (Oviedo 1959), que ocasionalmente descubrí. Poco más tarde el P. Villasante le dedicó jugosas páginas en su *Historia de la Literatura vasca* (Bilbao 1961) pp. 124-144, y algo después F. Elías de Tejada tejía un encendido elogio a las ideas fueristas de Larramendi en su libro *La Provincia de Guipúzcoa* (Madrid 1965), pp. 156-165.

Esa era la "cera que ardía", muy poca, como ven, cuando de pronto se iluminaba la vida de Larramendi con abundantes e importantes datos desconocidos, muchos de ellos íntimos. Su obra impresa, ciertamente conocida, era la más impersonal que imaginar se pueda para efectos biográficos: una gramática y un Diccionario; aunque también en ellas se refleja la personalidad de Larramendi, como veremos, si no es más como hombre muy trabajador. Ahora y por fin, podíamos saber y conocer sus éxitos salmantinos en docencia y púlpito, sus azares y angustias en Bayona, su viaje a Sevilla y Cádiz, la razón de su encierro en Loyola y las múltiples actividades variadas desplegadas durante aquellas tres décadas que, hasta ahora, aparecían sumidas en

la mayor oscuridad. Empezaba a brillar la personalidad, el perfil humano de Larramendi.

Y es que además, en esa conciencia agónica de la situación foral, la única salida lógica, más allá del ejercicio del derecho de resistencia, se revela como imposible. Tal es a nuestro entender el significado del famoso episodio del juntero anciano que presenta la posibilidad de unas provincias unidas del Pirineo, ligadas por el vascongado y que el incumplimiento de las obligaciones de Castilla respecto al Fuero convertiría en una salida política como imposible, pero nada hay de negativo en su valoración en juego de agentes exteriores, aquellos que impedirían la aparición del nuevo Estado. Y de acuerdo con ello el polemista se cubre con una doble cortina de cláusulas de cautela. Una es la compleja definición del vocero de la independencia. Peyorativa en cuanto que ni siquiera es capaz de poner paz entre las *nescames* de su casa, pero no tanto al calificarle de hombre cuya ocupación es "gobernar el mundo en seco". Esto sugiere idealismo, pero también fidelidad a las premisas doctrinales. La segunda cláusula de cautela tampoco es unívoca. El proyecto utópico procede de un sueño en que formula la propuesta el *demon* o espíritu de Guipúzcoa. Sugerencia de irrealismo, pero también de que el contenido ha de ser la expresión de la esencia política de la provincia. Y el proyecto ya no es provincial, sino vasco, adelantando el *zazpiak bat*. "Y haremos una República toda de Bascongados, y en su origen primitivos españoles", declara en un primer momento. "El proyecto de las Provincias unidas del Pirineo es sin duda magnífico y espacioso", añadirá. Pero esa República soñada no es realizable. Las provincias unidas vascas se encuentran atrapadas en la pinza entre Francia y España. La nación vasca no puede ser una realidad ante la potencia de sus vecinos. No obstante, conviene retener la fórmula utilizada por Larramendi para expresar esa imposibilidad:

Sin duda que esta idea es magnífica y gloriosa; pero si tan República todavía no es más que soñada, *necesita mucho tiempo para ser fundada en realidad*

Es decir, lo imposible no es en modo alguno indeseable. Es, por un lado, idea "magnífica y gloriosa". Por otro, un proyecto que necesita aún mucho tiempo para ser realidad. Si hay que volver a Castilla por pragmatismo, está claro que la preferencia subjetiva de Larramendi camina en otra dirección.

Por consiguiente, si Larramendi piensa en la independencia es porque ésta constituye una salida coherente al esquema de conflictos por él definido. Si se ha roto el pacto, y se tropieza con las infracciones de un rey tirano, surge el recuerdo de la insurrección holandesa contra Felipe II. Lo que ocurre es que resultar aceptable o deseable una solución política es diferente de ser viable. El tema queda abierto de cara al futuro y ésta es una de las vertientes en que de modo más claro aparece la modernidad de Larramendi desde un punto de vista nacionalista.

Aunque la solución ofrecida sea la conservadora, la estática: "a Castilla, a Castilla". Naturalmente, siempre que Castilla y su rey respeten el Fuero; es decir, más que solución nos encontramos con una petición, con la expresión de una esperanza, con

un llamamiento a que los distintos agentes del sistema político restauren un equilibrio que se encuentra al borde de quebrarse definitivamente.

Tal vez por eso el pensamiento de Larramendi necesita ser enmarcable en la secuencia que desde la crisis de la etapa foral conduce a la definición nacionalista. Un punto de referencia en ese trayecto, útil para comprender el significado de la obra de Larramendi, es la conocida proclamación de independencia —bajo tutela de Francia— por parte de Guipúzcoa en la guerra de la Convención. Son circunstancias muy diversas, pero es el mismo mecanismo el que entra en juego en Larramendi para defenderse frente a posibles atentados a la foralidad, en 1794 ante el hundimiento *de facto* de la misma al producirse la derrota frente a los ejércitos convencionales y la subsiguiente ocupación militar francesa de la mayor parte de la provincia.

Como ocurre en el caso de Larramendi, tampoco se trata entonces de una manifestación de nacionalismo. Por hablar con una terminología actual, la Junta de Guetaria no está ejerciendo el derecho a la autodeterminación. En modo alguno lo que sucede ha de ser interpretado como el reflejo por parte de los junteros de una concepción nacionalista en las relaciones con la monarquía. Lo que sí queda de manifiesto, igual que en el cuadro clínico elaborado por Larramendi, es la gran fragilidad de las relaciones políticas entre el sistema foral y la Corona española. Hasta el punto de que la lógica del primero, sin forzarse en absoluto, puede llevar por sí misma al punto de ruptura. Eso sí, a los junteros de Guetaria no les entiende en su movimiento nadie, y los que menos son los representantes de la Convención, poco propicios a admitir declaraciones de independencia en términos ajustados a la explicación fuerista. El destino de la ciudadela de Bayona para los proponentes es suficientemente explícito sobre esa incomprensión. Cuando los franceses comienzan a aplicar unos criterios de comprensión de aquello que representa la situación foral, en la primavera de 1795, la guerra se encuentra a punto de terminar. Pero lo que importa es que los comisionados de la Junta al dirigirse a los delegados de la Convención, reproducen el clásico argumento foral de la independencia originaria y de la unión voluntaria con Guipúzcoa en el año 1200. Es decir, cuando la provincia se encuentra en una situación de crisis, la fórmula adoptada por sus representantes supone un estricto recurso a la justificación dada por el fuerismo. Una vez desvanecida la protección de la Corona española, por la derrota militar, la provincia puede recuperar la independencia originaria y colocarse bajo la protección de otro Estado. En este caso, de la República francesa.

Por supuesto, como advirtiera años antes Larramendi, tal solución tampoco es operativa. Pero demuestra hasta que punto el sistema foral llevaba dentro una carga de relojería en relación a la presencia de las provincias vascas dentro de la monarquía española. Mientras no interviniesen variables externas, la articulación se mantendría. En caso de ruptura de esos equilibrios establecidos, la única salida lógica era el independentismo.

El episodio de la guerra de la Convención probará dos cosas. La primera es la inexistencia en los pobladores de las provincias vascongadas de la más mínima propensión a lo que hoy llamaríamos una conciencia nacional. Rebeldía de hambre y xenofobia tradicionalista serán las principales respuestas a la ocupación francesa, colocada bajo el signo de la crisis de subsistencias. No es, pues, la ocupación el resorte para que un sentimiento nacional actúe en Guipúzcoa contra la monarquía española. Pero por otra parte, el episodio permite constatar cómo en las instituciones forales y

en la argumentación que las envuelve, existen unos elementos de ruptura que pueden llegar hasta la disolución de todo vínculo político con la monarquía española. Los hechos venían así a confirmar la brecha abierta por Larramendi en el terreno de las ideas.

No es tampoco casual que esa crisis de la ocupación francesa sea el referente de un nuevo hito ideológico en el camino hacia el nacionalismo: el *Peru Abarka* de Mogue. En Larramendi vemos una descripción arquitectónica de los elementos que configuraban el modo de ser de los guipuzcoanos. Ahora se trata de un esquema dualista, donde el polo positivo, una especie de referente de seguridad para los valores vascos, resulta constituido por el propietario del caserío. La idealización del carácter vasco alcanza su núcleo, el ruralismo, contrapuesto a los rasgos negativos del mundo exterior. Frente a la crisis finisecular, emerge un nuevo sujeto, a partir de la apología del *baserritarra*, del propietario rural, del sistema de valores ligado a una explotación agraria amenazada desde dentro y desde el exterior. En torno a este giro defensivo se edificarán el fuerismo decimonónico y su heredero inmediato, el nacionalismo sabiniano.

A ese mundo rural, tan quebradizo en la realidad concreta como sólido en términos ideológicos, se contraponen en cuanto polos negativos los modos de vida urbanos, las ideas procedentes del exterior, y lo hará en el nuevo siglo el liberalismo. Si el pensamiento de Larramendi correspondía al momento del Antiguo Régimen en que cabía atisbar con angustia el hundimiento de sus instituciones y de sus formas de vida, ahora lo que se construye es un modelo de retroacción frente a un proceso costoso de transición al liberalismo. En Larramendi la ideología está al servicio de una realidad amenazada, mientras que en el fuerismo decimonónico la relación es inversa. Son las formas de organización agrarias en crisis las que actúan como referente positivo de una ideología orientada al rechazo de la realidad que está en trance de constituirse. Surge así lo que se denomina una ideología del territorio, en el sentido de que el paisaje rural, la idealización y la mitificación de los valores que supuestamente le acompañan, permiten un vaciado de la realidad, la exclusión de los problemas que efectivamente acompañan a la crisis del mundo rural. De este modo, la sociedad que sufre la prolongada crisis de las formas de vida agrarias y que refleja ese malestar en las guerras carlistas podrá ser vista desde el exterior —recordemos la obra del catalán Mañé y Flaquer— como un oasis, de felicidad y estabilidad por contraste con el mundo del liberalismo. Es un curioso oasis en régimen de guerra civil permanente, con Zumalacárregui escondiéndose tras el *Ikusten duzu goizean*. Pero la contradicción no restó eficacia ideológica al montaje fuerista.

Aparece al mismo tiempo algo que tampoco se encontraba en Larramendi. Puede admitirse que en nuestro autor hay una anticipación del carácter nacional aplicado a los guipuzcoanos, pero no cabe encontrar la visión historicista propia del XIX, donde la reconstrucción mítica de las gestas de la patria y de las grandes batallas del pasado se funden en el crisol del presente, con las nuevas guerras, las carlistas, para ir forjando una mentalidad de resistencia armada al exterior, justificada por el pasado nacional. Rechazo aplicable obviamente a las instituciones de la revolución liberal y democrática.

La maniobra ideológica del fuerismo recuerda de este modo a un enroque en el juego del ajedrez. Las instituciones operan como auténticas barreras defensivas tras las cuales se protege la situación ideal del país vasco, cercado por un orden exterior

en que prevalece el espíritu del siglo. Algo de ello había en Larramendi frente a la Ilustración, pero ahora la amenaza ha cobrado cuerpo y con ello la confrontación se ha hecho global. Podemos imaginármola como un mundo vasco centrado en torno al torreón en ruinas de su caserío, con sus guerreros que lo defienden de cuando en cuando y con su sistema de valores ligado al catolicismo y a las virtudes tradicionales.

Este punto de llegada nos sitúa en puertas del nacionalismo sabiniano. Pensemos en la articulación temática que ofrecen obras como *El Señorío de Bizcaya, histórico y foral*, de Aristides de Artiñano. Solo falta declarar que el carlismo no representa solución alguna y que todo ese bagaje ideológico solo puede ser recuperado mediante un movimiento político de signo nacionalista. Es el pequeño salto sobre el abismo que dará Sabino Arana.

De todos modos, pensando en Larramendi, si ha habido a lo largo del s. XIX cambios en la ideología fuerista, ello no ha sido siempre para bien. La extensión temática y la dimensión historicista se pagan al alto precio de una huida de la realidad. No hay más que comparar el fresco social que Larramendi dibuja en las páginas de la *Corografía* con el paisaje de cartón piedra utilizado por Arana Goiri para sus chafarrinones históricos. Otro tanto cabría decir del papel que en uno y otro juega el mundo rural.

No es éste el momento de contrastar el fuerismo del XIX con el nacionalismo de Arana. Solo nos interesa destacar que el segundo es una síntesis de los temas que ha ido acuñando el fuerismo para responder a una nueva situación conflictiva, la industrialización de Vizcaya. El pensamiento fuerista había sido, en los dos primeros tercios del ochocientos, un instrumento defensivo para grupos sociales conservadores. Como construcción, pierde toda virtualidad cuando los fueros en sí mismos han sido abolidos (y reemplazados de cara a la burguesía por el concierto económico) y cuando aparece una nueva realidad, la sociedad industrial y urbana, con un conflicto de clases sumamente acusado, en torno a Bilbao. De ahí la exigencia de la reconstrucción sabiniana que retoma argumentos y valores fueristas, y responde con la dureza que requiere una coyuntura de cambio muy violento, donde las formas tradicionales se encuentran amenazadas o en trance de destrucción.

El ciclo se ha cerrado. Si el primer argumento del fuerismo del Antiguo Régimen era la independencia originaria, ahora la independencia se presenta como el objetivo último de la acción de defensa de un país vasco al que se considera, tras perderse los fueros (igual a independencia, en la concepción sabiniana) al borde de la desaparición. Este hilo conductor nos indica que entre el punto de partida y el de llegada hay elementos de continuidad, a pesar del cambio de referente socioeconómico y político.

Pudiera decirse que si hay un potencial de estallido, éste va a tener lugar con la construcción de Arana Goiri. La independencia originaria que en Larramendi fundamentaba la relación foral pasa a legitimar, una vez abolidos los fueros, la independencia como meta política. Recuperación del pasado y proyección hacia el futuro se funden. Claro que en el intervalo ha tenido lugar la mutación introducida por Arana, siguiendo la estela fuerista de considerar al régimen foral como situación de independencia. Lo mismo sucede con la noción de pacto entre la provincia y la monarquía, que pierde sentido tras la violación que Sabino fecha en 1839. El derecho de insurrección se aplicará ahora al objetivo independentista. Hay, pues, un hilo conductor, persistencias temáticas, pero también una evidente radicalización, ya que la restauración del pasado (objetivo común de Larramendi y Sabino Arana) tiene

contenidos políticos opuestos: en un caso es la recuperación de la convivencia armónica con la monarquía en los términos del supuesto convenio medieval por el que se consagró la unión voluntaria de la Provincia a la Corona; en otro sólo cabe la ruptura pura y simple de un vínculo que encarna al mismo tiempo la opresión política y la degeneración cultural, moral y religiosa de los vascos.

Otro tema de enlace es la limpieza de sangre. Define la nobleza universal de los vascos en Larramendi y es la seña de identidad nacional más amenazada en el caso de Arana Goiri. En este último funciona ante todo *frente a*, ya que tiene su contrapunto en el español, visto como *maketo* degenerado. En Larramendi es en primer plano el factor de definición de los hombres y mujeres de la provincia: no se desprecia al otro, si bien en su discurso no faltan las expresiones peyorativas hacia los castellanos. Pero con el paso del tiempo las aristas se han hecho más agudas. No se trata de aislar positivamente a uno (el guipuzcoano), sino de hundir en la infamia al adversario, el español visto como culpable de la propia decadencia.

Otro tanto sucede con el tema de la modernización. Ya hemos hablado de las connotaciones arcaizantes del pensamiento de Larramendi. Es un planteamiento orientado hacia la estabilidad, que trata de preservar a Guipúzcoa de los cambios en curso, pero no por la negatividad de los mismos, sino por sus consecuencias nefastas para el funcionamiento equilibrado de la provincia. En cuanto a Sabino Arana, su discurso implica una ruptura irreversible con la modernización, al buscar la vuelta atrás hacia ese paraíso perdido que han ido deliniando los fueristas del XIX.

Hay aquí, no obstante, un punto de contacto entre ambos: el sentimiento agónico, la sensación de encontrarse ante algo que va a desaparecer, lo que provoca una reacción violenta, de búsqueda a toda costa de los medios para evitar un desenlace que se presiente fatal. Tanto el de Larramendi como el de Arana Goiri son discursos de la identidad vasca en peligro. Si se quiere, desde la perspectiva sabiniana, un lamento sobre la pérdida de Euskadi. El historiador del derecho Gregorio Monreal ha subrayado cómo esa conciencia pesimista gravita sobre las páginas de Larramendi. De ahí sus airadas advertencias a los junteros que olvidan su primera obligación de defender el régimen foral de la provincia. El discurso a los junteros, reproducido por el P. Henao, se cierra así poco menos que con la declaración de los tales como "traidores a su patria", que al incumplir el juramento dado de defender los Fueros atraen el castigo de Dios. No es muy diferente la consideración de Sabino Arana respecto de los vizcaínos que aceptan la castellanización de su tierra.

De nuevo, sobre el telón de fondo de esa coincidencia, conviene tomar nota de las distancias. En Larramendi la atención se centra sobre la cuestión institucional, los Fueros, pero no hay aún amenazas internas para el proceso de reproducción de la sociedad guipuzcoana, en sus costumbres, en su lengua, en su religión. Por el contrario, en el momento de Sabino, tropezamos con una realidad vasca tradicional en proceso de disolución. Es el "esto se va" que explica la violencia de los antídotos por él elaborados.

Pero hay una vertiente, ya apuntada y que no cabe olvidar, donde la ventaja de Larramendi es innegable. El está hablando de una realidad existente, incluso en las traídas y llevadas instituciones forales. Arana Goiri reconstruye míticamente el pasado. La solución tropezará lógicamente con la imposibilidad de hacer girar hacia atrás el reloj de la historia. Su proyección hacia el futuro se basa en la idealización y en el enmascaramiento de lo real. Claro que los destinatarios del segundo sí son reales y

susceptibles de movilizarse, a diferencia de esos junteros inertes a quienes amonesta Larramendi con desesperación. Arana Goiri se dirige a grupos sociales que, en un momento de socialización de los mecanismos de participación política, sí estarán dispuestos a responder a su llamamiento. La ventaja corresponde aquí al segundo.

Y, para terminar, hay un elemento curioso de coincidencia. No es algo casual que, aún pensando en los vascos como conjunto, Larramendi plantee toda su argumentación desde una perspectiva guipuzcoana y Arana Goiri lo haga en un ámbito vizcaíno. Ello nos recuerda la ausencia de una tradición estatal unitaria en el caso vasco y el peso que tienen como referente espacial los que se llamarán *territorios históricos*. El País Vasco no sólo es una ruina de pueblos, un residuo histórico destinado a sostener causas reaccionarias o a desaparecer por el bien del progreso, según la estimación de Engels, sino, en primer término, una yuxtaposición de territorios con elementos comunes de tipo cultural y político, pero sin enlace político unitario. Como consecuencia, si es fácil marcar un sistema defensivo frente al exterior, será mucho más complicado pensar en un Estado unificado.

Por lo demás, salvando las enormes distancias cronológicas, del contexto, sorprende que la secuencia, tanto en Larramendi como en Arana, tenga siempre como punto de partida la provincia para encaminarse a una organización de tipo confederal (las provincias unidas del Pirineo, en un caso, la Confederación euzkadiana, en el segundo). Es un paralelismo que da fe del mencionado estrangulamiento, la falta de referente estatal, que ha de afectar gravemente al desarrollo del proyecto nacionalista.

Problemas comunes, o por lo menos unidos por el hilo conductor de la pregunta sobre la respuesta política vasca a la crisis del Antiguo Régimen. La ideología nos remite a los problemas políticos generales. Eso, más la pasión que incorpora a sus escritos y la lucidez de sus observaciones, es lo que hace aún hoy de la lectura de Larramendi una experiencia sumamente enriquecedora.

HIZKUNTZA

Larramendi Mitxelenaren begietan

ELIXABETE PEREZ GAZTELU

(Olasia - EUIG)

(“Haren yudi ederrori veguetan chuqui”)

O. Sarrera antzean

Aitorpen bat eginez hasiera eman behar diogu gure mintzaldi honi. Larramendi “klasiko” bat izan da guretzat orain dela ez gehiegi arte. Eta oraindik ere iristear daukagula iruditzen zaigu, “klasikoak” norbaitek zioen legez, orok aipatu baina inork irakurtzen ez dituen horiek badira behintzat.

Klasiko izaterik irakurgai bilakatzeko bidean jartzen bi Larramendiren ezagule eta mireselek izan dute, duda izpirik ere gabe, guregan eragina. Argiago esan, gure andoaindarrarenganako arreta piz zedin bihotz eman digutenak izan ditugula eta, ezinbesteko deritzogu biok lerrootara ekaritzeari, kitatuko ez dugun zorraren aringarri.

Patxi Altuna dakargu lehenik, eskoletan irakatsitakoek begietatik estalkia uxatu eta jakinmina biziagotuz bestetara eta besterengana akuilatu gaituelako. Honen ondorio da, hain justu, ekarri behar dugun bigarrenarengana, Koldo Mitxelenagana, alegia, hurbildu nahi izana. Errenteriarrek plegu sakon, zorrotz eta mamitsuetan gordea ateratzeko asmoa gogo-bihotzetan eztenkada gisa suma crazy digulako.

Bi larramendizaleok, bada, bultzatu gaituzte ondoko hastapenetako baizik ez den lantxoia egitora, eta biotaz baliatu gara, gure ahalmen eta ezagupidcen mugetan, hemen doana osatzeko.

Aurrera baino lehen, haatik, beste zerbait ere aitortu nahi dugu: ez garela, ezta hurrik eman ere, Larramendi merezi duen bezain sakonki ezagutzen dutenetakoak, hala nahi bagenu ere. Ez ditugu, beraz, Larramendiren barne eta kanpo, argitara gabe zein dituen edo bere lanen azterketa sakonaren ondoriozko iruzkin edo antzekoak jorratuko.

Gure asmoa bestelakoa izan da. Mitxelenak euskal lanetan hainbat eta hainbatetan ahotan dituen Larramendizkoak bilatu, bildu eta ea nolabaiteko iritzi orokorrik atera daitekeen ikusi, beti ere Mitxelenak dioenari eutsiz, nahiz jakin bestek besterik pentsa dezakeela.

Honenbestez, esana doa gure kabuzko ezer gutxi papererako dugula, betekizuna. Mitxelenak pleguetan barreiatuak adieraziriko ideien aztarnei jarraitu, bildu eta gure burubidearen arabera antolatuzera zedarritu dugunez gero. Alde honetatik, beraz, ondokoa Mitxelenak esanak *aditzeko modu baten* (ez bakarraren) azalpena besterik ez da, geure buruari jarri diogun muga ahalik eta zintzoenik hona aldatzen saiatzea izan delarik.

Hasierako asmoa euskal lan hutsetan oinarritzea izan bada ere, laster asko konturatu gara era honetara jokatzuz gero lana hanka-motz geldituko litzaigukeela zenbait gaztelaniatzko lanetara iraultzen dituenak. Larramendiz dituen iritziak behar bezala konprenitzeko ezinbesteko baitira, 1959ko¹ “La obra de Manuel Larramendi” kasurako. Hori dela eta, bibliografian ikus daitekeen bezala, abiapidekoa beste lan hauek osatu behar izan dugu eta horixe guztia izango da esango ditugunak esateko zutabe hartu duguna.

Larramendi handiaren mendeurren honetan, merezi duen heinean ezagunago izango den andoaingar goi honen goratzarrez eta Altuna-Mitxelena eskaini diguten laguntzagatik baina guztiaren gainetik Larramendi gertuagotik ezagutzeko aukera eskueran jarri digutelako, eskerrik leialenak adierazteko asmoz gatzatu ditugu lerrook.

I. Larramendi gizon

Mitxelena Larramendi *gizonaren izakera* behin baino gehiagotan ahotan hartzeak begietan ematen gaituela eta, Mitxelenaaren arreta zer dela eta erakartzen duen pentsatzera garamatza.

Esan daitekeela, uste dugu, Manuel Garagorri Larramendiren² nortasuna eta barenena zimikatzen zioten kezkek aurrean izatea beharrezkotzat jotzen duela Mitxelena Larramendiren lanak benetako testuinguruan kokatu eta egoki aditu ahal izateko.

Honetan gaudenez gero zilegi deritzogu Larramendi *gizona* nola begitantzen zaión Mitxelena osatzetik abiatzeari; bestela esan, Mitxelena *vegnietan choqui duen* Larramendiren *yrudi ederra* sumatu uste dugun gisan berregiteari.

Hain ongi ezagutzen zuen Liburu Santuko hura hona aldatuz, Larramendiz ere esan daiteke gizaki oroz beste hark esan zuena: “ezen fruiturik da arbola ezagun”, bide horri batez ere eutsi beharko baitzaio haren berri dadin; ez dago eta zalantzan jarrikerik lanetan idazle, jesulagun, euskalari, abertzale, etab. ageri den Larramendiren atzean Manuel Garagorri Larramendi gizona dagoela, gizon guztiak bezala gauza on eta makurren jabe, konplexutasun osoan.

Apologista da, seguru aski, maizenik Larramendiren izenari ondo-ondoan ipintzen zaióna, halaber Mitxelena. Arcago, Larramendi litzateke gure hizkuntzak izan duen defendatzailearik sutsuena, XVIII. mendean euskaraz kezkatu zirenetariko ezagunena izateaz gain. Eta egoerak, hein batean bederen, hala beharturik “behar” hori seguruenik ez oso gogo txarrez onartua— apologista izateak baldintzatuko ditu bere lanak, honek bulizatuko baitu dakienaz (euskara) eta honen jantzia ez dagoenaz (etimologiak, hizkuntz ideiak, historia...) tinta isurtzera.

Apologia, haatik, sentimendu edo ideiek har dezaketen itxura izan daiteke, bameko horiek kanporatzeko modua. Honela, hizkuntza-kontutan bakarrik ez, herriaren alde ere apologista-gisa aritua *abertzaletasuna*-ren adierazgarri litzateke, Mitxelena-*ren* ustez.

Herria eta euskara maite zituelako idatzi zituen paperera eramanak, horrexegatik erman zituen etimologia bitxi haiek (farre egin zioten Mayansek eta bestek isekagarria hautatzen beti asmatu ez zutelarik halere, *azucena*-rena ez baitzen Larramendik

(1) Errepara bekio datari.

(2) Mitxelena Manuel Garagorri Larramendi Manuel Larramendi bilakaeran argia ikusten ez bazuen ere, egunotan (ikus liburu honetan bertan) P. Altunak azalpen argigarri askiak eskaini ditu Larramendiren bizitzaz, deiturarena bame.

asmaturia Oihenartegandik hartua baizik), Mitxelcnaren gaitzespen erabatekoa beti jasotzen ez duten etimologiak, bestalde.

Larramendi, gainera, ez zen hutsetik abiatua ez bakarrik ibilia euskal barrutian etimologiak asmatzen. artean (Larramendiz geroztikako Astarloa etab. alde batera utzita) arestiko Oihenart aipatu berriak ere bere saiotoxoak egin baitzituen³.

Baina Larramendik badu berezko zerbait, idazlancei tankera berezia emango die-na: eztabaida maite zuela, alegia. Berezkoa zuen isuria jasotako ikasketa eskolastikoek hornitu zuten eta zeregin dialektiko horietan atzcan gelditzen ez zela jakiteak bere buruan ematen zion konfidantzarekin, ustez mesedegarri izan zitekeen edonora doa laguntza eskainiz, bai beharrak eraginda, bai bere kabuz. Saiatzen da berea zein den erakutsi eta arrazoiaren jabe dela frogatzen, auzirik filimñoetan ere. Beasain eta Bergararen arteko San Martinena, lekuko: *Nueva demostración del derecho de Vergara sobre la patria y apellido secular de San Martín de la Ascensión y Aguirre*, Madrid, 1745.

Eztabaidazaletasunak apologia-lanei berebiziko gatzozpina ematen die, berak ere seguru aski sinesten ez dituenak defendituz; halere, ez da zokoratzekoa Mitxelenak irizten diona "lotsagabe xamarra izan zitekeen, ez ordea ergela" (1984b: 31)

Gatzozpin-umore ttantto —hobeto, apika, tanta— ugariez bustitzen ditu lanak, aurkariani eztenkadaka erasotuz bere bizkarrera farre egin nahirik, erasotua bera de-nean haserterik agertzen ez duela, ordea. Beste zerbaitak ateratzen du bere onetatik: euskaldunen (predikarien, bereziki) axolakabkeriak, zabarkeriak, euskara eta Euskal Herriarekiko.

Eztabaidazale izatea ez da Larramendiri bakarrik kritika/goraipa (iritzien arabera) dakiokkeen akats/birtutza, Mitxelenak ere bere hurua samalda horretan sartu ez ezik, euskaldunok zainetan eramango genukeela esaten ere baitu.

Lege Zaharreko ohitura dugu, Mitxelenarentzat, bada, premiak hala eraginda sortu eta "rh"-an generamakeena, nolabait esan.

Guztiok ez gara, ordea, gauza eztabaida Larramendik zeraman moduan eramateko, eskolako dialektikaren bame-katramilak ez baitaude "arrazak" ezartzen dizkigunuen artean; bestetan ez bezala, "Billabonako izatea", bada, ez litzateke nahikoa honetan.

Dialektikaren katramilak ezagutuz, honetaz kupidarik gabe baliatzeak garaipena du helburu. Ez dio axola handirik erabilitako arrazoi-desarrazoiak sendoak diren ala hutsal, fedeari ez dagozkion beste edozein gaitako testuek ez dute deusik frogatzen ez ukatzen: irabazle iritea da garrantziko. Edozeren gaintik garaita jartzea ez da, haatik, Mitxelena eztabaidazalearen oso gogoko: zirikaren ozpina nahiago du Mitxelenak beti gainean gelditzen den olioa baino.

Ergela ez dela Larramendi esan du Mitxelenak eta ederki daki hori, jakin ere, andoaindarrak. Badaki norekin ari den indarrak berdintzen, dialektika bai baina euskarrak ez dakitenekin. Abantaila horri eta besteek baino irudimen biziago izateari aterako dio etekinik, ez baita lotsaren beldur (lotsagabe samarra ere ba omen da Mitxelenaren aburuz) eta jakin bai baitaki berea duela azken farra.

(3) Jakina denez, jokabide honek aspaldian ditu sustraiak, eta ez Euskal Herrian justu Platoren *Kratilo*-n bertan aurki daitezkeanak. Isidoro Sevillakoak eta XIX. mendeko hizkuntzalaritza historiko-konparatzaileak arteku abar luze batek jarraituak.

Hona Oihenarten aipu bakarra ekartzea. Mitxelenak honelatsu parekatzean datza.

Ikusiagatik pentsa daiteke zientziak eskatzen dituen ezinbesteko zehaz-zorroztasunak ez direla Larramendik dituen dohaiak. Zientziaren bide latz eta elkorrek ez dute, nonbait, erakartzen, nahiago ditu eztabaidagaiak, legegizon eta eskolastikoen antzera.

Horrexegatik ez dute orain gehiegi balio euskaldunon antzinatasun, eskubide, uste edo ametsen alde egin zituen "histori"-lan batzuek. Fisi-etsian onartu baitugu azkenean ez zirela gure leinukoak antzinako kantauriar sonatuak. (1966: 68)

Halere ez da gure artean berri zen esperimentazioan oinarrituriko zientziaren etsai azaldu, Berthier aitari zuzenduriko gutuna, Bascongada eta Bergarako Mintegiaren aitzindari izatea lekuko.

Areago, Espainiak bere kalterako oraindik ongi egosi eta irentsigabea dituen XVIII. mendeko "argiak" hemendik hasi ziren zabaltzen Peñafloida eta besteri esker. Frantziatik zetorrena Espainiarantz hedatu eta Larramendi, "adimenez eta gizatasunez euskaldunik argienetan argienetakoa" (1966: 68), Mitxelena argituen artean ipintzen ez badu ere, "behar bezala aztertzen badugu, ez da apika norbaitek uste duen bezain ilun-zale agertuko" (1966: 69), zehazten du.

Zeharbidez bada ere, Larramendik, "eskola zaharrekoa" izanik, lagunduko du adimen herdoildu samarretan Ilustrazioaren etimotik datorren "argia" pizten.

Dakuskegunez, *iriz-pide zabaleko* gizona dugu Manuel Larramendi Mitxelenaren begietan eta, honen beste lekukotasunik behar balitz, Mendibururekin dantzak zirela eta izan zituenak aipa daitezke.

Larramendi *erlijio*gizon ere badugu, argitara emanej eta lanen entzuteari begiratuta alderdi hau artean aipatuek erdi izkutan uzten badute ere, ez baitugu literatura erlijiosorik apenas utziko; zerura nahiak ez dio mundukoazko ardura galeraziko. Hori dela eta ariko da predikariek bere lana behar bezala bete dezaten lanabesak eskainiz. Hementxe topatzen ditugu uztarturik Mitxelenaren iritzien arabera Larramendiren bi sakoneko kezka nagusiak, *erlijioa eta euskara* (eta Euskal Herria, jakina): predika dezaten nahi du, haina egoki eta euskaraz, hau da, gaiari zein hizkuntzari arreta beraz erreparatuz; ez dago prest honetan amore emateko.

"Dotrinaren bidez ahalegindu omen zen Larramendi" (1983c: 97), besteri adierazten zer eta nola egin beharko litzatekeen eta aurkitu zuen, gainera, nork mami, ederki mamitu ere, gisa honetan errotuz

egundaino ezagutu dugun erlijioakera (dogma, morala, elizkizunak eta arauak), elizgizonetako zati handi batek herriarekin zituen harremanak, aldeak alde, zirela bide. (1978a: 32)

Bere "akuituari" esker bada, hasiko dira debozio-liburuak lehenik, bestelakoak gero, euskaraz sortzen, Larramendi zeregin honetan ariko ez den arren, Kardabera-zek leporatzen dion bezala. Eredua utzi du, orduko entzule-irakurleentzat goregi dagoela jakinik; "bazekien, eta horrexegatik behar bada hain gutxitan eman zion euskarari amore" (1983c: 97). Garbi ikusten baitu berari tresnak (gramatika, hiztegia...) eskaintzea dagokiola bestek etekinik atera diezaien fedearen eta euskararen onerako, lanabesak gaztelaniaz egonik ere.

Mitxelena, behin baino gehiagotan adierazten duenez, ez du inondik ere uste euskarari mesede egiteko ezinbesteko baldintza denik euskaraz idaztea, erdal lanak ere izan baitaitezke euskararentzat mesedegarri: euskaldunek erdaraz lantzen dituztenak ez dira bada kaltegarri nahi eta ez. "Onerako eta probetxuzko ere gerta daitezke inoiz" (1983a: 60)

Komeni da, agi dancan, erdaraz ere balia gaitezen. gure erdarak erdalduen lan handienaren maila nekez erdietsiko duela aldez aurretik jakinik ere, aldizka topatuko baitugu erdaraz ere era egokian mintzatzen denik, euskararen onerako mintzatu ere, hala nola Larramendi, Mitxelena bestetan aipatzen duen Txaho etabekin batean.

Pentsa ote dezakegu Larramendik euskaraz idatzi izan balu haren lanak ez zukeela, Mitxelena ustez, izan zuen arrakastarik izango? Alegia, Larramendi jabetu zela egoera hartan eta nahi zuena lortzeko euskarari (eta euskaraz egin behar zen predikulanari) mesede handiagoa egingo ziola erdaraz idatziz euskaraz idatziz baino. Karda beraz kexuari muzin eginik?

Harrigarriro, euskarak hain kezkatua duen Larramendik ez du, Mitxelena ustez, "sutumpa" hezkuntzara zuzendu —Sarako Itxeberrik ez bezala— eta guk ere harrigarri deritzogu, bestetan horren adimen argia erakusten duen honek ikusia behar baitzuen heziketa zein zen (eta den) garrantzizko, bestek beste, hizkuntza baten bizitza, iraupen eta garapenerako. Mitxelena *zuhertasun politikoan* ikusten du mutis honen arrazoibidea, ez baita zokoratzea garai hartako jesuiten kinkaren larritasunak izan dezakeen zerikusia.

Guztiarekin ere, berriz ere tartean sartzea zilegi bazaigu, ez ote zitzaion Larramendi elizgizon euskaltzalca Larramendi euskaltzale hutsari nagusitu? Bestela esan, aukeran jarritz gero, ez ote zuen Larramendik nahiago izan lehia-barrutia hautatuz, bere kemenak elizakoak euskaraz egin zitezten erabili eta horretan fruituak bildu beste gai arriskutsu eta irristakortagoetan indarrak sakabanatu baino?

Baliteke arrazoi soziologikoak ere tarteko izatea. Garai hartan zein ote zen jende gehiagorengana iristeko modurik zuzen, egokien, eta arrakastatsuen? Kulpitua, dudarik gabe, elizetan eskoletan baino jende gehiago, eta han entzunak sinesteko presatago, bilduko baitzen. Gisa honetan bi lanak batean bete zitezkeen: Berri Ona zabaltu eta euskara egokian egin gainera, eskoletan ez baitzegokeen bikote horren uztarrira erabat arriskutik kanpo, urteek erakutsi duten bezala.

Pentsatu ote zuen Larramendik elizetan ereindako hazia elizaz kanpokoetan ere gara zitekeela, garatu zen legez? Nonbaitetik hasi beharra al zuen gogoan, aurrerago beste urratsak emango zirelakoan? Mintzagai izango ditugun "hitz berezitu" edo teknikoak asmatzeko uste hau sendotuko lukeela dirudi.

Aldi honetatik begirata, Larramendi gizonari, guk, *errealista* ez ezik, *egitami-gile* (igarle?) izatea ere erantsiko genioke.

Larramendiz ditugun ezagupide apurrek ez digute biderik eskaintzen erantzun erabatekorik emateko. Nolanahi ere den galderak hortxo paratzen ditugu inork, andoaindarrak gu baino jantziago dagoen askoren arteko norbaitek, ihardesteko gogorik balu gure hutsune hau bete dezan.

II. Larramendi idazle

Zalantzaz lekorakoa da Mitxelena Larramendi *idazlea* oso estimu handian duela eta denboran zehar iritzi berari eutsi diola aldaketarik gabe.

Aipamen zaharretatik hasita, euskaraz ari denean *garbi eta jator* mintzatzen dela dio Mitxelena: hizkuntza sustraetatik ezagutzen duenak baizik erabil ez dezakeen bezala darabilela⁴. Hitzren sortzezko jatorriarenak itsutzen ez duela, ez die horratik berak asmaturikoei ez aterik ez atakarik zabalduko⁵.

(4) Alabaina Altunak pasarte harrigarri samarrik aurkitu ditu euskal lanetan, beste zenbait gerrikizuni josis, Larramendi "euskaldun berriin"tzat jotzeko bide eman diotenak.

(5) Iritzi honetakoa da Mitxelena baina Larramendiren Gramatikari hitz asmatuak irakur daitezke, azalpen eta guzti: *Sortzidun, amardun, anataadun, Lenen Giti*, esate baterako, poesia eskaintzen dion azken atalean.

Idazkerari dagokionez berriz, enfasia, hitz ugaritasuna eta pasarteen biribilasuna (Larramendik ziokeenez) gogoko ditu (1959d: 909). Urritasunean datzake zorritzarra, lehen mailakoa izanik, orain ikerlariei esker ugaltzen ari den urria⁶.

Euskaraz idatzi dituenen artean badira gaztelaniazkoetan barrena sakabanaturik aurki daitezkecnak, Mitxelenaren ustez etsaiak nahasteko nahiz arrotzen (ez ordea euskaldunon) beharrietan ausartegi izan daitezkeelakoan ematen dituenak.

Benetan aipatzea eta goratzea mereziko lukeena Mendibururen *Jesusen Biotzaren Devocíoa*-ri eginiko hitzaurrea litzateke, hitz lauuko euskal lanen zainari antologiatan leku ongi irabazia lukeena, guztiz eredu garri litzatekeena.

Ez letorkioke oso atzetik, haatik:

su panegírico de S. Agustín con su exuberancia, sus calembours y sus paradojas es un magnífico aparato de pirotecnia verbal quemado brillantemente desde el púlpito en un día de solemnidad. (1960b: 98)

Hauck lirateke, bada, Mitxelenak aipatzen dituen Larramendiren hitz lauuko euskal lan bakarrenetakoak nahiz, Pitaren esanci jarraiki, Larramendiren gutun batzuk ere bazeudela esan.

Baina "erdaraz ugari eta ausarki bezain euskaraz urri eta laburzki" idatzi zuen Larramendiren lanek aditzera ematen dute gaztelera ari denean ere, ez duela idazleak lotsaren beldur izkutatatu beharrik, ez gutunetan, ez bestelakoetan.

Maisuen gisa darabilen gaztelera "casticista" da, Barojak biguin zuena eta euskaldun gehientsuenok gaztelera ari garenean ez bezala, euskaldun dela igertzeko artesirik ez duena. Berezkoa du, txaplata-usainik gabea, eta berea du, idazkeraren ezaugarri dituen besteok bezala: nortasun nabarikoak, zorrotza, aldian-aldian zer erabili behar den dakienaren aberastasunez eta irakurlea ustekabean harrapatu eta harrituko duten umorezko ateraldiez beteak.

Garaiko arauetien begiramenak ez dio eragozten hain maitea duen eta zainetan daraman eztabaidarako gogoak irakurleaganaino iristarazten (honetan, eta ez bakarrik honetan, antza, Isla Aitarekin berdin daiteke) eta irakurleen samaldan, nor Mitxelena baino eztabaida eta umorezaleago?

Umore-ukituak, gaztelera ari dela tartekatzen dituen beste hizkuntzetako (euskarazko eta latinezko) zertzeladetan ikus daitezke, besteak beste.

Mitxelenaren ustez, XVIII. mendean gaztelaniaz, gutxi idatzi da *Corografía*-ren mailakorik baina, erdaldunek ez ezen euskaldunok ere, ez dirudi, salbuespenak salbuespen, gehiegi arduratu garenik Larramendi behar den neurrian aztertzen eta eza-gutzen eta haiena baino gureago litzateke errua; hestela ikus lan "hizi, txairo eta dotore" honezaz dioena:

Ezagunago ez baldin bada erbestean, ez dute agian arrotzek erru osoa. (1966: 69)

Hitz lauz eta hitz neurtuz idazten duen Larramendi ez da, Mitxelenaren ustez, maila bereko idazlea.

Gavon-sari-en aitatasunaren auzia zela eta, Larramendiren izakera zirikatzaile eta jolas-zaleak Mitxelenari Luisa Misericordiakoaren atzean izkuta zitekeela pentsatzeko eskubide ematen badio ere (izengoitia emakumezkoarena izatea — "emakumezko gonon azpian" — dio, ez zaio horratik atsegin), oztopoak ikusten ditu Mitxelenak era

(6) Altunak eta Lakarrak egunotan aurkezturiko *Larramendiren euskarazko testuak* kusatuko.

horretako, hots, *jolas bertsoirik*, ez duelako aurkitzen andoaindarraren lanetan berdindu ahal izateko.

Larramendik utzi dizkigun bertsoak (mintzagai duen *El Imposible vencido*-tika-ko perla polita kasurako) zalaparratsu eta handiki dira, ez jostailu-gisa sortuak: gehenez ere "joko" dira, ez "jolas" Larramendiri zerk eragin zion idaztera gogoan badugu.

Bertsook ilun dira eta egilea jakinaren gainean dago, argibideak eman behar baititu *Gañeracoa erráz: da-ren aurretik* —eta Mitxelena ere, iluntasunari dagokionez, gogokide du azalpenak aldatzen baititu *humalaudun ilunskoá* aditu ahal izateko. Argitasunok ez ezik erdal itzulpena ere aldatzen du, Larramendik gaztelez asmatu ote zituen susmoa agertzen duela: "zein da ordea zeinen itzulpen?" galdetzen du Mitxelenak.

Handi-iluntasun hori Barrokoaren eragina izan daitekeela pentsarazten digu Mitxelenak "Barrokoaren lore mardul"-tzat jotzen baitu poema. Eta gizarte-poesiari aurkajartzen dion arren, uste dugu erdiesan ere egiten duela gure gizarte-poesia beste barroko honetatik hain urruti ez lebilkeela, Miguel Hernándezek Góngoragan ikasi zuen bezala. Larramendiren "Goi Lenéna" eta gizarte-poesiako Prometeo berria erkatzen ari ote da Mitxelena?

Larramendi, bestalde, ez omen dabil latinezko bertsoen neurkeran mende bat lehenago lapurtarrak ibili ziren bezain zorrotz eta zehatz.

Poesiaren Fray Gerundio izendatzen duen Larramendiren bertsoak ez dira, antza, Mitxelenaren gogokoak. Mitxelenak Larramendi bertsoegilea ez du begi onez ikusten eta ez dugu uste latinezkoen neurria denik medio.

III. Larramendiren lanak

Larramendiren lanak aipatu eta aztertzean Mitxelenak oso gogoan du etekin ez gain zerk eta nork bultzatu zuen Larramendi idatzi zuena idaztera, baita nola burutu zituen lanak ere. Guk ere ildo beroriei eutsiko diegu hemen.

Filosofia eta Teologia irakasten aritzearen ondorio lirateke 1959an oraindik argitaratu gabe zeuden latinez idatziriko lan teologiko-filosofikoak. Mitxelenaren arreta gehiegi erakartzen ez dutenak.

Ondoren letozke Larramendiren garaian puri-purian zegoen eztabaidaren oihartzun zaratatsua liratekeenak. Espainiako lehen hizkuntza zein ote zen galderari erantzunez argitarako du *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España, de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas. Demostración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua*. Salamancan, 1728.ean, "iragarritako lanaren kronika" ere badelarik, hurrengo urtean eta Salamancan bertan, euskarak gramatikarik, hots, "Arte"rik ez zuela eta euskara gutxiesten zutenen esamesei (Mayans, Armesto y Ossorio), *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada* kaleratuz erantzungo baitie.

Azken lan hau da, hain zuzen, kritikak eskuzabalago (hala behar, Mitxelenaren ustez) hartu duena. Larramendiren lanetan uharte gelditu zaigularik besteek sortu zituzten eta dituzten istiluck zipriztindu ez dutela.

Mitxelenak agertzen duen iritzia hona aldatuz, "Ezina egina" inoiz itzuli izan den hau, euskararen gramatika-egituraren punturik garrantzizkoenak era argian aurkezten dituen azalpena da, bizitasun apur bat izan dena, istilu-iturri izan daitezkeen iruzkinak tartekatzen dituela. Ez dakioke Larramendiri eska garaiari aurre hartzea zehaztasunari dagokionez eta latinezko ereduak ezarritako aspaldiko terminologiari inuzin egitea ere, egia den arren, euskararen bereiztasun eta nortasuna nabarmendu nahirik

dabilelako edo, bere garaiko beste gramatikak baino askeago ageri dela latin-ereduaren murrizketatik.

Aurreiritzi okerrik gabe irakur dezana ohartuko da Larramendik bere duen zentzu zuzenez; eta orriakde gehiegirik erabili gabe, gipuzkeraren gramatikaz gain ebakerari eta beste euskalkiei buruzkoak bildu dituela.

Esan izan da daraman izenburua harrosko dela baina harrokeria egileari baino gehiago legokioke euskal gramatikarik egin zitekeen, are euskarak gramatikarik izan zezakeen dudan jartzen zutenei —lagundikide zuen Marianari, besteak beste— eta harrotasuna, ez harrokeria (atzizki-jokoa zilegi bada), inork nahiz ezerk izatekotan, euskarak merezi zuela pentsatuko zuen Larramendik.

Sakoneko erroa abertzaletasunean bilatu behar da, abertzaletasun beronek gehiegikeriara eramanez: euskara beste hizkuntza guztien gainetik jartzera, hizkuntzak berez elkarren arteko harremanetarako egoki nahiz desegoki bailiran⁷. Oker lebilke honetan, noski, Mitxelenaen ustez.

Txalogarri deritzo, berriz, Mitxelena ikerlarien eskuetan lehen aldiz, euskararen azalpen nahikoa osoa jartzeari. Aurretik zenbait lan egin zen, esate baterako P. D'Urteren *Grammaire cantabrique basque* baina, honck nekez izan zezakeen ondorioz argitara gabe egon baitzen 1712tik 1896-1900 arte⁸. Besterik da, ordea, Larramendik ezagutu eta zenbait ideiaz jabetzeko erabili zuen Oihenarten *Notitia*. Larramendik eta Oihenarten lanak berdintzean halere, Mitxelenaen begietan zuberolarrarena galduan ateratzen da, arrastoak baitira andoaindarraren irudi —ez guztiz osoaren— ondoan.

Gaurko begiek, bada, lasai asko mira dezakete lan hau, denbora-baheak ez baitu erdietsi duen maila zahia bailitzan gorde.

1736an argitara emango du Madrilen *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria*. Garaiko giroaren alaba izaki, Larramendiren aurretik sorturiko zenbait sasistorio "de origen más crudito que popular cuyos primeros testimonios son del siglo XVI" (1959d: 901) eta leku-izenen arteko antza batzutan oinarritua da.

1745.ean, Donostian oraingoan, plazarako du hiztegia, urteari Mitxelena egiazko *annus mirabilis* deritzolarik.

Bi arrazoi ikusten ditu Mitxelena hiztegia gaztelera-euskara (latina) izateko:

— "Kanporako" hiztegia da, erdaldunak kontura bitez euskarak badituela erdarek adina hitz eta gehiago; ez gabiltzala, nolabait esan, zuhurteriatan hiztegi-kontuan.

— "Barrurako" hiztegia ere bada. Predikari axolakabeek —misiolariak, Zarauzko frantziskotarrak eta zenbait jesulagun salbu— sermoiak gaztelera edo ahuntz-euskaraz egin ordez, euskara txukun eta egokiagoan egin ditzuten lanabesa eskaintzen die.

Nahiz bestetan ere erdal-euskal hiztegitzat jotzen duen Mitxelena, 1983ko "Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)". 59. or. an *euskal hiztegia* dela azpimarratu nahiko du:

Diccionario trilingüe deritzan *euskal* hiztegia (euskara baita ezpairik gabe nagusi hiru hizkuntzetan). (Etzana gurea)

(7) Gure aldetik zehaztuko genuke hizkuntzak norgehiagoka paratzea ez dela Larramendiri soilik kritika dakiokiena. Dutek ere, adibide bat ematearren, ez al zituen latin "artifiziala" eta hizkuntza "vulgarrak" lehia jarri? Larramendiren jokaera bere testuinguruan ulertzeko litzateke.

(8) Orain, P. Urkizuren doktorego tesiari esker (Mundaiz, Donostia 1989), egile honez eta bereziki hiztegiak gehiago jakin daiteke.

Dudarik ez dago, guk uste, euskal lexikografian sartzeko eskubide osoa aitortu nahi diola hemen Mitxelena, bere atsekabera adierazten duen arren: adrebes egin izan balu, hots, hain ederki zekizkien euskal hitz ugariak hartu izan balitu oinarri, bestelako tresna geneukan orain eskuetan. Ez du, ordea, honela egin, erdaldunak harritu beharrez eta harritu behar horrek asmarazi dizkio egokiak eta desegokiak.

Baina euskaldunek erabil dezaten ere bai, oztopoa ez baitzegoen euskal hitzen erdal ordainak bilatzean, artean gaztelaniaz esanak euskaraz esatean baizik; honen froga predikariei egotziak.

Larramendik, "luzea, zabala, lodia, entzutetsua" den hiztegia zergatik (1966) eta nola (1984b) taxutu zuen adieraziko digu Mitxelena: erdaldunak txunditzeko; euskara ez dela beste hizkuntzak baino urriagoa hitz-kontutan argi eta garbi utzi nahirik behin eta betiko. Xede horrek sorrarazi dizkio hainbeste asmakari, euskaldunek erabiliko ez dituztelakoan, seguruenik, berak erabili ez dituen legez⁹ baina euskaldunok, nonbait, azpijokoaz konturatu ez eta "Iztueta buru genuela" erabiltzeari ekin genion.

Hau da lanotan Mitxelena agertzen duen iritzia, gure ustez hein batean bederen zehaztu beharrekoa. Izan ere, erdaldunen ahoak mututu ez ezik euskaldunentzako tresna mamitzen ari zela ohartua zen Larramendi, Noraino esan daiteke, orduan, euskaldunek erabiliko ez zituztelakoan asmatu zituela hitzak, batez ere, aurrerago aipatuko dugun "euskara noranahikotzeko" egitasmoa euskarak trebatzeko bete behar zituen hutsunez jabetua zela Larramendi agerian badago?¹⁰

Nola egin zuen "n-garren aldiz" azaltzen saiatuko da Mitxelena. Real Academiai sortu berria zuen hiztegitik joan omen zen gaztel hitzak banan-banan hartu, ondoan euskal ordainak eta azkenik latinezkoak paratuz.

Euskal hitz jatorrak, entzunak zein irakurriak, hildu zituen lehenik, euskalkirik —ezaguerak ezartzen zizkion muga soilez— baztertu gabe. Halakorik aurkitzen ez zuenean, beriz, Mayansi ezin arrazoia eman eta, etxetik kanpora jotzen zuen, erabiltzen ziren erdaralikakoak ere sartuz; ez nolana halare; Izenik oraindik ez zuen Pragmatikari egungo askotxok baino arreta handiagoz baizik, hitzak noiz, norekin, nola erabili behar ziren baitzekien, jakin ere.

Denak ez dira, halaz ere tankera honetakoak. Mailebatu egoki eta moldatuak hartu ez ezik asmatu beharrean ere ikusi zuen bere burua lehiari garaile aterako bazen, bertan hiruzpalau entzunak besterik aitortzen ez baditu ere. Hiruzpalau horiez kanpokoak irateke "bereziituak" (*vox facultativa*), edozein hizkuntza garaien eskakizun berriei erantzun nahirik sortzeko premia eta eskubide dituenak.

Era honetara, Larramendik lortu nahiko du "lehenbiziko aldiz eta erabat" Lizardik "Euzko Bidaztiarena" olerki ederrean nahi zuen hizkuntza larrekoa noranahiko bihurtzea. Mayans eta beste akuilariak behartu dute, bada, elizako eta egunoroko eginkizunetarik urrunduz, euskarari amas freskoa, hego berriak, har ditzan bidean jartzera.

Hiztegiaren mamitze honetan, beraz, ez ditu Mitxelena erabat gaizki ikusten, antza denez, andoaindarrak urraturiko bideak. Guztiarekin ere, Hiztegiaren barrenak

(9) Mitxelena kanabilen botikanoarekiko berdinaketa gogora daiteke, Ikus, halaz ere, 5. oin-oharra.

(10) Gogora gainera 1959k: 907: "Hay además otra razón, mucho más fundada, para que el *Diccionario* fuera castellano vasco. Larramendi no cesa en sus obras de fulminar a los predicadores del país que, con algunas excepciones (la de los misioneros y en particular los franciscanos misioneros de Zarautz), predicaban en castellano o al menos en mal vascuence..."

ukitu ditugunez gero, ikus dezagun 1959an nola azaltzen dizkigun bertakoak eta zer irizten dien Mitxelena.

Hiru atal nagusi bereizten ditu: Aitzinsolasa, hiztegia eta eraskina, hirurak maila berekoak ez liratekeelarik.

"Aitzinsolasa" apologia lanen laburpena eta hizkuntz ideiez eta eztabaidakerez jabetzeko biderik egokiena dela dio. Hemen isuriko ditu Larramendik bere ideiak, hizkuntz ideiak batipat, berezkotasun apartarik erakutsiko ez duela.

Mitxelena ez du uste Larramendi guztiz "errudun" denik XVIII. mendeko Espainiako hizkuntz zientziaren egoera gogoan bada, bere garaikideen antzeratsu lebilke.

Berez "hiztegi" dena hartuz berriz, lehen esanetan lanaren alderdi onak agerian gelditu direnez gero, ekar ditzagun orain makurrak, "makur asko eta nabarmenak" baititu Mitxelenaren ustez. Bi dirateke bereziki:

-Sinesgarritasun handirik ez duten datoak biltzen ditu, nahaste iturri bilakatuz gainera, entzun eta irakurritakoei bere kasa asmaberriak tarkekatzen baitizkio, zeregin honetan jantzia denari ere gaitz egiten zaiolarik nori berea ematea.

-Han-hemen sartzen dituen etimologia ugariak, latinezkoen eta gaztelaniazkoen iturburua euskara dela dutela xede, larregalca baino ez dute sortzen gehienetan, "Ellas le han dado una fama poco apetecible de vascomano apasionado y ligero que es necesario examinar más detenidamente" (1959d: 905). Onartezinak direlarik ere bere inguruncan ikusi behar dira. Izaera eztabaidazaleak eta betebeharrak apologistek eraman dute horretara: estualdietatik ateratzeko asmatu dituenetan oso sinesturik ez egoteaz gain besteri adarra jotzeko era aproposa iruditzen zaio¹¹, *España*-ren etimologiaz dioena lekuko.

Eta azkenik, *but not least*, letorke Suplemento delakoa, hiztegiaren makurrak ez duena, kitatu beharrekoak kitatu dituenek gero. Gaztelaniazkoak itzuli ondoan ez du premiarik asmakizunetan aritzeko eta Kardaberazek esku artean ipiniriko *Quaderno viejo* (1596ko *Refranes y Sentencias*) bat, Axularren eta besteren lanak eta aitortzen ez duen Landucciren¹² hiztegia hartuko ditu batipat eraskin edo osagarriaren oinarri. Ez du honek, haatik, esan nahi horietaz bakarrik baliatu zenik.

Mitxelena aitortzen dizkion alderdi onak asmatuak ez parazetik datozkio. "entzunak" eta "irakurriak" baitira paperera eramanak. Hutsek aldiz berandu ibiliak sortuak dirudite, frogak ikusteko ez zuzentzeko egokierarik ezak (arrazoia hau bakarrik ez bada ere). Mitxelena saiaturiko da (1961a eta *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*-ko "El Suplemento de Larramendi" atalean batipat) huts boriek non daudekeen azaltzen.

(11) Beste helburu bat ere antzeman dakioko, apika, Hiztegia murriztearen ondorio latzak garbi izaki eta erdaratikakoak euskaldunek lasai asko erabili zituzten behar zuten konfidantza, bere buruan sumatu bide zuten "auctoritate"-indarrak baliatuz, eman nahi izatea, alegia.

(12) Baliatu zenik ez aitortzeko ez du esan nahi hala egin ez zuenik: "Hay una tercera [iturria], tan clara como las otras dos, que es el *Dictionarium linguae Cantabrigiae*, compuesto en 1562 por N. Landucci, natural de Luca. Y la razón de que no reconocza su deuda son según toda evidencia las palabras poco amables con que lo juzgó en el prólogo del *Diccionario trilingüe* (...). Larramendi no pudo, pues, resistirse, e hizo bien, a admitirlos en el *Suplemento*, y se contentó con callar la procedencia" (1984a: 43).

Areago, Mitxelena "Introducción [al Diccionario de Landuchio]" 1958ko linean dioenez, Larramendik hiztegi horri oker irizitaki iraupen luzea izan du. Urkixok berak argitaratu emateari uzkar egueraino. Baina atdi berean Larramendiri esker iritsi zen, hain zuzen, eskuizkribu hori zegoen bertan (1958b orain SHLU-n 762-782 or. etan bildua).

Nolanahi ere den garbi dagoena da Azkueren hiztegian, bat esatearren, topa ditzakegun eraskin honetakoek Mitxelénari, hiztegiak ez bezala, laudorioak sortarazten dizkiotela.

Diccionario trilingüe osora itzuliz, ez da gure ustez guztiz zuzen izango, behar-bada, osotasun horretaz hitzegitea, Mitxelénaren eta besteren lanen irakatsien ondoren. Hain dira nabarmenak hiru atalen arteko desberdintasunak, aurrerantzean berezi beharko da Hiztegiako zein zati den mintzagai.

1747koa da Burgosen argitara emaniko *Un compendio del catecismo del Padre Astete* (1960b: 100).

Aipatuez gainera, utzi ere ditu

beste zenbait liburu, hil ondoren argitara zen *Corografía de Guipúzcoa* ospatsua, eta ezin konta ahala paper, orain Telletxea Idigorasi eskerrak irakur ditzakegunak, irakurriko ditugunak ez baldin badira. Berrien artean badira euskarazkoak ere, lehengo pusketa haiei eranstekoak: ez dira, ordea, ez luze, ez ugari¹³ (1983a: 59).

“Beste zenbait liburu eta paper” alboan utziz, gatozen “*Corografía* bizi, txairo eta dotore” (1966: 69) Aita Fitari esker Larramendi hil eta gero (1882an) argia ikusi zuenera.

Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa du izenburu oso, Mitxelénaren ustez bere lanik entretenigarriena den honek. Orrialde eztabaida-sortzailerik ez da falta Gipuzkoaren ekonomia, gipuzkoarren izakeraren on eta makurrak, bizimodua, erlijiozaletasuna, aginte-mota, dibertsioak, hizkuntza (xhetasun bitxiex homitua) etab.en deskripzioan.

Eskaizten duen altxorra ikerlariarentzat ez eze, irakurle arruntarentzat ere guztiz erakargarria da. Bizitasun handiz aurkezten digu Gipuzkoa, “algo arcádica, pero real y consistente” (1959d: 910). Mito zenbaitek hemen aurkituko du gorputzik osatuena, hala nola: jatorrizko eta ez eskuraturiko noblezia, odol kutsatu gabea oinarritua eta sekula inoren menpeko ez izanaren ondorio; Foru errejimenaren zorioneko egoera, erakundeen arteko liskarrik ezetik eta erregeretikiko begiramenetik letorkena...

Iritziak iritzi, Larramendi lekuko aparta litzateke iraganekoak irudikor eta biziki berreskuratu dituenetz gero.

Lan honek Espainiako XVIII. mendeko hitz lauuko literatura urri samarrean berezko lekua merezi lukela uste du Mitxelénak.

Beste eraskinez esan daiteke “Los suplementos de Araquistain” ataleko sarreran, Arakistainen izenean Fitak argitara eman zituenetan nahasirik leudekeela Arakistainenak Larramendirenekin zehazten duela Mitxelénak. Zehazki, Fitaren v.a ez omen litzateke Arakistainena, Larramendirena denik esaten ez badu ere. Bukacerakoak, berriz, honek bai, Larramendi luke aita (bere eskuz egina denik ez du ziurtatzen Mitxelénak). Hiztegi handiari erantsi zionaren parekoa litzatekeelarik, Fitak egin arte ez zen kalera irten.

Bestetik, eta *Estudios*-en bertan, “Advertencia final” delakoan, 87. or. Goikoe-txeraren “Larramendi-ren egun aundia Salamancan” eta Patxi Altunaren “Larramendi-ren iztegi berria”, biak 1967ko *Euskera*-n argitara emanak, bereziki aipatzen ditu Mitxelénak, bigarrena batipat, gorai patuz.

Atal honi amaia emanez esango genuke Mitxelénak euskal lanetan aipatzen ez duen Larramendiren *Sobre los fueros de Guipúzcoa* mintzagai duela “Los vascos y

(13) Ikus 6. oin-oharra.

su nombre” 1984eko artikuluan, Larramendik *h/vascongado* “euskaldun”-en ordain nahiz, hizkuntza-lokarririk gabe, jaioterri soilak bat eginikoak adierazteko darabilela esanez.

IV. Larramendi euskararen zuzpertzaille

Esango genuke Mitxelenaentzat euskal ikerketaren eta euskararen jakinbidearen ekoizpenerako, Larramendik euskarari eta bere mamitzeari buruz zituen ideiak direla utziriko hatzik sakonenak. Larramendik mamia ematen dion azala apologistak —barne eta kanpokoentzat— maiz aski erdi ilunpetan utzi duen arren.

Larramendik, pleguetan (gutxiagitan) gauzatu duen nahi lukeen euskaraz (segi-ziokock bete zuten lana) eman du argibiderik: nahikundeen munduko izan arren egitaterik hurbilenean sustraitua behar du, ez baitago euskararen ezagupide zuzenik euskalkiak txuliatuz, grekeraz bezalaxe. Eta euskalkietan bilatze horren arrastoak utzi ditu andoaindarrak bere lanetan, geroko ikerlarien mesederako.

Euskaldunok zabarkeriaz ikasi ez dugun euskararen aberastasunean lituzke zainak grekerarekiko parekotasunak. Horregatik bai Larramendik bai jarraileek Hego nahiz Ifarraldean jarriko dituzte begiak behar duten eta ez duten euskara hori bilatu nahirik.

Mitxelena ez du uste Larramendiren asmoetan dagoenik “gipuzkera” literatur euskara bilakatzea: bai, ordea, “euskara bat” literatur hizkuntza bilakatzea, oker ulerturiko “probintziakeriarik” gabe. Euskara landu horrek erroak euskalki bat baino gehiagotan lituzke (pentsa zein diren Hiztegiaren gehigarriaren iturri aitortuak) eta bat nagusituko bada ere hautapen horretan mamitzaileek bere altxoa jarriko dute.

Benetako —ez alegiazko— euskara euskalkietan sustraiturikoa nahi luke Larramendik. Eta hezurragizko euskaldun horiek beste hizkuntzen morroi-neskame izango ez badira euskara egokia behar dute, beren premieta (arimaren salbazio-bidean buruen-buruenik) erabilgarria dena baina honek dakarren ohizko hizkuntza larrakoa noranahiko bilakatzeko “eredua” beharko da. Eredu hori berriz, egiteke dago (nahiz aurretik lapurtarrak honetan arituak izan) ez dago gramatika, hiztegi etab. egokirik, Salamancan irakurtzen zituen lanen antzekorik ere ez, eredugarri izan daitekeenik. Ikusi besterik ez baitago Hego aldeko Larramendi arteko liburu-ekoizpen deusa.

Bere herri eta hizkuntzari dion maitasunak ez du itsutu egoera benetan nolakoa den ez ikusteraino. Aitzitik, egoera honelakoa delako saiatu behar dugu euskaldunok, berak aurrenik, aurrerakoan ere berdin gerta ez dadin. Hiztegi eta gramatika ditugun eragozpen eta hutsarterik handienak bete behar dira, aberastu, garbitu eta zuzenduz. Hitz-altxorari dagokionez hiru bide genituzke:

a) Zailuena litzatekeena, baina gauzatzeko trabak dituen. Euskal altxor zabalako edozein hitz har daiteke, erabileraren aldi eta lekuari jaramonik gabe. Euskaldunon gaitasuna eta ezagupiderako beharrezkoa den jakinmina behar ordea eta, euskaldunok gure alferkeria eta arduragabekeria direla medio, zahalen litzatekeen bidetara malda neketsu bilakatzen dugu.

b) Euskal hitz nondinahiko direnak ordu arteko ez bezalako esanahi berriz aberastu testuinguru berrien arabera, hedapen edo zabalkuntza semantikoa, alegia. Era honetara, estructuralisten (Hjelmsleven bereziki) antzera hitzegiterik badugu, adierazpen planoan ukitu gehiegirik egin gabe, edukiarena aberastea lortuko genuke; polisemia da bidea.

Honela ez ezik, bestela ere joka daiteke: euskal gramatikak eta hiztegiak eskaintzen dizkigutenetan oinarrituz hitz berriak sor daitezke. Hots, adierazpen planoan ere euskal ondasunez baliatuz aberas dezakegu. eratorpen eta elkarketak honetan sekulako garrantzia (hara Larramendi!) hartzen duelarik. "Honela jokatzuz gero, ez du inongo euskaldunak harritzeko eta espantuz agertzeko eskubiderik", dio Mitxelena (1983a: 61).

c) Arestiko biak egokiak direlarik ez dira nahiko, hizkuntza orotan gertatzen denez, horregatik beste hizkuntzetaik mailebatu beharrean gaude (gogora Mendibururi esandakoak). Guregana-lanetan aspaldixkotik ibiliak garenez eta zordun agertu nahi ez dugunez gero etimologia bitxi bidez eman diezajogun bira norabideari zordun besteak ager daitezen (*alabantza*, *artilleria* hamaika bider aipatuak, besteak beste).

Baina zor berriak egitea ere zilegi zaigu Larramendiren ustez, Arana Goiri eta Azkue segiziokoekin auzi honetan Larramendiren aurka jarriko direlarik.

Larramendik ez du asmakizun-bidea baztertuko, "argi eta garbi aitortu zuen asmatzea zilegi zela, edozein hizkuntzatan bezala, "voces facultativas" direlakoetan". Hau da, hiztegi bereziak sortzeko eskubide osoa dugu terminologia zehatza behar duen jakinbideak aurrera egingo badu.

Hauk lirateke, bada. Mitxelenaren ustez Larramendik urraturiko bideak euskal hiztegiak euskara noranahiko bihur dadin jarraitu beharrekoak. Egingo genuke teoriari dagokionez behintzat —etimologia xeblete eta asmakizun hitxiak salbu— Mitxelenak ez diola oker irizten jesulagunaren egitamu lexikologiko hori, euskal lexikografian sortu zuen kaltea ahanzten ez badu ere.

V. Larramendiren eragina

Larramendiren eragina maiz du ahotan Mitxelenak, eragin hau era eta norabide bakarrekoa ez delarik. Hasteko, galda dezakegu ea Larramendigan zerbaitek edo norbaitek izan zuen eraginik, hots, ea eragin-sortzaile hutsa izan genuen ala bera ere nolabaiteko zordun zen.

Bestelako bibliografian sartu gabe, artekoan bezalaxe Mitxelenaren lanetan oinarrituz, uste dugu (erdia ustel?) Larramendi eragin-sortzaileak Larramendi hartzailea izkutatu duela.

Larramendik, eman ez eze hartu ere egin duela pentsa daiteke. Axularren gidaritza onartuko luke, hiztegiari dagokionez behintzat, honelaxe aitortzen baitu andoaindarrak Landuceirenarekin egin ez duena. Hala ere, badirudi hartuak ez dituela dioen bezain kontuz aipatzen. Mitxelenaren ustez,

La segunda de las fuentes confesadas es Axular, de quien procede efectivamente buena parte de las palabras, *bien o mal entendidas*, del Suplemento (1970: 43; etzana gurea).

Esan al daiteke, orduan, Mitxelenak eragina hiztegi mailan soilik ikusten duela? Ez dugu horrela uste, nahiz hiztegiari gauzatzen den eragin horren islarik agerikoena.

Mitxelenak ez du hitz-kontu soil ez hiztegitan (*RyS* edo Landuceiren hiztegia izan daitezkeen legez); "hitz lauuko ereduaz" ari da eta hementxe dago guretzat eraginik zuzen eta garrantzitsuena: Axularrek eta beretarrek eta Larramendik eta segiziokoek, nork bere lekuan eta garaian, lortu dutela euskara idatziari molde finkatua ematea. Era honetan, euskararen eta euskal lanen bilakaeran bi zedarrak irrezko ipini dituzte, euskara-eredua bera ez bada ere. Asmoa da bera eta pentsatzekoa da Larramendik ez zuela begi gaiztoz ikusi Axular(tar)ren asmoa ez ezik etekina ere; bazuela, alegia, non begiratu berea bideratzeko.

Oihenart ere ba omen litzateke, gramatikazko ideietan batipat. Larramendiren aitzindari, *Notitia*-tik jasorikoetan batez ere. Esate baterako, *-a* mugatzaileari dagokion puntuan.

Ez ordea P. D'Urteren gramatika, ez baitzen argitara emana.

Etxeberri Sarakoak sortzen dio buruhausterik Mitxeleneri: norik norengan izan zuen eragina, zein izan zen emaille eta zein hartzaile.

Zenbait tesituan Etxeberrirek andoaindarrarengandik jaso zuela *alosis* hitza dioen arren beranduagoko¹⁴ lan batean iritziz aldatu duela dirudi.

Cabe, por lo tanto, en lo posible, y hasta en lo verosímil, que el manuscrito sea de Etxeberri, lo cual vale tanto como *considerarle acreedor en su comercio con Larramendi*. En tal caso, Etxeberri sería la fuente primera de *alosis*, forma que aparece aislada en el léxico vasco, de *horeantza* que pudo ser popular o formado por analogía, y de *huz-ajua*, que sería un derivado de *uzi*, "dejar" (1984a: 30; etzana gurea).

Mailebuaren norabidea aldatuak genuke beraz, lehengo aipamenetatik hona? Azken hitza hau ote zuen Mitxelena? Egia esan, ez dakigu baina aztertuen arteko azken delat (bestelakorik itzuri ez bazaigu) bai behintzat, *Estudios*-i erantsirik "Codicilo de 1983"-en ez baitio deus kontrakorik.

Ikus dezagun orain zein dituen Mitxelena Larramendiren segiziokotzat eta zertan izan duen andoaindarrak eragina, ez baitu soilik euskal lanetan ikusten "Aita Manuel handia"ren oihartzuna eta itzala.

Lehenik eta behin esan beharke litzateke eraginikoen artean badagoela oparota sunik aski gaiet, lekuei, garaiei, asmoei etab,ei begiraturaz. Guztiak ez dira euskaldun ("y no todos sus fieles fueron vascos") (1959d: 900), bai ordea, gehienak euskaltzale edo euskarak kezkatu dituenak behinipehin, denak ez dira hizkuntzalari, denek ez dute euskaraz idatzi... Areago, badira Larramendiren gidaritzari obartuki eutsi nahi izan diotenak eta beste batzu herriz, gogoko ez bazuten ere, oharkabean, konturatu gabe, eragin hori nozitu dutenak (Azkue lekuko).

Ez ditugu banan-banan ekarriko Mitxelena honezaz egiten dituen aipamen guztiak, hain dira ugariak nahi baino luzeago joko luke eta, bai, ordea, gutxiagotan aipatu direlako edo, gure ustez nabarmentzea merezi dutenak.

Ildo honetatik, hizkuntzazkoak saihestetik besterik ukitu ez zituzten Azkoitiko Zalduntxoak, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak, Bergarako Erret Mintegia aipatu beharke lirateke.

Larramendiren eragina, bada, ez da hizkuntzaren arlo soilera mugatzen, kultur giro orokorrean ere izan du arrakasta.

Hizkuntzazkoetan pittin bat sartuz, berezi beharke genituzke agian aipamen guztien artean Larramendiren lanetan oinarrituz "hizkuntz ikerketak", "euskarazko ikerketak" egin zituztenak batetik (etxeko nahiz kanpoko) eta Larramendiren irakaspideak euskaraz erabili zituztenak bestetik.

Hizkuntz ikerketetan, behin baino gehiagotan aipatzen dituen Hervás eta Henao ekarri beharke genituzke; baita euskal dialektologia mamitu zuten Bonaparte eta Azkue ere, Humboldt ez lebigkiekeelarik oso urruti.

Euskal dialektologiaren ez ezik dialektologia berriaren aitzindari ere bagenuke Larramendi, Joveflanosen ondo-ondoan.

(14) Gogoan izan 1984kotzat jo dugun lan honetan bilduriko oro ez dagokiola berez urte horri, bibliografian zehaztuko den bezala.

Azkue aipatu berria dugu. Jakina da, Mitxelena behin baino gehiagotan errepi-katu baitu, Azkuek Larramendirenak ontzat ematen ez zituela, ez baitzituzten iritzi berak euskal hiztegiaren altxorren osagaietz "Euskal hitzak zein diren" artikuluan irakur daitekeenez; halaber, jakina da nola sartu zitzaizkion Azkueri hiztegian "zirri-kituetatik". Honen azterketa sakon eta xehea da *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, non Azkueri oharkabean Larramendiren zein sartu zitzaizkion, besteak beste, bereizten dituen Mitxelena.

Azkue litzateke, beraz, Larramendiren irizpideari ibesi, errainua laruan itsatsirik daramatenetako nabarmenena.

Lehen esan ere dugu eragin hori, bai ikerlanetan bai euskararen erabileran bertan nabari daitekeela. Bigarren bide honi ekin ziotenen artean bada gipuzkoarra (eta euskalkia dugu orain balipat gogoan) ez denik: Gamiz sabandotarra kasuko.

Nafarroan berriz, ez da izan Larramendiren eragina Gipuzkoan, Bizkaian eta "Bidasoaz harantz"-ko lurretan bezain indarrekoa: Elkanoko Lizarraga da salbuespenetarikoa. Mitxelena ideia honi euskal artikulua bat baino gehiagotan eusten badio ere, beranduagoko beste erdal lan batean, nafar jarraile ia bakarraren ondoan beste izen bat ematen du, Mendiburuk lagun mina zuen Mikelestorenarena, alegia.

Ifarraldean, Lapurdin ozenkien, entzun daitekeela andoaindarraren oihartzuna dio Mitxelena lan bat baino gehiagotan, Hiribarren, Harriet. Haraneder direlarik aipatuenak.

Harriet-Haraneder bikoteaz, 1961eko, 1970eko eta 1983ko lanetan diotenaren arabera pentsa daiteke "hain jatorizat daukagun Haraneder" (1961a: 55), hobeto esan, bere *Testament Berria*, "que aquí solemos considerar con demasiada frecuencia como un modelo de lenguaje castizo" (1970: 29), "Larramendiri esker zuzendu (nahiz okertu) zuela" (1983a: 60). Harrieten eskuetatik pasatzean "Larramenditu" zela; bestela esan.

Harriet izango litzateke eta ez Haraneder, Larramendirenak erantsi zizkien Ebanjelioei, horretarako *Suplemento*-az ez ezik (Azkueren antzera), eraskin honen arabera moldatu omen zuen "Hiztegi laburra, laur Ebanjelioetan iracurtzen diren zerbait hitzen, esualdun guehientzat, adibidea" osatzeko, alegia, hiztegi ele hiru-dunaz ere ballatu zelarik. Eta hain litzateke horrela, non lan honen aitasuna Harriet egotzi ere egin dion: "Haraneder-en gaitzizenez dabilzan Harrieten lau ebanjelioak" aipatzen ditu. Ez digu, bada, lanotan biderik ematen jakiteko Haraneder ere Larramendizalere artean ipini behar dugun baina ezezkoan dagoela iruditzen zaigu.

Hiribarren litzateke Ifarraldean Larramendiren segizioaren esenplu, egia bada ere, Mitxelena ez duela zehazten zein lanetan bai eta zeinetan ez, nolabai dela ere pentsa daiteke Hiribarren hiztegi-arloan Larramendiri jarraituko zitzaioela apika, baina ez Hiribarren poeta.

Beraz, Bidasoaz haranzko eragina, hobeto esan, eragin aipatu eta zehaztua, bati-pat Harrietengan (Hiribarrenena zalantzapean gelditu da) gauzatu zela pentsa deza kegu. Sarako Etxeberri eta Haranederrenak ere laino artean daude eta.

Bizkaira jota, Mitxelena behin eta birritan esaten du jesuitaren oihartzuna entzun daitekeela, baina egia esan, Añibarro da, zeharka gainera, Larramendirengandik hartu zuela aipatzen duen bakarrenetakoa Basterretxearekin batean. Astarloa kanpoan geldituko bailitzateke, Añibarrok Larramendigandik jasoak omen ditu Azkuek bizkaitarrari egotzen dizkion franko.

Ez dugu honekin aditzera eman nahi Larramendiren eragina bizkaitarrenagan, eragin hau zuzena, onartua, mirestua nahiz zeharbidezkoa edo arbuatua, Añibarrogana murriztu behar denik, bai ordea, Mitxelenak orokorrcan baieztatzen duena, Bizkaian ere soma daitekeela Larramendiren eragina alegia, (Ifarraldeaz dioenean bezalaxe) miratu ditugun Mitxelenaren lanetan Añibarro topatu dugula bakarti.

Beste literatur mota batera pasaz, "literatura amena" delakoan, Agustin Paskual Iturriagaren *Jolasak* litzateke aipagarri. Baina adibiderik argiena, seguru aski, Iztueta, Gipuzkoako lehen idazle laikoagan legoke, Azkuek aipatzen dituen Londres, Otxandio, eskuizkribu zenbait. Añibarro, Kardaberaz eta Hervás y Pandurorrek in batean "Larramendi otsoaren ardi-larruetakoa" (1961a: 55) genukeena, errenteriarren ustez.

Iztuetari leporatzen dio, beste euskaldunok beste, zentzugabeki jokatu izana Larramendigandikakoei dagokienez, hots, Larramendik erdalduinak txunditzeko asmatu zituenak eta ustez euskaldun jatorrek erabiliko ez zituztenak erabiltzea, giroa horretarako guztiz aproposa ez zuelarik gainera.

Iztueta omen genuke (bakarrik ez legokeela) Larramendirenak erlijioaren esparrutik kalera atera zituena, mundu arruntaz hitzegiteko erabili zituena.

Eta Iztuetaren ondotik lan laikoen ugalketarekin batean (1876tik aurrera), Larramendiren itzala beste honakoetan ere ikus omen daiteke: Donostiako plaza batean Okondori eskainitako estatuan irakur daitezkeenetan, *Euskal Erria* aldizkarian, Donosti inguruko teatroan, *Damuba...garaiz*-en, etab.etan erabilitako euskarari hain zuzen.

Azkenerako utzi dugu Larramendik literatura erlijiosoan jarritako haziaren garapena, hauxe delako hain zuzen ere, beti bere izenaren ondoan aipatzen diren Mendiburu, Kardaberaz, Ubillos etab. ez, besteak beste, hitzegiteko aukera ematen diguna.

Larramendiren asmoetan gehiegi sartu gabe, esango genuke Mitxelenak predikulantzan jartzen duela euskara-eredua sortzera bultzatu zuen xedea eta, zeregin honetan aritu ziren jarraierik leialenak, lehen garaian behinpehin, sorterriz (ez denak ordea euskalkiz) gipuzkoarrak izan ziren.

Segiziokoen artean halere, bada desberdintasunik aski maisuaren irakatsiak marmitzerakoan. Zein, nola eta noraino izango dira Larramendiren segizioko?

Estudios-en Larramendigandik neurritz ("con parsimonia") hartu dutenen artean aipatzen ditu Agirre eta Lardizabal.

Plegu horretan bertan beste honakoak aipatzen ditu: Kardaberaz, Mendiburu (eta Mikelestorena), Basterretxea, Ubillos, lehen aipatu ditugun beste batzuek gain.

Larramendik eta honen ingurukoek sortu nahi izan zuten literatur prosa ez litzateke lan arin eta leuna, nekearen nekez sortua baizik, eta hau "ingurukoei" eta maisu zuten Larramendiri (nori berea) eskertu behar zaie.

Zer esan Akademien garaian, hau da, hizkuntzen neurri, erregela, arau etab. ei hizkuntza landutzat jotzeko begiratzen zitzairen garaian, Larramendik ekarri zuenaz?

Honela biltzen ditu Mitxelenak ekarriak:

1- Grafia kontuan herritasun handirik ez.

2- *Arte*-a morfologia da. "Gramatika, paradigma bihurtu zaio, paradigma bilduma hobeki esan". Formen deskripzioa ematen du, ez erabilereana. Adizki-kontuetan (ezagutzen ez zuten) Uterena baino urriago izanik, ordena argia du liburuan barrena. Ez da (donibandarra bai, haatik) txokozalea bere euskalkiari buruzkoak ez ezik besteen berri ere ematen saiatuko baita.

3-Larramendik euskal hitz-aitxorra aberastu nahiko du, aberastu eta garbitu. Ugalduz eta aberastuz ariko da beraz.

Eta zer esan ondorenaz eta gaurkoaz?

Esan bezala, Larramendirenak erabiliko dituztenak ez dira faltako, bai erlijio-gaictan bai bestela, adibidez, Donosti inguruko teatroan honakoak entzun-irakur daitezke: *aurkezta, biltokia, burtina, egintza, irudia, iruditegia, jostaeta...* eta *persona* latinez eta ingelesez bidenabar (*dramatis personae*) esaten den eran (eta Mitxelenak aldizka erabiltzen duen eran, erantsiko genuke).

Larramendiren hitzik, ez da askorik iritsi gaur arte:

eskutitza, garrantzia (garrantzia), *beretzitu, oguzi* (ahoz ebaki), *Ekanta Jauregia: beritza eta beritza*¹⁵ (ume galtze, umea galdu) Arretxe zenak erabili bide zituen azkenengoz, eta premia gorrian gaudenean galdutzat utzi behar Mitxelena (1984b: 35), kezku da.

Larramendi oraindik ere probetxugarria izan daitekeelakoan dago Mitxelena. Berreskurapen neurtu eta pisatua pentsaezinezko erokeria litzateke euskara oraindik ere horrenbeste arlotan hiztegi, eta bestelako, premian dagoenean?

Larramendiren gaurkotasuna, bestetik, irizpideetan eta irakaspide teorikoetan legoke, asmatu-rik hitzetan baino areago, apika. Berreskurapen lexikala bera Larramendik ibili zuen bidea dugu. Euskalkien ezagupidea, hizkuntza landu bilakatze nahia, egokitze lexikalerako bideak, ohar morfologikoak etab. oraindik ere azter eta erabil ditzakegunak...

VI. Larramendi eta Mitxelena

Amaitzeko, bi egile hauezaz, elkarren arteko harreman urutikoez bada ere zer-bait esan beharrean gaudela uste dugu.

Larramendi bere garaikideen artean arrakastatsu izan zen. Bai nahi zuen euskara mamitzen saiatu zirenek, bai bere lanen goraipamenak ogin zituzten Arakistain, Gandara etab.ek, baita euskaldun ez zen baina haren lanaren zabalkunderako ezinbesteko bilakatu zen Fitak ere, ematen baitigute horren testigantza.

Urteek aurrera ahala ordea, bere izenak eta omenak izkutaturik —eta ez oharkabe— irauñ dute duela ez asko arte, berriz ere Telletxea Idigoras, Mitxelena bera eta beste jakinminak eztenkaturik lanean etengabe aritu direnei esker “berbizitu” zaigun arte.

Aita Manuelen izenak eta izenak, *Kapernaum* legez, gorabehera handiak ezagutu dituztela ukatzerik ez dago, beraz, istilu, eztabaida-iturri izan dela.

Gure artean Larramendi oraindik bizirik gordeko dutenen arteko dugu Mitxelena, hau ariko baita, besteak beste, eta aurkako iritziak jasoko dituela jakinik (“kontra-koen ahotsak ez baitira oraindik ere erabat isildu”), Larramendiren argi horrek oraindik ere bizturik irauñ dezan artikuluen bitartez jagutzen.

Edozein kultur gizonek biz diezaiokeen arretaz gain Larramendik badu bestelako ezaugarririk Mitxelenaren arreta beregana dezakeenik. Buruen-buruenik bion arteko antzak lirateke, d. sberdintasunak ere abantzezinak izanagatik.

Bata nahiz bestea euskarak kezkatzen ditu, euskararen orainak, lehenak eta ge-roak, hirurak uztarturik doazela. Oraina behar bezala gauza dadin eta geroa nahi ge-

(15) Hitza hor genuenean “Abortuaren legea” erabiltzeru makuru garaia azpimurratzea urrutiegi jotzea al litzateke?

nukoen legetik joan, lehenaren ezagupidetik abiatu beharra dago derrigorrez. Mitxelenak lehenaren azterketari eta miratzaari eskaini dizkienek Larramendigan, haatik, ordezkorik ez duten arren.

Nahi luketen euskara ez da guztiz diferente —asmoz behintzat—, ezta Lizardik nahi zuen "noranahiko" hura ere. Euskara, txokokeriak gaudituz, edonorako eta premia berrietarako egokitu beharra dago, beste hizkuntza landuak erabiltzen diren bezalaxe erabili ahal izateko. Honek ez du, halere, esan nahi euskara mota berbera dutenik gogoan, asmakizun eta guzti, bai ordea asmoa beretsua dela, aldien, gironen etab.en zama baztertu gabe.

Ez batak ez besteak ez dio oniegi irizten garbizaletasun neurrigabeakoari; beste-rengandik hartu behar badugu, har dezagun premia denean, gure hizkuntza eta beronen ezagupidea motz gelditzen zaizkigunean, ez errazenera joz.

Ildo beretik, euskalari, euskalzale = euskal idazle bikote garbiari eusterik ez lego-keelakoan bat letozke, euskararen onerako idatz baitaiteke erdaraz: jakin behar noiz, norentzat eta zertarako idazten den. Larramendik halaz ere, Mitxelenak baino askoz euskal lan guttiago utzi dizkigu zoritxarrez, hau da, Larramendi Mitxelena baino teorikoago, eredu-emaileago izan dugu, Mitxelenak (Kardaberazek ez bezala) mamitze-ko eskakizunik sarriegitan egiten ez badio ere. Teoriko-egitamuigile probetxugarria izan daiteke norberak lanabesak hartu eta ariketan hasi gabe, besteri tresna oparoki nola erabili era egoki eta emankorrean erakusten badio.

Bi gipuzok ez dute "probintziaren" mugen hune gelditu nahi, ez euskalkiari dago-kionez, ezta giza-lurrari dagokionez ere. Biok abertzale —aldiak, aldi—, biok gipuzkoar izanik (bar Andoaingo "Garagorri" baserrian eta bestea Errenterriako Mikelazulotik ger-tu sortuak direla) batasunaren aldeko. Baina Mitxelenak Politika-Historiazko idatzi-rik utzi ez duen bezala (nahiz eta dakigun bere bizitzan hezurragietan bizi zuela) Larramendik utzi du lanik zenbait pentsatzen zituenen lekuko.

Abertzaleatasun "avant le mot" horrek eragingo dio Larramendiri, hain zuzen, bes-tek aurretik Cantabria eta Euskal Herria (Gipuzkoa bereziki) berdintzen zutenen te-siari eustera: euskaldunok izan omen ginen Espainiako lehen biztanle ausartak (eta euskara, noski, lehen hizkuntza), erromarekin borroka bizian aritu ginenok, zenbait mito eta istoriotan (gogora Txaho, besteak beste) islatu den legez.

Mitxelenak oso bestelakoa du iritzia: kantabrismoa erabat bazterteaz gain —noski— ez du historiaren irakurketa bera egiten, batipat gure arbasoen jokaera "heroiko"ari dagokionez. Aitzitik, euskaldunok aguro asko konprenitu omen genuen gure Erro-marekiko harremanek abantailak ekar zitezazkiguketela, esate baterako.

Gai honetan ere, bada, ez du Mitxelena Larramendiri dion begiramenak itsutu, oker dabilela adierazteko kupidarik ez du, behar den tokian kokatuz. Esan nahi da, Larramendi aspaldiskotik zetorren ildoari jarraitzen zaiola, mitologia funtsik gabea-ren jarraile —eta ez sortzaile, dena esan behar bada— izan zela, alegia. Mito-urra-tzaile izatea auzi honetan ez legokioke, beraz Larramendiri, bai berriz Mitxelenari. Hitz gutxitan esanda, Historiako gertaerak ez ziren guk uste (eta nahi, apika) genuen bezala izan.

Bi egileon arteko aldea guztiz nabarmentzen zaigu zientziaren aurreko jarrerak hartuz gero. Zientzien "bide luze bezain malkarrek" ez dute Larramendi eskolastika-kumea harrapatzen, bere lanetan ikus daitekeenez. Paperera iraultzen dituen zenbait nekez sartuko lirarteke egungo hizkuntzalaritza zientifikoagoan, horren adibide dela-

rik euskal lexikografiari utzi dion gai nahasi eta okerreko bidera daramana, Mitxel-enaren aburuz.

Mitxelenak aldiz, zientzia-gizonek zientziari eta bere buruari eskatzen dioten zuhurtzia eta zehaztasuna nahi ditu beretzat baita horrela jokatu ere. Ez dago bada prest. helburuaren zintzotasuna zintzoena delarik ere, edonolako arrazoi-desarrazoiak eman eta onartzeko. Egia zor da, gustagarri nahiz mingarri izan.

Elizgizona eta zientzizigizona, lege zaharrekoen antzera eztabaidan gustora dabil-tza, umore eta ironiaz lanak zipriztinduz. Batak adina besteak maiteago dute farra baino irrifarra, baita haserre ere, irakurleagan biztea. Ez dute irmoki sinisten dute-nean amore aise emango.

Begiramenak ez duela Mitxelena itsutu esan dugu eta horren seinale dugu Larra-mendiren okerrak kritikatzeko. Dion errespetu horren frogarik zuzenena Larramendi-ren lanak aztertzea da (Azkueren hiztegiaren iturriez eginiko lan itzelean zehaztuak lekuko) baina bestelako bide bat ere badarabil eta horixe da, hain justu, amaitzeko hermen aipatu nahi duguna.

Begirumena "zuzenean" adieraz daitezkeen bezalaxe, (Larramendi mintzagai du-ten lanetan oinarrituriko arestiko oro horren erakusgarri litzatekeelarik), egin ere dai-teke Mitxelenak horren maitea duen "zeharbidea" hartuz.

Bestela esan, andoaindarra artikuluaen gai-ardatza ez denekoetan, lotura duela baina baita ez duenean ere, ez lehen begi-kolpean behintzat, Larramendi aipatuz adi-bide modura edo *auctoritate* indarra duelarik, klasikoen (uler bedi zentzu zabalean) antzera.

Mitxelenaren "ageriko arrazoigabeko" aipamen hauek harenganako begiramena eta ezagupide sakonaren zantzu dira, "haren irudia begietan ehokiarena". Nolabait esan, errenteriarrek, aipamen hauezaz bahiatuz, Larramendik utziriko errainuaz ongi jabetuta egotea islatuko luke, "beti komeni dela Larramendik zer dioen jakitea" dela-koarena.

Beti komeni da, beraz Larramendi begietan ez ezik azter-puntuari ere *ehokitzea*, zer dioen jakitea, oker zertan zebilen jakitea bame, besteren on eta makurretatik ge-rok ere ikas baitezakegu.

VI. Eraskina: Larramendi eta besteak

Eraskin honetan bildu ditugun aipamenetan Mitxelenak lanetan zehar Larramendi besterekin berdintzen du. Arestiko atalaren amaian genioenaren erakusgarri datekeelakoan, aipamen zuzen nahiz zeharkakoetan gogoan duela Larramendi, alegia, da-kartzagu.

1954a. "Esan dezagun, zirikatzen aritu garela aitortu dugunez gero, ez dugula eztabaida gorroto. Pakeak ere ederrago dirudi burrukaldi gogor baten ondoren. Lege Zaharreko ohitura dugu hori euskaldunok eta ez ziren egiteko horretan makalak izan Larramendi, Azkue. Urki-xo eta beste hainbeste eta hainbeste. Ez da makal ere, dakigunez, poesia, gramatika edo gan-ko kultura dela. Ormaetxea jauna"

1956b. "Hamaka aldiz ahotan hartu izan den Barojaren idaztanka aipatu nahi nuke az-kenik. Euskaldun tofel izanik, biziri higuin zuen gazteleaz casticismo" delakoa.(...) Aita Lar-ramendirena da guretzat harrizkoa: euskaraz hain jator egiten zuelarik ez ziokeen inork igerriko, izkribuz behintzat, erdaraz mintzatzean hemengoa zenik. "Holgárame yo muy mu-cho" baino okerragoak ere —jatorragoak, alegia— aise itzurtzen zitzaizkion."

1959b. "[Olabidek] Ez zion behinik behin jaramonik egin Larramendik Mendibururi eman zion hurubideari"

"Larramendik, izan ere, bere asmakari ugariak erlaldimentzat sortu zituen eta hoberik opa zien euskaldunci, Olabidek, aldiz, ez ditu beharbada *arima, barkatu, bataio, bekatu* eta antzekoak erabat baztertu, baina ez dira liburu honetan erraz aurkitzen" "[Olabide] Euskaldun berria izanik, eta bere aldiko euskaldun berria, ezin gauzak ikus Larramendiren begiz"

1959d. "Recuérdese por ejemplo el horror de Baroja ante ciertos arcaísmos de la lengua escrita"

"En todo caso Larramendi con su talento y su cultura está en esto mucho más cerca de apologistas crédulos como Poza y Baltasar de Echave y de historiadores ingenuos como Zaldibia y Garibay que del espíritu crítico de Oihenart y del P. Morct, su compañero de orden, en el siglo anterior".

"Con todo su respeto a la preceptiva de la época, tenía, como el P. Isla, a quien tanto se asemeja en muchos aspectos, un fondo de humor, una viva y gozosa intuición de las incongruencias de la mente humana"

"Fue, como después Jovellanos, un precursor de la dialectología moderna"

"Larramendi, es necesario confesarlo, no tenía, a diferencia de Hervás, ningún entusiasmo desmedido por el trabajoso caminar de las ciencias reales"

1960b. "Más de una vez se ha contrapuesto, más que comparado, la obra de Larramendi a la de su coetáneo Etxeberri, sin que salga favorecido el guipuzcoano"

"En ningún sitio alude Larramendi, para bien o para mal, a los planes de reforma de Joanes Etxeberri, a quien tuvo que conocer personalmente. Se lamenta, sin embargo, sin proponer remedios, de la situación de entonces"

1961a. "Bi euskaldun handik, ordea, eta hiruk hobeto, zoritu gaituzte pixka bat euskaldunok arazo honetan [zabarkerian, alegia] Oihenart zuberotarra dator lehenbizi, esatera zahar horiek bere paperetara aldatu zituena (...) Larramendi dator hurren, zorretan baixeundeke harrekin hainbeste aldiz ahotan hartu dudak *Suplemento*-a besterik utzi ez baligu ere. Eta Urkixo azkenik, euskal filologiari zimendu sendoak eman zizkiona Euskal herrian"

1966a. "*Diccionario trilingüe* deritzan hiztegi handia ez da, etimologiarik aipatu gabe ere, akatsik gabea, erdal-euskal hiztegi hura, oraingo Aita Mujikarena ez bezala, erdaldunak txunditurik utzi nahi zituelako egin baitzuen noski, Ibar-ek erakutsi zigunez"

1978a. "Zuzperraldi honetan Larramendi aipa genezake besteak beste (jesuiten kinka larria izanik, ez zuen honek bere barrengo guztia argitara eman), Izueta, Manterola, Arana Goiri eta Azkue —ez ziren guztiok gogaide minak agidanez, ez eta hizkuntza uzietan ere— eta, 1936 baino lehen amaitzeko, Ariztimuño, "Euskaltzaleak" eta Lizardi"

1981b. "Ez zen hala behar eta, ustegabeko mirakuiluz XVII. mendeko Lapurdin, Donibane eta Ziburuko kostaldean, bai ere halaber *hinterland* modura zen Sara-aldeko lur barrenetan, euskal literaturan, kristau eta katoliko, dakigun loraldia eman zion jende ikasi samalda, latinezko bertsoak (esate baterako) hutsik gabe neurtzen zekiena, eta ehun urtez geroago Larramendik neurtiz zuzenik sortzen ez zuelarik"

1982. "Ez ginen agian behar adina oharitzen Mendiburu ere, bere aldetik eta Larramendiren joerari zeharka baizik obeditzen ez ziola, berrizale izan genuela"

"Teologi uzietan, esaterako, iturburuak aipatzerakoan, ez du aski [Larramendik], Kardaberazek bezala, gure "Cornelio a Lapide"rekin; lekuko jatorragoak eskatzen ditu besteak"

"Euskal herriko dantzak zirela eta, ordea, nork berean [Mendiburu da beste] iraun zuen, ez baitzuen hortaz gehiegi esaten ez Testamentu zaharrak (halaz ere ahotan hartzen du Larramendik, oker ez banabil) ez berriak"

1983a. "Hitz berriak sortzeko eskua ere badugu, edozein hizkuntzatan gertatzen denez, eta Larramendi baliatu zen horretaz, XVII.ean Oihenart bezalatsu, traketsago haatik. Baditugu gainera geureganatuak eta etxerakotuak ditugunak metaka eta ez genituzke (Altubek oraindik orain horixe uste zuen) bertan behera utzi behar"

"Bidea [Larramendirentzat], gezortaz baliatzea zilegi baldin bada (probetxogarri den gezortaz, jakina) ez da gaitzerakoa, Altubek ez zukeen, ordea, onizat hartuko, ezta guk ere apika"

"Esanak esan badituz, ez da xuberotarraren [Txahoren] oroitzapena belzteko asmatan izan, ongi baitakit bide berri ugari ireki eta zabaldu dituela, asmakizunak nahaste, euskal kulturari. Besterik erakutsi nahi nuke, ezer erakustekotan. Honek ere, Larramendik bezala, eusko ikaskuntzari biziro lagundu ziola erdaraz mintzatu arren"

1983c. "Alde horretarik idazle bezala zor zitzaion zorra, egia esan, ez zaito [Larramendiri] oraindik aitortu, baina hori beharbada askok Barojari ukatu dionaren pareko arrazoiengatik gertatu da: erdara itsuski, tankera gaiztoan erabili omen zutelako"

"[Arte-ak] Adiskide ezezaguna zuen Urteren aldamenean, urriago delarik agian adizki kontuan, ordena argia azaltzen du liburuan barrena. Gehiago dena, ez da txokozale donibandarraren gisan"

"Arana Goiri eta Azkue ez ziren talde berekoak euskarari buruz, baina bat etorri ziren, nor baino nor amorratuago, Larramendiren kontra, eta bi horien inguruan bazen noski jende gehiago lehen mordoskaka eta gero samaldaka. Zerbaitek, orain ukituko ez dudan zerbaitek, ekarri zuen bestetan etsai edo zirenen erabateko ukamen hori"

"Eta Altunak, zeharka nahiz artez, Larramendiana berria ere idatzia eta argitaratu emana eskaini digu"

1984a. "Azkue, como cuantos se han ocupado del léxico vasco, se enfrentaba sin escape con la luz y la sombra de Larramendi, gran precursor como Chaho y como éste también gran enredador"

1986a. "Aurpegi lasaia goa ager dezakete bai Bascongada-k Muniberekin eta bai Loiolak Larramendirekin.(...) Hizkuntzari dagokionez, bat dato., gutxi gora-behera Munibe eta Larramendi, hura honekin ados datorrela esatea ez baldin bada zuzenago"

"Bestela esan, iraultza pareak, Arana-Goiri eta Azkue ez baitabilza bat —hori izan ohi da iraultzaileen zoria— desegite lanetan baizik. Egin eta eraiki, nor berea egin eta eraiki nahi du eta, Larramendirenak abo batez arhuitzen dituztelarik, ez da batarenak zer ikusi handirik bestearenekin: honentzat mailagari, harentzat higuigarri"

1987a. "Bereziaileen artean izan dira halere zenbait batasun-zale, Oihenart, adibidez, eta Peñalforida. Eta buruen buruenik Larramendi, betiko "gipuzkoar eta gainerako euskaldunak" ahota dituen"

VIII. Bibliografia

Lan honen prestaketarako eskuztatuak Mitxelenak Larramendi mintzagai zuten euskal lanek (guztiek, itzuri ezean) eta erdal lanetako garrantzizkoenek osatu dute.

Azkenei dagokienez, zerrenda luza daitekeen jakinaren gainean gaude, hau da, hemen jasoko diren erdal lan gehiagotan Larramendi, era batean nahiz bestean, tartean agertzen dela badakigu, halaz ere, lana zedarritu behar eta, ustez esanguratsuenak jo ditugu begiz.

Bestalde, euskal lanen orrialdeen erreferentziak *MEIG (Mitxelenaren Euskal Idazlan Guztiak)* bildumari dagozkionak dira, I, II., saileko 21, 22... zenbakien ordain direlarik, hurrenez-hurren.

Erdal lanak *SHLV (Sobre Historia de la Lengua Vasca)* bildumatik hartu direnean, honela zehaztu ere da bibliografian.

Estudio de las fuentes del Diccionario de Azkue-ri dagokionez, esan, 1984. urtean sartu dugula, nahiz zalantzak izan ditugun. Eskuartein erabilia Azkueren hiztegiari erantsia izateak, "Codicilio de 1983" berrikusketa barne, makurtu gaitu honetara. Beharbada zuzenago irudi dakioko norbaiti estraineiko argitaraldiko urteari eustea, guk ez dugu honela ikusi.

1954a: "Orixe gure artean", *MEIG* VIII, 51-52.

1954b: "Las escrituras apócrifas de Andramendi", *SHLV*, 838-850.

1955: "Juan Gorostiaga. La poesía popular en el País Vasco", *MEIG* II, 45-57.

- 1956a: "Luisa Miserikordiakoa, Larramendi eta Peñafloreda", *MEIG* i, 215-217.
- 1956b: "Pío Baroja", *MEIG* viii, 72-78.
- 1956c: "Algunos nombres vascos de animales", *SHLV*, 509-515.
- 1957a: "A propos de l'accent basque", *SHLV*, 220-239.
- 1957b: "Basque et roman", *SHLV*, 220-239.
- 1958a: *Historia General de las literaturas Hispánicas*. Díaz-Plaja biltz. Barcelona.
- 1958b: "Introducción [al Diccionario de Landuchio]", *SHLV*, 762-782.
- 1958c: "Unas observaciones al último número de *Euskera*", *SHLV*, 432-435.
- 1959a: "Euskal hitzak zein diren" *MEIG* vii, 125-134.
- 1959b: "Itun zar eta berria. Olabide'tar Erraimun", *MEIG* ii, 111-122.
- 1959c: "La correspondencia del P. Larramendi", *BAP* 15, 440-442.
- 1959d: "La obra del P. Manuel de Larramendi 1690-1766" *SHLV*, 900-911.
- 1960a: "Asaba zaharren baratz", *MEIG* iv, 29-48.
- 1960b: *Historia de la literatura vasca*. Minotauro, Madrid.
- 1961a: "Euskal hiztegi-gileak XVII-XVIIIgarren mendeetan", *MEIG* vii, 47-66.
- 1961b: "Luis Villasante, O.F.M. *Historia de la literatura vasca*", *MEIG* iii, 65-67.
- 1962a: "Bizearrondo, Indalecio (Bilintx): *Bertso ta lan guziak*", *MEIG* iii, 83-85.
- 1962b: "Apostillas de un renteriano", *SHLV*, 423-425.
- 1963a: "Agustín Paskual Iturriaga. *Jolasak*", *MEIG* iii, 111-113.
- 1963b: "Voces Bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra", *SHLV*, 411-413.
- 1964a: "Sobre el pasado de la lengua vasca", *SHLV*, 1-73.
- 1964b: "Preámbulo [a *Refranes y Sentencias*]", *SHLV*, 786-790.
- 1965a: "Sarako Joanes Etxeberriren *Eskual-Herriko gazterian*", *MEIG* v, 69-70.
- 1965b: "Vasco-románica", *Lengua e historia*, 268-281.
- 1966a: "Aita Larramendiren ehun urteurrena (1690-1766)", *MEIG* vii, 67-70.
- 1966b: "*Estudis de toponimia catalana*", *SHLV*, 620-626.
- 1967a: "Los refranes del cuaderno de Oihenart", *SHLV*, 804-823.
- 1967b: "Tradición viva y letra muerta", *SHLV*, 729-740.
- 1968: "Aitonen, Aitoren *Seme*, Noble, Hidalgo", *SHLV*, 516-527.
- 1969: "Sobre algunos nombres de parentesco", *SHLV*, 492-508.
- 1970: "Nombre y verbo en la etimología vasca", *Palabras y Textos*, 283-310.
- 1971a: "Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", *SHLV*, 713-728.
- 1971b: "Egunak eta egun izenak" *MEIG* vii, 93-110.
- 1972a: "Azken ordukoak", *MEIG* viii, 151-186.
- 1972b: *Zenbait hitzaldi*. Etor, Bilbo.
- 1973a: "Iztueta testigo político de su época", *Palabras y Textos*, 349-362.
- 1973b: "Lexicografía lécnica", *SHLV*, 400-408.
- 1974: "De lexicografía vasca", *SHLV*, 385-399.
- 1975: "El Brocense hoy", *Lengua e historia*, 113-125.
- 1976: "Euskaltzaindiaren iker lanez", *MEIG* viii, 98-105.
- 1977: "Euskal hizkera eta euskal neurkera", *MEIG* iv, 91-106.
- 1978a: "Euskararen bide luze bezain malkarrak", *MEIG* vi, 25-46.
- 1978b: "Sarrera gisa", *MEIG* v, 21-30.
- 1979: "Miscelánea filológica vasca III", *Palabras y Textos*, 411-434.
- 1980: "Mitología e ideología sobre la lengua vasca [reseña]", *SHLV*, 920-926.
- 1981a: "Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak", *MEIG* iv, 49-72.
- 1981b: "Euskal literaturaren kondairarako oinarriak", *MEIG* iv, 73-90.
- 1981c: "Galdegai eta mintzagaia euskaraz", *MEIG* vi, 137-167.
- 1981d: "Patxi Altunari erantzunez", *MEIG* iv, 109-122.
- 1981e: "Encuestas lingüísticas en el País Vasco", *SHLV*, 323-333.
- 1981f: "Perspective de recherches futures", *SHLV*, 991-999.
- 1982: "Mendibururen hizkeraz hitz bi", *MEIG* v, 101-108.

- 1983a: "Euskara eta euskaratekiko ikerlanak (1700-1880)", *MEIG* vi, 47-88.
- 1983b: "Gamizen liburua aurkeztatzen", *MEIG* v, 113-116.
- 1983c: "Mendiburu eta Larramendi", *MEIG* v, 95-100.
- 1984a: "Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue" *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- 1984b: "*Hantut lanerako Euskal Hitzegia* ri aurkezpena", *MEIG* vii, 25-46.
- 1984c: "Los vascos y su nombre", *SHLV*, 538-554.
- 1984d: "Lingüística immanente y lingüística trascendente", *SHLV*, 645-655.
- 1985a: "Campionen *Gramática* eta beste" *MEIG* vi, 75-88 or.
- 1985b: "Esaera zahar baten bigarren agerraldia", *MEIG* vi, 185-194.
- 1986a: "Liburu sorta zaharberitu baten atarian", *MEIG* ix, 123-135.
- 1986b: "Contra Lekobide", *SHLV*, 851-865.
- 1987a: "Gipuzkoarra naiz" *MEIG* ix, 149-152.
- 1987b: *Tierras de España*. País Vasco. Noguera, Fundación Juan March.

Larramendiren garaikide bat: zenbait xehetasun Joanes Etxeberri Sarakoaz

GIDOR BILBAO TELLETXEA

(EHU, Gasteiz)

Aspalditik lotu izan dira Larramendiren eta honek bere hiztegi hirukoitzean (Larramendi 1745: xxxvi) aipatzen duen Etxeberri Sarakoaren izenak, baina egin gabe dago oraindik bien lanen alderaketa sakona, lehenari buruzko ikerlanak gero eta ugari eta osoagoak badira ere, bigarrenaren lanaz dakigunaren zatirik handiena 1907. urtean irakatsi bait zigen Julio Urkixok (1907a). Geroztik idatzi izan denak soilik mende hasierako lan hau izan du iturri eta ez da beraz gauza handirik aurreratu. Bi idazleen arteko loturari dagokionean, bakoitzari buruzko ikerketak dauden moduan egonda egin zitekeen bakarra egin da, hots, bien lanen azaleko antzekotasunak agertzea (Lakarra 1985), beranduagoko ikerketentzako urraspideak irudikatuz. Bide hori osatu asmoz Etxeberri Sarakoaren lanetan sakondu nahi genuke guk, eta eskertzeko dugun une egokia eskaini digute Aita Manuel Larramendiren jaiotzaren hirugarren mendeurrena ospatzeko eraturiko ekintzen antolatzaileek ekinbide honetan aitzindari dugun Julio Urkixok egindakoa berrikusiz ikerlari honi ere omen egiteko. Bere 1907.eko lanak hartuko du beraz gure honen haria, zenbait ohar eginez lehengoa gogoratu eta berritasunen bat ere eskaintzeko, eginkizun duguna erakusteko asmoarekin.

De re bibliographica

Esan bezala Julio Urkixoren 1907.eko argitalpenak gidatuko gaituenetz has gaituzen bere sarrera gisakoan hasten den moduan liburuez hitz eginez, Urkixoren beraren liburu nagusiaz hitz eginez hain zuzen ere.

Gure atal honen izenburu bera daraman zatiari dagokion bigarren oharrean (Urquijo 1907a: v) egiten den aipamen baten zuzenketa hitzaurre guztiaren azken orrialdean agertzeak (Urquijo 1907a: lxxx) hor zuzentzen den huskeria bezain jakingarri gerta daitekeen beste zerbaiten bidean jarri gintuen. Michel d'Abbadie eta Antoine d'Abbadie aita-semeen izenen nahasketaz ari da zuzenketa. Gipuzkoako Diputazioaren Bibliotekako Julio Urkixo Bilduman ikerlari honenak izandako paperak arakatzan ari ginela juxtu emendamendu honen beharra adierazten zuen eskuizkribu bat aurkitu genuen besteak beste (Landerretxe 1907): Martin Landerretxek izenpeturiko itzulpen bat zen, zenbait oharrez osatua, Etxeberri Sarakoaren lanen argitalpenerako Julio Urkixok prestatu zuen hitzaurre osoaren itzulpena hain zuzen ere. Eskuizkribu honek ez du data zehatzik, baina jatorrizko testuaren inprenta probekin batera dago aipatu Bilduman, eta badirudi hauek erabili zituela Landerretxek bere lana egitean.

Gero Urkixok bere argitalpenean hitzaurreko azken orrian sartuko zuen oharra Martinek bere itzulpenaren orrickin bidali zionez, zalantzarik gabe baiezia dezakegu inprenta probak zuzentzen ari zen garaian eskatu ziola Julio Urkixok lapurtarrari argitaratu nahi zuena euskaratzeko. 1906.eko urriaren 30.eko data darania hitzaurreak, bai gaztelaniazko eta bai euskarazko bertsioetan, eta argitalpena 1907.ean burutu zenez ez da azalpen handirik behar lapurteraz idatzitako itzulpen hau noiz idatzia den asmatzeko. Guk dakigula Urkixok ez zuen bere lana euskaraz argitara eman eta ez genuen orain arte asmo horren berririk ere. Badirudi halako eta garrantzi handiagoko zehaztasunen berri izateko ezinbesteko dela, aurrerago ere ikusiko dugunez. Julio Urkixoren gutuneria eta paperak oro sakon aztertzea.

Joannes d'Etcheherri

Berariaz izendatu dugu gure bigarren atala Julio Urkixok berea izendatzen zuen modu-moduan, guk erabili ohi dugun izenarekin alderatzearen. Baina izenaren arazoarekin osoan sartu baino lehen irudika dezagun gain-gainetik, hiru-lau leku eta data nagusi gogorarazi asmoz. Sarako idazle honen bizitzari buruz dakiguna.

XVII. mendeko azken urteetan jaio zen Lapurdiko Saran, 1668.ean edo, laurogei urte baino gehiago dituela baieztatzen bait du 1748. urtean idatzitako agiri batek (Azkoitiako Udal Arkibua, 25. sorta, 57. zkia). Medikuntza ikasketak egin eta lan honetan ihardun zuen bere jaioterrian lehenbizi eta Beran (1713.etik aurrera lanean eta 1716.az geroztik bizitzen). Hondarrribian (1722-IX-15.etik aurrera) eta Azkoitian (1725.eko azken egunetatik hasita) gero. 1749.ean hil zen, urte honetako urtarilaren 11an agiri bat izenpetu bait zuen diru eske eta ekainaren 29an bere alabek sinatu bait zuten hildako aitaren diru horren eskari agiria (Urquijo 1907a: xxxiv-xxxv).

Hemen aipatzen joan garen agirietan eta beste haitzuetan agertzen den izena ez dator beti bat ez grafia ez forma aldetik. Ustez Sarako idazleak berak idatzitakoa ere ez da beti berdina. Honela izendatzen du bere burua *Escuarazco hatsapenac latin ikhas-teco*¹ atalaren eskuizkribuaren lehen orrialdean: J. D'ETCHEBERRIA SARACO DOTOR MIRICUA. Baina badirudi gainerakoa baino beranduago, agian hegoaldean bizitzen geratu zenean, idatzia dela deituraren azken -a, izan ere ez bait da hitz ezberdinak bereizteko behar den tarterik hitz honen eta hurrengoaren artean —J. D'ETCHEBERRIA SARACO DOTOR MIRICUA (sic) dakar—, -a hori tartea utzi eta gero beranduago hutsunean idatzi delako seinale. Bera bizi zela 1718. urtean argitaratu zen *Gomendiozco carta-n*² aldaketa txikitxo bat agertzen da azalean idatzitakotik (J. D'ETCHEBERRI, Saraco Dotor Miricua) azken orrian idatzitakora (J. D'ETCHEBERRY, Saraco Dotor Miricua), deituraren azken letra alegia. 1727.eko Lapurdiko Biltzarreko agirian³ ere *detcheuerry* aipatzen da, eta Sarako parrokian 1710. urtean egindako Marie alabaren bateko agirian *Jean detcheberri* (Urquijo 1907a: xiii). *Juan de Echeverria* deitzen zaio, ordea, hegoaldean bizi zeneko agirietan, eta *J. de Echeverria* sinatzen du berak bere eskuz ere (Urquijo 1907a: xxxvi-xxxix)⁴. Badirudi beraz grafia gaurko ohiturelara egokiturik *Etcheherri* deitura nahi zuela beretzat

(1) Zarauzko eskuizkribuaren kopia mikrofilmaturia erabili dugu eta eskuizkribuak berak dakarren orrialdeztapena da gure aipamenetan erabili duguna, bots. 23mk 452ra doana.

(2) 1718.eko edizioaren *unicum*-a erabili dugu. Baionako Udal Bibliotekako *Fonds Lafite 668* hain zuzen ere.

(3) Pabeako Departamentu Arkibuan dagoen jatorrizko agiria ikusi dugu. Ikus arkibu honetan, eskuizkribaturik, Bernadou 1881.

(4) Sarako idazlearen autografoak geuk ere ikusi ditugu.

Saran bizi zen garaian eta *Etxeberria* hegoaldera etorri zenean. Izentzat *J. Jean* eta *Juan* azaldu zaizkigu. Gero egotzi zaion *Joannes* ez dugu behin ere aurkitu bere garaiko agirietan; bere *Escuarazco hatsupenac latin ikhasteco* eskuizkribuan bai agertzen da bi aldiz gutxienez *Joannes* izena, baina ez bere burua izendatzeko, perpaus adibideetan baizik. Aipagarri da dena dela honako hau, agian nahi izan gabe adibidearen azpian ustezko irakaslearen burua estal dezakeelako ustezko ikasleak (Zarauzko Eskuizkribua, 444)

Perpaus latinezcoac dira *Deus est bonus, tu vocaris Joannes, ego fio doctus?*

Eguiazqui hala dira.

—*Deus est bonus, tu vocaris Joannes, ego fio doctus, suntne orationes latinae?*

—Sunt maxime.

Dena dela *Joannes d'Etcheberri* forma aukeratu zuen Julio Urkixok, baina *Joanes Etxeberri* (Ikus adib. Villasante 1953), *Joannes Etxeberri Sarakoa* (Ikus adib. Kintana 1972), *Sarako Joanes Etxeberri* (Ikus adib. Mitxelena 1965), *Etxeberri Sarakoa* (Ikus berriro Mitxelena 1965) eta bestelako formak ere irakurriak ditugu geroztik. *Joanes Etxeberri Sarakoa* aukeratu dugu guk forma nagusi bezala. Sarako dotor mirikiak berak izenlaguna atzetik erabiltzen duela beste izen batzuk ematean gogoratu: ikus adibidez *Ignacio Loiolacoa* edo *Francisco Xaiverco* (Zarauzko Eskuizkribua: 108; orobat Urquijo 1907a: 38).

Guztiarekin ere, Julio Urkixok atal honetan aurkezten duen lana izugarria dela aitortu beharra dugu. Honak ez du esan nahi berak arakatu dituen agirietan berriro bilatu behar ez dugunik. Hondarribiko Udal Arkibuan, adibidez, Urkixok bere argitalpenean aipatzen ez dituen eta gure idazlearekin zerikusia duten zenbait agiri aurkitu ditugu, nahiz eta garrantzirik izan ez. Edozein kasutan agiri bakoitza non dagoen aurkitzea ere ez da beti erraza; Berako Udal Arkibuan izan beharko lukkeen 1721.eko maiatzaren 15eko jatorrizko agiria, adibidez, Julio Urkixo Bilduman bertan dago gainerako agirien kopiekin batera⁵. Kopia hauek erabat sinesgarriak dira ia beti, baina ezin dugu ahaztu, bere gutunieratik ikasi dugunez, bitartekoak erabiltzen zituela askotan Donostiako ikerlariak leku guztietara joan beharrik ez izateko eta metodo eskariengatik ere ezin dugula dena berraztertu gabe utzi.

Julio Urkixok begiratu ez duen lekuetan ere aztertu beharra dago. Joanes Etxeberriren seme-alaba ugarien aztarnak, adibidez, industu gabe daude oraindik eta ez dirudi erabat ezinezko denik hortik berririen bat lortu ahal izatea. Ikasketa garaia hobeto ezagutzea izan daiteke, ordea, bereziki garrantzitsua gure ustez.

Hondarribian 1722.eko irailaren 2an bilduriko Udal Batzarraren Agirian dakarrena aipatzen du berariaz 1907.eko lanaren hitzaurreak (Urquijo 1907a: xiii) Sarako idazlearen gaztaroko datu bakar bezala, medikuntza ikasketak Frantzian eta ez Espainian egin zituela azaltzeko, alegia. Hondarribiko Udal Arkibuan Batzar Agiri horren kopia berri bat⁶ baino ez dugu aurkitu eta hona hemen hortik atera duguna:

... A que el dicho señor regidor Dn. Pedro de Echeveste dixo, que siente no conviene que al dicho Dn. Juan se le asalarie por no hallarse aprobado en el Protomedicato de Castilla.

(5) Documentos referentes al Doctor Juan de Echeverría - *Joannes d'Etcheberri de los Archivos de Azcoitia. Fuenterrabia y Vera (copias)*. Gipuzkoako Diputazioaren Biblioteka, Julio Urkixo Bilduma, ms. 9789.

(6) Libro de Actas del Ayuntamiento de Fuenterrabia. Sesión del 2 de Septiembre de 1722. Hondarribiko Udal Arkibua, Sección A, Neg. 13. Serie I, Lib. nº 1, Exped. nº 4.

Hemendik atera bide du P. Lafittek (Lafitte 1965) Frantzián nonbait ikastekotan Tolosan edo Montpellier-en ikasiko zuena medikuntza, lehenago Vinsonek (Vinson 1907) Montpellier aipatzen zuen bezala.

Gazteago zeneko garaiaz orripeko ohar bat (Urquijo 1907a: lxxiii) baino ez digu ematen Julio Urkixok, testu nagusitik kanpo izan arren erabat garrantzitsu iruditu zaiguna eta gure ikerketak bideratu behar dituela pentsaerazi diguna. Sarako dotor mirikuak egiten dituen Axularren aipamenak *Guero* liburuaren lehenengo ediziotik ateratakoak direla eta erabilitako alca Pabeko Jesuiten ikastetxe zaharrekoa zela dio Urkixok. Etxeberrikerak Loiolako Ignazioaren semeekin ikasitakoa dela dioenez Paben ikas zezakeelako susmoa hotatzeko gero. Ez du gehiagoko zehaztasunik ematen. Geroztik Joanes Etxeberri Sarakoari buruz idatzi dutenetako askok inongo zantzarik gabe baieztatu dute, ziurrenik baieztapena bata besteari hartuta, Pabeko jesuitekin ikasia zela gure idazlea (Ikus adib. Villasante 1953: 234).

Urkixok zehazten ez zuen Sarako Etxeberriren beraren aipamena osorik irakurtzea da lehenbiziko eginkizuna. Ignazio Loiolakoaz eta Franzisko Xabierkoaz ari da *Escuara noblea da & Cantabrisimus nobilis est* atalean eta honela dio (Zarauzko Es-kuizkribua, 111-112; orobat Urquijo 1907a: 39-40):

§ 34 his. Ordea halarican-ere orai parada hunetan ene centçu appurraren eradura hetaz ez minçateca iduritzen çait liçatequela eçagutça gabeco marcca, *çeren çordan buinaiz hequien alderat, hequien semeen escoletan Musatic erçorainoccan ene gaztetasunean errecibitu tudan escola, eta hazcunçu onen cariaz*: halatan beraz dut obligacino, ene antce appurraren eradura ene eguinbilearen parte haren bedere satisfarceco, edo beren haratecco arbolaren fruitua, edo berenganie errecibituricecco loretarie flocca bat bederen ofrendatecco, esperantçarequin çernahi escasia, huts, eta falta ene aldetie içan da-din, hec guztiaç hauquien caritate handiaç estalico tuela.

Nihilominus modo in hac opportunitate penes exiguam mentem meam nunc de illis non conferre verba accepti beneficij inmemor futurum esse mihi videtur quia multis magnisque beneficijs *erga eos devinctus sum, ob doctrinam, probasque consuetudines quibus eorum filij in juventute mea a musa usque adeo in ludis literarijs imbuerunt me*; propterea teneor ergo, penes meae industriae levitatem fructum arboris eorum horti, seu ex floribus quos ab ipsis recepi, unum saltem sertum offerre, et hoc facto munus meum saltem partim expleam; spe tamen ductus, quicquid peccati, errati et defectus a me procedat, ea omnia ab eorum magna charitate corrigenda atque occultanda esse.

Etzana geurea da orain dagokigunerako zatirik argiena adierazteko. Gainerako xehetasunik ez dugu aurkitu, Urkixoren aipatu susmoa ez bada; baina badirudi susmoa bide onekoa izan daitekeela, orduko jesuiten ikastetxeen artean Saratik hurbilen zena Pabekoa bait zen eta izan ere inguru zabal baten hirugarrena bait zen, garrantziari dagokionean. Bordelekoa eta Poitiersekoaren ondoren (Delattre 1949-56: 1459). Ikastetxeko liburuen zati bat behintzat Pabeko Udal Bibliotekara joan zenez⁷ eta jesuiten ikastetxe guztietan *ratio studiorum* delakoaren araberrako antzeko ikasketen programa eta metodoak izateaz gain Pabekoan 1690eko ikasturtean indarrean zena ere ezagun dugunez (Ikus Delfour 1890: 68-69; baita Dubarat 1922) ez dirudi zailegi

(7) Ikus Vinsonen *Bibliographie de la langue basque* delakoaren 1984.eko berrargitalpenean Axularen edizioez diharduenean 85-86 orrialdeetan dakarena:

Je ne connais que six exemplaires de cette [première] édition: ... le dernier à la Bibliothèque municipale de Pau (il provient de l'ancien collège des Jésuites de cette ville).

izango denik, ustez behintzat, Joanes Etxeberri gazteak ikasi ahalko zuenaren gutxi gora beherako irudia asmatzea. Ez dago esan beharrik aurrerapausu handia izango dela guzti hau Joanes Etxeberriren lana hobeto ezagutzeko.

Laburdiri Escuararen Hatsapenac edo Escuararen Ethorquia

Zarauzko Frantziskotarren komentuan aurkitu zuen eskuizkribuaren deskribapen tekniko osoa eskaintzen digu Urkixok bere xliii. orrian hasita eta ez dut hemen errepikatuko, baina bada beste ezer baino lehen aipatu nahi nukeen arazo bat, eskuizkribuko 303. orrialderarte doan lanaren izenarena, alegia, hortik aurrerakoarena —*Escual-Herriari eta escualdun gutiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco*— argi zehazten bait du Joanes Etxeberririk berak 305. orrialdean.

Xabier Kintana (1972: 8-9) izan zen Etxeberriren lan hautatuak argitaratzean bere hitzaurrean lehenengo zati horrentzako izen berri bat proposatu zuena. *Laburdiri Escuararen Hatsapenac* izena eman zion Urkixok (Urquijo 1907a: xvi-xvii, xlii, 1)⁸ Lapurdiko Biltzarreko batzar agiriak zioena bildu baina forma aldaketa txiki batzuk eginez. Biltzarrak latina ikasteko gramatikarena eta gomendiozko kartarena gurutzatuz erabili zuela izen hau soilik gramatika izendatzeko dio Kintanak eta beste proposamen bat egiten du, hots, Zarauzko eskuizkribuan latina ikasteko gramatikaren aurretik datorren guztiari *Eskuararen Ethorkia* deitzea, honen ustez Etxeberririk berak bere lanei erantsitako aurkibidean honela izendatzen duela dirudielako. Herronka honetan eskuizkribuaren bigarren orrialdearentzat lau azpititulu jartzen diren bitartean lehen orrialde osorako agertzen den titulua horri bakar hori denez, berori du Kintanak hobetzat.

Arrazoiketa honek beronek ukatzen duela ondorioa iruditzen zaigu guri, eskuizkribuko azken orrialdeetako *aralde edo heronka*-n Etxeberririk idatzen duena gertatzen zaizkigun testu zatiekin astiro alderatuta ikusten dena bestelakoa bait da. Orrialdeak eta pasarteak edo pasarte multzoak emanik izendatzen ditu bere lanaren atalak eta azpiatalak. Aurkibideak lehenengo orrialdetik hogeitamahostgarrenarenainokoa hartzen duenez eta gureganaino heldu den eskuizkribua hogeitairugarrenean hasten dela kontutan hartuta, eskuizkribuan ikus dezakegun atal berri bakar baten hasiera sartzen da aurkibide honetan, hogeitamabigarren orrialdean hasten den *Escuara garbia da. & Cantabrisimus nitidus est* deiturikoarena hain zuzen ere. Eskuizkribuko 51. orrialdean hasten den *Escuara noblia da & Cantabrisimus nobilis est* izendaturikoraino doan atala da hau. Testu nagusian molde berezi batez idatzita dago *Escuara garbia da & Cantabrisimus nitidus est* izenburua, 50. orrialderaino doan atal osoaren izenburu dela adierazi nahirik, baina aurkibidean atal honetako lehen pasartearen izenburu bezala agertzen da eta ez du atal bereko gainerako azpiataleak ezartzen zaien izenburutzakoekin ezberdintasunik; baina izenburutzakoak direla esan dugu, eta ez izenburu arruntak, berez testu nagusian azpiatal bakoitzeko lehen hitzak baino ez bait dira, aurkibiderako batzutan egokitzeren bat gauzaturik.

Ondoko hau izango genuke, argiago erakustearren, Etxeberririk berak aurkibidean eskaintzen duen lehen atal eta azpiatalen banaketa, atalei geuk aurretik zenbaki erromatarrek eta azpiataleak letrak erantsiz gero⁹:

(8) Ikus baita gorago 3. oharra.

(9) Puntuaketa geurea da, eta euskarazko zatian <e>-ren aurrean <q> idatzita zegoenean ere <e> idatzi dugu guk.

- I. *Escuararen ethorquia*, p.1, §.1. & *Cantabrisni origo*, p.1, §.1.
 II. *Ea badentz escuava*, p.2, §.1. & *Utrum sit Cantabrismus*, p.2, §.1.
 III. *Cer dentz escuava*, p.2, §.1. & *Quid sit Cantabrismus*, p.2, §.1.
 IV. *Icenaren definicioa*, p.2, §.1. & *Definitio nominis*, p.2, §.1.
 V. *Cer dentz icena*, p.2, §.1. & *Quid sit nomen*, p.2, §.1.
 VI. *Ethymologia cer dentz*, p.3, §.1. & *Quid sit ethymologia*, p.3, §.1.
 VI.a. *idem*.
 VI.b. *Escuararen ethymologia escutir eta escua cein gauca miragarria den*, p.4, §.2.3. & *Cantabrisni ethymologia manu et manus quam nificia sit*, p.4, §.2.3.
 VI.c. *Escualdunaren eta Escual Herriaren icenac bertze litzaintzetan-ere misterio-tsua*, p.7, §.7. & *Cantabri et Cantabriae nomina etiam in alijs idiomatibus sunt misterio imbuta*, p.7, §.7.
 VI.d. *Cantabria icen hau nondic heldu den*, p.7, §.8.9. & *Hoc nomen Cantabria unde deductum sit*, p.7, §.8.9.

Honen arabera pasarte bakarra eta azpiatalik ez duten atalen izenburuak izango lirateke eskuizkribuko 449. orrialdeko *aralde edo herronka*-n aurkitzen ditugun lehenbiziko hosi tituluak (I-V), seigarren atal osoaren izena izango litzateke hurrengo (VI) eta honen azpiatalak lehen aipatu dugun *Escuava garbia da. & Cantabrismus niñdus est* atalerainokoak (VI.a, VI.b, VI.c, ...). Lehenbiziko pasartea hurrengo lauak baino luzeagoa hilde zen eta honenbestez orrialde osoa berak bakarrik bete bide zuen. Argi dago beraz atal baten izena baino ez dela *Escuararen Ethorquia*, eta ez Kintanak nahi duen moduan saiakera lan osoari dagokiona. Honak ez du esan nahi halabeharrez Ustaritzeko Biltzarren batzar agiririk harturikoak Etxeberri Sarakoak emandakoa izan behar duenik, baina jatorrizko izen hau ziurtasun ezagutu ezean badirudi ez duela merezi berri bat proposatzeak, are gutxiago izen berriak lan osoaren edukia biltzen ez duenean.

Eskuizkribuko bi zutabeak

Euskaraz eta latinez bi zutabetan idatzita dago eskuizkribuaren zatirik handiena, gramatikaren lehenengo eta bigarren parteak kenduta. Oraindik argitaragabe dagoen latinezko zutabearena da lehenen aipatu nahi genukeen gaia. Urkixok euskarazkoaren lagungarri bezala baino ulertzen ez zuenez, ez zuen argitaratu, hori gabe ere eskal hitzak uler zitezkeelakoan (Urquijo 1907a: lii). Aurkitu dugu dena dela ikerlari honen paperen artean *Laburdiri Escuararen Hatsapenae* lan osoari dagokion transkripzioa biltzen duen koaderno bat. *Copie du manuscrit de J. d'Etcheberria (1712) jusq'aux vierhes. Partie latine* dakar azalean (Gipuzkoako Diputazioaren Biblioteka, Julio Urkixo Bilduma, ms. 9770), kopiagilearen bestelako azalpenik gabe, baina badirudi XIX. mendeko kopia bat dela, ziurtenik Urkixoren beraren eskariz egina eta aipatu izenburua frantsesez duenez, ustez Ipar Euskal Herrian kopiaturikoa. Dena dela badirudi transkripzioa egin zuenak latin apur bat ikasia zuela, ez zuela ordea hizkuntza menperatzen ezta idazten ari zen testua ulertzen ere, ugari bait dira kopia osoan agertzen diren hutsak, baina askotan kopiagileari "belarrira" ezagun egiten zitzaizkion hitzak nahiz "formak" (adibidez *demostrri*, perfektoko aditza balitz bezala, *de nostri*-ren ordez; *possedati*, perfektoko partizipio pasiboa balitz bezala, *posse dari*-ren ordez) idatziz. Ikus, adibidez, hona ekarri dugun testuaren lehen pasartean egiten dituen hutsak: kursibaz idatziko ditugu kopiagileak gaizki ulertu dituen zatia eta ondoan kortxete artean erantsiko diogu guk Zarauzko eskuizkribuan irakurtzen duguna:

31. *Demostri* [De nostri] igitur cantabrisimi sapientia nulla videtur *possedati* [posse dari] comprobatio? Quia inter omnes autores, atque historias nullus adest qui *soltem* [saltem] unum exemplar ad hoc munus *actiman* [attinere] *adiderit* [ediderit]. *Verumtamen* [Verum tamen] *deffitense* [deficiente] *apographo archetypum* [archetypum] *quari* [quaeri] *soles* [solet], quia nihil est scriptum veritati convenientius atque fidelius ob id igitur ego quoque intendo vestigare hujus *negotis* [negotij] verum *archetypum* [archetypum], ...

Ez dut uste inork zalantzan jarriko duenik latinezko zutabea argitaratu beharra dena Etxeberriren lana osorik ezagutu nahi baldin badugu, baina euskarazkoaren berrargitalpena eztabaidagarri gerta daiteke.

Urkixoren lana txalogarria izan bazen ere, badirudi hura lagungarri bezala hartuta edizio berri bat prestatzeko beharra ere badugula. Eskuizkribuan agertzen diren huts eta zuzenketa ugarien berri ematea da alde honetatik egiteko dagoen lanik premiazkoena (Ikus honetaz Urquijo 1907a: xlv-xlvi), transkripzioa bera ia-ia gaindiezina bait da 1907.eko argitalpenean.

Lekuko bakarra duten testuen edizioan testukritikak eskain dezakeena ondo garatu gabe badago ere, badirudi Euskal Filologiaren kasuan ezinbesteko dugula arlo honetan sakontzea, ugari bait ditugu eskuizkribu bakarraren bitartez ezagutzen ditugun testu garrantzitsuak. Alde honetatik era honetako testuetan ere lekuko asko direnean egiten diren edizioetan duten adinak garrantzia dutela huts edo erratuek esango nuke nik, haucexek izan bait daitezke besteak beste datazio zehatzagoak ezartzeko lagungarri eta batzutan erabakior. Honekin batera testukritikak horrenbeste ikertu ez dituen zuzenketa garrantzia ere lehen mailara dator eskuizkribu bakarreko testuen kasuan, bestetan gainerako lekukoek betetzen duten papera nolabait bete dezaketen neurrian eta, are gehiago, baita testuak eskuizkribuan duen moldakera edo agertzeko modua ere. Ikus ditzagun Zarauzko eskuizkribuan gehicgi bilatu gabe hemen esandakoa erakusteko aurkitu ditugun adibide batzuk, arlo hau ere jorratzeko dugula erakutsiz.

Eskuizkribu bat beste baten kopia denean idoroki ohi den huts bat daukagu Zarauzkoaren 416-417. orrialdeetan¹⁰, 416. orrialdeko euskarazko zutabea azken bi lerroak 417.eko euskarazko zutabearen hasieran errepikatuta eta gero ezabatuta dautte, beste nonbaitetik kopiatzen ari zena, orrialde aldaketarekin nahastuta, bi aldiz kopiatu duelako seinale. Kopia bat dela erakusten du honek, baina argi, euskarazko zutabeaz ari bait gara soilik; latinezkoa ere beste nonbaitetik kopiatua dela frogatu nahi baldin badugu latinezko zutabea bertan bilatu behar dugu frogara.

Antzeko gauza bat gertatzen da 374-375. orrialdeetan ere, baina honako hau ez dugu hain esanguratsu izango kopia izan gabe ere azaldu bait daiteke; eskuizkribua nola antolaturik dagoen kontu handitan izatea zein garrantzitsu den erakusteko dakargu hona. Hemen ere bi aldiz kopiaturik datorren zerbait dugu, hogeit leerro oraingoan, 374. orrialdean idatzita dagoena 375.ean berriro idatzi eta ezabatuta. Goragoko adibidean erabili dugun azalpena erabil liteke hemen ere, baina testuaren antolaketak beste bat ere zabalik uzten du, Kasu honetan eskuizkribuko zutabeak ez dira euskarazkoa eta latinezkoa, aditzez hornituriko segida bakarra osatzen dute orrialde bakoitzeko bi zutabeek, eta 374. orrialdeko bigarren zutabea lehen hogeit leerroak dira 375.eko lehen zutabea lehenengo hogeit leerroetan idatzi eta ezabaturik daudenak. Gerta zitekeen, beraz, eta gerta zitekeela diogu, ez diogu gertatu bide zela, inondik kopiatu gabe ere errakuntzaz zutabe bat zuririk utzi eta hurrengo orrialdera igaro iza-

(10) 418 dakar eskuizkribuak, zenbaki handiz ohizko zenbaki txikitzen idatzitako 416-ren ondoren, baina zalantzarik gabe errakuntza da.

na, eta hutsaz konturatzean hutsunea betetzera itzuli izana. Dena den kopia bat dela pentsatuz gero azalpena hemen ere errazagoa iruditzen zaigu, are gehiago beste bide batzuk ere ondorio berberera garamatzalenean.

Beste era bateko laguntza ere ematen dute zuzenketek eta zuzenketen antolaketak. Zarauzko eskuizkribuko 228. orrialdeko euskal zutabea bada zati bat marrekin ezabaturik, Urkixok (Urquijo 1907a: 87) parentesi artean biltzen duena oinoharrean azalduz eskuizkribuan ezabaturik dagoela. *Saraco escuara Escual-Herri guztian estimu eta ospe handitacoa da. & Cantabrisimus Sarae in univarsa Cantabria existimatione et nomine celebratur* ataleko hamalaugarren pasarteko azken hitzak dira ezabaturikoak eta euskarazko zutabea hauen ondo-ondoan hasten da hamabostgarrena. Pareko latinezko zutabea hitz hauen latinezko ordaina bilatuz gero ez dugu aurkituko, ezabaturiko hitzen aurretik zioenaren ordainarekin amaituko da latinezko hamalaugarren pasartea eta hamabostgarrena hasten da ondoren, baina ez ondo-ondoan, euskarazko hamabostgarrenaren pare-parean baino, tartean hutsune zuri bat utzita ezabatu dituen euskarazko hitzen parera. Zer esan nahi du honek? Zalantzarik gabe euskarazko testua dela lehenbizi idatzi dena eta ezabaketa ere latinezko itzulpena baino lehenagokoa dela: horrela bakarrik jakin zezakeen idazleak non hasi behar zuen latinezko hamabostgarren pasartearekin bestearen parera suerta zedin.

Aipatu dugun honen aldean nahaspilatsua da 236. orrialdea. Orrialde honetan bi hizkuntzetako zutabeetan ikusten ditugu zuzenketak. Baina euskal zutabea latinezko testua biltzen dueneko hartuko dugu kontuan bereziki oraingo honetan. Gauza jakina da handia dena Sarako mirikuak jatorrizko hizkuntzari bere itzulpena gehituta ospe handiko jakitunen lanetako aipamenak biltzeko duen zaletasuna. Jatorrizko testua latinezkoa denean, testua lehenbizi letra molde berezi batekin eta ondoren euskal itzulpena ematen ditu euskarazko zutabea, eta latinezkoan jatorrizko testu hutsa, letra larri eta handiarekin, ezkerreko zutabea —euskarazkoan— hartzen duen besteko lekua hartzeko moduan. Hala ere bertsiio bat bestea baino luzeago geratzen zaionean marrekin betetzen ditu hutsuneak. Orain dagokigun orrialde honetan letra larri eta handiz idatzita daude, ohi bezala, latinezko zutabeko aipamenak, baina eskuineko honetan agertzen dena ez da ezkerrekoan agertzen denaren berdina, euskarazko zutabea zuzenketak egin bait zaizkio latinezko aipamenari, hau da, ezkerreko zutabea marrekin ezabatuta dagoena —eta esan dezagun bide batez, Urkixok argitaratzen ez duena— da eskuinekoan dakarrena, baina horren gainera zuzenketak sartu dira le-roartean euskarazko zutabea, eta hau da interesgarrien iruditzen zaiguna, latinezkoan ez bait dira zuzenketa horiek bildu. Eskuizkribuaren zati honetan behintzat honako hau izango genuke, beraz, idazketa-zuzenketa prozesua:

1. Euskarazko zutabea: *Arbor bona facit fructum bonum, arbor mala fructum malum.* Eta beherago: *Arbor mala scindatur et mittitur in ignem.*
2. Latinezko zutabea: *idem.*
3. Euskarazko zutabearen zuzenketa: *Arbor bona fructus bonos facit, autem arbor malos fructus facit (sic).* Eta beherago: *Arbor quae non facit fructum bonum excidetur et mittitur in ignem*⁽¹⁾.

(1) Beste bertsiio bat ere badago ezabatuta, baina ziurrenik zuzenketa egiterakoan idatzia eta momentuan ezabatuta da. Idazteko unean bertan daramu denak egiten duen moduan utzi bait du fitxeberrik hitza ere amaitu gabe: *mala autem arbor m.* Honela, bigarren bertsiioa *mala*-rekin osatuta hain zuzen ere, geratzen dira aipamen biak Vulgatan (Mt. 7,17 eta Mt. 7,19) datozen modu-moduan. Baina badirudi hainbeste zuzenketarekin azkenean Sarako mirikua bera ere nahasi dela eta horregatik utzi duela bertsiio zuzendua arbola gaiztoari latinezko bertsiioan dagokion adjektiboa idatzi gabe. Urkixok bi aldiz bildu duen *malos* behin bakarrik dator eskuizkribuan eta izenari zor dion komuntzadura ez du betetzen.

Honenbestez euskarazko zutabea latinezkoa baino zaharragoa dela frogaturik bagenuen, latinezkoa idatzi ondoren zuzenketa lan bat izan zela euskarazkoan erakusten dugu honekin. Zalantzarik gabe adibide gehiago aurkeztu beharko genuke baieztapen honekin, baina egiteko dagoen lana erakustea baino ez dugu orain helburu.

Testuaren moldakera edo eskuizkribuan agertzeko modua aipatzen genuenean, dagoeneko aurreko adibidean ere ikusi ditugun hutsunez eta antzeko kontuez ari ginen. Zutabe baten hutsunea uzten baldin bada bestearekiko galdu duen parekotasuna berriro hartzeko, bigarren hau ordurako idatzita zegoelako da, bestela ezin izango bait litzateke zehatz jakin non hasi berriro idazten. Bi adibide ekarriko ditugu hona ondorio orokorrak ateratzen kontuz ibili behar dela erakusteko. Zarauzko eskuizkribuko 433. orrialdea ikusiz gero lau lekutan aurkitzen ditugu latinezko zutabearen marraz heteriko hutsuncak, orain esandakoaren arabera ordurako euskarazkoa idatzita zegoelako seinale. 441. orrialdean, ordea, euskarazko zutabearen dago hutsunea, latinezkoa lehenago idatzi bide dela agertuz. Kontrako ondorioak, beraz. Hobeto azertu beharko genuke eskuizkribu osoa ezer ziurrik esango badugu, baina latinezko testua zaharragoa dela erakusten duen beste daturik oraingoz beste inon aurkitu ez dugunez, geroago ikusiko dugun zerbaitek azaldu beharko digu agian hemengo hau, hots. *Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hutsapenac latin ikhasteco* liburuak baduela latinezko ereduren bat pentsatzeak. Aurrerago erakutsiko dugunez, Joanes Etxeberrikerak latinez ikasi zuen gramatika irakasten digula euskaraz onartuz gero, ez da arraroa lehenbizi latinezkoa eta gero euskarazkoa idatziko zituela pentsatzea. Dena den nahita hartu dugu lehenengo adibidea ere liburu honetakoa, ugari bait dira eskuizkribuko 305. orrialdetik aurrerako zatia hartzen duen lan honetan ere latinezko zutabea osatzen duten hutsuncak, gehienetan euskarazkoa idatzi dela lehenbizi erakutsiz.

Eskuizkribuaren datazioa

1712. urtea zehazten du argi Etxeberriker bere gramatikaren hasieran idazketa data bezala eta horrela onartu izan da Villasanteren euskal literaturaren historian ez bada (Villasante 1979: 106), 1716. urtea aipatzen bait du honek 1712koak arazoak sortzen dituelako Axularren eta Luis XIV.aren heriotze datekin. Urkixok berak onartzen du (Urquijo 1907b) huts egin zuena Axularri buruzko baieztapenekin gaizki ulertu zituetaelako Joanes Etxeberriker Sarakoaren hitzak (Urquijo 1907a: lxxix-lxxi), baina ez du azalpenik aurkitzen zuzenketa honek Sarako mirikuaren lanen dataziorako dakartzan ondorioentzat.

72 urte daramatzala hilda Axularrek dio Joanes Sarakoak bere eskuizkribuko 180. orrialdean eta, Sarako erretoare ohi 1644. urtean hil zenez, 1716.ekoa izango genuke Zarauzko eskuizkribua ($1644 + 72 = 1716$). Beste bi daturen kontra datorrela honako hau adierazten du Urkixok, Batetik, gorago esan dugunez, Etxeberriker berak 305. orrialdean ipintzen duen 1712koaren kontra eta bestetik 246. orrialdean Luis XIV.ari buruz diotenaren kontra. Oso ondo erakusten du Urkixok (Urquijo 1907a: xlvi-xlviii) latinezko zutabearen hildakotzat ematen duela Etxeberriker errege handia, eta baita euskarazko zutabe zuzenduan ere, baina ez honen azpian geratzen den jatorrizko euskal zutabearen; Luis XIV.a 1715. urtean hil zenez 1715. urtea baino lehenagokoa, 1712.ekoa hain zuzen ere, izango litzateke euskal zutabea eta beranduagokoak honen zuzenketa eta latinezko itzulpena. Errege handiari dagokiona ondo, baina Axularren heriotzea geratzen zaigu aldean. Ezin dugu pentsatu erregeari buruzko

atala 1712an idatzitakoa eta Axularri buruzkoa 1716koa izan daitekeenik ere, hirurogei eta sei orrialde lehenago bait dator eskuizkribuan bigarren hau.

Gure ustez bada azalpen osoago bat, Eman ditugu gorago euskal zutabea beste nonbaitetik kopiatua dela erakusten duten frogak batzuk eta gehiago ere eskaini daitezke. Latinezkoari dagokionean, ez dugu frogak erabakiorrik aurkitu eta oraingo ez dugu baieztatuko kopia denik, ez eta ez denik ere —ezezkoaren susmoa dugula aitortzen badugu ere—, baina orain dagokigunerako ez dio axola. Honako hau da gure proposamena: 1712. urtean idatzi zuen Joanes Etxeberriek euskal lanaren bertsiotzat behintzat. 1716.ean bertsiotzat gero Zarautzen Urkixok aurkituko zuen eskuizkribuan kopiatu zuen zutabe baten, eta kopiatu ahala zuzenketa batzuk egin zituen; denetarikoz zuzenketa egin zituzkeen, baina hor sartuko genuke gutxienez Axular 72 urte lehenago hil zela esanez egokitzea; ez zen egokitzearen beharraz konturatu, ordea, errege handiaren aipamena egitean. Latina ikasteko gramatika hasten den 305. orrialdera heldu zenean ere bere jatorrizko testuan irakurri zuen 1712.eko data kopiatu zuen; are ulergarriago dugu hau zati honetan, gorago aurreratu dugun susmoa, hots euskaraz idatzitakoa latinera itzuli beharrik ere ez zuela eta beraz lana lehenagotik ere ustez burutuago izan zezakeela onartuz gero, 246. orrialdeko latinezko zutabea idaztean nahiz kopiatzean ohartu zen Ludovicus Magnus erregeari buruzkoa egokitu beharraz, eta agian orduan egin zituen euskal zutabeko zuzenketa ere.

Escuarazko hatsapenac latin ikhasteco

Hau da ziurrenik atzanduen izan dugun Etxeberriren lana, besteak beste gure ustez zituen zentzua eta helburuak ez direlako ulertu edo ez direlako ulertu nahi izan. Aurrerago berriro ikusiko dugun *Gomendiozco carta* da helburuak ezagutzeko giltza eskaini beharko lukeena, bere lanaren aurkezpen gisakoa denaz.

Liburuaren hasieran *maxima* bezala tipografia ezberdinarekin¹² eskaintzen dena iruditzen zaigu gero datorren argumentazioaren lehen giltza:

Jaincoac Guignonari eman diotçan gauça hoberenetarie, eta abantailatuenetarie bat delarican mintçoa; cein pena eta neque handia den Munduan hambat hitzçuntça mueta differentetacoen içateaz.

Kexu horrekin eta gaiak ondorengo orrialdeetan duen garapenarekin lotu behar da gero ateratzen duen ondorioa:

Halacotz, bada Escualdunen pena eta neque hau icusirie hasi ninteen Escuaraz. Latinez, Francesez eta Espainolez hitzçegui baten moldateen: bidehartaz Escualdun guztieç eta herieçqui ene heriar Lau-Urtarrec cembait fagore, eta laguntça içan içaten gatiç; bere herriieç cunporat ilkhi gabe, cembait hitzçuntçaren parte bederen ikhasteco. Ordea noiz-eta-ere uste bainuen aiteina neramala neure obra, gogora içaçaitan, deusçuti balio çuela ene trabaiçlueac, eta cimençugabeco obraren pare içanen cela: baldin lehenbiciric ezbanituen moldateen Escuarazco lehenbicirico hatsapenac, Latin ikhasteco; ceren hauc baitira cein-nahi hitzçuntçaren cimençueac, çainac, eta erroac.

Halacotz bada JAUNAC, orai hemen daccartzçuetçuet, eguin ahal tudan maneran moldatuac eta eguinac; non hauçquen bidez estudiatu nahi duenac, Escuaraz Escual-herriieç ilkhi gabe, ikhas baitetçaque Latineçco Declinacionac, bai-halaber Conjugacionac, eta lehenbicirico hatsapen guztieç (Urquijo 1907a: 320).

(12) Etzanez dator Baionako 1718.eko argitalpenan eta gorputz handiagoko letraz Urkixoren 1907.ekoan, Urkixorenetik emango ditugu aipamenak bakoitzaren testuinguruan aurkitu nahi dituen irakurleari lana arintzearren, kasu honetan erabat fidagarria bait da edizioa. Ikus oraingoan Urquijo 1907a, 301. or.

Argi dio, beraz, Etxeberri munduko hizkuntzak ikasi behar dituzten euskaldunek lehenbizi latina ikas dezaten prestatu zuela bere lama. Baina honekin bakarrik ez dira auzalten latin ikasteko hastapen hauen lehen partearen azken orrian biltzen dituen euskarari buruzko oharrak eta ezta bigarren partean ezezkoak nola erabili aholkatuz ematen dituentak ere.

Latinezko izen, adjektibo eta izenordainen deklinazioari buruz ari den hastapen hauen lehenengo partea amaitzean bi orrialde osotan jasotzen ditu Etxeberri (Zarauzko Eskuizkribua, 323-324 eta Urquijo 1907a: 145-147) euskararen ezaugarri batzuk, hots, orain eragatibo eta absoluto deitzen ditugunen euskarazko erabilera —*Escuarac baitu nominatiuon bi akhabantça*, dio berak—, genitiboaren bi erabilera —*lanarena, lanarenac*— eta azkenik <c> eta <ç> letren erabilera. Arazo hauetako batek ere ez du noski latinaren ikasketarekin zerikusirik handirik, baina esan dezake norbaitek agian zuririk geratzen zen orri baten latin ikasteko hastapenak baino beranduago idatzitako oharrek direla, *Laburdiri escuararen hatsapenac* saiakera lanean ere bazioena bilduz¹³. Baina ezin da halako aitzakiarik ipini hastapenen bigarren partean esaten denarekin, testu nagusiaren barruan datoz hitz hauek eta. Osorik bilduko ditugu, puntuazioa bakarrik aldatuta, erabat argia iruditzen bait zaigu zati hau erakutsi nahi duguna frogatzeko (Zarauzko Eskuizkribua, 338 eta Urquijo 1907a: 168-169):

Guisa berean conjugateen da bertee gaineraco demboretan-ere. Choilqui ekharri dut hemen conjugacino hau eracusteco negacino ez nola behar den diferentqui errepartitu. Eeen ezta manera berean eçarteen verboaren presuna guztietan, gaineraco bi dembora horietan ikhuzten duzun beçala. Noiz eta-ere verboaren presunac hasta baituque n, hala-nola *naitz*, orduan erraiten da *ez naitz*, edo *enaitz*, z khenduric edo khendu gabe; baina baldin verboaren hasta bada d, khenteen da d eta eçarteen t, hala-nola *etia*, *et-tira*, *etate*, *etateque* & halaber e denean verboaren lehen letra, z khenteen da eta eçarteen t, hala-nola *hec erant* - *illi erant*, *hec etçiren* - *illi non erant*. Hemen badirudi z edo d bata berteearen aldaçan ecin daudezquela, ez eta oraino z eta ç-ere.

Gomendiozco carta-ko beste leku baten (Urquijo 1907a: 323) aurkitzen dugu gure ustez halako oharren zergatia:

... heldu natçaitçue neure obratioaren ofrendatçera, aguian bide humetaz gure herrico semeec cembait laguntça, edo fagore errecibituco dutela; eta oraino, cembait lo daçan-ere Escuaraz isquiribatçera, behar-bada atçar-aracico;

Horra hor, bada, bigarren helburua ere aitortuta. Honekin lotuta dago helburuen ulermenerako azken giltza iruditzen zaiguna, hots Vergilius *Georgicon* II, 458-459: *O fortunatos ninium, sua si bona norint, agricolas*, "zoriontsuak euren ondasunak ezagut ditzaten nekazariak" eta hemen "zoriontsuak euskaldunak euskararen duten ondasunaz ohar daitezenean"¹⁴. Lau aldiz aurkitu dugu Zarauzko eskuizkribuan aipamen hau, hauetatik bitan ez nolana hiko lekuan, aurreko guztiaren helburua bil dezakeen azken hitz bezala baino *Laburdiri escuararen hatsapenac* saiakera lanean eta *Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* gramatikaren bukaeretan. Beste bietan Sara bere sorlekua eta Lapurdi bere herria go-

(13) Antz-antzekoa da aurkibidean *Escuarazco ienen declinacinoaz* & *De nominum Cantabrisimi flexione* deitzen duen atala. Zarauzko eskuizkribuko 26. orrialdeko 34 eta 35. pasarteak hain zuzen ere (Urquijo 1907a, 4-5. or.).

(14) Ikus antzeko idea bat Larramendiren *Corografía*-ko euskarazko lehen zatian ere (Tellechea arg. 1969: 300; orain baita Altuna & Lakarra (arg.) 1990: 25-27).

raipatzean darabil (Zarauzko Eskuizkribua, 196, 201; Urquijo 1907a: 73, 79). Esan beharrekoa da dena den argi ikusten dela lau lekuetan testu nagusia idaztean baino beranduago tartekatuta daudena eskuizkribuan: aipamena berandu bururatu zitzaioela Joanes Etxeberri baina behin bururatuta gero izugarri gustatu zitzaioela esan nahi du honek, berak adierazi nahi zuena ezerk baino hobeto biltzen zuela iruditu zitzaioelako ziurrenik: euskara harro izateko moduko gauza dela euskaldunentzat da, besteak beste, berak Euskal Herriari eta euskaldun guztiei adierazi nahi ziena.

Hemen aipatu ditugunetatik lehena da noski ahaztuen geratu den helburua. Bena-tan latin ikasteko hastapenak idatzi nahi zituela Sarako mirikuak eta horretarako bere garaian zabalduen ziren gramatikaren ereduak jarraitu zuela erakutsi nahi dugu hurrengo lerroetan. Luzeegi egingo litzaiguke hemen dena den bere aurreko gramatikagintzaren berri eman¹⁵ eta Etxeberriren lanarekin behar bezala alderatzea eta azaleko azterketa baten sistematikotasun handirik gabe aurkitzen diren aztarnak baino ez ditugu ikusiko ez dela hutsetik sortu den lan bat erakustearren, hurrengo lan baterako utzita ereduak banan-banan alderatzea.

Izenarekin hasita esan dezagun *Escuarazco hatsapenac* latin ikhasteco deitu izan denarentzat latinezko ordainen bat bilatu behar badugu *Rudimenta* hitzarekin itzuli beharko dugula *hatsapenac* hitza, horrela egiten bait du Joanes Etxeberri berak eskuizkribuko 418. orrialdean: *Hatsapenen hirurgarren partea & Rudimentorum tertia pars*. Ugari dira XVIII. menderarte izen hau dararamaten ikasliburuak, baina ospetsuetan lehena, okerrik ez bada, Nicholas Perottusena izan zen, *Rudimenta Grammatices* izenarekin 1468.ean idatzi eta 1473.ean argitaratua. Manutiussek 1501.ean eman zuen argitara bere *Rudimenta Grammatices Latinae Linguae* eta 1514.ean Johannes van Pauteren —Despauterius— izan zen *Rudimenta ... pueris utilissima et omnino necessaria ... cum quaestiunculis de Poenitentia* kaleratu zuena. Bereziki interesatzen zaigu holandar honen izena, besteak beste Aquavivak idatzi eta 1599.ean argitaratu zen jesuslagunen *Ratio Studiorum* delakoan —*Ratio atque Institutio Studiorum Societatis Iesu*, izen osoarekin esatearren— Donatusen ondoren ikasi behar den gramatika bezala aipatua izateak ematen duen indarrarekin, XVIII. menderarte erabili bait zen bere lana Frantzian. Bada gainera Etxeberriren *Gomendiozco carta*-ko beste xehetasun bat ere Despauteriusen lana gogorarazi diguna. Hona hemen gutun honetako azkenetako hitzak (Urquijo 1907a: 323)¹⁶:

Hau da mandari bat aiteinat berri jaquitera beçala dohana, eta bide-ñavar ikhustera, nore cer beguitate eguinen dioen: ceren perpausen explicacinoa [eeina Francesez deiteen baita *Lex Particules*, eta Espainolez, *la Platiquilla de las Oraciones*, baihalaber *Syntaxa*] eta bertee gaineraco Grammaticari dagozcan gauçac, hunen beguira baitaude, hunec cer iragaiten den, edo nolaco beguitateia içaiten duen eta nor nola mintço den ikhusi, eta jaquin eta ondoan; camporat ilkhiteeco, edo bartenean guelditeeco.

Despauteriusen lan osoa 1537. urtean argitaratu zen *Commentarii grammatici* izenburupean, baina gero ere beti bereizi izan dira *Rudimenta* direlakoak eta sintaxiari zegokion atala. Horrela jesuslagunen ikastetxetatik gainerakoetara ere erraz hedatu zen aipatu *ratio studiorum*-ak honela dio (Matilla 1975-etik hartuta):

(15) Ikus hemen bertan argitaratzen den Ricardo Gómezen "Laramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia", Bibliografía Zubalagoa eta ez zabalegra ere ban aurki dezake irakurleak.

(16) Puntuaziari ez diogu ikuterik egin, *dagozcan* hitzak zuen lehen letra larria xehe egiten ez bada, hone-lai bait dator Barrokoko 1718.eko argitalpenean.

In grammatica tres classes sunt, suo ordine ita digestae ut in prima rudimenta doceantur. ... In secunda classe ars grammatica legatur tota Despauterii, praeter eius Syntaxim. ... In tertia classe repetetur de praeteritis et supinis, si necessum uideatur, et exacte tota ratio regularum grammaticae excerebitur; simil diligenter Syntaxis Despauterii explicabitur, et compositiones excerebuntur.

Ez dugu baieztatuko Etxeberriren proiektuak halabeharrez honako honen oihartzuna dakarrenik, ikasketen estruktuzio hau hedatua eta arrunta bait da, baina ez zaigu ukatuko berak ikasi zuen lekuan egin bide zena euskaraz egin ahal izateko langaiak paratzeko asmoa izan zezakeena ere. Baina goazen bere hatsapenetako zati zehatz batzuk ikusi eta hauek lehenagoko gramatikek ziotenarekin alderatura oihartzunak alde askotatik aurki daitezkeela erakustera.

Hona hemen saratarraren hastapenen hirugarren parteko lehenengo galdera (Zarauzko Eskuizkribua, 416)¹⁷:

Cer da Gramatica? Da ongui isquiribatceco, eta çuentçui mintçatceco arterioa.

Quid est Grammatica? Est ars recte scribendi, recteque loquendi.

Definizio zabal bat dator K.o. IV. mendeko Diomedesen *Ars Grammatica*-n (Keil 1961: I, 426) baina ikus dezagun azken zatia ez dela oraintxe aipatu dugunaren oso ezberdina:

... tota autem grammatica consistit praecipue intellectu poetarum et scriptorum et historiarum prompta expositione et in recte loquendi scribendique ratione.

Eta ez dago alde handirik bere *Introductiones Latinae* lehenengoz 1481.ean argitaratu baina gero behin eta berriro *recognitio* berrietan osatu zuen Nebrijaren erote-metako lehenean (Nebrija 1523: III, 1)¹⁸:

Scientia recte loquendi recteque scribendi ex doctissimorum virorum usu atque auctore collecta.

Bigarren galderak ere garai guztietan ditu pareko erantzunak. Gramatikaren partek zenbat diren galdetzean lau direla, hots letra, silaba, hitza eta perpausa dio, latinez *littera*, *syllaba*, *dictio* eta *oratio*. 1150.ean argitaraturiko Petrus Heliasen *Summa super Priscianum* lanean aurkitu dugu lehenbizikoz zatiketa linguistikoko huts hau honela formulaturik, baina Priscianusek berak ere dagoeneko VI. mendean gai hauek ordena honetan sartzen ditu bere *Institutio grammatica*-n, beste batzuen artean, gramatikaren zatiak hauek direnik esan gabe ordea. Beranduagoko lanetan ere Etxeberrirera bezalako zatiketa aurkitzen dugu. Perottus, Sulpitijs, Despauterius, Whittinton, (cf. Michael 1970) edo Nebrijaren *Institutiones* lanean. Esanguratsu izan daiteke gainera parte bakoitzaren adibideak aukeratzean Despauteriusen lanean azaltzen direnak eurak gogorazten dituztela Etxeberririk hartzen dituenek (*a, pa, pater, pater meus*).

Perpauaren zatiak zehaztean K.o. IV. mendeko Aelius Donatusek zioena biltzen du Sarako mirikuak hitzez hitz, *ratio studiorum* ospetsuaren arabera lehenen ikasi behar zen gramatikagilearen irakaspena hain zuzen ere.

(17) Ikus gorago 16. oharra.

(18) Nebrijak berak zuzenduriko azken edizioak, hots 1523.ekotik hartuak, dira aurkeztuko ditugun aipamenak, baina honen *Gramática de la lengua castellana* delakourantzat Quilibek paratu zuen argitalpenaren hitzaurretik hartu ditugu guk (Quilis-arg. 1984).

Baina ezberdintasunak ere erakutsi behar ditugu, eredu bakarrik guk behintzat ez dugula aurkitu adierazteko. Hona hemen hastapenen hirugarren parteko bigarren orrialdean (Zarauzko Eskuizkribua, 417), juxtu orain arte ikusi dugunaren ondoren irakur daitekeen izenaren definizioa:

Itēna da perpausaren parte bat ceinae, casuetarie declinatuarie, aditeera emaiten baitarocu cembait gauça.

Nomen est orationis pars, quae declinata per casus significat nobis rem aliquam.

Definizio hau ez dator oso-osoan bat aurreko arloetan bere iturri izan zitezkeela ziruditenetako batekin ere:

Donatusena (Keil 1961: IV, 355):

Pars orationis cum casu corpus aut rem proprie communiterve significans.

Diomedesena (Keil 1961: I, 320):

Nomen est pars orationis cum casu sine tempore rem corporalem aut incorporalem proprie communiterve significans.

Priscianusena (Keil 1961: II, 56):

Pars orationis quae unicuique subjectorum corporum seu rerum communem vel propriam qualitatem distribuit.

Despauteriusena (Despauterius 1527: fol. 3 v.; cf. Michael 1970: 92):

Significat substantiam cum qualitate propria vel communi.

Nebrijarena (Nebrija 1481: 12):

Pars orationis corpus aut rem proprie cõmuniterve significãs.

Donatusenaren berdinak dira Perottusena eta Whittintonena eta Priscianusena-
ren berdina Sulpitiusena. Badirudi beraz definizio guztiak ere ez dabilzala bata bestetik urrutiegi baina hauetako bat ere ez dela, esan bezala, Etxeberriren iturri zuzen eta bakarra. Honek ez du esan nahi agian guk ezagutzen ez dugun bigarren mailako ikaslibururen bat eredu zuzenagoa ezin izan zitekeenik. Dena den badirudi bete dugula gure xedea Joanes Etxeberri Sarakoaren *Escuarazco hatsapenac lathin ikhasteco* ez dela bere garaiko ohituretatik at geratzen erakutsiz.

Lau-urdiri gomendiozco carta edo guthuna

Urkixok Zarauzko eskuizkribua aurkitu baino lehen ere ezaguna zen 1718.ean in-primaturiko lan hau. Hitz egin dugu gorago ere bere edukiak eta geratzen den *unicum*-aren historiari buruzko berri batzuk baino ez ditugu ekarriko hona. Vinsonen bibliografiak bi ale aipatzen zituen baina ikusi bat ikusi zuen berak ere, guk ezagutzen duguna hain zuzen, eta badirudi beraz *unicum* bezala har dezakegula. Harrietek, Maurice Harrietek (1814-1904) alegia, Larresoroko apaiztegiari utzi ziola liburu hau baino ez dio Urkixok (Urquijo 1907a: lxxv) eta Harrieten eskuetara nondik hel zitekeen jakiterik ez dugu guk ere izan. Geroko historia ere ez da laburra ordea. Larresoroko apaiztegia Ustaritzera eraman zutenean, hara eraman ziren liburuak ere. 1928. urtean Piarres Lafitteri eman zion apaiztegiko Mathieu zuzendariak Harrieten liburuaren ardura. Baina geroztik Ustaritzeko apaiztegia ikastetxe bihurtu eta Baionan eraiki zen berria. Lafitte hiltzean hiru bide hartu zituzten honen liburuak idazlearen

borondatez: batzuk Baionako apaiztegian geratu ziren, beste batzuk Baionako katedralean eta azkenik hirugarren multzo batek Udal Bibliotekan *Lafitte Bilduma* osatu zuen. Hauen artean suertatu da, gorago esan dugun bezala, gure 1718.eko *unicum* hau.

Passicot apaizak kopiatu zuen eskuz Larresoron lan osoa Urkixorentzat eta gero, 1907.eko berrargitalpena kaleratu baino lehen. Urkixok berak zuzendu ahal izan zuen ale bakarrarekin. Ikusi dugu Urkixoren paperen artean Passicoten eskuzko kopia hau (Gipuzkoako Diputazioaren Biblioteka, Julio Urkixo Bilduma, ms. 1134) eta ezin sinisteko besteko fideltasuna duela jatorrizkoarekiko aitortu behar dugu.

Hiztegi laukoitza

Larramendik egiten duen Etxeberriren hiztegi laukoitzaren aipamenarekin hasi dugu lan hau (cf. honetaz Larramendi 1745: xxxvi eta Urquijo 1907a: xi-xii; orobat Urquijo 1907a: xv-xvi, lxxvii-lxxix) eta ezin dugu amaitu hartaz zenbait ohar eskaini gabe. Urte askotan desagertuta izan ondoren José María Sbarbi Osunak saldu zion eskuizkribuaren¹⁹ berri ematean Etxeberrik idatzitako hiztegia zela pentsatzeko bidea ez zuen hersten Urkixok 1907.eko lanean, baina bertiro ere 1934.ean (Urquijo 1934), Sbarbi-Urkixo izena hartu ohi duen hiztegi honetaz aritzean, Etxeberrirena ez delako ustea agertzen zuen bere jabe berriak, XIX. mendekoa izan zitekeelako susmoa ere azalduz. Hiztegi hau argitaratzeko prest duen Jose M^o Etxebarriak (Etxebarria 1990) ere ez duela argitu egilea nor den dio, haina Etxeberri Sarakoa aipatu ere egiten ez duenez badirudi ez diola gure mirikuari Sbarbi-Urkixo egotzi nahi.

Kronologiari dagokion xehetasun bat iruditzen zaigu guri bereziki azpimarragarri. *Gomendiozco carta*-tik hartuta gorago aipatua dugun atal baten (*Hualacotz, hadu Escualdunen pena eta neque hau iccusiric hasi nintzen ...*) argi adierazten du Etxeberrik berak hiztegia moldatzen hasi zela lehenbizi eta gero ekin ziola gramatika prestatzeari. Latina ikasteko gramatikaren bertsio bat 1712.ean idatzi zuela onartuz gero, urte hori baino lehenagokoak izango genituzke zalantzarik gabe hiztegia hasi zueneko lehen saiok; xehetasun hau, gainera, ez dugu hutsala. Etxeberriren garaikide zen Urteren lanekin alderaketarik egin nahi duenarentzat.

Azken hitzak esandakoa laburbilduz

Izenei eta dokumentuoi buruz eman ditugun xehetasunez gain, honako hau nahi genuke argi gera dadin saio honetan:

1. Joanes Etxeberri Sarakoari buruzko ikerketek aurrera egingo badute, premiazko da Zarauzko eskuizkribuaren edizio berri bat paratzea, latinezko testua ere lehenbizikoz argitaraturik. Huts edo erratuak, zuzenketak, eta testuak eskuizkribuan duen moldakera edo agertzeko moduak arreta berezia merezi dute, argibide iturri baliotsua izan ohi dela erakutsi bait dugu, hala nola euskal zutabea beste zerbaiten kopia dela jakiteko, gehienetan euskarazko zutabea latinezkoa baino lehen idatzia dela zehazteko edota zuzenketen kronologia erlatiboa erabakitzeke.

2. Gure ustez gero Zarauzko eskuizkribuak bildu duenaren bertsio bat idatzi zuen Joanes Etxeberrik 1712. urtean, baina Zarauzko eskuizkribua bera 1716. urtean zenbait egokitzerekin idatzia da. Hiztegia moldatzen, ordea, 1712.a baino lehen hasi zen Sarako Etxeberri.

(19) [*Diccionario Cuatrilingüe, xviiieme siècle*] Gipuzkoako Diputazioaren Biblioteka, Julio Urkixo Bilduma, ms. 2940. Sbarbi eta Urkixoren arteko gutunera ere bilduma honetan dago, ms. 5768.

3. Hiru helburu nagusi izan zituen Joanes Etxeberri Sarakoak bere lana burutzeari:

I. Munduko hizkuntzak ikasi behar dituzten euskaldunei lehenbizi latina irakastea.

II. Euskaldunak euskaraz idaztera bultzatzea.

III. Euskara zein altxor ederra den erakustea behar bezala jabetu ez diren euskaldunci.

4. *Eskual-Herriari eta eskualdun guztiei eskuarazco hatsupenac latini ikhasteco* benetako gramatika bat da, bere garaiko ikasliburuen antzera egina, tradizio klasiko-tik hasi eta XVII. menderarteko gramatiken aztarnak agertzen dituena. Bereziki garrantzitsu izan daiteke bere irakasle izan ziren jesulagunen *ratio studiorum* delakoaren eragina ikertzea.

Aipamenak

Altuna, P., & Lakarra, J. A. (arg.). 1990, *Manuel Larramendi: Euskal Testuak*. Donostia.

Bernadou, M., 1881, *Régistres du Bilçar de Labourd: Inventaire*, eskuizkribua, Pabeko Departamentu Arkibuan.

Delattre, P., 1949-56, *Les établissements des Jésuites en France depuis quatre siècles*. Enghien, 1459. or.

Delfour, 1890, *Histoire du Lycée de Pau (1622-1878)*. Pau.

Dubarat, M., 1922, "Exercices littéraires au Collège royal des Jésuites à Pau en 1688", *Bull. Soc. Sciences, Lettres et Arts de Pau*, t. 45, 5-20.

Etxeberri, J., 1712 = Urquijo, J., 1907a, *Obras Vascongadas del doctor laboriano Joannes d'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por* ———, Paris, Gero faksimilean: idem, LGEV 1967.

Etxebarria, J. M^l., 1990, "XVIII eta XIX gizaldietako sei hiztegi argitaratu gaberen berri", in Perez, E., & Urkizu, P., (arg.) *Paxi Altunari Omenaldia*. Donostia, 63-83.

Keil, H., 1961 [I. arg. 1855-1859], *Grammatici latini*, Hildesheim (8 liburuki).

Kintana, X., (arg.), 1972, *Joannes Etxeberri Sarakoaren Lan Hautatuak*, Donostia.

Lafitte, P., 1965, "Sarako Joanes Etxeberri medikua (1668-1749)", *Herria* 1965, 29-VII, 7-VIII. Ikus orain Lafitte, P., 1990, *Euskal literatura*, Klasikoak Bilduma 35, Donostia, 146-153.

Lakarra, J. A., 1985, "Larramendiren hiztegegintzaren inguruan", *ASJU* XIX-1, 9-50.

Landerretxe, M., [1907], *Traducción al vasc. de la introducción de Don Julio Urquijo a las obras de Joanes de Etcheberri*, Gipuzkoako Diputazioaren Biblioteka, Julio Urkixo Bilduma, ms. 3345.

Larramendi, M., 1745, *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latín*, Donostia.

— — —, [1754] = Tellechea Idigoras, J. I. (arg.), 1969, *Corografía o Descripción General de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, Donostia.

Matilla, J., 1975, "La ratio studiorum de los jesuitas: una versión en el siglo XVI del concepto, método y programa de la lengua latina", *Darius* III, 247-255.

Michael, I., 1970, *English grammatical categories and the tradition to 1800*, Cambridge.

Mitxelena, L., 1965, "Sarako Joanes Etxeberri-ren *Eskual-Herriko Gasteriari*", *Egan* 1-6, 109-123.

Nebrija, E. A., 1481, *Introductiones Latinae*. Salmanticae. [1981.eko faksimila dago].

— — —, 1492. = Quilis, A., (arg.) 1984, *Gramática de la lengua castellana*, Madrid.

— — —, 1523, *Introductiones in latinam grammaticam*, Compluti.

Urquijo, J., 1907a, cf. Etxeberri 1712.

— — —, 1907b, "Las obras de Joannes d'Etcheberri y la crítica", *RIEV* I, 37-38.

— — —, 1934, "Vascófilos ingleses (continuación)", *RIEV* XXV, 605 hh.

Villasante, I., 1953, "Joanes Etxeberri (1668-1749)", *BAP* IX, 231-243.

— — —, 1979, *Historia de la Literatura Vasca*, 2. arg., Aranazazu.

Vinson, J., 1907, "Un artículo de M. Vinson", *RIEV* I, 38-41.

Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia

RICARDO GÓMEZ

(EHU, Gasteiz)

0. Larramendiren *El imposible vencido* (Salamanca 1729), jakina denez, lehenbiziko euskal gramatika argitaratua da¹. Ez zen, haatik, hutsetik sortu. Txosten honetan aurreko tradizioek gramatika hartan utzi zuten itzala eta eragin zitzaizkion arazoak aztertu nahi ditut. 1. atalean XVIII. mende arteko Mendebaldeko gramatikagintza joera zenbait aurkeztu nahi ditut eta Larramendik zein neurritan ezagutu eta baliatu ahal izan zituen laburki azaldu. 2.ean *credu* klasiko edo grekolatindarra azalduko dut zehazkiago. 3.ean *El imposible vencido*-ren ezaugarri orokor batzuk *credu* horrekin erlazionatuko ditut. 4.ean eredu grekolatindarraren eragin horren adibide batzuk biltzen eta beraien egokitasun edo desegokitasuna nabarmentzen saiatuko naiz. 5.ean, azkenik, ondorio orokorrak bilduko ditut eta beste zenbait gogoeta aipatuko.

1. Lau dira, ene ustez, Larramendik eskumenean zituen gramatikagintza joerak eta bere lanetan nolabaiteko islada utz zezaketenak. Hurbilenetik urrunenera hartuta, ondoko hauek dira: euskarari buruzko aurreko lan txoak, hizkuntza erromanikoen gramatikak, misiolarien hizkuntza deskribaketak eta gramatikagintza grekolatindarra.

Lehenbizikoen artean aipamen berezia merezi dute Oihenarten *Notitia*-ko XI eta XIV. kapituluetan azalitzen diren berriak (cf. Oihenart 1656; Saroihandy 1923). Zerenahi gisaz, Larramendik ezagutu ahal izan bazituen ere, ez dirudi hortik gauza askorik bere egin zuenik. Larramendi bat dator Oihenartekin euskal hitz guztiak *-a-z* bukatzen ez direla baieztatzen duenean (cf. Oihenart 1656: 168-169; *IV*, 16), baina ez dugu albo batera utzi behar nor bere aldetik ondorio berberera iritsi ahal izateko posibilitatea. Beste adostasun batzuk ikus ditzakegu adizki jokagabeen eraketan (Oihenart 1656: 342-343; *IV*, 50-54) eta abots pasiboaren tratamenduan (Oihenart 1656: 344; *IV*, 152-157). Ez da falta, baina, ezberdintasun nabarmenik. Honela, Oihenartek bereizi zituen deklinabide mugatu eta mugagabe («artikuludun» eta «artikulugabe») horien aztamarik ez da somatzen Larramendirengan; Oihenarten (1656: 350-352)

¹Eskerrak beroenak eman nahi dizkiet txosten honen ziri-borro ezberdinak irakurri zituzten guztiei, Gildor Bilbao, Agurtzane Elordui, Joseba A. Lakarra, Pello Salaburu eta Koldo Zuazori. Eskaini zizkidaten ohar eta iruzkin aberasgarriak lan hau hobetzeko, baina ez nire oker guztiak ezabatzeko, balio izan dute.

(1) Larramendiren aurreko gramatika-lanetanako, ik. Oyharzábal 1989. Berriki burutu du Edurne Alegriak Larramendiren Arteari buruzko tesina bat (Alegria 1990). Ene nitziz, lan hau *El imposible vencido*-ren irakurketa-gida egokia izan daiteke, bereziki euskara ez dakitenentzat. Larramendiren azterbideaz ezazik, euskararen egituraz eta egungo analisiez ere berri ugari eskaintzen bait du.

ezac eta *adi* —gure **ezan* eta **edin*— aditzei dagozkien formak, baita **edin*-enak ere, *izan*-en barnean sartzen dira andoaindarraren gramatikan²; azkenik, Oihenartek adizki trinkoak erregularizat —eta, beraz, jatorrizkotzat— eta perifrastikoak irregularizat hartzen dituen bitartean, Larramendik zeharo kontrako iritzia agertuko du, urte luzeetan euskal gramatikarietan uste hedatuena izan zena, bestalde (cf. Gómez 1989: 361).

Y por ser este modo de Conjugaciones compuestas mejor, por menos expuesto a errores, mas distinto, y mas capaz de distincion, y consecuencia; por esso el Bascuense es de tanto acierto, puntualidad, y harmonia en sus Conjugaciones regulares. Digo *regulares*; por que todas las Conjugaciones irregulares son simples, y ninguna es compuesta, sea del verbo activo, sea del neutro. (*IV*, 46)

Gaztelaren gramatiketara zuzentzen bagara, bi joera bereiz ditzakegu: eredu klasikoari jarraitzen diona eta gramatika filosofikoa deritzona. Lehenbizikoaren barnean, Nebrijarenetik hasi³ eta Jesuslagunek herek prestatu zituzten eskuliburuetaraino, hainbat gramatika-lan burutu ziren Espainian (ik. Closa Farrés 1977, 1978; Lázaro Carreter 1949; Lope Blanch 1990; Padley 1988: 154 hh), baina ia guztietan ezaugarri amankomun anitz aurki daitezke. Gure gaiari dagokiolarik, honako bi hauek dira aipagarri: eredu grekolatindarraren jarraipena —jarraipen itsua zenbaite— eta, era eta aldi berean, eredu berari beste hizkuntza batean ezartzeak eragindako eragozpenak gainditzeko ahaleginak. Horrela, esaterako, *Gramática de la lengua vulgar de España*-ren (Lovaina, 1559) egile izengabeak, gaztelerazko aditzaren aurkezpenean iraganaldi pluskuanperfektua eta abots pasibo osoa aintzat hartu ez dituelarik, ondoko ohar honekin azaltzen du:

Acabaron se ia las Conjugaciones de los Verbos de la lengua Vulgar de España: en las quales se han declarado todos los modos i tiempos que ella tiene, sin quitarle, ni añadirle cosa alguna. Espantarse han (quiza) algunos, de que no pongo io en estos Verbos el Tiempo mas que por perfeto, i la Voz Passiva, como dizen los Latinos. Estas son dos cosas, las quales io no pongo por causa que esta lengua no las tiene: i el que desto se maravillare, maraville se también de su ignorancia, *pues (temiendo ojo ala Latina) por ella quiere formar i ordenar todas las otras; que es, como si un çapatero con una mesma forma quisiesse hazer çapatos para todo i qualquier genero de hombres (...)* por tanto digo, que cada lengua tiene sus particularidades, diferentes las unas delas otras todas...⁴

Ikusiko dugunez, horren antzeko jarrera da Larramendik erakusten duena. Bigarren joera, gramatika filosofikoa edo orokorra, Sanctius-en —El Brocense goitizenez ezagutuaren— *Minerva*-rekin (1587) hasten da Espainian, baina XIX. menderarte ez du arrakasta handirik lortuko. Port-Royaleko gramatikaren jarraitzaile diren Frantziako gramatika orokor eta arrazoituen eragina (Beauzée, Destutt de Tracy, Du Marsais, Thiébauld, etab.) nabarmentzen ez den arte alegia (ik. Brea Claromonte 1980; Calera Vaquero 1986; Gómez Ascencio 1981). Horregatik ulertzekoa da arrazoian oinarritzen den hizkuntzalaritza honen Larramendiren gramatika isuri niniñoa uztea.

(2) Oihenari, baitetik, *náy* eta *adi*-ren eta *dat* eta *ezac*-en arteko erlazioaz, hurrenez hurren, eta, bestetik, *adi*-k eta *ezac*-ek modu ezberdinen arabera daten banaketaz ohartu zen (Oyharzábal 1989).

(3) Agian *ez* zuen *Gramática de la lengua castellana* (1492) ezagutuko, garaian *ez* bait zen oso zabaldua izan eta bigarren argitalpena 1744rarte agertu ez bait zen. Bai, ordea, ezagutu bide zuen Nebrijaren latinezko gramatika, XVIII.eko azkenenerarte Espainian latinarekin irakaskuntzarako eredu bakarra izan zena (ik. Lázaro Carreter 1985: 145 hh).

(4) Aipua Rajoren artikuluitik (1978: 289-290) hartuta dago. Azpimarratua nirena da.

Izan ere, gutxitan murgiltzen da bere Artean —hagitzez sarriago Hiztegian— garai-ko teorien eztabaidetan eta gramatikaren justifikazioan. Aginteraren aldiari buruzkoa (IV, 69), erromantzeetako pasihorik ezari buruzkoa (IV, 152-157) eta generoen alferrekotasunazkoa (IV, 250-256) dira salbuespen bakarretakoak. Hizkuntza guztiek sei kasu dituzten Sanctiusek proposamenari ez dio muzin egiten; baina, erakutsi nahi dudanez, eredu grekolatindarraren jarraitze itsu gisa errazago azal daiteke, delako teoria horrekiko adostasunez baino.

Ameriketara bereziki aldanu ziren misiolariak berehala ohartu ziren bertako hizkuntzak ikasi beharraz, indiarrei Berri Onaren mezua heleraziko bazieten. Horretarako, hainbat gramatika moldatu ziren XVIeko hasieratik aurrera⁵, guztiek Larramendiren Artearekin antzekotasun batzuk aurkeztzen dituztelarik⁶: Mixtelenak dagoeneko aipatutako «celo evangélico» delakoaz gain, oraingoan gehiago interesatzen zaizkigu gramatika hauetako teorizazio urria —hizkuntza irakasbide izateak eragindakoa— eta eredu grekolatindarra ezartzeko kausitu zituzten eragozpen handiak, euskara bezala puntu anitzetan hizkuntza klasikoetarik eta are erromantzeetarik oso urrun geratzen bait ziren.

2. Mendebaldeko gramatikagintza —beste hainbat kultur arlo bezala— Grezian hasi zen. Erromatarrek ia ahobatez grekerarentzako ereduak jaso eta latinari ezarri zioten aldaketarik gabe. Esate baterako, Donatus (K. o. IV. m.) edo Priscianus (ca. K. o. 500) gramatikararien lanek Dionisio Traziakoaren (ca. K. a. 100) eta Apolonio Discoloren (K. o. II. m.) eragin zuzena agertzen dute. Nolanahi ere, “kopiatzuile huts” izatearen akatsa egotzi zieten latindar hauen gramatiken iraupenari esker gorde zen grekoen lana, horrela Bepizkundearen sorrera ahalbidetu zutelarik (Robins 1984). Aipa ditzadan, gehiago luzatu gabe, orainokoa hainbestetan azaldu den eredu grekolatindarraren ezaugarri orokor batzuk:

a. Autoritateen aipamenak: Idazle “onak” (*auctoritates*) dira arauak zilegiztatzen dituztenak; usadioa bigarren mailan geratzen da. Izan ere, gramatikarari anitzen helburua idazle klasikoen hizkuntza gordetzea da, orduko latina aski aldatua agertzen bait zen. Idazle onen erabilpenaren eraginez hurrengo mendetako gramatikagile gehienak hizkuntza idatziaz arduratuko dira, hizkuntza mintzatua alboratuz eta are gaitzetsiz.

b. Morfologiaren nagusitasuna: Gramatika hauen lehengaia, oinarritzko unitatea, hitza da. Hitzak klaseetan, perpaus ataletan, banatzea eta bakoitzaren aldaketak paradigmatan ezartzea da eredu honen xede nagusia. Hortaz, lehenbizi grekerarako eta gero latinerako asmatu zen perpaus atalen sailkapenak jarraituko du hizkuntza arruntan gramatiketan ere isladatzen.

c. Egitura: Lan gehienetan banaketa berbera errepikatzen da, hurrenkera mantenduz eta zati bakoitzari zabalera bertsua emanez. Horrela, lehenbiziko atalburuetan ortografiaz, jefrez, azentuaz eta silabaren egituraz aritzen dira; bigarren saila perpaus atalen eta berauen akzidenteen edo aldagaien azterketari eskaintzen zaio, etimologia

(5) Gramatika hauetariko zenbaiten aipamen eta iruzkin baterako, cf. Lope Blanch (1990: 40-46) xvi eta xvii. mendez eta Clossa Ferrés (1978: 71 hh) xviii.az.

(6) Mixtelenak markatu legez (1988 [1959]: 904), irakasbide hauetan bitartu beharko genituzke Larramendiren gramatikaren aitzindaririk burkoenak: «El precedente más importante, si bien más lejano, está en otra parte. El arte de Larramendi se alinea junto a las numerosas gramáticas de lenguas indígenas sobre todo de América que misioneros españoles compusieron en su siglo y en los anteriores: incluso se puede probar, como veremos más adelante, que uno de los motores principales fue también en nuestro caso el celo evangélico.»

zeritzan saila alegia —hauxe zen, esan bezala, gramatika-lanaren gunea eta luzeen zihuan zatia—; hirugarren sailean syntaxiaz ziharduten, bi arazo ardatz harturik (per-paus atalen hurtenkera eta egitura). Ereduzko egitura honetan zenbait aldaketa gerta zitezkeen, baina funtsean atalburu nagusien hurtenkera eta pisua bere horretan mantentzen ziren. Adibide gisa honetara dakartzat Donatusen eta Nebrijaren gramatiken aurkibideak; nabari denez, ezberdintasun markagarri bakarra Nebrijak atzerritarrei gaztelera erakusteko sartzen duen azkeneko atalburua litzateke.

Donatus		Nebrija	
ARS MAIOR II		Libro Primero. En que trata de la Orthogra-	
1. De partibus orationis	613	phía	103
2-10. De nomine	614	Libro Segundo. En que trata de la Prosodia t	
11. De pronomine	629	Sílaba	133
12. De uerbo	632	Libro Tercero. Que es de la Etimología t Di-	
13. De aduerbio	640	ción	161
14. De participio	644	Libro Cuarto. Que es de Sintaxi t orden de	
15. De coniunctione	646	las diez partes de la oración	201
16. De praepositione	648	Libro quinto. De las Introducciones de la	
17. De interiectione	652	Lengua castellana para los que de estra-	
		ña lengua querrán deprender	225
			(Quilis 1984)
ARS MAIOR III			
1. De barbarismo	653		
2. De soloecismo	655		
3. De ceteris uitiis	658		
4. De metaplasmis	660		
5. De schematibus	663		
6. De tropis	667-674		
	(Holtz 1981)		

3. Larramendiren *El imposible vencido*-ren ezaugarri orokorreki kontu egiten badiegu hauteman daitekeenez, bertan eredu grekolatindarraren berezitasun zenbait errepikatzen dira sarri, baina beste zenbaitetan eredu horretatik aldentu egiten da. Hurbiltze eta urruntze hauek erraz uler daitezke: lehenak gramatikagintza tradizioarekiko atxikimenduari zor zaizkio eta bigarrenak Artearen helburu eta euskararen orduko egoerari⁷:

a. Eredu klasikoari jarraiki, Larramendiren gramatikaren atal nagusia, lehenbizikoa, morfologiari dagokio, bestela ere ulertzekoa dena: euskal gramatika ororen ezaugarri dugu hau ezinbestez, euskararen morfologia aberatsa —aditzaren morfologia batik bat— aintzat harturik. Bestalde, egituratik idoki gabe azpimarratzekoa da ohituraren kontra prosodiari eskainitako atala bukaeran, ez hasieran alegia, agertzea⁸. Honetara dakart, bada, Artearen aurkibide laburtua:

(7) Oso antzekoa da Jakobsenek (1973: 5) dialektika boni ematen dion azalpena: «He [Larramendi] seems to want to show that the conventional terms of Latin grammar can all be applied appropriately to Basque, and also avoids completely any attempt at coining new terms for the purpose of labeling distinctive Basque forms or categories. Hence a tension arises between wanting Basque to seem much like Latin, on the one hand, and wanting to describe accurately its peculiarities, on the other».

(8) Diodan azkenaldi honetan arreta berezia merezi izan duela Larramendiren prosodiak, hiru artikulu baliatu bait dira atal honetako iruzkinaz (Altuna 1991, Hualde 1991, eta Juaristi 1990).

INDICE
de las cosas,
que se contienen en este Arte
del Bascuenze.

[Hitzaurrea (6 or.)]

Primera parte.

Cap. I.	Del nombre; de sus articulos, y de su declinacion.	Pag. 1.
Cap. II.	De los Pronombres, y de sus declinaciones.	pag. 20.
Cap. III.	De las Conjugaciones de los Verbos de Indicativo.	pag. 42.
Cap. III	[sic]. Del Modo Imperativo.	pag. 69.
Cap. IV.	Del Modo Optativo, ò Subjuntivo.	pag. 72.
Cap. V.	Conjugacion 2. absoluta de regimen plural.	pag. 85.
Cap. VI.	Siguense las Conjugaciones relativas.	pag. 90.
Cap. VII.	Del verbo passivo, y del auxiliar <i>naiz</i> , ò <i>naz</i> .	pag. 152.
Cap. VIII.	Del verbo neutro, y de sus Conjugaciones.	pag. 162.
Cap. IX.	de los verbos determinables <i>oi</i> , <i>ecin</i> , &c.	pag. 196.
Cap. X.	Conjugaciones del verbo activo, junto con las inflexiones, que corresponden a <i>possem</i> , <i>potes</i> , puedo, puedes.	pag. 210.
Cap. XI.	Conjugaciones del verbo neutro con las inflexiones correspondientes al <i>possum</i> , &c.	pag. 226.
Cap. XII.	De los verbos irregulares del Bascuenze.	pag. 232.
Cap. ultimo.	Conclusion de la primera parte, en que se habla de generos, y preteritos.	pag. 250.

Segunda parte.
ò la Syntaxis.

Cap. I.	Construccion del nombre.	[pag. 257]
Cap. II.	Del Relativo.	pag. 272.
Cap. III.	Del Pronombre, y su construccion.	pag. 283.
Cap. IV.	Del Verbo, y su construccion.	[pag. 287]
Cap. V.	Del Verbo neutro, y su construccion.	pag. 300.
Cap. VI.	Construccion de los irregulares, determinables, y otros.	pag. 302.
Cap. VII.	De los modos de oraciones.	[pag. 304]
Cap. VIII.	Del Adverbio, y su construccion.	[pag. 323]
Cap. IX.	De la Posposicion.	pag. 331.
Cap. X.	Construccion de las demás partes de la oracion.	pag. 334.

Tercera parte.

Prosodia del Bascuenze. ò tratado
de sus acentos.

Cap. I.	Pronunciacion, y Orthographia del Bascuenze.	pag. 337.
Cap. II.	El acento es la regla de la pronunciacion del Bascuenze.	pag. 341.
Cap. III.	Acentos del nombre, y pronombre.	pag. 350.
Cap. IV.	Prosodia del Verbo, y de sus constitutivos.	pag. 354.
Cap. V.	Prosodia del adverbio.	[pag. 367]
Cap. VI.	Apendiz de la Poesía Bascongada.	[pag. 373]

b. Larramendi ez da, ordea, autoritateen irizpidean oinarritzen. Izan ere, euskal literaturaren egoera ez zen oso dohatsua denek onarturiko idazle batzuen autoritatea izateko. Arazo honi dagokiolarik, usadio ezberdinak onartzen dituela esan behar da. Ez da arauemailea, ez behinik behin geroxeago Erret Akademiaren Gramatika

(1741) izango den bezala. Dena dela, nolabaiteko arauak, norma bat, ezarri nahi dio euskarari, baina ez du kontu honetan oso hertsiki jokutzen:

El uso en algunas partes ha introducido, que en la terminacion de la tercera persona de singular de la conjugacion absoluta, el relativo no solo añada una *n* à la vocal, segun la regla, siguiendo tambien en v. g. *jaten-du, deu, dou; jaten-duen, deuen, doten sagarrá*: mas este uso no embaraza la regla general. (IV, 275)

c. Halaber, ereduarekiko, gramatikarien terminologia hedatuenaiekiko, iritzi zabalenekekiko, etab. aski kritiko, eszeptiko batzuetan, azaltzen da. Hona adibide gisa Artetik idokirikiko pasarte hauek:

...passarémos à establecer ora los principios generales, y necesarios, para arreglar en consecuencia las Conjugaciones, y sus modos diversos, advirtiendo, que, aunque estoy mal con muchas locuciones de los Gramaticos en orden à la division, naturaleza, propiedades de los verbos, y de los nombres, de sus tiempos, y modos, seguiré no obstante el uso comun de otros Artes, y sus Autores. (IV, 43)

Pero por que los Gramaticos tienen tambien sus derechos, y limites, no disputaré su division de tiempos, ni sus nombres. (IV, 59)

Desadostasuna terminologiaren egokitasuna jukatzzen duenetan areagotzen da:

Yo procuraré declarar brevemente estas propiedades, y no mudaré los nombres comunes, con que en España se significan estos tiempos del Opiativo. (IV, 72)

Aora nos toca hablar de los verbos irregulares, anomalos, defectivos, impersonales del Bascuenze, sin disputar con los Gramaticos sobre la propiedad destes nombres. (IV, 232)

...y pudieran tambien llamarse oraciones de *undando*, siguiendo este insulso, aunque tan comun distintivo de oraciones.... (IV, 318)

d. Eredu grekolatindarra oso egitura ezberdina duen hizkuntza batean ezartzean arazoak eta desegokitasunak sorzen dira, gaztelarekin eta areago Ameriketako hizkuntzekin gertatzen zen legez. Larramendik badaki, jakin, ereduak mugak dituela eta badu bere aitzindaritasunaren kontzientzia argia. Halaber, euskararen apartekotasunaren eta honek zekarzkion zailtasunen berri ematen du:

Si llaman imposible à una gran dificultad, la confieso desde luego; y que sobre lo difícil, que es, disponer Arte de qualquiera Lengua, en la nuestra, por lo singular de su artificio, y por no estar sendereado el camino, son tan de vulto las dificultades, y embarazos, que no me admiro, que, quando en algun tiempo tuvieron pensamiento de componer Arte della, aterrados resistessen de la empressa. No he tenido guia, que vaya delante, y me dirija, me ha sido preciso romper el camino, en que apenas pueden servir las ideas de otros Artes, mas que para el cotejo; por que el Bascuenze es una Lengua, que congenia poco con las otras. (IV, hitzaurrea)

...que en todo caso observen, que la construccion, ò Syntaxis del Bascuenze, comparada con la de otras Lenguas, es pospositiva; observacion, de cuya falta ha nacido parte de la gran dificultad de componer Arte Bascongado. (IV, hitzaurrea)

Beraz, eredia gairiditu egin beharraz kezkatzen da batzuetan:

Otros, que han estudiado mal, ò bien la Gramatica Latina, piensan, que essa ha de ser la regla de todas las demás Gramaticas: de donde nace, que piden unas raras puntualidades en Bascuenze, y otras Lenguas comparadas precisamente con el Latin; y no

reparan, que pidiendoseles al trocado otras cosas, que se hallan en el Bascuenze, y de más Lenguas, no se encuentran en el Latin. V. g. tres numeros tiene el Griego; pues busquelos en Latin: tres segundas personas tiene el Bascuenze; pues busquelas en Latin: dos preteritos perfectos de Indicativo; pues busquelos en Latin, y assi de otras innumerables cosas. (IV, 85)

Los Gramaticos tienen tambien verbos, que llaman *impersonales* no sé por qué. En Bascuenze pueden llamarse, si quisieren, con esse nombre, los verbos, que corresponden a los que en Latin, y otras Lenguas son *impersonales*. (IV, 249)

4. Zerbahi gisaz, eta garaiko jarrera arruntena denez, gehienetan oharkabean bada ere, itsu-itsuan jarraitzen dio grekolatindar gramatikaren ereduari. Ondoren, bai desojotasunen bai jarraipen itsuen adibide batzuk erakutsi gogo ditut xehekiago.

4.1. Esan bezala, gramatikagintza tradizionalaren auzi nagusienetako bat perpaus atalen sailkapena da. Arazo honi dagokiolarik, Dionisio Traziakoak abiatu eta Donatus eta Priscianusen bitartez zabaltzen den zerrenda da, aldaketa txiki batzuk gorabehera, gehienetan errepikatzen dena⁹. Dionisiok zortzi atal bereizi zituen: izena (adjektiboa barne), aditza, partizipioa, artikulua, izenordaina, preposizioa, adberbioa eta juntagailua. Latindarrek peitu zuten artikulua ordez —eta atalen kopurua mantentzearren— interjekzioa gehitu zuten. Dakusagun, orain, Larramendiren zerrenda:

Siguiendo la comun opinion de los Gramaticos darémos á esta Syntaxis del Bascuenze sus ocho partes de la oracion, *nombre, pronombre, verbo, participio, posposicion, adverbio, interjeccion, y conjucion*. El articulo, como determinacion que es del nombre, y pronombre, quiero se entienda ser parte dellos. (IV, 258-259)

Beraz, zerrenda klasikoan aldaketa bakarra ezartzen du, ezinbestekoa zena bestalde: preposizioaren ordez posposizioa sartu, Larramendik berak hitzaurrean azpimarratzen duenez, horrelako egitura bait du euskarak.

4.2. Deklinabidearen paradigmei so egiten badiegu, latinaren sei kasu berberak errepikatzen direla nabari da:

SINGULAR	
Nom.	<i>á, ác</i> — el, la.
Gen.	<i>arén, aréna</i> — de, de el, de la.
Dat.	<i>ari, aréntzar</i> — a; para.
Acus.	<i>á</i> — el, la.
Voc.	<i>ó, á</i> —
Abl.	<i>aréquin</i> — con el, con la. <i>agátic</i> — por el, por la. <i>agabe</i> — sin el, sin la. <i>án, éán, agán</i> — en el, en la. (IV, 3)

(9) Salbuespen apagarrienerakoa dukegu Varron, zeinaren sailkapenak Chomsky X-harraren teorian bil-durako proposamena gogora ekartzen baitu. Izan ere, Varronek bi irizpidetan oinarriturik – kasurik duten ala ez eta aldirik duten ala ez – lau perpaus atal bereizten ditu: izena, aditza, partizipioa eta adberbioa (azken honetan "partikulak" ere sartuko zirelarik). Horrela, izenak kasua badu, baina aldirik ez; aditzak kasurik ez eta hai aldirik; partizipioak biak ditu, eta adberbioak bat ere ez. Beste salbuespen bat da Sanctiusengandik abiatuturik (eta honek Aristotelesegandik eta tradizio arabiar-hebraiarretik jasorik, antza) gramatika orokorretara hedatuko dena: izena, aditza eta partikulak. Sailkapen hirukoitz honen alde begien bistako arrazoi erlijiosoak ematen ziren besteak beste.

Honen antzeko paradigmak aurkeztu zituzten Oihenart, Mikoleta eta Urtek lehenago eta Hervás, Lardizabal eta Gèzek geroago, besteak beste (cf. Alberdi 1989). Jarraitze itsu honetaz zenbait ohar egin ditzakegu. Absolutibo eta ergatiboaren arteko bereizkuntzarik, jakina, ezin dugu aurkitu. Ergatiboari XIX. menderrate —eta oraindik ere XX.lean— “nominatibo aktibo” edo antzeko deiturak ezartzen zizkioten. Guztiarekin ere, beste anitzetan bezala, Oihenart dugu aitzindari: bere sei kasuak —kopurua mantentzen saiatzen bait da— ez dira latinararen berberak: ez ditu bokatiboa ez akusatiboa sartzen (nominatiboaren bidez adieraziko bait lirarteke), baina beste bi kasu eranstean ditu, ezeztatzekoa edo zalantzazkoa (*-rñic*) eta egitekoa (*-fex*).

Ereduaren jarraipenaren eragin zuzena dugu datibo eta ablatibo kasuetan gertatzen dena: Lehenbizikoa «a» eta «para» itzulpenek behartuta berezko datiboari (*arí*) destinatiboa ere (*aréntzat*) erantsi behar dio —orobat Mikoletak—, Ablatiboa, bere aldetik, “cajón de sastre” moduko bihurtzen zaio Larramendiri, era eta eite desberdinakoa kasuak metatuz *aréquin; agátic; agáhe; ún, eán, agán*—, beti ere latinezko kasua erduzat hartu bait du.

Numeroari dagokionez, Oihenarten irizpide formalari ez jarraitzeak, hots, singular eta plural numeroak baino ez bereizteak, baiztapan bitxiak egitera behartuko du:

Pero notese, que si el nombre se acaba en vocal, como *arri, arguí*, el genitivo es de singular, suprimida la *a*, como *arirén bat daucat*, tengo alguna piedra, *arguirén batec itsutú nau*, alguna luz me ha cegado; pero si el nombre se acaba en consonante, el genitivo es de plural v. g. *chacúr, mutíl, jaun*, &c. *chacurren bat, mutillen batec, jaunen batec*, y no *chacurrarén bat, mutillarén bat, jaunaren bat*. (IV, 286)

Azkenik, paradigmatarik kanpo utzi behar izango ditu beste hainbat “artikulu” 10. Partitiboaren markak (*íc, ríc*) nominatibo eta akusatibo singularrari atxikiko dizkie, egoera zehatz batzuetan soilik erabiltzen direla ohartzuz. Genitiboaren barnean sartzen ditu instrumentalaren markak: *áz, záz* eta *z*, ez artikulua bereizten ditu eta bigarrenak ablatiboaren antz handiagoa dutela eranstean du. Ablatiboan sartuko du, bestalde, *az* posposizioa «que corresponde á la preposicion de ablativo *con*, v. g. *espatáz, maquilláz jo-den, il-zuen*» (IV, 11). Azkenik, leku-denborazko kasuak adberbiotzat hartuko ditu, nahiz eta aldi berean posposiziotzat ere hartu (IV, 323 hh).

4.3. Zenbakiei eskainitako atalburuan euskara hartzen bide du oinarritzat, zerrenda hogeinaka antolatzen bait du, ez hamarnaka. Ene ustez, alderantziz jokatu izatekotan *ogueitamur, berroqueitamur* etabar agertuko ziratekeen, gaztelerazko zenbakien kidetzat. Zenbakien esparrutik atera gabe, deklinabide mugagabea aintzat ez hartzeak arazo franko sorrarazten dizkio, gaztelerazko artikulua agertzen den ala ez:

(10) Deklinabide atzizkietarako Oihenartek ere badarabilen “artikulu” berba zergatik erabiltzen duen era kusten saiatzen naizen Larramendiren tradizioarekiko atxikimenduaren barnean azal daiteke, grekerazko artikulua deklinatuaren statusarekin alderatuz gero. Gauza jakina da artikuluez lagundurik aurkezten zirela grekerazko gramatikaren paradigmaren kasu ezberdinak eta, ohitura honi jarraitzearen, *hic, hanc, hoc* erakuslearen formez baliatu zirela latindarrak zeregin berometurako, artikulurik ezean. Artikulua gramatikagintza klasikoan kasu mar karean eramaletzat edota izenaren genero eta numeroaren adierazletzat hartu bide zen, bestelako funtziorik ezarri gabe. Artikulua izenaren determinatzailetzat hartzea, ordea, beranduagoko kontua da; agi denez, Por-Royaleko gramatikarekin eta ondoko gramatika filosofikoekin hasi zen (Gómez 1981: 160). Nolanahi ere den, J. A. Lakarrak ohartarazi didanez, “artikulu” berbaren esanahiaren arazoa uste baino korapilatua da izan liteke: izan ere Zavalarentzat, esaterako, gaurko “adizki” berbaren pareko edo bait litzateke,

La diferencia está, que los numerales del Bascuenze, que se acaban en vocal, en el segundo nominativo *ergatibo* que corresponde al que, y en Romance no lleva *los*, añaden una *e*, v. g. *bi, bie; hirú, hirúe; zazpi, zazpie*; pero los que se acaban en consonante, añaden *et*, *bat, batée; host, hostée; amár, amarrée*; aunque también varias veces se pone esta terminación à los que se acaban en vocal.

Esta diversidad, que tienen los numerales en sí, passa también à los nombres, de que vienen acompañados: demanera, que si el numeral del Romance dexa el artículo *los, las*, el nombre añade una *e*, si se acaba en vocal, y si en consonante *et*; v. g. *eien Angeles te lleven, eun Aingurúe eraman azatela, amár guizonée nácurte*, diez hombres me traen. Se entiende la regla para los verbos activos. Pero si el numeral del Romance viene con el *los, las*, el nombre del Bascuenze toma el artículo *ae*, v. g. los cuatro hombres *lau guizonac, &c.* (IV, 40-41)

4.4. Perpaus atal bakoitzaren azpisailkapenean antzeman daiteke nabarmenkiago ereduarekiko atxekimendu hertsia. Adibide gisa, eta Larramendiren gramatikan duen pisua ere kontutan harturik, aditzaren azpisailak aipatu gogo ditut. Aditzak hiru azpisailetan banatzen ditu: aktiboak, pasiboak eta neutroak; honetan Priscianusek eta beste hainbatek bezalaxe jokutzen du, definizio nozionalak ematerakoan:

...el verbo no se llama activo, por que significa alguna accion: pues tambien el passivo significa accion: ni el verbo se llama passivo, por que significa alguna passion. Llamanse pues con essos nombres, por el modo particular que tienen de significar, ò la accion, ò la passion: el verbo activo significa la accion, rigiendo un acusativo tacito, ò expresso, à que ella se termina, sin cuydar de su recepcion: el verbo passivo significa la passion, ò recepcion de algun exercicio, sin cuydar de su origen, y principio. (IV, 163)

Aditz neutroak, ez aktibo ez pasibo den arren, pasiboaren antz hadiagoa du bai esanahiagatik bai formagatik ere:

Con todo esso, el verbo neutro imita mas la condicion del passivo, que del activo, assi por que significa algun exercicio, sin cuydar de su principio; como por que significa un exercicio, que no pide salir fuera, y buscar acusativo, à quien se termine. De aqui nació, que el Bascuenze, que es Lengua Philosophica, haze sus verbos passivos con los auxiliares absolutos —*hots, NOR sailkeok*— del verbo neutro, observando puntualmente la correspondencia entre el significado del verbo passivo, y neutro, y entre los modos de significar, que tienen ambos. (IV, 163-164)

Larramendik hiru aldi "filosofikoak" bereizten ditu: oraina, iragana eta geroa Gainerako aldiak oinarritzko hiru hauen aldaerak irateke. Banaketa hau, dagoeneko Donatusen *Arctectan* kausi daitekeena, gramatika filosofikoak zahalduko du (*Sanctius*, Port-Royal, etab.) eta XIX. mendetik aurrera arrakasta erdietsiko (ik. orain EGLU-n ematen dena). Halarik ere, Larramendik gramatikarien ohizko banaketa anizkoitzari amore ematen dio.

Los tiempos propiamente hablando no son mas que tres, presente, preterito, y futuro, y ninguno ay, que no se reduzca à alguno destes tres; por que todos los demás son modificaciones, ò del presente, ò del preterito, ò del futuro. Pero por que los Gramaticos tienen tambien sus derechos, y límites, no les disputaré su division de tiempos, ni sus nombres. (IV, 57-58)

Horrela honako aldi-zerrenda hauxe eskaintzen digu hurrengo lerroetan: orainaldia («presente de Indicativo»), iraganaldi burutugabea («preterito imperfecto»), ira-

ganaldi burutua («preterito perfecto»), iraganaldi “pluskuanperfektoa”, geroaldi inperfektoa eta geroaldi perfektoa. Saikapen hau gramatikagintzan oso arruntzat jo dezakegu. Donatusek, Priscianusek eta, esaterako, Nebrijaren gaztelerazko gramatikak proposatzen duten zerronda berbera da, azkeneko bi aldien bereizketan izan ezik. Baina geroaldi inperfekto eta perfektoa Nebrijaren latinezko gramatikaren bigarren edizioak (1523) bereizten ditu dagoeneko, bertan *amabo / amavero* bikotea sail ezberdinetan sartzen bait da, eta gaztelerarako lehen aldiz Lovainako 1555eko egile izengabeko *Gramatika*-k (cf. Rojo 1978).

Bestalde, Larramendik iraganaldi burutua bi motatakoa izan daitekeela dio; bata hurbila (*yo he comido*) eta bestea urruna (*yo comí*). Latinean peitu den bereizkuntza honen jatorria, noski, euskarari jarriko du, eta beronetatik ikasiko zuketean gaztelerak eta gainerako erromantzeek (*JV*, 60). Europar bereizkuntza honen abiapuntua Port-Royaleko Gramatika (1660) kokatu behar dugu. Lan honetan, aldien saikapenenan berrikuntza nabari bat ezartzen da, zeinaren bitartez iraganaldi hurbila eta urruna bereiztea erraztuko bait da: aldi bakunak eta aldi konposatuak. Lehenbizikoak oraina, iragana eta geroa dira. Bigarrenetan lehenagoko edo geroagoko ekintza batekiko erlazioa ere kontutan hartzen da¹¹.

4.5. Aditz bakunen eta konposatuen —nahiago bada, trinko eta perifrastikoen— antzinatean eta jatorriasunaren arazoan, esan bezala, geroztik eta XIX. menderarte jarriera nagusia izango dena ezartzen du Larramendik, hots, adizki konposatuak dira erregularrak, eta beraz jatorrak, eta bakunak irregularrak, kutsatuak. Beraz, euskaraz aditz guztiak, “benetako” aditz guztiak konposatuak lirarteke. Larramendiren iritziz, latinez denak bakunak lirarteke eta gazteleraz, aldiz, bi eratakoak leudeke. Honetarako erabiltzen duen irizpidea —pasiboetarako ere baliatzen duena— komunztaduraren agerpena da. Partizipioak komunztadurarik zaintzen ez badu, benetako partizipioa da eta, ondorioz, adizki konposatua dugu (*ha amado*); komunztadurarik zaintzekotan, ostera, ez da partizipioa adjektiboa baizik, eta aditza bakuna da (*amatus, -a, -um est, es amado, -a*). Guzti honetatik bi ondorio ateratzen ditu: gaztelerak ez du adizki pasiborik eta euskarak, ez latinak ez grekoak, eman dizkio gaztelerari —eta orohar erromantzeei— adizki konposatuak.

4.6. Adizki jokagabeak («modos del infinitivo») sailkatzerakoan ere, latina izango du gidaburua:

	Infinitivo del verbo <i>jan</i> .	
Pres. infín.	<i>jan, jatra</i>	comer, comido.
Pret. infín.	<i>jan-izán</i>	aver comido.
Partic. pres.	<i>játen</i>	comiendo.
Partic. fut.	<i>jangó, jánen</i>	quien ha de comer.
Fut. de infín.	<i>jan beár</i>	aver de comer.
Gerund. Genit. y Dat.	<i>játero</i>	de comer, y para.
Gerund. Acusat.	<i>játera</i>	à comer.
Partic. pret.	<i>janá</i>	comido.
Ablativ. absol.	<i>janie</i>	aviendo comido. (<i>JV</i> , 50)

(11) Espainian Belloren gramatika sartzen da bereizkuntza hau lehenbizikoz (1847), baina lehenago ere Astarloak jaso zuen *Discurso filosofico*-en, nahiz eta lan hau 1880.ertarri ez argitaratu.

Oraingoan bederen latinarekiko zorra aitortzen du, hala nola desegokitasunaz ohartu ere:

Antes de explicar estos modos, quiero brevemente desembarazarme de algunos reparos. Ya tengo antes insinuado, que estoy muy mal con muchos destes nombres, con que los Gramaticos declaran los varios modos del Infinitivo, no solo en Latin, sino tambien en otras Lenguas; pero que no quiero quitarles la possession en que están, ni obligarlos à forjar otros nombres. Y solo advierto, que à los varios modos del Infinitivo Bascongado doy esos nombres, solo por que con los mismos se explican los modos del Infinitivo Latino, con los quales se corresponde mejor. (IV, 50-51)

Menpekotasun honetatik arazo batzuk sortzen dira: formalki "infinitibo" soilak ez diren forma batzuk sartu beharrean dago (*jan beár*); itzulpen bitxiak ematera bultzatzen du (*jángó, jánen* 'quien ha de comer'); ablatibo absolutuaren marka bezala *-trije* ematen du, nahiz eta deklinabidearen aurkezpenean nominatiboaren aldacratzat hartua zuen¹²; orobat gerundioekin, batak ez bait du datiboaren markarik (*játeco*) ez eta besteak akusatiboarenik ere (*játera*). Bestalde latinaren eta euskararen erabateko paralelotasuna bilatu nahian¹³ *jaten* eta *jango, janen* adizkien kide latindarrak (*manducans* eta *manducaturus*, hurrenez hurren) ere forma aldaczinak direla baieztatzen du. Beraz, latinezko orainaldiko eta geroaldiko partizipioen deklinagarritasuna sailhesten du zeharo.

4.7. Aditz irregularrak edo trinkoak, konposatuaren gisara, aktibo eta neutroen artean banatzen ditu. Baina oraingoan ere aktibotasunaren edo neutrotasunaren irizpidea gaztelararen kideen arabera erabiliko du, ez euskarazko aditzak hartzen duen "nominatibo"aren arabera. Larramendik berak markatu bezalaxe:

Lo 2. el nominativo de singular tiene dos articulos *á, áe*, que no pueden usarse promiscuamente: por que el primero sirve à los verbos neutros, y pasivos, *jaun-á dator* el señor viene; *hume á il da* el niño se ha muerto: el segundo sirve à los activos, *jaun-áe eman-du*, el señor me lo ha dado, *hume-áe artzen-du*, el niño lo toma. (IV, 4)

Horrela, ergatiboa eskatzen duten zenbait aditz neutroen barnean sartuko ditu, antza lehenago esandakoaz gogoratzeke, hala nola *idurí* 'parecerse', *iritzí* 'parecer', *iraquin* 'hervir' eta *iraun, iraundú, irautnú* 'durar, perseverar' (IV, 244-249). Guzti hauetan irizpide nozionalaz baliatzen da, ez bait dute akusatiborik, hots, neutroen moduan jokatzeko bait dute alde honetatik, nahiz eta formalki aktibotzat hartu behar izan. Jakina, gaztelaraz ere aditz neutroak liriteke.

5. Lerro hauekin ez dut Larramendiren Arteaz iritzi txarrik zabaldu nahi izan. Gramatika honen "akatsak" nolabait azpimarratzean, ene asmoa Larramendiren eredu posibleetan eta berauek euskarari ezartzeak sortu zizkieten zailtasun eta arazoetan arreta handiena jartzea izan da; azken batean, Larramendi bere garaiko seme dela erakustea. Tamalez, grekolatindarren eredu orokorrean oinarritu behar izan dut txosten hau, oraino ez bait dakigu Larramendik zein gramatika erabili zuen eskuartearen bere Arteari ekiterakoan, ezta ereduazko gramatika-lan bakarretik abiatu zen ere.

(12) Ohenartek bi *-ie* atzizkiak, izenkietakoa eta adizkietakoa, bat ditu.

(13) Oroit bedi gramatikagintza tradizionalcan latina eredu formala ezezik, hizkuntza aberats eta noblearen eredu ere badela, eta hizkuntza batek zenbat eta latinaren antzekotasun herriagoa izan, aberastasun, nobletasun eta prestigio handiagoa erdiesten zuela.

Dena dela, ez nuke bukatu nahi *El imposible vencido*-k, garaiko ezagutzak aintzat haritzen baditugu, euskararen oso deskribapen ona ematen duela eta, euskararen egituraz den bezainbatean, lorpen zoragarri eta intuizio zorrotz batzuk ere badituela argi utzi gabe. Honen seinale, Larramendiren Arteak ondorengo euskal gramatiketan izan zuen eragin aparta (Hervás, Añibarro, Zabala, Lardizabal, van Eys, etab.)¹⁴. Horregatik, R. H. Robinsen ondoko hitz hauekin bukatu nahi nuke, hizkuntzalaritzaren historialari honek grekoei buruz idatzi zituenak Larramendirentzat ere zeharo baliagarriak direla uste bait dut:

But it must be remembered that we are judging them in the light of many generations of subsequent speculation, and are in danger of passing sentence on them by the application of retrospective legislation. [...] Pioneers always have the hardest job and always make mistakes. (Robins 1951: 46)

Bibliografia

- Alberdi, X., 1989. «Ohar batzuk euskal deklinabidearen historiografiarako», *ASJU* xxiii-2, 411-434.
- Alegria, E., 1990. *Manuel de Larramendi et sa Grammaire "El Imposible Vencido-Arte de la Lengua Bascongada"*. Travail d'étude et de recherche, tesina argitaragabea, Université de Bordeaux III, Bordeaux.
- Altuna, P., 1991. «¿Son hexadecasilabos los versos de Dechepare?», in J. A. Lakarra (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, *ASJU* ren Gehigarriak, 14, Donostia.
- Breva Claramonte, M., 1980. «La teoría gramatical del Brocense en los siglos xvii y xviii», *REL* X-2, 351-371.
- , 1983. *Sanctius' Theory of Language. A Contribution to the History of Renaissance Linguistics*. John Benjamins, Amsterdam / Philadelphia.
- Calero Vaquera, M. L., 1986. *Historia de la gramática española (1847-1920)*. De A. Bello a R. Lenz, Gredos, Madrid.
- Closa Farrés, J., 1977. «La difusión de la *Ars Minor* de E. Donato en los siglos xvi y xvii», *Anuario de Filología* iii, 47-80.
- , 1978. «La difusión de la *Ars Minor* de E. Donato en el siglo xviii hispano», *Anuario de Filología* iv, 39-91.
- Donzé, R., 1970. *La Gramática General y Razonada de Port-Royal*. EUDEBA, Buenos Aires.
- Gómez Ascencio, J. J., 1981. *Gramática y categorías verbales en la tradición española, (1771-1847)*, Univ de Salamanca, Salamanca.
- Hualde, J. I., 1991. «Manuel de Larramendi y el acento vasco», liburu honetan.
- Holtz, L., 1981. *Donat et la tradition de l'enseignement grammatical*, CNRS, Paris. *N°* = Larramendi 1729.
- Jakobsen, W. H. Jr., 1973. «The First Basque Grammar», *The Basque Studies Program Newsletter*, 8, 4-7.
- Juaristi, J., 1990. «De métrica vascorrománica», *ASJU* xxiv-2, 385-405.
- Keil, H., 1961 [1855-1859]. *Grammatici latini*, Georg Olms, Hildesheim (8 lib.). Lehen arg.: B. G. Teubner, Leipzig.
- Kukenheim, L., 1951. *Contributions à l'histoire de la grammaire grecque, latine et hébraïque à l'époque de la Renaissance*. E. J. Brill, Leiden.
- Lakarra, A., 1989. «Gogoetak xviii. mendeko euskalaritzaren inguruan», *ASJU* xxiii-2, 447-461.

(14) Bideanabar, egiteke dago, eta egin beharreko lana deritzot, *El imposible vencido*-ren eraginaren inaketa sakona, bai ondoko gramatiketan baita euskarari ulatuzian —agian zailago hautematen, baina ezinutzikoa azterketa egok: eta osoa izango bada — andoaindarraren eraginaz aritzean gehien bat hiztegi-gintzaren arloan mugitu bait gara orain arte behintzat.

- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*. Salamanca. Berarg. fak. Iordago, Donostia, 1979.
- Lázaro Carreter, F., 1949, *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, Anexo XLVIII de la *RFE*, CSIC, Madrid. Bigarren arg. Crítica, Barcelona, 1985.
- Lope Blanch, J. M., 1990, *Estudios de Historia Lingüística Hispánica*, ArcofLibros, Madrid.
- Michael, L., 1970, *English Grammatical Categories and the Tradition to 1800*, Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- Mixelena, K., 1988 [1959], «La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)», *SHLV*, II, 900-911. Lehen arg.: *Cuadernos de la Cátedra Feijoo* VI.
- Nehrija, E. A. de, 1492, *Gramática de la lengua castellana*, A. Quilisen azterketa eta arg., Editorial Nacional, Madrid, 1984.
- Oihenart, A., 1656, *Notitia utriusque Vasconicæ tum Ibericæ tum Aquitanicæ*, Paris, bigarren arg. osatua. Gaztelera-zko itzulpena erabili dut, J. Gorosterratzuk moldatua, *RIEY* XXVII (1926), XXX (1928).
- Oyharçabal, B., 1989, «Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU* XXIII-1, 59-73.
- Padley, G. A., 1976, *Grammatical Theory in Western Europe 1500-1700, The Latin Tradition*, Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- , 1988, *Grammatical Theory in Western Europe 1500-1700, Trends in Vernacular Grammars II*, Cambridge Univ. Press, Cambridge.
- Robins, R. H., 1984 [1967], *Breve historia de la Lingüística*, Paraninfo, Madrid.
- , 1951, *Ancient & Mediaeval Grammatical Theory in Europe*, G. Bell, London.
- Royo, G., 1978, «Las primeras descripciones del verbo castellano», in *Estudios ofrecidos a E. Alarcos Llorach*, III, Oviedo, 281-304.
- Saróhandy, J., 1923, «Doctrina gramatical de Oihenart», *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Donostia, 41-46.

Larramendiren hitz-eraketa

MIREN AZKARATE

(HU), Zorogoa

1. Sarrera

Larramendi alde askotatik izan da eztabaida-iturri eta da oraindik ere. Besteak beste, guri gaur dagokigun arloan, bere *Diccionario Trilingüe* delakoan jaso, hobeto esanda, eratu zituen hitz berriak direla-eta sortutako auziak ez dira txikiak izan. Hauxe da bada ondoko lerroetan zehar aztertu nahiko genitueena, xehetasun osoz ez izanik ere, hiztegian ageri diren 'hitz eratuak', eratorri eta elkartuak, pixka bat arakatuaz.

Larramendi bera dugu lehen informazio-iturri, orohar hiztegian zehar aurkituko dugun hitz-altxorren berri ematen baitu hitzaurrean. Bi atal nagusi bereiz daitezke Larramendiren azalpenean; hizkuntza "arrunteko" hitzei dagokiena ("De las voces del lenguaje vulgar") eta hizkuntza tekniko, bereizitukoiei dagokiena ("De las voces facultativas").

a. Hitz arruntak

Euskaraz egunerokoak ditugun hitzak direla-eta, euskalkien arazoa aipatzen du lehenik Larramendik, euskalki batetik bestera dagoen desberdintasun lexikoa gainditu nahirik, euskalki guztietako hitzak jaso dituela esanez. Beste datu bat ere eranstean du: ez duela euskalkiaren gaineko informaziorik ematen; hau da, ez du zehazten zein euskalkitakoa den hitza. Horrela jokatzear duen helburua ere garbi azaltzen du, euskaldunen hitz-altxorra aberastu, beren euskalkian hitzen bat falta zaienean besterik gabe erdarara jo ez dezaten. Guztiak euskal hitzak direnez, euskalki-bereizketarik gabe erabiltzen ohiu beharko lukete hiztunek; horrela, gainera, leku bateko eta beste euskaldunek elkar ulertzeko dituzten zailtasunak ere gaindituko lirateke.

Eguneroko hitz hauen artean maileguz ere ez die muzin egin, euskarak bere egin dituela uste baitu.

Bide honetatik osatu duen hitz-altxorra euskararena denik ez omen dute askok sinistuko, baina guztiak omen dira entzunak edo liburuetatik jasoak:

Los Bascongados al ver en el Diccionario una cantidad tan prodigiosa de su Lenguaje vulgar, unos preguntaran, si todas son voces del Bascuence? Y otros resueltamente diran, que no lo son, sino de mi fabrica, y invencion. A los que preguntaren con modestia, y sin passion, digo, que todas son Bascongadas, y que no pongo ninguna, que, o no aya leido en los libros impresos, u oido en alguno de los dialectos del Bascuence, apuntandolas todas de antemano con toda prolixidad, para que no se me olvidassen. Solas tres voces son de mi invencion, y de que estoy usando muchos años ha, y son *satumpu* por cañon de artillería, *godaria* por chocolate, y *sarrautsa* por polvo de taba-

co. Y luego dire la licencia, que unicamente me tomado. Y si se admiran la multitud de voces, que van puestas, admirense mas de oirme repetir, que no pongo todas las que ay; y que quedan escondidas, y derramadas en los países del Bascuence innumerables voces usuales, y corrientes [...] (XLVII)

Hitez hitz aldatu ditugun lerro horiek irakurri arren, zaila egiten zaigu beheraxeago ikusiko ditugun hainbat eta hainbat hitz eratorri berak asmatuak ez direnik sinestea. Egia da ordura arteko liburuen lexikoa hustua izango bagenu ere. liburuetatik kanpoko hitzen altxorra jasotzeko inodurik ez dugula. Baina uola pentsatu orduko euskaldun xeheak *birpisatu*, *desbarautu* edo *egikidatu* esaten zuenik? Bestalde, orduko testuak ezagutzen ditugun neurrian, autore bakoitzaren hiztegirik izan gabe ere, aipatu berri ditugun hitzek edo *lokidakaiak*, *desbezerotu* etabarek ez dakarkigute autore haien oihartzunik. D'Urtek (1715) eta Pouvreauk (XVII. mendea) beren hiztegietan egiten duten bezala, Larramendiren hitz eratorri asko eta asko berak sortuak behar dute izan. Eta zalantzarik baldin bagenu, hasieran esandakoa osatuz, hona zer dioen orrialde batzuk aurrerago:

Lo que diran algunos, que es licencia, que me tomado en el Diccionario es, que en las voces Castellanas compuestas que empiezan con *des*, y *con* doy por correspondientes otras Bascongadas compuestas con la misma preposicion *des*, y con la posposicion, o terminacion *quida*, *quidea*, *quidatu*, que es novedad contra el uso. Pero la satisfaccion es pronta, y facil. El *des* de que el Castellano compone tantas voces, creo yo, que es del Bascuence, aunque no aya estado en uso con tanta extension, como en Castellano. Está corriente en todos los dialectos en las voces *desequin*, *desorduz*, *deslayan*, *desdicha*, *deshonra*, *desohorea*, que son Bascongadas. Siendo pues suyo el *des*, doy al Bascuence lo que es suyo, no porque no tenga modos de decirlo, sino para que tenga tambien este, y quede mas abundante. Y assi pongo *oitu*, *desoitu*, acostumar, desacostumar, *apaindu*, *desapaindu*, adornar, desadornar, *oniritzi*, *desoniritzi*, agradar, desagradar, *iraina*, *desiraina*, agravio, desagravio; *ito*, *desito*, ahogar, desahogar; *alaitu*, *desalaitu*, alentar, desalentar; *amodio*, *desamodioa*, amor, desamor; *ibilli*, *desibilli*, andar, desandar; *aguertu*, *desaguertu*, aparecer, desaparecer; *ontzatu*, *desontzatu*, aprobar, desaprobar; *errortu*, *deserrortu*, arraigar, desarraigar; *lotu*, *deslotu*, atar, desatar; *ongundea*, *desongundea*, avenencia, desavenencia; *lagundu*, *deslagundu*, ayudar, desayudar; *ezagutu*, *desezagutu*, conocer, desconocer; *bidea*, *desbidea*, camino, desecaminar; *ezcondu*, *desezcondu*, casar, descasar; *ustaquida*, *desustaquida*, confianza, desconfianza; y otras muchas voces. Y he hecho experiencia entre los meros Bascongados, que las entienden con la misma facilidad, que el *equin*, *desequin*.

En las voces correspondientes a las Castellanas compuestas de la preposicion *con*, me valgo de *quidatu*, para los verbos; *quida*, y *quidea* para los nombres: ni esto debe parecer nuevo, porque las voces *quidea quida* significan en Bascuence al que con otro concurre a alguna accion, y son iguales en tiempo, en calidad, o en alguna otra cosa; *ideac dira*, *quideac dira*, decimos de los que son iguales, de un tiempo, etc. De aqui decimos *aitaquidea*, *aituidea* al compadre, *amaquidea*, *amaidea* a la comadre. De aqui a los amigos *adisquideac*, porque igualmente se entienden, y mutuamente se comunican. Por esto tambien en el Nuevo Testamento se dice *servitzariquidea* al consero, siendo esto assi, y que son voces tan oportunas, se las restituyo al Bascuence, que las ha ido perdiendo por incuria, y poca inteligencia de los Naturales, y a poca republicación quedaron usuales, y corrientes (1.)

Bide hauek euskaraz jatorrak diren ala ez aztertzea beranduagoko utziaz, beste hainbatetan ere sortu zituela Larramendik hitz berriak esango genuke: *marrerdi* 'diámetro', *apaiz soñeco laburduna* 'abate', *ahere adar bacocho* 'rinoceronte', *sacra-*

mentarra 'sacramental', *sendagaiduna* 'curativo' edo *absolvigarriac* 'absolvederas, manga ancha en vn confessor' etabar luzea. Egia da euskarak hitz berriak sortzeko dituen atzizkiez (eta aurrizkiez) balliatu zela. Ordurarteko erabileran oinarriztu sortu zituen hitz berriak, eta, horrenbestez, euskararen sistemak dituen aukerak gauzatu baino ez zuen egin. Baina egia da halaber lexiko-sorkuntza beti norbanakoarena dela; norbaitek sortu eta proposatzen du hitz berria lexiko-sorkuntzarako bideak jarraituaz nabiz aldatuaz. Horrexogatik esan dezakegu hitz arruntetan ere hainbat eta hainbat hitzen sortzaile izan zela Larramendi.

b. Hitz teknikoak

Hitz arrunten ondoan hitz teknikoak, berezituak, ere sartu zituen Larramendik bere hiztegiari; berak zioen bezala, "voces que pertenecen a las Facultades, Artes, y Ciencias". Alor honetan ez zuen inguruan euskal hitzik aurkitzen, maila horretan ez bait zen euskara erabiltzen. Hitz tekniko horiek geureganatzeko, bestalde, ez du latinaren bidea onartzen; hau da, maileguetara jotzea. Aitzitik, grekeraren bidea eredu hartuz, euskal hitzetatik abiatuz eta lexiko-sorkuntzarako bideez balliatuz, bere hitz propioak sortzen jakin beharko luke euskarak Larramendiren iritziz. Eta horretan ahalegintzen da bera

Pues a este modo tiene el Bascuence modo de hacerse voces propias suyas para explicarse en las facultades, y Ciencias. Tiene voces simples oportunissimas, y abundantes de los objetos particularizados de las Ciencias, y Artes. Es propio caracter suyo formar voces compuestas de las simples, y tan usado, y corriente, que hasta los meros Bascongados, sin reflexion alguna las fabrican, y entienden a cada passo en las conversaciones, y lo puede observar qualquiera en las voces vulgares que pongo en el Diccionario, y son por la mayor parte compuestas. Ciencia se dice *jaquindea*, *jaquindea*, *jaquinera*, *jaquiera*, *jaquintasuna*. A Dios, a los Astros, al Cielo, al tiempo, llamamos *Jaincoa*. *Izarrae*, *Cerua*, *era*. Pues como el Griego compone de la voz *logia*, y otras los nombres de aquellas Ciencias *Theologia*, *Astrologia*, *Uranologia*, *Chronologia*, assi el Bascuence, siguiendo su costrumbre, y caracter forma del *jaquindea* contraido los nombres correspondientes *Jaincoquindea*, *Izarquindea*, *Ceruquindea*, *eraquindea*, y significan Ciencia de Dios, de los Astros, del Cielo, de los tiempos; y como se hacen despues los adjetivos *Theologos*, *astrologos* etc, assi el Bascuence *Jaincoquindea*, *Izarquiduna*, *Ceruquiduna*, *eraquiduna*, y tambien *Jaincoquandarra*, *Izarquindarra* etc. Lo que hago con estos nombres generales de las Ciencias, hago con sus objetos particulares, y lo mismo en las demas Ciencias, y Artes.

He aqui voces Bascongadas oportunas, para explicarse en las Artes, y Ciencias; son nuevas en quanto a su composicion, pero antiguas en quanto a sus raices, y sin recurrir fuera, halla el Bascuence en si mismo el caudal suficiente para todo. Son nuevas, como lo fueron las Griegas al principio, quando se inventaron; y como estas con el tiempo se hicieron antiguas, assi con el tiempo se haran antiguas las Bascongadas. Son nuevas, pero oportunas, y en que se da razon de su objeto, y significado, que es grandissima ventaja. Son nuevas, pero no *ad placitum*, ni a mi solo placer, y regalado gusto, sino naturalissimas al significado de las voces simples, de que se componen, cuya analisis esta descubriendo su oportunidad. Son nuevas, no para el Bascuence, sino para el Bascongado, que no ha querido, o no ha podido descubrir, ni registrar los tesoros que encierra su fecundissima Lengua. Y si a los Griegos, decia Ciceron, les es permitido, no solo al principio, sino tambien despues de siglos, el formar voces compuestas, quanto mas nos es permitido esto a nosotros, que empezamos agora a tratar destes objetos? Permitido es sin duda, y aun necessario, con tal, que en la composi-

ción de las voces se guarde la oportunidad que prescribía Platon, atendiendo al aire, y caracter del Bascuence, y a la significación oportuna de las voces simples (XLIX)

Hona zer dioen azkenik hitz tekniko hauek ulertzeko zailtasunari buruz:

Dirán, que essas voces no se entienden. Lo 1º no son voces del vulgo, sino facultativas, y basta que las entiendan los Professores de las Ciencias, y es tambien lo que sucede a las voces Griegas, y Latinas correspondientes. Lo 2º importa poco, que no se entiendan al principio, porque con el tiempo, y la repetición se entenderan facilmente. Lo 3º aun para el vulgo son mas perceptibles estas voces Bascongadas *Jaincoquindea, Izarquindea, Cernquindea, eraquindea*, que no las correspondientes *Theologia, Astrologia, Uranologia, Chronologia*, porque en estas nada les suena a Bascuence, y en aquellas, sí. Lo 4º, ninguno hai, que explicada vna vez las voz Bascongada, no se quede con ella, y con su significación (L).

Gure gaurko oharrak lehen ataleko hitzei dagozkie, azken urteotan ere hitz berriak etengabe sortzen aritu bait gara, erdal aurrizkiei ordain egokiak aurkitu nahian eta atzizkiek ematen dizkiguten aukerak gauzatzen, Larramendik 250 urte lehenago proposatu zuena eta gaur euskara estandarrek hartu duen bidea parekatu nahi ditugu batipat.

Larramendiren hitz eratorrien eraketa hobeto ulertzeko, bere gramatikan (1729: 264-268) "Formacion de los nombres substantivos y adjetivos" puntuan dioena kontutan izan behar da:

1. Aditzondoak sortzeko izena + *-ka* egitura aipatzen du lehenik.
2. *-tasun* eta *-keria*, izen nahiz izenondoari erantsirik izen abstraktuak sortzeko atzizki direla esanez. Izenen artean dena den [+gizakia] motakoak ageri dira adibideetan.
3. Aditz izenei dagokienez, egilea adierazten duten izenak sortzeko hiru bide, hiru atzizki, bereizten ditu: *-tzalle*, *-le* eta *-tari/-ari*, lehen aditzoinari, "infinitiboari" eransten zaiola erantsiaz.

El 1º es con la terminación *-tzalle*, añadido al infinitivo, sin la última letra, *eracastzalle*, *iracurtzalle*, *aditzalle*: el 2º con la terminación *-le*, *eracaste*, *iracurle*, *adile*: el 3 con la terminación *-taria*, o *-aria* *eracastaria*, *iracurtaria*, *aditaria*. Estos tres modos de formación son comunes a todos tres dialectos, aunque no como aplicada a todos los verbales; por que en un dialecto es mas frecuente el *-tzalle*; en otro el *-le*, especialmente en los refranes, v.g. *esale enzule*, el decidor debe ser oidor, esto es, donde las dan las toman, y en los verbales mas frecuentes *edule* bebedor, *jale* comedor, *emaledador*, etc. y en todos los dialectos es menos usado el *-taria*, *ibhartaria* andador, correo, *danzaria* danzador, *cantaria*, cantor, *pillotaria* jugador de pelota (266).

Batez ere erretrauetan eta azaltzen bada, badirudi partizipio 'zaharrei' dagokiela *-le*. Eta Azkueren (1923-25) bereizketa onartzekotan halaxe da, *-i* eta *-n* bukaeradunak baitira zaharrenak. Mailegu guztiek eta euskal aditz eratorriek, aldiz, *-tu* hartzen dute; hortik datorke *-tzalle* ugariago izatea (nahiz ez dagoen bat ere argi zein den euskalki hori). Azkenik, garbi geratzen da *-ari* dela gutxien azaltzen dena, baina arrazoia azaldu gabe uzten du: *-ari* izenei eransten zaien atzizkia da oro har; berak aipatzen dituen adibideetan ere *dantza*, *kanta* eta *pillota* izenak dira. Bereizketa hauek dena den ez ditu gero hiztegian kontutan hartzen, bchin baino gehiagotan erdal egile izenaren ordaintzat hiru formak (*-tzalle*, *-le* eta *-ari*) ematen ditu eta.

4. Ofizio izenak sortzen dituzten erdal *-ero* eta *-or* atzizkien ordain euskal *-gile* eta *-gin* ematen ditu, *egin* aditzetik sortutako 'izen laburtuak' (nombres sincopados)

direla esanez: *onguille, gaizguille, bizarguille, osaguille, burniguille*. (otros dicen *errementari*), *gaztaguille, cillarguille, oguiquiña/loquiña, arriguiñatarguiña, sorguiña...*

5. Azkenik, nahasian aipatzen ditu *-kor* eta *-koi*. aditzoinari erantsirik joera, erraztasuna, zaletasuna, adierazteko:

v.g. de *ibili* andar *ibilcorra* andariego; de *iragan*, irago passar *iraganorra*, fácil de pasarse, o transitorio; de *eman*, o *eman* dar *emacorra* fácil, y dispuesto a darse; y también *ibilcói, iragancói, emacói*. Esta formación se estiende también a varios nombres, *barrencói*, intrínseco, interior, y retirado; *campocói*, extrínseco, superficial, y amigo de bulla (267-268)

Aditz-izenak sortzeko gainerako baliabideak Hiztegian azalduko dituela esanez ematen dio amaiera atal honi.

2. Hiztegiako hitz-eraketa

Ondoren, *Diccionario Trilingüe*-ko hitz eratorriei buruz zertzelada batzuk eman- go ditugu. Larramendiren hitz-eraketaren azterketa inondik inora agortuko ez badugu ere. Hiztegi erraldoiaren ondoan, Altunak (1967) argitaratu eman zuen Euskara-gazte- lera hiztegiaren zatia ere kontutan hartu dugu. Atal desberdinetan zehar, bestalde, kontrapuntu modura, gaurko bidea ere aipatuko dugu.

2.1. Izenondo erlazionalak

Hizkuntza erromantzeen ondoan, euskarak ez du izenondo erlazional delakoak sortzeko aukerarik, hau da, izenetik 'relativo/referente a' adierako izenondoa erator- tzeorik. Erdaraz izenondo erlazionala izenari lagunduaz aurkitu ohi dugu *trabajo manual* edo *comunidad autónoma* bezalako sintagmak osatuz. Halakorán, izen-elkar- ketara jo ohi dugu euskaraz, erdal izenondo erlazionalaren atzean dagoen izena be- rreskuratuaz; *esku-tan* eta *autonomi elkarte* esanez, beraz (ik. honetaz Ensunza 1989).

Izenondo erlazionaletik izen abstraktua eratoritzen denean sortzen dira arazoak: territorial [→] territorialidad edo corporal [→] corporalidad bezalakoetan, alegia. Or- duan izenondoa mailegatu beste biderik ez zaigu geratzen eta ondoren nahi bada eus- kal *-tasun* erantsi: *territorialtasun* (*territorialitate*) etab. Azken urteotan, dena den, beste bide bat ere urratu dugu: izenondoaren oinarri den izena euskaraz eman eta izen horri zuzenean *-tasun* erantsi. Horrela sortu ditugu *lurraldetasun* 'territoriali- dad', *naziotasun* 'nacionalidad' edo *kiroltasun* 'deportividad' (nahiz batzuk besteak baino hedatuagoak izan).

Zein da Larramendiren proposamena? Gure ustez berak sortuak diren *gorputzar- goa* 'corporalidad', *jaincotasun* 'divinidad' (gaurko bide bera) edo *dierritardea* 'na- cionalidad' (*dierritar* 'nacional'). Egia esan ez da erraza horrelako asko aurkitzea, alporrikakoa baita *deportividad* izenaren bila hastea (*manualidad* ere ez dator). Hale- re goiko bi adibideek joera garbia erakusten dute: Larramendik *-tar* (edo *-ko*) atziz- kiaz ordaindu zituen oro har izenondo erlazionalak:

megopcarra 'espiritual'
mundu(t)ar 'mundano'
lutar 'terrestre'
echeco 'casero'
amatarra, amarena 'materno'
legarra/legatarra/legarauco 'legal'

illodoldar 'menstrual'
infernu(t)ar 'infernál'
bioztar, biotzeo 'cordial'
aitarena, aitarra, aitatsua 'paterno'
anciarra, anciacoa 'genial'
arguidortarra 'ilustre'

Jokabide honek, noski, *-tar* atzikiaren hedadura handia ekarri zuen berekin, leku-izen propioei erantsirik jatorria adierazteaz gain, beste balio hau ere bere gain hartzean. Bestalde *-tar* atzizkiak lukeen balioa ere bereganatzen du *-tar*-ek *eleizarra* 'feligrés' bezalakoetan (ik. honetaz Azkue 1923-25 eta Villasante 1974). Dena den izen arruntak izanarren lekua adierazten duten neurrian, *infermutar* edo *lu(r)tar* askoz errazago irentsi ditugu; ez da hala gertatu *illodoldar*, *legar* edo *arguidortar* izenon-dokin.

2.2. Aurrizkiak

Beste puntu interesgarri bat, Larramendik erdal aurrizkici zein ordain eman zien aztertzea litzateke. Hemen ere gaia agortzeko nahirik gabe, zenbait puntu aipatu gura genituzke.

a. *Bir-*, *ber-* aurrizkiak sortutako aditz mordoska ematen digu Larramendik, liburuetatik jasotakoak baino berak proposatuak direla esango genukeenak: *birlotu*, *birreldu*, *birlautu*, *birpisatu*, *bircaldetu/bertitandu*, *birticuzi/bercarbitu*, *birbeatu*, *birtarguitu*, *bermachatu*...

b. Sarreran aitorzen duen bezala, erdal *con-* itzultzeko bi bide erabili zituen: *-kide* eta *-kidatu*, izenak sortzeko lehena, aditzak itzultzeko bigarrena; aditz-izenak, berriaz, *-kida* atzizkiak ematen ditu (hots, aditzetik izena zero atzizkiak sortzen duela esango genuke). Zenbait adibide aipatzeko:

eguiquidatu 'confeccionar'	eguiquida 'confección'
onzaquidatu 'confirmar'	ontzaquida 'confirmación'
ciaquidatu/gelaquidatu 'congelar'	ciaquida/gelaquida 'congelación'
ongabequidatu 'confiscar'	ongabequida 'confiscación'
hizquidatu 'confabular'	hizquida 'confabulación'
eramaquidatu/eroaquidatu 'conducir'	eramaquida/eroaquida 'conducción'
aitaquide 'compadre'	amaquide 'comadre'
erriquide 'conterraneo'	suertaquide/zortaquide 'consorte'
oaquide 'concubino'	cativuquide 'concautivo'
iritarquide 'conciudadano'	gorputzquide 'concorpóreo'
sorquide 'connatural'	aguerquide 'conspicuo'
egoquide 'constante'	neurquide/araquide 'constitutivo'
izuquide 'los consternados'	guiarraquide 'consuegro'

Lehen adibide-sorta dela-eta, aski da Amurizak (1974) aipatzen duena, *kidatu* ezer izatekotan 'kide bihurtu' izango litzatekeela (*bilkidatu* = *bilkide egin/bihurtu* etab.). Ez du balio beraz erdal *con-* ordezkatzeko eta baztertua geratu da. Bigarren adibide-multzoan, izena + *kide* [→] izena dugu batzutan ([+gizakia] motako izenak sortzen dira *kide* izenaz), usadiozko erabilera jatorriari erantzuten diona; beste batzutan, aditzoinarekin elkaturik, izenondoak sortzen ditu (*egoquide*, *aguerquide*...). zein izen-motarekin erabiliko liratekeen bat ere garbi ez dagoelarik. Tradiziorik gabeko bidea da azken hau (*ezkontide* ere [+gizakia] motako izena da-eta), aurrera egin ez duena.

c. *Des-* aurrizkiak sortutakoan ondoan

desalaitu 'desalentar', desarazotu 'desamotinarse', desgosartu 'desprivar', desontzatu 'desaprobar', desibili 'desandar', despresotu 'desaprisionar', desainguratu 'desanco-rar', desicasi 'desaprender', desodosqui 'desahijar', desaizatu/despuztu 'desventar', desmututu 'desennudecer', desarmatu 'desarmar'...

askotan *-getu/-gaitz* atzizkiez sortuak ematen ditu Hiztegian:

desbecerotu/beceeroguetu 'desaparru- quiarse'	desitocra/itoguea/itocaitza 'desahogo'
desito/itocaitz/itodesahogar'	deszacutotu/zacutoguetu 'desalforjar'
desamatu/onesguetu 'desanar'	alaiguea/desalaia 'desaliento'
ezurguetu/desezurtu 'desosar'	itsasquetu/desitsatsi 'despegar'
pozoiguetu/despozoitu 'desempozoñar'	igoalguetu/berdincaiztu/desambanatu 'descmpatar'
desloitua/loiguetua 'desembarrado'	arazoguetu/desarazotu 'desembarazar'
catezguetu/descateztu 'desencadenar'	deslotamutu/lotamuguetu/lotamucaiztu 'desabrochar'
trincaguetu/destrincatu 'desaprensar'	
ondarguetu/desaretu 'desarcnar'	desapaindu/apainguetu 'desataviar'

Beste batzutan *-getu, -caiztu* dira ordain bakarrak:

quecaiztu/quebaguetu 'desahumar'	ederguetu, edcrecaiztu 'desagraciar'
esqueguetu, esquecaiztu 'desagradecer'	etzaunguetu, etzacaitzu, egocaitzu 'desalojar'
arimagnetu, arimacaitzu, arimabaguetu 'desalmar'	sayesbaguetu/sayescaitzu 'descostillar'

Zer esan erabilera honetaz? Alde batetik *-ge*, gabezia adierazten duten izenondoan sortzailea ageri zaigu (*gabe/bage*-ren kide dena). Izenondo horiei *-tu* erantsiz lortzen da aditz kategoria. Oso bide egokia da hau oinarria izena eta adiera 'gabetu' denean, hala nola *loigetu* (*lohigabetu* esango genuke gaur; ik. Azkue 1923-25: 218) 'lohia kendu, lohi gabe utzi', *pozoigetu* 'pozoia kendu, pozoigabe bihurtu', *ezurgetu* 'hezurrak kendu, hezur gabe utzi', *ondargetu* 'ondarra kendu, ondar gabe utzi'... Oinarria izenondoa edo aditzoina bada, bide honck ez du balio; *trincagetu, igoalgetu, apaingetu* edo *itsasketu* ez dira, beraz, *-ga (-ge)* atzizkiaren eremuan sartzen (ez eta *gabe*-renean ere). Amurizaren (1974) proposamenean ere antzekoa gertatzen da inoiz behin, ez baitira oinarriaren kategoriak beti errespetatzen.

Zenbaitetan hirugarren aukera bat ere ematen zaigu: *gaitz + -tu* alegia. Atzizki honck (zenbaitentzat izenondo elkartuko bigarren osagaia da; ik. Villasante (1974), Azkarate (1990), Euskaltzaindia (1991) aditzoinari erantsirik 'zailtasun handia, ezintasuna' adierazten duten izenondoak sortzen ditu. Adieraren aldetik beraz, ez da egokia 'kontrakoa' nahiz 'gabezia' adieraz dezakeen *des-* itzultzeko. Oinarriari dagokionez, oster, *itokaitz* egokia litzateke ('ito ezin dena', 'itotzeko oso zaila' adieran, noski), baina *lotamukaitz* ezingo genuke onartu, nolatan ez dugun pentsatzen *lotamutu* aditzaren oina dagoela oinarrian; orduan 'lotamutu ezin dena, oso zaila' litzateke adiera. *gaitz*-en bidez sortutako izenondoari *-tu* eranstea, 'egocra horretako bihurtu', 'egocera horretara iritsi' edo antzeko adiera izango lukeen aditza sortuko genuke. Baina Larra mendik Euskara-gaztelera hiztegian (ik. Altuna 1967) *-caiztu* aditzari sarrera ematen dio 'privar, deponer' adieraz.

Horik aurrera *des-* aurrizkiak sortzen dituen izen eta izenondoak ere ezin esan egokiak direnik: *deslotsatillotsabaguea* 'desvergonzado', *deslotsaideslotsaera* 'desvergüenza' etab. esateko cuskarak izan ditu eta ditu bideak. Guzti horiek ez dira, ondorioz, ondorengo urte eta mendeetako euskaran jaso.

d. *In-* aurrizkiak osatutako hitz mordoak ageri da *Diccionario Trilingüe* delakoan. Erdaraz oso aurrizki emankorra denez, kategoria bateko baino geliagoko oinarriei

eransten zaiena, banan banan aztertuko dugu Larramendiren proposamena eta gaurko bidea.

Izenondoak

Erdaraz izenondo erlazionala denean *in-* aurritzkiaren oinarri, euskaraz izenondo erlazional horren azpian dagoen izena eta *gabe* erabil dezakegu (gaur komunzki egiten den bezala). Bide bera balia daiteke partizipio oinarriekin ere. Larramendik ere baditu halako batzuk

neurteza/neurribagueda 'imencoso'	bildurbagueda 'impávido'
parebagueda 'impar'	pacienciabagueda 'impaciente'
zoritubagueda/eldubagueda 'imaduro'	mugaribagueda 'ilimitado'
epaquiribagueda 'increunciso'	gogobagueda 'inapetente'

Beste askotan ordea *ce-* aurritzki modura (euskara-gaztelera hiztegitxoan ageri ez dena) edo *-ez* ageri dira

celegarra 'ilegal'	cecilleguia/sorieza 'ilícito'
cecaltetua/calteric bague 'ileso'	cegarbia/satsua/garbieza 'immundo'
modereztua/cemoderatu 'immoderado'	ceinldestia/modesteza/manaturqueza 'immodesto'
zorietza/eldueza 'imaduro'	oguciteza 'inarticulado'
cegueiruditu/gueirudibagueda 'inafectado'	cegarbia/garbieza 'impuro'

Goiko adibideen artean badaude *gabe*-ren bidez eman ezin daitezkeenak hala nola *impuro* edo *ilícito*. Hala ere Larramendik proposatutakoek ez dute balio ez batzuk eta ez besteak ordezkatzeko: *gabe* erabil daitekeenean, horixe baita aukera onena; bestelakoetan, *ce-* inon ageri ez den aurritzki da (Larramendik berak asmatua?) eta *eza* izenekin elkartzen da oro har (askotan partitibo-marka dutelarik), izena sortuaz: *dirurrik eza*, *gogorik eza*... 'ez izatea' adiera duelarik (ik. halere Villasante 1974). *Oguciteza* edo *zorietza*, *sorieza* izenondoak dira batetik (hor dugu Axulartean *doi ez* ere) eta oinarria ere izenondoa edo partizipioa da bestetik: 'zori ez dena', 'sori ez dena' adiera dutenez gaurko *ez-gramatikal*, *ez-propio* etabarren antzekoak lirateke. Berzitasuna *ez* atzizki gisa azaltzea litzateke.

Dena den euskarak ez du bide errazik *impuro*, *ilegal*... itzultzeko; *legaltasunik gabea*, *garbitasunik gabea* edo antzekoetara jotzen ez bada, mailegua bere hortan hartzea besterik ez zaigu geratzen. Ezin esan horratik Larramendik asmatu zuenik.

Aipatzea merzei duen beste puntu bat '*in-* + iznd[aditzoina+*ble*]iznd' egitura da. Erdal izenondo horiek (aurritzki eta atzizki daramatzatelako autore batek baino gehiagok 'parasintetiko' deituko lituzketenak) euskaraz 'aditzoina + *ezin/gaitz*' (*sinis gaitz/sinestezin* 'increíble' etab.) elkarreez ematea proposatzen du Amurizak. Hala egin ohi dugu izan ere. Ikus dezagun, ordea, nolako itzulpenak ematen dizkigun Larramendik:

eciezcorra 'indomable'	bereciezgarria 'indivisible'
iracuezgarria/iracurceciña 'ilegible'	imítezgarria 'inimitable'
adiezgarria/aditeciña 'ininteligible'	ucuezgarria/ucateciña 'innegable'
jayoezgarria/jayoeeciña 'innacible'	ugarezgarria/ugaroeeciña 'innavegable'
contaezgarria/contaeeciña 'innumerable'	emarneciña/emarnezegarria 'ingenerable'
landezgarria 'incultivable'	sendaeeciña/sendatezegarria 'incurable'

Eta askoz adibide gehiago eman genitzake, halako erdal izenondo asko sartzen

bailitu bere hiztegian. Garbi dago aditzoinari *-ez* sistematikoki erantsi diola, ondoren *-garri* ezarriaz (honetaz aurreraxeago arituko gara), bi atzizkiok eskatzen duten oinarriaren kategoria kontutan hartu gabe. Usadiozko erabilera gordetzen ez denez, Larramendik sortutakotzat hartu beharko ditugu, hauek ere baztertuak geratu direlarik.

Izenak

Era berean arazoak ditugu *ilegalidad*, *inmovilidad*, *indocilidad*..., hots, izena + *gabe* egituraz ordaindu ezin ditugun izenondotatik eratorritako erdal izenak esateko. Modu bakarra *legaltasun(ik) eza*, *mugikortasun(ik) eza*... lirateke; hau da, lehenik *movilidad* edo *legalidad* esan eta horri *eza* erantsi. Bide berak balio du *incultura*, *incoherencia* etab. esateko: *koherentzia eza*, *kultura eza* dirateke ordain egokiak (eta ez Amurizak proposatzen dituen *ez-tolerantzia* bezalakoak). Larramendik berriro ere ondorenik izan ez duten itzulpenak ematen ditu, berak sortuak behar dutenak

iracascoyeza 'indocilidad'	muguitezquizuna 'inmovilidad'
celegardea 'ilegalidad'	neurtezdea 'immensidad'
cemoldesia/moldesteza 'immodestia'	cegarbiera/garbieztasuna 'immundicia'
gogobaguea 'inapetencia'	biozgorrá/gogoezadea 'inclemencia'
ceguiqueta/ezeguiñera 'inacción'	moderezia/modereza/cemoderea 'inmoderación'

Ikus daitekeenez lehen ere aipatu ditugun *ce-* eta *-ez* ageri dira, oinarriaren kategoriak errespetatu gabe. Larramendik askotan erabiltzen duen *-de* ere hor dugu (Azkue, Villasante edo Lafitteren sailkapenetan ageri *ez* dena eta gaurko euskaldunoi ezezagun zaiguna) itxuraz izen abstraktuak sortuko lituzkeena. Kategoriak ez errespetatzea beste zenbaitetan ere gertatzen da; izena eta izenondoa sarrera berean aurki daitezke, esaterako

incomprehensibilidad, incomprehensible = <i>izquidezgarria</i> , <i>izquidezquizuna</i> , <i>izquideñia</i>	inaccessibilidad, inaccessible = <i>alderezgarria</i> , <i>urrezgarria</i>
indemne, indemnidad = <i>caltebaguea</i>	impenetrabilidad, impenetrable = <i>barnezgarria</i>

e. *Pre-* aurrizkia, *lethe m* aurrizki modura erabiliaz ordezkatzen du; edota parafrasisa joaz *lendanic* aditzondoaren bidez

<i>leinardatu</i> 'predefinir'	<i>lendanic ezagutu</i> 'preconocer'
<i>lebidacainu/lendanic biduaitu</i> 'preordinar'	<i>lendanic esan</i> 'predecir'
<i>lejaquindea/lendanic jaquindea</i> 'presciencia'	<i>legardatu</i> 'preservar'
<i>lequenegobitu</i> 'predeterminar'	<i>lendanic icusi</i> 'prever'
<i>lenizami/lenizatu</i> 'preexistir'	<i>lendanic icustea/lenicusquera</i> 'previsión'
<i>lendanic gogartatu</i> 'premeditar'	<i>lenzulatu</i> 'prelizar'

Gaurko biderik aurkitzen dugu *hitzaurre* 'prefacio'. Ordezko egokia izan zitekeen arren, baztertua geratu da hau ere.

f. *Sobre*, *super*, *supra*

Izenci, izenondo erlazionalei eta lehen biak aditzei ere erasten zaizkien aurrizkiak dira. Larramendigan *sobre* aurrizkidun hitzak dira gehien ageri direnak; beste biak apenas ageri diren. Oro har *gei* + aditzoina/aditz-izena 'gehiegi' adieran (inoiz *lar* ere erabiltzen du) eta *gain* + izena 'gainean' adieran dira ematen dituen ordainak.

Adiera 'oinariak adierazten duenaren gaina/gainekoa' denean, ohizkoa den bezala, izena + *gain(eko)* da Larramendiren aukera:

gueicarga 'sobrecarga'	gueipujanza 'sobrepujanza'
gueitugari 'sobreabundante'	gainsaria 'sobresueldo'
ganauzquia 'sobrefaz'	ganazurquia 'sobrehuesso'
gainciguillua 'sobresello'	gueiteraman 'sobrellevar'
gueitedan/larredan 'sobrebeber'	gueitalchatu 'sobrealzar'
gueiterre 'sobreasar'	ganizeribatu 'sobrescribir'
gainzolatatu 'sobresolar los zapatos'	gueitaguirri 'sobresalir'
gaintorri/guertatu 'sobrevenir'	gueibetea 'sobrelleno'
ganchuritu/ganchurizatu 'sobredorar'	soingaiña/gueigaiña 'sobretudo'
arropagaiña 'sobrecopa'	mesanagaiña 'sobremesana'
chompegaiña 'sobresuelo'	cartagaiña 'sobrecarta'
sobrepelliza/mechurigaiña 'sobrepelliz'	bernagaiñecoa 'sobrecaña'
oegaiña/oegaiñecoa 'sobrecama'	

Oro har Larramendi, onartu zuen baino sortzaileago izan zela ondoriozta dezakegu, bereziki erdal izenondo erlazionalen eta aurrizkien ordainak proposatzean. Sortze horretan, ezezagunak zaizkigun aurrizki edo atzizkiak (*ce. de*) erabiltzeaz gain, besteetan ere ez zuen oinarriaren kategoria edo atzizkiaren bidez sortzen zen hitz berriarena errespetatu. Emandakoez aparte, adibide ona izan daiteke beste hau: 'adversario sin enemistad' = *contraguillea, elcarrezá, alcarrezá, elcarbaguea, elcarzaquea*.

3. Zenbait atzizki

3.1. *-ari, -le, -zaile, -gile*

Bere gramatikari (1729) egiten duen azalpenari jarraiki, ez da harritzekoa hiru atzizkiok nahasian aurkitzea askotan aditzari erantsirik 'egilea' adierazteko. Beste batzutan bakarra aukeratzen du. Adibide batzuk bakarrik emateko

condenataria/eripetzallea/condenaria/ condenatzallea 'condenador'	sutumparia/sutumpatzallea 'acañoneador'
mercataria/tratalaria/salerostaria 'comerciante'	escribataria/izribatzallea 'escritor'
celataria/celatatzallea 'accechador'	maitatzallea/balacatzallea/palacaria 'acariador'
isilaracitzallea/isilerazotzallea/isilera- guillea 'acallador'	calcaria/calcatzallea/estutaria/estutzallea 'acalcador'
lantzataria/lantzanguillea/lantzatan emallea/ besarcaria/besarcatzallea/arraitzataria/ arraitzalea 'abrazador'	odiatzallea/odieguillea 'acanalador'
itsustaria/itsusquitzallea/ ezaindaira/narriatzallea 'afcador'	contraguillea/nastatzallea/nastaria/ nahascaria 'adulterador'
	lausengaria/loshencharia/lausengatzallea 'adulador'

Izenari erantzen zaizkion *-ari, -gile* eta aditzari erantzen zaizkion *-le, -zaile* atzizkien arteko bereizketarik ez dugu, beraz, askotan.

3.2. *-garri*

Azken urteotan adiera pasiboan indartzen ari garen atzizki hau (ik. Villasante 1974 eta Azkarate 1990) ere ugari ageri da Larramendiren hiztegian. Orduko testuetako joeraren aurka non balio aktiboa 'sortzen duena' bait zen nagusi, Larramendik

askotan erdal *-ble* ordezkatzeko erabiltzen du. Zenbaitetan ekialdeko autoreek erabiltzen duten *-kizun* ere ematen du ondoan.

eripegarri/condenagarri 'conjeturable'	salerosgarri 'comerciable'
gorrotagarri 'aborrecible'	faragarri 'risible'
betegarri 'ripio en el verso...'	barcagarri 'perdonable'
osagarri 'lo que falta para acabar'	urreragarri 'accesible'
beagarri/icusgarri 'espectable, digno de ser mirado'	acomodagarri 'acomodable'
autsigarri 'quebrantable'	manequizun/manegarri 'acomodable'
urruingarri/mezprezagarri 'despreciable'	ocartzagarri/utzendagarri 'corregible'
salgarri/salquizun 'vendible'	iracurquizun/iracurgarri 'legible'
endelegarria/isquidagarria/isquidaquizuna 'comprehensible'	ordaingarri 'compensable'
	aubengarria/aubengarria 'lamentable'

Ez da Larramendiren joera bakarrik; beste hiztegi gile batzuren joera ere aztertuko beharko genuke. D'Urtek (1715), esaterako, jokabide bera darama: betiko balio aktiboaren ondoan, balio pasiboko hainbat izenondo sortzen ditu aditzoinari *-garri* erantsiz (*bilgarri*, *berregingarri*, *berdingarri*, *erregarri*, *desgustagarri*... balio aktiboaren ondoan, *berezigarri*, *errekreagarri*, *erregelagarri*, *gomendagarri* edo *ezargarri* aurkituko ditugu *-ble* atzizkiaren baliokide direnak).

3.3. Aditz-izenak

Larramendiren hiztegi ko beste berezitasun bat, oraindik ere gaurkotasan osoa duena, aditz-izenen erabilera da. Izan ere, askotan nahastan ageri zaizkigu *-tze*, *-era*, *-dua*, *-pen*... Aspalditxotik datoren arazoa da beraz atzizki hauen arteko bereizketa.

besarcatzea/besarquera 'abrazo'	ertzatzea/ertzaera 'abordo'
erredura/errepena 'abrasarse'	beeratzapena/beeratzea 'abatimiento'
acabanta/bucaera 'acabamiento'	suertara/guertara/jaxoiera/acertara/suertapena/guertapena 'acacimimiento'
catealzea/cateadura 'encadenamiento'	erosqueta/erosgoa/erosquera 'compra'
eragozqueta/echiquidura/catibuera 'embarazo'	salgoa/saldura/salera 'venta'
goratzea/goititzea/goratzapena/alzaera 'elevación'	erauspena/jaispena/jauscunza 'descendimiento'

Halere badirudi Larramendik nominalizazio-mota desberdinak, ondorioa eta ekintza bederen, neurri batean bereizten dituela eta nahasteak 'ondorioa' adierazten sortzen direla batipat. Bi datu ditugu hala uste izateko: batetik berak egiten duelako bereizketa

absolvitzea/ascatzea/deslotzea 'verbales'	gogaiciora/gogaitzea 'verbal'
absolvicioa/ascatura/deslotura 'absolución'	gogaipena 'aburrimiento'
meetze/meatzte/meartzte 'verbales'	aurreratzea/aurratzea/aitzinatzea 'declinables'
meeçuná/meazcuná/mearçuna/zorrozcuna /chorroiscuna:meequera/meazquera/mearquera 'adelgazamiento'	aurrerapena/aurrápena/aitzinapena/aitzindápena 'adelantamiento'

'Verbal' horren atzean ekintza adiera dagoela esango genuke, eta ondoren datorena 'ondorioa' litzateke. Beste aldetik, askotan *-tze* da ematen digun forma bakarra eta badirudi 'ekintza' adierazten duela (euskaraz ohi duen bezala)

araguitze 'Encarnación'	careztatze 'encaladura'
hesterentzea 'enajenamiento'	gaiztagotzea 'empeoramiento'
ezeztatze 'abjuración'	aicezte/aiceztatze 'ventilación'

contrazartea 'objeción'
 erabazte/eracarte/biltlatze 'adquisición'
 'verbales'
 escuperatzea/meneratzea 'adjudicación'
 'verbales'

biltzea/batzea/hiribiltatzea 'agregación'
 'verbales'
 beguiranza/bere contuan ecartea/erabiltea
 /beguiratzea 'administración'
 'verbales'

4. Hitz elkartuak

Hitz elkartu ugari aurki dezakegu *Diccionario Trilingüe*-an eta euskara-gaztelera hiztegiñoan; hitz eratorri asko ez bezala, ongi eratuak daudenak. Egia da ez direla hitz eratorriak bezain ugariak. Agian Larramendi atal honetan ez zen hain sortzaile izan; entzun edo irakurri zituen hitz elkartuak bildu zituen. Edo agian hitz-elkarketa-ren sena indartsuagoa zuen. Nolanahi ere ez dago etenik ordurarteko erabilerarekin (ez eta gaurkoarekin ere):

gantzoncia 'mantoquera'
 auroyalac/seiñoyalac/pisoyalac 'mantillas de niños'
 idimia/oreinmia/bildosmia/chacur-mia 'lengua de...'
 coneju emea 'coneja'
 abere adar bacocho 'rinoceronte'
 maitacdaría 'bebedizo'
 lampa zaina/arguiontzi zaya 'lampero'
 ondasun biltzallea/diru-gordairuen eguilca 'acaudalador, el que acaudala'
 apaiz soñeco laburduna 'abate'
 araguilatura 'copula carnal'
 gudatoquia 'campo de batalla'
 guizaragui jalea 'antropófago'
 guizajarraya 'aura popular'
 guerrate-otsa 'asonada de guerra'
 egazti-asmariac 'augures'
 diruechea 'casa de moneda'
 dostirudia 'comedia'

gurisaltzallea/gantzaltzallea 'mantequero'
 ancoyala 'mantilla cubierta de las ancas de el caballo'
 partzorraci 'lendera, peine'
 cordoi colpe 'cordónazo'
 unchizacurra 'conejero, podenco'
 chori erlejale bat 'abejeruco'
 andre serora 'diconisa'
 urrijalea 'abstinente'
 oliencia/oliouencia/oliocharroa 'aceitera'
 curpilozaparua 'bocil, bocin, ruedo de estera'
 surrautsa/tabaco autsa 'tabaco en polvo'
 guirijarioa 'babeo'
 guizarudia 'amequin, manequí'
 guela-laguna 'ayuda de cámara'
 elurzuloa 'nevera'
 emaizipa 'cuñada del marido'
 diruakquia 'banco de dinero'
 cuisaltzallea 'calabacero'

5. Ondorioa

Ikusi ahal izan dugunez, gaur euskarak dituen hainbat zalantza eta arazo izan zituen Larramendik ere bere hiztegia eratzean. Eman zituen erantzunak, ordea, ez dira beti tradizioaren araberakoak izan, forma berriak sortzeaz gain, hizkuntzak lehendik zituen atzizkiak erabiltzean ere kategoria gramatikalaren aldetik hutsune nabariak daude. Ez da hala gertatzen dena den hitz elkartuetan; agian berak sortuak izango dira bat baino gehiago; baina oro har egokiak, ongi eratuak dira.

Bestalde, erdal hitzarentzat ordain bat baino ematea ohizkoa duela Larramendik ikusi dugu. Berak aipatzen zuen sarreran euskalki desberdinetakoak bilduko zituela. Baina berak sortutako ordainak diruditenean ere berdin jokatzeko du, forma bat baino gehiago proposatuaz. Hortxe sortzen dira gure ustez atzizkien arteko hainbat eta hainbat nahaste.

Bibliografia

- Altuna, P., 1967, «Larramendi`ren iztegi berria», *Euskera* XII, 139-300.
- Anuriza, X., 1974, «Euskal aurrizkiak», *Euskera* XIX, 9-104.
- Azkarate, M., 1990, «Euskal -guri vs. latinezko -bilis: bi balio desberdin» in *Patxi Altunari Omenaldia*. E. Perez Gaztefu eta P. Urkizu (arg.), Donostia, Mundaiz. Euskal Filologia Saila.
- Azkue, R. M., 1923-25, *Morfología Vasca* (1969, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca).
- Ensunza, M., 1989, «Erdal adjetibo erreferentzialetarako euskal ordainak» *Euskera* XXXIV, 577-596.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire basque* (1979, Donostia, Elkar).
- Larramendi, M., 1729, *El Imposible Vencido*, Salamanca (1979, Donostia, Hordago).
- , 1745: *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin* 2 lib. (faks. 1984, Donostia, Txertoa).
- Pouvreau, S., xvii. mendea, *Dictionnaire Basque Français*, eskuizkribua, Paris, Bibliothèque Nationale.
- Urie, P. d', 1715, *Dictionarium latino-cantabricum*, (= P. Urkizu, *Pierre d'Usteren hiztegia*, Donostia, Mundaiz, 1989).
- Villasante, L., 1974: *Palabras vascas compuestas y derivadas*, Oñate, editorial Franciscana Aránzazu.

Axular eta Larramendi

BLANKA URGELL
(Orotako Euskal Hiztegia)

Badirudi bagaudela Larramendiren jaiotzaren hirugarren mendeurren hau behar bezala ospatzeko paradan, bai azkeneko urte hauetan andoindar ospetsu honen eginen eta eraginaren aztertzeari itxura guztien arabera inoiz baino arreta gehiago eskaini zaiolako, baita zor zaiona bihurtzen hasi ere hasi hilde garelako, aldekotasun erabatekoa eta erabateko etsaigoak lehendabizi eta gero me/prezua, gizazientzien iraultzaren oihartzunak Euskal herri honetara iristen hastearekin garaile gertatu zena, behin gaindituez gero.

Edozein moduz, asko egin bada ere, gehiago da oraindik egiteko dena. Eta har bedi erakusgarri bezala oraingo honetan aurkeztea egokitu zaidana. Zeren hitzaldi honek "Axular eta Larramendi" izen handia bait darama, handia eta zabala.

Ez dut uste inork izen horren aurrean zer esanik ez dagoela uste dezakeenik, baina bai ordea, eta batek baino gehiagok, esan zitekeen guztia aspaldixe esan zela. Larramendiren idatziak ezagutzen dituenak, behintzat, badaki Axular goraki laudatu zuela hiztegiaren hitzaurreko liburu zerrendan eta Lapurdiko euskara ordezkatzeko haren zati bat aukeratu zuela *Corografía*-n, bai eta hiztegiaren haren hitzak jaso ahala jaso zituela, berak esan zuenaren arabera¹. Hiztegiaren eranskinean aurkitzen den Axularrengandiko ekarriaren handia bederen, Mitxelenak aztertu eta frogatutzat utzi zuen *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue* maisu lanean.

Bestalde, eta hau askoz gutxiago aipatzen delakoan nago, *Corografía*-n, Axular hizpide eta gidari hartuta euskal grafia-aren arazo zenbaitez aritzen da Larramendi, alegia, orain <k>, <z> eta <ts> idazten ditugun hotsez, eta baita <h>az eta oro har hasperenketaren grafiaz ere (ik. *Cor* 298).

Askotxo da, izan ere, orduko neurrien arabera, azpian zama gehiago ez eramateko. Honegatik baino ez bada, badirudi orain arte haino arreta gehiago eskaintzea ez dela alperrikakoa izango. Ez dut lan honetan gaia agortzeko inolako asmorik, ezta ahalbiderik ere. Aski nuke, ordea, galdera esanguratsu batzu ongi ezartzearekin eta horiei erantzuteko lehendabiziko xehetasunak ekartzearekin.

Nabarmena da, batetik, Larramendiren iturriak ia erabat aztertu gabe daudela; eta ez naiz bakarrik hiztegiko hitzez pentsatzen ari, baina baita bere gramatikako osagaiez, euskarari (eta oro har hizkuntzari) buruzko ideiez: aurrerago ikusiko dugunez (ik. bereziki 3. atala) berak ematen dizkigu izen batzu; oraindik ez dakigu, halaz ere,

(1) Hala zioen haren eranskinarean aurrean: "Le añadido también [RS-ko ez gainera] otras muchas voces que he oído en las conversaciones y notado en los libros, especialmente en Axular, que he buuelto a repasar con cuidado". Ik. honetaz 3. atala.

nola eta noraino baliatu zen haietaz, ezta beharbada agerian jarri ez zituen beste zenbait ere.

Honetaz dena dela, Axular Hegoaldean aipatzen eta laudatzen duen lehenengoa izanik, dirudienez², geroko urte eta mendeetan horrek hemen izandako arrakastan zerikusiren bat izan dezakeela ematen du. Jakingarria litzateke ia bere ondorengoen eriden daitekeen bere Axularren alderako debozio sutsuaren arrastorik. Añibarro fidelaren *Geroko gero*-aren itzulpenaz at bederen. Baita oro har Iparraldeko literaturari eman zion garrantziarenik.

Honetarako jakintzat ematen ari gara, noski, XVIII. mendearen erdialdetik aurrera jaio ziren Hegoaldeko bi literatur euskalkien, gipuzkera eta bizkaieraren, lehendabiziko bultzatzailea Larramendi izan zela, eta hartan ihardun zutenak, neurri handiago edo txikiagoan, Larramendi eta Larramendik irakatsia zutela buruan, zuzenean edo besteren bitartez.

Zalantzarik ez dago zein garrantzitsua izan zen, eta den, eta daitekeen oraindik, lapurterazko tradizioaren, eta bereziki Axularren, itzala oraingo literatur hizkuntzaren eraketan. Gogoratzea baino ez dugu batuaren aietarik baten, Villasanteren "Literatur euskara laphurtarr klasikoaren gain eratu" (1952), Halaz ere, eta Ibarrez gero bederen (ik. *Gl.* 119, besteren artean), Ipar-Hego erlazioak ukatu bait ziren, aski zabaldua dago honetan ere batuaren sortzaileek Hegoaldeko literatur hizkuntzaren bidea zeharo eraberritu zutelako ustea. Eta uste hau gehienez egia biribila den neurri berean, gezurra da, edo gezur erdia, Iparraldeko literaturaren ezagutza eta erabiltzeari dagokionez, eta soilik historiaren ezezagutzaz eta ezezagutza honen ardurarezaz (hots, ikerketa falta deitu ohi dugunaz) azal daitekeena. Aitzitik, gure ustez, Larramendiren garaitik datorkigu Iparraldeko literaturari buruzko interesa, erreak (oraingoz behintzat) erdiezkutuez bada ere, eta alde horretatik gu, eta gure aitzoneko hurbilak, ez gara tradizio luze baten oinordeko, hartzaile eta bermatzaile besterik.

1. Axular eta Larramendi: teoria standarra

1.1. Ingurugiroa

Inork ez luke egun eztabaidatuko Larramendi Hegoaldeko literatur euskalkien aita dela. Baina iritzia hau ez zen berez sortu; lehenagotik datorren ustea bada ere, orain ezagutzen eta jakintzat ematen dugun eran gerra aurrean finkatu zen, Ibarren *Genio y Lengua* liburuan. Meretziko luke liburu honek bere inguruaren azterketa sakon bat, norainoko iraultza suposatu zuen jakin dezagun. Nolanahi ere, argi aski agertzen zaigu begietara gerra ondoko belaunaldiaren, hots, gerra ondoren argitaratzen hasi zirenen pentsamoldea eratu zuela neurri handi eta oraindik neurtu gabe batean.

Mende honen hasieratik eta 1960 ingurura arte bederen, batzuentzat aurreko euskal literatura guztia, liburu zaharrak direlakoak, bereizketa, era eta taju gabeko multzoa zen, ezertarako on ez zena, han hemen aurki zitezkeen pitxi batzu eta hor nonbait gorde zitezkeen ale batzu gora behera. Ez dira falta, noski, honen frogabideak. Aipatu den lehendabizikoetakoa, Orkaiztegiren *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaro* (Tolosa, 1906) delako liburuan dator; Villasanteren hitzetan (1967: 29):

(2) Berak "el célebre Axular" deitzen du (*DT* xxxv eta *Cor* 297), baita "anda en manos de muchos" (*DT* aip. lek.); alabaina, ez dakit noraino heda daitekeen hitz hauen esanahia. Bestalde, ez da ahaztu behar, ez sai bestu, Sarako Etxeberri honetan ere Larramendiren gogaike agertzen zaigula, eta *gogaike* hitza Lakarrak (1985a: 15, 6. oh.) erabili zentzuan berean erabiltzen dut, bien arteko erlazioen auziak (nondik norakoak batez ere, guri dagokigunez behintzat) duela sei urte bezain aztertugabe diraelako.

Jaun onek, bada, argi eta garbi esaten digu: idazle zaharrak denak direla txarrak eta oietatik ezin ikas ditekela deus onik. Zenbat eta zaharragoak, orduan eta txarragoak, gainera.

Julio de Urquijok berak zuzenean eraman behar izan zuen hauekariko baten eraso; horra hor Kirikiñok Urquijoren defentsari erantzundakoa³, Arzadun, *Exlp*. Duhalde eta Baratziarten liburuen izenburuak adibide emanik:

Zer deritoxozue? Or[r]jok kintenkeriak dirala esateagatik ez daut ez garbai-arrak neure biotz uu zulatuko. Nik, benetan diñot, orrelako idazterik (libururik) iñun aurtituko [sic] baneu, apurtu egingo neuke ta iñok ez leuke jakingo, lotsagarriak diralako (54).

Elvira Zipitria izan omen zen gerotxoago "denak sutara botatzea hobe" esan zuena (ap. Villasante 1967: 29, bekatariaren izenik eman gabe, ordea).

1941-1961 bitartean Euskaltzaindiko idazkari izan zen Nazario Oleagaz ere honako pasarte hau kontatzen du Villasantek:

Bein, Axular goraitpatzen genduela entzunez, auxe esan zigun: Zer ari zerate Axular goraitpatzen! Ara, omen danok idazten degu arek baiño askoz obeto. Zuk, eta nik, eta ark, eta danak... (ib. 29).

Villasantek ederki adierazi zuenez (*HLV* 80), idazle zaharregan aurkitzen zen erdaratiko hitz gehiegien eta joskera arrotzen etsai amorratu bait ziren jokutzen zuten horrela. Izan ere, aipatu Kirikiñorenean, hadirudi bere burua nolabait zuritzen duela, esaten duenean

Nik ez nehan esan, nik ez diñot, *Revista* orrek [*RIE*Vek] billatzen dituan antziñeko idazti *guztiak* kintenkeriak dirala (aip. lib. 52).

Halaz ere, argi zegoen begiekin ikusi nahi zuenarentzat, eta Urquijok behintzat argi aski ikusi zuen orduan, Kirikiñok eta bestek ez zutela zer gorde handirik aurkitzen aurreragoko literaturan. Kirikiñok ezin argiago azaltzen digu:

Nik ori egingo neuken arren, ulertzen dot askok zaletasuna eukiten dabela antziñeko gauzekana: jakin gura izaten dabela antziñekoak zelan bizi ziran, zelan idazten eben, zelako ekanduaik eukezan, zelako erredija ta izkilla ta jantziak erabili ebezan, eta abar. [...] Baiña Urkixo'tar Julik edo hera lako antziña-gauza zaleren batek ataraten badau autsartetik argitara gauza zatarren bat edo idazti kintenen bat, eta enparauok badiñogu zatara edo kintena dala, ez dauko zegaitik asarratu [...] (aip. lib. 54).

Hitzak hitz eta usteak uste, badakigu egin ere zerbait egin izan zutela ildo horretatik: 1925 inguruan, behintzat, Axular baten liburua berrargitaratzeko saio bat eragotzi omen zuten⁴, hain zuzen Iparraldean Bonaparteren hilarriaren ondoren Axularri egin

(3) *Edo geuk edo iñok ez arikuluskua hilduman*. Bilbo, 1984. Prestatzaileak Adolfo Arejita eta Xabier Peñera. Bildumak, bide batez, "Euskerearen akte" bigarren izenburu darana. Auzi hau Lakarra 1985a (38bis uh.)-n aurkitzen du aipatua, baita hona ekarri ez ditugun gatazkaren beste zenbait pasarte, Kirikiñoren nortasunaz, euskaltzale zen aldetik bederen, berri handiak ematen dizkigutenak.

(4) "Quien repasara la colección de *Argia* hacia los primeros meses de 1925 tropezaría con un "documento" notable a este propósito. Allí vería con qué modos tan expeditivos se hizo abortar un proyecto de reedición del *Gero*, "obra plagada de voces exóticas" (Ibar *GL* 44n). Dijudenez, 1925-4-19ko Zarfalde delako baten "Geruko-Gero", 1925-5-17ko Iparralde-ren "Geroko Gero. Ez da aski" eta 1925-6-14ko beronen "Axularren Izkerá" dira isilburen ispilu ik. Villasante 1974). Ezin izan dirugun arren ikusi, argi dago, ezinezko bano ez bada, bakoniza zein eta zer den.

zaion lehendabiziko omenaldia bide dena antolatuta zeneko urtean⁵, *Gure Herria*-k ale oso bat eskaini ziolarik, Barbier, Oxobi, Saint Pierre, J. Muxika eta A. Donostiaren lanak batuz, besteak beste⁶:

Halaz ere, ez da harrizkoa, baldin eta kontutan hartzen badugu askoren buru egin zuenak, Sabino Arana Goirik, ez zuela literatura fidelki gorde behar ziren euskal zeren artean kokatu; gaingiroki, aurreko literatura soilik xede trinko eta begiak puntu bakar batean jarrita erabili zuela esan daiteke eta, hortaz, soilik bizkaitarrak eta gramatikari edota sasiagramatikariak ikutu zituen, Lafittek aitortzen duenez:

Bizkaitarrak lotuko zale eta Bizkaitarrak izanen dira haren erreferentziak, hala nola Astarloa, Zabala, Kapanaga, Mogel, Añibarro, Fray Bartolome, Elgezabal⁷ edo Uriarte. Ez ditu iduriz irakurri gure klasikoak, ez Etxepare, ez Leizarraga, ez Axular. Aipu ditu halere Bonaparte, Van Eys, Inchauspe eta... Léwy d'Abartigue (in AG OC v).

Nolanahi ere, ez dugu inondik inora uste izan behar sasijakintsu edota kulturgabekoen jarrera zenik bakarrik. Zaharregian gauza onak ikusten zekitenak ere ba omen ziren liburu zaharren eraginaren beldur: nolabait esateko, filologia, "antziñagauza zaletasuna", eta literatura ahalik gehien bereizi beharra ikusten zuten batzu⁸:

Pitxi eder askoren artean, erdel kutsua darioten joserak nabarmenak geicgi ageri dira Axular'en liburuetan [sic] eta beste idazle batzuenetan ere bai. Ori dala-ta, euskeraz ikasten edo dakitena zerbaiz lantzen eta orrazten ari diranei ez diet nik sekula Axular emango, aurretik oar hatzu egin gabe beintzat. On baño kalte geiago egingo lieke olakoei. Euskal ikasketan aurrera dabiltzanei ta euskeraz poliki idazten dutenei askoz errexago emango nieke Axular. Ona ta txarra ondo bereizten dakitenaik asko ikasi dezakete idazle oietan (Plazido Mujika, *Egan*, 1957, 133)⁹.

Garai beretsuan Orixe zenbakien bidez joseraren erdaltasuna neurtzen daukagu:

Mendiburu, Onengatik entzun ukan dugu "Kikeron euskalduna" esaten, baiñan aburu ori aldarazi bearrean gaude orrela uste duteneri. Luis Eleizalde zanari esker, Mendibururi gora aundia ematen ikasi genuen eta, uste genezaken, oraindik, erderakeriak ukan arren, ez zala Axular bezain erdalzale edo erdaldun. Pitagorasek beste aldera

(5) Cf. V. Galbete Guereñdian, *FLA* 1974, 18, 14. uh.

(6) Aurreko urteak ere oso mugituak eta emankorrak izan ziren Axularri dagokionez: 1921ean zati aukeratuak argitaratu ziren (*GH*-an; 1922an Altadillen "Dos escritores euskaros memorables [Axular eta Oihenart]" (*BCMN* 233-234); 1923tik aurrera, Añibarroren itzulpena *RHEV*-en; 1924ean Larrekoren "Axular euske" idazle geiena" (*GH* 448-449) eta 1925ean bertan Azkueren "Noticias acerca de Axular" ("Curiosos documentos..." en barruan, *RHEV* 60-66). Ik. berri gehiagorako 5. atala.

(7) Sic? Ez dit uste Cosme Elgezabal, *Euzkadi*-n mende hasieran, eta erdaraz, politikari buruz lanen bai duena denik (cf. Bilbaoren *Bibliografía*): Juan Jose Iedo Bizentak Mogelen bigarren abizena ez ote?

(8) Beharbada pogoatu behar da, hau dela eta, Azkuek berak, mende hasiera baino lehenago liburu zahar bilduna baten antolatzailer eta prestatzailer izan zena, bertan Añibarroren *Eska liburua*, Mogelen *Peru Abarka* eta Ubbilosen dotrina gutxienez utereaz eta *Euskalzale* aldizkarian Arakistain, Barutia, J. B. Elissaburu, Gazteluzar, Iruñiaga, Izutueta, Kardaberan, Mendiburu, Mogel eta Uriarteren zati aukeratuak eskaini zituen, mende hasitu ezer gutxi argitaratu zuela dakidalarik, Zabularen alegiak izan ezik (*RHEV* 1907 eta 1909), hiztegiak, *Morfologia*-n eta bestelako lanetan, batzuetan monografikoetan (Mendibaruren *Otoitzgai-ek* (*Euskera* 1928, 124-183), Lardizabalen *Testamentuak* (ib. 1935, 134-143) berak baini ongi ezagutzen zituen idazle zaharren gauza interesgarriak aipatzera mugatu zen.

(9) Mitxelenaik egindako elkarrizketan, lurrek berak erantzungo zion Olabide zela eta hurrengo zenbaki batean: "Nik, berri, bestetan ikusten duti arakistak; Olabideren *Iun zar eta herria*-n ez ezik, arken urteotan egin diren beste zenbait sarotan ere bai. Emen ere ezta go bide galtzerik gauzen berri dakienarentzat, bai ordea auzi askori buruz... eta euskal gramatikaren punturik geienak auzi biurtuak ditugu gaurko eta emengo euskaldunok... zalanztan dagoenarentzat" (*Egan* 1959, 85. h.).

erakutsi digu, Kikeronen izen aundia Axular'i utzi bearra dauka Mendiburuk, apakago gelditzen baita (*Euskera* 1958, 19).

Garai ilun honen erditsuan atera zen, bada, Ibarren lana eta, nahi eta nahi ez ha-
ren eragina pairatuko.

1.2. *Iparralde vs. Hegoalde*

Carmelo de Echegarayk, Gorosabelen liburuaren argitalpenari ezarri zion erans-
kinean¹⁰ honela zioen:

[Se observa] entre los escritores vascos hasta días muy recientes un fenómeno raro y digno de atención, y es que cada cual escribe con absoluta independencia de los demás, en el más perfecto aislamiento del espíritu (ap. Urkijo *RIEV* 1907, 54 hh).

Izan ere, Urquijok honela erantzuten zion Echegarayri:

No creo, por mi parte, que esta afirmación, muy cierta, sin duda alguna, si se refiere a los escritores guipuzcoanos que existieron con anterioridad a la publicación del *Cancionero Vasco* del Sr. Manterola, pueda hacerse extensiva a los autores labortanos del siglo xvii y principios del xviii (aip. lan. 55. or.).

Hau sendotzeko ematen zituen xehetasunak eta gehiago bildu izan dira harrez gero, lapurtera zaharreko idazleen batasuna frogatzeko (ik. Villasante *III.V* 68, esaterako). Halaber, gipuzkerazko idazleci dagokienez bagara gauza, ikerketa faltaz bere neurri guztian apika ez bagara ere, Etxegarairen ustea deuseztatzeko¹¹. Alabaina, badago hitz haien azpian oraindik agian garrantzitsuago, eta nolahi ere estaliago ibili ohi den zer bait, alegia Iparralde eta Hegoaldearen arteko lotura edo desloturaren auzia, oraintsu arte, eta salbuespenak salbuespen, desloturaren alde erabaki izan dena, Ibarren eraginez bereziki, hain zuzen idazle zaharrak zeutzan meziprezutik ateratzeko saiorik luze, mamitsu eta eragikorrenean.

Ibarren ustez, euskararen galera eta euskal literaturaren beherapena elkarrekin lotuta daude. Idazle eta irakurlegaien nahi eta beharrak ezberdinak ari dira gertatzen. Bere ustez, irakurtzen ez den idatzia alferrikakoa da eta, areago, euskara dagoen egoeran dagoela, kaltegarri. Fineziak utzi, esperimentuzko saiok utzi eta hizkuntza-
ren izpirituari, "genio"ari lotu beharrean dago idazlea, baldin irakurria izango bada. Horregatik, garai hartan ia edonon aurkitzen zen euskal idazle zaharrekiko mezipre-
zioari, neurrizko balorapen bat kontrajartzen dio, haien artean irakurriak, asko eta gustora irakurriak izan direnetan, akatsak akats, bila daitekeelakoan delako euskal "genio" hori, areago zenbat eta zaharrago orduan baino erdaldun gutxiago eta erdal-
dun ziren neurrian ere eskasago bait ziren; beraz, "genio" horren jabeago:

Podríamos citar por docenas las obras de nuestra tan desdeñada como ignorada litera-
tura, cuyo conocimiento y trato asiduo bastaría por sí solo para enfilar decididamente a un crecido número de escritores renacentistas por el camino verdadero del éxito. Por desgracia, se agotaron hace años y hoy apenas se las ve fuera de las estanterías de los bibliófilos, y son como si no existiesen. Aludiremos a unos pocos: el *Gero* de Axular con la versión vizcaína de Añibarro [...] (255, oh.)¹².

(10) *Apéndice a la obra Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa* (Tolosa 1901) 4. atala: "Literatura vasca: reseña sintética de los escritores guipuzcoanos que han sobresalido en el estudio del vascuence hasta 1876"

(11) Ik., besteren artean, Lakarra 1985b eta Sarasola 1986.

(12) Ohar beldi *RIEV*-en, batez ere, egin argitaratze saiok (Axularrena 1910etik aurrera, Añibarrorena 1923tik aurrera) albo bat ari dela uzten; arrazoia, nolahi ere, bere irakurlegoari begira dagoela izan daiteke: *RIEV*a irakurtzen zutenez atetikoa gehienbat.

...el secreto del atractivo que ejerce un Axular, del sabrosísimo placer que hace de su lectura un festín para el euskaldun, reside en *el genio auténticamente vasco de su lenguaje*. Nos presenta los objetos tal como gustan de verlos *nuestros ojos*. Y conforme vamos leyendo, nos hace pensar: ¡Qué vascamente está visto y sentido esto!... (32; azpimarrak bereak dira).

Por el contrario, una obra vasca que quisiéramos suponer prodigiosamente bella o artística —una filigrana— pero que careciese de la virtud de interesar al público euskaldun, resultaría perfectamente inútil para la vitalidad del euskera (42. or.).

Axularren eta besteren euskaltasun hari jatoritasunaren, eta literatura jasoaren, eta euskara garbiaren izenean egindako literatura kontrajartzen die, eta hauek galduan aterarazi, bada, baina, bide batez bezala, euskal literaturaren historiaren teoria orokor bat eraikitzen ari da bitartean, eta honetara gatoz hain zuzen.

Ibarrentzat, euskal literatura, Hegoaldekoa, zeharo uruti dabil irakurleengandik: astuna da irakurtzen, nekez ezagut daiteke euskara dela ere. Alabaina, hau ez da garaiko, behingo arazoa, betidanikakoa baino: Iparraldeko literaturak ez bezala, Hegoaldekoak jaiotzez daukan akatsa omen da, jatorrizko bekatua, Villasantek hitz ezin adierazkorragoetz dienez (HLV 144). Iritzi hau agertzen duen aipamen nagusia, gero aipatua, berraipatua, glosatua eta oinarritzat erabilia izango dena, honako hau da:

Del *Guero* de Axular (1643) y del *Diccionario Trilingüe* del P. Larramendi (1745) arrancaron, uno en pos de otro, y con cien años de intervalo, los dos movimientos literarios de las vertientes septentrional y meridional de nuestro Pirineo. Su influencia es todavía sensible; y lo más característico de las dos literaturas tomadas en conjunto es, aun hoy, la contrapuesta orientación que les marcaron sus respectivos iniciadores.

En aquellas dos obras puede decirse además que estaban virtualmente contenidos, como el fruto en el germen, los aciertos y equivocaciones básicos de la ulterior producción euskaldun (103. or.).

Lehendabizi hasi bait zen, hasi ere, Iparraldeko literatura, zitekeena zen Hegoaldekoak ere hangoen bultzadaz lanca hastera, Axularren norabidetik abiatzea; tamalez, ez zen hala gertatu. Ibarrek euskalki ezberdintasunari zein bi aldeen arteko ohizko harreman faltari egozten dizkien arrazoiengatik; mende oso batez aritu ziren hangoak hemen zerbait nabaritzen hasterako. Inoiz hobekien, nik uste, Villasanteren honako aipamen honetan adierazi da orduko Ipar/Hego aldeak:

Mientras estos consumados humanistas abrillantaban el "euskara" con sus elegantes producciones, en el lado español del país, el zumayano Baltasar de Echave, escribiendo en castellano, se esfuerza por demostrar que también en vasconce se puede escribir, y por todo argumento nos presenta, como una gran cosa, un Ave María (HLV 68).

Halakoa zen, eta ez dago zalantzarik, Iparraldekoen ustea ere orduan, Claveriaren izenean Ziburuko Etxeberriren *Eliçara erabiltzeko liburua*-ren aurrean azaldu bertsoak agerian jartzen digunez:

Burlatzen naiz Garibaiez,
 bai halaber Etchabez,
 zeñak mintzatu baitire
 erdaraz Eskaldunetz,
 Ezen zirenaz geroztik
 Eskaldunak hek biak,
 eskaraz behar zituzten
 egin here historiak.

Ez igarotzeaz, berandutzeaz gain, bide berri eta zeharo ezberdina hautatu omen zuen Hegoaldeko literaturak. Hiru puntu nagusitan dira ezberdin biak Ibarren ustez: 1) abiapuntuko bultzadaren eragilean, 2) lanaren zertarako edo xedean eta 3) horretarako jarri bideetan, hots, batez ere erabilitako hizkuntzan.

Hiru neurri hauen arabera, Axular adiskide euskaldunek bultzatuta abiatu zen, euskaldunentzat eta euskaraz; Larramendi, ordea, etsai erdaldunen jazarrei erantzuteko, erdaldunentzat batez ere, beraz, eta erdaraz. Bata euskarak kezkatuta zegoen, jakina, baina batez ere euskaldunen buru-janzterako mamia begira idazten zuen; bestea hitzen itxurak, ordea, hain zuzen erdaldunek antzeman zezaketen gauza bakarra. *DTa* erdara-euskara horregatik egin omen zuen, bere xedea arrotzak nahastea bait zen.

Noski, berak ongi frogatu zuen ez zuela hori aintzakotzat hartzen, cf. Mendibururi egindako gutuna, ezta Mendiburuk berak, ez Kardaberatzek, ezta geroagoko gehienek ere, denbora batez bederen. Alabaina, Axularrek euskara baliabidetzat hartzen zuen bitartean, mundu euskaldun batean, Larramendi euskara bera ari zen jartzen ikuspegian, are bere alderik azalezkoenean, eta erdaldunen begietan. Luze gabe, eta bestelako arrazoiez hizkuntzaren senaren galera azkartzarekin bat, erdaldunek zer pentsatuko gero eta begibistanago zegoelarik, Larramendik joku bezala asmatutako hitzak bakoitzean erabiliago izango ziren, baita jadanik erabiltzeko xedez asmatutako beste askorekin batera baina erdara ispiñu dela, iturri dela, erdal modura jokatu asmatutakoak direlarik. Halaber, Larramendi aritu zen bezala, alperrikako eztabaidetan murgiltzen jarraituko zuten gerokoek ere. Honen aldamenean Hegoaldeko literatura azkartu bazen, ez arian bezala izan zen, ez Larramendiren lanek horretarako biderik eman zutelako.

1.3. Axularren jokabidea

Ibarren ustez, Axularrek ez zuen ahaztu euskararen alde lanean ari zela, eta horren frogagarri honako pasarte hau dakar:

Haur da nik nahi nukeien gauzetarik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, bertze enseiu hobeaigo baton egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera. Zeren halatan ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez herri, nola munduak ustete baitu eta baitaduka dela (*Ax 19*).

baina, begi aurrean xede hobeaigo eta emankorrago bat zeukan: bere herrikideek bertatik atera zezaketen etekin eta irabazia. Eta nahiko zukeen baina espero ezin zezaketen neurrian lortu zuen, zeren eta berari esker:

1) zegozkion euskalki-aldekoak (Iapurtar, behenafar eta, bestela bada ere, zuberotarrak) irakurketan zaletu zituen.

2) handik aurrera etenduko ez den idazle katea diztiratsu bati hasiera eman zion; hauek, beren aldetik, irakurtzaletasuna areagotu egingo zuten eta betirako bertan sustaiak bota zitzen lortu. Bere adiskide idazle behenafar batek idatzi zionez:

Hemengo eskualdunek eskuaraz irakurtzen ohi dute hamazazpigarten mendearen erditsutarik hnat liburuetan (153).

3) Iparraldeko literaturak bereiztasun anitz ditu: mendeetako bizitza, liburu kopuru handia, gaien ugaritasun eta fiabartasuna eta estetika bakoitzean landuagoa; baina gainera Axularrek irakatsitako hiru arau mantendu ditu berekin, hots:

a) Irakurlegaien gehiengoari begira dago; beraz, eguneroko hizkuntza erabiltzen du; horrela ulertu behar omen da Axularren

Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil, deus eztakitenentzat ere (Ax 19).

b) Irakurleen mesederako idazten du, mamitsu den zerbait eskaintzeko; ez hizkuntza erakutsi edo berarekin jolasean aritzeko:

Baiña euskara eta euskararen minzatzeko eta eskribatzeko moldeak eta diferentziak utzirik, zeren hek azala eta lorea bezala baitira, har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko marnia; haur dasta ezazu, haur eskuza ezazu, irakurtzen duzula ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbutatzeko kontuan ere (Ax 20).

c) Euskaldunci egokitua, haien erara kontatua, haien hitz eta pentsamoldeen arabera eratu da idazten dena:

Eztut bethiere eskritura saildua eta doktoren erranak ere hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira (Ax 19).

2. Axularri buruzko teoriaren eztabaidarako gaiak

Ez dut berriz ere Ibarren teoria Larramendiren aldetik eztabaidatzeko asmorik, azken urte hauetan, batez ere Lakarra, Mixelena eta Sarasolaren lanetan, alde horretatik egin diren aurrerapen handiak, hurren egin daitezkeen ikerlanen ikus eta abiapuntua zeharo bestelakoa izan dadin¹³ aski direlako ustean. Aitzitik, gerra ondoko euskal literaturaren historigintzan beste hori bezain eraginduna izan den arren, oraindik, dakidalarik, ikulu ez den Ibarren hipotesiaren Axularri buruzko alderdiaz arituko naiz, haren ahuleziak ere erakusteko asmoz.

Bada, nik uste, zer zalantzatan jarri bertan, eta hiru aldetatik behintzat: 1) Axularri eta, haren eraginez, Iparraldeko literaturari egozten zaizkion ezaugarriak benetakoak diren ala ez frogagabe dago (honetaz batez ere atal honen hurrengo pudentan arituko gara). 2) halaber, Larramendi eta bere ondokoengan ere aurki daitezkeela uste dugu; beraz, beren bereizgarritasuna kolokan geratzen da (ik, honetaz 3 eta 4. atalak); eta 3) Iparraldeko literaturaren hasiera indartsuak ez zuen bere ondotik Hegoaldekoarena ekarri; honek ez du inondik inora frogatzen, ordea, bien artean erlaziorik ez denik egon (ik, honetaz 3, 4 eta 5. atalak).

2.1. Sarako eskolaren sortzearen mitoa

Axular adiskide euskaldunek hartara jarri zutela argi baino argiago geratzen omen da bere liburuaren "Irakurtzailcari" atalcan, hain zuzen *Egun batez, konpainia on batean, euskaldunik balizen etzen lekhuari nengoela...* hasten den pasarte ospetsuan.

Ez da erraza irudi eder honen sareetan ez erortzea, ezta hexagesiaren tentaldiari uko egitea: bilkuraren partaideak orduko Donibane eta Sarako idazleen artean, hala nola hauen liburuen baimen eta laudorio-poemagileen artean bilatu dira; biltokia Donibaneko frantziskotarren komentuan (ik, Villasanteren edizioa Oñati 1976, 12, 4. oh. eta *HLV* 70) zein Sarako herrian (ik, Villasante *HLV* 68) ezarri ere da. Ez dakit orain

(13) Esaterako, egiteko dagoenetarik bat *H*-aren eragina neurtzea izan daiteke. Zeren eta Ibarren lehendabiziko errua Hegoaldeko literaturaren hasiera *DT* n (1745ean) kokatzea izan bait zen. Lakarra (1985a: 41 hh) frogatu bezala, batez ere, iruzuzturen dotzinen 1739 eta 1784ko arginalpenak erkatuz.

zein zein baino lehenago asmatu zen, baina aspalditxo bilkura eta Sarako Eskola deitua elkarren sustengatzaile bezala dira.

Alperrik da, beharbada, bilkuraren alde ekarri diren frogak balio ezberdinetakoak direla esatea, gehienak daitezkeenak baina frogaezinezkoak, bat ere ez ziur denik. Zeren ezin ederkiago adierazten bait du, besteak beste, oraingo literatur hizkuntzari eman nahi izan zaien batasun eta asmokidetasuna. Eta hau ez da berez txarra, egoera politiko zein, kasu honetan, linguistiko berriak bultzatzeko nolabaiteko mito zama bat (Sorketa mitoa deitu ohi dena) normala dela, eta are onuragarria, onartzen baldin badugu, behintzat.

Bestela gertatzen da, ordea, filologiaren eremuan sartzen garenean, hemen zehaztasun osoz jokatzea eskatzen bait zaigu. Sara inguruko literatur mugimendua Axularren liburua argitara baino lehenagotik ari zen mamitzen eta badirudi hein handian egoera ekonomiko lasai bati zor zaiola, gizon burujantzi talde handi hura batzeko eta haien ekoizpena argitaratzeko deretxa berekin ekarri bait zuen. Hauxe da, itxura guztien arabera, historiaren aldetik ikertu behar dena. Ezin daiteke inolaz ere onartu literatur lan bateko exordio arrunt batean —eta uler bedi “arrunt” holako aurkezpena topoi zen neurrian¹⁴— oinarria har dezan Sarako Eskola delakoaren teoriak bere burua sustengatzeko; are gutxiago, aurreiritzi bezala ikerketara bertara igaro dadila, *a priori* bezala.

“Eskola” hitza baino arrisksuagorik gutxi bide dago Literaturaren munduan. Ez dauka hakoitzak bere burutik ezarri nahi dizkion mugak baino eta sarriekin, mugarik ere ezarri gabe azaldu ohi da, benetazko frogetan errotuta ez dauden intuizioen ondorio bezala. Eta zalantzazko balioko kanpoko frogetan eta azalezko, soilik usnatutako, barnekoetan tinkatu bait da, “Sarako eskola” izen politik ez du batere baliorik, zertaz mintzatzen ari garen zehazten ez dugun bitartean: alegia, frogatzen ez badugu XVII. mendeko idazle horiek idazkera bereizi bat sortu zutela, ahozko hizkeratik bereizia, lehenagoko eta geroagoko idazleenetik bereizia eta bat dena, hots, taldeko guztien idatzietan ezaugarririk garrantzitsuenetan behintzat bat datorrena edo, nahi bada, bateratzen joaten dena.

2.2. Eguneroko hizkuntzaren mitoa

Axular eta oro har Sarako eskolaz, badirudi ez dela egundaino adostasunik egon bide herrikoi ala jasorik aukeratu ote zuten. Batzuren ustez, Axularrek herriko hizkera, zen bezala eta huts hutsean, erabili zuen, onerako (“benetazko euskara” Mogeletz gero herri kutsatugabeen aurki daitekeela uste dutenentzat) zein txanerako (erdararakadei begira daudenentzat); aipamenak ia *ad nauseam* luza daitezke, ziurrenik; horra hor erakusketa bat:

Eziz Axularrek bere antzarako euskara bat egin; eziz bere mintzala makhurtu, bihurtzekatu, eskarniatu eta eskazatu, erdararen aderetara edo erregeletara plegatu nahiz, bertze zenbaitek egin eta egiten duten bezala. Hark euskara euskaraz mintzatzen du eta eskiribatu: euskara garbia mintzatzen den tokietan, Zugarramurdin

(14) Cf. Curtius *Literatura europea y Edad Media Latina* 130. Beste zenbait gauzaren artean hauxe dio “Tópica del exordio” atalean: “A menudo se vincula la fórmula de modestia con la afirmación de que el autor sólo se atreve a coger la pluma porque un amigo, protector o superior se lo ha sugerido, pedido o mandado. [...] las historias de la literatura suelen considerar la afirmación como moneda corriente y sonante, pero por lo general no es sino un tópico”.

bere sor lekhuari¹⁵, eta Saran bere erretorian erraiten den bezala (Intxauspek, 1864ean paratu Axularren edizioaren "Aitzinsolhas"ean).

Unicamente Axular, el genio literario vasco, es capaz de utilizar su lengua con garbo, si bien su estilo se resiente de procedimientos populares, que son la muestra de habladas no cultivadas (Gorostiaga *Epica y lirica* 25, apud. Villasante *HLV* 80).

Bestek, ordea, zeharo alderantziz ikusi du auzia; cf., adibidez, Darricarrere (*RIEV* 1911, 29). Tartas dela eta:

On sait que l'auteur de ce livre a mis à contribution et le parler du Labourd et les dialectes de la Soule et de la Basse-Navarre et il convient d'ajouter que, cela faisant, il a suivi les enseignements de son inspirateur Me. Pierre de Axular, le savant auteur du *Guero Guero* (sans date) qui, bien avant lui, et à l'aide d'emprunts intelligemment faits aux différents dialectes, avait eu décidément la patriotique et pieuse pensée d'intéresser la majorité des Basques à la lecture de son éloquent *Traité de la Pénitence*.

Azalezko kontraktotasun hauek, ordea, Axularrek berak azaltzen ditu, baina, hitzaurrean dioenean:

Eztut liburuto haur letratu handientzat eguiten. Eta ez choil deus eztaquitentzat ere (19).

Zeren eta eman behar zituen kultur edukinak nahi bezain argi, zuzen eta euskaldunki emateko, derrigorrez herriko hizkeraz gorago jo beharra bait zuen. Eta bide ezberdinak zituen hautagai zeregin horretan: inguruko euskarara edo beste liburuetara joztea, asmatzea edota erdaratik mailebatzea.

Lakarrak (1985a: 22), Leizarraga eta Axularren adibide frango emanez¹⁶, ederki erakutsi zuen Axularrek ez ezik oro har Iparraldeko idazleek eguneroko hizkuntzatik aldegin beharra izan zutela, eta hiztegia da denetan argiena honi dagokionez, nolabaiteko mailan idatzi nahi bazuten. Hegoaklekoek zeregin honetan Larramendiren hiztegiaren laguntza ezinutzizkoa izan zuten bitartean, ordea, Iparraldean luzaro mementuko beharrei erantzuteko hitzberrigintza izan zen bide bakarra eta, neurtu gabe dagoen garrantziaz, liburuz liburuko tradizioa (ik. honetaz 2.3. atala).

Mailebuei dagokionez, ikerketa faltaz ezer gutxi esan bide daiteke, ezpada, guztiek erabiltzen zituztelarik, neurri ezberdinetan egiten zutela, eta itxura ezberdinetan. Hegi batean, beharbada, Pouvreau genuke; bestean Leizarraga:

Él es un hombre culto y dice las cosas al modo culto. Poco le importa a él echar mano de una palabra latina que el público euskaldun no conoce. "Ya la aprenderá", parece ser su punto de vista; pero él no sacrifica la exactitud de conceptos y la concisión de lenguaje a una popularización de este tipo, no diluye las ideas y conceptos en expresiones populares, no las vacía dentro de los moldes o categorías mentales del pueblo de escasa cultura (Villasante *HLV* 80).

Izan ere, Leizarragak, geroago Elkanoko Lizarragak gaztelaniarrekin egingo zuen bezala eta "como era habitual en los humanistas de su época" (Sarasola, *HSLV* 42), latina kultur hizkuntzatat erabiltzen zuen, horrek harez ere ematen zion jasotasunik

(15) Sic, Urdazubiren ordez. Berra *EEs*-ko gipuzkerazko argitalpenaren aurkezpenera igarotzen (ik. 1909, 115), nahiz eta gero honen egileak "Zugarramurdin ala Urdazer?" oharixean (ib. 133) kontua garbitu eta orain dik Urquijok "En Urdax, no en Zugarramurdi"n (ib. 166) zehetasun psuagorekin bermatu.

(16) Ik. Sarasola (1986: 206) ere. Etxeberri Zaburukoaren adibide zenbaitekin.

bere idatziari; Iztueta batenean, ordea, edo Pouvreurenean, hitz berriak dira jasota-sunaren erakusleak. Axular, eta berarekin beste idazle asko, erditsuan bide daude, ez bakarrik erabilera maiztasunean, baina baita mailebuen egokitzean ere:

Su vocabulario tiene una ingente cantidad de voces románicas, pero no introducidas por vía culta y conservadas con su grafía originaria al modo como lo hace Leizarraga, sino popularizadas, y por lo general se trata de voces usuales o asimiladas por el habla real (Villasante *ibid.*).

Hots, berak ez omen zuen mailebatzen, mailebatua erabiltzen baizik. Honck frogabeharra badirudi ere, egia da ez Leizarragak baina oraindik hain gora hegaldatu ez ziren beste askok baino joera gehiago agertzen duela mailebuak euskararen arauetara ekartzeko ("Eztu liburutto haur letratu handientzat eguiten"), nahiz eta euskarazko hitzetan, erizpide etimologikoengatik ("Eta ez choil deus eztaquitenentzat ere") esan ohi da, bestela jokatu (gogora *arintki*, *hitzkuntza*, *zorrotzta*, etab.); cf., adibidez, *OEI*-k s.v. *bedeinkazio* dioena:

En los primeros [parraldeko euskalkietan] está generalizado *benedikzione*, cuyo grupo consonántico se mantiene (salvo Materre, Axular, Etxeberri de Sara, Ute y Duhalde, además de ejs. sueltos en varios autores) hasta la 2ª mitad del s. XIX, representado por las grafías <er> (Leizarraga, Etxeberri de Ziburu, Mihura, Maister, etc.), <er> (la más frecuente desde Belapeyre), <ez> (*MarII*, Jaureche), <kz> (*JesBih*) y <kz> (Arbelbide).

Halaz ere, hiztegi arlotik ateratzen garen bezain laster, Axularrengan ere zenbait gauza bestela zirela ageri da:

El período a base de oración principal y subordinadas, procedimiento típicamente indoeuropeo, está plenamente logrado en Axular. Sin duda, Axular es el verdadero creador de la prosa vasea, aunque su labor había sido preparada ya por Leizarraga. Es innegable que esta prosa sigue los mismos cauces y derroteros que la prosa grecolatina y europea general. A la verdad, apenas es concebible que las cosas ocurrieran de otro modo (*ib.*).

2.3. Axularren lehentasuna

Zalantzarik ez badago ere Axular Sarako eskolaren gehiena dela, gogoratu beharra dago, eta ikertu beharra, ez zela lehena izan, batzuetan erraztasunez edo errazkeriaz horrela irakurtzen bada ere¹⁷, aitzitik, azkenetakoa izan zela kronologikoki eta horrek, halaber, ondorioak izan behar dituela haren lanean baldin eta Sarako eskolaren batasuna egiazkoa bada. Adibidez, Lakarrak (1985a: 22) eman Axularren hitz berrien edo berritzakoen artean gehienak benetan Axularrengan azaltzen dira lehendabizikoz (29tik 22tan):

aitsinatzaile, *beheratzapen*, *desogara(ko)*, *desohogarri*, *edergailu*, *emendailu*, *eragotzkarri*, *erremediakizun*, *ethorkor*, *ezoren*, *hilkizun*, *irakidura*, *iratzarpentasun*, *izendatuki*, *kontrapozoin*, *laboraritaun*, *luthertasun*, *malenkoniagarri*, *manatukortu* (eta *manaiukor* bera ere), *manukortu* (eta *manukor*), *minberadura*, *mugakide*.

(17) Cf., esate baterako, A. Irigarainen pasarte aukerako hau: "Eta au dudarik gabe Axularren *Guero* liburuari zor zaio geyenik bere yarrazaleak izan zirelako Pouvreau, Materre, Oiherrart, Harizmendi, Tamas, Darribillaga, Gasteluzar" (*Egan* 1953, 3).

halaz ere, bada haien artean lehenagoko idazleengan aurki daitekeen taldeño bat¹⁸; *arartekotasun* (Mat 186), *bekai-zkoa* (EZ Eliç 159), *abantailatuki* (Mat 95, Harb 39), *abenikoa* (Mat 115, Harb 137), *e-theustasun* (*ezte*- EZ Man II 166, Harb 59, nahiz Axular den *-th-* darabilen bakarra, hitzaren historia guztian, oker ez hanago)¹⁹.

Azterketa tipi honek berez ez du balio frogatzailerik, noski. Halaz ere, hiru ikerbide zabaltzen dizkigu: Materre, Eixeberri eta Haranburu, hain zuzen. Eta Materre ez da alferrik hiruretan aipatuena: Hasteko, Axularrek hitzaurrean

Batac esquiribateen du chehero, berteeac gehero. Batac chedea, berteeac gedea. Batac ichilie, berteeac igilie. Batac lachoa, berteeac lajoa. Batac choil, berteeac joil. Batac quecho, berteeac quejo. Batac chuchen, berteeac jügen (Ax 18)

diorenean. Vinsonek ohartu bezala (*Bibl* 11b), haren usadioaz ari da: "bertzea" Materre da. Halaber, aspaldi salatu zen (ik. Villasante, *BAP* VIII 1952, 264) badela bien hitzaurrean artean kidetasunen bat edo beste. Izan ere, Materrean pasarte hau:

Badaquit Euseal-herrian añhitz molde minçateen direla eta nori bere herrico Euscara çaicala hoberenic eta ederrenic: Eta handie gogoac -ca emaitan [sic] deraut ene esquiribateco molde haur etçayela guztiel ongui idurituco. Baiña nahi dut iaquin deçaten halacoec nec [sic] hitzçuntça hunetan daquidana Saran ikassia dudala eta hango Euscara ongui erabilteen badut ez naicela gaitz erraiteco eta ez arbuyatecoo, çeren ezpaitaquit nie hangoa baiçen, [...] Eta Saraco Euscara hunetçaz content eztenac ezquiriba beça bertice Euscara hobego batez eta hobequiago, ez naiz ni hargatic bekaiztuceo, eta ez imbidios içanen.

eranskin luzez, hitz aldaketaren batez era bestelako argudioz hornituta, aski ongi jarrai daiteke Axularrenean (17-19), hain ongi eze ez bait daiteke zalantzarik aurrean izan zuela baieztatzeko:

Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscaraço minçatee molde guztietara. Çeren añhitz molde eta differentçui minçateen baitira euseal herrian, [...] Baiña çeren comunçui, hala esquiribatça nola minçateca, nori berea iduriteen baitçaica hoberenic eta ederrenic: eta ene haur ezpaita çurea beçala: ez othoi hargatic arbuya eta ez gaitz erran. Hunetçaz content ezpaçara, eguiçu çuc çeure moldera eta çure herrian usateen eta seguitcen den beçala. Çeren ez naiz ni hargatic becaiztuceo eta ez muttururic gaitzez iarrico.

Hitzaurrean ez ezik, bestetan ere erabili bide zuen Axularrek bere aitzinekoa, garaian ohitura zen bezala; gonbaratu, adibidez, bi pasarteok:

Eta deiteen dira misericordiazcoac eta ez iusticiazcoac, çeren cembait behar ordu premiazcoaz bertçetan, debocinozcoac eta borondatezcoac baitira, eta ez obligacinozcoac edo borteçazcoac (Mat 22).

Çeren obra misericordiazcoac hargatic deiteen dira misericordiazcoac eta ez iusticiazcoac, çeren cembait behar ordu herstutan eta premiaçotan baiçen ezpaicara obligatu hequen eguitera (Ax 242).

Ziur naiz azterketa zehatzago batez gehiago aurkitu behar dela, hitzetan eta bestetan, eta cf. *gogoan deliberaturic* (Ax 188) bezalako esapidea, lehenago Materrek ere erabili zuena (Mat 30).

(18) Itazle bakoitzeko agerraldi bat bakarra eman dugu adibide modura, baina badaiteke gehiago egotea

(19) Behin, ordea, Leizarraga da aitzinlari bakarra: *nahastekamendu* Mc 13, 8, Act 21, 34 eta lac 3, 16.

3. Larramendi eta Iparralde

Larramendi ez zen izan "berritik hasi nahia", gorago beste zenbaiti eman diegun deituraren arabera, ezinbestean baino: bere literatur euskara eraiketa asmoaren habe nagusienetako bat aurreragoko literatura da, hala nola lehenagoko hiztegiak, Harriet eta Landucci, bere ustez txikiak edota eskasak izan arren, bere hiztegiaren osagarri bait dira. Eta aurreragoko literatura orduan, berak behin eta berriz gogoratzen digun bezala, euskalki bakarrekoa zen²⁰, "nafarrerazkoa", zeinetan soilik Beriainen dotrina ("una y otra [erdarazko eta euskarazkoa] bien sólidamente escritas" *DT* xxxv) sartzen bide den Iparraldeko idazleekin batera: gainerakoa hutsa zen, hizkuntzaz ezer irakasten ez zuena:

Fuera destes Libros, se han impreso varios Catechismos, así en Bizcaya, como en Guipuzcoa y Navarra; pero con poca atención a la pureza del Bascuence y a su ortografía (*DT* xxxv)²¹.

Nahikoa zabal eta ongi ezagutzen zuen, gainera: hiztegiako liburu zerrendan (xxxiv hh) Lavieuvilleren dotrina, Xurio, Etxeberri Ziburukoak, *Etxep*, Argainarats, Gazteluzar, Materre, Axular, Harriet eta Leizarraga aipatzen ditu²².

Corografía-k beharbada hobeto erakusten digu zeinen kontuz jarraitzen zuen Iparraldeko literatura, hiru liburu berri bait dakartza (*Cor* 295), hirurak *Diccionario Trilingüe*-a argitara baino beranduagokoak: 1748ko *Othoitze eta cantica espiritualac*, *Zuhero Herrico* batzu, "la *Introducción a la vida devota* de Sales", hots, 1749ko Haranederren *Philotea*, zalantzarik gabe, eta idazle beraren *Gudu izpirituala* (1750).

Aipatu ez eze ongi ezagutzen zituela ere frogatzen du han hemen egiten dituen iruskinez; cf., esaterako, *sarraski* hitzaz egin gogoeta sakonak, Leizarraga, Argainarats eta Gazteluzar lekukotzat erabiliaz (*DT* xxxviii), edota Haranederren gehiegizko gidoiez dioena (*Cor* 297). Ezagutza horretaz baliatu zen, bada, bideratu nahi zuen literatur euskarari sustrai emateko.

Literatur hizkuntzarentzat ezinbestekoa zen ortografia finkatzeko asmoa buruan zuela, lapurteraz aritzen den bakoitzean (ik, *DT* xxvii eta *Cor* 298) honetaz zerbait esateko aukera aurkitzen du. Ez zuen hala egin, edo ez gehiegi behintzat, gramatikaren "Pronunciación y ortographía del Bascuence" atalean (337 eta hh), inoiz edo behin "en Francia" edo "en los Bascongados de Francia" badio ere. Badirudi batez ere gero hasi zela hango idazleez jabetzen, edo haiektaz kezkatzen, eta baita bereaiekin Kardaberatzek dioen hura, hots,

Eusqueraren gauzaren batzuen gañean A. Larramendi bera ere eracusten dituen gauza ta erreglaren batzuez contentu ez oi da; ala beñ haño guciagotan berac esan dit (*EBO* 26)

konpontzen saiatzen.

Bestalde, jadanik Lakarrak azpimarratu bezala (1985a: 21. oh.), soberazko garrantzia eman izan zaio *DT*-an egon daitekeen asmatutakoari, ahozko hizkuntzatik²³

(20) Cf. "Para saber sus voces [probintzia guztietakoak] no hay recurso a los libros, sino a los pocos que he citado, y esos en un solo Dialecto" (*DT* lii).

(21) Bide batez, norbaitek inoiz *DT*-aren nurrin arakatzeari ekingo balio, espero dugun bezala, ez luke ahaztu behar, nik uste, aipu gabe utzi zituen dotrina xume hauetan ere ziurrenik zer hartu aurkituko zuela, Landucciarekin gertatu zitzaien bezala.

(22) Orri batzu beranduago (*DT* lii) Oihenart ere azaltzen da, baina hau soilik *Nahia* ren bitartez ezagutzen zuen, dirudienez, beste hizkuntza batez idatzitako liburuen artean agertzen bait da. Moret, Pava eta Etxa-bereen aldiz.

eta liburuetatik jasotakoaren kaltetan. Ikasia eta bere mendeko gizona zenez, Larra-mendirentzat liburuak ziren hizkuntza baten hitzak ezagutzeko lehendabiziko iturria, kulturazkoak eta jasoak biltzeko bide bakarra izateaz gain, jakina, eta gogora bedi gaztelaniazko *Diccionario de Autoridades* atera berria izan zela berearen gidaria. Gutxiegi zirelakoan, halaz ere ez zituen albo bat utzi, alderantziz, oharrez eta arretaz, berak esango zukeenez, jasotzen saiatu zen:

Añádase a esto, que he leído con toda reflexión los Libros Bascongados que llevo citados, apuntando con prolixidad todas las voces Bascongadas y sus significaciones, para ponerlos después en el Diccionario. Lo mismo he hecho con aquellos Libros que, aunque escritos en otra Lengua, hablan del Bascuence y traen muchas voces suyas, como Oyenarte, Moret, Poza, Echave y otros (*DT* liii).

Beraz, *DT*ko hitzaurrean egin zuen euskal literaturaren lehendabiziko deskribaketa hura, gonbarazioa zilegi bazait, *OEH*aren "Relación de textos despojados exhaustivamente" (xxxix) delakoaren itxurako zerbait da, besteak beste: hartutako lanaren zehaztasun eta orokortasun nahiaz ezin harroago azaltzen da Harrieten gramatikako hiztegia dela eta,

cuya[s] voces, con otras que le faltan de su Dialecto, se hallarán en mi Diccionario (*DT* xxxv).

Ez zen lanean debatide ari: literatur hizkuntzak euskararen hitz guztiak behar zituen bere, behar bezain aberatsa izan zedin eta, ildo horretatik, denetarikoa hitzak eta esamoldeak erabil daitezkeela uste eta aholkatzen zuen; honela dio "Del dialecto Navarro y Laboriano" atalean:

Y no digo nada de los nombres y verbos, porque estos deben hacerse comunes a todos los Dialectos, como lo procuro en el Diccionario (*DT* xxviii)²⁴.

Ez dut uste esan beharrik dagoenik, hain zuzen atal horretantxe aipatzeak haien hitzi, haien hiztegi aberastasunari ematen zion garrantzia salatzen duela.

Literatur hizkuntzarentzat hain garrantzitsu eta aberasgarri izan zitekeen erabaki honen sustraia, antzinean euskararenak ziren hitzak egun euskalkietan sakabanatuak agertzen direlako ustea da (ik. *DT* ix eta hur.):

Parece aun a muchos Bascongados que su Lengua es pobre; pero es porque no la saben, no sólo en toda su extensión, pero ni aun en la que tiene cada dialecto de su País; y esto prueba, no pobreza de la Lengua, sino pobreza de ingenio, curiosidad y aplicación (xii. or.)²⁵.

(23) Larra mendetik argi aski uzten du hiztegiaren gehiengo bertatik jasoa dela: liburuetara ia jo ezinean, haietan aurkitu gaia agortu ondoren, "se hizo preciso recurrir a todas las Provincias, y adquirirlas [hitzak] de viva voz. Las he andado todas con sobrada fatiga, aunque algunas con más celeridad de la que quisiera, preguntando y apuntando quantas voces oia" (*DT* li). Gehiago ere esaten du zeregin nekoso honen gainean eta bertara bidaltzen dugu oraindik zalantzarekin geldu daitezkeen irakurlea. Besteren artean, aipa dezagun Curo Barojak (ap. Lakarra ibid.) obartu *DT*-aren itasgaietara buruzko aberastasuna, hiztegiak berak azaltzen digula: orobat nekazaritza eta burdingintzan dagokiona: "En los puertos de mar me detenía a saber los nombres de los pescados, de las olas, tempestades, navegación, navios y sus partes sin número, sus movimientos, dirección y gobierno. En tiempo de la sementera y cosecha iba a las caserías a preguntar de tanto instrumento..." (*DT* liii).

(24) Cf., oraindik argiago, *Cor* 293: "¿No es mejor usar de las vascongadas de otro dialecto que no de las castellanas?"

(25) Ik. honeraz Lakarra (1985a: 25 hh), non Sarako Etxeberriek uste bera zuela erakusten den.

Nolanahi ere den, ezaguna da Iparraldeko idazleoen artean aski zabaldua zegoela jokamodu hori²⁶.

Soilik arduraczak azal dezake, bada, zergatik gaur egun ere, Axularren partea eranskinean izan ezik, gainerako iturriak jarraitu eta agortu gabe dauden. Horra hor han hemen batutako ohar solte zenbait:

1) Oharkabean edo, batzutan bai hiztegian bai eranskinean, bietan aurkitzen dira Axularren hitzak; adibidez, *harrendari* Lar s.v. "penetrador", Lar *Sup* s.v. "entremetido", "introducido, entremetido"; *destatu* Lar s.v. "assestar artillería", Lar *Sup* s.v. "disponer"; *deblauki* Lar s.v. "absolutamente", Lar *Sup* s.v. "franca y lisamente"; *despitatu* Lar s.v. "irritar, enojar", Lar *Sup* s.v. "abrasarse de ira"²⁷. Ez bide da herrikusi duen idazle bakarra; cf. *desoren* Lar eta Lar *Sup* s.v. "deshora"; eta honck arazo-txo bat sortzen du: Mitxelena (FDA 81) "en *Onsa* [...] *desoren* es palabra frecuente" dio, kontu guztiaz, ongi bait zekien Tartas ez zuela behin ere aipatu Larramendik; halaz ere, badirudi benetan bera dela, jakin dezakegun neurrian, hitz hau erabili duen bakarra.

2) Leizarragaren arrasto zenbait argiak dira *DT*-an zehar; cf., esaterako, Lar "hortaliza, *barazquia*, *barazbelarra*", agian Lç Lc 11, 42ko *baratze belhartik*; Lar "accubue, olivo silvestre, *basu-olibo*" Lç Rom 11, 17tik, ziurrenik, eta *harnadanik*, Lar "dentro, salir de" Lç Mc 8, 12 (ik. hirurak, begirada azkar batez lotutakoak, *OEH* IV- n); eta, argiago oraindik: Lar "(a) mejor, a peor, *emendiotan*, *desemendiotan*", inolako zalantzarik gabe Leizarragaren 1 Cor 11, 17ko pasartetik hartua: *Bada haur deklarutzen draucuet non ezpaitzaituztet laudatzen, ceren ezpaitzarete emendiotan biltzen, baina desemendiotan*. Ez da harritzekoa, nolanahi ere, kontutan izanik *DT*-aren hitzaurrean eskaintzen dion arreta berezia eta erakusten duen haren ezagutza (ik. xxxvi-xxxviii. or.). Halaz ere, ez da bakarra: ik. *OEH* s.v. *burrenko*, Larramendik Xuriorengandik erdietsi bide zuen hitza:

3) Behin bederen Iparraldeko tradizioa baztertera utzi zuen: jadanik Detxeparek zerabilen eta aipatu denetan irakur zezakeen *desiratu*-k bere hiztegian "despenar" (*des-iratu*) esan nahi du.

Hain "premiatzko" ez ziren zereginetan ere saiatu zen Larramendi "para que no falte a este Arte lo que comúnmente suele hallarse en otros" (*IV* 373), eta euskararen bertsogintza deskribatu eta erregelatua utzi zuen²⁸. Jakina denez, bi moeta daudela azaltzen du, bata musikaren araberakoa, oso zabaldua eta, antza denez, aski herrikoia; bestea neurriaren araberakoa, jasoagoa beraz, Etxeberriren *Noelak* eta *Mamula*-ren adibidez azaltzen eta, haietan oinarri harturik, oso xeheki deskribatzen duena.

(26) Cf. Leizarragaren "Houscalidoney": "lenguageaz den becombatean ahatic guchien gucien adi eracitari iamtegiu iñan paitzaitza, eta ez choil edoem leku iaquineco lengoage <lenh > bereciri"; zeintzu euskal dun zeukan gogoan eta zein aldetara makurtu zen bere euskara, lanaren bukaera ezarri "Çuberoco herian usangatan eztraden hitz bakoitz batzu hanga angora itzulkie" Lç 27r hiztegitxoak salatzen du; cf. orain honetaz utera berri den Schuchardten lanaren itzulpena (*ASU* xxxi: 1989, 1006 hh.). Gaztelazarrez Lafittek (ap. Villasanté 1952: 269) zera esaten du: "Laphurtarra zela ezin ukha. Haatik asko hitz baderabiliza Laphurdiz bertze eskual herrietakoak". Cf. oraindik Tartas: "Une euscara eta lengajia ezlaquit aprobatia iñanen denez, bai ala ez; badu orotarie çerbait: Çuberoc, Bassanauarrec eta Lapurdie emun draueo çerbait, baina ez oro" (*Onsa* 6). Axularek berak ere euskalki ezberdinetako hitzen ezagutza erakusten du (ik. 17. or.).

(27) Azken honi buruz Mitxelena (FDA 53) Ax 282 eta 576 aipatzen zuen; hori da iturririk errazena, *Sup*-eraku bederen, Leizarraga (1 Cor 13, 5) eta Etxeberriengan ere (*Elic* 150) azaltzen den arren.

(28) Baina orduan aski premiatzko zirela Mikoletak eta Oihenartek erakusten digute.

4. Larramenditarrek eta Iparraldea

4.1. Irakurzaletasuna (I): Iparraldeko liburuak

Axularrek, Ibarren ustez, irakurzaletasuna piztu zuen Iparraldean: ezin dezakegu esan, jakina, Hegoaldean beste horrenbeste egin zuenik, baina ezta egin ez zuenik ere, batez ere Ibarren ondorengoengan eta honi esker neutri handian. Aurreragoko garaiez, kontu honetaz dakiguna ezer gutxi bada ere, ez da nolanañi meziprezatzekoa, gutxienez zenbait inguru eta girotan Iparraldeko literatura, eta Axular bereziki, onetsia eta irakurria izan zela baieztatzeko adina bait da.

Lehendabizi eta behin, Nafarroaren kasu aparta aipatu beharra dugu: jadanik Kar-daberatzek esan zuen²⁹:

Nafarroan len ta omñ, bertaco ta are gueiago Franciaco libruen socorruaz, nolerebait errazago beren izquera gorde izan da (Ch EBO 12).

Historiak frogabide eder bat eskaini digu XVIII. mendearen erdialde inguruan norbait-tek Axularren bigarren edizioaren aile batean egin zituen ulerpenezko oharrak gor-deaz (ik. Los Arcos Elío, *FLV* 1974, 39 hh)³⁰. Oharren egileak honako abisu hau ezarri zuen:

Nota. Se advierte al Lector, que las palabras ms. que se hallan en las márgenes de este Libro, no se han puesto por mejorar el insuperable bascuence de Axular en el dialecto Labortano, sino para más fácil inteligencia de los Navarros a cuyas manos llegase este precioso Libro (39).

Nolanahi ere, larramenditarren artean ez bide zen ahaztu maisuaren aholkua, alegia,

Anda [Axular] en manos de muchos, y debiera en las de todos los Bascongados (*DT* xxxv).

are gutxiago Larramendirentzat Axular ez ulertzea euskaldun txarra izatea bezalaxe zela ohartu gabe utzi:

Ponganse a escribir una carta en su Lengua, no aciertan: abran a Axular para leerlo, se atascan; leanlo, y les parece Griego. Y estos son los que quieren dar su voto en quanto al Arte y Diccionario del Bascuence, estos los que por el olfato solo quieren distinguir las voces Bascongadas (*DT* xlvii).

Dagoeneko badakigu (ik. Mitzelena, *SHLV* 692) Ubillosek Axularren, eta besteren, liburutik hitzak eta are pasarte osoak hartu zituela (ik. honetaz gehiago 4.4. atala). Garai beretsuan A. Francisco Antonio de Palacios (1727-1804) frantziskotarraren eskutara iritsiko zen gero Añibarrok bere itzulpena egiteko erabiliko zuen Axularren bigarren edizioaren aile (cf. Villasante, *HLV* 220); A. Palacios orduan Añibarro baino ezagunago zen, Mogelek egiten dion laudorio luze bezain sutsua lekuko (*CO* 292-294), eta ez dut uste gehiegi arriskatzea denik Larramendik aipatzen dituen

(29) Kardaberatzen honek Larramendirengan omen du iturri, leku batean baino gehiagotan irakurri dudenez, baina, halaz ere, ez dut pasarte aurkitzerik izan.

(30) Irlazi honen datuaz zehazzagorenak falak edo ezinak, dena dela, ez digu azaltzen, eta argia da garrantzitsua izatekeela, Larramendi aurtekoa ala ostekoa den.

...con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz que a su mucha virtud y observancia y al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua, y desmienten con su práctica las quejas mal fundadas de los vascongados holgazanes (*Cor* 291)

horien ikasle ona izan zela esatea³¹. Ikasle onaren ikasle hobeia oraindik Añibarro, Axularri dagokion neurri guztian, "euskaldun guztien eskuetara" izeko zitezkeen saiiorik neketsuena egin bait zuen, jakina denez, *Geroko gero*-a bizkaierara burutik buru itzuliaz, gainera xede trinko batekin:

Con este Arte, Diccionario y Axular tenía uno quanto necesita para hacerse un excelente bascongado (*GB* 14).

bere maisuak baino oraindik, ahal bazen, Axular euskal literaturaren goreneko mailan, klasikorik klasikoenarenean, jarriz. Itzulpenaren ondoriorik nabarmenena (eta tamalez bakarra, argitaratzera heldu ez bait zen) bere eskuko lanak, batez ere *Lora Sorta* eta *Misionari Euskalduna*, Axularren oihartzunez blai ikustea da (ik. honetaz 4.4. atala). Halaz ere, ez zen azalean, uler bedi hiztegi mailan, geratu:

De paso advierto que así Axular como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien se haga así, pues sale más natural. No tuve este método presente en dos libritos que di a luz, *Escudibrua* y *Loretegui espiritualu*. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel (*GB* 14).

Esan eta egin ere zuen, *Esku liburua*-ren bigarren edizioan (1821ekoan) ikus daitezkeen bezala (ik. honetaz Urgell 1986: 106-107).

Mogelek ere, azken urteetan bide bakartietan barrera abiatu bazen ere, badirudi astiro eta gogoz irakurri zuela Larramendiren liburu zerranda, Axularrenaren ostean hark egin laudoriorik sutsuenetakoaren merezitzailea (ik. *DT* xxxiv), Lavieuxvilleren dotrina, bizkaieraz jarri bait zuen, bi lagunek zereginak elkarri banatu izan bazioten bezala.

4.2. Irakurzaletasuna (II): Hegoaldeko liburuak

Larramendi ondoko idazle erlijioso gehienek, batez ere elizgizonen artzain zereginetz kezkatuta, haiei zuzendu zitzaizkien beren idatzietan, euskarazko langaiak izan zituzaten asmoz eta, beraz, oso irakurlego mugatuarentzat idatzi zuten; eta hau hala da baita Añibarroren gramatika eta hiztegia bezalako lan "teknikoetan" ere. Neurri handian, beraz, mamia, Fedea, zen haien xedea, eta ez euskara, eta hau hori zabaldu eta bermatzeko tresna baino ez zen, hala nola landare buruzko lan batean hizkuntza, eta irudiak ere, gehienbat landaren azalpenaren zerbitzuko dagoen. Horregatik harriztekoa da Ibarrek Hegoaldeko literaturaren ezaugarritzat hain zuzen kontrakoa ematea, areago ezaguna denean zenbaitzuren idatzietan, Kardaberatz eta J. K. Etxeberria kasurako, mamiak formaren gainean lehentasun ia osoa hartu zuela:

(31) Ik. Urgell "Esku-liburuaren grafi aldaketak" *AS/II* 1987, 363 eta "Añibarroren inguruan zertzelada batzu" in J. A. Lakarra (arg.) *Hiztegiak eta Testuak* Bilbo 1988, 149-151, or. xehetasun gehiagotarako. Larramendik *Corografía* 1754. urtean idatzi zuen (ik. Tellerrearen hitzaurrea, xxxi. or.) eta Palacios 1762. urtean iritsi zen Zarauzko komentura, aurreko garaia Arantzazun eginek.

Esan nai dedana da orain ifiori Fausqueraz eracustera ez noala, ezpada arimai nolerebait laguntzera, eta orice salbateco bearren diran gauzac ondo adirazotzera (Cb *Eg* I 29).

Eusquera garbi garbiant gucia ipiñi banizun, etcenduan guztia entendituco, ta ala ez nuen deseo buena logratuco. Utei bada zurqueria: Eta beguiratu sustanciari (Echve *Dev* 6).

Euskara eskoletara eramatea, bertan euskaraz irakurtzen eta idazten ikastea, non-bait egon bazen, ametselako munduan egon zen luzaro. Iturriagaren *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842) liburua, eskola elebidunean pentsatuz egina, albo bat utzita, lanik gehiena ixilean egin zen eta elizgizonek egin zuten, egin zuten heinean, argitaratu dotrina eta antzekoetan bitartez, eta alde honetatik begibistan dago haientzat idatzitako lan guztiek herriaren bitartekotzat hartzen zituztela, bai fedearen, bai euskararen aldetik. Bide honetatik egin zitekeenaz konturatua zen jadanik Kardaberatz, goian esana gorabehera, eta kontutan har bedi idazle honi suposatu behar zaion eragin handia:

Cura Jaun guciai ta Guraso onai Jaungoicoagatic erregutzea diet, gazte alperrai edo seme ta alabai iracurten icasierazo diezatela: eche bacoitecan libru on bat iracurten duela batec, guciac enzunaz, chit Dotrina asco icasi ta animen provechu esan al baño andiagoa ateraco dute (Cb *OC* I 52: *Christavaren hitza* 1760).

Escola Maisuac au contuz eraguiten balute, gucién buruetan ecer costa bague, laster ta ondo Oracio guztiaac sartuco liriteque: eta buruz daquiten ori ederqui iracurricco dute (*OC* II 266: *Meza eta Comuniou*).

Antzerako deklarazioak bere liburu gehiagoren atarian aurki daitezke; are gehiago, *Eusqueraren herri onac* liburua, besterik ez da, egilearen asmotan bederen, euskaldunak irakurketan zaitezkeo saio bat baizik. Irakurleagoren arazoa dirudien baino garrantzitsuagoa da, azken finean, Ibarren teortaren desegokitasuna agerian jartzeko; dagoeneko argi aski azaldu da larramenditarren hizkuntza gaiaren arabera aldatzen zela (ik. Lakarra 1985a: 29 hh.) eta, nolabait, gaia eta idazleak espero duen irakurle-goia erabat lotuta daudela esatea ez da hemen alferrikakoa izango.

Axularrek burjesentzat idatzi zuen (cf. Mitxelena, *SHV* 690); Kardaberatzek, ordea, hainbat lan herri xeheri zuzendu zizkion, hategi ere beharrezko ikusten zituen dotrinak (eta erakusgarriak onena bizkaierazkoa izan daiteke); horrexegatik ez die eskatzen, Axularrek bezala, ez gustatzekotan beste saiorik egiteko, ezpada *ez ikuratzeko*:

Iracurle onai: ez arren bereala, ascoren guisa, icaratu: Liburu bat idiqui orduco, guztia beren gustora ezpadago, ichi nay dute. Zue orrela izan bear ez dezu (Cb *OC* II 265).

Irakurtzaletasunaren hedaduraz den bezanbatean, honek ez du ezer frogatzen, noski, ezpada batzurenagan asmo onak egon zirela. Alabaina, ez dut uste Ibarrek XX. mendearen erdialdean ikusten zuen irakurleengandiko urruntasun haren arrastorik zegoenik aurreko bi mendeetan, hain zuzen irakurtzen ez jakiteari eta libururik erosteko dirurik ez izateari egotzi behar zaionaz at³²: orduko liburuaren argitalpen kopu-

(32) Oso garrantzitsua da ongi ulertzea noraino hedatu daitekeen orduko irakurlearen multzoa: R. Escarpit-ek XVI, XVII eta XVIII. mendeetaz diotenez, "...el precio del libro en Europa occidental se mantuvo así a un nivel accesible para la burguesía acomodada, pero no para las clases medias y menos aún para los trabajadores. Estos, si no eran totalmente analfabetos, podían satisfacer su necesidad de lectura con publicaciones de carácter más efímero, que les ofrecía el vendedor ambulante: gacetas, coplas o almanaces" (*La revolución del libro*, Madrid 1968, 22). Añibarreren *Lora*-n (147 hh.) Aita Palucosek, jadanik 1783an, liburu (cirkak idazteko emanen dituen arazoetan artean haxe dago: "Bigarmenac [bolsarie ez daberenac] estauquec cegaz erosi libru andia ta, ulan, ecin iracurri leic").

ruak lanbide horretan bakoitzak lortu zuen arrakastaren neurri eman diezaiguke; ikertu gabe dago, berebat, dakidalarik, haien ale kopurua³³ eta aldizkaricna. Bistan dago, halaz ere, edozeinentzat idazten ziren liburuek, dotrinak, otoitz-liburuak, deboziozko eskuliburuak, sailnduen bizitzak etabarrek behintzat, denbora laburtean argitalpen bat baino gehiago izan zutela; Arruieren *Santa Genovevaren vicitzu* ezin daiteke izendatu gabe utzi: Añibarroren *Esku-liburua*-k ere aipatzea merezi du, bigarren edizioaren hitzaurtean dioena aski adierazgarria delakoan:

Etzirean nonbaite bere alperrac izan ene celan alango lanac: bada arguitaratu orduco, beingoan, arrapaca leguez, saldu circañ liburu guztiaç; ta arrezkero bere bakeric emon gura izan ez denste, eske ta eske (*EL* 2 6)

Esan dezagun, bidenabar, bere liburua boderatzi aldiz argitara zela XIX. mendean eta markagarria da gehienak bizkaierazko liburu berrien kopurua gehien jeltsi zenean, hots, 1845etik aurrera, egin zirela, haietarik lau ia segituan (1845, 1852, 1854 eta 1866) atereaz. Horren arabera, ez dut uste orduan liburu eskaria eskaintza baino handiagoa zela esatea ausartegia denik.

4.3. Axularren hitzaurvearen oihartzun zenbait

Axularren esan guztietarik arrakasta gehien lortu bide duena Hegoaldeko idazleen artean, eta haien jokabidea gehien eratu, harako

Ez eta eztitut behiere escritura sailndua eta doctoren erranaç ere hitzez hitz euscarara bihurtcen. Ceren euscara eta bertec hitzuntçac different baitira (Ax 19).

bide da, XVIII eta XIX.eko idazleen artean ez da zaila antzeko hitzak ediretea; adibidez, Kardaberatzengan:

Eta orretaco Egercicio oieç emengo gure itzqueraric usatuenean ezarri; ta ez itzez itz edurazcoai lotuta; ezpada cerbaitean A. S. Ignacioren espiritu, fiñ edo deseoai albañterere jarraituaz (Cb Eg I 9).

Latin edo Gaztelanitic Eusquerara biurtu nai bada, ori ondo biurtceco edo traducio onaren legueac gorde bear dirai; eta ez itzac berac, ezpada oieç esan nai dutena edo orien sentidua ondo pisatu ta Eusqueraz nola ondo esango dan contuz consideratu ta ori escribitu bear da (*EBO* 58).

Mendibururengan:

Escruturaco ta dacarcien Santuen hitzac alic zucecna gure Euscarara ditut; baña ez beti hitzez hitz. Gañeraco gauzetan ez dut beguiratu, gauza adirazteco, dacarteien hitzetara, beguiratu dut hitzequin essan nai duenara; ta erraten dut hau, ten errana eza-

(33) Eta ez zen orangoa, inondik ere; Escarpitek honako haur beste ko kopuruak eruten ditu Mendebaleko Europan: "La tirada de los primeros incunables fue de unas cuantas centenas de ejemplares. La tirada media de los libros no pasó de 1.000 ejemplares hasta mediados del siglo XVI. En el siglo XVII oscilaba entre 2.000 y 3.000, y a ese nivel siguió hasta fines del siglo XVIII. Salvo excepciones, con la prensa de mano era difícil rebasar esas cifras [...] Inglaterra era en el siglo XVI el país más culto de Europa y en que la edición era más próspera. Y sin embargo, de los éxitos más famosos de librería —*Pancho* o *Joseph Andrews*— nunca se vendieron más que algunos miles de ejemplares", eta orandik oharrean: "[...] las ediciones de estos *best-sellers* nunca pasaron de los 4.000 ejemplares. La cifra habitual era de 500 ó 1.000. Se hacían de 3 a 5 ediciones en caso de éxito" (aip. lib. 22, or. eta 9. oh.). Egoera hau 1800-1820 inguruan aldatzen hasi zen, lehendabizi Ingoterran, gero Frantzia, eta 1848rako jularik Europa eta Ameriketan zabaldurik zegoen, aurreratpen teknikoek esker, tiradu handiagoa eta honi darraion prezio merkeagoa (ik. ib. 24 h.).

lego bezala ta euscaraz errateco zuzenenac dirala iduritu zaizquidan hitzequin (*JHDe*-varen hitzaurrean).

Ubillosek, bere aldetik, hitzokin irekitzen du bere liburuaren *Hitz aurea*:

Hizcunz bacoitzac ditu hitzeguiteco berezco ta bere echeco hitzac: gure eusquerac beinzat bai.

Zuzenena, Añibarrorena da, bereak egiten bait ditu *GGero*-n Axularren hitzak bere "Iracurleari" atalean, Axularri "kentzen" dizkion beste zenbaiten artean:

Libru onetan aintzen dirian Escritura Santa ta Doctoreen esanac, ez tira beti bere verbatie verbara eusquerara biurtu. iruli ta aldatu, cerren eusquerac eta beste verbaunizac euren esaeri ta verbaeguicune baanac [sic], bacartac ta berezcoac dituez (eskuizk. 4).

Bazuten, honetan ere. Larramendiren gida, eta bada ondoren aipatzera noan parrarteian, eta ziur nago bestetan ere baduela, bere ondokoenetan aurkitzen denaren zerbaít:

Debieran atender a la Sentencia, y estudiar y apurar bien el sentido de la Clausula Castellana, para ponerlo y hablarlo en Bascuence con menos, o con tantas, o con más voces que en Castellano, y así correspondiera puntualmente un sentido al otro. Apurado el sentido, unas veces se podrá poner con igual ayre en menos voces, otras veces en tantas y otra en fin en más que el Castellano (*DT* xl).

Bada beste bat, behintzat, zeinaren Tartasen alderantzizko erabilera dagoeneko ezaguna den³⁴:

Baldin eguin baliz euscaraz hanbat liburu nola eguin baita latinez, franceses edo berrece erdaraz eta hitzeunizaz, hec beçain aberats eta complitu içanen cen euscara ere, eta baldin hala ezpada, euscaldunec berec dute falta eta ez euscarac (*Ax* 19).

Larramendirengan hiru bider aurkitu dugu:

Si no se entiende, no es defecto de la Lengua, sino de su inaplicación y cortedad (*DT* xxvi)

Esto no es culpa de la Lengua, sino de los que no han querido hablar en ella (ib. xxxiv)

no es falta, ni pobreza del Bascuence, sino del Bascongado (*DT* xl).

Eta behin Kardaberatzengan, baina egingo nuke, dena den, honena Larramendirenei zor zaiela:

Alerc, asco egueiqui [sic?]. Eusquera galdu da. Baña ori ezta Euscararen, ezpada Euscaldunen desonra: bada oieç poliquitu, apañdu ta edertu bearrean. lotsaric gabe berac, beren naguitasunez itsustu, larrutu ta deseguin izan dute (*EBO* 10).

4.4. *Iparaldeko hitzak eta esamoldeak*

Iparaldeko literaturaren batasuna, besteak beste, aurrekoen eginen ezagutzaren gainean datza. Honen alderik agerrikoena, zahantzarik gabe, aurreko idazleen hitzen eta are inoiz esaldi osoen erabilera da.

(34) "Arenen eguin dut neure pieçu pobria, hango longagia ezpada asqui eiler, hanco euscarac du oguena, eta ez euscaldunac" (*Omsa* 6).

Axular dugu, ziurrenik, aipatu eta erabiliena; gogoratzea baino ez dugu Tartasen "Gomendioso letra" jadanik izenburutik bertatik aski adierazgarriaren harako³⁵:

Noren beldur izanen da? haren contre, nore çer erranen du? nore çer eguinen du? ibilico da buria gora euseal herri orotan, çuc solamente eguin badiçoçoqu so hanbat eta beguitarte hon, herri mundu guçician çure amorçeatte honqui gin izanen da (Tt *Onsa* 2, Axularren "Gomendiozko carta"ren pasarte ezberdinetarik ekarria: ik. 5 eta 10. or.).

edo Harrietan

...deliberatu dut obra çhume hunen arguitarat emateco, eta menturaz hau izanen da causa cembait berce hartuco baitu deliberatione obra hobeco baten eguitico, hargatic ni ez naiz bekhaiztucoc, aiteitico hori izanen da ene placera (Ht *Gram* 5, Axularren "Iracurtçailleari"ren pasarte ezberdinetarik: ik. 15 eta 19. or.).

Ez dira halaz ere liburuaren azalcan geratu, klasikoekin munduan zehar gertatzen omen den bezala; liburu barmeko pasarte batek ere arrakasta handia erdietsi zuen geroko mendeetan:

Eztela egundaino iauna baithan fidatu denic galdu eta ez bere beharrean, behar den bi-dean, hura behartu duenic, bere behar duena gabe guelditu (Ax 128).

Cf. Baratziari eta Duhalde:

Ez da egundaino haren baithan fidatu denic galdu; eta ez hura behartu duenic laguntça gabe guelditu (Brc 250).

Eztela egundaino aditu, zure geriza seindurat laster eguin duenic, zure laguntza galdetu duenic eta harentzat ararteco bafia çintecen eta othoitz eguin cenezan bihotz onez ta behar bezala errekeritu zaituonic nihor izan dela arbutatua ta bere esperantzan ta galdetan enganatua (Dh 88, *amplificatio* eginaz, bere obizko zabaltasunarekin).

Ezaguna da orduan inoren hitzak aipatu gabe erabiltzea ez zegoela gaitzetsia; derri-gorrez, bada, gure idazleengan ere orain arte lan hemen batu diren halakoak horretara zuzenean doan lan batek neurrigabeki ugariagotu beharko lituzke. Zeren eta ez bait dira soilik idazle nagusiak, Axular kasurako, honela erabili izan direnak. Baratziari adibide ona izan daiteke, esate baterako, zeren eta Axularrez gain, baita Xurio eta Larregiz ere, gutxienez, baliatu bait zen:

Çer ez guinducque behar eguin tresor preciatu hunen [Jainkoaren grazia saindua] maitequi eta arthosqui beguirateçcozat? (Lg I 351).

...eta tresor preciatu hunen [garbitasuna] arthosqui eta maitequi beguirateçco gracia (Brc 223).

Xurioren hurrengo pasartea, *salabmenduco* errata ongi zuzenduz eta *momentu me-mentu* aldatuz, hitzez hitz jaso zuen:

Orai dire salabmenduco egunac, orai dembora fagorezcoac, momentu guciac dire orai preciatu (Ch 72 > Brc 115).

Zalantzarik gabe, Haristeguyk, Donibaneko Erretor eta, besteak beste, Xurioren liburuaren baimengile, bazuen Gazteluzarren liburua eskura; gonbara hitez bere

(35) Ba ote zuen Tartasek Leizarraga ere ezagutu? Lq *Ins* G 2r *detestuzen eta abhorritzen*; Tt *Ar* 27 *abhorritzen eta detestuzen* kasualdualdea ote?

baimena eta horren liburuaren aitzinean azaldu biena, zeintzuekin bertasio faktizioa egin duen, ez dakigu alperkeriaz, euskaraz idazteko beldurrez ala bestela:

Iracurri dut attentione handi batequin liburu bat ceññac baitu tituluçat [...]; ceññetan esbaitut deuz causitu fedearen contra, bañan hai arima debot guciac berthutearen bidean aiteññatecco, eta nor nahiden debocionera erakhartecoço doctrina saindua: hartaracotz approbatione huni Donibaten Apirillaren 25.an 1720. eguñari fede emateçagatic eçarri dut hemen ere icena.

Irakurtu dut attentione handi batequin liburu bat, çoiñec baitu tituluçat [...]; çoiñetan ez solament ezut deus idiren fedearen contra. Bañan hai Arima devot gustiak verthutearen Bidean avantçatecco eta [...]. Hartaracotz [...]. Approbatione huni Pauen oxailaren 27 eguñari fede emaitia gatic eçarri diot hemen neure icena. 1686³⁶ (A. Basilio Orçaitzar Capuchina).

...eztiziñ idiren gauçaric gure fediaran contra, bañan hai Devocionera nehor erakharteco doctrina saindia (A. Jacobe d'Oyenard, Jesusen Compañiñacoa).

Ez dakit, bestalde, ezaguna den ala ez 1831eko *JesBih*-n aurreko liburu batzu aipatzen direla, Xurio, Mihura, Haranederren *Gudu* eta Duhalde, oker ez banago:

Kongregacioneac içanen ditu irakurtze izpirituaren eguiteco çembeit liburu bereac: hala nola Jesu-Christoren imitacionea, Ama Birjinaran imitacionea edo gudu izpirituala, meditacione handiac edo bertze çembeit deboçionezko liburu (427).

Honen aldamenean, hitz askok XVII. mendetik aurrera tradizioa sortu dutela aipatu beharra dago. Hau erakusteko, har ditzakegu gorago erabili ditugun Axularren hitzak, hain zuzen berak lehendabizikoz erabili zituenak:

beheratzapen (ES 93); *desgogara* (Ch 37), *desgogarako* (Hm 222, SP *Imit* 195 (baina *desgogarazco*), Ch 233, He *Gudu* 151, Dh 204, Dv LEEd 272); *desohogarri* (SP *Phil* 227 > He *Phil* 229); *edergailu* (SP *Imit* 81, ES 125, Ch 15); *emendailu* (SP *Phil* 417 (*emendagailu* 441), ES 89); *etorkor* (ES 399, Dv *Lab* 2); *ethestutasun* (Ch 169); *guinerakoek ez d-* erabili ohi dute); *hilkizun* (SP *Phil* 478); *kontrapozoin* (SP, Tt *Onsa* 34 *contrapozoa*, ib, 37 *contrapozoa*, ES 184); *manukortu* (ES 181); *minheradura* (SP *Phil* 194); *mugakide* (ES 186).

Dakusgunez, Pouvreau, Xurio eta Etxeberri Sarakoa dira fidelenak³⁷; hauetarik auseratenen batzu oraino beste hitz zenbaiten sustrai izan dira: *edergailuztatu* (ES 147), *hilkizuntasun* (SP *Imit* 63), *mugakidetetasun* (ES 137).

Haatik, oraindik interesgarriago da Hegoaldean ere honelakoan alerik aurki daitezkeela ikustea: *kontrapozoi* (Cb Eg II 177), *sabeldarrauotasun* (Añ *CatAN* 57), *sabeldarraio* (Lar *Cor* 184), *desgogora* [sic] Elkanoko Lizarraga (ik. LE-I'ag).

Honelakorik bazegoela jakina zen lehendik: Mitxelena erakutsi zuen Ubillosengan aurki zitezkeen lapurterazko hitz zenbait (*SHLV* 692): *narrtoa* edo *mancha* (170, *narrto* Etxeberri, Haranburu, Axular eta Harizmendigan azaltzen delarik), *on behar* (11, < Axular), *Afespicu* (147, <**Aph-*); hauei erantsi dakieke, gutxienez, *debeku* (189), gero Agirre (AA I 562) eta Lardizabalek (Lard 327) ere (baina beste inork ez

(36) Grafian eta bestetan ikus daitezkeen dotalmudazko kontu batzu ziarrenik aipatzen ari gareneko edizio berriaren lutsak dira: ez ditugu markatu testua [sic] ez ez belzteko.

(37) Duvoisin ere aipatu izan dugu zenbaitetan, hain zuzen ia bitartekorik gabe bereguna iritsi direnean; ez dago esan beharrik hauetako hitz batzuek berrin azaldu baino tradizio aberatsagutu izan dutela geroko idatziotan.

Hegoaldean XX. mendera arte) erabili zutena. Axulari egotzi behar zaiolakoan nago baita Ub 36ko *deshonetskeria* < Ax 415 *deshonetskeriaren* / Ax 178 *deshonetskeriarik*.

Zabalkunde gehiagokoez, adibide klasikoa *adin* bide da; hara hor *OEH*-k horretaz dioena (ik. Sarasola 1986: 204 ere):

Palabra usada normalmente en todo tipo de textos y épocas en los dialectos septentrionales y en Navarra. En la tradición guipuzcoana parece introducida por Larramendi, siendo su uso normal, entre escritores no populares, a partir de Ubillos, aunque galmte. aparece glosada.

xvii. mendeko lapurtar gehiagoren liburuetan azaltzen den arren (cf., adibidez, EZ *Noel* 82), Axularrean ikasi bide zuen Añibarrok *bihotz-min* hitza³⁸, oso sarri erabiltzen duena (adib.: Añ *ELI* 57, *CatAN* 49, *LoraS* 35, *NekeA* 248...)ate³⁹, eta beregandik geroago Iturzaetak (Itz *Azald* 139). Ez dakit oso ondo zerk azaldu dezaketen, bestalde, *desarrazoi* hitzaren historia: Axularrengan azaltzeaz gain (eta Pouvreau eta Haranederren *desarrazoizko* kenduta), soilik Lizarraga Elkanokoak (ik. LE-Fag eta LE-It) eta Gerrikok (I 436) darabilte, eta ez dago *DF*-n.

Badira, halere, pasarte luzeagoak; Ubillosen kasuan, Mitxelena (aip. lan.), Ub 156 = Ax 595 aipatu zuen; erantsi honi "Bi parte edo zatitan berezia ta erdiratua" (1), Axularren "bi partetan purritua eta berezia" (Ax 1) haren antz osokoa.

Horretaz at, ezaguna da Etxeberri Ziburukoaren *Man* I 12ko Aginduak bertsoetan, grafiazko aldaketa eta huts gutxi batzuekin jaso zituela bere liburuan (171), hala nola oraindik beste bertso bat "Franciaco guisan" (170); bigarren honen iturria, uste dut aipatu gabe dagoela. Lavieuvilleren dotrinak izan behar du, Larramendik aipatzen dituen bietatik txikiena, hain zuzen. Zeren eta handiak, eskura dudan bakarra (Villasanteren ed., Bilbo 1985), bestera egiten bait du erreferentzia Aginduak bata bestearen ondoren ikasteko ("lehenbico Catichiman beçala, pag. 51" *CatLav* 101), eta soilik banan banan. Agindu bakoitzaren azalpenarekin batera ematen, hitz lauz eta neurtuz, denetarik hirugarrena bertsoetan peitu duelarik⁴⁰.

Halaz ere, Etxeberrirena ez bezala, bertso hau nabarmenki gipuzkeratuta eman zuen: *etzuçu* beti *ez dezu* irakurtzen da (2, 5, 6, 8, 9 eta 10.ean), *eguiñen* > *eguingo* (2,6), *hilen* > *illco* (5), *eguiñen* > *eguingo* (6), *erranen* > *esango* (8), *iganen* > *ican-* (10), *-çaitecin* > *zaitocen-* (4), *-bercerena* > *bestereña-* (7)⁴¹.

(38) Judanik inoliz aipatu izan dugu *LoraS* 130ko *neurri, marra ta mugarik ez daben ontasunak*, baita bertan sartean behin isurtzen zaien *presona* (ib. 23, 65, 99); ziur naiz gehiago ere badirela bere idatzietan harrena.

(39) Larramendik oso sarrera xebebrean dakar, xebebrezia agian beregandik hartua izateko; "cordojo (antiquado), pena del corazón, *bihotzmina*"; ohar berriz Añibarrok berean s.v. "dolor, arrepentimiento" dakarrela, c. bezala, "h. *garbaia*"ren aldamenean.

(40) Eta ez da argitalpen berriaren hutsa, orijinalarena baizik.

(41) Huts bat ere behintzat bada: *doaber* < *halaber*, eta aldaketa txikiago *zenbait*: *likhitsuqi* > *liquisqui* (6), *guardatu* > *guardatu* (7). Bertso berriz *CatLav*: 6n (1833), judanik Mitxelenaen *SHV*: 692n, argitaratzaikaren oharrean, oharu zen bezala; judanik Segurolak (1985: 187, 20, oh.) adierazi zuen Larramendiren liburu *zerrendak* honetan, orain artean ikusi ditugun Ubillos eta Mogelengan legez, jokatu behar izan zuen bitarteko papera. Bukatzeko, esan dezadan *CatLav* baino lehenago *FPvBN* (1651, 6 hb) delakoa izango ote zen ibili nitzela. Bestearen alde makurtu behar izan nuen, diferentzia gutxi bezain nabarmen *zenbait* kontutan hartuz, adi izean batez ere isladatzen diren bestelakoak gorabehera: *langoico* (*FPvBN*) : *lango* (*CatLav*) (1), *luçazqui* : *luçequi* (4), *goratuco* : *guardatuco* (7), *injustuqui* : *injustuqui* (7), *falsuqui* : *falsoqui* (8), *saxuqui* : *licunqui* (9). Denetan Ubillos *CatLav*-ekin dator bat. Bide batez, urte batzu beranduago atera zen *FPvBNk* (1676, 13 hb) soilik erdizka ematen ditu bertsoetan, esan nahiz bait da, batzu ahaztuta zituelako edo hobeki azaldu beharrez edo den arrazoiak dela, ez daude denak bertsoetan, askotxotan bukaera nabarmena bada ere; nolana, eta honetara nentorren, beste tradizio batekoak dirat, etl., adibidez, "Besteren ona eua ezteçala, ez daquialarre eduqui" (7) edo "laquile falsu ez igala, ez iagoiti guçurti" (8).

Beraz, gutxienez Axular, Etxeberri Ziburuko eta Lavieuvilleren dotrina ezagutzen zituen Uhillosek. Nire ustez, erabat baztertu behar da, ordea, Larregi ere erabili zuelako susmoa (Villasante *HIV* 155). Nolanahi ere, Lardizabalek bai, eta eskuzabal, Azkuek frogatu zuten bezala (ik. *Euskera* 1928, 342 hh).

5. Hegoaldeko literaturaren historia berri baterako gaiak

Ibarrek jakintzat ematen zuen "la incomunicación espiritual en que solían vivir nuestras regiones históricas" delakoaren (*GL* 119) kontra, Lakarrak esana gogoratu behar da:

Et dira hartueman gehiegi, agian, bai adierazgarriak, ordea. Euskal literatura zahararren ranking bat eraiki nahi bageneza izen gutxi bide legoke aipatuen aurretik. Arrazoiak ez dira zailak antzematen: herrixka edo bailara nimiño baterako dotrina llabur bat, usu enkarguz, idatzi behar zuenak ez zuen hortarako bere egunoroko bizitza arunt eta hertsirik burua zertan jakirik eta gainerako idazleek beste lurraldeetan zer egiten zuten ikasirik (1985a: 32)

Zenbat eta gorago jo, hainbat eta Iparraldeko literaturaren —den zahar edo berri, den sorketazko, gramatikazko edo ikerketazkoaren— ezagutza handiagoa erakutsi dute Hegoaldeko idazleek. Alabaina, ez dut uste enkarguzko dotrinak idatzi zituztenak, eta hauen antzera jokatu zuten zenbait, direnik gainerakoei kontrajurri behar zaizkien bakarrak: hauen aldean berririk hasi nahiak ere baditugu, eta txokozaleak, eta bereizketa zaleak (zenbat eta erdaratik urrunago itxuraz, hainbat eta jatorrago). Denen artean desitxuratu dute, nabarmena denez, gerokoan epaia aurreko literaturari buruz. Eta Arana Goiri eta bere jarraitzaileez ari naizela eman bai dezake, lehenago eta beranduago antzerako bideetatik ibili izan diren zenbait ere badirela gogoratu beharrean naiz.

Horrelakoak alde batera utzita, ordea, bestelako historia konta daitekeela iruditzen zait, hain zuzen Lakarrak aipatzen zuen "katea"rena (ib. 31 hh); eta honelako zerbait izan daiteke, gaingiroki bada ere:

1) XVIII. mendean literatur gipuzkera sorrizen denean hortxe dugu Larramendi. Iparraldeko literaturaren garrantzia aldarrikatzen; badira alde honetatiko bere eraginaren zenbait aztarna harrez gero gipuzkeraz idatzi zutenen artean⁴².

2) XIX.aren hasieretan, bizkaiera bide bera hartzen hasten denean. Añibarrok Axularren liburua eta Mogelek Lavieuvilleren dotrina itzultzen dute, biak hain zuzen Larramendik gehien goraiatzen dituen liburuetarik direlarik;

2) Sarasolak (*HIV* 135) "el Renacimiento literario vasco" deitzen duen garaiko hasieretan hain eragikorra izan zen *Euskal Erria* aldizkariak Hegoaldeko Axularren

(42) Iparraldean ere Hegoaldeko gauzak ezagutu zirela albo bat utzi beharrean nago, baina, esan gabe doa, ikertzea nerezko luke: orain artean, dakidalarik, ia soilik hiztegi mailari begiratu zaio; ik. honetaz Lakarra 1985a (31-34 batez ere); eranskint nuzeresgarri zenbait Sarasolarengan (1986: 203 hh.). Bigarren honetan, beste ren artean, Intxauspek Axularren edizioari egim zion hitzaurtea aipatzen da, hitz larramenditarren erabilzaile bezala, *batundetu* (viii), *esquiribaquida* (ix) eta *adere* (x) lekuko; zenbat ohar: egia da batzu Larramendirenak direla (*adere* "regla", *batundetu* "coligarre"), beste batzu, ordea, haren eredura egimak bide dira (*esquiribaquida* bederen, ez dut *DT*-an aurkitzerik izan), eta hala bada, uraindik esanguratsua da Intxausperen adibide hau. Azkenik, badira egilearen buntikakoak edota agian soilik Zubero aldean ezagutzen zirenak edo direnak, *ordozatu* (viii) eta *bihurteratu* (x) bezalakoak, lehenena Azkuek Intxausperena bezala ematen duena; bigarrena soilik Landeren hiztegian. Foixengandik eta *bühirekatu* itxuran aurkitu ahal izan dudana; eta baita *bihurpidea* "aurkibidea" (Larramendik *bilabide* "prueba" dakar), bukaerako orrietan ere. Honekin leundu beharko litzateke Villasanteren "escrito en el más puro y elegante labortano" epaia (*HIV* 179), zalanzarik gabe.

lehenengo argitalpena dena, oker ez banago, egin zuen (1896tik aurrera)⁴³; honen aurretik badugu bertan Manterolaren "Autógrafos y noticias de Pedro de Axular, Silvain Pouvreau, Arnauld Oihenart, Alonso de Ercilla" (*EE* III 106-110); 1891ean Sorrainek honela zioen Axularrez:

Esta obra es considerada como la primera obra clásica bascongada y euskarófilos tan celebrados como el P. Larramendi, el príncipe L. L. Bonaparte, d'Abbadie, el abate Inchauspe y otros distinguen a Axular con los honrosos calificativos de el *Plutarco bascongado* y el *Cicerón labortano* (*Catálogo* 107 zbk.).

Ziur naiz arakatzen hasiez gero bagenituzkeela garai honetarako ere hemen bildu ditudan apurrak osatzeko gaiak.

3) XX. mendearren hasieran, aldizkuriak eta oro har saiozko idatziak ugaltzarekin bat inoiz nabarmenen gertatzen da Iparraldeko literatura zaharretatik interesa; nabarmenago oraindik I. I. atalean aipatu giro beltz haren erdian ditzira bereziaz. Ari garen ildotik aipagarriena, dena den, batuaren sortzaileengan eragin gehien izan bide zuten guztiek (Altube, Azkue, Ibar eta Urquijok) aski ongi, zenbaitetik bikainki, ezagutu zutela Iparraldeko literatura eta, hortaz gain, beren lanetan erabili eta laudatu ere egin zutela.

Besteren artean nagusi, *RIEV*-a aipatu beharra dago lehendabizi; bertan Urquijoren hainbat lan ezinutzizkoren ("La obra labortana del Doctor J. d'Etcheberri" (1907), "Axular y su libro" (1911-12), "Una fuente del *Guero*" (1912) adibidez), eta Azcona, Daranatz, Soloetarenen aldamenean, bai *Gero*-aren *princeps*-aren faksimileak⁴⁴, bai Añibartoren itzulpenaren transkribaketa⁴⁵ Axularrekiko zenbaiten gogoan zegoen kezkaeren lekuko ederrak dira:

Después de no pocas dudas y vacilaciones, y aun a riesgo de que el entusiasmo de mis paisanos no corresponda a la cuantía del sacrificio, me decido hoy a editar el *Guero*, con lo cual creo además contribuir de una manera real y positiva al florecimiento de los estudios euskarológicos (Urquijo *RIEV* 1911-12, 539).

Urkiño ez zen honetaz deitore egin zuen bakarra; Orixek bere "Euskal literaturaren atze edo edesti labur"rean (*EEs* 1927, 194-196) honela zioen:

Bidasoaz aindi asko irakurria da Axular, eta Bidasoaz onoztik, orain beintzat, irakurtzeko gogoia etorri zaie zenbaiti, ta maizago irakurtzen ezpada. liburu orien alerik arkitzen ez delako da, ta ez besterengatik (195).

Honen hariaz, *Argia*-n agindu argitalpena zertan dagoen ez dakiela adierazten du (196. oh.); badakigu, ordea, betirako asmoen munduan gerarazi zutela (cf. I. I. atala).

Gauza ezagun gehiago aipa daiteke, hala nola Azkueren hiztegia, zeinean Axular ahal den guztietan jasotzen den, edota Altuberren *Erderismos* (1929), hainbatetan Axular joskera egokien lekukotzat dakarrena.

Gutxiago ezagutzen bide da, ordea, 1909an *EEs*n (Orrilla 115 hb) ateratzen hasi zen *Geroko gero*-aren gipuzkerazko bertsioa. Intxausperena oinarri hartuta J. A.

(43) Honi ez dio garrantzirik kentzen, noski, zati aukeratuakoa izatea, ez eta Inchausperen edizioetik hartua izatea ere, nahiz eta egungoontzat azken hau bekatu larria izan: xehekiago ikertu beharko genukeen arren, egingo nuke zuberotarrenak edonon, erabat eta oso berandu arte ordezkatu zuela, edizio zaharagoak eskura zeza-keten zoriotsu gutientzat izan ezik. Larramendiren garaik orlura arte Axularren iturria zen bigarren edizioa.

(44) 1910etik aurrera, 60 burututik soilik 47ra iritsi zela; aldizkaria bukatu baino lehen.

(45) 1923tik aurrera: arrazoi beragatik 56 burutik soilik 42 agertu ziren.

Ateaga apaizak egina, O. delako batek (Orkaiztegi? cf. Villasante 1974: 149) erantsi-tako aurkezpen hitzaurrearekin. "Itz-joskera egiñalean obetubaz" egin omen zen, garaia-ri amore emanoz.

Eta honenbestez, Ibarren *Genio y lengua*-ra, baterik, eta 1954ko Lekuonaren argi-talpenera (A. Irigarai eta K. Mitxelena-ren eranskinekin) iritsiak gara.

Ez dut uste honen aurrean ausartegia denik esatea idazle katea ezezik literatur mugimendu katea bat ere badugula Iparraldearekiko erlazioari dagokionez: esango nuke hemengo literaturak, bere burua arrazoiz ezberdinengatik ahulagotzat harturik, Bidasoaz haraindian egindakora jo duela zerbait garrantzitsu egin behar izan duen bakoitzean. Eta hau Ibarrek eta bestek esaten zutenetik zeharo bestelakoa da, agerriki.

Bibliografia

Beherago azaltzen ditugun gutxi batzu izan ezik, Mitxelena-ren *Orotariko Euskal Hiztegia*-n erabiltzen diren laburdurez baliatu gara. Bestalde, Axular aipatzen dugun-ean, lehendabiziko edizioaren orrialdeez egiten dugu, Euskaltzaindiak 1988an kale-ratu faksimiletik, alegia.

Ibar. *Gl., Genio y Lengua*. Tolosa 1935.

Lakarra, J. A., 1985a, "Larramendiren hiztegi-gintzaren inguruan", *ASJU* XIX-1, 9-48.

———, 1985b, "Berriz Larramendiren segizioko zenbaitz", *ASJU* XIX-2, 439-452.

Mitxelena, K., *FDA, Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue*, Bilbo 1970.

———, *SHLV, Sobre Historia de la lengua vasca*, "Anejos del ASJU" 10, Donostia 1988.

Sarasola, I., *HSLV, Historia social de la literatura vasca*², Madril 1982.

———, 1986, "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* XX-1, 203-216.

Segurola, I., 1985, "Etxeberri Luzaideko Bikarioaren Dotrina argitaragabea", *ASJU* XIX-1, 129-197.

Urgell, B., 1986, *Añibarroren Esku liburua eta literatur hizkaiera*, EHUko tesina argitaraga-bea.

Villasante, L., *HLV, Historia de la Literatura Vasca*², Aranzazu 1979.

———, 1952, "Literatur-euskara Iaphurtarr Klassikoaren gain eratu", *BAP*, VIII, 91-119, 259-298.

———, 1967, "Axular eta Gero", *Egan*, 21-30.

———, 1974, "Bibliografía Axulariana", *FLV*, VI, 135-152.

Larramendi eta dialektologia

ROSA MIREN PAGOLA

(Deustuko Unibertsitatea)

Orra bucatu dot cutun necagarri hau
zeuveri escaraco verbacgaz. Escara
gustioe dodaz maite, ta gozo!

Gandarari bidalitako gutunetik jasotako hitz hauez hasi nahi izan dut, Larramendiren jarrera eta jokabidea euskalkiei buruz zein zen ondo baino hobetoago azaltzen dutelako. Andoaindarrak euskara ikasi ezezik, euskalkien erabilera ere, prediku eta ekintzen bitartez, zabaldu zuen. Baina ez zen horretan gelditu; goazen bada astiroago horren berri jakitera.

1. Larramendi dialektologo aintzindari?

Badakigu XVIII. mendea arrazionalismoarena izan zela, eta edozein aztergai hartzen zutelarik ere, arazoan muina ezagutu nahi izaten zen. Horretarako bi bide hartu ohi zituzten, alde batetik arazoa bera buruz eta intelektualki aztertuz, baina bidebatez gauzak bere izatean ezagutu nahi ziren, esperimentalki, dena, ahal zen heinean, arauen eta erregelaren mende ezarri nahi zelarik.

Hizkuntza ere ez zen orduko jakintsuen ardura eta jakinminetik kanpo gelditu. Izan ere, ezin izango zen bertzela gertatu, hizkuntzaren arazoa bizi-bizirik arkitzen bait zen Europa osoan. Latinaren eta jaiotzikuntzen arteko eztabaida hasi baino ez da egin, artean latina erabiltzen bait zen nagusiki irakaskuntzan, herriko hizkuntzaren aldeko deiak ere hasiak ziren arren. Hori horrela bazen ere irakaskuntzan, jaiotzikuntzak indartu egin nahi ziren beste erabileretarako, eta horretarako, garaiko erizpide arrazionalistei men eginez, hizkuntzak ere erabat arautzen ahalegintzen ziren, erabilera herrikoiegi edo arruntegizat hartzen zirenak baztertuz. Hizkuntzak arautzeko ikuspegia batez ere estetikoa zen, hizkuntzaren logika, armonia eta dotoretasuna lortu nahi zirelarik. Orduan ugaritu egin ziren, beraz, hiztegiak, hizkuntza ongi mugatzeko gramatikak, eta idazteko erregelak ere finkatuz joan ziren. Jokabide honek eragin handia izan zuen hizkuntzen erabilera idatzirako eta irakaskuntzan latinari gailentzeko, eta, ondorioz, hizkuntza nagusi horien batasuna indartzeko. Ezinbertzez, bai eta hizkuntza txikien galdiderako ere. Gure kasuan, ordea, zorionez, Larramendi bai izan genuen euskararen kezka eta harrotasuna izan zuena.

Dena dela, eta Argiaren eta Enziklopediaren mendeko ikuspegia eta jokabidea horrelakoak izan baziren ere, kontraesanik harrigarriak gertatu ziren, hizkuntzari buruzko erizpiderik bitxienak jaso daitezkeelako eta eztabaidarik itxuragabekoak ezagutu zirelako mende horretan.

Edozein modutan, ezin daiteke deus aurreratu ez zenik esan. Hizkuntzaren historia ezagutu nahirik zehiztanez, horretarako biderik egokiena hitzen etimologia aztertzea eta honek hizkuntzarekin izan ditzaken harreman eta loturak bilatzea zuten. Horrekin batera alderdi geografikoa ere saritzen zen; gauzak behar bezala ulertu eta azaldu nahi bazituzten, beharrezko zuten hizkuntzen hedadura lurraldez lurralde zein zen aztertzea ere. Orohar, hizkuntzari buruzko ikuspegietan ez da funtsezko aldaketarik gertatzen. Gehienbat materialak biltzeko zaletasuna sortzen da, eta horren ondorioz, goian esan bezala, glosarioak, hiztegiak eta gramatikak asko gehitzen dira mende horretan¹.

Dialektologiari dagokionez, benetako dialektologiarik ez zen inon egiten, hitz honi egun ematen diogun zentzuan behinik-behin. Dialektoak landu eta ikertu, bai, edo, hobeki esan, deskribatu egiten ziren. Deskribapenak, bestalde, berez eta berekin dakar herri hizkuntzetarako eta dialekto arruntetarako hurbiltasuna eta horiek ezagutzeko irrika.

Bide honetan Frantzia eta Italia izan ziren aurreratuenak. Frantzian hirurogeitamar urteko epean 18 glosario eta hiztegi egin ziren, batez ere hegoaldeko dialektoenak: probentzala, languedoiarra, walloniarra eta hainbeste barnean zirelarik.

Lanik garrantzitsuenak Estrasburgoko Unibertsitateko irakasle zen J. Oberlin-ek 1775ean argitaratu zuena izan zen, eta bertan patois baten ikerketa lana egiten zuen². Egile honek berak, *Bibliothèque patoise* deritzan eta argitaratu gabe gelditu zen beste lan bat ere egin zuen, bertan lurralde ezberdinetako literatura eta folklore mostrak batuz eta aldaki dialektologiko interesgarriak agertuz. Horren garaikide izan zen Antoine Court de Gebelin ere garrantzitsua da, frantsez zaharrek dialektoetako hitzen azterketarako metodologiak arduratu bait zen³.

Italian ere, haien hizkuntz egoera bereziak eraginik, kontzientzia bizia piztu zen hizkuntzaren eta dialektoen arteko harreman eta zerikusiei buruz. Hiztegiak eta hitz zerrendak asko ugaritu ziren. Pasqualinok, ia mendea amaitzean, siziliarraren bost aletako hiztegi etimologikoa eta Galianik dialekto napolieraren ikasketa monografiakoa egin zituzten. Azken honen lana benetan bakana, lehenbizikoz azaldu bait zituen napolieraren gramatikaren jatorria eta haren bilakaera historikoa batetik, eta dialekto horretan idazten ihardun ziren idazleen zerrenda bestetik⁴.

Dena den, dialektologiaren historia aztertu dutenek ez diete garai hartako lanei begiramenik ez ikerketa filologiko mailan ere. Aipagarriak gertatzen dira Dauzat-en hitzak⁵, hurrengo mendean, Rousselot eta Gilliéron-en lanak iritsi arte, aurreko guztiak gaitzetsi egiten bait ditu.

(1) Oso lan monografiko gutxi egin dira xviii. mendearen hizkuntzalaritza ikuspegia aztertuz. Nagusia, eta ia bakarra, klasikoa den Lazaro Carrer-ena (1949) da. Zehazagoa dialektologiaren ikuspegiak del Río (1943). Orokorrak: Pop (1950) eta (1955), Jordan (1967), Catalan (1955).

(2) *Essai sur le patois normain de Ban de la Roche* zuen izenburua. Lan honi buruz Grüber-ek *Grundriss* 1. alean, 47. or., dialektologia ikasketetarako balore zientifikoa duen lehenengo saiakera lana dela dio.

(3) *Dictionnaire étymologique de la langue française*, Paris (1778) liburuaran "Des dialectes de l'ancien François, et des ouvrages écrits dans ces dialectes" deritzan atalean horrela adierazten du: "il semit important d'en recueillir les mots, surtout ceux qui paraissent avoir les moins d'analogie au Latin et au François; il faudroit s'attacher principalement aux mots des lieux le plus éloignés des grandes villes, et à ceux qu'on parle dans les montagnes les plus sauvages; ces mots devant représenter naturellement avec moins de mélange les anciennes langues du pays". A. del Río (1943: 211)-tik jasoa.

(4) Lanak honako hauek ziren: Michele Pasqualino: *Vocabolario siciliano etimologica, italiano e latino...*, 5 lib., Palermo, 1785-1795. Ferdinando Galiani: *Del dialetto napoletano*, Napoles, 1799.

(5) "... on ne saurait trop déplorer le temps perdu, surtout au siècle dernier, par des travailleurs de bonne

Europako bertze lurraldeetako lanak utziz, gure gaurko lanarekin hurbilagoetik lotzen denez, astirotxoago pausatuko gara Espainiako lanak ikusten. Katalanak nabarmentzen dira beren gramatika eta hiztegiekin, bide batez katalan hizkuntza literarioa ere aztertuz. Broch eta A. Capmany dira aipagarrienak. Balentziera dialektoa ere Mayans-ek jaso zuen "Diccionario Castellano-Valenciano" hiztegia eginez, inoiz argitaratu ez dena, hain zuzen. Hauen parean Sarmiento, Jovellanos eta, jakina, Larramendi bera aipatu behar dira.

Lehen esan bezala, gauza bat agertzen da garbi Estatu mailan, XVIII. mendean oraindik oso bizirik dirauela latina ikasi eta irakasteko tradizioak, alegia. Hala eta guztiz ere, mugimendu bortitza sortzen da herri hizkuntzen alde, latinetik askatuz, eta irakaskuntzarako norberaren hizkuntzan irakasteko eskatuz, Sarmientok latina unean ama-hizkuntzaren bitartez irakastea defendatzen zuen, helburu praktikoa bilatuz, hobekiago latina ikasteko, jakina⁶.

Jovellanosek lan oso bat eskaini zion irakaskuntzari Mallorcan desterruan egon zenean: *Tratado teórico-práctico de la enseñanza*, eta bertan, mallorkearen gramatika orokorra egitea eta umeei haren sintaxia irakastea eskatzen zuen: "siendo la que primero aprenden, la que hablan en su primera edad, aquélla en la que hablamos siempre con el pueblo y en que este pueblo recibe toda su instrucción, visto es que merece mayor atención de la que le hemos dado hasta aquí"⁷.

Gure artean Larramendik askoz ere lehenago defendatu zuen Euskal Herriko haurrei euskaraz irakatsi beharra, eskoletan ez zela euskaraz fitzik irakasten eta jokabide horren makurra aski bortizki salatuz⁸:

Nada se lee ni escribe ni se enseña a los niños en bascuence; no hay Maestro que quiera ni sepa deletrear en su lengua (1853: xlviii)

Hasta en las escuelas de niños se aprende á leer y escribir en castellano y nada en bascuence, y aun con errada conducta se prohíbe á los muchachos hablar su lengua materna. (1853: xlii)

Ezin daiteke arlo honetan Sarako Etxeberrik euskaraz latina ikasteko idatzi zuen gramatika ahaztu, Larramendik salatutako egoeraren biktima bihurtu zirelarik bera eta bere semea, bien ahaleginak eta kemena alferrikakoak gertatu bait ziren.

Halere, ez ziren hizkuntza hauek izan garaitu zirenak latinaren eragina makalduz joan ahala, ez eta maila ofizialetatik laguntza jasoko dutenak ere. Erregeek ematen zituzten agindu ofizial guztiak gaztelararen aldekoak ziren eta gaztelera baizik ez da onartuko erabilera eta irakaskuntzarako⁹. Guzti hau harrigarria gertatzen da, hain zu-

volonté mais sans éducation scientifique, qui ont publié sur les patois des travaux sans valeur et à peu près inutilisables". A. Dauzat (1927: 7) *Les patois: évolution, classification, étude*. Paris.

(6) Ikus honi buruz A. López Pelaez: 1902, *Los escritos de Samaniego y el siglo de Feijóo*. La Coruña, 191-195, 1 or., eta J. L. Pensado: 1960, *Fray Martín Sarmiento: sus ideas lingüísticas*. Oviedo.

(7) F. Baeñe (1910: 45) *Ideas pedagógicas de Jovellanos*. Gijón, liburutik hartua.

(8) *Diccionario trilingüe castellano, bascuence y latín*. "Prólogo" deritzanetik hartua. Guk jarraitu dugun edizioa 1853. urtean, Pio de Zuazak Donostian eginkoa da. Sarako Etxeberrik egin zuen ahalegina latina euskararen bitartez ikasteko bere *Eskual-herriari eta eskualdun guztiei eta euskarazko hatsapenak latin ikasteko metodoan mamitzen* da.

(9) Aipagarria gertatzen da 1780. urtean, Carlos IIIak bere Erresumako eskola guztiak umeei gramatika erakustea agintzen zuenean "por la gramática que ha compuesto y publicado la R. A. de la Lengua; previniendo que a ninguno se admita a estudiar latinidad sin que conste antes estar bien intruido en la Gramática española". Lazaro (1949: 176).

zen ere, garai hartako herri hizkuntzaren aldeko bultzatzaile gartsuenak latinaren aurka, ez zirelako gaztelera defendatzen zutenak, katalana, galegoa, euskara hizkuntzen aldeko errebindikazioa egiten zutenak baizik.

Guzti hau mugimendu orokor batean sartzen da. Larramendi, Sarmiento, Jovellanosen lanek, bakoitzak bere hizkuntza defendatzera jotzen du, eta, defentsa horren ondorioz, hizkuntza bera ezagutzera eta aztertzeraz bulkaturik ikusten dituzte beren buruak. Beraz, dialektologiaren atarian beharturik eta bultzaturik jartzen dira zuzenean, horrekin aintzindari bihurtuz neurri batean. Baina, aurrera egin aurretik, galdera bat gertatzen da premiazkoa: nor izan zen lehenengoa?

Aita Manuel Larramendi (1690-1766) gipuzkoarra, Fray Martín Sarmiento bost urte gazteagoa eta bost urte beranduago hila (1695-1771) Leónko Villafranca del Bierzo-koa eta Melchior Gaspar de Jovellanos (1744-1810) asturiarra eta bi horiek baino hainbat urte gazteagoa. Angel del Río (1943: 212), ez dio Larramendiri arretarik jartzen, eta Sarmiento hartzen du "precursor de la dialectología peninsular" bezala¹⁰ eta Pop (1950: xxix) ere bat dator ideia horrekin. Aldiz, Mitxelena (1959: 26) ez da ideia horretakoa Larramendiz diotenean, "Fue como después Jovellanos un precursor de la dialectología moderna".

Egia esan, Sarmientoren lan filologikoa ez zen bere garaian argitaratu eta, guk dakigunez, Larramendik ez zuen, ziurrenik, haren lana ezagutuko¹¹. Aipatua ere ez dugu bere obran inoiz aipaturik ikusi, eta Larramendik ez zuen eragozpenik izan ohi irakurtzen edo ezagutzen zituen egileen izenak aipatzeko, haien zerbitu sartzen edo komentatzen zutenean. Baina arrazoi horietatik kanpo, datak parekatu behar dira. Sarmientok 1745. urtean, (ikus 11. oharra) galegoari buruz materialak jasotzeko erabili zuen metodologiaren berri eman zuen:

... anduve mucho por aquel reino, pero siempre con la pluma en la mano para apuntar todos los lugares y todas las voces y frases gallegas como las iba oyendo, y aun muchas voces gallegas antiguas como las iba leyendo, y sobre todo muchos nombres gallegos de los mixtos de la Historia Natural y en especial de los vegetales, pescados, conchas, etc.... como los iba cogiendo y comiendo (del Río 1943: 213).

Larramendik, berriz, urte horretan Hiztegia bera argitaratu zuen, informazioa eta datuak jasotzen urte asko pasatu ondoren. Horrez gain eta hori aski ez balitz, hamasei urte lehenago *Arte*-a argitaratua zuen, hiru euskalkiren berri eta haien bereizketa gramatikalak emanez. Aurreraxeago Larramendirena astiroago ikusiko dugu, esan dezagun, halere, ez diogula Larramendirekiko Sarmientoren eraginari bidezkoa erizten. aitzitik, dialektologiaren aintzindaritzaz Larramendiri atxikitzea egokiago iduritzen zaigu. Horrekin, ez nioke, inola ere, Sarmientori ezertxo ere kendu nahi, benetan gizon argia eta garairako aurreratua zela aitortu baizik.

Jovellanosen irudia, berriz, erraldoi batena da, hainbeste jakintza alorretara hedatu bait zen. Hizkuntzari dagokionez, oso lan interesgarriak idatzi zituen, eta dialekto-

(10) Ikus A. del Río (1943). Esan dezagun, bidenabar, xviii. mendeko lan dialektalak egin zituzten autoreak aztertzen duen lan honetan, ez duela Larramendiren aipamenik egiten.

(11) Larramendirentzat interesgarria zitekeen Sarmientoren lana *Onomástico etimológico de la lengua gallega*, 1923. urtean argitaratu zen. Dialektologiaren ikuspuntik interesgarriagoa den lana: *Elementos etimológicos, según el método de Etichides* eta beste gainerako guztiak "Escriitos filológicos del Padre Sarmiento" izenpean "Academia de la Lengua Española" k argitaratu izan ditu honako zenbaki hauean: BAE (1928): XV, 22-38; 457-467; 570-684; (1929) XVI 244-255, 366-382; (1930) XVII 275-290; 570-592; 721-742; (1931) XVIII 118-135. or.

logian egin zituenak egun ere miresgarriak gertatzen dira, asturianoari buruz, eta batez ere bereziki, hainbat lan egin bait zuten¹². Pop-en (1955: 12) eritziz 1791. urtean argitaratutako asturianoazko hiztegiari toki berezia zor zaio dialektologiaren historian:

un place très importante dans l'histoire de la dialectologie puisqu'il s'agit, pour la première fois, d'un plan et d'instructions pour la rédaction d'un vocabulaire complète des mots dialectaux employés par la population de Asturias¹³.

Dialektoak ikasi beharra ezagupen historikoaren iturburua dela konturatzen da, eta asturianoaren hiztegia egin beharrak informazioa "in situ" jasotzera bulkatzen du. Dena den, egoerak berak eramatean du tokian bertako lan mota hau egitera. *Carta a Caveda* deritzan idazkian asturianoaren egoeraz eta horren ondorioez dioenaren arabera:

... conservándose solamente en la tradición y el uso, y careciendo enteramente de monumentos [...] escritos, era imposible adelantar cosa alguna no viniendo acá a suplir con la voz viva la falta de tan necesarios auxilios¹⁴.

Gutun horretan bertan zehaztasun handiz seinatzen du nola egin eta zuzendu behar den lana, dialektologia alorrean benetako eredu metodologikoei bideak irekiz, Caveda berari igorritako beste gutunetan dialektoen lexikoaren bilketaz mintzatzen da, nekazaritza, toponimia eta beste hainbat gauza nahastuz. Jovellanosen emaitzek A. del Río (1943: 223) honako eritzi hau ematera eramatean dute:

Careciendo casi por completo de antecedentes para el estudio que se proponía, Jovellanos tuvo que empezar por plantearse el problema del método. Sarmiento nunca se había propuesto estudiar el gallego en su totalidad, y además era dudoso que Jovellanos conociese su trabajo en detalle.

Eta beste pasarte batetan (1943: 242):

En la dialectología sólo tiene un antecedente claro, que es Sarmiento.

Berrito ere harritzen gaitu A. del Río-k Larramendi ez aipatzearekin, andoaindarrak aurretik pausu berdinak eman bait zituen, Jovellanos-ek eman zituenak, alegia, eta idatzi ere antzerako hitzak idatzi zituen, (ikus beherago). Bestalde, Larramendik garai hartan izan zuen aipua hain izan zen handia eta Jovellanos hain jantzia garai-ko kultura eta mugimenduetan, non gogor gertatzen zaigu Larramendiren Hiztegia, eta *Arte*-a bera ere, ez ezagutzea. Areago, bada beste arrazoi bat ere Larramendi bera eta Larramendiren lanaren ezagutzearen alde dagoena. Jovellanos Euskal Herrian ibilia zen, eta arreta handiz ibilia gainera, bertako ohiturak, olak, lan motak, eta bizitza molde osoa baretik ezagutzen eta gauza guztien notak hartzen. Garaiko gizon ospetsuekin ere harremanak izan zituen¹⁵. Hizkuntzaren aldetik hain sentibera zen gizonak posible ote da Larramendiren entzuterik ez izatea? Astarloa ezagutu zuen

(12) *Carta a D. Francisco de Paula Caveda y Sobres sobre la formación de un Diccionario Geográfico de Asturias* (1791). Horrez gain *Apuntamiento sobre el dialecto de Asturias y lista de algunas palabras geográficas entresacadas por vía del ejemplo del dialecto de Asturias* (1804).

(13) Gure ustez eta, zoritxarrez, Pop-ek ez zuen Larramendiren berri izan.

(14) Garai hartan eragozpen hau mundu guztiak zuen. Mayansek berak ere euskararen hitzak ezagutzeko Real Bibliotecan esku izkribuan zegoen Landochio-ren hiztegitara jo behar izan zuen. (Ikus Tovar (1980: 80).

(15) Jovellanos-ek bidaiak hain 1791. urtean egin zuen. *Diarios* deritzan liburuan argitaratuak daude. Zehatzago ikusi nahiz gero, ikus Elizalde (1984).

eta haren aurka ere agertzen da, *Apología de la lengua bascongada*-n (1803) azal-tzen diren zenbait etimologiarekin bat ez zetorrelako, batez ere erabiltzen zuen siste-ma zaila eta frogarik gabeko iduritzen zitzaiolako¹⁶. Pentsa daiteke, beraz, Astarloa ezaguna zuenak, lan berdintsutan ibilki, Larramendiren berririk ez izatea gaitz ger-tatzen dela sinesten.

Jovellanosen balioa bikain azaltzen du del Ríok (1943: 241):

... la importancia que puedan tener estas incursiones al campo de la filología [...] es de orden más bien cultural que puramente lingüístico. Reside en la concepción de sus métodos, en algunas ideas acerca de la naturaleza misma de los dialectos y en su vi-sión parcial, pero atinada, de los fundamentos históricos y sociales del lenguaje.

Beste horrenbeste esan daiteke Larramendiri buruz, jesuitarena "incursión" baino lan sakonagoa izan bazen ere. Tamalez, andoaindaria ere gauza askotara hedatu zen eta, agian, hizkuntzalaritzan, egin zuena baino gehiago egin zezakeen, asko izanik ere egina¹⁷. Lan horren garrantzia eta haundia ikusten saiatuko gara ondoren. Larra-mendiren dialektologia lanaz izan den isiltasuna ez da legezkoa, eta nori berea zor zaienez, lan eta ikasketa horiek argitu nahi nituzke.

2. Dialektoaren kontzeptuari buruz

Oso modu ezberdinetara izan da hartua "dialekto"aren kontzeptua, baina, batipat, balio linguistikorik gabeko edo linguistikatik kanpoko ikuspegiz izan dela baloratua esango nuke, batez ere hizkuntz estatalak bultzatu eta indartzea nahi izan zenetik. Edonola ere, XVIII. mendean hitz honek ez zuen esanahi eta konotazio berezirik, eta hizkuntzaren kontzeptuaren aldaki bezala hartua izaten zen.

Larramendik, jadanik 1729. urterako, *El Imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*¹⁸ lanean zehaztasun haundiz definitzen zuen dialektoa. Gertaera lin-guistikoen bereiztasuna nabarmentzen zuen, betiere banaketa geografikorekin lotuz, aldakien arauera:

El dialecto en una Lengua no es otra cosa, que una nota, diferencia, ò caracter distinto de la misma Lengua, que no le estilan todos los que hablan aquella Lengua, sino que se habla en algunos parages, ò Provincias determinadas (1729).

"Dialecto" edo "dialectos" erabiltzen duenean ideia hori bera azaldu nahi du, gaurko terminologian "dialektalismoa" deituko genukeenaren zentzuaz, kontzeptuaren balio orokorretik at eta kasu zehatzetara zuzenduz:

Qué importa —euskarari buruz ari da— que tenga diferentes dialectos en cuanto á las terminaciones del verbo, si son tan arreglados y consiguientes? Lo mismo digo de los dialectos en los artículos de los nombres, y en toda la sintaxis" (1853: xxxiv).

(16) Posada-rekin izan zituen gutunetan agertzen dira ideia hauek, baina onartzen bait zuen Astarloak Astu-riasko toki izenetarako defenditzen zuena.

(17) Horrela uste zuen Muxelenak ere, bere lana zehatzago baloratuz: "...ez da txokozale donibandaren gisan... P. d'Urte dio... Bere hirikoek ordez bere euskalkiko argitasunak agertzen dizkigu, eta Gipuzkoako euskalki hori berak begiz joa da. Beterrri aldera, Badaki, ordea, euskalki bat baino gehiago dituela euskarak eta saiatzen da ahaleginean beste dialektuen berria zabaltzen". Bestalde, Pierre D'Urtek, Donibane-Lohitzundar-ak, gramatika bat egin zuen Lapurterara mugatua, *Grammaire cantabrique basque* (1712), eta askoz ere be-randuago argitaratu zena *Bulletin de la Société Remond* (1890-1900) aldizkarian. Hiztegia ere egin zuen, baina argitaratzeko dago oraindik (cf. orain Urkizu 1989).

(18) Hordagoek, 1979. urtean eginiko edizio faksimilari jurratu diogo.

Lapurteraren izenorde erakusleak azaltzerakoan aldaki dialektalak ere ematen ditu, zein tokitakoak diren garbitu gabe:

Los dialectos suyos, además de los que arriba se han puesto son, nom. *au, auc*, item *haur, hunec*, mudando la *o* inicial en *hu* en todos los casos del singular. Item perdiendo la *i* en todos los casos del plural, v. g. *óec, óena, óei*, etc. (1729: 26-27).

Numeralekin beste horrenbeste egiten du, *hirú, lau, bost, oguei*, gabe:

En estos modos de contar ay algunos dialectos v.g. *hirúr, laur, borz, ogoi, ogoitabat*, [...], *bicun, birreun*. (1729: 39).

Halere, bere lan nagusian, Hiztegiari alegia, dialektorearen nozioa ezaugarri linguistiko bereziz hedadura geografiko batez egoki azaltzen du:

... he hecho estudio de poner en el diccionario, sin distinción alguna de dialectos, todas las voces que me han ocurrido del bascuence, para que se hagan comunes todas ellas á todos los países y dialectos diferentes de la lengua, como lo son un gran trozo de vocablos que se usan en todos los dialectos. (1853: xl).

Dena den, euskara oso zatitua dagoela konturatzen da, lurralde bakoitzean ezberdintasun asko gertatzen direlarik. Horrek Hiztegiaren murriztasuna agerian uzten duela pentsarazten dio alde batetik, baina euskalkiek lexiko mailan duten aberastasuna frogatzeko biderik hobereena gertatzen zaio bestetik:

Pero tengo la prueba clarísima de que son innumerables las que faltan y están derramadas y escondidas en Vizcaya, Navarra, Guipuzcoa, Alava, Labort y Zuberoa. La prueba es que sin salir de este dialecto de Guipuzcoa, cada día se ofrecen términos usuales y corrientes que apuntar sobre los que tengo ya en el diccionario y los descubre no la diligencia, sino la casualidad de hablar los puros bascongados sobre diversas materias.

Gipuzkoan egunero ibiltzen zen, hemen aditzera ematen duenez, baina ez dirudi metodologia finkorik duenik bere ibileretan, ahal duen neurrian baino ez dituelarik aztertzen beste euskalkiak:

Pero si esto me sucede en un dialecto que tengo tan practicado, que me sucedería si anduviese con la misma observacion los países de los demás dialectos? (1853: xl).

Aberastasun honek nolabaiteko arazoa sortarazten dio, batez ere hiztunen arteko komunikabidea arriskutan jar daitekeelako: bestela esan, euskalki ezberdinetako hiztunen artean ezin ulertuz geldituko ote direnen beldur delako:

... el guipuzcoano entrando en Vizcaya apenas entiende aquel bascuence, y lo mismo sucede al vizcaino en Guipuzcoa y en los demas dialectos, de manera que parecen distintas las lenguas. (1853: xli).

Honen arrazoa aditz eta izenaren bukaeretan aurkitzen du, eta hitzetan ere bai, euskalki bakoitzak bereak erabiltzen dituelako, elkarren artean ezberdinak, alegia.

Aurreko ideia azken muturreraino eramanez, jarrera ezezkorrak ere nabaritzen eta salatzen ditu. Batez ere, euskalki ezberdinetako mintzaleek elkarren aurka jartzen ditelako. Gogor kritikatzan zuen jokabide hori Larramendik, eta askotan aurka gainera. Esaterako, zubererari laztasuna egozten bazioten lapurtarrek, haiek lapurteraz trufatzen omen ziren bigunegia eta xuriegia delako (1969: 295):

Y si por esto los laborianos le tachan de áspero ellos se desquitan calificando al laboriano de afeminado y melindroso y siempre unos dialectos están murmurando de los otros con poca discreción¹⁹.

Ez da hori, ordea, bere ustea, denak parean jartzen bait ditu ikuspegi orokor batez aztertuz (1729: 14-15):

... y assi yo tengo tambien por bellissimos à todos los dialectos del Bascuence, no solo por que son propios, y no pegadizos de otra Lengua, sino mucho mas por que son muy arreglados, y consiguientes, y con raíces fixas y seguras.

Eta euskalkien gainerik edo euskalkien oinarri bezala, euskararen batasunaren zentzu bizia du. Larramendik oso garbi ikusten du euskara hizkuntza bat dela, hizkuntza bat bakarra dela; ez da zatiketaren arriskutan ipintzen, edo egiturarik gabeko hizkuntzaren planteamenduan. Alderantziz baizik, dialekto edo euskalkien banaketaren gainerik, armoniaz beteriko hizkuntza perfektuaren ustea da Larramendiren perspektiba (1729: 12-13):

... el Bascuence tiene su cuerpo de Lengua, comun y universal à todos sus dialectos. Este cuerpo del Bascuence incluye todos los nombres, y verbos, tomados en sí mismos, esto es, tomados como declinables, y conjugables, y todas las demás partes de la oracion, todos los modos del infinitivo, etc, en que no ay diferencia alguna.

Planteamendu honen aurrian, batek galde dezake Larramendirentzat zein den euskalkien arteko ezberdintasuna, eta euskalki bakoitzean gerta daitezkeen bereizitasunak nola kokatzen dituen hizkuntza barranean. Hona josulagunaren erantzuna, ezberdintasun horiek murriztuz eta jokabide razional batez egituratuz:

Los dialectos pues se reducen á las declinaciones del nombre, y pronombre, que consisten en los artículos, y á las conjugaciones del verbo, que consisten en terminaciones, ó inflexiones, diferentes, y se pondrán en su lugar. (1729: 13)

Dialektologiaren aldetik helduena den lanean ere, *Corografía*-n, antzeratsu mintzatzen da, greko hizkuntzak eta haren dialektoek elkarrekin duten zerikusia euskarak bere euskalkiekin duenarekin erkatuz, honela dio (1969: 280):

... así como hoy hablamos entre estos montes muchas lenguas que son el vascuence, una lengua en su cuerpo material y muchas lenguas de sintaxis diferentes.

Gai honekin amaitzeko, azken lekukotasuna jaso nahi nuke. Hizkuntzaren eta euskalkien deituraz ari delarik, ezin garbiago emanen du euskararen egitura bakarren azalpena. Eta, horrekin batera, euskalkien banaketaren eta guztien batasunarena, hizkuntza bat eta bakarra sortzen dutelarik denen artean. Zita luzeakoa da, baina garrantzitsua iduritzen zait osorik aldatzea (1853: xxiii):

A esta lengua ó cuerpo animado ú armónico del bascuence incluidos todos sus dialectos, llamamos *eusquera*, *euscara*, *escuara*, [...]. Ni con estos nombres se expresa mas un dialecto que otro, ni una provincia mas que otra, sino generalmente nuestra lengua y los países en que se habla. [...] De aquí se conoce que los que llaman á la *eusquera* ó bascuence lengua *basconica*, *lengua de navarros*, *lengua vizcaina*, *lengua guipuzcoana*, *alavesa*, *labortana*, se equivocan manifiestamente; porque nuestra *eusquera*

(19) J. Ignacio Tellechea Idigorasek egin zuen edizioa segitzen dugu, *Corografía o descripción general de la M. N. y M. I. Provincia de Guipuzcoa*. San Sebastián, 1969. Gaurko ortografian paratua dagoenez, agertzen diren zitak grafiaz aldatuak agertuko dira.

no se distingue como otras lenguas por el nombre del reino, provincia ó país en que se habla, pues sin ese recurso tiene nombres propios suyos que la distinguen de todas las demás, y son *eusquera*, *basquence*, *basque*.

Ideia berdinari jarraituz, oraindik garbiago azaltzen du, hori posible bada:

Si hablamos de los dialectos de la *eusquera*, en rigor está mal dicho lengua *basconica*, *vizcaina*, etc. [...]. Puesto <que> esto sería confundir las lenguas con sus dialectos; y solo está bien dicho el *dialecto basconico*, *vizcaino*, *guipuzcoano*, del bascuence ó de la *eusquera*: pues de esta suerte se significa la verdad de una lengua común á todos esos países y la diferencia particular que hay en ellos.

3. Euskalkiak jasotzeko metodologiaz

Aurrena, galde daiteke Larramendik noiz, nola eta zenbateraino ezagutu zituen euskalkiak. Mutil kozkorra zelarik Andoaindik Bilbora abiatu behar izan zuen; gero gaztaroko urte guztiak Gaztelan eman zituen. Berak aitortzen duenez galdua zuen euskara nola berreskuratu zuen, eta, areago, nola ikasi zituen 1729. urterako, oraindik Salamankan segitzen zuelarik, *Arte*-an agertzen diren, gipuzkeraz gain, bizkaiera eta lapurteraren ezaugarriak.

Esto mismo me sucedió á mí como á todos los demás, y me fue preciso renovar las especies del bascuence, imponerme primero en mi dialecto guipuzcoano y despues en los otros hasta que los reduje á método y arte. (1853: xlii).

Lan honen haundiaren duda izpirik ere ez genuen arren, bestalde, berak eta bere erligiokideek —argitalpenetarako hauen baimen hitzetan— garbi agertzen dute txolarteetan eginiko lana izan zela²⁰, bere ohizko lanari, lan ugariari, alafede, ukorik egin gabe gainera:

Es cosa preciosa que me haya costado tantos años de reflexion y estudio, tanta observacion, leccion, viajes, preguntas, exámenes, para reducir á método y arte el bascuence, observar sus perfecciones, la diversidad de sus dialectos, la multitud derramada de sus vocablos y su orden y correspondencia á los castellanos. (1853: xlii).

Beraz, berak bidaiak aipatzen dituen arren, ez dugu uste, *Arte*-a idatzi zuen garaian Euskal Herrira hizkuntza ikasteko, edo beste edozein gauzetarako, bidaia asko egingo zituenik²¹. Bestalde, Larramendi bera *Arte*-ari egiten dion sarreran, horren kexu da hain zuzen ere:

...no he podido corregir algunos defectos que reconozco en esta Obra, por estar lexos del País, donde pudiera instruirme más.

Liburuen bitartez, ikasiko zituela pentsatzen dut, lapurrera batez ere, *Arte*-an Joanes Etxeberri Doktor Teologoa eta Joanes Haranburu aipatzen ditu (1729: 374-75), Ziburukoaren olerkiren bat sartzen duelarik. Hiztegian eta *Corografía*-n ere autoreen testuetan oinarritzen dela esaten du; besteak beste, Joanes Leizarraga, Martín de Arzadun, Aita Elizalde, Juan de Beriain aipatuz. Erdaraz idatziak ziren euskaldunen li-

(20) J. Larumbek horrela zioen: "... los primeros frutos de sus estudios, siendo los que aplicó á esta Idea, de muy breves ratos, que pudo usurpar á mas altas tareas". Hitz berdintsuak erabiltzen ditu D. de Arzac y Echevestek: "...solo dedicó á ella los desperdicios del tiempo, que le permiten las tareas de su Magisterio...".

(21) 1717. urtean etorri zela badakigu, urte hartan Andoainen batzartzen ziren Batzar Nagusietara sermoia egitera. Ikus bere testigantza, J. I. Tellechea Idigorasek eginiko *Sobre los fueros de Guipúzcoa*, edizioan, (1983: 306). Horrez gain, ez dugu beste bidaiarik egin zuenaren berri, Ana de Neoburgoren aitortze berala etorri arte 1730. urtean.

buruak irakurriak zituen eta haietan agertzen ziren euskal hitzen nota ere hartu zuen; berak digunez: Oihenart, Moret, Poza, Echave eta besterik.

Larramendik, halere, izan zuen gero euskalkiak ezagutzeko aukera egokirik. Mariana de Nooburgo Erreginaren aitortze bezala Baionara etorri zenetik ez zen gelditu. Haren lanak arreta apur batekin irakurritz, berehalaxe ohar daiteke haren mugimendua eta ibili beharra etengabea izan zela hizkuntzaren datuak eta xehetasunak jasotzen. Ezinbestekoa ere gertatzen zitzaion hori, ordea, *Arte*-an aginduriko hiztegia egin beharrak bultzatu bait zuen horretara. Liburu idatzien faltaz beharturik zegoen herriarengandik, euskara bizitik, alegia, lexiko formak jasotzera. Ondoren datozen hitzek argi erakusten digute hori, eta, hurbilez, berak sorturiko kanpo-metodologia ere azaltzen dute, bat batean burura dakarzkigutelarik, bestalde, berrogeitamar urte beranduago Jovellanosek idatzi eta goian aipatu direnak: honela dio Larramendik (1853: 2. Dedicatoria):

Por eso á falta de libros me fué forzoso consultar el uso verbal de nuestros patricios; oír á cultos y no cultos; notar como se habla en los pueblos y en las caserías; peregrinar á varios parages, y mas con el empeño de comprender en mi diccionario todos los dialectos del vasconce. hacer apuntamientos, observar, combinar, separar el uso del abuso, adivinar la ortografía, investigar etimologías y raíces; y en fin, juntar y organizar un cuerpo de lengua que, dividido en menudos trozos, estaba derramado por varios lugares y paisés.

Fray Bartolome Galarzak, Azpeitiko San Agustin konbentuko Prioreak, 1743. urtean, Hiztegiari egin zion Onarpenean, baieztatzen ditu Larramendiren hitzak:

Dio muchos pasos: corrió á este fin varios lugares del Señorío de Vizcaya y Guipuzcoa”.

Dena den, ez zen bi lurralde horietan bakarrik gelditu, Euskal Herri guztian, edo ia guztian, ibili zen dudarik gabe: Hiztegiaren sarreran (1853: xlvii), lan honek ekarri zizkion nekeak aipatu ondoren, honela arrazoitzen du:

... el bascuence no se halla junto en Vizcaya ni en Guipuzcoa, sino que está derramado en estas dos Provincias y en otras de España y Francia.

Eta lekukotasun hori gutxi bailitza, berriro ere, literaturaren faltaz kezatu ondoren, honela berresaten du:

Las he andado todas con sobrada fatiga, aunque algunas con mas celeridad de la que quisiera, preguntando y apuntando cuantas voces²² oía para colocarlas despues en las correspondientes castellanas.

Benetako aintzindari bezala agertzen zaigula Larramendi ez dago ukatzerik, kontutan hartuz, batez ere, dialektologoek oraino mende oso bar behar izango zutela informazio linguistikoa korrespondentzia soñez gehienbat jasotzen hasteko, Testamentu Zahar edo Berriko testuren baten bitartez baliatuz.

Lekukoei dagokienez ere, ez uste edozein eta edonola hartzen zuenik, Hasi zenean bi lekuko mota bereizten zituen (1853: xlvii):

A dos géneros de personas he dirigido mis preguntas; en los dialectos de España, á los que saben castellano y bascuence, y en el de Labort, á los que saben bascuence y francés²³ y á los que en todos los dialectos solo saben el bascuence.

(22) Testuan "veces" jarritzen du, erraturik egongo delako ustetan aldatu dugu.

(23) Iparraldean ez dugu uste inkesta edo informazio asko jasotzen ibiliko zenik; erreginaren aitortze izan

Baina gaztelera zekitenak gaztelera gutxi zekitela hartaratu zen, eta hizkuntza formak euskarazko parekoekin jarri eta erkatu behar zituztenean, oso galdurik ikusten omen zuten beren burua. Hori zela eta honako hau erabaki zuen (1853: xlvi):

Escarmentado con esta experiencia, busqué para mi intento á los puros bascongados, pero con el desconsuelo de que no entendian las voces castellanas. Valíme de dos medios: el primero señalarles con el dedo, con el ademan, con el gesto los objetos cuyas voces bascongadas quería yo saber, *au cer da? oni nola deritza!* y me respondian lo que yo quería saber y lo apuntaba luego. (1853: xlvi)

Larramendiren lezto hauek irakurritz, konturatzen gara bi mende hauetan informazioa jasotzeko metodologian dialektologiak ez duela asko aldatu, ez eta arazoak konpondu edo bide berriak zabaldu ere.

Deixiaren bitartez informazioa jasotzea, egun bezelaxe, metodorik onena bezala aurkezten du andoaindarrak, neketsuena ere bai, eta denbora gehien eramaten duena.

Jarriari beste modu bat azaltzen du informazioa jasotzeko: elkarrizketa, nahiz askea nahiz arteztua. Horretan ere dialektologia modernoaren mailan jartzen da, bide ona eta deixiarena baino errazagoa dela azalduz:

El segundo medio fué oír con observacion sus conversaciones, unas veces las que entre sí sin influjo mio entablaban, otras las en que yo de propósito los metía sobre determinadas materias y objetos en que precisamente habian de salir aquellos verbos y nombres que yo deseaba saber. Este medio es el que mas me ha costado de tiempo, de aguante y de fatiga, pero es el que mas me ha servido, pues es increíble la copia de nombres y verbos que he apuntado y recogido oportunitísimos. (1853: xlvi)

Zer nolako informazioa jasotzen zuen Larramendik, galdekizunarekin baliatuz nahiz galdekizunik gabe ibiliz? Honetan ere, begi zuzurra, zorrotza eta aintzindua izan zuela aitortu behar. Gaur egun hizkuntzalaritzako atlasetan jasotzen den informazioaren antzekoa zela esango nuke, ez baitago, maila lexikoari dagokionez, alde haundirik. Hitzak jasotzeko arlo semantikoko sailak egin zituen, euskal kultura-etnografia tradizioiko lexikorik jatorrena bildu zuen. Hona hemen egin zituen sailak, berak azaltzen dituen arauera (1853: xlvii):

En los puertos de mar me detenía á saber los nombres de los: pescados, olas, tempestades, navegacion, navios y sus partes sin número, sus movimientos, direccion y gobierno.

En tiempo de sementera y cosecha iba a las caserías a preguntar de tanto: instrumento, de su manejo vario, de tan repetida diferente labor, tan multiplicadas acciones, tanta yerba perjudicial a los sembrados, la faena de innumerables objetos y, ejercicios en el: segar, recoger macollas manojos, montones, eras, trillos, etc..

Iba a un monte y allí me informaba de: los árboles, de sus especies, de las partes de cada uno, plantíos, cortes, trasmochos, de los arbustos y matorrales, fuentes, prados, arroyos, quebraduras, precipicios, cumbres, laderas, cuevas, hongos, setas, helechos, yerbas, flores y la diferencia y multitud de voces que en los mas de estos objetos se hallan.

zenezan bilduko zuen bildu zuena: eta horretatik jarrai daiteke Labort batizik ez aipatzea, kanpoin utziz gainerako lurralde biak, Behe-Nafarroa eta Zuberoa, jakina.

Allí de los animales y su diferencia de las aves y pájaros sin número, colmenas, abejas, hormigas, insectos, etc..

Gainera, behin eta birritan ere joan behar izaten zuen toki beretara, erantzumak deixiaren bitartez jasotzeko, lehenbizi hartutakoak ez bait ziren beti argi egoten.

Oletara ere joaten omen zen eta han jasotzen zituen:

los nombres de los minerales, venas, preparaciones, fundiciones, machinas, oficios, instrumentos, presas, saltos de agua, barquines y viento continuado sin ellos, masas, tochos, barras, planchas, ruedas, palancas, etc." (1835: xlvii)

Arlo bakoitza hain zehatz jasotzea eta horrelako ikuspegi argiarekin gainera harri-garria gertatzen da. Berak ez aipatu arren, beste asko ere jaso zituela gauza segurua da, hemen jaso ditugunak eta aipatzen dituen beste batzu adibide gisa baizik ez bait ditu ematen.

Deigarri gertatzen da, bestalde, Larramendiren adorea. Imaginatu behar da hain gizon nabarmen, ospetsu eta jakintsua goi-mailako ikasketetan aspaldidanik murgildua, baseritarrekin, marinel, olagizon, artzain eta herriko edozein gizon-emakume xehekin orduak eta orduak ematen beretzat, nahitaez, deus gutxiakoak izan behar zuten elkarriketetan. Horrek bai ematen duela aditzera zehabaleraino maite zuen euskara eta nola zuen barne-zolan sartua Euskal Herria.

Larramendik badu, bestalde, lehenetasunaren konzientzia, bere aurretik ez zuela inork hainbeste egin, alegia, edo egin bazuen ere, Oihenartek esaterako, gauza gutxi egin eta bertan utzi zuela²⁴.

4. Euskalkien sailkapenaz

Euskarak dituen dialektoen sailkapen eta banaketari dagokionez, gaia sakonduz eta hizketak ezagutuz doan neurrian, sailkapenak ere zabalduz eta zehaztuz joaten da Larramendi. Hasteko, *Arre*-an azaltzen du egiten duen euskal dialektoen lehenengo sailkapena. Bertan hiru euskalki besterik ez ditu zehazten (1729: 12-13):

... así el Bascuence tiene el dialecto Guipuzcoano, del Señorío, ò Bizcaíno ò Navarro, ò Labortano, que comunmente es uno mismo, aunque ay bastante mezcla de los demás dialectos, y es tambien lo que sucede en Alaba, que participa de todos ellos, mas ò menos sincopados, y variados.

Funtsean ez du eritzi hau erabat aldatzen Hiztegian, orohar formulaketa berdina egiten bait du, hiru euskalki nagusi seinatuz eta beste bigarren mailako batzuen aipamena ere eginez:

... apuntando algunos otros menores que sin regularidad se conservan y son indicio de que eran mas en numero en lo antiguo (1853: xxiv).

Halere, hurrengo kapituluetan, dialekto bakoitza deskribatzean, lapurtera ere sartzen du dialekto bezala, nafarreratik sortua dela dioen arren, eta, bide batez, Iparraldeko zenbait erabilera ezberdin ere aipatzen du. Euskalkien ezaugarriak ezartzerakoan Iparraldeko hiru euskalki bereizten dituela pentsa daiteke, baina, egia esan, ez dirudi nortasun osorik ematen dizkienik.

(24) "Algo empezaron a decir unos pocos vascos honrados: Poza, Oihenart, Echave, Garibay; pero se cansaron y retiraron, descubriendo poquísimo del arte, sintaxis, perfecciones, curiosidades y ventajas que ha-ce a las demás lenguas. [...] No ha habido ninguno que haya descubierto las riquezas del vascuence" (1969: 282).

Corografía-n heldutasun bat ageri da, gehiago sakondu eta aztertzearen heldutasuna. Ezagun da ahalegindu dela euskalkiak ikasten, bai testu idatzien bitartez, bai entzutez ere. Halere, zuberera ez duela asko entzun esango nuke, alferrikakotzat jotzen bait du ortografian "ou" eta "u" grafia ezberdinen erabilera.

"De los dialectos del vasconee y del particular de Guipuzcoa" kapitulu osoa, azken aurrekoa hain zuzen, euskalkiei eskaintzen die. Denen ezberdintasunak eta ezaugarriak seinalatzea lan luzea dela dio, "que puede emprender algún curioso vascongado" (1969: 295). Halere, euskalki bakoitzaren ezaugarri nagusiak aztertzen ditu: zuberera, lapurtera, bizkaiera, nafarrera eta gipuzkerarenak, azken honena sakonago eginez. Ez du garbi uzten horietako bakoitza euskalki propioztat hartzen duen ala, aurreko lanetan bezala, ez dien denei euskalki kategoriarik ematen²⁵. Pentsa daiteke, hizkera bakoitza berariz aztertzen duenez, bakoitzari nortasun propioa ematen diola, onartzen badu ere: "en cualquier dialecto, aun independientemente de los demás, hay sus diferencias, aunque son pocas y conocidas"; esan daiteke, beraz, hasierako ikuspegitik, euskararen euskalkiak hirura mugatzen zituenerokotik, alegia, bost euskalki onartzera igarotzen dela, dialektologiaz mintzatzen den, nire ustez, hondarreko lanean.

Azkenik bi hitz euskalkien mugei buruz. Bizkaieraren mugak aski zehatz jartzen ditu: "Este se habla en el Señorío generalmente y tambien por lo comun en Alava y los lugares rayanos de Guipuzcoa" (1853: xxv).

Bizkaiko azpieuskalkiak ere ezagutzen dituela dirudi, ongi bereizten bait ditu Ekialdekoa, hots, Markina eta Elorriokoa erdikotik. Gipuzkoako mendebaldeko lurraldean hizkera bizkaiera zela ere behin baino gehiagotan azaltzen du eta, oraino irauten zuen Bilboko hizketari buruz, hara zer zioen (1853: xxv):

Aunque en Bilbao se habla mal, no así en sus cercanías, donde la propiedad y pronunciación se conservan en su punto, y sucediera lo mismo en el mismo Bilbao si en este punto se picaran algo mas de vizcainos; ni en esto quiero decir que no haya en Bilbao quien sepa bien su dialecto, pues se hallan algunos.

Gipuzkeraren mugak finkatzeko ez zuen eragozpenik:

los interiores, empezando desde Elgoibar ó desde Azcoitia por el lado Septentrional, y desde Cegama y Segura por el de Navarra, hasta Irun y Fuenterrabia usan el dialecto de Guipuzcoa. (1853: xxvi)

Analisis egiterakoan Goiherri eta Beterri deiturak erabiltzen zituen, gero sail bakoitzean sartzen zuen herriren bat guretzat harrigarri gerta badaiteke ere han kokatua arkitzea. Bestalde, ez zebilen hain oker zioenean: "en Fuenterrabia, Irun y Oyarzun participan algo del dialecto labortano y aun de su tonillo gustoso". Beste ezaugarrietan ere antzeman zien herri hauekako hizkerei, gipuzkerarengandik aldentzen zirela, alegia.

5. Euskalkien berdintasunaz / ezberdintasunaz

Larramendi, euskararen apologia egiterakoan, euskalkiez baliatu zen euskara beraren defentsa egiteko. Nolabait esateko, dialektoen kontzeptua ezberdintasunean oinarritzen bada ere, hizkuntzaren erabilera bereziek sortzen bait dute dialektoa, Larramendik ikuspegi bateratuaz ikusten eta agertzen ditu; euskalkiak hain ezberdinak

(25) Honako frase honetan euskararen mugak jartzen ditu edo, bestela esan, euskara hizkuntza nora hedatzen den azaltzen du, baina inondik ere ez euskalkien banaketa diatopikoa: "... los dialectos del vasconee, que está derramado en España por las provincias de Guipúzcoa, Vizcaya, Alava y Navarra la Alta, y en Francia por Navarra la Baja, Labort y Zuberua o país de Soule" (1969: 295).

izanik, ezberdintasun horiek ere erregela bakar batez hartzen ditu, euskalki denentzat eta euskara berarentzat balio duelarik. Bertzela esan, Larramendik ezberdintasunean ere batasuna ikusten du. Ikus dezagun *Arte*-an azaltzen duen adibideren bat:

Tambien tienen lugar —adizki batzuei buruz ari da— en todos tres dialectos, cuya diversidad consiste, no en los modos de infinitivo, sino en los auxiliares, que pondremos en sus lugares, à lo menos los del Indicativo, contentandonos con poner el Guipuzcoano aun en el Subjuntivo, por cuya norma facilmente sacará cada Bascongado los suyos (1729: 65).

Aditz iragankorraz ari denean ere dio:

En estas conjugaciones, están mas que en otras mezclados los dialectos, de manera, que muchas terminaciones, que son del uno, se practican en el otro; pero esto no importa, para que aquí se deban separar los que pertenecen a cada dialecto, y para que los que estilan un dialecto, puedan hablar en consecuencia (1729: 141).

Gramatika ere horrela antolatzen du bizkaierari “Dialecto I” deituz, lapurtera / nafarrerari “Dialecto II” eta gipuzkera markatu gabeko euskalki bezala uzten du, forma orokor bezala, seinalatu gabe zein den, nahiz batera nahiz bestera aplikatu daitekeelarik.

Euskalkien ezberdintasunak Hiztegian ere berdin definitzen ditu:

...las propiedades que se hallan en uno se hallan tambien en el otro (1853: v).

Edo beste pasarte honetan, non, zenbakiez aditzaren joskera era guztiak eman ondoren, jarraitzen duen (1853: xviii-ix):

De manera que en los tres dialectos salen sesenta y nueve modos distintos de conjugar; pero todos con raíces ciertas, infalibles, con un mismo modo de formar los tiempos.

Benetan nabarmena plateamendu hau. Larramendi ez dago inoiz loturik latinaren kultura linguistikora, eta konturatzen da euskal aditzaren originaltasun eta erregular-tasunaz, baina ez aditzaren sistema berari dagokion neurrian bakarrik, dialektologiaren ikuspegiz, erkaketaren bitartez, euskalki guztiei dagokien alderditik baizik. Hau da, euskalkiek duten erregular-tasunaren kontzientzia hartzen du perspektiba orokor batez, dibertsitateak edo bereizketak amankomunak diren elementuez zuzendurik daudelarik. Egia esan, ez dut uste gure garaira heldu arte horrelako planteamendurik egin denik. Dialektologiak beti egiten zituen bere analisiak, aditzaren sistema dialektalarenak alegia, irilatutik, ikuspegi orokor eta sistematzaturik gabe. Eta, nire ondorioetan urrutiegi joan nahi ez badut ere, estrukturalismoa aplikatu ez zaion bitartean ez dut uste dialektologiari horrelako tratamendurik eman zaionik.

Lexiko mailan ere Larramendi aurrelari bezala agertzen da. Hizkuntza barruan “riqueza formal y *per se*” eta “riqueza material y *per accidens*” deitzen dituenak bereizten ditu. Lehenengoarena hona zertan datzan (1853: viii): “la variedad de preceptos, en la seguridad de las reglas, en la hermosura y armonía de la sintaxis”. Eta materialena berriz: “en la multitud de vocablos sueltos, sean sinónimos ó no lo sean”.

Euskalkiez eta hitzetan duten aberastasunaz baliatzen da, hain zuzen ere hizkuntza bera orokorki aberasteko. Eta beste mailetako ezberdintasunek ere ez dute jokatibide hori urratzen:

Qué importa que tenga diferentes dialectos en cuanto á las terminaciones del verbo, si son tan arregladas y consiguientes? Lo mismo digo de los dialectos en los artículos de los nombres, y en toda la sintaxis (1853: xxxiv).

Euskarari aberastasuna euskalkien banaketatik datorkiola maiz esaten du. Hiztegiaren sarreran, esaterako. XII. kapituluari (xxi. or.) honako izenburua ezartzen dio: "El bascuence es delectable por la variedad hermosa de sus dialectos". Eta jarraian dio:

No es tal, dirán algunos, sino muy enojoso y desabrido, por la mucha confusión de sus dialectos, en que el guipuzcoano no entiende al vizcaino, ni al contrario el vizcaino al guipuzcoano, y ni á uno ni á otro el navarro, alavés y labortano. Pero los que tal digieren no saben de música, ni como variedad de tonos resulta una armonía consonantísima...²⁶

6. Euskalkien ezaugarriak

Euskalkien deskribapena Hiztegian eta *Corografía*-n, batez ere, egiten du. Deskribapen diatopikoa eta linguistikoa egiten ditu, bata ere oso zehatza denik ezin baldin bada esan ere. Ezaugarri linguistikoak adibide moduan ezartzen ditu eta fenomeno konkretu batzutan oinarritzen da. *Arte*-an ez du berdín egiten, han aditza, aipaturiko hiru euskalkien arauera, sakontasunez azaltzen bait du.

Ortografia

Zenbait kasutan, arau ortografikoak ere azaltzen ditu euskalki guztietan batasun bat bilatuz. Esaterako zubererako "ü" eta "u" bokalei huruz hitz egiterakoan, ez zitzaion ongi ez beharrezko iduritzen han idazkeran egiten zuten bereizketa (1969: 296):

... escriben *Guizouna*, *Gincoua* por *Guizuna*, *Gincua*, que es su pronunciación, y siguen en esto al francés sin necesidad alguna, pues en vascuence no hay diferencia de pronunciación en la *u* que siempre suena a la española.

Iparraldeko <k> grafari ere ez dio ongi erizten, <k>-rekin idatzirikoak, <ekia>, <uken>, <ukan>, gaitzetsiz eta <equia>, <uquen>, <uquan>, <qu>-rekin idatzirikoak, onartuz. Era berean, erabiltzen zen <ç>, ze hautsia, baztertu eta <c> eta <z> erabiltzeko gomendatzen zuen.

"H" letraren aurka askotan jartzen da, batez ere leherkari aspiratuetan baztertu egin beharko litzatekeela esanez. "H" ortografikoa bereizgarri gerta daitekeen kasutarako uztea gomendatzen du, bere garaian Hegoaldean egiten zen bezala: *hori*, *ori*; *hura*, *ura*; homonimoak bereizteko, alegia.

Gaskoiaren eraginez mihipunta hobietako afrikari ahoskabea idazteko erabiltzen zen "x" ortografikoa ere gaitzetsi egiten du, "is" formaren alde agertuz.

Ezaugarri linguistikoak

Euskalki batzutan, zubereran, nafarreran —gaur hegoaldeko goi-nafarrera deitzen duguna—, eta lapurteran, ezaugarri bereizleak adibidetzeko testu literario idatziez baliatzen da neurri batean. Bizkaieraz eta gipuzkeraz gertaera ezberdinak seinatlatzen ditu lurraldeen arauera, gipuzkeraz batez ere; beste guztiak orohar hartzen ditu, berak aitortzen duen bezala, ondo ezagutzen ez dituenaren ondorioz. Behe-Nafarrera ez

(26) Urruti samar gelditzen dira Sarnientoren hitzak, fontsean gauza bera diotela badirudi ere. 1760. urtean, *Tentativa para una lengua general*, zioenean: "A diez leguas que disten entre sí estos países, aun usando de la misma lengua, no concuerdan en la pronunciación, no sólo de una dicción, pero ni de tal y tal letras, ni del acento o tonillo". Lazaro (1949: 118-119)-tik hartua.

du aipatzen, eta ipar goi-nafarreraren erreferentzia zehatzik ere ez egin arren, jakin, badakigu lapurteraz bat egiten zuela²⁷.

Maila fonetikoa

Bokalismoan:

Zubereraren "ü" eta "u" bokalen arteko ezberdintasunik ez du egiten. "ü" bokalaren ahoskera ezagutzen ez zuelako, ziurrenez.

Bizkaieraren "i">"u" bokalaren tinbre aldaketa: *urten, ulea, uria, ucutu, lurrundu*, azaltzen du.

Armonia bokalikoaren "-e > a -ia" kasua, zubereraz, bizkaieraz eta lapurteraz agertzen du²⁸.

"-a + -a > -ea" (G) Azpeitia-n.

Bokalaren inflexioz gertatzen den aldaketa: "bajane < bai jaune"-tik, Grotteri-n.

Geminazio bokalikoa: bokalez amaitzen diren hitzetan, plurala egiterakoan, Goyettri-n: *anditic, chiquitic, guciic, escuuc, huruuc, deabruc berequin ditu*.

Ezaugarri suprasegmentaletan asko lizjaten da eta, bere ustez, ez da berdín gizonena ala emakumeena izan, azken hauen ahoskera askoz ere gustokoagoa gertatzen delarik, gizonena baino samurragoa eta biziagoa; zubereraz, hagitx gogorra eta giza-semekola dela ahoskera dio. "muy varonil y fuerte", eta bizkaieraz gizonak zakar samar hitz egiten dutela²⁹.

Azpinarratzekoa da, bestalde, ezaugarri prosodikoei ematen dien garrantzia, doinuari azentuari baino gehiago, azentua ere oso garrantzitsua delarik Larramendirentzat, maiz eta bereziki seinalatuz. Hainbat aldiz aipatzen du hizketa batzuen "el tonillo gustoso", gipuzkerarena eta, batipat, lapurterarena.

Kontsonantismorako honako kasu hauek azaltzen ditu:

Aspiraketa Iparraldean bakarrik, hemen zuberera delarik gehien aspiratzen duena.

Xistukari mailan Iparraldean sabai-aurreko igurzkarri ahoskabea hasierako posizioan; bizkaieraz eta gipuzkeraz afrikuria.

Sudurkariaren arteko altemantziak "n / ñ"-ren artekoak, lehenengoa lapurteraz eta bizkaieraz; bustia berriaz, (G)-z. Bizkaieraz *dino / diño* formarekin altematuz.

[x] belare igurzkarri ahoskabea gipuzkeraz "gutural y fuerte" dela dio eta

que es contra la costumbre de todos los demás dialectos y parece pronunciación pegadiza.

Bizkaieraz xistukariaren artean nahasketaren bat somatzen du, baina, nire ustez, ez du ondo asmatzen, *za* eta *tza*-ren arteko nahasketa azaltzen bait du: *atza* > *aza* ahoskera salatzen du esanahi ezberdineko lexemak nahastuz.

Bizkar hobietako igurzkarri ahoskabearen bustidura bizkaieraz *acha, gacha, evacha*.

(27) Ezaugarri hauek *Diccionario Trilingüe* eta *Corografía* lanetatik jaso ditugu; hiztegian xxiv-xxvi, or. azaltzen dira eta, bestean, berriaz, azken aurreko kapituluak: "De los dialectos del vascuence y del particular de Guipúzcoa" (295-302, or.) deritzanetik jaso dira.

(28) Bestela ere, bi euskalkien artean parekotasun eta berdintasunak gertatzen zirela antza ematen zion.

(29) Bere iturri klasikoetan Cicéron eta Quintiliano maiz agertzen dira dialektoez hitz egiten duenak. Kasu hoteian ere, Cicéronek grekoarentzat zioena testigantza bezala dakur (1853: xxv).

Prisaka hitz egiteagatik zenbait euskalkietan laburdurak gertatzen omen dira:
 Bizkaieraz: *jaten dot* > *jateot*; *jaten deusat* > *jateutsat*; *badauco* > *bauco*;
enzunegizu > *enzuzu*
 Gipuzkeraz: Azpeitia eta ingurutan:
ondo diala > *bia ondo*; *eguin genion* > *eguingon*; *emadazu, esadazu* < *eman*
eguidazu, esan eguidazu

Morfologia mailan ez du deklinabidearen bereizketarik hatere azaltzen, *-kotz* Iparralderako *-ko* Hegoalderako atzizkia izan ezik. Aditzari buruz, aldiz, adibide ugari jartzen ditu; hona, *Arte*-an azaltzen dituen paradigmotatik kanpo, garrantzitsuenak:

Bizkaieraz partizipioetan, berak infinitibo deitzen dituenak, *ten* eta *-du* bukaerak: *jostetana, amadu*. Baina, *urtu, artu, otzitu* e. ab. gertatzen direlarik, Iparraldean, lapurtera kanpoan utzi gabe, *uquen, ucan* partizipioak, hegoaldeko *izan*-en parean, iragankorra ala iragangaitza gertatzen diren berezi gabe. Erradikalen erabilera Iparraldean: *etzezazula har, ez ebas, ez quen*, hegoaldean, berriz, partizipioz: *etzezazula* edo *etzaguizula artu, ez ebausí, ez quendu*. Baina, halere, "es verdad que también nosotros hacemos lo mismo cuando anteponemos el verbo a la terminación *arbeza, arrezac*, etc."

Oihartzunen *esain, emain* eta *eguiñen dut* eta "lo mismo en sus vecindades de acá y de Navarra".

Iparralderako laguntzaile iragankorretan: *darot, deraut, draut*. Eta gipuzkeran, Azpeitia eta Azkoitian: "hallo una terminacion verbal, y es *dirautzat, dirauzquit*, por *diozcat diauzcat, dizquit, diauzquit*; pero no las siguen en todas las transiciones del verbo".

Irundik hasi eta Errenderiraino: *dut, duzu, eginen dut*. Donostia eta Tolosa inguruetan, aldiz, *det, dezu, du* ("y debiera de ser *deu*"), *degu, dezue, dute* ("y debiera de ser *deue*").

Eieizalderen dotrinan oinarrituz, Nafarroan gertatzen den aditz iragana: *baice, jaio ce, zue, il zute, jaitsi ce*. Baina ez, Utergako J. de Beriainen; horrez gain, "tiene este dialecto otras diferencias, aun dentro de Navarra", beste zehaztasunik azaldu gabe.

Faktitiboetan, berak "pospositivo *faire faire*" deitzen duena, Iparraldean: *araci; maitaraci; besarcaraci* Hegoaldean: *erazo, eraguin; muterazo, besurcarazo*.

Donostian solezismo bat gertatzen dela salatzen du: *esango nazu formarena*, alegia.

Joskera mailan ez du bereizketarik azaltzen.

Adverbioak egiteko atzizkiren bat seinaltzen du eta lexikorako ohar orokorren bat salbu ez du hitzen erabilera bereizten. Beterrin *pinpilipauva, inguma, mitxeta, ulifarfulla* beste tokikoen parean. Euskarazko hitzak izan eta gaztelera-koak erabili behin baino gehiagotan gogor salatzen duen jokabidea da hori³⁰.

(30) Zentzu honetan aski esanguratsuak gertatzen dira honako hitz hauek: "Lo que me da mucho enfado en todos los dialectos es que usan del *Done* y *Dona* por *Santo* y *Santa* en muchas ocasiones, y no obstante usan del *San* y *Santa* en el uso corriente. Dicen *Donestebe, Donibane, Donostia* por San Esteban, San Juan, San Sebastian, Dicen *Andre Dena* y *Dona Maria* por la Señora Santa Maria; *Juan Done* y *Jondone Meuri* por el señor San Emeterio [...]. Y fuera de estas ocasiones se valen del *Santo* y *Santa*..." (1969: 299).

7. Ondorioak

Badirudi Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako hizkerak ez zituela ezagutzen, ez bait zuten literatura idatzirik. Eta, batez ere, Nafarroako eta Behe-Nafarrerako beste toki batzutako hizkerak ere, literatura faltaz edo ezagutu gabe geldituko zen. Bestalde, Etxepare ere ez zuela ezagutuko pentsarazten digu.

Penagarria da *Corografía* liburuan Gipuzkoako ohiturak, hegazti, abere, lanen eta tresnen eta hainbat gauzen deskribapenak egiten dituenen euskaraz ez azaltzea edo, bestela esan, *Corografía* bera euskaraz idatzia ez izatea, hainbeste lan nolobait galdu egin bait da. Egia da, bai, hiztegia hor dagoela, baina hiztegia jartzen dituen hitzak nongoak ziren, non jaso zituen ez esatearekin, euskal dialektologiak lexiko mailan eduki zezakeen iturririk aberatsena galdu egin da. Garaia bestelakoa zen eta ez diezaiozun Larramendiri ere gehiegi eskatu.

Halere, bere garaiko semea izanik, gauzarik miresgarriena da nola berreskuratu zuen euskara Salamancan eta nola egin zuen Artea, eta hagitzik harrigarriago gertatzen dena oraindik, euskalkiak ere sartu zituela, ez zuelako gipuzkera soilaren gramatika egin, bizkaiera eta lapurterarena ere bai.

Hemen azaltzen saiatu garen apurtxoak ere, uste dut, aski dela Larramendik ez bakarrik euskarari, euskal dialektologiari ere bideak ireki zizkiola ikusteko. Eta euskal dialektologiari ezezik, dialektologia orokorrari ere ekarririk garrantzitsuenak eskaini zizkion, beste inork baino aspalditxo lehenago, eta hori jakinerazi egin behar da.

Jovellanosengan izan zezakeen eragina oraingoz ongi frogatu gabe gelditzen bada ere, itxurek oro Larramendi ezagutu izanen zuela agertzen dute. Edonola ere, Jovellanosek baino mende erdi lehenago esan zituen Larramendik gero hark esango zituenak. Eta, agian, hark baino gehiago ere ez ote zuen esan? Defenda dezakogu, beraz, kezkarik gabe Larramendi dialektologiaren aintzindaria izan dela.

Azkenez, gogor salatu behar dena hauxe da, Larramendiri buruz izan den isiltasuna, joan zen mendean eta, batez ere, mende honetan. Garai hari buruzko egin diren dialektologia lanetan Mitxelenaetik kanpo, inortxok ere ez dio aipamen txikienik egin. Harrigarria eta lotsagarria dela esango nuke, ulertezina ez bada ere.

Bibliografía

- Bareño, F., 1910, *Ideas pedagógicas de Jovellanos*, Gijón.
- Catalan, D., 1955, *La escuela lingüística española y su concepción del lenguaje*, Madrid.
- Elizalde, I., 1984, "Jovellanos, el folklore y la siderurgia vascos", *Muga* 29, 72-81.
- Jordan, I., 1967, *Lingüística románica*, Madrid, (Alvar-en edizioa).
- Larramendi, M., 1853 (1745), *Diccionario trilingüe castellano, bascuence y latín*, Pío Zuaza, San Sebastián.
- , 1979 (1729), *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Hordago (ed. fak-simila).
- , 1969, *Corografía o descripción general de la M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa*, San Sebastián, (Tellechea Idigorasen edizioa).
- , 1983, *Sobre los Fueros de Guipuzcoa*, San Sebastián, (Tellechea Idigorasen edizioa).
- Lazaro Carreter, F., 1949, *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, Madrid.
- Mitxelena, L., 1959, *La obra de Manuel de Larramendi (1690-1766)*, Cuadernos de la Cátedra de Feijoo, Oviedo, (Orain *Sobre historia de la lengua vasca-n. ASJUren* gehigarriak 10, Donostia 1988).
- Pop, S., 1950, *La dialectologie. Aperçu historique et méthodes d'enquêtes linguistiques*, (2 lib.), Lovaina.

- 1955, *Bibliographie des questionnaires linguistiques*, Lovaina.
- Río, A. del, 1943, "Los estudios de Jovellanos sobre el dialecto de Asturias", *RFH* V, 209-243.
- Tellerxea Idígoras, I. eta Lekuona, M.: 1966, "Gabon kantak de Gernika (1774). Un documental del euskera vizcaíno del s. xviii", *BAP* XXII.
- Tovar, A.: 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madrid.
- Urkizu, P.: 1989, *Pierre D'Urteren Hiztegia*, 2 lib., Donostia.

Manuel de Larramendi y el acento vasco

JOSÉ IGNACIO HUALDE

(University of Illinois)

1. Ha llegado, sin duda, el momento de reevaluar y reivindicar la figura del muy denostado Manuel de Larramendi, como lo hace Ibon Sarasola en su prólogo a la versión castellana del libro de Bernardo Atxaga *Obabakouk*. Por mi parte, quiero limitarme en este artículo a examinar la contribución de Larramendi al estudio del acento vasco. Como otros aspectos de la obra de Larramendi, su tratamiento del acento vasco ha sido mirado con desconfianza por autores más recientes. A pesar de ello, la lectura pausada de lo que sobre el tema nos enseña Larramendi no puede menos que sorprendernos gratamente por la exactitud y el detalle de la descripción de un tema, como éste, sobre el que opiniones tan dispares y disparatadas se han vertido.

En su obra *El imposible vencido: Arte de la lengua bascongada*, publicada en 1729, Larramendi nos ofrece una exposición del acento vasco de las más detalladas y precisas que poseemos. Lamentablemente, sin embargo, esta descripción no ha tenido gran influencia en autores posteriores. La mayoría de los autores que se han ocupado del tema, o no mencionan la contribución de Larramendi o lo hacen sólo con excepticismo. He de confesar que yo tampoco me había tomado la molestia de hacerme con un ejemplar de *El imposible vencido* hasta ahora, dada la poca confianza que la obra de Larramendi parecía inspirar a autores más modernos. Leídas las páginas que al acento dedica Larramendi, no me cabe la menor duda de que nuestro autor es de bastante más confianza en este asunto que muchos de los tratadistas más cercanos a nosotros en el tiempo.

2. Los diversos autores que se han ocupado del tema (Azkue y Michelena, entre ellos) han coincidido en señalar la existencia de un tipo acentual que podemos denominar occidental cuyo ámbito se extiende por las provincias de Vizcaya y Guipúzcoa, aunque sin cubrir esta área de un modo completo. El examen de los datos muestra que la característica fundamental de este tipo de acentuación es que se basa en una distinción léxica entre morfemas marcados o acentuados, por una parte, y morfemas inacentuados, por la otra. Los efectos de estos diferentes tipos de morfemas no son los mismos en todas partes. En un subtipo que en otras ocasiones he identificado como tipo de Gernika y que, con diferencias sólo superficiales, es el mismo que se emplea en Bermeo y en Getxo, por ejemplo, los morfemas acentuados pueden ser acentuados en sentido estricto o preacentuantes (si asignan el acento a la sílaba anterior). Cuando una palabra contiene más de un morfema acentualmente marcado, el primero de ellos determina la posición del acento en la palabra. Así en una palabra como *bilbotarrak* 'los bilbainos' los tres morfemas que contiene son marcados, la raíz */bilbo/* que es acentuada, el sufijo derivativo */-'tarr/* que es preacen-

tuante y el sufijo /-ak/ del absolutivo/ergativo plural que es también preacentuante. De éstos, es el primero el que determina la posición del acento. En palabras que sólo contienen morfemas inacentuados hay generalmente prominencia en la última sílaba; pero esto es sólo un efecto a nivel de frase. En posición no final dentro de la frase, las palabras que contienen sólo morfemas inacentuados generalmente no reciben prominencia especial en ninguna de sus sílabas.

En Lekeitio y Ondarroa, por otra parte, el efecto que producen los morfemas marcados es el de asignar el acento a la penúltima sílaba, haya sólo uno o más de uno de estos morfemas en la palabra, como en *bilbotárrak*. Esto hace que en este subtipo todo contraste acentual se limite en la superficie a una oposición binaria entre palabras marcadas con prominencia en la penúltima y palabras no marcadas, que sólo reciben prominencia al nivel de la frase fonológica. Como he señalado en alguna otra ocasión (Hualde 1989, 1990), en la obra de Azkue encontramos una descripción bastante exacta del subtipo acentual de Lekeitio. Su distinción entre vocablos monótonos y dítonos y entre sufijos átonos y tónicos, así como su caracterización del corrimiento hacia el final de la palabra del efecto acentual de los morfemas marcados, es totalmente conforme con los hechos de Lekeitio.

En otras variedades se encuentran otras diferencias importantes. Por ejemplo, el subtipo de Arratia no corresponde a ninguno de los dos que hemos mencionado.

En lo que se encuentra un acuerdo notable entre variedades del tipo occidental es en cuáles morfemas son marcados. Por ejemplo, los morfemas de plural, el ordinal /-garren/, el superlativo /-en/, o raíces como *hésté*, *áurre*, *kámpo* entre otras muchas, son marcados en todas las variedades con acento del tipo occidental. Un gran número de compuestos aparecen también con acentuación marcada, generalmente con acento en la última sílaba del primer miembro del compuesto, aunque también puede caer el acento sobre la primera sílaba del segundo componente.

Conviene hacer la salvedad que en muchas localidades dentro de la zona cubierta por el acento occidental no se encuentra hoy en día una acentuación de este tipo. La pérdida ha sido muy reciente en algunas localidades, donde se conserva sólo entre hablantes de una cierta edad, pero puede tener cierta antigüedad en otras partes, como en Oñati. En general, la acentuación de tipo occidental parece mejor conservada en Vizcaya que en Guipúzcoa, aunque por la obra de Larramendi, podemos concluir que hace no tanto tiempo era también bastante general en Guipúzcoa.

3. La descripción que Larramendi nos da del acento vasco en las páginas 340-372 de *El imposible vencido* se ajusta al tipo occidental y difiere en poco de lo que encontramos en dialectos actuales.

Para empezar, Larramendi señala que la mayoría de las bases sin sufijos de flexión llevan acento en la última sílaba: *guizón* 'hombre', *egún* 'día', *eskú* 'mano', *arri* 'piedra'. En las formas del singular de estas bases, el acento cae también sobre la última sílaba, aunque en el benefactivo y el comitativo (casos estos formados sobre el genitivo), Larramendi admite la posibilidad de tener acento en la penúltima. En el plural el acento cae sobre la última de la base (no la última de la palabra):

(1)	singular	plural
abs	guizoná	guizónac
erg	guizonác	guizónac
dat	guizonarí	guizónai
gen	guizonarén	guizónen(a)

ben	guizonarentzát / guizonaréntzát	guizóntentzát
com	guizonarequíñ/ guizonaréquin	

Si comparamos estos datos con los hechos acentuales del subtipo de Gernika la coincidencia es prácticamente perfecta.

Conviene dar aquí algún detalle sobre la realización fonética del acento. En una amplia zona de Vizcaya, en entonación enunciativa, la frase o palabra aislada recibe un tono alto que se extiende generalmente desde la segunda sílaba hasta la sílaba que marcamos con un acento gráfico y, a partir de aquí hay una brusca caída en el tono. Esto es, una palabra que marcamos como *guntzurrúnek* 'los riñones' podríamos representarla como *guntzurrúnek*. En palabras que sólo contienen morfemas inacentuados no hay caída de tono, sino que éste se mantiene hasta el final: *guntzurrúnék* 'el riñón, erg'. En algunas variedades, como las de Getxo, hay una clara subida de tono en la última sílaba en este caso. Esta mayor prominencia de la sílaba final en las palabras inacentuadas no es tan clara, pero todavía perceptible en Lekeitio o Arratzu. En otras variedades, esto no es siempre así, aunque hay motivos para pensar que la última sílaba recibe prominencia a un nivel más abstracto. También hay variedades que presentan prominencia en la penúltima de la frase si esta se encuentra en final de enunciado, como veremos más adelante. Los siguientes ejemplos son de la variedad de Getxo, variedad esta en que la prominencia de la sílaba que marcamos con un acento gráfico no ofrece ninguna duda de interpretación:

(2) Getxo

	singular	plural
abs	gisoná	gisonák
erg	gisonák	gisonák
dat	gisonari	gisonari
gen	gisonán	gisonan
ben	gisonántzát	gisonantzát
com	gisoná(g)as	gisonakas

Nótese la concordancia con el paradigma que da Larramendi y que hemos transcrito en (1).

En un caso se aparta la variedad de Getxo de la situación más normal en el área de Gernika: esto es en la acentuación del benefactivo singular. Mientras que en Getxo encontramos *gisonántzát* o *gisonántzako*, en Arratzu, por ejemplo, tenemos *gixonantzát* o *gixonantzakó*. Es decir, el benefactivo singular es un morfema inacentuado en Arratzu pero acentuado en Getxo (o, mejor dicho, el sufijo /-tzat/ del benefactivo es preacentuante y asigna el acento a la sílaba precedente, que contiene el morfema de genitivo). Es, pues, interesante el notar que Larramendi ofrece ambas posibilidades para el benefactivo singular. El otro caso del singular en que encontramos una acentuación marcada en el subtipo de Gernika es el comitativo singular. Nótese que para este caso también da Larramendi como posible una acentuación no final, aunque la morfología en este caso es diferente en los dialectos guipuzcoano y vizcaíno.

Es curioso que a pesar de tener un morfema distinto la acentuación marcada del comitativo se encuentra en ambos dialectos.

Los ejemplos que hemos ofrecido hasta ahora como punto de comparación con los datos de Larramendi han sido de variedades vizcaínas. Esto es porque tenemos mejor información sobre los hechos prosódicos de esta variedad que de las de tipo guipuzcoano. Dado que nuestro autor, presumiblemente basa su descripción en su habla nativa de Andoain, puede ser útil, de todas formas, dar alguna indicación en este lugar sobre lo que sabemos de los diferentes tipos de acentuación que se utilizan en la actualidad en la zona de dialecto guipuzcoano.

Todo parece indicar que en épocas pasadas en una gran parte del territorio de dialecto guipuzcoano se utilizaban sistemas acentuales similares a los que encontramos en amplias zonas del territorio de dialecto vizcaíno. El testimonio de Larramendi viene de hecho a confirmar esta suposición. Hoy en día este sistema se ha simplificado considerablemente o se ha perdido por completo en muchas áreas.

En un gran número de localidades de habla guipuzcoana el acento no es fonológicamente contrastivo en la actualidad. Suele recaer normalmente sobre la segunda sílaba, con un acento secundario sobre la última (tanto en el singular como en el plural). A veces el acento recae sobre la primera sílaba y la última, sin que esto sea contrastivo. De todas formas, en algunas, pero no todas, de las variedades de este tipo hay palabras que obligatoria y contrastivamente presentan acento sobre la primera sílaba. Este tipo de acentuación se está expandiendo, siendo empleado en muchas áreas por las generaciones más jóvenes, mientras que los hablantes de mayor edad presentan un sistema de otro tipo.

En partes de la zona del Goierri guipuzcoano, en palabras cuya base tiene una o dos sílabas el acento recae sobre la segunda en el singular, pero sobre la primera en el plural: *zakúrrak* 'el perro, erg' vs. *zákurak* 'los perros, abs/erg'; *zakúrran etxia* 'la casa del perro' vs. *zákurran etxia* 'la casa de los perros'; *lurrian* 'en la tierra' vs. *lúrretan* 'en las tierras'. Si la base tiene tres o más sílabas, sin embargo, el acento recae sobre la segunda tanto en el singular como en el plural: *emákumiak* 'la mujer, erg o las mujeres abs/erg'. Por otra parte, algunas palabras con base bisilábica tienen acento fijo sobre la sílaba inicial en el singular y el plural (cf. Hualde 1991a). Este es aparentemente el tipo de sistema que Txillardegui (1984) asume como básico en vasco occidental.

Todos estos tipos pueden muy probablemente haber derivado de sistemas más complejos como los que hemos descrito para ciertas zonas de Vizcaya y como el que describe Larramendi. Sistemas acentuales muy similares se encuentran en partes de Guipúzcoa como la zona de Azkoitia y Azpeitia y también, ya en el área de Guipúzcoa que se suele considerar de dialecto vizcaíno, en Eibar (cf. Laspiur 1979) y en Bergara (cf. UNED-Bergara 1988). Es probable que sistemas similares se utilicen también en otras partes de Guipúzcoa.

En Azpeitia sólo los hablantes mayores de una cierta edad mantienen el sistema de oposiciones acentuales. Todos los hablantes jóvenes que he podido consultar habían perdido estas oposiciones o mostraban una gran inseguridad. El sistema se mantiene, sin embargo, también entre hablantes jóvenes en núcleos de población más pequeños en el área circundante. Los datos que presentaré aquí me han sido facilitados por una hablante de Urrustil, Ana Bastida, y han sido confirmados por el profesor Altuna, nativo de Azpeitia (cf. también Altuna 1979).

El sistema acentual de Azpeitia muestra puntos de contacto notables con el de Arratia-Zeberio (cf. Etxebarria 1988). Como este dialecto, el sistema de Azpeitia presenta el fenómeno de que las palabras de acentuación no marcada presentan acento penúltimo en posición inmediatamente antes de pausa. En otros contextos el acento no marcado es en la última sílaba de la unidad acentual. Así, pues, hay una regla de retracción acentual antes de pausa como puede observarse en los siguientes ejemplos, que debo a Patxi Altuna:

(3)	laguné (e)torri dek	'ha venido el amigo'
	zein etorri? lagúne	'¿quién ha venido?' 'el amigo'
	txakurrék jan du	'el perro lo ha comido'
	txakúrrek	'el perro, erg'

Esto hace que la distinción entre singular y plural se pierda en ciertos casos en posición final de enunciado.

Esta regla de retracción antes de pausa la encontramos también, como hemos mencionado, en Arratia-Zeberio y, con ciertas diferencias en el contexto, también en Ondarroa y Markina. Otros dialectos como los de Arratzu, Getxo o Lekeitio no poseen esta regla. Tampoco la poseía por lo que podemos deducir el sistema de Larramendi.

En posición no inmediatamente antes de pausa, el dialecto de Azpeitia muestra los siguientes contrastes acentuales entre el singular y el plural:

(4)	singular	plural
abs	laguné	lagúnek
erg	lagunék	lagúnek
dat	lagunéi	lagúnei
gen	lagunén	lagúnen
gen+abs sg	lagunéna	lagúnena
com	lagunékin	lagúnekin

Antes de pausa, la diferencia se neutraliza en el absolutivo, ergativo y dativo, al retraerse el acento de la última sílaba del singular a la penúltima (el genitivo no puede aparecer normalmente en posición final de frase). Esta neutralización no ocurre, sin embargo, en el vecino dialecto de Azkoitia, donde hay otra regla de retracción en el plural (y en algunos otros casos) que hace que el acento aparezca dos sílabas antes que la que contiene el morfema de plural cuando hay suficientes sílabas: *lagunek* 'los amigos abs/erg', *lagunei* 'a los amigos', *lagunena* 'el de los amigos' (En Azkoitia el sistema de oposiciones acentuales parece conservarse bastante mejor que en Azpeitia. Por información sobre este dialecto estoy agradecido a Lurdes Aranguren y Jaione Azpiazu). Esta es una regla que aparece también en algunos puntos dispersos de Vizcaya. Probablemente se trata de una innovación.

Una diferencia aparente entre el subtipo de Azpeitia, y el subtipo que hemos llamado de Gernika, es que, en el sistema de Azpeitia (lo mismo que en el de Arratia), el acento no se mueve cuando añadimos sufijos de singular al genitivo singular como en *lagunéna* 'el del amigo', mientras que en el sistema de Gernika hay corrimiento acentual a la derecha en este caso: *lagunená* 'el del amigo', *lagunenari* 'al

del amigo'. Este contraste es muestra de diferencias de alguna importancia en el sistema de reglas acentuales. Pero lo que nos interesa ahora es notar que de nuevo Larramendi nos ofrece ambas posibilidades: *guizonarená* y *guizonaréna*. Es evidente, pues, que Larramendi poseía unas dotes de observación nada comunes y un conocimiento notable de diversas variedades del tipo occidental.

En los casos locativos, como en la mayoría de los no-locativos el acento cae en la última sílaba de la palabra en el singular y en la última de la base en el plural. Los siguientes ejemplos son de Larramendi:

(5) Casos locativos (Larramendi)

	singular	plural
ines	echeán lurreán ceruán escuán	echéetan cerúetan
abl	echetíc lurretíc basotíc cerutíc	echéetatic lúrretatic basóetatic
gen	echecó lurrecó basterrecó	echéetacoa lúrretacoa
adl	echerà lurrerá landará obirá	

Aquí también los datos de Larramendi coinciden exactamente con los de dialectos modernos, con la salvedad de que en todas las variedades vizcaínas de que tengo información el sufijo /-tik/ del ablativo es acentualmente marcado. Así, en Arratzu, por ejemplo encontramos las siguientes formas, donde el ablativo singular recibe el acento en la sílaba que precede al sufijo, lo mismo que en las formas de plural:

(6) Casos locativos (Arratzu)

	singular	plural
ines	etzién basoán	etziétan basóatan
adl	etzerá basorá	etziétara basóatara
abl	etzétik basótik	etziétatik basóatatik
gen	etzekó basokó	etziétako basóatako

En Azpeitia, sin embargo, el ablativo se comporta exactamente igual que los otros casos; esto es, tiene acentuación no marcada en el singular, coincidiendo con lo que nos dice Larramendi:

(7) Casos locativos (Azpeitia)

	singular	plural
ines	lurrién	lúrretan
adl	lurreá	lúrretara
abl	lurretik	lúrretatik
gen	lurrekó	lúrretako

En el comportamiento acentual del sufijo /-tik/ parece haber una separación entre las hablas de tipo vizcaíno, donde este sufijo es preacentuante, y las de tipo guipuzcoano, donde no lo es. La acentuación que señala Larramendi es la que se encuentra en hablas guipuzcoanas.

Igual que con *guizonarená* y *guizonaréna* Larramendi admite variación entre *echeoá* y *echeoá*, que contiene una combinación de dos sufijos singulares. Esta variación es también real y la encontramos hoy en día entre los dos mismos subtipos acentuales que venimos comparando (Gernika y Azpeitia).

Hay palabras que no se ajustan al esquema acentual que hemos visto. Estas son palabras que contienen una raíz o sufijo derivativo acentualmente marcado. Una característica general del sistema occidental de acentuación, que ya hemos mencionado, es que, en palabras que contienen más de un morfema acentualmente marcado, es el primero de ellos el que determina la localización del acento en la palabra. De esto se sigue que si la raíz es marcada, toda distinción introducida por sufijos se neutraliza. Por ejemplo, la distinción entre plural y singular se pierde con una base marcada como *béste* 'otro': *béstiek* puede ser ergativo singular o absolutivo/ergativo plural y *bésteri* puede corresponder tanto a 'al otro' como 'a los otros' (formas de Arratzu-Gernika). Así mismo la distinción que encontramos en Gernika entre *etzerá* y *etzetik* se pierde con bases acentuadas como *léku* 'lugar' o *Bilbo*: *lékure*, *lékutik*, *Bilbora*, *Bilbotik*.

Larramendi no nos dice nada acerca de bases monomorfémicas de acentuación marcada, con una excepción: los nombres propios. En el caso de los nombres propios, si nos dice que conservan el acento donde lo llevan en su forma no inflexionada. Así un nombre como *Pédro* que lleva acento en la primera sílaba, lo mantiene en ésta cuando se le añaden sufijos de flexión: *Pédroena* 'el de Pedro', *Pédrori* 'a Pedro', *Pédroentzat* 'para Pedro'. En esto tampoco se aparta la descripción de Larramendi de lo que encontramos en dialectos actuales. Lo que resulta más sorprendente (al menos para mí) es que, de acuerdo con Larramendi, el acento también se mantiene fijo cuando cae en la última sílaba de la base de un nombre propio: *Martín*, *Martí-nena* 'el de Martín', *Martíni* 'a Martín'. En esto sí que difiere la descripción de Larramendi de los dialectos de que tengo datos. En los dialectos que he investigado toda base que lleva acento final en su forma libre, incluyendo nombres propios, se comporta como inacentuada cuando se le añaden sufijos declinativos: *Martínená* 'el de Martín', *Martíni* 'a Martín'.

Entre los nombres propios de lugar, Larramendi menciona el de *Búrgos*, con acentuación marcada (fija): *Búrgosen*, *Búrgoseco*, *Búrgosetik*, *Búrgosera*, *Búrgoseron*. Con acentuación no-marcada (móvil) nos da las formas *Erromán* 'en Roma', *Erromatic* 'desde Roma'.

Como hemos mencionado, algunos sufijos derivativos son también acentualmente marcados, es decir, acentuados o preacentuantes. La mayoría de los sufijos mono-

silábicos marcados son preacentuantes y la mayoría de los bisilábicos marcados son acentuados en su primera sílaba. En la descripción de Larramendi encontramos la siguiente información acerca de sufijos derivativos acentualmente marcados: el agentivo *-tzálle* es acentuado: *ateratzálle* 'sacador', *beguiratzálle* 'cuidador'. El otro agentivo *-le* es preacentuante: *esánte* 'hablador', *enzúle* 'oidor', *ecárlle* 'traedor', *ivacárlle* 'lector'. El sufijo *-gúlle* (de /egin+le/ 'hacedor'), que se une a nombres, es acentuado: *ongúlle* 'bienhechor', *cillargúlle* 'platero'. Los dos sufijos homónimos *-ti*, adjetivador y colectivo, son preacentuantes: *goséti* 'hambriento', *veldiáti* 'miedoso', *másti* 'viña', *sagásti* 'manzaneda'. El comparativo *-ago* es acentuado y el superlativo *-en* es preacentuante: *obeágo* 'mejor', *gaistaágo* 'peor', *edérren* 'el más hermoso', *ciquínen* 'el más sucio'. El ordinal *-garren* es acentuado en la primera y no preacentuante, a pesar de ser bisilábico: *bigárren* 'segundo', *hirugárren* 'tercero', *laugárren* 'cuarto'. Este último es un sufijo con el que hay variación incluso dentro del subtipo de Gernika así encontramos *bígarrren* o *bigárren* según la localidad. Larramendi admite la posibilidad de una acentuación no marcada con algunos de estos sufijos.

Lo mismo que en el caso de palabras con raíz acentuada, si la base contiene un sufijo derivativo acentualmente marcado, éste determina la posición del acento, perdiéndose la distinción entre el singular y el plural en algunos casos: *beguiratzálleac* 'los cuidadores abs/erg' (o 'el cuidador erg'), *cillargúlleai* 'a los plateros', *beguiratzálleari* 'al cuidador', *beguiratzálleurequin* 'con el cuidador', *bigárrenac* 'el segundo erg o los segundos abs/erg'.

No todos los sufijos derivativos son marcados, entre los no-marcados (con acentuación final), Larramendi menciona los adverbiales */-ki/*, */-to/* y */-ro/*: *ongú* 'bien', *gaizquí* 'mal', *ederquí* 'bellamente, perfectamente', *galanquí* 'galantemente' *ondó* 'bien', *edertó* 'perfectamente', *galantó* 'galantemente' *astiró* 'despacio', *garbitó* 'limpiamente', *deingaró* 'mal, malamente'.

En el apartado de los sufijos derivativos, en lo único que encuentro algo sorprendente en los datos de Larramendi es en un caso como el del sufijo gentilicio */-(t)arr/*, que Larramendi da como acentuado y no como preacentuante: *erritárra* 'paisano', *Andoaindárra*, *Donostiárra*. Esto se relaciona con algo que he mencionado antes con respecto a palabras como *Martín*. En un sistema como el del subtipo de Gernika no existen morfemas acentuados en la última sílaba. En consecuencia un sufijo monosilábico podrá ser preacentuante, pero no acentuado. Así */-(t)arr/* es preacentuante: *Gernikarra*. Esto no es algo trivial sino que tiene importantes consecuencias para el análisis que no podemos discutir aquí. Como no hay motivos para dudar de la veracidad de Larramendi en este punto, hemos de concluir que el dialecto que describe admitía la posibilidad de morfemas (tanto raíces como sufijos) con acento léxico (fijo) en la última sílaba, al contrario que en los dialectos actuales que he podido investigar.

En la acentuación de los participios, la descripción que da Larramendi tampoco difiere de lo que encontramos en dialectos modernos. Larramendi señala la existencia de una distinción entre participios con acento final (la mayoría) y participios con acento en la penúltima:

(8) Participios perfectivos (Larramendi)	
no marcados	marcados
<i>emán</i> 'dar'	<i>bóta</i> 'echar'
<i>arú</i> 'tomar'	<i>eróri</i> 'caer'

ecarri 'traer'
egotzi 'arrojar'
eguin 'hacer'
biurtu 'volver'
eseri 'sentarse'
ostu 'enfriar'
etorri 'venir'
ibilli 'andar'

eraman 'llevar'
eróan 'llevar'
aráci 'causativo'
erázo 'causativo'

Esta misma situación con división de los participios perfectivos en dos grupos acentuales la encontramos en dialectos actuales. De hecho, verbos como el préstamo *bóta* y el causativo *eróan* (o *éroan*) son marcados en todas las variedades de tipo occidental de que posco datos.

El sufijo del participio imperfectivo /-ten/ o /-tzen/ es preacentuante:

(9) Participios imperfectivos (Larramendi)

<i>játen</i> 'comer'	<i>ucátzen/ucatlúzen</i> 'negar'
<i>edáten</i> 'beber'	<i>ibíltzen/ibillúzen</i> 'andar'
<i>eguáten</i> 'hacer'	<i>jártzen/jarrítzen</i> 'poner'
<i>ecárten/ecarrítzen</i> 'traer'	<i>etórtzen/etorrítzen</i> 'venir'

También en este punto la descripción de Larramendi es exacta. En dialectos donde el participio imperfectivo se puede formar o sobre la raíz o sobre el participio perfectivo completo, encontramos los mismos patrones de acentuación que señala Larramendi. Así en Gernika, la forma imperfectiva de *galdú* 'perder' puede ser o *gáltzen* o *galdúten*.

El sufijo nominalizador /-te/. (o /-tze/) es también preacentuante y por este motivo el acento se fija en la sílaba precedente a este sufijo, sin que otros sufijos tengan ningún efecto: *játea* 'el comer', *játeco* 'para comer', *játearentzat* 'para comer', *já-tearequin* 'con el comer', *játera* 'a comer', *ibílteagatik* 'por andar', *ecártera* 'a traer'.

En la descripción del comportamiento acentual del participio de futuro Larramendi es menos claro. Afirma que los participios formados con *-go* y los bisilábicos que toman *-co* tienen acento final: *edángó*, *emangó*, *eguingó*, *urtucó*, *azicó*, *ostucó*. En otros casos el acento cae en la sílaba que precede al sufijo de futuro. En sus ejemplos incluye el sufijo *-en* propio de dialectos orientales: *ecarríco*, *icusíco*, *emánen*, *eguíñen*. En este respecto, la situación descrita por Larramendi sí que resulta un tanto extraña. En los dialectos vizcaínos que conozco el morfema de futuro es siempre preacentuante: *edángo*, *ikusíko*, *apurtúko*, etc. (o incluso *édango*, *ikúsiko*, *apúrtuko*, en variedades como la de Getxo, con una regla de retracción acentual en este caso).

Por último, si la base es acentualmente marcada el acento permanece en la base, de acuerdo con las reglas generales de acentuación en palabras con más de un sufijo marcado: *erámango*, *bótaco*, *artuerázoco*.

Larramendi también nos ofrece detalles acerca de la acentuación de las formas conjugadas del verbo. Esta es, sin embargo, un área que todavía no se ha estudiado adecuadamente en dialectos actuales y sobre la cual, por tanto, prefiero no hacer comentarios.

4. En varios de sus escritos en vascuence, que no son tan pocos como algunos han pensado, Larramendi incluye marcas acentuales. Estos textos nos ofrecen, pues, una ejemplificación del sistema acentual descrito. En general los acentos gráficos marcados coinciden bastante bien con la descripción dada en *El imposible vencido* y con lo que sabemos de otros dialectos vascos occidentales. En algunos casos falta tal coincidencia, pero esto no es del todo sorprendente si tomamos en cuenta posibles descuidos del autor, erratas introducidas por el impresor y la falta de consistencia en la colocación de los acentos gráficos observable también en escritos castellanos de la época.

Como ilustración, mencionaré aquí sólo un par de ejemplos, tomados todos de la edición de los textos vascos de Larramendi preparada por Patxi Altuna y Joseba Andoni Lakarra (Larramendi 1990) y, en concreto, del texto titulado "Euskara Berriaren 'Carta Magna'":

Oyez gañera etzaitú izútzen nequeác, minberácor ta alper chár rac izútzen di-tuén bézala: ta orregátican, áyec ezbézela, garáitzen dezu, láutzen ta mende-rátzen (p. 34)

[Además de eso, no te asusta el cansancio, como asusta a los quejumbrosos y malos holgazanes; y, por eso, no como ellos, lo superas, allanas y dominas.]

Notemos el contraste acentual entre el ergativo singular *nequeác* 'el cansancio', con acento en la última, y los plurales *chár rac* 'los malos' y *áyec* 'ellos'.

Un segundo punto a notar en este texto es la consistencia en la acentuación del participio imperfectivo: *izútzen* 'asustar' (dos veces), *garáitzen* 'superar', *láutzen* 'allanar', *menderátzen* 'dominar', todos con acento en la penúltima como corresponde al carácter preacentuante del sufijo *-tzen*.

La acentuación de *minberácor* 'quejumbroso' parece indicar que el sufijo *-cor* es preacentuante.

La palabra *bézela/bézala* aparece bastante consistentemente con acento en la primera sílaba en los textos de Larramendi.

Consideremos otro ejemplo más del mismo texto:

Ayenatú bear guinituque guré hizcúntza ederrá gáltzen digúten hizjario motél char óyec. Oraindic eztzáute, Euscáldunac eusquera duelá gauzaric ónena ta honragarriena: (p. 36)

[Deberíamos hacer desaparecer a esos malos charlatanes insustanciales que nos estropean nuestra hermosa lengua. Todavía no conocen que el vasco tiene al vascuence como la cosa mejor y más honrosa]

La palabra *hizcúntza* 'lengua' aparece consistentemente con acento en la segunda, probablemente porque el sufijo *-tza* es preacentuante. Las palabras *eusquera*, *euscáldun* y *ederrá*, *erdáldun*, que aparecen numerosas veces en esta carta y otros textos, tienen también acento fijo en esa sílaba.

El acento en la primera de *ónena* 'el mejor' está de acuerdo con el carácter preacentuante del sufijo superlativo *-en* que señala Larramendi en *El imposible vencido* y encontramos en todos los dialectos de tipo occidental.

En este ejemplo el contraste entre el acento final no-marcado del singular y el acento en la penúltima del singular lo encontramos en *ederrá* 'la hermosa' y *óyec* 'esos'. Palabras de acentuación no-marcada que aparecen sin flexionar son *guré* 'nuestra' y *motél* 'insustancial'.

Entre las formas verbales que aparecen en este ejemplo, el participio imperfectivo *gáltzen* se ajusta a lo ya dicho y las formas conjugadas *digúten* y *etzazáute* parecen mostrar que el pluralizador *-te* es asimismo proacentuante.

Podemos concluir que, en su mayor parte, los acentos gráficos que aparecen en los textos de Larramendi se ajustan bastante bien a lo descrito en *El imposible vencido* y lo que sabemos sobre otros dialectos del tipo occidental.

5. Para terminar, me parece oportuno discutir aquí el estudio y crítica del acento larramendiano que encontramos en Txillardegí (1984) (*nom de plume* de José Luis Álvarez Enparantza). La opinión que el tratamiento del acento vasco dado por Larramendi en *El imposible vencido* merece a Álvarez Enparantza es bastante menos favorable que la nuestra. Para Álvarez, los datos de Larramendi no ofrecen demasiada confianza en cuanto que reflejan las teorías "abstractas" que sobre el acento vasco poseía nuestro jesuita más que hechos reales:

El imposible vencido-an datozen argibideek, eta are gehiago paradigmek, akats nabarmen bai daukate: egilearen teorien adibide hertsiaak diren aldetik, artifizialak izan daitezke agian; eta, horrez gain, hamaika azentu irregulartasun eta hutsune erantsi behar da. (328)

[Las ilustraciones que aparecen en *El imposible vencido*, y más aún los paradigmas, tienen un fallo evidente; en cuanto que son ejemplos precisos de las teorías del autor, pueden ser quizá artificiales; y, además de eso, hay que añadir un montón de irregularidades y errores.]

A mi modo de ver, son precisamente las teorías preconcebidas de Txillardegí acerca del acento vasco las que le hacen poner en tela de juicio los datos y generalizaciones de Larramendi. Según Txillardegí, en el sistema acentual vasco occidental el acento se asigna a partir de la izquierda y cae sobre la segunda sílaba en el caso no marcado. Como hemos visto más arriba, éste es en efecto el sistema acentual que se encuentra en áreas de Guipúzcoa donde el sistema occidental de acentuación se ha perdido o ha sido reestructurado. Admite, de todas formas, Álvarez que quizá en el sistema utilizado por Larramendi el acento pudiera recaer sobre la tercera sílaba en algún caso, pero no más allá de esta:

Hau baiesten bide da, beraz: aspaldiko gipuzkeraz ere, Larramendiren azentu-lege abstraktuen aurka, joera bera zegoela gidari. Alegia: azentu-unitatearen ezkerretatik hasi eta, lehenengo bizpauru lekuetatik harat ezin joatea. Andoaindarraren grafietan (+3) bide da muga, normalean: hortik aurrera berriro ere (+2) agertzen delarik. (331)

[Esto aparece pues confirmado: que en el guipuzcoano antiguo, en contra de las leyes de acentuación abstractas de Larramendi, dominaba la misma tendencia. Empezando desde la izquierda de la unidad acentual, no se podía ir más allá de los dos o tres primeros lugares. En las grafías del andoaindarra, (+3) parece ser el límite normalmente; de ahí en adelante de nuevo aparece (+2).]

Obviamente, los paradigmas ofrecidos por Larramendi no encajan en este esquema. Txillardegí no concede demasiada importancia a que en palabras como *guízona-ri* el acento aparezca bastante más allá de la segunda sílaba desde la izquierda. El acento marcado por Larramendi en estos casos sería quizá un acento secundario, en la hipótesis de este autor.

Txillardegí cree encontrar evidencia para su hipótesis en que en los textos de Larramendi encontramos palabras como *agúzquia*, *basérritarra*, *hizcúntza*, *hitzóntzi*,

gurásoa, etc. donde en efecto el acento aparece sobre la segunda sílaba. Palabras como éstas demostrarían que cuando Larramendi se olvidaba momentáneamente de sus leyes "abstractas" colocaba el acento sobre la segunda sílaba, como le corresponde.

Nuestra opinión es, obviamente, muy diferente. El acento de Larramendi es del mismo tipo que encontramos en ciertas variedades vizcaínas y guipuzcoanas actuales. Hay ciertos morfemas que son acentualmente marcados (acentuados o preacentuantes) y el primero de estos en la palabra determina la posición del acento. Las palabras compuestas suelen ser también acentualmente marcadas. De hecho, como se demuestra en Hualde (1991b) el carácter marcado de ciertos morfemas tiene su origen histórico en el mismo proceso que asigna un acento especial a las palabras compuestas. Además de esto hay una regla de acentuación sobre la última sílaba de la unidad acentual que es la única que se aplica en unidades acentuales que contienen sólo morfemas no marcados.

Las palabras con acento fijo sobre la segunda que menciona Txillardegi en apoyo de su hipótesis son de hecho palabras morfológicamente complejas (vocablos compuestos o derivados) que por este motivo presentan acentuación marcada. La morfología es transparente en casos como *basérritarra* (*bas-erri-tarr-a*), palabra derivada sobre el compuesto *basérrri*, que es asimismo marcada en todas las variedades que tienen un sistema acentual de este tipo. Por ejemplo en Getxo encontramos también *basérritarra* o *báserritarra* (Bilbao 1991). En otros casos la morfología es menos transparente, como en *egúzquia* 'sol'. Pero precisamente el hecho de que esta palabra se acentúe sobre la segunda (también es *egúski* en Getxo) provee evidencia de que esta es una palabra compuesta o derivada formada sobre *egú(n)* 'día'. Así, pues, palabras de este tipo, lejos de representar falta de consistencia por parte de Larramendi en la aplicación de sus teorías abstractas, como quiere Txillardegi, dan más solidez a su descripción en cuanto que corresponden a hechos idénticos o similares en dialectos actuales del tipo occidental.

Bibliografía

- Altuna, P., 1979, "Altube eta euskal azentua". *Euskera* 24, 619-621.
- Bilbao, X., 1991, "Getxoko hiztegia". University of Iowa, ms.
- Etxebarria, J. M., 1988, *Zeberio-haraneko euskararen azterketa etno-lingüistikoa*. Tesis de doctorado, Universidad de Deusto.
- Hualde, J. I., 1989, "Acentos vizcaínos". *ASJU* 23.1, 275-325.
- , 1990, "Euskal azentuaren inguruan". *ASJU* 24.3, 699-717.
- , 1991a, *Basque Phonology*. Londres y Nueva York: Routledge.
- , 1991b, "Euskal azentuaren historia". Aparecerá en: R. Gómez & J. A. Lakarra (eds.), *Euskal dialektologia kongresua*, Anejos del *ASJU*, en prensa.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca.
- , 1990, *Euskal testuak*. Editado por P. Altuna y J. A. Lakarra. Donostia: Ayuntamiento de Andoain.
- Laspiur, I., 1979, "Azentu diakritikoa Eibarko euskarán". *Euskera* 24, 175-268.
- Txillardegi [Alvarez Enparantza, J. I.], 1984, *Euskal azentuak*. Donostia: Elkar.
- UNED-Bergara (1988) *Bergarako euskera*. Bergara.

Larramendirekin aurreko hiztegitzaren historiaz: aztergai eta gogoeta

JOSEBA ANDONI LAKARRA
(EHU, Gasteiz)

0. Laburpena

Segidan euskal hiztegitzaz zaharraz hobekiago jabetzeko azterkizun diren gai zenbaitez arituko naiz; ez guztiez, noski, gehiegi bait dira agortzeko, ez eta guztieki-ko ere, hiztegi bakoitzak arazo bereziak aurkezten bait ditu hemen ukitu orokorra-goez landa. § 1.ean Larramendi (L) aurreko hiztegitzaz ihardungo dut gain-gainetik, diren filologi arazoak aipatuaz eta beren azterketak euskal hiztegitzaren historiarako eta l. arrezago aztertzeko duen interesa aldarrikatuaz: § 1.1. Hitz zerrendak, § 1.2. Galdutako hiztegiak, § 1.3. Gordetakoak. § 2.ean L-rekiko azken urteotan izan den hurbilketa aldaketa zirriborratzen dut, ondorengo ataletan sendotzeko eta zehazteko asmoz. § 3.ean L-ren hiztegiaren praktikotasunaz ihardungo dut, gaztelera-euskara ordena ez dela horren aurkako aitzakia erakutsiaz (§ 3.1.); bestalde, egitura hori eta credua (Academiako hiztegia) xviii. mendeko hainbat hiztegiarekin amankomunean duela gogoratzen dut, hori dela kausa indarrak gehiena galtzen duen apolo-gizaletasunean oinarrituriko azalpenak. Atal hori amaitzeko (§ 3.2.) apologiekiko excursus bat gehitzen dut, batetik haien egitekoa ez bait da artez ulertu, eta, bestetik, euskal apologiak zuzen aztertzeko beren benetazko testuinguruan (garaikide eta er-kagai direnekin batera, katalan herrietakoekin, esaterako) egin behar dela markatzen saiatu naiz. § 4 iturri arazoak eskaintzen zaie: § 4.1.ean L-k ez zituela iturri guztiak aitortu gogoratzen dut eta baita oraindik alde honetatik aurrerapenak —Harriet (H) Eraskineko (*E*) nahiz Hirukoitzeko (*HH*) iturri delarik— izan daitezkeela aldarrika-tzen: § 4.2.ean testukritikak hiztegi azterketari iturri bilaketan eman diezaiokeen la-guntza zenbaiten erakusgarriak dakartzat: sarrera konplexuen edo atzizki analisitik datozkigunak, *E*-ko adibideen bitartez; § 4.3.ean *E*-ko iturriez orain ditugun datu be-rrien aurrean diren arazoak zirriborratzen ditut, bereziki L-k baino lehenago haren iturriak ere Axular erabiltzetik datozkeenak. § 4.4.ean *E*-ko iturrien zenbatekoaz da-kiguna laburtzen dut eta baita H ez soilik *E*-ko baina *HH*-eko ere izan zela erakusten. § 5.ean aurreko atalaren jarraipen gisa *HH*-ak garaiko bi hiztegiarekin dituen harre-manetarik zenbait puntu dira aztergai: § 5.1.ean Sbarbi-Urquijo (*SbUr*) hiztegiaren kronologia eta egiletasunaz diren datuak miazten ditut eta § 5.2.ean *HH*-ren bifurke-ta noraino iritsi zen mugatzen L-ren beraren euskara-gaztelera hiztegiari. § 6.a hitz-

* Ene eskerrik berocnak adierazi nahi dizkiet Gidior Bilbao eta Ricardo Gomezzi eman didaten laguntza ga-tik. Eyan gabe doa geratzen diren hutsak neureak direla.

berriei eman zaie: § 6.1.ean H-ren hiztegiako *-katu* eta *-kuntza-z* osatuak aztertzen dira, eratorriak sortzeko guztien erabileran eta euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara hiztegien artean diren ezberdintasun handiek (zehatzago, frantses-euskara hiztegian den atzizkibidezko eratorpenaren aldeko joerak) azalpen berezia eskatzen dutela irudituz. § 6.2. eta § 6.3.ean L aurreko beste bi hiztegitako (Pouvreau eta Urte) hitzberriak sortzeko ohitura erakusten dut, ezaugarri hau ez zela L-rekin sartu euskal tradizioan, eta maila jaso eta landua (ez herrikola) eraikitzeko gogoia legez aurretiaz zela frogatuz; atal honekin amaitzeko, § 6.4.ean Pouvreauk eta Urtek beren euskal testuetan ere hitzberriak erabiltzen dituztela markatzen da, horrela L-k bereetan egitea itxadon daitekeen gauzatat aurkezten zaigularik. § 7.a garbizaletasunari/keriari dago-kio: § 7.1.ean L garbizalekeriaren aitzindari egin nahi izan dutenen aurka bere bene-tazko usadioa zehazten dut, bera baino lehen Euskal Herrian izan diren garbizaletasunaren beste zenbait erakusgarri ere aurkeztuaz (Etxeberri Sarakoa, Mikoleta) eta Akademien garaian zabaldua hazen ere garbizaletasuna, keriak berandua-goko direla gogoratzen; § 7.2.ean L aurrekoen artean ere garbizaletasunik badela erakusten dut; Mikoletaren adibidea bidenabar gogoratu ondoren H-ren euskara-frantsesa eta frantsesa-euskara hiztegien artean eratorpen atzizkien erabileran ikusi (§ 4.1.) asimetria erdarakada eta mailebu gordinenarekin errepikatzen dela erakusten dut, bigarrenean elementu horien ezabaketarako berariazko gogoia kausituaz. § 8.ean filologi alderditik Hiztegi Hirukoitza eta gainerako hiztegitagintza zaharrekiko ditugun eginkizun batzu aipatzen dira.

1. Larramendi aurreko hiztegitagintza

1.1. *Hitz zerrendak*

Erdiaroan hasten dira, izen hutsen aldamenean testuinguru edo itzulpen zehatzagoz argituaz erdal testuetan agertzen zaizkigun hitz, glosa eta esaldi eskutadak (ikus *TAV* adibide batzuetarako). Behar bezala bildu eta ikertu gabeko 2. graduko tradizio hau aberatsa da oso (Poza, Garibai, Etxabe, Villareal, *Corografía...*): euskal testu tradizioa den bezain murrizta izaki, kopuru zein gaien aldetik, hainbat hitzen lehen agerria aurreratzeke eta mordoxkaren hedadura, bizitza, erabilera eta esanahirako ezinutzizko gertatzen dira.

Aimery Picaud-en famatua dugu ezagutzen den lehendabiziko hitz zerrenda. Gerroztik badira beste zenbait, urteak igaro ahala gehituaz: Von Harff, Marineo Siculo, Venturino... Europako bideen ugaltze eta seguragotzearekin Euskal Herrikoenaren seinale (ikus *TAV*). Erraz antzeman daitekeen legez, ezin itxadon larregi berba zerrenda llabur (bat ere ez dozena t'erditik gorakoa) hauetarik. Bidaiaariak behin behinako eta premiazkoez dituen alor semantikoetara mugatzen dira: jan-edana, egoitza, horiek ordaintzeko dirua, izpirituarekiko beharrak... edo, inoiz, haragizko irritsei lotu ardurak.

Zerrendotarik gehienak ez ziren beren garaian argitaratu, baina beste batzu (Marineo Siculoarena, esaterako) bai, eta XVI. mendetik aurrerako europar hizkuntzalarien iturri dirateke: ikus Oroz 1981 Vulcanius-ek, edota Urkizu 1986 zenbait ikertzaile ingeles-ek. Alor honetan ere baliteke oraindik zer iker izatea, bai izan diren gainerakoak bilduaz, eta baita Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren itzulpenaren (edo haren zatien) erabileraz; bestalde, Leizarragarena hitz bikduma berrien sortzaile izan zen: cf. Llwyd-ena (Abott 1906) edo, zatika, Vulcanius eta Bullet (Aquesolo 1967).

Beren laburrean oso ezberdinak dira helburu eta egituretan Leizarragaren eta Oihenarten hitz bildumak: "Çuberoaco herrian usançatan eztiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac"(70 bat hitz) eta "Neurtitz hautaco hiz bekanen adigarria" (120 bat), hurrenez hurren. Badu Oihenartek onparauko "crakusgarri" interesgarririk:

[...] el hecho de encontrarse en la composición de la lengua española actual ciertas reliquias o restos muy conformes a los elementos de la vasca, muchísimas expresiones puramente vascas, o sacadas de éstas, de las cuales exhibiré una especie de muestra, tomada de las tres primeras letras del alfabeto[...] (*Notitia*, § XIII).

Larramendiren hiztegiiko *estandarte*, *alabanza*, *ibero* eta gainerako etimologiaren aitazindari dugu, bada; diferentzi nabarmen batekin, ordea; ez da bertan ikusten jesuitaren harako "confieso que me retozo de risa...", etab.(cf. Lakarra 1985a).

Hitz-zerrenda eta hiztegiñoen arteko dira Iburguen-Cachopín kronikaren amaian (1600-1605) gordetako euskara-gaztelarazkoa. Sarasolak (1983) lehendabizikoz argitaratua, eta Mikoletaren *Modo breue para aprender la lengua vizcayna*-koa (1653, baina joan den mendearen akabuan argitaratua; cf. orain Zelaieta 1988). Lehendabizikoan 150 bat hitz (gehienak errepikatuak kontrako ordenan ezartzean) ditu, eta 400 inguru, "los más usados en vascuence propio" (gaztelera-euskara) bigarrenak (ikus § 7.2.). Iburguen-Cachopín kronika han-hemengo materialez osatua izaki, hiztegitxo horren etorkiaren arazoa datorkigu berehala; argitaratzailea gipuzkeraren alde agertzen da argiro baina ez bide litzateke ezinezko arabera ordezkatea ere (cf. Lakarra 1991c).

Nicolaas G. H. Deen-ek Kopenhageko Amamagnaena Bibliotekatik argitara zituen lehendabizikoz Vestfirðir Islandiako herrialdean XVII. mendean idatzitako bi hitz-zerrenda; *Glossaria duo vasco-islandica*. Argitara ziren garaian argitara zirelako (1937), beharbada, ez ziren ezagunegi ikertzaileen artean Mitxelenaen salbuespenarekin (ikus orain Bilbao 1991). Beren interesa, aldiz, ez da nolana hinkoa; 750 bat hitz (ez beti argiegiak islandiar fonetika eta grafia dela bide) baizen ez badira ere, euskal arrantzaleen eta islandiarren arteko kontaktua —bizia, oso, 16an eta 17an— ez eze beren artean sortutako pidgina ere isladatzen ditu: *sumbati galsardia for*; *Christi Maria presenta for mi hatia, for mi presenta for ju hustana* (Hualde 1991: 433hh). Euskararen etorkia Iparraldekoa dugu, izan ere handikoak bait ziren batez ere hara eta Canadara (ikus Bakker 1991 hango euskal arrastoez) zihoazen marinel gehienak.

1.2. Galdutako hiztegiak

Hiztegi oso eta benetazkoetan badugu, gutxienez, gureganaino iritsi ez den hiruren berri: Bela zuberotarraren, Bidegarai haxenafarraren eta Joanes Etxeberri Ziburuko lapurtarraren bana, hain zuzen. Eta hori XVII. ean; hurrengo mendean beste hainbeste: Leintzko Oyangurenen tagalo-gaztelera-euskara (cf. Oyharçabal 1989), bigarren Etxeberriren (Sarakoaren, ikus beheerago) eta Duhalderenak, alegia.

Arrastoren bat utzi diguna Ziburukoarena dugu; hainbat sarreeratan Pouvreau haren hiztegiaren zordun aitortzen zaigu (ikus Urquijo 1910can). Hauetarik anitz ulertzeko Oihenarten laguntza behar izan zuen hark eta deitoragarria da oso horko adibideen arabera —are gehiago egilearen obretako hiztegi aberastasuna ezaguturik— bestetan lekukotasunik utzi gabe joan zaigun altxor hori ez gordea.

Belari dagokionez (1586-1667) zera da dakigun bakarra: hiztegia eta baita, dioskunez, ondu omen zuen gramatika ere galdu egin direla, soilik haren errefrau bildu-

ma txiki bat geratzen zaigularik euskarazko lekukotasuntzat. Egia da Peillenek (1983b) XVIII. mendearen amaieran eta XIX.aren hasierako haren ondorengo baten hiztegian XVII.ekoaren eragin edo jarraipenen bat ikusi nahi izan duela, baina ez du horretarako frogarik eskaintzen; zati on batean, gainera, nekez eskeini ahalko, Larramendiren eredu eta hitzak nabarmen bait dira.

Dominique Bidegarai kaputxinoaren zenbait diru eske badira 1675etik 1679raino (hots, heriotzeraino) Nafarroako Estatuari aurkeztuak euskara-latina-frantsesa (gero gaztelera ere bai) hiztegi bat eta "rudiments" —Etxeberri Sarakoak hatsapenak deitu zituen— batzu argitara asmoz. Nahiz eta egileak zioenez 20 urteko lana izan, Zuberua, Baxenafar eta Lapurdiko hitz eta esamoldeak oro biltzen zituena, eta bagitz abantaila lekarkiekiena euskal haurtei Euskal Herritik ilki gabe zientzien giltza zen latina eskuratzeko (cf. Etxeberri) nahiz Bidegaraiak euskararen laudorio sutsuak egin —"ama hizkuntza", orduan burua agertzen zutenak oro baino ederrago, hebraiera salbu, hartatik beste edozein baino hurbilago— Nafarroako Estatuaren laguntza berandutu egin zen eta egilearen heriotzak ez zuen lagundu argitalpenaren bide malkarretan (cf. Dubarat 1914 eta Oyharçabal 1989).

XVIII. mendeko, Larramendi aurreko (?) (eta jesuita batena, orobat) hirugarren hiztegi galduren berria Gidor Bilbaori zor diot. Hara P. Delattre-ren *Les établissements des jésuites en France depuis quatre siècles*, Institut Supérieur de Théologie, Enghien. 1949-56, 1478. orrialdean zer irakur dezakegun:

Le P. Pierre du Halde, Béarnais ou Biscayen de naissance, nos archives disent: Cantaber, né le 14 de septembre 1682, entré 1.er septembre 1699, Longtemps professeur de Lettres, quatre ans de Philosophie, seize ans de Théologie, il fut dix ans supérieur de diverses maisons, ensuite Bibliothécaire à Bordeaux où il travailla à un dictionnaire basque en trois volumes in folio, toujours recherché, mais disparu, comme beaucoup d'autres travaux, lors de la dispersion des Jésuites en 1761. "Humboldt, lit-on dans le *Bulletin du Bibliophile* de Techner (Paris, 1839, p. 544) dit qu'on lui affirmé que, s'il existait encore ce dictionnaire se trouvait à Bourdeaux [celz dio horrenbeste; soilik 3 liburukitar irakurtezin bete omen zituela esan zitotela]. Celui qui écrit ces lignes peut dire à son tour qu'il les y a cherchées avec zèle sans pouvoir obtenir sur leur compte aucun indice". Le P. du Halde vivait encore, infirme, au Collège de Bourdeaux lors de la suppression de la Compagnie (1762).

1.3. Gordetako hiztegiak

Nicolao Landucci Lucarra izan zen 1562an osatutako *Dictionarium Linguae Cantabricae*-ren (eta beste italiarazko eta frantsesezko biren) paratzaile. 112 folio, 6000 hitz eskas (s-tik aurrerakock ez dute euskal ordainik), bete zituzten haren hiru laguntzaile arabarrek: A gasteiztarrek (cf. Mitxelena 1958) eta B ekialderagokock (cf. Zuazo 1989), bereiziki. Hiztegia ez zen 1958 arte (Mitxelena eta Agud-en edizioan) argitaratu, eta ez ezezagunez: Humboldt, Aizkibel, Azkue eta Urquijok izan zuten haren berri baina indartsuago izan bide zen Larramendik hartaz *Hiztegi Hirukoitzaren* hitzaurrean esana: "pieza es por cierto muy despreciable, y que más se compuso para irritación que para honor del Bascence. Muy mal escrita en la ortografía, llena de barbarismos...". Erdarakadak gora behera, L-k ez zituen, Eraskinean bederen, Landucciaren aberastasunak haliatzeke utzi (cf. Mitxelena 1961, 1970). Argitalpenaz landa, Mitxelenen ikerketak berebiziko garrantzia du bertan ematen bait zaigu artean ezezagun zen euskalki baten, —araberraren— berri, aldamenekoekin zituen harremanak zehaztuaz (ikus orobat Lakarra 1986b eta bereiziki Zuazo 1989). Orain ma-

terial berriak (Gamiz, Portal) eta bai aldameneko euskalkien eta baita araberaren ezagutza hobea ditugularik, Landucciren hiztegiak azterketa berririk (eta 1958ko edizioan ahaztu zen orrialde parca gehitzea) merezi du (cf. Lakarra 1991c).

Silvain Pouvreau euskaldunberriaren euskara-frantses (eta, zati batzuetan, -latin-gaztelazko) hiztegia chun bat urte beranduagokoa (cf. Vinson 1891, 1910) dugu. Paris-ko Biblioteka Nazionalean 2 kopia ezberdinetan (7 eta 8. eskuizkribuak) gorde da: 8.ak *çafarda*-tik *xusquerra*-ra gortetzen du 167 foliotan (gramatika ohar eta besterekin); 7.a osoa dugu, 213 foliotan, zuzenketa eta gehiketekin. Oraindik argitaragabe badirau ere Duvoisin, Maurice Harriet, Azkue, Lhande eta bestek (Xahoren kopia ere ikusia dut) baliatu dute, aspalditik bait da ezagun haren aberastasuna. Oihenartek egindako oharrez landa, eta haren lanetarik jasotako berbekin batean, Pouvreauk Axular, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa (are honen galdutako hiztegia), Harizmendi eta honek moldatutako Haranbururenak ere (cf. Kercjeta 1991) bildu bait zituen (cf. Urquijo 1909 eta Vinson 1910) herritik jasoz landa. Halere, ikerketa oso atzeratua dugu: monografia on bat falta zaigu egituraz (mailebu, hiztzerri eta eraketa modua barne: cf. beherago), bi eskuizkribuen arteko diferentziaz, hauen eta hiztegi laukoitzaren saio laburrak (cf. Bilbao 1992), frantsesezko eta espainierazko iturriez (Oudin, Covarrubias eta enparauéz)... Bere euskal itzulpenetako hizkera ere argigarri bide genuke egiteko honetan. Ikus Lakarra 1991c eta hemen § 6.2.

Pierre d'Urteren *Dictionarium latino-cantabricum* (Londres 1715) a-tik *commotus*-era baino iritsi ez arren, 2.457 orrialde ditu, 10.000 bat euskal hitzekin (cf. Urkizu 1989ko bihurteta), errepikatuak zenbatu gabe. Urteren aberastasuna ere handia da alor semantiko aniztatan bere argitaratzaileak markatu legez: landare, animalia, lanbide...; bidebatez ez da ahazteko haren *Grammaire Cantabrique*-ko hiztegiñoa ere. Garbizalekeriaren etsai eta gogoan zuen bere jaioterriko (Donibane Lohitzuneko) hizkeraren ordezkari gisa aurkeztu ohi zaigu (ikus oraindik Urkizu 1989: 106hh) baina irudi hau neurri batean egoki izan arren ez bide da osoro (ikus beherago).

1741ean ateratakotzat dakar bere burua Martin Harriet "notari erreñalac" ondutako *Grammatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcuñça ikhasi dutenen faboretan* (Bayonan Faubert alarguna eta J. Fauvet erregueren imprimadoriac baitan) delakoak. Egileak irakurtzaileari ziotenez ez zuen hura egiten "bera examinatua içateco, baiñan bai hunen medioz francez hitzcuñça ikhasteco guticia duten euscaldunec, içan deçaten laguñça eta errechtasun gutibat, presona sabant eta jaquinsunec francez hitzcuñçan eguiñ dituzten libuructaric cerbaiten compreniceco, eta hetarik combait provotchuren atherateco".

Liburua, egiteko zen guztietarik atera bide zuen bakarra, aski handia da, bere 512 orritan. Horietarik heren bat, 268tik 440 bitartekoa, hiztegi bikoitzak betetzen du: "Dictionarioa escuaraz eta francesez, çoiñetan hasten baitire hitzçac escuaratic" (268-323) eta "Dictionnaire françois & basque. Dictionarioa francesez eta escuaraz" (324-440) direlakoek, hain zuzen.

Hiztegiok, beren xumean, ez dute aparteko arretarik merezi izan; esaterako Mitxelena 1970-ean ere ez dira, bidenabar boderen, aztergai. Alabaina, badirudi nola-baiteko craginik izan dutela, zuzenean edo zeharka euskal lexikografiaren historian. Lècluseren *Manuel de la langue basque*-ko bi hiztegiak haien zordun ez eze kopia argi (eta "garbitua") ditugu (cf. Lakarra-Urgell 1988); Añibarrok ere zenbait eskutadarta hartu zizkion (Urgell 1992) eta, gainera, bertan da Mitxelena Larramendiren

Eraskinean ezagutu gabe utzi iturririk nagusiera (cf. Lakarra 1991a). Badira, bestalde, beren egituran ikertzeke dirauten eta bai Larramendiren hiztegi-gintza eta baita aurrekoa beste modu batez ikustera garamatzaten ezaugarriak.

2. Larramendiren hiztegi-gintzaz: hurbilketa berri bat

Urte batzutatik hona mende hasieratik hedatua zen Larramendiren hiztegi-gintzaren erakunde, oro har, L-erakunde hurbilketa aldatu edo aldaketarako bidean jarri dela dirudi (cf. Lakarra 1985a, 1991a eta hor aipatu bibliografia). 1929an haren hiztegi-gintza hiztegi-gintza egokitu zitzaionean gaia "alferra la parragarria" irudi zekioketela "jakintsuren bati" ohartzen zigun Orixe; *Genio y Lengua*-n "malogró su gigantesco esfuerzo extraviando el movimiento literario por los derrotados de la polémica estéril y de la diatriba ociosa" leporatzen zitzaion, eta "para los hombres de nuestra generación el P. Larramendi resulta casi una figura ridícula" otutzen zitzaion Villasanteri: irizki-deak bilatzea, gainera, erraz litzateke beharrik balitz.

Iritzion atzeko ikuspegia anakroniko eta agor zen filologiaren historiari eta euskararenari zegokionean, hurrenez hurren, L-ren etimologiak gezurtatzen eta haletaz iseka egiten zihardutenek, esaterako, ez bide zuten ikusi haien funtzioa (bataio agiri bailiren), ezta antzemai lanaren premiarik eza: "confieso que me retozo de risa...", etab.

Hiztegia (gramatika eta gainerakoak legez) ez zuen "para no envidiar a otras lenguas alguno de sus ornamentos y curiosidades", kanpotarrentzat etxekoentzat bainoago; "Larramendi izan da, lehendabiziko aldiz eta erabat hizkuntza larrekoa noranahiko bihurtu nahi izan duena" (Mixelena 1984). Teorikoizat, alperrikotzat, zutenen aurka, haren lanaren praktikotasuna nekez bada ere antzeman izan da, helburuetan zein haiek gauzatzeko orduan: aski izan da berak esanak aurreiritzi gabe irakurri, garraikideen harreraz ohartu, besteren kultur proiektuekin erkatu eta ondoko 150 urte-tako eragina gain-gainetik usnatzearekin.

L ez da uste izan den bezain bakan euskal hiztegi-gintzaren tradizioaren barnean. Hark baino lehen hiztegi-gileek asmatu zituzten hitzberriak, idazle landuek ere egiten zituzten bezalaxe. Arago dena, hizkuntzaren legeen arabera eta haren beharrik berdintzeko, hitzberriak sortzeko ahalmena —hizkuntzaren askatasunaren seinale eta haren nortasunari zor zitzaion eskubidetzat— L aurretik aldarrikatua zen dagoeneko (Etxeberri Sarakoak inork baino ozenago; cf. Lakarra 1985a). Urrutitik zetorren katearen begi bat zen, bada, ez ikusi nahi izan den berrieria; are gutxiago bitxikeria.

Hitzberrien erabilera ere ez zen litzetza eta beste xebleteren baten apetetara mugatu: sortzailearen beraren obran kausitzen ditugu lehen lekukotasunak, joan den mendaren azkenetaraino landutasunen batera heltzen den edozeinek ematen digularik, inola ere. L-ren hiztegiaren erabilera kultur gaienekin erkatuaz historikoki ikertzeko behar adina lanabes (cf. batez ere Sarasola 1986; adibide berri batzutarako ikus orain San Martín 1991 eta Altuna 1992).

Euskal hiztegi-gintzaren tradizio nagusiaren barnean eroso kokatzen bada, orobat literaturarenean. Hegoaldeko idazle askok hiztegiaren hitzaurrearen bitartez ezagutuko dituzte iparraldeko idazleak eta hiztegiaren bitartez eskuratuko haiengandik bildutako aberastasunak (bitzuen emendakin dira Zabalen *Noticia...*, *VRB* eta Oixandioko eskuizkribua). Maisuaren esanci jarraiki hurbilduko dira literatur gipuzkera eta bizkaieraren sortzaileak Axular eta enparauengana (ikus orain, lehenagokoez gain, Ur-

gell 1991, 1992). Tradizioarekiko lotura hau L-tarren eta haren kidetzako aranatarren arteko diferentzia aipagarria dugu. Ez bakarria, jakina, oso bestelakoak bait dira beren iritzia eta jokabideak euskal hitz altxorraz: jatorrizko hitzen, hitzberrien eta mailebuen egiteko eta erabilera esparruez. Ez da L-gan gerokoengan (Azkue tarteko) den mailebuen aurkako erabateko iritzirik, ez haiekin josiak diren aurreko idazleen liburuak errerezko (Kirikiño batek legez) grinarik, demagun. Tarteko bidea eskatu zuen hark euskararentzat: ez ingelesek adina, norik bere hizkuntza mezpreatzea eta bertoko hitzak ahaztea bait lekarko, ezta frantsesek bezain guti, berba faltaz gogoetak gauzatzeko peitu bait ginatke (*Corografía*). Bi "eskolek" (euskal historiografi erraz-zaleak hain gustoko duen berba orotarako eta agor hau darabildalarik) sortzen eta erabiltzen dituzte hizberriak, ez ordea hitz berak (aranatarrenek aurrekoenak ordezkaturiko dituzte) ez eta egiteko berarekin. L-renak, jakintza arloetarakoak dira, soil soilik, ez egunero; ez zetozen ezer ordezkatzera, aldatzera ez garbitzera, hutsarteak betetzera haizik (cf. orain Pagola 1992 maisuaren hitzberrien bilduma baterako; ikasleenak, noiznahi orobatsu ez direlarik, bilgai ditugu).

Aipatzen ari naizen L-ren hiztegi-gintzarekiko ikerketetan emandako hurbilketa aldaketa honetan izan du bere pisua haren gramatika (cf. Gómez 1991) ere kontutan hartuak. Garaikideek eta ondokoek, orobat, gramatikan finkatzen zuten bereziki ("famoso por haber el imposible vencido") L-ren ospe nagusia, eta ez bide zen hiztegiarena baino urriago haren erabilera. Ez da soilik, gogotan hartzekoa bada ere, euskal gaiztoko adibideak salatzen zitucenean batez ere sintasiko hutsak salatzen zituelako; griegoangandik gutxienez datorren eta euskal ikerketetan ere isladarik izan duen pentsamoldeari atxikiz, gramatikari eman zion lehenatasuna. "hizkuntza usteltzea haren arima eta forma ahitzea baita, gorputza hazi edo urritu. Haren arima eta forma den hizkuntzaren antze eta armoniak diraueno, gorputza diren berbak asko zein gutxi izan, ez da hizkuntza usteltzen eta lehenagokoa bera da" (*DT*, elxiv; ikus Lakarra 1985a).

Aurreko mendeetan ere saiorik izan arren (cf. §1), XVIII. mendea eman dezakegu euskal hiztegi-gintzaren benetako hasieratzat. Hiztegi eta hitz-bildumak ugaldu egiten dira: Landucci, Mikoleta eta Pouvreuren izenen aldamenen Urte, Larramendi, Aizpitarte, Arakistain, Harriet, Etxeberri Sarakoa, Bela, Añibarro, Mogel eta hesterenak jar ditzakegu. Areago dena, hiztegi moetek ere ñabardura berriak hartzen dituzte: euskara-gaztelera, gaztelera-euskara-latina, latina-euskara, euskara-frantsesa / frantsesa-euskara, euskara-frantsesa-gaztelera-latina, ingelese-euskara... hizkuntza bere osotasunean edota euskalki edo bailara bakarrean (Erronkari, esaterako) hartuz. Azkenik, XVIII. mendeko hiztegi-gintzak —eta honen barnean Larramendirenak— artekoak ez legezko eragina izango du idatzizko euskal hitz altxorrekiko edo oro har, hizkuntzaren historiarekiko: ezaguna da, inprimatu ere bera izan zen inprimatu bakarra, Azkueren hiztegi bitartean Larramendirena dela eredu eta iturri orokor.

Ez dut esango oso atzeraturik dela euskal lexikografiaren historiaren garai haien azterketa, honekin norbaitek gainerakoak aurreratuak edo aurreratuagoak dabiltzala uler bait lezake. Eta, izan ere, ondoko garaiko hiztegi-gintza —Mitxelenak L-z eta Azkuez egindako ikerketak salbu— ez dago hemen atzergai dukeguna baino egocra hobean: hasierakoek edo zaharragoek gure artean —bestetan legez— arrakasta habero izan ohi dutenez, haiei buruzko lan edo bibliografi aipu gehiago eriden dezakegu. Halere, hor datza zenbait hiztegi eskuizkribaturik (Pouvreurena bera!), hainbatek ez

du ikertzaileen —ez lexikografoen ez hizkuntz historiaz zaletuen— arreta berezirik erdietsi, eta erdietsi dutenek zenbait ohar solte (bibliografiak gehientsuenetan) izan da jaso guztia.

Urte eta Harriet oraingoz alde batera utziz, gainerako hiztegitileak L-ren *Hiztegi Hirukoitz*-aren inguruan bil ditzakegu, haren moldaketa (Azpitarte, Aizkibel), eraskin (Arakistain, Goitiandia) edo — gutxienez — zordun (Añibarro, Sbarbi-Urquijo) bait dira guztiak. are atzerrian: cf. Aquesolo (1967) *Bullet-en* euskal hiztegiaren egituraz. Eta eredu edo iturri horrekiko ezezagutza da, azken finean, gainerakoetan ere isladatzen eta errepikatzen dena. Izan ere, norbaitek besterik baleritzo ere, *HIIa* ez da ezagunegia. Ausartuko nintzateke esatera hartaz idatzi duen batek baino gehiagok ez duela ez gorputza ez hitzaurrea bera osorik irakurri, usu aurrekoen gaitzespenak saltsakari berak edo eskasagoak erabiliz erregostera mugatuaz.

3. Hiztegiaren praktikotasunaz

3.1. *Gaztelera-euskara* ordenaz

Usuegi besterik idatzi bada ere dagoeneko (cf. Lakarra 1985a, Mitxelena 1984) aski argi geratu bide da Larramendi ez zela izan ustezko edertasunen soan eta haien bilketa alferrean aritu ziren horietakoa. "obra púramente teórica" deitua izan arren,

Hiztegiaren ordena bera ere hartu izan da gaineratu zaizkion aitzakion artean:

Dentro del mismo plan compuso el *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuense y Latín*, con el objeto de probar que el euskara es una lengua culta. Siendo la suya una finalidad apologéica su objetivo principal es devolver el honor a la lengua insultada, se entiende que Larramendi, siempre que la realidad no se ajuste a la pureza que él defiende, no tuviese reparos en inventarse una realidad a su gusto. Así el *Diccionario Trilingüe* está lleno de términos vascos inexistentes, inventados por el autor para la ocasión. La obra está escrita y pensada para los extraños, no para los vascos, y las correspondencias vascas se hallan en función de los términos castellanos. (Sarasola, *HSLV* 55).

La disposición del *Diccionario* (castellano-vasco-latín) es un pie forzado que le obligó a rellenar con neologismos los huecos sin traducción (Mitxelena, *HIV* 102).

El diccionario propiamente dicho comprende dos tomos, y está ordenado en forma de diccionario castellano-vasco, o sea, se toman como base las voces castellanas del Diccionario de la Real Academia Española, y al lado se ponen las voces vascas y latinas correspondientes al vocablo castellano. [...] Es decir, que las voces vascas están ordenadas y traídas en función de las castellanas. Por fuerza del mismo plan adoptado, la atención del lexicógrafo tenía que verse sobradamente absorbida por la preocupación de buscar términos que fuesen equivalentes exactos de las voces que hallaba en los tomos del diccionario de la academia española, o de crearlos cuando no los hallaba. De todas formas, y a pesar de los graves defectos señalados, fue una obra verdaderamente titánica la llevada a cabo por el P. Larramendi, y el caudal de voces auténticas que ha recogido en su diccionario es muy considerable. También aquí ha ocurrido que al comprobarse las muchas voces de forja que hay en el diccionario larramendiano, se desestimó con exceso su valor real. (Villasante, *HIV*, 134-135).

Gramatika eta Hiztegiaren hitzaurreetan garbi asko uzten du gogoan duena zera dela, euskara "goren gradora" igotzea, bai kanpokoentzat (apologiaren bitartez) eta baita etxeokoentzat ere, landuaz eta egokituaz. Berariaz erlijio zabalkunde aipatua-
rren, eskola eta gainerakoak ez ditu ahanzten, eta seglarren eskuetan ere berebiziko tresnak dirateke, zeinahi mezu moeta zabaltzeko, Iturriaga eta Iztueta-
ren. Egiategi

eta Ulibarriren eta beste hainbat eta hainbaten obrak lekuko (ikus Gomez-Lakarra, prestatzen). Ez dugu zer dudatan jar iparrizartzat praktikotasuna zuela honelako lekukotasunak urriak (ezezagunegiak, hobe) izan arren.

Ezer baino lehen berresan dezudan (cf. Lakarra 1985a) ez zaiola duen garrantzia aitortu Patxi Altunak (1967) argitaratu Larramendiren euskara-gaztelera hiztegiari. Bere hirukoitza atzekoz aurrera jartzeko saio amaitugabe honek (ikus § 5.1.) froga garbia damaigu, oraindik gehiago behar bagenu, hiztegia atzerritar etsaiei ihardesteko aterea dela pentsatzen dutenen aurka; soilik Larramendiren heriotzak eta hark usu salatu (*HH*, xxviii hb, Altuna 1967: 139) euskaldunen ezaxola eta zabarkeriak azal dezakete andoaindarraren euskara-gaztelera hiztegi hori lehenago eta gehiago ez eza-gutua eta, horrenbestez, L-ren hiztegi-gintza lanak beste begiz ez ikusia.

Asmatutako hitzberrien zergatia, Larramendi eta garbizaletasuna eta L-ren hiztegiaren helburu eta emaitzez bestetan ere (1985a) mintzatu naizenez, naxion henen haren hiztegiaren egiturari, hots, gaztelera-euskara-latina ordenari. Konpli da ikustea egileak berak zer dioten hiztegia euskara-erdara zergatik ez den azaltzean: "Mi primer pensamiento fue poner primero la voz bascongada y después la correspondiente castellana y latina: pues así se llamaría al parecer con más oportunidad diccionario del bascuence. Pero mudé la idea atendiendo a la utilidad de este género de obras". (*HH*, xxxviii)

Ez zuen gehiegitarako balio lehendabizi euskal berba jarritz geroz: Espainian nahiz Euskal Herrian hiztegia erabili behar zutenek bazekiten jadanik gaztelera, eta zekiten gaztelera horretaz baliatu beharra zuten euskara (gehiago) ikasteko. Anglès-ek bere *Prontuario orthologi-gráfico trilingüe en que se enseña a pronunciar, escribir y leer correctamente en latín castellano y catalán-en* (Barzelona 1743) katalanari dagokion zatia ere gaztelera zergatik den azaltzeko "es constante que en España (aunque sea catalán) ninguno hai, si es literato, que ignore la castellana" diosku (apud Colon-Soberanas 1985: 116). Gainera, eta ohar bedi honetaz, euskaraz ez zuen bospasei dotrina baino aurkitzen; gaztelera, aldiz, baziren argitaraturik hainbat liburu ia kultur arlo guztietan, eta kultura hori zen eskuratu eta euskararatu behar zena; ikus beheragoko Baldiri Rexach-en antzeko pasartea (1749) Euskal Herritik kanpo ere antzeko arazorik (eta aterabiderik) izan dela ohartzeko.

Badirudi xviii. mendean ez zela Larramendi bakarra izan hartu zuen erodia hartzen. Ez da soilik Aizpitarte-Real Sociedad Bascongada de Amigos del País-en kide-tasuna (cf. Altuna 1985, Echenique 1985); hitz zerrendaz goragoko lanik egin nahi zuenak L-ren erodia bera hartzen zuen Euskal Herririk landa ere:

A partir de la publicació del *Diccionario de la lengua castellana* per la Real Academia Española (Madrid, 1726-1739), estimulada per la del diccionari de La Crusca de Florència (Venècia, 1612) i per l'edició dels diccionaris d'altres nacions, nasqué a les diverses terres de parla catalana la necessitat de posseir un diccionari semblant. Aquell repertori castellà esdevingué, com veurem, una meta i un model a seguir (Colon-Soberanas 1985: 127).

Quan el 24 d'abril de 1770 es tornà a tractar el mètode que s'havia de seguir per formar el diccionari català [Barzelonako Acadèmia de bones lletres-ena], es va recomanar tenir present el que havia fet l'Acadèmia de la Crusca i l'Espanyola per a llurs diccionaris. "I hom acordà" que el diccionari que va a formarse sea al mismo tiempo sucinto y claro, tan completo que se pueda, para que sirva de depósito de la lengua catalana y de desmpeño para la utilidad del público, no sólo en punto de las voces usua-

les y corrientes, sino también para la inteligencia de la antiguas y aún de las antiguadas, que deberán incorporarse con las demás por orden alfabético, señaladas particularmente y con las remisiones convenientes a los vocablos que les corresponden en el día. Las varias acepciones y sentidos de unas y otras, ni los precisos exemplos de comprobación deberán omitirse, como ni la interpretación latina (ibid. 131).

La disposició del Vocabulario [Mallorquí castella, Ira Antoni Oliver ena, Josep Tògores i Zanglada eta Guillem Roca-k osatua] i de la seva continuació és senzilla. Segons l'enlluernament provocat pel diccionari de l'Acadèmia espanyola, hom ha seguit el cabal lèxic d'aquesta obra (sens dubte l'edició princeps) i ha establert una llista per ordre alfabètic dels mots mallorquins, al costat de cada un dels quals són donats els equivalents en castellà i en llatí (ibid. 125).

Ros [*Breve diccionario valenciano-castellano*, 1739] tingué l'acudit de copiar al costat del mot castellà d'alguns lemes catalans la definició donada pel *Diccionario de la Academia de la Lengua Española* (ibid. 123)

D. Félix Amat, que Vm. conoce, i algún otro compañero tienen adelantado el Diccionario Cathalán que piensan imprimir: han seguido el Diccionario de la lengua castellana, i recogidos los diccionarios de nuestra lengua le han aumentado de muchas voces... (Mayans-i 1784an egindako gutun batetik; ibid. 134).

3.2. *Bidenabar apologie:*

Baliteke oraindik norbaitek pentsatzea lan hori (eta egitura horretan) soilik "para no envidiar a otras lenguas alguno de sus ornamentos y curiosidades" burutu zuela. Haatik, ez zuen zertako. Jadanik egin zuten horrelakorik bere *De la antigüedad*-en edota *Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria*-n; aski zuen zerbait gehiago erantsi nahi hazuen hiztegiaren hitzaurrearekin, baina ez zuen zertan egin 800 orri handitik gorako hiztegiarik. Arrotzekin jokatzan ari zen partida irabazia zuen eta tantu askogatik Arakistainek ziotsonoz. Burukomin gehiago ematen zion, ordea, euskaldunen epeltasunak eta behin eta berriaz inarosten zien: erdal testuetako euskarazko zatiak ez dira beti arrotzak iraintzeko edota haiez irri egiteko; *Corografía*-n, esate baterako, euskaldunen batasun faltaz eta alferkeriaz, eta horietatik datozkeen arriskuez mintzo da.

Apologiaren premia eta arrazoia ere ez da behar bezala ulertu izan. Etxeberriek, beste zeinnahi bezain zuhur eta praktikotzat izan ohi dugun egile batek, euskararen apologia ematen digu bere *Escuararen hutsapenac latina ikhasteco* gramatikaren aitzinean eta honen sarrera bezala; irakur dezagun azkenoraino L-ren lehen obraren tituluak: *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España: de sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas lenguas*. Lehenago ere gogoratu dut, izan, luzeago dela, bigarren zati hau denek ez ezagutu arren: *Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta lengua*. Hots, bai Etxeberriek eta bai L-k beharrezko, nahi eta nahiezko dituzte apologiak. Gramatika bat edota hiztegi bat "gauza serioegia" zen oraindik zeinnahi hizkuntzari buruz egiteko; merezi egin behar zuen hizkuntza honrek. Frogatu egin behar zen deskribakizuna hizkuntza bat zela eta ez erdi-purdiko ahunzterdara edota zarata nahasi eta itsusizko sorta bat.

Quéro é que a lingua castelhana muito melhór é que o vasconço de Biscaia e o çecçair çigano de Sevilha, as quies nam se pôdem escrever" (João de Barros, in Buescu 1971: 397).

Amado Alonsoen hitzetan "[Barros] ha buscado en el vascuence y en el gitano dos ejemplos extremos de jergonzas y lenguas bárbaras [...] en contraste con las len-

guas civilizadas” edo oharrean argitaratzaileak (Buescu) dioskunez “Para João de Barros o vasconço apresentase como o prototipo de língua bárbara e ininteligível (Cf. *Déc.* m., ed. de Hernâni Cidade, pág. 262)”. Ez dut Barros-en beste obra hori eskuraterik izan baina Alonsok aipatutako “Diálogo em louvor da nossa linguagem” horretatik atera gabe hizkuntz nahasketa azaltzeko “E assi os filósofos, matemáticos, juristas, médicos, todos entre si trázem termos que nam sam latinicos nem gregos, mas cási um *vasconço* de artes em que os hómens gástam tantos anos (400-401, etzana neurea). Edo “quanto à dificuldade de gramaticalizar e ortografiar tal língua, diz: “ós que falam vasconço, que trócam umas lêteras per outras” (Buescu 1971: liii)

xx. mende honetako hizkuntzalaritzan onartezinezko gertatzen bada ere honelako jarrerarik, hedatuena zen orduan eta lekuko garbiak eriden daitezke:

Sobre el portugués y el catalán apenas habla Madera. Trata a ambas lenguas como idiomas secundarios, que tenían más o menos la misma estructura que el castellano, pero con grandes divergencias en el vocabulario. *Madera considera que no vale la pena tomarse el trabajo de estudiar una lengua que no pertenece a las 72 lenguas originarias y que debe su existencia a mezclas posteriores.* (Bahner 1966: 111; azpimarra neurea).

Soilik honi aurre egin ondoren jaitsi zitezkeen “praktikara” eta gramatika edo hiztegia argitaratu edo argitaratzen saiatu, beti —gogora Bidegarai (cf. Oyharçabal 1989) eta Etxeberri— argia ikustera ez bait ziren iristen.

Apologista “teorikoek”, ez zuten bigarren urrats hori ematen, noski, beren egiazko helburua eta xedea ez bait zetzan hizkuntzan bertan, hizkuntzaren atzean edota gainean baino. Etxeberri eta L bezalako “praktikoek”, ostera, lehenengo saioa urratsizat, erabili ohi zuten bigarreneara heltzeko asmoz. Modu honetan ez ulertzeak, eta anakronikoki egungo irizpide eta helburuetarik epaitzeak azal bide lezake Azkue eta Aranaz geroztik L-k pairatu duen heherapen eta hondamena. Villasantek zioskun mezipzura iritsi arte.

Tovar-ek (1980) ezin ase gaitzake ez xx. mendera arteko euskarareriko azterketen histori gisa ez euskararen inguruan izan diren mitologia eta ideologiaren azterketari dagokionez. Ez da, soilik, hutsuneak direla (nabarmenak, hala ere, Claveriaren bertsoak nekez lepora ahal dakizkickeen Sarako Etxeberri edo Kardaberatzena): testuingurua zaio falta. Hots, mitologia eta ideologia horiek zertarako dira, nondik datoz, eta, bereziki, Euskal Herria ote beren kokagune bakar? Bestalde, eta hau ez da Tovarri bakarrik egotz dakiokkeen erria, ez dirudi egoki hizkuntz ideiak erkatzekotan behin eta berriz Gaztela edo Frantzia gogotan izatea. Hor dira, hurbilago segurki, berena estatu hizkuntza bilakatzea lortu ez zuten katalan herriak, Galizia eta, beharbada, beste anitz Auñamenditik iparrerantz.

Hara Josep M. Miquel y Vergés-engandik (*La filologia catalana en el periode de la decadencia*, 1938, berrarg. 1989) hartzen ditudan pasarteok:

Ignasi Ferreres, en la seva ja citada *Apologia del idioma català*, és un altre rebel. El títol sol és eloqüent, i els adjectius, amb què algú moteja el nostre idioma, “aspre, incult y escàs” són base del seu anatema. Cal associar els noms de Josep Barberí, Miquel Pla, R. Simon Pla, Josep Puiggarí, Antoni Savall, Francesc Surrià i Joan Ignasi Savall amb l’esperit de l’apologia, ja que sabem que figuraven en aquella societat que, amb el nom de Comunicació Literària, subsistí nou o deu anys (XVIII. mendearen hasieran) amb finalitats reintegratives. (85)

Juntament amb aquestes activitats (Ferrerres-enak) destaca el gest exemplar dels prelats del Principat, que el 1727 disposen i ordenen que no es permeti explicar l'Evangelí en altra llengua que la catalana. (83)

Baldiri Rexach (*Instruccions per la ensenyansa de minyons*, 1749koaren egilea) no és pas un home indiferent a la sort del nostre idioma; ben al contrari, se'ns mostra gelós de la seva glòria i propugna el seu ús literari. Fa bonic el que diu en el capítol "De la sciència de las lenguas:" No me diga algú, que les bons llibres de las lenguas estrangeras ja se troban traduïts en la llengua pròpia, y nativa, perquè això és cosa molt falsa, y singularment respecte de nostra llengua Cathalana, respecte de la qual podem dir, que són molts pochos los llibres estrangers, que si troban traduïts, y no sols los hòmens Doctes Cathalans han faltat en no fer la traducció de molts llibres estrangers, que són utilíssims, però si també han faltat, en no escriurer en Cathalà alguns llibres molt bons que han fet imprimir en llengua Castellana, o en Llatí, com si la Nació Cathalana no merequés, o no tingués la necessitat de ser tant instruhida, com quiseuna de les demés. (88).

Exeberri eta Larramondirengan (orobatsu, Bidegarai baitan aurreko mendean) elkartzen dira, batak bestea osatuaz, zein bere aldetik ia ulertezin liratekeen apologista, gramatikolari eta hiztegiilea. Badute iderik, garaikideak gainera, Euskal Herritik landa. Hara, esaterako, bila daitezkeen ugarien artean, Colon eta Soberanas-ek Carles Ros-ek (A. Basterorekin batera XVIII. mendeko katalan filologiaren gailur Miquel i Vergés-entzat, 1938: 105) diotena:

la seva producció més interessant per a nosaltres ultra la de dos opuscles apologètics de la llengua, és la d'un bon nombre de tractats gramaticals i ortogràfics i de vocabularis, escrits tots amb una sola finalitat: facilitar el coneixement, pràctic i profund, de la llengua autòctona (1985: 122).

4. Iturriez

4.1. Iturri guztiak aitortu ote Larramendik?

L-k bere iturriak hiztegiaren hitzaurrean aitortzen ditu (HH §§ XIX-XX eta XXVII); batetik liburuak, batez ere lapurtarrak; bestetik herritarrengandik jasotako hitzak; azkenik bere kabuz asmatuak, zientzia hizkuntzarako. Hori, ordea, azalpen orokorra dugu, eta ez digu, beranduago Azkuek aurpegiaratuko zion bezala, zeini bere etorkia (idazle edo herria) ezarri eta azterketa luze baten bitartez baino ezin jakin zein nondikoa datekeen. Azterketa hori gehienbat egiteke dugu, euskal lexikografiaren historiarako duen interesa ez balu bezala. Diodan zer bait, ordea, bestetara baino lehen: Azkueren eta gerokoen aipatu kritika ez da zuzena, L-k ez bait ditu etorki markak ahazten zabarkeriaz; berak diosku berariatz utzi dituela ezartzeke Euskal Herri osora hedá daitezzen eta ez ahantz, halako edo holako tokitan baino ez zirelako orduan gordetzen (ikus Lakarra 1985a eta Sarasola 1986). Zalantzarik gabe, baten bere egitekoan dialektologi aitzindari izateaz goragoko asmorik.

H-en *Gramatica escuaraç eta francesez-koa* (1741) da (cf. Lakarra-Urgell 1988) Lécluseren *Manuel de la langue Basque-ko* frantses-euskara hiztegiaren (1826) iturri nagusia. Ez da Lécluse, haatik, haren zordun bakarra, iturriari zor dizkion Lécluseren hiztegiiko zenbait ezaugarri markagarri L-ren E-n ere errepikatzen bait dira: E-ren beste iturri, artean ezezagun, baten aurrean garcla onartu beharra dugu, bada (cf. Lakarra 1991a; Urgell 1992 Añibarroren H-rekiko zorraz).

Hitzaurrean berak H aipatu aipatzen digu: "Acaba de imprimirse una Gramatica de Bascuence, y Francés, por su Autor Monsieur Harriet, con muchas curiosidades, y

un Dictionario cortito del Bascuence, y Francès, todo en octavo; cuyas voces con otras, que le faltan de su Dialecto, se hallarán en mi Dictionario". Zenbait lerro beherago deskribatzen eta epaitzen duen Landuccionen hiztegiarekiko juzku gaiztoa ez bada ere, badiradi, itxura batcan, L-k ez zuela progotxagarrizkorik eriden Martin Harrieten gramatika atera berriko hiztegietan.

Larramendi aztertzerakoan itxura eta aitortutsetan ez gelditzea komeni zela aspaldi erakutsi bazigun Mitxelena, orain dagokigun iturrien azterketan ere aurkituko dugu horretarako ziorik. Hara bestela H eta E-ren arteko huts bateratzailak eta H- ez baliaturik E-n egin daitezkeen irakurketa zuzenagoak:

436. Muro, *afantua*, cf. H "mur, *afantua, pareta, murrua*". Cf., aldiz, bertan "maçonner, *asantateua*". 600. Semejante, *alayoa*. H "halaioa, pareil, semblable" bertako "Fautes à cor[r]iger dans les Dictionnaires"-en ere biltzen zaigu: "p. 299 *halaioa*, [fisez] *halacoa*" (511. or.). 629. Tacha, *narraioa, narrioa*. H "tâche, notha, *narraioa*". 203. Despedazar, *pedazatu*. H "piece, *pusca, pedechua*"; "rapiecer, *pedechateua*". 423. Miseria, *ezceria*. H "misere, *ezceria, laceria*". 463. Ocasión, *aurguina*. H "occasion, *parada, aurguina*", "si j'étois en occasion, *aurguñan banain*". 622. Suponer, *halizcatu*. H. "le moulin suposé ne fait pas de farine, *halizcaco ihurac ez du irihic eguiten*" eta "suposer, *halizcateua*".

H hartzekodun seguru dugu, bada, Zor horren zenbatekoa, aski larria, E-ko sarre- ren banan banako azterketa batek esango liguke (cf. Lakarra 1991a): hemen soilik zenbait adibide aipatuko dit.

12. Aceptar, *onartzea*. Cf. H "accepter, *topatzea, onharrea*", letraldaketa sistemati- koarekin; 79. Atreverse, *ansartatu*. Cf. H. "oser, *ausartateua*" eta "atrehiteua, *ansar- tateua, oser*", "ausartatu, osée, f.". 105. Brazo, *galzarra*. Cf. H "galzarra, bras, m." (Fr-eusk. koan, "bras, *hesua*", "sein, *galzarra*", 176. Cuidado, *gardia*. Cf. H "sérieu- sement, *gardiacorqui*", "sérieux, *gardiacorra*", "fidèle pour tenir le secret, *gardiacor- ru*". 352. Justificar, *bitoretu*. Cf. H. "justifier, *bithorettea*", "il a été justifié, *bithore athara da*". 368. Momento, *liparra*. Cf. H "instant, *liparra*", "un instant, *lipar bai*", "dans un instant, *lipar baten buruan*", 373. Lienzo, *linia*. Cf. H "linia, linge, m.". 377. Limitar, *chedatu*. Cf. H "limiter, *chedateua*", "marquer, *sinialateua, chedateua*". 391. Malicia, *amarrua*. Cf. H "malice, *amarrua*", "malicieux, *amarrueua*". 410. Melanco- lía, *languadura*. Cf. H "melancolie, *languadura*". 428. Moneda, *chehea*. Cf. H "mo- noye, *moneda, chehea*"; "la monoye d'un écu, *luis baten chehea*", "chehea, menu", etab.

H-ren eragina ez hitz solteetan baina hizkuntzazko eta grafiazko xehetasun aniz- tzetan kausi dezakegu:

5. Abrigo, *malda*. Azk-k dioenez adiera honetan BN da berba hau; cf. H "abri, *leio- rra, malda*", "à l'abri, *maldan, estatgunan, atherian*". 15. Acomodar, *onsatu*. 153. Componer, *onsatu*. Ekialdeko *onttsa*-tik Mitxelena rentzat (M). Cf. H "acommoder, *onsateua*". 247. Escoba, *jatsa*. M-k ekialdekoztat du (Ax *isats*); cf. H "balay, *jatsa*". txistukariaren grafia ohi bezala egokituaz. 266. Facciones, *hazbeguiac*. Azk-k azbegi "facciones" B-kotzat du, baina L-ren letraldaketarako ohiturak ozaguturik iparraldeko iurri batek behar du; cf. H "traits de visage, *hazbeguiac*". 376. Lima, *carraua*. "Leiz" (M) baina H "lime, *lima, kharraca*"; "limer, *limattea, kharracateua*". 401. Marca, señal, *zagutunza*. Harrigarri M-rentzat (errata ez bada) batez ere GN-tzat jo ohi bait da e-. Baina cf. BN-koa den H-n: "marque, *sinalea, zagutunza*". 407. Media- no, mediocre, *erdixucua*. Ez dator Ax-etik bark ez bait darabil grafi hori, bai, aldiz H- ek: "médiocre, *erdixucua*". 496. Pasatiempo, *aliaca*. H "aliaca, *passetemps*". 657. Tumulto, *biaorea*. M-k bearn. zah. *biafore*, gask. *biahore*. "grand cri. clameur, appel

au secours, etc.” (FFW 14, 377b) familiarekin lotzen du, iturburuaren bilaketa gida tuaz: “H” tumulte, *biaorea, alarma*.

4.2. Testukritika hiztegietan. Sarrera konplexuak eta atzizkiak

Testukritika liburuetan ez da eriden ohi gauza handirik hiztegiez. Izan ere, hertsia hertsian, ez dira *testu*. (hizkuntz historialariek, gure artean arc *HEFH*-ak edo *OFH*-ak, bereizi ohi dute testuen lekukotasuna eta hiztegietatikoa), eta berez, ez dagokie testukritikalariei haien azterketa. Alabaina, pentsaketa apur batek erakutsi liezaiguke nekez onar dezakegula honelakorik. Hasteko, edizio eta eskuizkribu diferenteen arteko ezberdintasun anitz hiztegi arazoak dira: hitz aldaerak, sinonimia arazoak, arkaismo eta herrikuntzak, etab; bestetan kopiagile, moldatzaile edo argitaratzailearen batek delako testu bat prestatzeko halako edo holako hiztegia erabili du. Azkenik, ez da zaila ikustea hiztegien azterketa filologikoak badituzkeela lexikografia hutsez landako emaitzak (iturriak zehazitzeko orduan, esaterako); ez bide da ezinezko, halaber, hiztegien azterketan testukritikaren ariketatik ateratako ezagutzaren bat edo beste interesgarri izatea, eta arc, ditekenea iruditzen zait, alderantziz. Gorago ikusi dugun huts bateratzaile eta irakurketa hobeen erizpideez gainerakorik erants dezakegula koan nago eskuartean ditugun azterkizunetarik abiatuz.

Sarrera anizkunak. Hiztegietan ematen diren sarrera konplexuak, nahiz iturri anitzen arrasto nahiz dagoeneko iturriek izan ditzaketenen islada izan daitezke. Honela, inoiz sarrerako hitzetarik bat Ax-engandik hartua eta bestea(k) Land edo RS-ctikoak ditugu E-n. Alabaina, arrunt errazago azal daiteke E-ren egitura ezaugarri hau beste hiztegi bat duenean iturri:

144. Colcha, *cunchoina, matelasa*. Cf. H “matelas, *cunchoina, matelaza*”. 149. Comer demasiado, *chiflatzea*. 150. Comer con gusto, *ñaflatzea*. Cf. H “manger, *jatea*”, “manger par excès, *chiflatzea*”, “manger avec goût, *ñaflatzea*”. 169. Cosecha, *ustaila, biltzapena*. Cf. H “saisons, *ustailac, biltzapena*”. 195. Desconfiado, *fidagaitza*. 196. Desconfianza, *fidagaitzazuna*. Cf. H “méfiant, *fidagaitza, iduricorra*”; “méfiance, *fidagaitzazuna*”. 270. Faltriguera, *saquela, chiscua*. Cf. H “poche, *saquela*”, “pochette, *chiscua*”, *sakhela, poche*. 405. Matanza, *sacailla*. Hacerla, *sacaillatu*. Cf. H “massacre, *sakailla*”, “massacrer, *sakhaillatzea*”, “massacrer, *sarrasquitzea*”. 452. Nones, *hacochia*. 489. Pares, *hirichia*. Cf. H “paire, pair, *parea, hirichia*”, “impair, *bakhotchia*”, “*hirichia, pair, m.*”, etab.

Atzizkiak. Ezagun denez (cf. bereziki Sarasola 1986, xehetasunak xehetasun) idazkera landuaren tasun markagarrietarik delarik atzizkien erabileraren ugaltzea, eta ez izaki atzizki bakoitzaren zedarriztapen tinkoegirik, usadio bereziak aurki daitezke egileen artean, bai atzizki hautapenari, eta baita atzizki bakoitzaren balioari doakionez. Honela bada idazleen artean, arago haien zabaltzaile nagusi diren hiztegi-gigileenean, Eginkizun emankor dugu atzizkiak arrasto edo aztarna gisa erabiliaz ondutako cuskal hiztegien azterketa historikoa. Oraindik behar bezala xurgatu ez den iturri honen balioaz jabetzen gaitu E eta H-ren azterketak. Hara adibide pareak.

Guertacuntza E-ko bi sarreratan azaltzen zaigu: 125. “Caso, suceso, *guertacuntza*” eta 619. “Suceso, *guertacuntza*”. “Ez dut E honetako *-kuntza*-zko eratorriek oro bezala, L-ren sorketa (guztiz erregularra, bestalde) susmoa bizten duen hitz honen lekukotasunik eriditen. Hain zuzen ere, horietarik soilik guztien eredu bilaka zitekeen *azar-cuntza*-ren (E-ko 78.a) antzinatasuna frogatu ahal izan dut” dio Mitxelena (1970), 125. sarrerako iruzkinean.

Alabaina, ez da zer suposa L-ren asmaketak direnik *E*-ko *-kuntza*-dunak oro. Hasteko, hau berau *HH* aren *E* baino zaharragoa da, askogatik ez bada ere: *H* "succés, *guerthaque*". Bestalde, etorki bera dute 401 "marca, señal, *zagutuntza*", 409 "mejoras, *obecunzac*", 499 "passco, *ibileuntza*", 532ko "preferencia, *lencuntza*", eta 616 "suficiente, *asquicuntza*"-k ere; salbuespenen artean Mitxelenak aipatu 78 "arevimiento, *azarcuntza*" (RS165) eta 408 "medicamiento, *midicuntza*" (Ax 425) dira. Soilik 648 "tormento, *toliacuntza*" iruditzen zait L-k gainerakoen eredura asmatutako hitza eta honetan ere, bai hau eta bai 75 "Atormentar, *toliatu*" biak baditu ere etorki ezezagunekotzat, M-k berak markatzen du *Izt* eta *Voc*.-k lehena jasotzen dutela, eta bai *toliatu* (Hiribarreni hartua) eta baita bere eratorriak ere Lh-k. Aditzaren etorkia H fr.-eusk. dugu: "tourmentar, *toliatea*". Eratorria egile honengan ez da aurkitzen eta berau dugu H-engan peitu den *E*-ko *-kuntza*-dun bakarra. Baina, ez da zalantzarik lehen bil-
duen aurrean, hari zor dio horren erabileraren ideia L-k; areago ia guzti haiek dago-
kien aditzaren ondorik bait dakartza H-k.

Gehienak ez dira, bada, Mitxelenak suposatu legez *E*-n sortu, H-en hiztegian baizik.

Badira halaber *-catu*-z osatutako aditzak *E*-n; hara hemen beren zerrenda osoa: 26 eta 264 *marruscatu*, 66 *billacatu*, 259 *eguincatu*, 462 *hiscatu*, *estocatu*, 498 *ibileatu*, 533 *lencatu*, 622 *balizcatu*, 649 *lancatucta* 678 *icuscatu*. Guzti guztiak, Ax-engandik *hiscatu* salbu, H-engandik jasoak: "froter, *marrusquattea*"; "ruiner, *billaquattea*"; "stipuler, *eguincattea*", "il stipule bien, *ongui eguincatcen du*"; "obstiner, *estocattea*"; "se promener, *ibileattea*"; "préferer, *lehencattea*"; "suposer, *balizcattea*"; "travailler, *lanecattea*", "visiter, *ikhuscattea, visitattea*". hurrenez hurren.

Egia da Mitxelenak 26 eta 264 "*Marruscattea*, froter entre les mains" dela gaztigitzen digula *Pouv*-rentzat. Horrelaxe Azkuek aipatzen duen Ax 41 ere. Besterik ez dioelarik, badirudi M-k Ax-en pasarte hau duela L-ren iturritzat. Orobat 66 "Arruinar, *billacatu*", -n azalpen errazeko gainerakoetan bezala, M-k etorkia zuzen zuzenean ematen du: Ax 190 eta 423. Ax-ez landa *Pouv*-k eta Haranderekek ere badakartela gehituaz. Litekeena den arren, *E*-n atzizki horrekin eratuak diren aditz guztiak H-engandik hartuak izatea hauetan ere haren alde erabakitzeo arrazo garrantzitsua da, ene ustez, eta haboro bigarrenari dagokionez, "il a ruiné toute sa maison, *bere etche gucia billaquatu du*" eta "détruire, *destrucea, billaquattea*" ere bait dator gorago aipatu sar-
reran bertan.

616. "Suficiencia, *asquicuntza*", 617. "Suficiente, *asquitsua*" 593-594 sarreteran agertzen diren *uski*-ren eratorri pareak "satisfacer" *asquiesi*, "satisfecho" *asquiesia*) gogoratzen badu ere, Mitxelenak ez daki ezin zehaz dezakeen iturriren batetik hartuak ala L-k berak asmatuak diratekeen.

Baina Mitxelenaren beldurraren aurka erakutsi den legez, L-k ez du *E* honetan *-kuntza* atzizkiaren bitartez hitzberrik asmatzen, *toliacuntza* salbu, eta sail horretako ia guztiak direla H-engandik jasoak. Horrela gertatzen da kasu honetan ere, bi hitzak bait dira dagoeneko H-engan: cf. "sulfire, *asqui icatea*", "suffisant, *asquixu*", "suffisance, *asquiqua*" eta "suffisamment, *asquiqui*".

Aldiz, ez dirudi *-dura* atzizki honen erabileran H-ek L zaletu zuenik *-kuntza*, edo, beste neurri batean, *-katu*-rekin egin bezala:

Soilik "melancolía, *languadura*" du *E*-ak iturri hartatik baina ez du "attachement, *estequadura*", "mouvement, *higadura*", ez "souveranité, *gaindura*", nahiz eta bertatik jaso 227 "embarazo, *estecua*", 413 "moverse, *higuitu*" eta 610 "soberano, *oronaco*", zalantzazkoa da 44 "amortecimiento, *hildura*" eta ez da *hacdura* baizik 171 "costumbre, *aznara*"-ren iturrikoa. Datuok esanguratsuak dira H-engan 40 bat eratorri bait dira atzizki horretaz baliaturikoak (4 eusk.-fran. hiztegian eta fran.-eusk.-zkoan gainera-

koak). H-en *-dura-*ren eta beste bien lekukotasunen kopuruak oso antzekoak izan arren, guztiz bestela agitzen da *E-*ean.

4.3. Arazo berriak Eraskin-eko iturrietan

Lakarra 1991a-n ikusi legez, II ere *F-*ren hartzekodun berri bilakatzean Mitxelena 1970ean Landuccio, *Refranes y Sentencias* eta Axularren artean egin kontu garbiketa zerbait berrikusi beharrean gara.

Arazo larriena Ax-ekikoa dugu, bera izanik iturri nagusia, batetik, eta haren eta H-en hizkerak beren artean bigarrenarena eta Land zein *RS-*ena baino askozaz hurbilago izaki, bestetik.

Gauzek duten benetazko zailtasunaren poxi bat antzemateko, mia bedi H "familiar, ausart, trebe, entregu" eta gogoratu harako "orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe". Bide berean garatmatza goiko esaldiok dakarizan "Irakurtzailleari" 10eko aurreko zatiazen eta H-en gramatikako "Iracurçailleari"-tik ondoren ezartzen ditudanen arteko erkaketak:

[...] Hunezaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera, eta zurc berrian usatzen eta segitzen den bezala, Zeren ez naiz ni hargatik bekhaiztuko, eta ez muturturik iarriko. Aitzitik haur da nik nahi nukicien gauzetarik bat, ene enseiu aphur hunez kilika zinitzan eta gutizia, enseiu hobetago baten egitera eta ene hemengo faltan ere erremediazera.

[...] deliberatu dut obra ehume hunen arguitarat emateco, eta menturaz hau iñanen da causa cembait berce hartueo bauto deliberatione obra hobetago baten eguiteco, hargatic ni ez naiz bekhaiztueo, aiteitic hori iñanen da ene placera; seguratuia naicelarie nor nahi den ni baino gaitago dela hunezco materieaz arguitasun guchiago emateco euscaldunei.

Loturaren sendotasuna markatzeko, komeni da 506-507 orrialdeetako "Escualdunei gomendioa eta abisua" interesgarri eta izenburu oihartzuneko pasarteren bat ere hona ekartzea. Axularrek antzekoaren aitzineko bicitan bezala "badaquiçue haiñitz mudança guisa ematen çaiola escuarari haiñitz herritan, hala nola" batez zenbait aipatu ondoren hara zer gehitzen duen:

Orai bat bederac ikhar eçaçue ala hartu ditudan bideac, ala utci ditudan moldeac diren hoherenac, eta axeguiñ eguiñen darotaçue niri çuen iduria horren gaiñean errateaz, liburu hau haren duçuelarie asataca bat beçala, ondoan eguiñ diteque mudança behar dena gauçac ongui ikhartu ondoan.

Ez da zalantzarik, bada, H-k ere ezagutu eta erabili zuela Ax L-k baino lehen (cf. Mitxelena 1981 eta Urgell 1991 Ax-en arrasto gehiagotarako).

Halere, gehienetan era ezberdinetako arrazoiak ditugu *E-*ko delako sarrera batean hitzak ez Ax baina H-(t)koak direla suposatzeke: forma 138 *ocenqui-*ren kasuan, esanahia 203 *pedazatu-*rencan (ikus gorago), hitz horien edo beren eratorrien agerraldi kopurua 413 *higuitu*, 464 *aisia*, 502 *bipildu*, 509 *galtzapen*, 538 *estacuru*, 603 *esteitea*, H-rengandikoetan L-k egiten dituen aldaketan barnean sartzea 639 *achiçuitu*...

Arrazoi nagusia, ordea, besterik da. Egunoroko esperientziak dioskunez, hainbatetik hainbatean, hiztegi gileek aurreko hiztegiatarik hartu ohi dute (gogora Pouy-ren Etx. Zib. arekiko zorra edota behe-rago ikusiko den Sbarbi-Urquijoren L-rekikoa) eta, askozaz gutxiago, noizean behin edo kasu berezietan, testuetarik zuzenean. Badakigu L-k testuak ere erabili zituela, batez ere testuak erabili zituela, nahia gu bada, bai-

na horrek ez bide zezakeen saihes ofiziokoen artean hain erroturik den azturatik. Nolanahi ere, badirudi hainbat eta aukera gehiago dukeela *E*-ko hitz batek ez testu bate-tik, *RS* zein *Ax*-engandik, hartua izateko —bestelako, hots, formazko edo semanti-kazko erizpiderik ez denean— zenbat eta *L*-k hura erabiltzeko behar edo beta gehia-go izan. Alegia, berezi egin behar soilik behin, hiztegiatarik batean, adibide ez eratorririk gabe datorren *H*-ko litekeen kide (ez-hapax) baten eta *H*-en bi hiztegi-tan, sarrera bat baino gehiagotan, eta, oraindik hobe, *L*-k hitz horri eman dion gaztelera-zko itzulpenaren frantsesezko formazko (ez beti esanahizko) kidetzakoan, erabilera adibide eta zenbait eratorrirekin inguratua den beste baten artean. Nabarmena da honelakoetan hiztegiak edozein testuren aitzinean duten azalpen boterea; hara segidan kasu bat edo beste:

352. Justificar, *bitoretu*. Cf. *H* “justifier, *bithorettea*”, “il a été justifié, *bithore athura da*”, 332. Impotencia, inhabilidad, *eciña*, 333. Impotente, inhabil, *eciñdua*. Cf. *H* “impossible, *eciña*”; “incapable, *eciñdua*”, eta orobat “incapacité, *eciñdua*”, 370. Libertad, *escudencia*, *tachoa*. Cf. *H* “liberté, *escudencia*”: “il a pris la liberté, *escudencia hartu da*”; “libre, *tachoa*”; “il est en liberté, *tachoa da*”, 391. Malicia, *amarrua*. Cf. *H* “malice, *amarrua*”, “malicieux, *amarruxua*”, 428. Moneda, *chehea*. Cf. *H* “monoye, *moneda*, *chehea*”; “la monoye d’un écu, *hais baten chehea*”, “*chehea*, menu”, 470. Oponerse, *contracarta*, oposicion, *contracarra*. Cf. *H* “opposer, *contracarta/tea*”, “opposition, *contracarra*”.

4.4. Aldaketak iturri berriaren aurrean

Ikus ditzagun orain aurreko azterketaren emaitzak zenbakitan (zehaztasun gehiagotarako ikus Lakarra 1991a). 776 hitz dira guztira *E*-n, bikoiztasun faltsuren bat eta forma edo esanahi berean agerru hitzak ezabatu ondoren. Horietarik 243 dira *Ax*-engandik hartuak (% 31,13), 161 ezagutzen ditugun *RS*-eko zatietarik (% 20, 74), 129 *H*-tik (% 16, 62), eta 67 Landuchioren hiztegitik (% 8, 76). 9rentzat (% 1,15) hautagai bat baino gehiago dugu ezagutzen diren iturrien artean, 47 *RS*-en zati galdurikoak izan daitezke (% 6, 05) eta 118rentzat (% 15, 20) ez dugu oraindik iturbururik.

Seiren bat da, bada, *H*-k *E*-ren iturburuez argitzen duena eta, oraindik ere zer iker dugun arren hondarra agortzeko, gainerako iturriei, *Ax*-i bereziki, *M*-k egokitu mailleuak zehazteaz landa, erdira jaisten du etorki ezezaguneko sarrerren kopurua.

H aldamenean ezarririk *HH*-ren gorputza barrena osera txiki bat egiten badugu orain, ez ote gara ez soilik *H* *E*-ren iturri bilakatu baina hipotesi ausartago bat egiteko moduan? Hara behin behineko emaitzak lehendabiziko sarreretan:

Agradable, *naicaria* / agreeable, *nahicaria*, Agrio, *miña*; agrura, acrimonia, *mintasuna* / aigre, *miña*; aigreur, *mintasuna*. Apetencia, apetito, *jambidea* / appetit, *jambidea*. Arrogante, *fuñfuatsua* / arrogant, *fuñfuatsua*. Aventura, *guertacaria*, *guertapena*, *suertaldia*, *ja:ocera* / aventure, *guertacaria*. Avaricia, *lucuarigoa*; avariento, *lucuarria*; avaro, *jaramanil* / avare, *lukuraria*; avarice, *lukurarigoa*; avaricieux, *jaramana*. Auditor, *aditzalte* / auditeur, *aditzalte*. Austero, *haindurrá*, *dorpea*; austeridad, *dorpetasuna*, *haindurtza* / austere, *dorpea*, *haindurra*; etab.

Luze joko luke bakoitzaren gorabehera eta bermegoak azaltzeak; banago, ordea, *L*-k *H* *HH*-aren gorputzean bertan, ez soilik *E*-n, erabiltzea egiaitzeko ez ere zer bait gehiago ere bilakatzen dutela. Pare bat datu haboro: *L*-k “caza de aves, *ihiza*”, “cazador, *ihiztaria*”; “cazar, *ihiztatu*” dakartza, *hh* horiek, hitz barneko kokagune horretan, ez dutela zalantzarik uzten iparraldeko iturri idatziren batetik hartuak direla, beste askotan bezala gorde duclarik puntu horretan iturburuaren grafia; cf. *H* “chasser,

ihiztatzea”, “chasse, *ihiciid*”, “chasseur, *ihiztarid*”. Bigarren bat: H “bagatelles, *chirehilqueria*” L “bagatela, *chirehilqueria*”, iturburuko formaren zuzentasuna ermandakotzat joaz, mailebatzailea *h* kentzera mugatuaz (cf. Lakarra 1991a, 1992).

5. HH eta XVIII. mendeko bi hiztegi

5.1. Sbarbi Urquijo hiztegiak

1907an ateratzen zen Parisen *Obras vascongadas del doctor laboriano Joannes D'Etcheberri (1712) con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra*. Bertan ziren bere bizian argitara *Lapurdiri gomendiozco carta edo guthuna* eta argitaragabe utzitako *Escuararen hatsapenac*.

Euskal Herrian zehar liburu bilaketan ari zela Zarauzko Frantziskotarren Artxibu interesgarrian Urquijok ediren zituen azken hauekin batera ez zen, ordea, Larramendik aipatu zuen haren hiztegiaren berririk:

El doctor don Juan de Echeberria, natural de Sara en Labort, oy médico de la villa de Azcoitia, muy docto y amante de su lengua, tiene años ha compuesto un diccionario quadrilingüe de bascuence, castellano, francés y latin, que impresso pudiera servir para entender los pocos libros que ay en bascuence, aunque no con toda extensión. Avrá diez, o doce años que estando de passo en Azcoitia me lo fió por dos dias y entresaque muchas voces del dialecto laboriano, para ponerlas después en las correspondientes del castellano. Harto me huviera alegrado que huviera precedido la impresión deste Diccionario para valerme del trabajo ageno sin ofensión de su autor en quanto dixesse bien con la idea del mio. (DT, 1)

Madridar liburuzale batek, José María Sbarbik, uste zuen hainbat urteren ondoren bere eskuetara iritsia zela eskuizkribu hori. Are gehiago dena, Urquijok konparatzeko *Escuararen hatsapenac*-etik orri baten fotografia bidaltzean berak zueneko esku hera ezagutu uste zuen.

Alabaina, Sbarbiren ustea ez zitzaion batera segurua iruditzen Urquijori, nahiz eta kontutan hartu arrapataka idatziriko testuaren (Zarauzkoa) eta tajuz eta txukun inprimategirako prestatuaren artean (Sbarbirena) izan daitekeen alde. Egiantzaren bat, aitortzen duen legez, eman ziezaiokeen aburu hari hiztegi eskuizkribatu hori ere XVIII. mendekoa, lapurtar batena, 202 orri soiletakoa eta euskaraz, gaztelez, frantsesez eta latinez osatua izateak, hots Larramendik emandako datuekin, oro har, ongi etortzeak.

Bestalde, zuhur erakusten zuenez, Sbarbiren hiztegian (*SbUr* aurrerantzean) bazi-*ren alosia* “musa”, *bocantça* “elocuencia”, *estrosada* “batalla”, *comunztadura* “concordancia” eta beste zenbait Etxeberri usu erabiltzen dituen hitzak, eta nahiz eta L-ren hiztegian ere idoro berauek, horrek ez dio frogari indarrik kentzen. andoaindarrak saratarri mailebatuak bait lirateke. Latinezko itzulpenetik datozen frogak ere erabiltzen ditu Urquijok: *Hatsapenac*-etan *arthaturi* “studiosum” itzultzen da eta, hortaz, *artha* Etxeberrirentzat “studium” zen; itzulpen hau berai agertzen da hain zuzen *SbUr*-en: *artha* “studium, cura”.

Halere, guzti honen ondoren, bere eritziz ez zen zalantzagabeko frogarik eskuizkribua Etxeberri egokitzeko eta baieztapen borobilik ez egitea iruditzen zitzaion hoberena.

Mitxelena (1970) berratu zuen eztabaida. Urquijoren argudioak gogoratu ondoren hark aipatzeke utzitako datuak ekarri zituen. Ezer baino lehen, *III*-rekiko zordun da *SbUr*, hor bait dira *E*-ko bitxikeriak oro eta gorputzetiko anitz ere.

Bestalde, markatzen du, "*seilac*, favus, pañales, rañon de miel" bezalako nahasketen aurrean (*panales* ulertu da), gaztelarazko hitzekin egiten dira diren "quid pro quo"ak, eta ez frantsesezkoekin.

Laburpen bezala, Mitxelenarentzat ez da ezer eskuizkribuan Etxeberriena izatea ezinezkoa egiten duenik, baina bai fetxa zailtasunak, 1749an hil bait zen, *III* argitara eta lau urtetara; eskuizkribuan erabili zuela suposatuz beharko litzatekeela deritzo.

Bere egiletasunaren aldeko frogak ere urri diren arren, *SbUr*-en badira harengan usuko diren hitzak: *alosis*, *hoccantça* (L-k ere badakartzanak), *antecantça* "inconcinis", *communizadura* "conventio", *estrosada* "proelium", *urmariatua* "liquefactus", *yendaquia* "natio" L-k ez dakartzanak.

Eta hau da bere ondorioa:

Cabe, por lo tanto, en lo posible, y hasta en lo verosímil, que el manuscrito sea de Etxeberri. lo cual vale tanto como considerarle acreedor en su comercio con Larramendi. En tal caso, Etxeberri sería la fuente primera de *alosis*, forma que parece aislada en el léxico vasco, de *hoccantça*, que pudo ser popular o formado por analogía, y de *hucnja*, que sería un derivado de *utzi* "dejar".

Dakidenez, *SbUr*-ekiko egiletasun edo kronologi azterketetan azken aurrerapena Gidor Bilbaok (1991: 767) egindako oharra da:

Kronologiari dagokion xehetasun bat iruditzen zaigu guri bereziki azpimarragarri [...] Etxeberri berak hiztegia moldatzen hasi zela lehenbizi eta gero ekin ziola gramatika prestatzeari. Latina ikasteko gramatikaren bertsio bat 1712.ean idatzi zuela onartuz gero, urte hori baino lehenagokoak izango genituzke zalantzarik gabe hiztegia hasia zueneko lehen saiok. Xehetasun hau gainera, ez dugu hutsala, Etxeberriren garaikide zen Urteren lanekin alderaketarik egin nahi duenarentzat.

Urterekiko alderaketa hori ez litzateke, noski, lotura eta zorrik erabakitzeke, ez bait da horrelakorik erakutsi oraingoz eta ez bait dirudi arrazoirik denik bata bestearen lanaren berri izan zuela suposatzeke; alabaina, bada beste erkakizunik euskal hiztegi zaharren tipologiari (cf. frantsesentzat Quemada 1968) egitekotan, eta azterketa hori ezinbestekoa dugu aurrerantzean ere ez dezaten iraun orain arteko topikoek euskal hiztegi gintza zaharraz.

Goian hona ekarri pasarteaz Bilbaok *Lau-urdiri gomendiozco carta edo guthuna*-ko zati hau dakarkigu gogora:

Halacotz, bada Escualdunen pena eta neque hau iccusiric hasi nintzen Escuaraz, Latinez, Francesez eta Espainolez hitzategui baten moldateen; bide hartaz Escualdun guztice eta bereciqui ene hertar Lau-urtarrec cembait fagore, eta laguntça içan içaten gatic; bere herritic camporat ilkhi gabe, cembait hitzcuntçaren parte hederen ikhasteco. Ordea noiz-eta-ere uste bainien aicina neramala neure obra, hohora citçaitan, deus guli balio çuela ene traillaillac, eta cimendugabeco obraren pare içanen cela baldin lehenbiciric ez banituen moldateen Escuarazco lehenbicirico hatsapeneac, Latin ikhasteco: ceren hauc baitira cein-nahi hitzcuntçaren cimenduac, çainac eta erroac (400. or.).

Orain arte ikusiak aski ilun izan dira, ene irudiko, eskuizkribuaren egiletasunaz mintzatzean, kontraesanak ere falta ez direlarik; hortaz, datuak ordenan jartzen eta ondoriorik ahalik eta argienak ateratzen saiatuko naiz.

SbUr ezin izan daiteke 1712 baino lehen Etxeberriek moldatua, ezta (hura bera izan edo artean beste nolanihi herritu) 1745 baino lehen (agian 1734 inguruan) hark Larramendiri utzia. Horretarako den arrazoirik sendoena —aski den adinakoa Mitxelena dioenaren kontra (cf. gorago)— *SbUr* eskuizkribuan Etxeberrirenen *ezin* izan zitezkeen hitzak jasotzean datza. Soilik 1745 ondoren, gutxienez hiztegia inprimategian zelarik osatutako Eraskina (eta agian lehen 3 letretako emendakinak, cf. Lakarra 1991a: 256) ezagutu ondoren eskura zitezkeen hitzak dira *SbUr*-en jasoak. Esaterako *E*-ko hutsak edo Harriet, Landuccio, *RS* edo Axularrengandikako zenbait hitz. Izan ere, ez du ezer laguntzen Mitxelena proposatu hipotesiak —hots, Etxeberriek *L*-ren eskuizkribua erabil zezakeela— ferxa zailtasunak arintzeko; horrela ere *SbUr* *L*-ren zordun litzateke:

E 1 *ablandarse, cantite*: *SbUr cantitea*, -tu (gero erantsia), emollire, *cantitcen icatea*, mouere se, mover se, bouger, se remouer. *E* 5 *Abrigo, malda*: *SbUr malda*, apricatio, abrigo, ahri, montée, precipice. *E*-ko hitza *H*-tik hartua da (Lakarra 1991: 230). *E* 6 *Abril, opea*: *SbUr opea*, torta, torta, tourte; id apirilic mensis, abril, avril. *E*-koa *RS*-eko hapaxa da (Mitxelena 1970: 54). *E* 8 *Acabarse, asacatu, neitu*: *SbUr asacateca, asacatu*, finire, acabarse, etre a sa fin, *Asacatu RS*-eko hapaxa da (Mitxelena 1970: 54); *neiteca* ez da *Ax*-en (Mitxelena, ibid) eta *L*-k *H*-tik hartu du (Lakarra 1991a: 233). *E* 9 *Acaceer, apucatu*: *SbUr apucateca, apucatu*, succedere, acaceer, survenir, arriver. *E*-koa Landuccioren hapaxa da (Mitxelena 1970: 54). *E* 11 *Acelga, zarba, bezarra*: *SbUr bezarra*, boeta, acelga, bette purée. Baina *bezarra* *L*-ren hutsa da Landuccioren “acelga yerua, *acelguea verarra*”-tik (Mitxelena 1970: 55).

Bestalde, ez dirudi *E*-tik hartuak beranduago, azken orduan, erantsiak direnik *SbUr*-en: testuan banean dira gainerakoak bezala, ez izkinetan edo lerro artean.

1712 eta 1740 inguruko (*L*-k berea eta, agian, berak *L*-rena ezagutu baino lehenagoko) Etxeberriren hiztegia ez dela erakutsi ondoren, *SbUr* honek Etxeberriren hiztegiarekin hurbileko edo urrutiko loturarik izan lezakeen genduke galdera.

Ezezkoa frogatzea ezinezkoa delarik, baiezkoa argigarri edo emankor den ikusi beharko. Baiezkoa bi eratakoa izan liteke: a) Etxeberriren hiztegiaren zordun da; b) Etxeberriren hiztegiaren bermoldaketa bat da, bermoldaketa honetan bestelako iturri-rik, *L*-ren hiztegia esaterako, erabili zituclarik moldatzailak (Etxeberri zein beste delarik hau). (a) besterik gabe erabakiezina da Etxeberrirenaren eskuizkribu, zirribo-rra edo antzeko ezer gabe; gehienez ere saia gaitzke erakusten (baina horrek ez luke (b) deuseztanuko) *SbUr*-en badirela saratarraren usadio eta ohiuren arrastoak. Bestalde, arrasto horiek *zuzenekoak* direla (eta ez *L* bitartezkoak) beharko genduke erakutsi, *III*-n jaso ez diren Etxeberriren “estilemak” erabiliaz, demagun. Honelakoak gutxi dira, ordea. Eta ez bedi pentsa hertsiegi jokatzeko eskatzen denik Etxeberriren arrastoak bilatzen: Axularren oihartzunak, esaterako, ez dira arbuizatzeko; kontrakoa, hain justu, haren usadioaren besteren baino salatzaileago diren bezainbatean (cf. Altuna 1989).

Etxeberrirenaren bermoldaketatzat jotzeko arrazoiak orokorrak zein zehatzagoak izan daitezke. Lehendabizikoarik genduke hiztegiaren egitura bera (eusk.-lat.-gazt.-frant.), antzeko bestelako hiztegiaren berririk ez bait dugu; ohar bedi (cf. gorago) Etxeberriek “escuaraz, latinez, *francesez*; eta *espainolez*” dioskula baina azken bi hizkuntzen ordena aldaketa —horrelakorik izan bada— ez litzateke 1745 ondoren eta Hegoaldean egindako bermoldaketa baten aurka; izatekotan ere alde. Urquijok eta Mitxelena-*n* gaztigatu euskararen etorkia (Japurtera, gehienbat, eta hori ez da saihesteko 1745

ondoren Larramendi darabilen testu batean), hutsak direnean gaztelera-ko hitzekin izatea, etab. ere hipotesi honen barnean oso egoki kokatu ahalko lirateke.

Oraingoz, bada (cf. Lakarra 1992 eta Bilbao-Lakarra, prestatzen, azterketa zabalago baterako) *III* erabiliaz egindako Etxeberriren berrimoldaketatzat nuke.

5.2. Euskara-gaztelera hiztegia

1967an argitaratzen zuen Patxi Altunak Larramendik amaitzeko eskuizkribuan utzitako euskara-gaztelera hiztegi bat. Fitak duela ehun urte aipatu arren, bestek lehenago aztertu ez kontutan hartua ez izaki, L-ren hiztegi-gintzarekiko azterketa gehienak erren ziren alde honetatik. Geroztik beste begiz ikus zitezkeen (cf. Altuna 1967, Lakarra 1985a) *HH*-n hiztegiaren egitura eta egitekoaz esanak eta, azken finean, L-ren "praktikotasunaz" (cf. § 3).

III gaztelera-euskara zergatik den azaldu ondoren "he observado este método en el Diccionario, esperando que otro curioso, que quisiese trabajar algo, podrá sin mucha dificultad disponer el Diccionario, en que se pongan antes las voces del Bascuence, y después las del Romance; pues leyéndolas en este Diccionario y teniendo dispuestos los pliegos, y quadernos necesarios, las pueden ir escribiendo en la letra, y combinación que les toca".

Alabaina, ez bide zuen hurbileko euskaltzaleengan horretarako prest zenik ikusten eta beregain hartu zuen aurrekoaren bihurteta.

Izan, bazen bitartean *HH*-ren berrimoldaketa horretan ari zenik, seguruenik Larramendik haren berririk inoiz izan ez arren: Bullet (*Memoires de la Langue Celtique*, 1755-59-60). Haren liburuan 10.000 euskal hitz (edo euskal hitzat emandako dira, euskaldunekin izandako tratutik jasotakoaz landa, Leizarragaren *Testamentu Berriaren* itzulpenaren hiztegia (eskuizkribatua), euskara-irlandera-eskoziara-galera-komikoa (eskuizkribatua), Fauvet-en *Hirur linguajetan tresora*, Oihenarten *Notitia* eta, batez ere, Larramendiren hirukoitza erabilirik (Aquesolo 1967: 144). Lehenago Vinsonek (1891) legez Aquesolok ere L-ren hiztegia du askorekin Bullet-en iturri nagusizat, *III* erakdatua izatera iristen ez bada ere. Damurik, ezin esan Bullet-en lana asetzeko modukoa izan zenik, ulerpen hutsak eta hutsarteak (deribatu eta konposatuaren erroak falta usu) eta, oro har, azkarregi eta euskararen egituraren ezagutza handiegirik gabe egindakoaren arrastoak ez bait dira falta (Aquesolo 1967: 145-147).

Euskara-gaztelera hiztegian ez zuen Altunak *III*-n ez zen hitzik kausitu; badirudi, beraz, haren bihurteta dela edo, hobe esan, bihurteta hori bide zen L-ren gogoan burutzerik ez bait zuen izan. Izan, 112 orrialde handi dira, bakoitzean hiruna zerrendarekin, guztira zortzi-bederatzi mila hitz, Altunaren kontuen arabera.

"Ze letraraño iritxi zen erdera-euskerazko iztegia? Alegia, norainoko itzak zituen aldatuak iztegi zaharretik berri onetara eta nundik ezkerokoak falta zitzaion berrira aldatzea?" galdetzen zuen Altunak. Berak esan bezala, zaila da erantzuten; erabateko segurtasunik izateko banan-banan aztertu beharko lirateke hitzak. Halere, Altunak zuhurki dakusan legez, bada noraino ez den iritsi erabakitzeko biderik:

Ar dezagun, esate baterako, erdera-euskerazko iztegitik m-gaz asten den erderazko itz bat: "morir", adibidez. Orren ordezkoa euskeraz *il* da: ba. *il* ezta ageri iztegi berri onetan. *Illerazo, illaraci, illerazopena* eta abar *il*-etik erakarriak, berriz, bai, auek badakartzi; baiñan oiek erdera-euskerazko iztegian "amortiguar, amortiguamiento" esan nai dutela dion ezkerre. A izkian arkitu zituen.

Beste adibide bat: "mano" erderaz *eskua* da euskeraz; ba, *eskua* ere ezta kar iztegi onetan. Itz onetatik erakarriak diren beste batzuek, bai, badakartziz: esate baterako, *escumaquilla*, *escumunac*, *escubareca*, *escuera* eta abar; baiñan oiek erderaz "báculo, besamanos, bielda, compás" omen diren ezkerro. B eta C izkietatik artuak zituen.

Beste orrenbeste esan dezaket *meza-z*, erderaz "misa". *Meza* ere ezta kar iztegi onek. Berebat *beldurra* naiz *bildurra*, erderaz "miedo"; ez bata ez bestea ez tira ageri iztegi onetan" (143).

"Aurreneko bozpasei izkien azpian agertzen diren euskerazko itzak baizik etzi-tuela iztegi berri onetan aldatu esango nuke" dugu Altunaren ondorioa, edota "Muga bat jar dezakegula uste dut [...] okerrik gabe esan dezakegula uste dut M letratuño beñipein etzela iritxi erdera-euskerazko iztegian, eta ortik aurrerakoak, beintzat —atzeragokoak ere ez, apika, denak—, aldatzeko astirik izan gabe atzi zuela erioak Larramendi Aita".

Baina hainbestetara ere iritsi ote zen? Aurrera baino lehen, ohar bedi euskara-gaztelera hiztegiak zortzi bat mila hitz baditu *HH*-ak hirurogei milatik gora izango dituela (800 orrialde x 80 inguru bakoitzeko). Ez da pentsatzekoa, bada, bihurteta urrutiegia heldu zenik eta, lana saillean egin bazuen, M-ra ez eze askozaz atzerago ere iritsi bide zenik.

Banago badela, eta Altunak emandako ohar eta datuetarik ilki gabe, hurbilketa haboro eskain diezaigukeen xehetasunik:

zenbait orrialdean osoro bete gabe agertzen dira zerrendak, azpiko aldean bete gabeko utsunea, اندىخه‌ا‌و‌ا‌، تىكىخه‌ا‌و‌ا‌، دوتلا. Beste iztegi zaharretik urrenez-urren itzak arto-ala idazten zituen, inolaz, berri onetan eta, jakitua, euskeraz zegokien letrapean ipintzen zituen. Orregatik ez tira agertzen, agertu ere, beti itzak izkien-jarraiak eskatzen duen ordena zortotzekin, erdera-euskerazko iztegian agertu-ala zetozkion giñoan baizik. Batetik bestera atzekoz-aurre aldatu baizik etzuen egin; geroagoko lana bearko zuen izan, emen artutakoak zuzendu, ordenatu eta urrenez-urren ipini. Baiñan ortara-ko astirik etzuen izan.

Gauzak honela, letra bakoitzaren azken sarreretan begiratzen badugu, han behar dute *HH*-tik jaso azken hitzak. Hauek miatzen baditugu ohartzen gara ez M letran baina askozaz lehenago gelditu zela Larramendi. Hara begirada arin batean ateratzen zaiguna:

A-ren azken sarrerak AR-ri dagozkio: *araugnea*, desorden, desconcierto; *araugnetu*, desconcertar, turbar el orden; *artalgnetu*, desempadnar. B-renak BE dira: *beltzarda*, corneja; *beanza*, *beanzaa*, correlación; *beronzeoa*, correnca. C renak CU: *cuperatio*, denguera, etc; *cuciddu*, desaparecer; *cupidaguea*, despiadado; D-renak DES: *desguicendu*, *desloditu*, desengrosar; *desirlicatu*, *desuraitu*, desengrudar; desalbiñotu, desenherrar; E-renak ER: *errebelatu*, descarriar; *erautsi*, hacer hajar, descender; *erauspenea*, descencimiento; F renak FR: *fracabaguea*, desbragado; *fracartea*, bragueta; *fracujario*, el de bragas caídas; G-renak GO: *gaistotu*, depravar, malear, hacerse malo; *gozacaitzu*, *gozagueu*, desabrirse; *gozacaitza*, *gozaguea*, desabrido, indigesto, desabrimiento, indigestión; etab.

Ikus daitekeenez azken hitzak erdara-euskara hiztegian *des*-ekin hasten diren sarreretakoak dira gehienez ere. Saio beran egin dut gainerako letra guztiekin ere eta ez dut kontrakorik eriden. Hortik aurrerako erdal itzulpenak (*e-*, *f-* edo bestez hasten direnak) sarrera horietan ziren (usu azalpen edo eratorri gisa) eta ez dioskute L aurre-rago joan zenik bihurteta lanotan.

6. Hitzberriak

6.1. -kuntza eta -katu Harrietan hiztegitan.

§ 2.2.ean ikusi dugu badela aski arrazoi zenbait hitz eratorri (-katu eta -kuntza, baina ez -dura, baliatzen dutenak) ez E-n asmatuak baizik eta H-tik hartuak direla esateko. Testukritikan iturriaren erabilerak, hots, delako egile batek, holako edo halako era batez eta honako edo horrako helburu batez erabiltzeak, ez soilik erabiltzailerari baizik iturriari berari buruzko berri eta aztamarik eman liezaiguke.

L-ren inguruko lanetan hainbesteko lekua hartu duen hitzberrien gaia behar bezala aztertzeo oinarriak jartzeko komeni da zehaztea E-koen iturri zuzen diren H-ko -kuntza eta -katu-*z* eraturiko konposatu horiek hiztegiaren 2. zatian, frantses-euskarazkoan, sortu direla; izan ere "hitzcunça, langue, f., langage, m." da, oso oker ez baina lehendabiziko zatian, euskara-frantsesekoan, aurkitzen den era horretako bakarra. Ikus, aldiz, bigarreneko emaitzak:

"abbreviation, laburqunça", "changement, aldaqunça", "comparaison, bardingunça", "corruption, gaitzqunça", "dégât, caltea, galqunça", "décente, jantzqunça", "disposition, erabilqunça", "election, hautaqunça", "entrée, sarrilguia, sarqunça, sarbidea", "exercice, ibilqunça", "fatigue, onhadura, onhaqunça", "instruction, irakhusqunça", "langue, langage, hitzcunça, minçaica", "lecture, irakharqunça [or. -khar-], "longitude, lucequnça", "marque, sitaldea, çagutqunça", "meliorations, hobequnça", "naissance, sorqunça, ethorquida", "naturel, ethorqunça, hazqunça", "obtention, ardietsqunça", "ordonnance, manaqunça", "pacification, fæcegua, haquequnça", "passion, pasionea, paraqunça", "préférence, lehenqunça [or. lo], "(la) promenade, ibilqunça", "revisement, berequnça", "recherche, billaqunça", "regard, behaqunça", "reglement, chuchenqunça", "remarques, goardiaqunçac, çagutbideac", "remontrance, erakhusqunça", "renouvellement, erreberriqunça", "saveur, gostuqunça", "sens, sentiñqunça, senñua", "sentiment, sendimendua, sendiqunça", "séparation, herezqunça", "soffrances, paraqunçar", "spectacle, ikhusqunça", "succés, guerthaqunça", eta "veué, vista, ikhusqunça".

Hots, 41 goiko bakarraren aurka. Bigarren atzikiaren azterketako emaitzek zuzenbide berean garamatzate: "cerracatcea, scier", "cerracatua, scié, m.", "chucatecea, essuier", "chucatua, essuié, m.", "chucatua, essuiee, f.", "iguericatcea, nager", "iguericatua, nagé, m.", "iguericatua, nagée, f." soilik euskara-frantses zertendan baina hara frantses-euskara hiztegian:

"s'accôter, sahescatcea", "s'agenouïller, belauricatcea", "assembler, biribilcatcea", "battre, guducatecea", "combattre, guducatecea", "comparer, bardingatecea", "détruire, billaquatecea", "dévider, harilgatecea", "dévidé, harilgatua", "distinguer, berezcatcea", "empêcher, thebekhatcea", "enroué, maillicatua", "enrouer, maillicatecea", "égaraigner, haztaparkhatcea", "exercer, ibilcatecea", "exciter, cihiquatecea", "froter, marrusquatcea", "genouïller, belauricatcea", "grater, kharrucatecea", "grincer, hirriquatcea", "imiter, iduricatcea", "inégaler, çaiuratecea", "limer, kharrucatecea", "mélanger, nahasteatecea", "nager, iguericatcea", "opposer, contracatecea", "piller, biribilcatcea", "pleurer, parracatecea", "préferer, lehenatecea", "se promener, ibilcatecea", "ranger, lerracatecea", "ronder, burubilatecea", "ruiner, billaquatecea", "il a ruiné toute sa maison, here etche gucia billaquatu du", "scandaliser, gaitzbideatecea", "scier, cerracatecea", "sillonner, hildocatecea", "stipuler, eguincatecea", "il stipule bien, ongui eguincatecen du", "substituer, ordainatecea", "supposer, balizcatecea", "traverser, çaiuratecea", "travailler, lancatecea", "visiter, ikhuscatecea", "vomir, goiticatecea".

Nekez azal daiteke kopuru ezberdintasun larri hau —eta gertakari beraz oharzen gara gainerako deribazio atziki garrantzitsuenei (-ada, -ara, -ari, -bide, -dura

(ikus honetaz § 4.2.), *-(k)eta*, *-gabe*, *-garri*, *-gin*, *-go*, *-kor*, *-kuntza*, *-lari*, *-men*, *-mendu*, *-ntza*, *-pen*, *-tasun*, *-tsu*, *-tzaille*, etab.) doakienez – soilik bi zatien tamainan oinarrituaz, euskara-frantsesarena bestearen erdia pasatxo bait da, gramatikako 268-323 eta 324-440. or. hurrenez hurren. Berariazko borondatea kausi dezakegu frantses-euskara hiztegian atzizkibidezko deribazioz sortzeko euskara-frantsesean peitu ziren hizkuntza jasoago baterako berbak (cf. § 7.2. II-ko beste bikoiztasun batzutarako).

6.2. Hitzberriak Larramendi aurreko hiztegieta: *Pouvreau*

Lehenago erakutsi bezala (cf. Lakarra 1985a), ez da bakarrik ezin mantentzen daitekeela L-k hain ospe txarreko izan dituen hitzberriak erdal egokitzapenak betetzeko eta kanpotarrak isiltzeko asmo hutsez sortuak direla, berak bait du aitortzen, (gaztelaraz, haiek ere ulertzeko moduan) aldarrikatzen, hobe, “voces facultativas” delakoak guztiak asmatu dituela, lehenago horrelakorik ez bait zen sortu, premiarik ere ez izaki.

Premiak, ordea, garaian garaikoak eta zeinek bereak: L aurretik ere horrelakorik nozitu eta nolabait konpondu nahi izan zela dakusgu H-en lekukotasunean. XVI eta XVII. mendeko idazle lapurtarren obretan ere hitzberri anitz bildu ahalko genukeela markatua dut dagoeneko, eta orobat hiztegieta andoaindarraren aurretiko ohitura dugula, are euskal hiztegieta (cf. Lakarra 1985a). Beldur naiz puntu hauek ez diren behar arretaz aztertu.

*Pouvreau*ren lanaren balioa goraipatu eta ondoko hiztegiak dioten zorraren handia markatu arren akats bat bederen aurkitzen zion Mitxelena “Erru bat du izatekotan: izan ditezkean itz erakarriak, ez direnak bakarrik, sartu dituela zenbait aldiz, dirudienez beintzat.” (1961: 370).

Horrela dirudi, bai. Har bitez sarrerok:

cimurra “ride”, *cimurtea* “rider, fourir”, *cimurtasuna*, *cimurdura*; *circilla* “dechiré en ses habits”, *circiltea*, *circildura*, *circiltasuna*, *circilqui*; *cofla* “coüeffe”, *coflitea*, *cofladura*; *colera* “colere”, *esquer emoc ene coleran egonari [...]*, *coleratzea*, *coleratsua*, *coleramendua*; *consolacea* “consoler”, *consolacionea* “consolation”, *consolamendua*, *consolagarria*, *consolatçaillea*; *curiosa* “curieux”, *curiostasuna*, *curiositea*, *curiosqui*; *çurmindua* “moisi, vermoulu”, *çurmindura*, *çurmintasuna*, *çurmittea*; *damua* “doleur, regret [...]”, *damucorra*, *damutsua* “damuz bethca”, *damu gaitzie*, *damugarria*, *damutcea*, *damutcecoa*, *damuztatcea*, *damuztaturic*; *desgogara* “a contracour”, *desgogara çait* “il me desplaist”, *desgogaracoa* “qui desplaist”, *desgogaramendua*, *desgogogarria*; *dolua* “deuil”, *dolucea* “de deuil”, *dolucea arropa* “robe de deuil”, *dolugarria*, *dolutcea*, *dolutsua*; *dukea* “duc”, *duketcea*, *duketasuna*, *duketza*; *dulcea* “doux, ezia”, *dulcetcea*, *dulcetasuna*, *dulcequi*; *durdusia* “menace”, *durdusiatacea* “induriatcea, menacer, froller”, *durdusiadura*, *durdusiataçaillea*, *durdusiaz* eta *mehatchuz*, *durdusiaturic* (gorri nau).

Ikusten denez berba gehienek ez dute ez itzulpen ez iturri markarik, eta zenbait hurbilagotik miatzen baditugu, badirudi alor semantiko horretako bat edo beste aditu edo irakurrik gainerakoak euskal morfologiaz, atzizkien baliabidez zehazki, zekiena (hiztegi aurreko gramatikatxoan bada zerbaite, Vinsonen gustokoa ez izan arren) erabilirik osatuak direla.

Mitxelena lehen aipatu pasartean *Pouvreau*ren “bekatu” hau arintzat, hedatutzat, jotzen zuen:

Agitz zabaldua dago joera ori, dakigunez, edozein tokitako iztegi-gilleen artean. Yakov Malkielen itzekin, izkuntza aldatu gabe, esateko (*Romance Philology* 12, 1959, 374s.) "Far more numerous an. all told, more insidious are the latent words smuggled in deliberately. In the Romance languages [eta orobat gurean, diot nik (K.M.)] these ordinarily comprise derivatives manufactured with the aid of productive and sharply focused suffixes, in particular of those enjoying unopposed extension, such as *-able (-ible)*, and *-ador(-edor, -idor)*, on the verbal, and *-ero*, on the nominal side. Such formations are readily understandable, they may at any moment be introduced with impunity; however, the sober truth is that speakers, for some reason or other, do not bother to activate all of these potentialities, and scrupulous lexicographers [baina ba ote horrelakorik guregan?], unless they adopt a preceptive attitude, ought no to tolerate, still less stimulate, their infiltration" (Mixelena 1961: 370).

6.3. Adibide berri bat: Urte

XVII eta XVIII. mendetako hiztegegintzaz ari zelarik "mende orietako iztegi-gilleen artean bada irugarren bat: Pierre d'Urte praille ibiltaria, Ingalaterran galtzadundu zena. Onek, ordea, atzerrian egonik, etzuen iñoren libururik erabili, Ongi gogoan zeukan Donibaneko izkeru azaldu digu, orren parekorik ezpaiztuen gainera iñon arkitzen. Eta, batez ere, bere idazlanak ez tira oraintsu arte argitara irten: bere iztegia, beriz, oraindik ez" zioskun Mixelenak (1961: 361-362). Zorionez, eta Patri Urkizuren lanari eskerrak (Urkizu 1989) azkena aldatu da: eskura dugu Urteren hiztegia eta are hura bezain baliagarri izan daitekeen haren bihurtuta (ia osoa) ere.

Alabaina, zehaztasun asko eta asko gehiago izan arren orain Urteren bizitza eta lanaz, funtsean ez diradi haren hiztegegintzazko irudia aldatu denik. Larramendiri helburu garbizaleengatik hainbat hitzberri asmatu beharra leporatuz ("aurre-iritzi eta helburu honekin gertatuko zaio aita Larramendiri hitz asko asmatu behar izatea kutsua eta usain jator bat mantentzearen", Urkizu 1989: 107) eta garbizalekeriaren gaitzez mintzatu ondoren, "Urtek erdaratik hitz pila bat hartzen du, Leizarraga beskoiztarrak baino areago oraindik" kontrajartzen dio Urkizuk (1989: 107-109); "argi eta garbi ikusten da inongo aurre-iritzirik gabe, nondikan zetorren hitza gutxi axola zaiolarik zerabiltzala urtek hitz guzti horiek, eta horrela jokatzeko arrazoi bakarra bere sorterrian eta hazerrian, Donibane Lohizunen, horrelaxe erabiltzen zituztela, duela" ere ghituaz (Urkizu 1989: 109).

Gainerako Euskal Herrietan baino gehiago izango ote zen ez dakidan arren, Donibanen maileburik zatekeenik eta han ikas Urtek ez dut nik ukatuko: zalantza gehiago dut. Mixelenak aipatu, eta Urkizuk berak askozaz zabalago ikertu Urteren bizitza ibiltaria ezagutu ondoren, guztien etorkia hangoa denentz, Urkizuk Larramendiri han-hemen kontrajartzen dion Urteren herrikoitasuna, ordea, beste alderdi nagusi batetik ere pitzatuaz dugu (Larramendiren "usain jatorrez" ikus Lakarra 1985a eta hemen § 7.). Behin baino gehiagotan ukitzen ditu Urkizuk Urteren hiztegian ageri diren hitz konposatu eta eratorriak: *kontr-* dela eta "askotan azaltzen da eta oso herrikoia da" diosku adibideok hautatuaz: *kontragaitz*, *kontrapasio(ne)*, *kontrapozoin*, *kontraparte*, *kontrapisu*, *kontrasargin*, *kontregin*, *kontrintresa*, *kontrusantza...*" (1989: 111); aurrerago *alkimista* ez baina, "hobeki", *alkimigile*, *alkimigin* darabilela: *aitzin-*, *atze-*, *hasa-*, *ber-*, *bertzen-*, *ema-*, *erdi-*, *ez-*, *haz-*, *lehen* eta *ugaz-* erakusten zaizkigu Urteren lekukotasun gisa aipatu ohi den euskararen atzizki eskasiaren faltari aitz (1989: 115; ikus bertan adibideak): hitzen eraketari dagokionez "jator, herrikoia eta bizi agertzen zaigularik hemen ere" aurkezten zaigu (1989: 124), etab. Ala-

baina, 129. orrian Azkue eta Lhanderen hiztegieta agertzen ez diren eta Larramendirenak "bezain egoki *asmatuak*" diren hitzak aipatzen zaizkigu, eta 134.enean "gure uste apalez Urte Larramendi bezala edo antzera ibilia izango zen ere Lapurdi eta Xuheroa aldeko belardi, zelai, soro, mendi, eta baserrietan galdezka eta bikduaz arloan hitz sailak, eta horrela bildutako izendegiez baliatuko zen dudarik gabe latin hiztegia itzultzeko eta hitz bakoitzari bere ordaina emateko" esaten bada ere, handik aurrera biltzen den zenbait alor semantiko begiztatu ondoren neke zaigu hori hertsia hertsian sinestea. Hor diren *arimegoitza*, *arrazointari*, *basajainkotasun*, *bataialari*, *desaitorri*, *erdijuanko*, *fraidetegi*, *katikisatzailen kronikiskribalari*, *oroitliburu*, *ostiatoki*, *obrasmatu*, *obrasmatzaille*, *bankarrutgile*, *hizerrege*, *dirutoki*, *parlamentegi*, *parlamentetxe*, *dirubankazain*, *harrimorroitgile*, *merkatuziazain*, eta hiztegiaren gorpuztean eriden daitezkeen dozenak eta dozenak (*abuztagarri*, *adurbestiadi*, *adiskidearatzgarri*, *aflijigarri*, *agradagarritasun*, *ahantzaratzgarri*, *aiztinguardia*, *akusagarri*, *akusalari*, *alarguntasun*, *aldarontasun*, etab. horrela ote?

Eta asmaketa ez da mugatzen latin-euskara hiztegiara. Hara Gramatikako zenbait hitz Donibane (eta bestetako) hizkera herrikoitik jasoak begitantz ez zaizkidanak: "redempteur" *errescatatçaillea*; "ciel empire" *ceru goréna*; "l'orgueil" *superbia* ou *urgui-llutassuna*; "luxure" *lohitassuna*; "paresse" *naguitassuna*; "graisse" *çuçentassuna*; "seicheresse" *idortassuna*; "bonté" *ontassuna*; "politesse" *leguntassuna*; "blancheur" *churritassuna*; "ame, raisonable, sensitive, vegetative" *arima*, *arraçoingaya*, *sentigaya*, *neurrigaya*; "droiture" *çuçentassuna*; [nom substantif] "du bien" *ontassuna*; "richesses" *uberastassuna*; "amitié" *adisquidetassuna*; "sagesse" *prestutassuna*; "force" *indarra* ou *borthizassuna*; "honneur" *onhestassuna*; "tremblement" *ikhara* ou *ikharamendua*; "esclavage" *esclabotassuna* ou *gathibutassuna* eta beste hainbat eta hainbat *-tasun* eta *keria* baliatuaz sortuak.

6.4. Hitzberriak hiztegiaren testuetan

Lakarra 1985a-n komenigarri iruditu zitzaidan zenbait esatea Larramendik asmatutako hitzberrien etorkizunaz eta, L-k bere euskarazko idazkietan egiten duen erabilera, erabilera hau dela kausa zalantzan jarri izan bait zen L-ren "seriotasuna"; beste hitzez, idatzi izan da hitzberriak Hiztegiaren egiturak (erdara-euskara) jartzen zuen atekatik bere burua ateratzeko (baina ikus § 3.1.) baliabide maltzurra baino ez zirela. Iritzi horri jarraikiz, ateka horretatik kanpo zenean Hiztegia osatu ondoren, eta honenbestez etsaien irainak suntsiturik, asmaketok ez omen zuketean arrazoirik eta L-k bertan behera utziko omen zituen bere euskal idazkietan. Era berean, jarraitzaileak ez omen zitzaizkion itsuki jarraiki neologismoen praktikan, benetazko herri euskararen ezagutza sakon(ago)a gatik edo.

Aurreiritziok zuzenduak dira dagoeneko (Lakarra 1985a, Sarasola 1986, Urgell 1986, etab). Larramendik erabiltzen zituen hitzberriak bere euskarazko zatietan, eta hori, berak dioskunez, baita Hiztegia argitara baino lehen ere (cf. Lakarra 1985b). Ezin espero dezakegu, ez eta gutxiagorik ere, *Hiztegi Hirukoitz*-eko hitzberriak oro L-ren testu laburregietan agertzea; ez du lekurik, betarik ez beharrik. Bihur gaitzen berriro egilearen asmoetara eta gogora dezagun hitzberriak soilik teknika eta zientzi gaitetakoak ("facultativas") direla; ez ditugu, beraz, hortik kanpo zer itxadon ez L-ren ez besteren testutan.

Hitzberriak ez ziren oso premiazko dotrina llabur eta sinpleak egiteko; batez ere euskara idatzian tradizioz bada elijiozkoa delarik, hain zuzen. Alabaina, liburuak

luzatuaz eta gaiak ugarituaz eta jaikiago eginaz joanez gero, lehen ukitu gabeko gauzak ateratzen ziren eta, horiekin batera, gauzak deitzeko berben beharra sortzen (cf. Mitxelena 1984a: 15).

Larramendirekin egindakoaren antzekorik egin zitekeela iruditu zait Pouvreau eta Urterekin. Hara begirada arin baten emaitzak (hitz bakoitzetik adibide bakarra, lehen aurkitua, ematen dut):

Pouv. Imitacionea 23 *ihuntasun*, 24 *iaquintasuna*, *aberatstasun*, *galcorren*, 25 *hitz-guilleac*, (*çure*) *iaquingabea*, 27 *erorcor*, *huitscor*, *galgarrietara*, 29 *largotasun*, 30 *flacotasuna*, *minçacorra*, 32 *guthiciadurari*, 33 *superbiotusunari*, 34 *fetchatasunaz*, 38 *laincotiartasunaren*, 41 *fasticagarriac*, 42 *fermugabetasuna*, 45 *prohetuhugarri*, 47 *huitscor*, 51 *epeltasuna*, *ansigabetasuna*, *berotasunetic*, 55 *solhasquerietan*, *urguillutasunetic*, *devocionetsu*, 57 *pisutasunaz*, *vanaloriasaleentçat*, 256 *fede-dudugabeço*, *languiadura*, *bessarvatçaillea*, *flacorasunetic*, 257 *bihotzgabetsuneco*, *gogoetatsu*, *devocionegabeco*, *devocionetsu*, *ezintasuneco*, *vicigarria*, 258 *garbitasuna*, *saindutasuna*, 259 *lanquidea*, *ecin iusuzco*, *obratçaillea*, *beregaineço*, *eguinbiduari*, 261 *conseillaria*, *beharquietan*, *laincozcoaren*, *humiltasun*, *devocionetsu*, 262 *urriquemendu*, *alheguiqui*, *hildumatugabeco*, *hertscailluetan*, *humilgarrien*, 263 *berantcor*, 265 *simpletasunean*, 266 *esquet*)*gabetsunen*, 267 *bidegabeztutu*, *maturtasuna*, *haserredura*, 269 *loakartasun*, 271 *distiaduraren*, 272 *doatsutasuneco*, *laincotasunaren*, 274 *sendagarizco*, *upeztasuneco*, 275 *maitaria*, *saindutasun*, *biotberatasun*, 277 *baqueguillea*, 278 *miragarriqui*, *ontasuna*, 281 *higoindura*, 285 *arguidunac*.

Pouv. Petits oeuvres, 5 *saluatçaillea*, *saluaria*, 6 *minçaillea*, *minçaria*, *laboratçaillea*, *irakastçaillea*, *irakasthona*, *ikasthona*, *ikastea*, *çuhurtasuna*, *çuhurtia*, *irakastmendua*, 7 *berreguindura*, *berreguintasuna*, *berreguinqueria*, *liçinqueria*, *liçintasuna*, *liçindura*, *erhqueria*, *erhorasuna*, *asquitasuna*, *asquitzea*, 11 *crueltasunian*, *barrencoric*, 13 *urritasuna*, 15 *primutasunaren*, 17 *billusgorritasunaren*, 18 *miracalluscoc*, 20 *maitatçailley*, *laincozcoaren*, 21 *borthitzasunaren*, 25 *compligarri*, 28 *ahalkadura*, *urguilluqueriac*, *ahalketasunac*, *neurrigainezco*, *huripea*, 29 *creatugabea*, *othoitçuilleen*, 30 *peintadura*, 31 *goratasunaren*, *beheratasunaren*, 32 *ecin hillezco*, 33 *maitarasun*, *miragorritasunac*, *nahasmenduco*, *beregainezco*, 34 *ohorezcoaren*, 35 *seriatçutasun*, 36 *etcheguille*, *miragarri*, 37 *herdindurac*, *lerrodura*, *munduguilleac*, 75 *guerhança*, 76 *hurupetsitasun*, *gogortasunaren*, *secularcotasun*, 77 *beguitartetsua*, *liberaltasunen*, 78 *iustagarritasunaren*, *saindumenduaren*, 79 *compligarri*, 80 *mudagabeço*, *naturalezazco*, *gaytasunaren*, *ukigarri*, *obligagarriçco*, *eppagarriç*, 82 *iustutasunaren*, *eraguintetara*, *ordenaçaille*, 83 *esquiribatçailleac*, 84 *sehitasunzco*, *espantagarri*, *pompirezunec*, 86 *saindugarritasunaren*, *ethorquizco*, *sehitasunetic*, 88 *neurrigabeco*, *ondocotasunaren*, *hiltcecotasuna*, *barrayamenduac*, 89 *eguitateac*, *ezhiltcecotasun*, *ezgaltcecotasunetic*, *galtcecotasunean*, 90 *huetarasuneraino*, *ihurburuzco*, 91 *hobengabetasuneco*, *haldintasun*, *legueguille*, 92 *hobengabe*, *hobengabetasuna*, *ohizcampoco*, *cinendaçaillearen*, 93 *iustutasuna*, *libratçaille*, *bozcariotçaille*, 95 *nothagabeco*.

Urte Biblia 1 *ethorquia*, *hedadurabat*, *egozquia*, 2 *herrestacibilliquiac*, 5 *agradagarria*, *guticiagarria*, 6 *etsasitassuna*, 10 *crueltassun*, *bihurqueriez*, 11 *liçetassuna*, *çahaltassuna*, *haltotassuna*, *herrestapi*, 12 *hegaldun*, 14 *gaztarrassunetic*, 15 *orhoitçapena*, 16 *ahalquissuna*, *ezitassunean*, 114 *sariçaleac*, 115 *lehensorthien*, 116 *esclabotassun*, *filistintarren*, 117 *çamaldunetan*, 118 *goybeltassuna*, 119 *saindutasunean*, 120 *primuontassun*, 124 *bideungoaille*, 126 *adarrtrompeta*, *armadalekhuon*, 127 *ielscor*, 128 *naussitassunari*, 129 *neurrimendutic*, *maturassunetic*, 129 *guicaesclaboa*, *emasclaboa*, 130 *ohoinqueria*, *emasorguina*, *imajnadoratçaillea*.

Erakusgarri huts honi gutxi (kopuruz zein atzizki fiabartasunean) deritzonak gogora boza zein testu moetairen aurrean garen eta artean honelakoetan zutela, bat izatekotan, idatzizko tradizioirik. Ohar bedi, orobat, ez diodala ez bataren ez bestearen

kasuan (bereziki Pouvreurenean) hitzok oro beraiek asmatuak direla —batzu bai zailantzarik gabe—; aski zait beren lexikografi lanaren eta idazle ihardunaren artean gehiegizko kontraesanik ez dela erakustearekin.

7. Garbizaletasunaren historiarako oharrrak

7.1. Larramendi garbizalekeriaren aitzindari?

Lakarra 1985a-n erakutsi nuen dagoeneko ez zela zuzena Aranaren aitzindaritzat joaz Larramendi garbizaletzat izatea hari buruz lehenago irakurri legez: "primera raíz del carácter teórico y purista que siempre se ha dejado sentir en el tipo de idioma utilizado por la literatura vasca meridional" (Sarasola 1976: 127), "arraigando en el sentimiento vasco la semilla —y plaga— de los puristas de principios del xx" (Sarasola 1976: 55, eta cf. gorago aipatu Urkizu 1989). Hitzberriak zertarako nahi zituen ezaguturik eta orobat gainerakoetan eskatzen duen erdiko bidea, zail egiten da pentsatzea L-ren hiztegiari "usain jatorra" (dena dela hori) mantendu asmoz mailebuak ez direla izango pentsatzea. Lehendabiziko orrialde dozenan eta begi kolpe batez hauek aurkitu ditut esaterako: *abadesa*, *abadesea*, *abadia*, *abadearen barrutia*, *banderaduná*, *banderatua*, *abaninua*, *abarcatu* ("abarcar"), *abeceá*, *abetoa*, *hezatu*, *abiatu*, *bigoteduna*, *abilidadea*, *testamentu bague*, *bizcochatua*, *ablativoa*, *abollatu*, *abollat-zalea*, *abollantza*, *abollatzea*, *bolsatua*, *botinátua* ("abotinado"), *botoitu*, *botoitzea* ("abotonar"), *abrigatu*, *arropaz*, *apirilla*, *broquetdu* ("broquelarse"), *ezcutatzea*, *absolvitú*, *absolvitzea*, *absolvicioa*, *absolvigarriac*, *abstinencia*, *cabal eguin*, *cabaldu*, *acabatu*, *acabatzea*, *acabaruci*, *acabantzá*, *acaballá*, *calcatu*, *calcaria* ("acalcador"), *calcatz-zalea*, *canalez-tatua* ("acanalado"), *cañabera*, *cañaheratztea*, *cañabelatua*. Azkueren galdera ikurrik ez antzeko salatzailek gabe dira, orobat, "Cielo" *cerua*, "iglesia" *eleiza*, *eliza*, "ley" *legue* eta beste. Izan ere L-ren usadioa aski urruti gelditzen da xx. mende hasieratik zabaldu diren, baina ez bakar ez lehen diren, (ustez bederen) ezagunagoetarik.

Garbizale zen Larramendi, noski, eta behin eta berriz iharrosi ohi zituen halako ahuntzerdara. euskara, gaztelera eta beste hizkuntzen nahaste mordoiloak, lehenago Etxeberriek egin bezala:

mintçatececo manera astrugaitz nahasi maneragabecoa, hitz bat latinez, bertecia francesez, bertecia gastelaniaz, edo italianoz, eta bertecia gaineraco ahotic atheratcen tuzten hitcez jar çaitetzque dudatcen ala diren Antipodetacoac, ala Barbariacoac: guisa huncetan eguiten dute saltsa bat hambat saltsacari diferentez appaindua, eta hain çappore gaitcetacoa. non munduan den sabaldarrajoric handienari-ere eman baiteçoque higuintça, edo goragalea. (Etx. 167)

Horrelakotsuak antz eriden daitezke, ez soilik hiztegiaren hitzaurtean, baina baita *Corografía*-n edota Mendibururi egin hitzaurre-gutunean ere:

Alabañan [semolari] guchie daqui here jayeterrieco Eusquerearen erdiá, eta alpérrac diradén bézala, eztute icasi nai gueiágo, ta éztie nai béren burúai atsecabéric emán. Baña onetatic cer guertatzen dá? Daquiten piscu arequin, hitz molcho, escúmen baten diña eztán arequin nola ecñ adierázo dituztén beren esacariac, badarasáte púlpituan hitzera naasi bat, beñ Eusquéra, beñ Erdéra, beñ Latiñera, gucia leudatuá, ciquindúá, barastuá; ceñeam dirudién, igo diralá gaiñ artará enzúlc[ei] burlá eguitera. (*Autobiografía*, 279)

Haatik, ezin har haren pentsamolde eta jokaera garbizalekeriaren lekukotzat. Mitxelena idatzi legez (1983a: 20) "nekerik gabe ager daiteke zer nahi izan zuen La-

rramendik euskarari, euskara idatzitari, buruz. Euskarak burua jasoko bazuen... premiazkoa iruditzen zitaion... artean ez bezalako euskal prosa erabiltzea: garbiagoa, jatorragoa, apainagoa". Komeniko da, bada, garbitasuna eta garbizalekeria bereizten hastea L-k lehenago Etxeberrik bezala ez bait du ezer bat baino gehiago itsutu duen bigarrenetik.

Mitxelena (1983a: 21) ohartarazi duenez, Akademien garaian bizirik, halabeharrez zatekeen garbizale euskara hizkuntza landuen sailean sartzeko. Akademiak gogoratzen zaizkigunez gero garaiko giroaren erakusgarri, komeni bide da Gili Gaya-k (1963: 18 hh) Espainiakoaren lexikografi lanaz esandakotik zer edo zer bona ekartzea:

(...) hay que tener en cuenta que la preocupación académica esencial en aquel momento era el *casticismo*, entendiendo esta palabra en su sentido rigurosamente etimológico de *castizo*, lo que pertenece a la *casta*, lo patrimonial o lo que es claro y propio. por no ser claras ni propias se desechaban las extravagancias no castizas del último barroco. Este concepto de *casticismo* pertenece sobre todo a la primera mitad del siglo xviii, y no debe confundirse con el *purismo* que sobreviene por la lucha antigalicista en la segunda mitad del siglo, y dura buena parte del siglo xix. El *purismo* surge del *casticismo*, pero es un concepto más restringido y polémico.

Hor egin bereizkuntzak eta horren ondorioek (dialektoetatik eskuzabal hartu hitzez, esaterako) badukete interesik gure xviii. mendeko hizteigintzaren eta hizkuntz ideien inguruko eztabaidetan, noizbait azterketa patsadatsuaorik egin baledi, bederen: nolana ere, banago lanean zehar aipatu diren eta oraindik bil daitezkeen hainbat pasartek, Etxeberri eta Larramendi Gili Gaya-ren "casticismo" horretan errazago kokatzen dituztela bestetan baino.

7.2. Garbizaletasuna Larramendi aurretik

Garbizaletasunen bat, mailebu gordin eta premiagabeen aurkakoa eta hitz jator eta eskurakoen aldekoa besterik ez bada ere (cf. Lakarra 1985a) izan zen. ordea, L aurretik euskal idazle landuen eta are hizteigilerik arruntaren artean ere. Garbairakin hasten eta Mogelekkin oraindik jarraitzen zuen arren Bilboko euskararen ospe gaiztoak, hara Mikoletak bere *Modo breve para aprender la lengua vizcayna*-n hitz zerrendaren aurretik jarri zuena:

Pondremos aquí un vocabulario breve de los nombres que más exquisitos son en nuestra lengua. porque hay muchos que con el mismo sonido y significación del romance se vascuenean, como "sermón" *sermoea*, "considerar", *consideradu*, etc. Esto es lo que más puede enseñar la teórica: la práctica es lo que más obra en la demostración de nuestro idioma como en los demás, pero más en éste, etc.

Ondoren (eta *Diccionario breve de vocablos los más usados en vascuence propio, puestos por orden alfabético* izenburu esanguratsuaaren pean) bi hitz horiek saihestu arren, hor dira "abad" *abadea*, "abadesa" *abbadessea*, "abatida cosa" *baxua*, "abatirse" *baxadu*, "abilidad" *abilidadadea*, "a buen tiempo" *dempora onean*, "acordarse a coro" *acordadu*, "azafrán" *azafraea*, "azúcar" *azucarea*, "alcalde" *alcatea*, "ánade" *ansarra*, "ángel" *angerua*, etab.; baina baita (eta besterik gerta bide zitezkeen) "avezar, enseñar" *yraçasi*, "ablandar" *bigundu*, "abollar" *sapaldu*, "abreviadamente" *laster*, "acompañar" *lagundu*, "apetecer" *guratu*, "apetito" *gurea*, "árbol" *arecha*, "arroyo" *errequea*, "asomar" *aguirtu*, "atolladero" *baçaçea*, "barco" *batela*, "barquero" *batelerua*, "barreno" *guimaleta*, etab.

Gorago (§ 4.1.) euskara-frantsesaren eta frantses-euskara hiztegiatan hitzberrien maiztasun eta eraketaz ikusi ditugun bikoiztasunen kide bide dira honakook ere:

<i>abundancia, frangancia, abundance</i>	: abundance, <i>frangancia</i>
<i>abandonatzea, largatzea, abandonner</i>	: abandonner, <i>largatzea</i>
<i>affligitea, tristatzea, affliger</i>	: affliger, <i>axekhabeztatzea</i>
<i>aise, errech, aise</i>	: aise, <i>errech, gogacara</i>
<i>arbola, çubataç, arbre, m.</i>	: arbre, <i>çubataç</i>
<i>arroganta, surfuiatxua, arrogant</i>	: arrogant, <i>surfuiatxua</i>
<i>atenciónen, aiñna, attention</i>	: atención, <i>aiñna</i>
<i>borondatea, volonté, f.</i>	: volonté, <i>gogoa</i>
<i>canala, istana, canal, m.</i>	: canal, <i>istana</i>
<i>data, date, f.</i>	: date, <i>egunça</i>
<i>digne, gaia, digne, m.</i>	: digne, <i>gai, gaia</i>
<i>errefusatzea, refuser</i>	: refuser, <i>eza ematea</i>
<i>erlequia, relique, m.</i>	: relique, <i>qutxua</i>
<i>erruñatzea, ruiner</i>	: ruiner, <i>billaquateca</i>
<i>faltateca, manquer</i>	: manquer, <i>hutsquiteca</i>
<i>flacateca, affoiblr</i>	: affoiblr, <i>herbaltea</i>
<i>fresco, frais</i>	: frais, <i>berria, hevea</i>

Nabarmena da bigarren hiztegiaren lehendabizikoan Léclusek salatzen zituen (cf. Lakarra-Urgell 1988) gehiegizko erdarakadak ezabatu nahi izan direla, ordain jatorrak edo mailebu errotuagoen bitartez. Kasuren batean euskara-frantsesean izanik dagoeneko euskal hitz garbia, mailebu gordina ezabatu egin da besterik gabe.

Hurrengo sarrerotan ere garbizaletasun bera isladatzen zaigu; mailebuak desagertu ez arren, ezarri da besterik ere haien aldamenean bigarren hiztegiari:

<i>airatzea, voler</i>	: voler, avec ailes, <i>hegaldatzea, airatzea</i>
<i>akhusatzea, accuser</i>	: accuser, <i>acusatzea, gaineguin</i>
<i>akhabatzea, achever, finir</i>	: achever, <i>netzea, akhabatzea, finir, akhitzea</i>
<i>arraça, leiñua, race</i>	: race, <i>egoquia, casta, leiñua</i>
<i>arraçoiña, raison</i>	: raison, <i>mengua, çuena</i>
<i>carnaceria, boucherie</i>	: boucherie, <i>carnaceria, haraguite guia</i>
<i>capitaiña, capitaine, m.</i>	: capitaine, <i>aiteindaria, capitaiña</i>
<i>çacua, sac, m.</i>	: sac, <i>çacua, çurruna</i>
<i>detçhema, dixme</i>	: décime, dixme, <i>hamarrena, detçhema</i>
<i>errenta, rente</i>	: rente, <i>alocarrioa, errenta</i>
<i>ielosia, jalousie, f.</i>	: jalousie, <i>ielosia, bekhaizgoa</i>
<i>iferñua, enfer, m.</i>	: enfer, <i>iferñua, gaistotequia</i>
<i>imañiina, image, m.</i>	: image, <i>imaiña, idurñia</i>
<i>imitateca, imiter</i>	: imiter, <i>imitateca, iduricatca</i>
<i>inspiratca, inspirer</i>	: inspirer, <i>burutara ematea, burutaratca</i>

H-ren gramatikari 506-507 hutsgeiteen zuzenbidearen aurretik erdiczkutaturik egileak ezarri zuen "Escualdunci gomendioa eta Abisua" hura berriz ere gogoratu beharrean gara. Bertan "haiñitz mudança guisa ematen çaiola escuarari haiñitz herri-tan" adibideen bitartez erakutsi eta bere liburuan behar diren aldaketak egiteko prest agertu ondoren, ez du abazten, orobat, idatzi bezala irakurtzen ez den frantsesa euskaldunek ikas lezaten prestatuturik zuen "liburu chumetto"-ari propaganda apur bat egitea ere. 504. orriari iragartzen dituenak legez, ezegagun hortona bezain interesgarri zaigu orain segidan datorrena:

baiza berce liburu bat bi partetan. lehenbicioa escuratic verbo gaitz eta erreguelan ez diren batzuen khenceco, hala nola *nago, noha, darasat*, &c. horlaco haiñitz erreguela gabe dire, eta erreguelacoac dire *egoten naiz, goaten naiz, erasten dat*, &c. berce parte da escualdunec berce hitzuncetarie hartuac dituzten hitzen khenceco, hala nola

<i>Intencionea</i>	chedea
<i>inclinacionea</i>	pendura
<i>inquietatzea,</i>	khечатzea
<i>ingrata</i>	esquergabea, &c.

Lehenbicioac berce hitzuncetarie dire eta berceac escura dire.

8. Amaieratzat

§ 2.ean aldatzeko bidean aurkeztu ditudan Larramendi eta euskal hiztegi-gintzarekiko ikerketak lehenagoko egoera hits hartara iristeko zioak bi eratakoak izan dira, ene aburuz: batetik, eta gauza ezagunegia denez ez naiz honetan sobera luzatuko, euskal filologia bere osoan dabil atzeratua. Beste toki eta tradizio batzutan XIX. mendean edo, gehienez ere, XX.aren hasieran burutu ziren hainbat oinarritako lan egiteke dira: gainera, euskalaritzaren historiak —anekdota bildumez ari ez garen neurrian bederen— garapen urria izan du eta usuenik ez dakigu zein diganteren gainean igotako ñañoak garen, erraldoi ugari ere inoiz izan ez arren. Bestetik, lexikografia ez da, oro har, teoriara eta hatsarrien garbiketara emanegi diren ikertzaileen baranoa. Azkueren hiztegiaren berrazterketa proposatzerakoan Malkiel lagun hartuaz Mitxelena (1970) gogoratzen zigun bezala creme horretan kantitatea nagusitu ohi zaito kalitateari, eta oraindik orain erakusgarri apartik eman digun zabarkeria ezagunik aipatzerara (au)sartu gabe (oi *batele*: hura eta bere kideak!), itsuek ere badakuste kopiaketa eta ebasgoa ohitura gaitzesgarri baino ekandu arrunt eta errotu direla bertan.

Benetako ezagutza filologikoan —litekeena omen norbaitek (baina "hau ere euskaldun, noski"), besterik uste arren— baino xehbrekerietan oinarrituago zen ikuspegi aldatu da eta XVII eta XIX. mendeetako euskara idatziaren historiarekiko emaitza eta aitzinamendu anitz izan da azken urteotako bibliografiak irakur ditzanari erakutsi legez.

Dakiguna, halere, ezer gutxi da dakikegunera, eta are jakinbeharrera, iristekotan egiteke den guztiaren aurrean: Mitxelenak hasitako L-ren Hiztegiaren Eraskinaren azterketa amaitu; behingoa Hiztegiarekin sartu bere egitura ikusiaz, hitzberri, mailebu, hiztegi-hitzak eta testu-hitzak ezagutuaz eta markatuaz; mailebuen zenbata eta nolakotasuna zehaztu; orobat hitzberriena, zelan sortzen dituen gehituaz (cf., zati batean, Azkarate 1992); hiztegi-hitzena, L eta aurreko eta garaiko hiztegi-gintzaren harremanak azalduaz; L-ren hitzberri (eta hark bertakotuen) iraupena eta bizitza ikertu (orain, zorionez, *OEH* ezinutzizkoaz baliu gaitetzke); *Hiztegi Hirukoitza* ren eta *Diccionario Vasco-castellano*-ren arteko erlazioa; *III* eta garaiko eta beranduagoko hiztegien artekoa (Sbarbi-Urquijo delakoarekikoa, esaterako)... Segur naiz beste doze-nerdina puntu gehituko lukeen ikerlari frango litzatekeela, horretan denbora luzee-gian jarri gabe gainera. Bat edo beste askatzen saia dadinik ere ez agian faltako.

9. Bibliografia

- Abbott, T. K., 1906, "On an early Latin-English-Basque dictionary", *Hermathena*, XIV, 55-105.
 Altuna, P., 1967, "Larramendiren iztegi berria", *Euskera* XII, 139-300.
 ———, 1985, "Azpitarteren hiztegia Loiolan" in J. L. Melena (arg.), *Symbolae I. Mitxelena Oblatae*, EHU, Gasteiz, II.

- , 1989. "Joanes Etxeberri eta Axularren hizkera" II. *Mundu Biltzarra*.
- , 1992. (arg.), "Cortesía". *ASJU* xxvi-1, 119-144.
- , & Lakarra, J. A., 1990. (arg.), *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Andoain.
- Aquesolo, L., 1967. "Un dictionnaire vasco inserto en *Mémoires de la Langue Celtique*, de Bullet (1755-1760)". *BAP* xxiii, 141-147.
- Arzamendi, J., 1981. "Euskal lexikografiaren historiarako hastapenak" in *ZEEF. Euskal linguistika eta literatura: bide herriak*. Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 163-193.
- Azkarate, M., 1992. "Larramendiren hitz-eraketa" in *Manuel Larramendi. III. Mendeurrena*. Andoain.
- Bahner, W., 1966. *La lingüística española del siglo de oro*. Ed. Ciencia nueva, Madrida.
- Bilbao, G., 1991. (arg.), "Glossaria duo vasco-islandica". *ASJU* xxv-2, 315 hh.
- , 1992. "Silvain Pouvreuren hiztegi laukoitzaz". *ASJU* xxvi-2-n argitaratzeko lana.
- , Gomez, R., & Lakarra, J. A., prestatzen, *Larramendiren El Imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*.
- Carvalho Buescu, M. L., 1971. (arg.), *João de Barros. Gramática da língua portuguesa*. Faculdade de Letras, Lisboa.
- Colon, G. & Soheranas, A.-J., 1985. *Panorama de la lexicografía catalana*. Encic. Cat., Barcelona.
- Duvarat, V., 1914. "Le dictionnaire basque et les rudiments du P. Dominique Bidegaray, franciscain du convent de Pau". *RIEV* 8, 6-16.
- Dubois, C., & Dubois, J., 1971. *Introduction à la lexicographie: le dictionnaire*. Larousse, Paris.
- Etxebarria, J. M., 1990. "XVIII eta XIX. gizaldietako sei hiztegi argitaragaberen berri" in E. Perez Gaztelu & P. Urkizu (arg.), *Paxi Altunari Omenaldia*, EUTG, Donostia, 63-83.
- Fita, F., 1880-1881. "Suplementos al *Diccionario Trilingüe* del P. Larramendi, escritos en 1746 por el P. Fr. José de María Carmelita Descalzo". *Revista de Ciencias Históricas*. [Barcelona].
- Gili Gaya, S., 1963. *La lexicografía académica del siglo XVIII*. Cuadernos de la Cátedra Feijoo, nº 14. Oviedo.
- Goitiandia, D., 1754. [Eraskina Larramendiren *Hiztegi Hirukoitza*-ri]. E. S. Dodgsonen argitalpena. *RLPhC*, 1897, 313-324. Berriz X. Altzibarren tesi argitaragabea. EHU 1989.
- Gomez, R., 1991. "Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaen historia". *ASJU* xxv-3 783-796.
- , & J. A. Lakarra, prestatzen, "Itzulpen liberalak (1820)".
- Gulsoy, J., 1959-62. "La lexicografía valenciana". *Revista Valenciana de Filología* vi, 2-3, 109hh.
- Hualde, J. I., 1991. "Icelandic Basque pidgin". *ASJU* xxv-2, 427-437.
- Ibar, (= J. Mocoora), 1936. *Genio y lengua*. Tolosa.
- Kerejeta, M' J., 1991. "Oihenart Silvain Pouvreuren hiztegia". *ASJU* xxv-3, 865-899.
- Lakarra, J. A., 1984. *Euskal Thesauruserako Gaiak: Hegoaldeko Testuak (1700-1745)*. tesina argitaragabea, EHU- Gasteiz.
- , 1985a, "Larramendiren hiztegi gintza inguruan". *ASJU* xix-1, 9-50.
- , 1985b, "Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)". *ASJU* xix-1, 235-281.
- , 1985c, "Berriz Larramendiren segiziokoetz". *ASJU* xix-2, 439-452.
- , 1986a, "Burgosko Doctrina (1747): I. Testua eta oharrak". *ASJU* xx-2, 533-594.
- , 1986b, "Bizkaiera zaharra euskalkien artean". *ASJU* xx-3, 639-681.
- , 1987. (arg.), *Hiztegiak eta testuak*. (= EHU-aren Donostiako ikastaroak), Bilbo.
- , 1991a, "Testukritika eta hiztegiak: Harriet eta Larramendi" in J. A. Lakarra (arg.), *Mémoires L. Mitxelena Magistri Sacrum*, *ASJU*-ren Gehigarriak 14. Donostia.
- , 1991b, "Martin Harrietzen hiztegiak", eskuizkribua, EHU, Gasteiz.
- , 1991c, "XVIII. mendera arteko hiztegi gintza", eskuizkribua, EHU, Gasteiz.
- , 1992. *Ikerketak XVIII. mendeko euskal hiztegi gintza etorkiez*. Doktorego tesia, EHU, Gasteiz.
- , & Bilbao, G., prestatzen, *Sbarhi-Urquijo hiztegia*.
- , & Gómez, R., 1992. (arg.), *Euskalaritzaren historiarako: I. XVI-XIX. mendeak*. *ASJU*-ren Gehigarriak XVI. Donostia.
- , & —, prestatzen, "Arakistainen gehigarriak".
- , Urgell, B., 1988. "Lécluse-ren hiztegia: Euskalaritzaren historiarako lanabesak (II)". *ASJU* xxii-1, 99-211.

- Larramendi, M., 1728, *De la antigüedad y universalidad del bascuence en España*, Salamanca. Faksimila Ed. Vascas, Donostia 1978.
- , 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, Salamanca. Faksimila Hor-
dago, Donostia 1979.
- , 1745, *Diccionario Trilingüe del castellano, bascuence y latin*, Donostia.
- , *Corografía de Guipúzcoa*, J. I. Tellechea Idígorasen argitalpena, Donostia 1969.
- , *Autobiografía y otros escritos*, id, ibid., 1973.
- , *Sobre los fueros de Guipúzcoa*, id., ibid., 1983.
- Lázaro Carreter, F., 1949, *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo xviii*, CSIC, Madril.
- Lope Blanch, J. M., 1990, "La lingüística española del Siglo de Oro" bere *Estudios de historia lin-
güística hispánica*-n, Arco Libros, Madril, 5-50.
- Mitxelena, K., 1958, "Introducción" in Mitxelena & Agud 1958. [Orain SHLV-n].
- , 1959, "La obra del P. Manuel de Larramendi (1690-1766)", *Cuadernos de la Cátedra
Feijoo*. [Orain SHLV-n].
- , 1960, *Historia de la literatura vasca*, [=HLV], Madril, 2. arg. Donostia 1988.
- , 1961, "Euskal iztegitilleak xviii-xviiiaren mendetan", *Euskera* VI, 7-22. [Orain SHLV-n].
- , 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, 2. arg. ASJU-ren Gehigarriak XI, Donostia 1990.
- , 1967, "Los refranes del cuaderno de Oihenart", *ASJU* I, 11-44. [Orain SHLV-n].
- , 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbao.
- , 1974, "De lexicografía vasca (A propósito de *Axular-en Hiztegia* del P. Luis Villasante)", *FLV* VI, [Orain SHLV-n].
- , 1981a, "Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak" in *Euskal linguistika eta literatura:
bide berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Deustu. [Orain SHLV-n].
- , 1981b, "Euskal literaturaren kondairarako oinarriak", ibid. [Orain SHLV-n].
- , 1983, "Mendiburu eta Larramendi", *Euskera* XXVIII, 19-23 [Orain SHLV-n].
- , 1984, "Aurkezpena" in I. Sarasola, *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*, GAK, Donostia, I,
11-23. [Orain SHLV-n].
- , 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, J. A. Lakarra (arg.), "ASJU-ren Gehiga-
rriak", 10 Donostia, 2 lib.
- , & Agud, M., 1958, *Nicolas Landucci. Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562)*, Do-
nostia. [Hitzaurrea SHLV-n].
- Niederehe, H.-J., 1987, "La lexicografía española desde los principios hasta el año 1599" in H.
Aarstleif, L. G. Kelly & H.-J. Niederehe (arg.), *Studies in the History of the Language
Sciences*, J. Benjamins, 157-166.
- Ormaetxea, N. (= Orixe), 1930, "Larramendiren iztegia", *Euskera*, 252-261.
- Oroz Arizcuren, F. J., 1981, "Lucubratiuncula sobre un glosario vasco-latino: El *Parergon* de Vul-
canius (1597)", in *Logos Semantikos. Studia Linguistica in honorem Eugenio Coseriu
(1921-1981)*, Gredos, Madril, I, 339-357.
- Oyenart, A., 1658, *Noticia de las dos Vasconias, la Ibérica y la Aquitana...* Trad. castellana de J.
Gorosterratzu. *RIEV* 17-19. zb.ak.
- Oyharçabal, B., 1989, "Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)", *ASJU* XXIII-I,
59-73.
- Pagola, I., 1992, *Neologismos en la obra de Sabino Arana*, inprimategian.
- Peillen, Tx., 1983a, *Josef Egiategi. Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia*, Euskaltzain-
dia, Bilbao.
- , 1983b, "Belako zaldunaren zuberotar hiztegia xviii. mendean", *FLV* XV, 127-146.
- Pensado, J. L., 1960, *Fray Martín Sarmiento: sus ideas lingüísticas*, Cuadernos de la Cátedra Fei-
joo, nº 8, Oviedo.
- Quemada, B., 1968, *Les dictionnaires du français moderne (1539-1863)*, Didier, Paris.
- San Martín, J., 1991, (arg.), *Juquin-bide iritarautia Españuico Neurguidaren, edo Constitucio be-
rriaren erara adreztatua...* [1820], Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.
- Sarasola, I., 1980, *Materiales para un thesaurus de la lengua vasca*, tesi argitaragabea, Barzelona.
- , 1976, *Historia social de la literatura vasca [SHLV]*, Akal, Madril.
- , 1986, "Larramendiren eraginaz eta", *ASJU* XX-I, 203-216.

- Segarra, M., 1985, *Història de l'ortografia catalana*, Empúries, Barcelona.
- Soberanas, A.-J., 1977, "Les edicions catalanes del diccionari de Nebrija", *Actes del Col·loqui Internacional de Llengua i Literatura Catalanes*, Barcelona, 141-203.
- Soto-Michelena, M.^a J., 1978-79, "El lexicón de *Refranes y Sentencias de 1596*", *ASJU* XII-XIII, 15-86.
- Urgell, B., 1985, "Literatur bizkaieraz: Añibarroren *Esku liburua*", *ASJU* XIX-1, 65-117.
- , 1986, *Añibarroren Esku-liburua eta literatur bizkaiera: aldaketan tipologiatik idazkeraren garapenera*, tesina argitaragabea, EHU-Gasteiz.
- , 1987a, "Añibarroren inguruaz zertzelada batzu" in Lakarra (arg.) 1987.
- , 1987b, "Hiztegi aldaketak Añibarroren *esku-liburua*-n" *ASJU*, XXI-2, 357-387.
- , 1991, "Axular eta Larramendi", *ASJU* XXV-3, 901-928.
- , 1992, "Harrietek Añibarrori burutako hitzez", *ASJU*-n argitaratzeko.
- Urkiza, P., 1971, (arg.), *Tresora hirur luenguetakua*, *ASJU* V, 175-191.
- , 1986, "Euskara XVI-XVII. mendeetako zenbait idazle atzerriarrengan", *ASJU* XX-2, 343-350.
- , 1989, *Pierre d'Urteren Hiztegia (Londres 1715)*, EUTG, Donostia.
- Urquijo, J., 1910, "Las citas del diccionario de Pouvreau", *RIEV*, IV, 505-519.
- Villasante, L., 1974, "El P. Larramendi y su obra lexicográfica", *LGEV*, Bilbo, II, 169-174 eta 479-483.
- , 1979, *Historia de la literatura vasca*, 2. arg., EFA Oñati.
- Vinson, J., 1891-7, *Essai d'une bibliographie de la langue basque*, Facsimilea Urquijoren oharrekin, *ASJU*-ren Gehigarriak, Donostia 1984.
- , 1910, "Le vocabulaire de Pouvreau", *RIEV*, IV, 139-141.
- Zelaieta, A., 1988, (arg.), "Rafael Micoleta Chamudiot; *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*, Bilbao 1653", Cuadernos de sección, *Hizkuntza eta literatura* 7, 133-214, Eusko Ikaskuntza, Donostia
- Zuazo, K., 1989, "Arabako euskara", *ASJU* XXIII-1, 3-48.

XVIII. mendean Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-ak iparraldeko zenbait idazlerengan duen eraginaz

PATRIURKIZU
(GINEA)

Egunotan maiz eta luzaro mintzatu gara etimologiaz, eta berorrek nere asmakizun askori baietza eman dio, baina ez dadila gehiegi fida.

W. F. von Humboldt, *Euskaldunak...* (1801)

Larramendiren jaioturtean hirugarren mendehurrena aitzakia harturik biltzen gara gaur hemen. Okasio berezia —oro dira berezi eta on— Larramendiren gainean hitzegiteko, baina dena den, eta mugak ezartzea onen denez lehen egitekoa solas zehatz bat saiatzean, ahalik eta ataka gehienak ipiniko dizkio gureari. Lehenik, aitortu beharrezan aurkitzen naiz Joseba Lakarra euskalari finak deitu ninduenean hitzaldi hau presta nezan. *Larramendi Atzerriarrengan* titulua eta gaia ezarri zidala mintzabide, baina luzetsi bainuen aztergaia, astiaren presak bultzaturik erabaki nuen beste gai hestuago batez solastatzea, alegia XVIII. mendean Larramendiren *Hiztegi Hirukoitz*-ak Iparraldean zenbait idazlerengan duen eraginaz.

Joseba Lakarrak saio luze bezain jakintsu eta ohar interesgarriaz hornituan Etxeberri medikuaren *Escual-Herriko gazteriari zuzendutako hitz batzuk* aipatu ondoren, non *Minervaren dosteta ezti* eta *canta-alosien bidez inorantziaren contra eguiten den guerla ohorezcora* deitzen duen gaztedia, honako oin-oharra ematen digu:

Bestalde, lotsagarria izan arren, ez dugu Etxeberriren lan eta hizkuntz ideiei buruzko monografi on bat (...). Zorrigaitzez nik ezin dut hemen Larramendirekin dituen antzekotasun batzu erakutsi baino. Hauek hain dira ugari eta garrantzizko non ongi merezi bait dute azterketa zehatzagoa (Lakarra 1985a: 13).

Biek, hots, Larramendi eta Etxeberri Sarakoak, hala nola Urtek, Harrietek eta Oyangurenak idatzi zuten euskal gramatika eta hiztegi bat XVIII. mendean, eta horien bitartez gazteok euskaraz jakintza guztietan treba, jantzi eta ari zitezen nahi zuten. Asmo benetan ederra! Baina,.... jesuitarenak soilik izan zuen ondorio nabarmenik.

1. Has gaitzen, bada, aitzin-solaseko luzamendu gehiagorik gabe gaiari helduz.

Larramendiren eraginaz mintzatu behar baldin badugu, zertan arraio aipatu behar denboran lehenagokoa den Joanes Etxeberri saratarra? Edonork bitxi bailaritzake 1712. urtean idatzitako batek 1745.go beste baten eraginik pairatzea, eta ez gaudenez

hemen Borges en izkirimieriez jarduteko, argi dezagun hemen azpimarratu nahi duguna zorren trukea dela.

Lehenik, alogia, Larramendiren eragina sufritu aurretik Iparraldeko idazleek, andoaindarrak Iparraldekoen ikutua ere izan zuela, noski, hiztegiaren aitzin-solas Juzean aitortzen den bezala, euskal liburuez (*DT*, "De los libros en bascuence", xxxiv-xxxvi) mintzo denean. Hala aipatzen dizkigu: Materre (1616), Etxeberri Ziburukoaren *Noelak* (1630), Argaignarats (1641), Axular (1643), Gazteluzar (1686), Chourioaren *Kempisa* (1720), Lavieuvilleren *Dotrina* (1733), Harrieten Gramatika (1741), hala nola Etxeberri medikua, zeinetaz hauxe dioskun, hain zuzen:

El Doctor Don Juan de Echeberria, natural de Sara en Labort, oy Medico de la Villa de Azcoitia, muy Docto, y amante de su Lengua, tiene años ha compuesto un Diccionario quadrilingue de Bascuence, Catellano, Francés, y Latin, que impresso pudiera servir para entender los pocos Libros, que ay en Bascuence, aunque no con toda extensión. Avrá diez, ò doce años, que estando de passo en Azcoitia, me le fiò por dos dias, y entresaquè muchas voces del Dialecto Labortano, para ponerlas después en las correspondientes del Castellano (Ib, xxxvi).

Ez zituen, beraz, Larramendik asmatzen hiztegiako hitz guztiak, urte anitzetan liburuak aztertzen, ustutzen, eta herriz-herriz, baserriz-baserriz eta itsas-kostaldean *enkestak*, orain esaten den eran, egiten ibili baitzen, eta egitekoan bazituen ere laguntzailerik. Horien artean Jose María Araquistain karmeldarra aurkitzen dugu, zeinen eskuzkiribua (Ac. Hist., ms 9/7282) osorik oraindik argitaragabe dugun, eta non Etxeberri Ziburukoaz eta Gazteluzarrez hala nola eronkarieraz eta Itziarko hizkeraz mintzatzen zaien, besteak beste.

Honela bada, arrazoi osoa du Lakarrak dioenean *Hirukoitz*-ean gutxienean dela asmatua eta gehienez herriaren ahotik eta autoreetatik bildua. Baina, nola berezi? Ez da lan erraza. Bilduetariko hitz bat, adibidez, *alosis* litzateke, Julio de Urquijoren (1907: liv) inprimaldiaren hitzaurrean honelaxe aipatzen dena: "*Alosia*, Musa, harmonia". Eta hitz beraz Koldo Mitxelena *Orotariko Euskal Hiztegia*-n honela dihardu:

Alosia (Lar, Sb-Urq), *Annonia; musa (?). Es ésta una muestra que podría ser crucial, de las relaciones de préstamo entre Larramendi y ES. Para el primero, *alosis* es exclusivamente "harmonía" y traduce "musa" por musa, El segundo, sin embargo, atribuye este último valor a la palabra; cf. pág. 123 (ed. 1907) "*Musa, Alosía*", "*Musae, Alosiae*", pero los ejemplos parecen significar claramente 'armonía'. Más adelante, entrada el siglo XIX, se empleó *anjerusa* con un valor hasta cierto punto semejante (I, 819)¹.

2. Laga dezagun aipamena bere horretan eta has gaiztezen 1745. urte mugari de-naren ondorengo zenbait liburu aztertzen.

Joannes Haranederrek, Donibane Lohizuneko apezak, XVIII. mende erdialdean bi itzulpen eman zituen moldiztegiara. Bata, San Frantzisko Saleskoak idatzi *Philotea...* (1749), eta bestea Lorenzo Scupoliren *Gudu Espirituala* Parisen (1664, 1665), baina ez zituzten, antza, sobera gogoko, donibandar apezak irakurtzaileari emandako *Avissua*-n honela baitzioen:

Eguia da bada... Parisco partetarie Bayonarat ethorri çan cen Jaun Apez batee Escaldunei cerbitçu errendatu nahiz, Escara ahal çaquien beçala ikhassiric, liburu hau eta berec cembeit ere Escararat itçuli çituela, eta Parissen imprima araci, Ordea Escara

(1) Jakin dugu José M. Etxebarriak prestatutik duela Euskara-latina-gaztelania-frantses hiztegi hau (Etxeberri Sarakoarena, noski) argitaratzeko.

gaitz batean itzulia direnez landan [...] Escara garbiago batetarat, edo herri Escaldunac mintzo diren molderat itzulia (Haraneder, *Philotea*, iii).

Hala bada, *Escuara gaitz eta arranju gabeco batera* (Haraneder, *Gudu*, v) itzulirik zirelako saiatzan da berriz Haraneder euskaratzen bi liburu horiek, eta ez du, noski, itzultzen nolana, euskara eder eta ongi arranjatu batean baizik, herriak darabiltzan moldetan, eta, beraz, ez dut topatu Haraneder baitan Larramendiren eraginik. Era berean ezta ere Martin Maisterrek xubereraz egin *Kempis*-ean, zeinen hitzaurrean honelaxe dioen:

Hitç çoumbaiten enthelegatcia neke çatekiala gente comunaren udurituric, hen beren eçagutceco moyana jardieç ahal deçan amourecatic phena hartan datekianac, eçarri içan dira hollen çola çoumbaitetan, hen enthelega eracitecco mengoua çirela ouste ukhen dutugun arguiac (1757: xxij).

Herri xumeari zuzendutako itzulpen honetan kezkatzen dioten eta argitzen dituen hitzak ez dira zientzi maila garaiko hitzak, arrunt-arruntak baizik, eta beren zentzua argi eta garbi uler dezaten jendeek esplikatuak, hala: *Imitatcia, Manna, Caritatia, Centçu, Contcentcia... eta Escandala*.

Halaber *Dauphin*-aren heriotzeaz bere aitortleak idatzi zuen liburuxkan (1766) ez eta Beñat Larregik argitaratutako *Testament çaharreco eta herrico Historiou*-n (1775), zeinen hitzaurrean honelaxe dioen. *Ene artharic handiena içan da clarqui minçatceca, escal-herri gucian adiuren nauten beçala. Arraçoin hunec herac erakharri nau ene hortcha, eta ahalic gutiena bada ere, lerratcerat frantsescara diren hitz bakhar batçuetarat, ez eta Lopez batek Alfonsa Rodriguezen itzultzailecarengan hala nola Iraultza Frantseseko garaian itzulikatu zituzten testu politikoetan (Rica 1975) ez dut aurkitu Larramendiren arrastorik.*

Hau izanik jaidura nagusia, alegia, Larramendiren hiztegiaren eraginik eza, — besterik litzateke, noski, hizkuntza ideiei buruzko ondorioa. Bada, ordea, idazle hirukote bat zeinengan nabarmen agertzen dena, eta, beraz, hauei buruz mintzatuko gara aurrerantzean. Jean Robin, Josef Eguiateguy eta Jeanne-Philippe de Bela idazleez, hain zuzen.

3. Michel Ange Marin (1697-1767), XVIII. mendeko frantses idazle aszetiko famatuenetarikoa dugu. Marseille-n jaioa, frantziskotar xumen-xumenen ordenean kargu inportanteak ukana, lau aldiz probintziako lehendakari, jenerala ere izendatu nahi izan zuten, honi ezetza emanez. Frantsesez erlijioa eta morala tratatzen duten liburu hala nola elaberri eran idatzitako anitzen sortzailea. Okzitaneraz izkiribitu zuen ere bertso liburu bat: *Lei desastres de Barbacan chi errant dins Avignon* (1722); eta gaztelaniara itzuliak izan direnen artean *Vies des Solitaires de L'Orient* (1761-1764), eta *Virginie ou La Vierge Chrétienne* (1752), ditugu. Azken honen euskal itzulpenaz mintzatuko gatazue, orain.

Jean Robinek² (1738-1821) itzuli zuen *Birjinia edo Donceil Christaba* 1783-1784. urtetan, Piarres Lafitek (*Euskaldunen Loretegia*, 126-8) zatitxoaren aurkezpenean esaten digun bezala. Eskuzkiribuan agertzen zaigun zinadura, aldiz, Jeanne Marie Robin da. Zer adierazi nahi digu honek? Ene ustez, uste hutsa liteke, noski. Michel Ange Marinek 1752. urtean Avignon-en neska gazte bertutetsuentzat erakun-

(2) Donibane Lohizunen jaioa, 1765, urtean apeztua, euskal liburuen biltzaile porrokatua, eta bertsoegile trebea. Ikus, Urkizu 1987, 21-22, 180-188.

de bat antolatu zuen bezala gogo jardunak, ejerzizio izpiritalak aste batez egin zituzaten eta beraientzat elaberri aszetikoak idazten, era berean Jean Robinek bere artebarentzat eta hura bezalako beste neskatila bertutetsuek euskaraz irakurgaririk ukan zezaten, itzuliko zuela ziuraski. Eta ez zuen lan makala egin, alajaina, 2138 orrialde lau liburukitan idaztera iritsi baitzen.

Liburuari ipini zion *aicineco* solasa eta *l. liburua. l. Burua* edukiko ditugu aztergai.

Eskuzkiribuaren saihestetan agertzen dira hitzaurtean eta lehen kapituluaren hartena idatzitako hitzen esanahien argigarri moduan ordain batzuk. Hauexek, bada, emango ditugu alfabetikoki zerrendatuz.

Berrogeitaliemezortzi dira eta gehientsuenak Larramendiren *Hitzegi Hirukoitz*-etik jasoak. Halere, eta aitzin-solasa bere-berean eman aurretik aipamen bat hitzaurteez. Hainbat eta hainbat izkiribatu zituen Borgesek honako *tesia* aurkezten digu bere *Prólogos con un prólogo de prólogos* delakoan:

Que yo sepa, nadie ha formulado hasta ahora una teoría (cf. Porqueras 1957) del prólogo. La omisión no debe alligirnos, ya que todos sabemos de qué se trata. El prólogo, en la triste mayoría de los casos, linda con la oratoria de sobremesa o con los panegíricos fúnebres y abunda en hipérboles irresponsables, que la lectura incrédula acepta como convenciones del género. Otros ejemplos hay — recordemos el memorable estudio que Wordsworth prefijó a la segunda edición de sus *Lyrical Ballads*— que enuncian o razonan una estética. El prefacio conmovido y lacónico de los ensayos de Montaigne no es la página menos admirable de su libro admirable. El de muchas obras que el tiempo no ha querido olvidar es parte inseparable del texto.... El prólogo, cuando son propicios los astros, no es una forma subalterna del brindis; es una especie lateral de la crítica (Marchese-Forraddellas 1986: 329).

Euskal liburuetan izan, badugu ederrik, Leizarragarena eta Axularrena, adibidez, bi soilik aipatzearren, diot, badela ederrik biltzea eta aztertzea mereziko luketenak gure euskararen eta literaturaren, liburuaren eta irakurketaren historiaz argi gehiago izan genezan. Hori burutzen ez den artean, hona gure partetik bat orain aritio argitara-gabe irau duena:

- f.11 *Birjinia,*
edo
donceil christaba,
- 5 *Lempista siciliarra, prestuasun osorat heldu nahi diren nescatchei moldetzat halia dakientzat, Aita begirungarri Migel Aingeru Marin, chumen-chumenen donepilucoac egina, Eliza gi-on batec berriro escuararat itzulia,*
- Lehen zathia,*
- 15 *Lempitze hau deitzen da Siciliarra, ceren Birjinia prestua Siciliacoa baitcen: Sicilia da ugarte handi bat Italiaco hondoa, erresumaren igena ere emaiten zajo,*
- 20 *Jeanne Marie Robin*
- f.1v1 *chumen-chumenac bertela minimoac deitzen fraiden donepila izan cen bitezarria*
- 5 *Jondone Franises Paulocoaz, zoinaren besta egiten baita aphirilaren bian,*
- 10 *Nola aphalez guraz nahi baitzuen chumenarentzat iduc cezaten hargatic nahi izan zuen haren donepilac ukhan cezan chumen chumenaren icena,*
- 15 *Aurkhitegia edirenen da zathi bakhotcharen bucan,*
Ezta behintzat nere-neretik, pluma bazterretan izanen diren cembait hitz bakotch baitcen,
- 20 1783

f.2, 1

AINTCINECO SOLASA

Donceil christabei eskeintzen diotegun moldea ezta hambat bapildetan hertsiaic daudenentzat, nola bere burhasoen etchean edo bere gain bici direnentzat. Lehenei ere halia dakieke, egia da; ordean baituzte hejee bici-araudeac, hec leyalki begira betzate, eta hortaz; hethu dukete here deia. Urran da ordean orobat baita berteez; utciac zaitco, erran behur bada, bere-bere nahiani, eta hejen kharrari datcheico. Uste izan dugu, beraz, verbitzu hundi bat bihurtuko

f.2v 1

gineraijeta, araud-ordetzat halia cekieken molde bat hejee begien aintcinean pharatac. Molde huntan ikhusicrein tuzte begira detzaketen Jaincotiargoazco egintzac, Sacramendue; egin behar duten usantza, bere hutsetaric ventzatceco ta here penduren guducateco ukhan behar duten artha, Cer alairekin behar tuzten goithu ciraikiac ta hieitce izpiritualean baitcen diren traba guciac, nola behar den hutsetaric altchatu, behaztopatu denean, cer kharrekin behar den geroago ta gehiago bertue christabetan aintcinatu, eta hiez batee; Yesu- christo irauuncorki ta osoki cerbitzatu nahi duen donceil baten! bici-ante gucia.

f.3 1

Horrelacoa da Birjiniac prestua, hemen begien azpian ematen derajeguna, Nescatcha bat da lehenic munduco jaunkeriac maithatu dituen, bainan Jaincoac bere graciaz hunkitu zuen, hejen enganion ezagut cezantzat, ta ukho eegientzat; eta nola arima arras hoben gaberie guti baita, hetaric izaiteco zoriona ezutenez ikhusicrein dute Birjiniac baithan nola behar den egiaz Jaincoa ganat itzuli, eta ondoan cer egin behar den, Birjiniac Jaincoaganat itzuli ondoan ukhan cituen guducac ta trebesiac yasateco; i eta parada beretan edireten direnec ikhasico dute huren behazunetic cer egiteco molde behar duten iduki Birjiniac garbitu cituen bere hutzac urrikiaz; eta horri dagocala nescatcha prestuec ikhusico ituzte

f.3v 1

gorputceco garraztasunetan begiratu behar diren araudeac, Birjiniac bazarrajon gozco othoiztari, egiten cituen hitceco othoiztac ere; bazuen dembora bereci bat iracurtuz izpirituarenentzat baryakindearen miratecotzat, Sacramendu guci donearen ikhustatecotzat, hui jauncotiargoazco bertee haintz i egintzentzat, ceinei nescatchac jarraik ahul baitiezke, hura bezala, Birjiniac maiz hurbiltzen

f.4 1

cen Sacramenduetarat, bainan cer bihotz moldura onekin! eta cer alort etzuen hetaric atheratzen! Hortec guciac hambat irakhasdegei dira, nescatchentzat behar-beharrac, bainan egiteco burzagia da berthutei jarraikitcea, eta hori gabe jaiere ezta itchura ezteus bat haicen, Alde hortaric ere bada gehienic bermatu gira nescatcha Jaincotiar haren erukhusterat, ceren egiaz hori baita egiazco sein

f.4v 1

alea, donceil zuhurrac eta egiazco Jauncotiarrac i iduri choitezco prestuetaric bere chtein tuena.

5

Egia da erraite jaiera guti dela ezagutua, baita iduriz ta usantzac hari durraizcon nescatchez ere; cembat enganio hari dagocela? Cembat arinkeria ta alducortasun? Cembat unhezco ta histico jaier? Cembat bere buruaren hiltatce? Cembat horrelaco bertee escus? Horrec bada maiz emaiten du Jauncotiargoa onen gaitetan, eta horrec hethewen du hambat jende haren contraco hambat uste gachtoz, ikhusten dira nescatchac ceinen alde batetic campo ongi moldatuac; baitiruri erraten duela hejen barrenra ere hain ontsa moldatua dela, et egiaski ta cinez dirrela prestu, eta bertee aldetic ikhusten dira here unhei emanac, khechos, gaizki eraste, barrajatu, arin ta fann. Hortec erraten da jaieresco campo hura eztefa alegiaric ta heutakeriaric baitcen, eztefela hain campo eder bat egiten, bere ariman bazatcen tuzten penduren ta huien hobeki estaticeagatikc baitcen, eta aski ki dela jaierti izaitea, hura gogor, moldegaitz, alfer, histi, eta alde orotaric escasduen izatecotzat.

f.5 1

5

5

10

15

- f.5v 1 Munduaren uste hori baratzen balitz molde hortaco nescatcha prestu idurie-
 5 tan, ez liteke zuzen contratasun ez bidegabe handirie, bainan munduac ber-ustea
 10 hedatzen da prestu itchura dukharketen gucien gainerat. Osoki da itsu prestu-
 15 tasunari dagokionaren guinean, haren kontra uste gachtaz bethea da, ezitu maite
 here munucoac baicen, eta haren errangiac osoki zaizte Yesu-Christorenei aurca-
 ratuac. Hortic bada atsegin gachto bat hartzen du Munduac jende egiazki prestu
 f.6 1 direnen halacoac ezitirenekin nahastecatuan ! guciac orobat eripetceintu, ceren
 5 deus ez-paitu edireten onetan haren gogoarekin aloga deitakenic, edo lehenago hu-
 10 rra eripetcen ezuenic. Hortan egiten du munduac guiti gora-behera, lehenago pa-
 15 ganoec egiten zutena hauet sinhauste, giristino icena cekarketenac, nahasteca-
 tzen cituzten egiazco sinhestunekin, hauen gain emaiten cituzten sinhauslen en-
 ganio errhoac ta gachtakeriac, eta oro icen baten azpian bilduric Jesu Chris-
 toren eripetcen cituzten debruaren manu pecoac bezala,
- f.6v 1 Diguu herriz ere munduaren ecadoiki hori arras-arrasa zuzentasun gabea da,
 5 Baiman horrekin batean ohartaraci behar tugu nescatcha yajer uphur bat erakhus-
 ten dutenac, cembatez diren hobendun Jesu-Christori hain ohore guti egiteaz, ya-
 10 yeraren contra erasteco parada Munduari emanaz. Eta hori ezitirelacotz aski hari
 nahi here escasetarie centzaten ta hera penduren cebatzen; Horregatic elizac,
 15 lehenago donceil christoben donetasunaz hambat loriatcen cenac, pagano galduet
 f.7 1 haren Quercaratucoztat, choill hurhildanic behatcen cioen hejen ! berhuteari eta
 hambat artha hartzen zuen haren here distadura gucian begiratcecoztat. Bada e-
 5 gin ere jazarkhunden dembora eragan den arren, ez othe digu hambat arrazoin nes-
 10 catcha prestutasun cebait erakhusen dutenei, eguiaski prestu izan ditezcan go-
 mendatceko, eta estimaten behazun onic baicen, bai here-heren arimaco onagatic,
 15 bai eman zaizcon Jesusen loria gatic, ceinaren urin ona behar baitira izan?
- Bada Birjinia baithan direnen dute horren behazuna guticiatuco da haren
 f.7v 1 lempiztea ! iracurturen dutenez har dezaten haren gainean bere buruen moldatceco
 5 gogo cin bat, eta gogo onez eman dekizcon lanari: hori da gu dugun chedea. Eta
 oi! Zoin dohatzu genta:keje, gure nahia bethetcen balitz; Alai done batez bethe
 10 baitez hemen nescatchac ez ezutke molde huntan deus edirenen yajer arremteraren
 mugez campoan denic; eta hemen aiphatcen ez garrastayun icigarririe, ez othoit
 15 gurai-gurairic, ez amodiozco centzuz onic ez bertec deus ohi ez bezalacoric. Bir-
 jinia nescatcha prestu guciet dagocoten bezalacoa da. Goyhartea ! egiten badute,
 f.8 1 harc ere egiten zuen: lanean haritcerat hertchatuac badira, huru ere hartan cen;
 5 here burhasoekin budihardunate, harc ere hacituen ta hejen manu pean bici cen;
 ciraikiac balin baituzte guduicateco, harc ere ukhan tu; barneco minac balin ha-
 10 tuzte harc ere orobat ukhan tu jasateco, Nescatcha prestu guciac izan behar di-
 15 ra aphaltura, ezi, onhexgudun, mundutic urrunduac, here baithan bilduac, mol-
 desti, hilduratuac, bere bici bideco egin bidei emanac, orotun hari behar dira
 f.8v 1 Jesu-Christoren gogoraco izaitecotzat. Bada ! Birjinia alde guci horrelacoa i-
 5 zan da: eta nihore gogo onez aitoritu nahi badu, ezterajegu hemen deus eskeintcen
 nescatcha prestuic, ecin loth dakiozkenic.
- Aintcineco solas hau bucaturen dugu Jondone Jeromoren hitz eder hautaz, ce-
 10 inec laburski erakhusen baitute certan datzan donceil christau baten egiazco
 zoriona; dohatzu arima, diotsa, dohatzu donceila here hihotetic amodio arrotz
 15 guciac khentecin tuena, maitha dezantzat bakhar-bakharric Jesu-Christo, ceina
 baita zuhurtciaren, garbitasunaren, pairacortasunaren, zuzentasunaren, eta ber-
 tice berhute gucien ithurburua.

Lehen liburuaren I Buru edo kapituluia Birjiniaren bihurrondea-z dugu. Jada Pia-
 rres Lafittek (op. cit.) zati nagusi bat eman zigun, baina ez kapitulu osoa, eta aitzin-
 solasean bezala saihestaldean zenbait hitz berriren ordainak ematen dira, baina

Lehen Liburuaren II. buruan jada ez da agertzen parekorik, eta oso kasu berezitan zenbaki bat ipintzen da, aldez aurrekoen erreferentzia gisara. Beraz, aitzin-solaseko eta lehen kapituluko hitz esplikatzen hauen zerrenda emango dut ondoren:

1. *alai*, kuraia (f.2, 7v)
2. *aldakortasuna*, inkonstantzia (f. 4v)
3. *aldeko*, zirkunstantzia (f. 12v), (L. I,202)
4. *alort*, fruitu (f. 4, 9v), (L. I,380)
5. *aphalgura*, umil (f.8)
6. *araude*, erregea (f.2), (L.II, 237)
7. *aurkaratu*, oposatu (f. 5v, 6v), (L. II, 127)
8. *bapilda*, komentu (f.2,11), (L. I,230)
9. *barjakindea*, kontzientzia (f.3v,12), (L. I, 217)
10. *bedoikin*, nobiza, seroragai (f.9), (L. II,117)
11. *behazun*, exemplu (f.3v), (Lhande, 126)
12. *bihurrunde*, konbersione (f.9), (L. I, 230)
13. *birazkatu*, doblatu (f.10v)
14. *bitezarri*, establitu (f.1v), (L.I,348)
15. *buka*, akhabantza (f.1v), (L.I, 370)
16. *bukatu*, akhabatu (f.8v,11), (L. I,11)
17. *deia*, bokazioea (f.2), (L. II,377)
18. *dona*, saindu (f.3v), (L.II, 173)
19. *donepila*, erlijio ordena (f.1.9), (L.II,128)
20. *donzeil*, birjina (f.2,8v), (L.I,299)
21. *donetasun*, seindutasun (f.6v)
22. *ekadoiki*, jujamendu (f.6v), (L.II,29)
23. *elheku*, diskursa (f.12v)
24. *eragoki*, indiskreziore (f.13v), (Lhande, 247)
25. *eraskidatu*, khondatu (f.12v), (L.I,226)
26. *eripetu*, kondenatu (f.6), (L.I, 218)
27. *errangi*, maximak (f.5v), (L. II, 233)
28. *faxelatu*, okupatu (f.14), (Lhande, 305)
29. *gerthu*, segur (f.13), (Lhande, 353)
30. *gerthuki*, segurki (f.14)
31. *gizakoi*, humano (f.7v)
32. *gogharte*, meditazioe (f.7v) (L.II,80)
33. *goihesgune*, salbamendu (f.13) (L.II, 270)
34. *gozabetha*, salbamendu (f.13) (L.II, 270)
35. *gozabethagarri*, salbagarri (f. 9v)
36. *gozabetharia*, salbatzailea (f.11), (L.II, 270)
37. *hilduratu*, mortifikatu (f.8), (L.II,100)
38. *ikhusta*, bisita (f.10), (L.II,375)
39. *ikhustatu*, bisitatu (f.3v), (L.II,375)
40. *irakhasdegei*, instrukzioe (f.4)
41. *jaierti*, *debot* (f.5), (L.I, 289)
42. *jaura*, debozioe (f.4), (L.I, 289)
43. *jazarkunde*, perskuzioe (f.7), (Lhande, 478)
44. *leghausle*, bekhatore (f.11), (Lhande, 666)
45. *lehen-orena*, prima (f.11)
46. *lempizte*, istorio (f.1.7), (L.I,246)
47. *minaria*, penitentzia (f.3v), (L.II,159)
48. *minkaitz*, torment (f.14), (L.II,335)
49. *mintzatoki*, parlerioa (f.11v), (Urtc, I, 299)
50. *moldezti*, modest (f.8)
51. *onhesgune*, karitate (f.13), (L.I,176)
52. *onhesgudun*, karitatos (f.8), (L.I,176)
53. *sagara*, sakrifizio (f.12v), (Lhande, 899)
54. *sinhausle*, heretiko (f.6)
55. *ugarte*, irila (f.1), (L.II,25)
56. *unhezko*, umorezko (f.4v)
57. *zentzute*, estasia, bere baitarrik jauzte (f.7v), (L.I,100)
58. *ziraki*, tentamendu (f.2v,8), (L.II,324)

4. Juseff Eguiateguy, Zuberoako errejentaren liburu bat dugu bigarren aztergaia. Honako liburua idatzi zuen, *Filosofu Huskaldunaren ekheia* eta Frankfurt-en argitaratu 1785. urtean, aurkitzen garelarik, beraz, euskarazko idatzitako lehen filofia liburuaren aurrean (Peillen 1983a).

Lehen argitaldiko alerik ezean Txomin Peillenek eskuzkiribuaren transkripzioa eta bere lan eskergari esker ezagutzen dugu liburua. Baina ez zuen osorik eman argi-

tara, alegia, xxxx kapitulu soilik plazaratu zituen beste hainbeste galdutzat emanik, Parisco Liburutegi Nazionalcan ediren baikenuen (Fonds Celts et Basques, n° 156, f. 114-365) bigarren parte hori, espero dugu laister Txominck berak emango diola akabacra bere lanari bigarren zati hau ere transkribituz eta inprimaraziz.

Nor dugu, ordea, lehen filosofo liburuaren egilea den Juseff Eguiateguy? Esan dugu, XVIII. mendeko errejentak xuberotar bat izan zela, eta aipatzen dituenek gero liburuan Poloniako gorabeherak, pentsa daiteke Belako Zaldunarekin batera ibili zela Europaren bihotzean barrena, moldiztegi lekuak adierazten duen bezalaxe. Jeanne Philippe de Bela-ren idazkari eta soldadoetatik bat ote? Litekeena.

Bere euskara, noski, xuberera da, baina nabari du ezagutzen dituela Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaiko autoreak ere, eta batipat Larramendiren lana, honelaxe aipatzen baitu, hain zuzen, bere *Hitzaurrean* :

Ilabürzki dügü erranen hüskaldün lealak bere mintzoaz jakin behar diana, Aita Larramendik ere laski probatürrik dagoela hau dela.

Lehena, mintzorik hüskara beno bere hitzen egokian hobedantagorik denik ez dela,

Bigerrrena, bater jende güzier mintzatziän haren garhadia dianik,

Hirurgerrena, ez etare, ber elhetan hain Ilabür denik.

Laurgerrena, bere araudian ta ardiestean bater jarraikiagorik ez dela,

Bostgerrenian, alozia bat diala, berze mintzoetaz edereiten ezten,

Seigerrenian, bater hüskara bezain aberatsik ta naharorik ez dela,

Zazpigerrena, ama mintzo dela, brobantza güzietzaz ikuraitürrik, dena, hetan ere lehenetarik dela.

Zortzigerrena, griego mintzoak hitz hainitz jesan derciola,

Bederatzigerrena, latiak, frantsesak, espainolak ta italianak oroizat,

Hamargerrena, Hüskara dela net posmagarri bere zazpi hitzkondien gatik diranak:

Nafarrakoak, Züberoako, Gipuzkoako, Bizkaiaiko ta Alabako hitzkondietan,

Hamekagerrena: Hüskararen khorpütza, bere hitzkondiak berhez jarririk ere, elizatekiala gütiago obedant, Probak daudiala bi Nafarretako, Lapurdiko, Züberoako, Gipuzkoako, Bizkaiaiko ta Alabako hitzkondietan,

Hamabigerrena, Hüskara dela mintzo bizia ta jakintzia (aip.lib., 27).

Nabarmena gelditzen da aipamen honen bitartez zein nolako eragina zeukan Larramendik Egiategirengan. Aitzin-solas honetan ere euskal literaturaren albiste berri eta bitxi batzuek ematen dizkigu. Alegia, Saro de Labortarena batek ezin euskara ederragoan *Marinearen Eginbidea-z* (1642) liburu bat moldiztegiratu zuela, *Exerzio Ispiritualak* badutela egilea eta hau Pedro Argain dela, Arnaud Oihenartek *Zaharzaroa ere neurthitzetan* (1664) plazaratu zuela Paben, Joanes Etxeberriren *Hitzegia euskaraz, espainolez, frantsesez eta latiz* delakoa ere aipatzen digu, ez dakielarik moldiztegiraturik denentz; eta azkenik, iragartzen digu berak idazitako beste bat *Aberastarziän güzien giltz bakhoitza*.

Zer gertatu ote da XVII-XVIII. mendeko euskal literatura ezagutzeko hain interesgarri litzaizkigukkeen obra guzti hauekin? Batek daki!

Itzul gakiakion eta lot dugunari, auzen eta doluminak utzirik, eta ikus zein nolako eragina izan zuen Larramendiren hiztegiak xuberotar errejentarengan. Hau, badakigu, filosofo izateaz gain, historialari badela ere neurri batean, eta *Irakurtzailei* idatzi ziola *Hamalaurduna*, bertan poeta on bezala agertzen zaigularik.

Joseba Lakarrak gorago aipaturiko artikuluan zerrenda hau ematen digu:

- | | |
|---|--|
| 1. <i>akadoikeria</i> ³ , auzietarako joca (L.II.29) | 9. <i>irudestia</i> , irudimena (L.II.3) |
| 2. <i>altista</i> , perla (L.II.164) | 10. <i>megopia</i> , izpirtoa (L.I.346) |
| 3. <i>banaité</i> , diferentzia (L.I.291) | 11. <i>ongondia</i> , ongunde, konbenio (Axular) |
| 4. <i>berezita</i> , kapitulu (L.I.172) | 12. <i>otsandiki</i> , famoso (L.I.364) |
| 5. <i>dierri</i> , nazio (L.II.109) | 13. <i>pozmagarri</i> , ezjakin (L.II.2) |
| 6. <i>ekidafuf</i> , konstruitu (L.I.114) | 14. <i>zeiakín</i> , ezjakin (L.II.2) |
| 7. <i>eripetu</i> , kondenatu (L.I.218) | 15. <i>zekidora</i> , aurkibidea (L.II.12) |
| 8. <i>iripedi</i> , suburbio, 'iripe' (Lhande,444) | |

Hona gure aldetik beste batzuek, ziar gaudelarik Peillenek aipatzen dituenak baino gehiago ediren daitezkeela, eta beste zenbait zalantzan ipintzeko direla.

- | | |
|--|---|
| 16. <i>agerinde</i> , agerpen (L.I.83) | 35. <i>galkiroso</i> , korrumpitzaile (L.I.236) |
| 17. <i>akopilatu</i> , eraso (L.I.20) | 36. <i>gogarte</i> , meditazio (L.II.80) |
| 18. <i>aloxia</i> , harmonia (L.I. 419) | 37. <i>guraskugarritu</i> , primotu (L.I. 422) |
| 19. <i>arpe-te</i> , deklarazio (L.I. 254) | 38. <i>hilezinde</i> , immortalitate (L.II.4) |
| 20. <i>atzenkidatu</i> , bukatu (L.I.225) | 39. <i>jakinde</i> , zientzia (L.I.200) |
| 21. <i>hakite</i> , batasuna (L.II.356) | 40. <i>jauzkai</i> , habitu (L.I.409) |
| 22. <i>bapilde</i> , komentu (L.I. 230) | 41. <i>kulharaitu</i> , persekutatu (L.II,165) |
| 23. <i>beondaztu</i> , kontenplatu (L.I, 226) | 42. <i>lehende</i> , lehen egoera (L.II.195) |
| 24. <i>billekintu</i> , bilatu (L.II,118) | 43. <i>loteki</i> , esklabo (L.I.339) |
| 25. <i>bi-(a)kai</i> , gorputz adar (L.II.88) | 44. <i>manurga</i> , karroza (L.I. 178) |
| 26. <i>damorria</i> , melankonia (L.II.81) | 45. <i>mei-akinde</i> , metafisika (L.II.87) |
| 27. <i>desalái</i> , desanimo (L.I.264) | 46. <i>moldezi</i> , modesti (L.II.92) |
| 28. <i>doakinta</i> , doatsunde, dohatsutasun (L.I, 367) | 47. <i>nazaro</i> , konplexio (L.I.214) |
| 29. <i>egokidia</i> , konstantzia (L.I. 224) | 48. <i>ozardia</i> , pazientzia (L.I.134) |
| 30. <i>ekantza</i> , simulakroa (L.II.291) | 49. <i>zaitirande</i> , kontserbazio (L.I.223) |
| 31. <i>erago</i> , kronika (L.I.242) | 50. <i>zedali</i> , kontraesan (L.I.128) |
| 32. <i>erakida</i> , konformitate (L.I.220) | 51. <i>zelakodi</i> , kalitate (L.I.161) |
| 33. <i>ez(k)onde</i> , kontseilu (L.I.223) | 52. <i>zilekinde</i> , morala (L.II.98) |
| 34. <i>galkidatu</i> , korrumpitu (L.I.236) | |

5. Jeanne Philippe, chevalier de Béla, Belako zalduna (1709-1796) Maulen jaioa, ospe handiko frantses kolonela, *Cantabres Volontaires*⁴ delako oinezko errejimendu arinaren sortzailearen hiztegia dugu orain aipatuko. Bere hirraitatxi, Jakes Belakoa poligrafoaren antzera historiaz, ekonomiaz eta beste hainbat gauzez obra oparota utzia, eta tamalez birraitonarena bezala oraindik gehiena argitaragabea.

Poliglota genuen mauletarra, eta bere paperen artean utzi zizkigun besteak beste, euskararen historia bat⁵, non Larramendiren gramatika eta *Hiztegi Hirukoitza* aipatzen dizkigun. Ematen dizkigu ere Senecaren itzulpen batzuek, zeinen aurkezpen gisara honakoa dioen:

Je sens qu'il faudrait un volume entier pour parler de toutes les règles de cette langue, mais comme cette prolixité ne serait que très ennuyeuse pour ceux qui n'y prennent aucun intérêt, je donnerai seulement quelques exemples de laconisme et de l'éle-

(3) "Larramendi *ekadai* 'juez': No se comprende cómo Eguiateguy e Inchausti que no podía conocer la obra del anterior, coincide en sustituir *ekadai*, neul., de Larramendi por *akadai*. No se trata evidentemente de un término suletino" (Mitzelena 1970: 534).

(4) *Ordonnance du roi portant création d'un régiment d'infanterie de troupes légères sous le nom de Cantabres Volontaires, du 15 décembre 1745*, Paris, de l'imprimerie royale, 1746.

(5) BNP, MS, naf, 20055, f. 436-482. *Essai sur l'histoire de la langue basque*.

gance du basque, dans lequel je traduis quelques réflexions de Sénèque que j'ai trouvées sous la main (aip. esk., 483).

Alegia, euskararen dohainen artean gauzak esateko bere molde labur eta azkarra dagoela, eta honetan Egiategirekin ere bat dator, hala nola bere dotoretasunean, zein-nen frogatzeko eskuarteak aurkitzen zuen Senecaren zatitxo bat itzultzen duen.

Bukatzen duencan euskararen historiako, hiztegi bat aurkezten digu, eta aintzin-solas bezalaxe honela dio:

... j'en donne ici de nouvelles, pour trouver que cette langue n'a rien de commun avec celles des nations que ont été en Espagne par un recueil de mots que l'imagination m'a fourni, et que je ne me suis pas donné la peine de choisir (ms. 20.069, 82.f.)

Alegia, burura etorri zaizkion hitz zenbait zerrendan ipini dituela, eta aski nabari dela ez duela euskarak deus ikustekorik Espainian izan diren besteekin. Baina, ohar gaitezkeen bezala bigarren euskalkipean ezartzen dituen hitzak Larramendirenetik jasoak ditu. Txomin Peillenek (1983b) hirugarren zutabea, alegia xubererazkoa soilik eman zuenez gero, hemen dohakizu A letrapean ezartzen dituenak oro, noski, frantses eta hiru euskal euskalkienak soilik, hamar hizkuntzenak ipini baitzituen eta gogo-astirik duenarentzat uzten baitiogu osorik plazaratzeko aukera:

<i>Français</i>	<i>1. Dialecte du basque</i>	<i>2. Dialecte du basque</i>	<i>3. Dialecte du basque</i>	
amolir	cantitu	beraatu (L.I.5)	mardotu	
<i>Hebreu</i>	<i>Grec</i>	<i>Celtique ou Armonique</i>	<i>Arabe</i>	<i>Latin</i>
herá-ch	malasso	egaledi-goucquer	merchi, ortop	mollificare
<i>Gaïtic-Allemand</i>		<i>Espagnol</i>	<i>Italien</i>	
weihen, vind machen		ablandar	intenerire	
f.	1.b	2.b	3.b	
abhorrer	iguitu, higuindu	gorrotatu (L.I.7)	hastiatu	
abondant	liscoa, iori	ugari, narorc (L.I.10)	hanisco	
achever	azagatu, meiru	bucatu, aitu (L.I.11)	urbentu, accabi	
arriver	apucatu	guertatu (L.I.306)	heltu	
f.	1.b	2.b	3.b	
avancer	achitu	auragotu (L.I.117)	ayzinatu	
amincer	meartu	meetu (L.I.28)	mehastu	
argenter	diruztatu	zuzquitu	eilharstatu	
avertir	mezutu	arreteraci (L.I.33)	oharteraguin	
agrandir	aunditu	gucitu	handitu	
affliger	atscabetu	larritu (L.I.35)	anxiatu	
acquérir	billatu	erabaici (L.I.32)	jirapayci	
accomoder	maneatu	onguitu (L.I.21)	zuzentu, apaindu	
affronter	laidatzu	laidotu (L.I.36)	ahalketu	
alonger	luzeguitu	luzatu (L.I.48)	luzetu	
abime	gaintondoa	ondalezia (L.I.4)	leizia	
animal	lauoinduan	aberea (L.I.77)	cabalia	
action	eguindea	aritzia (L.I.14)	eguitia	
acereté	guztursuna	gurrutasuna (L.I.14)	aguitia	
ail	baratzuria	baracatza (L.I.45)	lartzazuna	
aile	egoa	egoa (L.I.46)	hegala	
arrivée	otorritzia	gintzia (L.II.48)	heltzia	

accusateur	gaitzguoitamena	salaguera(L.I,26)	heltzia
affabilité	orcorra	lanotartzuna(L.I,33)	emargoria
adversité	gaizzegoquia	atsecabea(L.I,33)	gaizkihertia
affinité	otzanca	ureotasuna(L.I,35)	azkaritarzuna
agonie	hiltzeracoa	sugarra(L.I,38)	azken hatsa
agrément	otzanea	emagurrea(L.I,39)	egertartzuna
abaissement	guibiatzea	makurtzia	aphaltzia
absolument	deblauqui	ichiro(L.I,9)	ozoki
B			
...			
Yvronge	ordia	moscorra(L.I,144)	ordizalia

Nabarmena da gonbaratzen bada zerrenda hau bai Peillenenarekin, edo Larramendik dakartzan ordainekin kopiataileari batean baino gehiagotan bistak jauzi egin diola zutabe batetik bestera. Bestetik, ikusten da zerrenda ez dela irudimenak edota oroimenak bakarrik sortua. Dena den, mereziko lukeelakoan gaudu, zerrenda osoa argitaratzea behar bezala eta ondo azterturik, mila seirehun hitzetik gorako XVIII. mendeko hiru euskalkitako hiztegia baita.

Eta aski luzatu bainaiz, amai dezadan laburbilduz eta azpimarratuz Larramendiren eragina Iparraldean XVIII. mendeko euskal idazle baitan hiztegi mailan, hiru autore horietatik aparte oso urria izan zela. Adibidetxo bat gehiago emango dugu hay argitzen duena. Mende hasieran bere hiztegia idatzi zuenean Urtek (Urkizu 1989) eta mende bukaeran Beaumont⁶ delako batek *pirámide* edota *laberinto* bezalako hitz teknikoak itzultzerakoan *pirámide* eta *labirinto* bezala ematen dizkigute, eta ez Larramendiren gisara *ciameta* ta *irteciña*.

XIX. mendean errezibitu zuen harreraz, eta batipat Chahorengan izan zuen oihartzunaz beste txoko batean mintzatua bainaiz (Urkizu 1991), han nizkioenak ez ditut berrituko, eta bego sakontzea bai mende horretako bai amaitzear dugun gurcan izandako eragina beste baterako, baina gure ondorio eta ustea delarik ez zuela lur aproposik aurkitu Iparraldean txertatzeko landare berri haiek, beste zuhaitz ohizkoago batzuekin aski baitzuten egunoroko bizitza arruntarako iparraldeko anaiek.

Bibliografia

- Lakarra, J. A., 1985, "Larramendiren hiztegi gintzaren inguruan", *ASJU* xx-1, 9-50.
- Lizarza, A. de, 1967, "Apuntes léxicos de la traducción bajo-navarra de Alfonso Rodríguez", *ASJU* i, 98-163.
- Marchese, A. & Forradellas, J., 1986, *Diccionario de retórica, crítica y terminología literaria*. Ariel, Barcelona.
- Michelena, L., 1970, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, Bilbao.
- et alii, 1987 hh, *Diccionario General Vasco*, Bilbo.
- Peillen, Tx., 1983a, (arg.) *Joseff Eguateguy. Filósofo Huskaldumaren Ekheia*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1983b, "Bela-ko zaldunaren zubrotar hiztegia, XVIII. mendean", *FLV*, 41-42, 127-146.
- Porqueras, A., 1957, *El prólogo como género literario. Su estudio en el siglo de oro español*. CSIC, Madrid.
- Rica, M., 1975, "Traduction en Basque des termes politiques sous la Révolution", *ASJU*, ix, 3-173.

(6) Beaumont, *Instructiones gazteriarentzat. Adrien emperadoreuren galdeak sei urhetaco haur bati*, Urtia 6804 (c. 1795)

- Urkizu, P., 1987, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*, Durango.
- , 1989, *Pierre D'Urteren hiztegia (1715)*, Mundaiz, Donostia.
- .. ———, 1991, "Agosti Chahoren hiztegia" in J. A. Lakarra (arg.) *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, "ASJU-ren Gehigarriak", XIV, Donostia.
- Urquijo, J. De, 1907, *Obras vascogadas del doctor labortano Joannes d' Etcheberri (1712)*, Paris.

Larramendi eta literatur-gipuzkera

XABIER ALTZIBAR

(EHU, Leizaola)

I. Gipuzkerazko liburugintza Pizkunde arte: kultur-baldintzak*

Euskara landu edo apainduan idatzitako testuei edo, bestela esan, literatur-euskalkien historia, tradizio eta inguruko gaiet buruzko ikerketak gutti dira oraindik gure artean. Esparru honetan interesgarri litzateke arlo zenbait jorratzea (eta hemen lerro batzu zirriborrazteko asmoa dugu). Horien arteko bat liburu-ekoizpena eta honek izandako harrera aztertzea izan daiteke eta honetarako, komunikazio teoriaren erudura, Teun A. van Dijk-ek (1987) proposatutako metodoa erabiltzea on litzatekeela iruditzen zaigu, hots, alde batetik nork zer norentzat zein egoera edo baldintzatan IDATZI duen aztertzea, eta bestetik nork zer norengandik (edo nondik) zein egoera edo baldintzatan eta zein ondoriorekin IRAKURRI duen (azken honekin lot daiteke testuon transmisio kontua, hau da, zer nola etorri edo heldu den egungo egunetaraino). Edo, nahi baduzue, testuen eta batez ere liburu argitaratuen testuinguru sozioekonomikoa. Beste arlo bat, gipuzkera idatzia edo, zehatzago, literatur-gipuzkera nola joan den sortuz, taiutuz edo eratuz eta idazleen arteko eragina litzateke. Bi arlootan orain arteko ekarria aintzat hartuz lerro batzu zirriborrazteko ditugu lehen aldira mugatuz batez ere, hots, XVIII. mendera, azterketa sakon eta osoagoen zain gelditzen garela.

Lehen arloari dagokionean, gure ezagupena ez da handia, ez zehatza. Gehiago dakigu —izan ere errazagoa da— idazle eta obrer irakurlegoaz baino. Idazleen berririk jasotzen da literaturaren historietan, liburuen hitzaurreetan, c. a. baina idazleez nahiz idazlangintzaldi nahiz testuez nahiz argitaratzeko —edo ez— asmo nahiz salmentez zerbait gehiago jakin genezakeelakoan gaude ikertuz gero, eta hau bizkaierazko testu eta liburuen egileez eginiko ikerketen esperientzia kontutan harturik dugu. Artikulu honen xedea hegoaldeko euskara idatziaren historia eta tradizioaren ezagupenean aurrerapausutxo bat ematea da. Horretarako hemen lehenik literatur-gipuzkerazko liburugintzaren —hegoaldean garrantzitsuena, kopuruz baino ez bada ere— histori-zerzelada nagusi batzu aipatuko ditugu, gero liburugintza (nork norentzat c. a. idatz eta argitara) eta berorren irakurleko eta harteraren eredu bat zirriborrazteko asmoz.

Badirudi *Probintziaren* gorakada ekonomikoaren (Amerikarekiko salerosketa, industria eta nekazaritzaren garapena) eta honek dakarren kultur, hizkuntz eta politika kontzientziaren eskutik hasi zela lantzen gipuzkera idatzia XVIII. mende erditsuan.

(*) Eskerrak eman beharrean naiz Adolfo Arzejitari egin dizkidan ohar eta zuzenketengatik, barta Mendiburuaren obra batzuen lehen edizioak eskura dizkidalako.

Industriaren eta bereziki hirien hazkuntza garrantziatsuak dirateke, hiriak eta industria nagusi izan baitira Gipuzkoan eta, alderdi honetatik, interesgarria litzateke jakitea ez ote dagoen, adibidez, Bizkaiarekiko alderik.

Ekonomi hazkunderak eskolak dakartza hirietan eta, ondorioz, liburu idazketa, argitalpena eta irakurketa. Fenomeno honen adibide nagusia euskaraz Lapurdin du-gu XVII. mendean, Donibane Lohitzuneko portu eta *hinterland* horretan. Baina, diru-dienez, euskararen egoera Lapurdin XVII. mendean eta Gipuzkoan XVIII.lean ez da guztiz berdina, ez eta Ifarraldean eta hegoaldean XIX. mendean. Gipuzkoan euskara etxekoa eta etxekotzat onartua eta, gainera, garai hartan kopuruz nagusi zen (Larra-mendik eta Iztuetak ere XIX.ean dioenez, Gipuzkoan hiru laurdenek euskara omen zekiten hutsik) baina gaztelera, hirietan ondo sartua, bizilagun eta lehiakide zuen eta eskolatuak nahiz zeezer ikasiek irakur eta nonahiz erabil zezaketen. Hots, azken bu-ruan kultur eta prestijiodun hizkuntza gaztelera zen. Lehen mailako ikasketetan eta, zer esanik ez, goragokotuan gaztelera eta gaztelera irakasten zen huts hutsik eta euskara nahiz euskaraz irakats ez ezik erabil ere ez zitekeen, Espainiako gobernuar-en aginduz. Areago, zigortuta zegoen eta honen lekukotasunik badugu Kardaberaz, Egino, J. A. Mogel, Humboldt eta abarren liburuetan. Eta gainera, euskal liburuak argitaratzea ere galerazi egin zuen Aranda ministroak 1766.ean. Kontua da, Gipuz-koak foruak gorde eta ongunde ekonomiko bat izan eta ilustrazioa loratu arren, eus-kal ilustratuok ez zirela gai izan Borbondarren politikari aurre egiteko arlo honetan eta gure hizkuntzaren egoera negargarri hau gaunditzeko eta euskara eskoletara era mateko, guttiengo euskalazale baten ahaleginak gorabehera (Alzibar 1985: 1119-1120). XIX. mendean ere egoera ez bide zen erabat aldatu, eskola batzutan euskara erabili arren gaztelera irakasteko. Guzti honek zer ikusi handia du bai liburu ekoiz-penean, bai irakurketan.

Jakina denez, Larramendiren (1690-1766) Gramatika (1729) eta batez ere Hizte-gia (1745), idia eta maisutzak bultzatutako giputz-euskara idatziaren eraberrikuntza eta apainketarekin eta ondorengo Kardaberaz (1703-1770) eta Mendibururen (1708-1782) liburuekin sortzen da literatur-gipuzkera. Larramendiren eraginezko eraberr-i-kuntza hiztegiara ez ezik euskara idatziaren arlo guztietara hedatzen da¹. Baina euska-ra idatziak ez ezik, jendaurrean sermoietan mintzatuak, irakurriak edo entzuneraziak ere hobekuntza nabaria egiten eta duintasun bat irabazten du, Larramendik berak eta geroago Mogelek aditzera eman bezala, elizgizon mordoxka bat euskara hobe eta apainagoa ikasten eta mintzaten ari delarik². Hala ere, Ibon Sarasolak dioenez, ba-dirudi euskal hitzunen kultur baldintzek galerazi egin zituztela Larramendiren as-moak, adibidez hitz teknikoan hedapena, Pizkunde arte bederen (1986: 210-213).

(1) "Ikusten denez, ia erabateko berritze hori ez dagokio soilik hiztegi-alderdiari. Hizkuntzarekiko jarrera oro-korra da hemen aldatu eta irauli dena. Hots, Larramendiren eraginez, erdararen mendeko eta mormi huts izateari utzi eta hizkuntzaren berezko haliabideei begira jurtzen saiatzen hasi da euskal idazlea" (Sarasola 1986: 205).

(2) "No se puede dudar que, de pocos años a esta parte, se predica en vasconee menos mal que antes, y que hay predicadores que en sermones morales predicán absolutamente bien y con limpieza, y con gusto y fruto de los oyentes. Así por lo común los misioneros en sus sermones, y con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz que, a su mucha virtud y observancia, y al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vasconee claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua, y desmienten con su práctica las quejas mal fundadas de los vascongados holgazanes" (*Covagralla*, 291).

"Con todo, es verdad, que desde la época en que trabajaron y publicaron algunas obras los diestros bascon-gados Mendiburu, Cardaveras, y Larramendi, se nota más cultura en los sermones, y hay en Guipúzcoa no pocos eclesiásticos que han hecho un estudio serio del basconee y que le hablan con gallardía". *Peru Abasco*, 1881, Prol., 43. puntua, hitzazure bukacera.

Beraz, Lagundiko aipatu hirukotearen idcia eta idazkiek bideratu zuten gipuzkera idatzia. Bere liburu geroxeago, 1785ean, atera zuen Ubillosek (1707-1789) Mendibururen eragin handia du (eta lapurtarrena, noski). Guztiek ezagutu zuten Larramendi eta Maisutza hartu. Gainera elkartasun edo bata bestearen kutsu, ikuskizun eta eragin handia dute, ikusiko dugunez, nafar nahiz bizkai-euskararen nahiz lapurtera idatziaren kutsua gorabehera. Bestalde, egile hauek erudugarriak gertatu ziren ondorengo idazle bikaintzat. Eta liburu ekoizpenari dagokionez, egileonei esker gorakada handia izan zuen gipuzkerak XVIII. mendeko bigarren erdian, esan bezala (Sarasola 1975: 107-109).

Lagundiak, beraz, esku handia du euskalgintzan, baita geroxeago *Adiskideen Batzarreak*, biok oso indartsuak izan baitziren Gipuzkoan, eta bion jokabideak eta elkarren arteko gatazkak baldintzatu zuten gipuzkerazko liburugintza. Bi erakundeon asmoak eta eginak desberdinak ziren. Josulagunak herriaren erlijio-irakaste eta bereziki Jesusen Bihotz eta santu batzueganako jaietara —Larramendiren hitz berri aski zabaldu bat erabiltzearen eman ziren (gogora, adibidez, Mendibururen liburu batzuen izenburuak: *Jesusen Bihotzaren devocioa*, *Euscaldun onaren viciera*...). Ilustratuek, aldiz, herriaren eta gizartearen aldakuntza bilatzen zuten eta, euskarari dagokionez, beraien ikastetxe eta antzokietan euskara sartu zuten, poesia neoklasikoan lanketa-saio batzu egin e. a. (Altzibar 1985) (josulagunek, ordea, ez bide zuten plaza ageriko teatroa begi onz ikusten eta, agian, horregatik ez zen hainbeste garatu gure artean). Larramendiren nortasunak, nolanañi ere, Lagundiaren asmo pragmatikook gainditzen zituen eta euskara kontuetan guztiek ezagutu zuten Maisutza, baita ilustratuek ere.

Jesuita euskaldunek, gainera, Jesusen Bihotzaren batzarre edo kongregazioak eraikitzerakoan (eta beroriek misioen ondoren ezartzen zituzten), euskarazko liburuak ateratzeko asmoa izan eta berari aurrera eraman zuten. Kardaberazek, adibidez, pulpitoriak platika edo dotrinak euskaraz irakurtzearen egokitasuna eta horretarako euskarazko liburuen premia oharrerazten digu (*Fusqueraren herri onac*, 52, 63). Irakaste edo instruzio hauxe bera (eta era honetan gomendatuz, hots, pulpitoriak irakurtiaz) izango dute helburu euskal klasikoan liburu gehienek XIX. mende guztian (Gerriko, "Prólogo").

Baina, esan bezala, Lagundiaren eta Ilustrazioaren arteko gatazkak euskararentzat ondorio ezinago kaltegarriak ekarri zituen. Jesuiten deserriratzearekin (1767-1815) idazlerik ospetsuenak galdu gertu, euskal liburuak, sermoiak eta eskuizkribuak sakabanatu eta, agian, babes ideologiko edo kultural bat galdu kanpoko eta etxeko arerioen aurrean³. Euskal ilustrazioa, bere aldetik, ahul agertu zen baita Borbondarren hizkuntz politikaren aurka ere, adibidez Aranda ministroak 1766an, Lagundiarekiko etsaigoa kari, Kardaberazek Aita *San Ignacioren hitza laburra* eta euskarazko liburuak oro, are erlijiozkoak, galerazi zituenean. Ilustrazioaren porrotak Elizaren nagusitasun ideologikoa ekarri zuen eta honek ikuskizun handia izan zuen euskal liburu eta testuen joera ideologikoa XIX. mendean.

Ezin utzi bazterrerara, aipatu gabe, frantziskotar komentuetako hizlari eta idazleak, bereziki Zarauzko misiolariak —ikusitugun arestian Larramendik egin zizkien go-

(3) Esaagaratsua dirudi Eginok 1772an Apologia bat, Larramendiren ideietan oinarritua, aurkeztu behar izana *Adiskideen Batzarrean* Aita Rodríguez Mohedano hirugarrendaren aurka. (Cf. Altzibar 1985: 1124-1126).

raipamenak—, batean Nafarroan, bestean Bizkaian edo Araban sermoiginen aritu beharragatik (eta gorde da sermoirik komentuetan, argitaratu gabekorik!) euskalkien berezitasunen kezka izan behar zutenak. Hor dugu lekuko J. K. Etxeberria, Añibarro eta Zabala bizkaitarrez gainera. Azken honek euskararen garbitasunaren sena eta euskalki idatzien ezagupen sakon eta haiei buruzko irizpide garbiak zituen, batez ere aditz arloan.

XVIII. mende bukaeran, beraz, beheralditxo bat dago gipuzkerazko liburugintzan, are orijinaltasun edo hizkuntzaren kalitatearen aldetik, Ubillos eta Kardaberazzen liburua salbu. Josulagunen deserriratzek eta euskal liburuen galerazpen aginduak zer ikusia dute beheraldi honetan, noiz arte eta zer ondorio izan zituen zehatz ez dakigun arren. Aldi honetako lehen liburua, Larizen dotrinaren berrargitalpena, Madriden aterata zen (Sancha, 1773). 1780 ingurutik aurrera Tolosako Francisco de La Lama-renetik ateratzen hasten dira eta, izan ere, hemendik aurrera hiri horretan eginda aterako dira gipuzkerazko liburu ugari, gehientsuenak ez badira, ordura arte Iruñian ateratzen baitziren. Adibidez, Kardaberazzen obra argitaragaberen bat (*Mezaco Sacrificio, ta Comunion sagraduaren gañean Dotrina*, 1782), berrargitalpen batzu (*S. Ignacio Loyolacoaren Ejercicioak* 1787, 1790), Ubillosen liburua (1785) eta Migel Ignazio Zabaleta-ren sermoia S. Antonioren omenez (1786). Mendearen azken hamar urteetan edo Frantziako iraultzaz geroztik ez da libururik agertzen eta honetan zerikusia dukete gertakari horrek, frantsese edo harako Konbentzioko gudak, mendeko azken urteetako krisi ekonomiko eta bestek.

XIX. mendeko gudate, matxinada, legezaharreko eta berrikoen arteko etsaigo eta agintaldi aldaketa, Iraideen komentuetatik kanporatze eta abarrek baldintzatzen dute garaian garaiko idazlangintza eta argitalpena. Azken honi dagokionez, ohizko arazoek gain (baimena, dirua), etenaldi horietan oso zaila bide zen liburua argitaratzea. Frantzeke nagusian (1808-1814) eta I. karlistadako gudaldian hutsune nabarmenak ditugu liburu argitalpenei dagokienez (ezen ez bertso zabaltzei buruz⁴), eta liberalek hiru urteko agintaldian (1820-1823) ez bide zen erraza (hala ere, Fr. J. K. Etxebarriak argitaratu zituen bi liburu eta Agirrek ere bere 1803koa berrargitaratu 1823an). Liburuen gai eta edukiari buruz, erlijiozkoek gain mendeko kultur erro eta joeren espalekoak ere agertuko dira.

Mende hasieran apaiz belaunaldi baten emaitzak ditugu: J. Antonio Mogel (1745-1804), Agirre Asteasuko, Gipuzkoako Arzapezpiku Nagusiko Deputatu Jenerala (1742-1823) eta Gerriko (1740-1824), hirurak beren obrak frantsese nagusi aurretik idatzi zituuztenak⁵. Beste kontu bat da argitalpena eta sail honetan J. A. Mogelek bere *Confesio ta Comuniono sacramentuaren gañean eracasteak* (Iruña: Ezkerro-ren alarguna, 1800) argitaratzeko Mariano Luis de Urquijo ministrari bilbotarrari esker jaretsitako baimen bereziak ondokoei bidea zabaldu edo erraztu bide zien. Hala ere, argitaratu gabe dago oraindik haren *Cristau Eracaste euscalduna*, argitaratzeko eginahalak

(4) Hor ditugu, adibidez, frantzeke garaikoak (ikus oraintsu Antonio Zabalak argitaratu duen *Frantzekeko bertsoak*, Auspua, 1991, 2 libur. edo lehen karlistadako "Muñagorriren kantak").

(5) Gerriko 1805ean aurkeztu zuen bere liburua Gipuzkoako Arzapezpikutegian, bere liburuen lehen eginaldian datorrenez ("Breve noticia del autor y sus escritos"). Agirre Asteasuk ere bere *Erakusaldi*-en lehen liburukia behintzat inprentarako prest zeukan 1808an: "sobre la Confesión y Comunion, tenía preparado para la prensa en 1808 el primer tomo de su clásico Sermonario basco o Eracusaldia que más tarde apareció en tres gruesos volúmenes en Tolosa en 1850". Arana, J. I. (S.J.), *Bibliografía Bascongada* (eskuizkribua, Azkue Biblioteka, Euskaltzaindia, Bilbao).

egin ondoren egilea ustekabeen hil eta gero. Gerrickoren kasu ezaguna euskal liburu argitalpen baldintza latz eta eragozpenen erakusburu on bat da⁶. Belaualdi honetako gipuzkerazko eta bizkaierazko idazle garaien artean harremanak izan ziren (Mogel, Agirre, Afibarro...) (Cf. Villasante 1979: 223). Gipuzkerazkoen emaitza literatur-bizkaieraren sorrerarekin batera gertatzen da eta, adibidez, Mogeldarren gipuzkeran bizkaieraren eragina nabaria da (honegatik Zabalak kritikatzeko bat egiten die). Bizenta Mogel gaztearen (1782an jaioa) kasua ulergarria da, osabak bultzatuta atera baitzuen 1804ean bien artean landutako alegien liburua. Aipagarria da Mogel bizkaitarrak gipuzkeraz idatzi, argitaratu eta euskalki hau gomendatu izana, erdikoa, orokorragoa eta besteentzat ulergarriagoa zelako, bizkaitarrek berea hainbat ez bezala gipuztekin oniritzia izanaz gain. Aipagarria da baita liburu erlijio-liburuez gainera literatur obrak ere idatzi eta argitaratu zituela, klasikoen itzulpenak bederen (alegiez gain, *Versiones bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos*, Tolosa, La Lama, 1802). Europako kultur joerei begira baitzegoen. Euskara literarioari dagokionez, Agirre Asteasuko eta Mogel ez dira larramenditar hitz berrien guztiz zaleak. Horregatik, besteak beste, Agirre gipuzkeraren eredutzat hartu zuen Bonapartek Lardizabalekin batera eta gero eta aintzat hartuagoa da.

1816-1819 urteetan ez bide da argiratzeko liburuak eta, aldiz, bizkaierazko liburu argitalpenak gailurra jotzen du. Lege zaharreko eta berrikoen arteko gatazka politiko eta botere aldaketek sortera zitu zuten Gipuzkoan testu batzu, nahiz argitaratu gabeak izan. Adibidez, Konstituziozaleek itzulerazi zuten Konstituzioa edo haien agintzapean eta honen alde Donostiako apaiz batek idatzitako sermoi bat (Altzibar 1986: 38). Ohargarria da joera honetako idazleak, apaiz batzu bane, ez direla falta Gipuzkoan. Bizkaian bezala.

1821-1830 bitartean J. K. Etxeberria (1773-1853) frantziskotarrak lau liburu (dotrina eta otoiitz-liburu ospetsuen itzulpenak) ateratzen ditu 1821, 1822, 1824 eta 1829. urteetan, lauak Tolosan La Lama-tarrenean. Liburu praktikoak elizgizonentzat, zer esanik ez, baina aurreko tradizio edo idazle bikainen liburuekiko eten bat nabari da Oihartzunen jaio baina Donostian hazi zen frantziskotar honengan (ez du behintzat bere jaioterriko euskaran idazten), landu gabeko euskaran, eufonickin eta euskara mordoiloan idazten baitzuen, besteak beste, ahalik eta ulergarrien bai baina lanke-ta hori haurkeritzat joaz, horregatik Zabala ordeakideak (1770-1840) ez zuelarik gogoko, Iztueta bezala.

Bestelako gaiak eta hitzak darabiltzate honen (1767-1845) liburuek. *Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia...* (S. Sebastian: I. Ramon Baroja, 1824) obra etnografiko oinarritzakoa dugu, beste nazio batzutan egin bide zirenen parekoa eta sakonean mezu ideologikoa duena: gipuzkoar izaera galtzeko arriskuan ikusirik lehendabiziko euskaldunengana itzulera aldarrikatzen du, haren ustez eta Jovellanos eta Joan Antonio Zamakola aintzat hartuz dantza agerikoak moraltasunaren eta aitzinakoen bertuteen erakusle izan baitaitezke. Jakintza arloko idazkietan hitz teknikoei dagokienean larramenditarra dugu leporaino Iztueta, jakina denez, baina ez bertsoetan. Iztueta moduko pentsaera eta hizkuntzari buruzko iharduerak eztabaida sortzea garai hartan ez da harrigarri.

(6) 1817-1818 bitartean saiatu zen berri baina hilda askoz geroago atera zen, 1858an. Zerzeladak lehen eginaldi humetan datoz ("Breve noticia del autor y sus escritos").

Etenaldi luze baten ondoren —lehen karlistada aurre eta ondo— susperraldi bat dator gipuzkerazko liburuginlzan, neketsu eta astiro-astiro hasieran, bizkorxeago geroago, Pizkunde arte luzatuko dena. Lehenik Iturriaga (1778-1851) eta Iztueta liberal foruzaleen eskutik, erlijio gaietz bestelako kezka eta gaiak darabiltzatela beren liburu berantar edo karlistadagatik berandu argitaratuetan. Agustin Pascual Iturriaga apaiz pedagogoak euskara eskoletan sartzekoa, haren bidez gaztelera irakasteko bada ere (*Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipuzcoa*, Hernani, 1842; Bonapartek Londresen 1857an berrargitaratua). Eskolarako liburu honen osagarri gisa edo, literatur obra bat ere atera zuen hitz neurtuz, ospea eman diona: *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos* (San Sebastián, 1842). Lizarraga Elkanokoaren eskuizkribu bat ere berak gipuzkeraz moldatua da (Altuna 1987: 26): *Urteco igande guztietarayo platicac...* (San Sebastian, 1846). Iztuetaren *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo historia* (I. R. Baroja, 1847) garai hartako historiaren eta egilearen nortasunaren lekuko ez eze jaiolurraren maitetasun eta goiraipamen ere badugu.

Garai zailak ziren euskarazko liburugintzarako, baina: mende erditsuan erlijio ordeen kanporatzeak egoera gaizkoatu zuen. Hala ere, berrargitalpenak batetik (1850.ean Agirrerren *Eracusaldia*, 3 tomo, 1858an Gerrikoren *Sayaquera*), bestetik Lardizabal Zaldibiko apaizaren (1806-1855) *Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira* (Tolosa: A. Gorosabel, 1855), kinka gaintzeko abian dira idazleak. Lardizabalen *Gramatica vascongada* (San Sebastian: I. R. Baroja, 1856), Gipuzkoako Aldundiak egilea hil ondoan argitaratua, eskolan irakasteko gramatika dugu. Hain zuzen, hizkuntzaren larrialdiaz jabetuz, Aldundiak 1855ean Hernaniko Batzar Nagusietan erabaki hori hartu zuen, baita lehenengo erakustaldiko maixuei ale bana ematea, euskararen erakustea zabalagotu zedin⁷. Gramatika honen iturburua, mende osoa eta laurden igaro ondoren, berriro Larramendi da. Oraindik geroxeago garaiko idazle emankorra. Gregorio Arrue hernaniar eskolamaisua (1811-1890), kezkatua agertzen da irakurketa ohitura faltaz —[farraldean euskaraz irakurtzera ekandutuagoak dircla dio—, eta edizio edo berak deitu bezala eginaldien urritasun eta kostu kontuengatik (inprimatzaileak ez ziren, dirudienez, euskal liburuen argitalpenaz arduratzin)⁸. Hala ere, Lardizabalen *Testamentua* eta Arrueren *Santa Genovevaren vicitza* (Tolosa: Pedro Gurrutxaga, 1868; 2. ediz. *Brabanteco Genovevaren hitz arrigarri miragarria*, Tolosa: Lopez, 1885), libururik irakurrienak garai hartan, eskabidea zegoela adierazten dute. Arruek berak hogeit eta gehiago liburu argiratu zituen, gehie-

(7) "Ienengo erakustaldiko maixuei bana emateko, euskeraren erakustea zabalagotu zedin" (Gorosabel, *Noticia de las cosas memorables de Guipuzcoa*, I, 398). F. Mendizabalgandik jasoa. *Euskera*, 1956, 185.

(8) "Liburu au argitara emateko aimbeste gastu eguin duan Apaiz jaunari persona batec queja moduan aditzera eman dio: *eusquerazco liburuac gaztelaniazcoac baño gurestia go salizen dirala*. Au beti onela guertatu oi ez da. *baña guertatzea, arritzeoa ez litzaque*; bada liburu baten eguin-aldia chiquiagooa danean, liburu baceoizta gurestia go iriten da andia danan baño, moldizeguico gaucen berri ceibat daquan edoceñec esan lezaquean becela. Eta beragatic Francian comunquiro liburuac merqueago oi dira Españian baño; bai erreinu andiagoo dan becela, liburuen eguin-aldia andiagooac izaten diralaco, eta bai erreinu artan gende bearguilleca nacurtzera emen baño emanagooa dalaco (...). Au onela izanic, eusqueraz provincia jaquin bateco itzcomizan baccric izeritatu bear izan oi dalaco, eguin-aldi baceitzean liburu guchi eguin bear izaten dira. (...) Esan danetic ezaguteco da arguico, liburu au ateratzeco gastuac eguin dituana, beronequin mercataritza eguitera ez dijoala; eta gañera esan guentzaque ceen, onelaco lan-bideetan irabaci andi eta seguru bat balego, gaureco eguñean dauztagun baño liburu gueyago eusqueraz iduquico guimdozquecala", "Queja bati erantzuer", *Cristiuaren doninaren jaquinhie azaldia* (Donostia: Pio Zuzua, 1858).

nak itzulpenak, hauen artean gipuzkeratu zituen Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Dehobia*, *Peru Aharka* eta *Baserritar jakintsuaren Eskola*. Bazterrean ezin utzizkoa da kanpoan. Toledon, Aizkibel bibliografo, literatur-kritiko eta batez ere lexikografoaren *Diccionario basco-español titulado Euskeratik Erderara bihurtzeko Itzegia* (Tolosa: E. Lopez, 1885), Larramendi iturri nagusi duena eta euskara-gaztelera ordenan datorrena. Aizkibel euskararen ortografia (*k, z, g* erabili zituen), idazkera eta irakaskuntzaz axolatu agertzen zaigu hor. Baita euskararen Akademia baten premiaz eta literatur-euskalki orokor batez aurretik argitaratu zuen *De la lengua euskara, o de los vascongados* liburuan (Madrid 1856). Bibliografo gisa *De la Bibliografía y Literatura Vascongada* obra mardula utzi zuen argitaragabe.

Bonaparte printzearen euskal dialektologi ikerketek eragindako bultzada eta joera aintzat hartzekoa da literatur-gipuzkeran. Haren babes ekonomiko eta dialektologi-irizpideek bultzada handia eman zioten euskal testuen idazlangintzari. Haren ikerketek euskalki, azpi-euskalki eta tokian tokiko hizkerak bata bestetik bereiztea eta sailkatzea zuen helburu, eta hau testu bidez egiteko agintzen zuen, literatur-irizpideei bidia irekiz. Hala, bada, berak enkargatuak —halako eta hala egiteko jarraibide eta agindu zorrotzak emanez—, ordainduak, zuzenduak eta argitaratuak izan ziren hainbat eta hainbat itzulpen bibliko eta idazlan, zinez baliagarriak. Bereiziki aipagarria da Bibliaren itzulpena, lapurterara eta gipuzkerara soilki itzulera — eta ez bizkaiera edo zubererara—, gipuzkerara bihurtzeko mandatu Uriarte bizkaitarrari eman ziolarik. Agirre eta batez ere Lardizabalengan oinarritzeko, eta Beterriko hizkeratik hurbileko euskaramoduan eta *in situ* egiteko aginduz. Bestalde, Iturriagaren *Jolasak* itzulerazi ziozkion Duvoisin eta besteri lapurterara eta beste euskalkietara. Beraz literatur-irizpideek esku handia dute harentzat euskalki bereizketan baina, bestetik, adibidez, ez zuen onartzen liburuetakoa —hau da, Larramendiren labeko— hitz berririk edo jendearen ahotan bizirik (?) ez zegoenik⁹ eta, esaterako, Iturriagaren solasetako hitz larramenditarrak kendu egin zituen bere Londresko edizio aipatuan. Itzulerazitako testu biblikoetan, gipuzkerari dagokionez, literarioa ez ezik ("Dial. Guipuscoana litterali") Goiherrikora bihur crazy zituen ("Dial. Guipuscoana Goyc-riensiok"), azken hau "eufoniaduna" eta pl. 2. perts. marka -e (*ezazube* vs *ezazute* literariokoa)¹⁰. Berak lehena, hots, literatur-gipuzkerakotzat jotzen zuena hobetsi zuen, berak itzuli Salomonen *Canticum Canticorum* delakoan¹¹.

Pizkundetik aurrera beste aro berri bat hasten da hegoaldean: hirietako klase ertainen hazkundera, eskola eta irakurlegoaren hedapena, inprimategi eta komunikabideak (aldizkari, egunkari e. a.) eta guztionek euskara idatziari dakarkion aldakuntza, bai jenero berrien aldetik (antzerkia, nobelaren hasiera e. a.), bai irakurlegoarenetik (Lore Jokuen eta Donostian *Euskal-Erria* aldizkariaren inguruan bildua). Eta kultur edukien maila jasotzeak ikuskizun handia du Larramendiren hitz berri eta abarren arakastarekin, Sarasolak erakutsi bezala. Hemen, hala ere, literatur-gipuzkeraren le-

(9) Irizpide honen aplikazio eta funtsezko arazoaz ik. Sarasola (1986: 213-215).

(10) *Canticum trium puerorum in XI vasconicæ lingue dialectos versum. Collegit et novæ orthographiæ accommodavit Ludovicus Lucianus Bonaparte*. Londini, 1858.

(11) *Le cantique des cantiques de Salomon, traduit en basque guipuscoan, par le prince Louis-Lucien Bonaparte*. Londres. 1862. Beste aldaera bat ere atereaz zuen lau urte aitzinago, adizki alokurtsoekin, latineko Vulgatako testuaren altxan gipuzkerazkoa jarriaz eta ondoan bizkaierazkoak —Markinakoa eta bizkaiera orokorrekoan—: *Canticum canticorum Salomonis tribus Vasconicæ lingue dialectis in Hispania vigentibus versum* (Opera et studio Joseph A. Uriarte et Ludovici L. Bonaparte. Impensis Ludovici Luciani Bonaparte. Londini, George Barclay. 1858. Cfr. Arana 1991: 165).

hen aroaz, hau da, Pizkunde aurretikoaz, eta bereziki Iurgorritze eta lehen lantze edo apaintze aldiaz, hots, Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz eta Ubillosen garaiaz ihardungo dugu batez ere.

Ondorioz, eredu orokor hauek ateratzen ditugu Pizkunde aurreko liburugintzari buruz, ondoren garatuko ditugunak. NORK, alegia, idazlegoaz esan behar dugu gure idazle klasikoak ez direla norrahi, ikasketa on eta bikainekoak —kanpoan gehiengotan— baizik, latinez ondo jantziak, horietako zenbait jakintza arlo batzutan latinez edo gazteleeraz liburu mardulak ateratako jakintsuak. Idazleok berek latinez edo gazteleeraz ikasi eta moldatutako gaiok bihurtu beharko dituzte euskarara. Hori bai, euskara ondo zekiten eta arteko euskal idazlanak ezagutzen zituzten, hots, idazkera tradizioaz jabetuak ziren eta, beraz, heraien jaioerri txikiko hizkera gainditzen zuten (ikus, geroxeago, literatur-gipuzkera eta tokian tokiko hizkeraz aritzean Mitxelena Lardizabali buruz esana). Adibidez, Ubillosek Filosofiazko obra mardul bat idatzi zuen latinez (Mendiburuk ere hiru, P. Altunak dioskunez) eta, aldiz, ia ezjakinek ulertzeko moduko dotrina bat itzuli itzulpenetan oraino guti usatua zen euskarara. Eta adibide honek garbi asko erakusten du gure hizkuntzaren eta euskal irakurlegoaren egoera. Idazle bikainek, beraz, aurrekoen ondarea ezagutzen dute, euskara idatziaren jakintzaren eta jendaurteko idazletzaren kontzientzia dute. XIX. mendean sekularrak ere agertzen dira (Bizenta Mogel, Iztueta, G. Arruc...) eta, izan ere, gure hizkuntzak etxeetan ez ezik eskoletan eta erakundeetan sartzeko aukera hobea izango du mende horretan. Nolanahi ere, idazlegoari, beronen jakintza mailari eta idatzizko euskarari buruzko jakintza mailari, baita idazletza horren norik bere buruko ezagumenduari edo kontzientziari zinez garrantzitsua deritzogu.

Idazlego horrek bere premiak betetzeko idatz eta argitaratuko ditu nagusiki bere idazkiak, ZER delakoari erantzunez, bada, gehienak erlijio-gaiezko liburuak eta erlijioa irakasteko liburuak direla esan behar (otoitz-liburu, dotrina labur, dotrinaren azalpen luze, sermoi, liturgi-testu, bederatziurren, santuen bizitza...). Bestelako liburu gutxi: haurrei irakurtzeko edo eskolarako zenbait (Mogeldarren alegiak, edo geroago Iturraga edo, agian, G. Arruerenak), Iztuetaren liburuak... Honez landara literatur lanik ez da gipuzkeraz hitz lauz Pizkunde garai arte, harrigarria bada ere. Testu politiko ofizialik bai, adibidez Konstituzioaren itzulpena, nahiz Bizkaian bezala argitaratu zenik badenez ez dakigun.

Bestalde, idazki hauek NORENTZAT diren kontutan izanik moldatuak dira, hots, elizgizon, eskola maisu (adibidez, dotrinak), guraso eta eliztar on eta zaleentzat, bereziki nekazari eta gizarte-maila apalekoentzat (Cfr. Michelena 1981; Villasante 1979: 279). Azken multzo honetako askok eta askok gazteleerarik ere ez dakite eta eskola guttien dutenak dira. Hala dio Larramendik Mendibururen liburuko gutunean¹² eta garbiago egileak berak: "Euscarazco Libru hau, Euscaldun utsentzat eguiña da; bada Frances, Latin, edo Gastelania daquitenac, neque guchiago-requin ecus dezaquee beste Libruetan, onetan eracusten dena" (*Jesusen Bihotzaren devocioa*, 1747, "Irakurleari"). Eta honek egia antza du, Iruñean gaztelaniazko edizio bat baino

(12) "Aterázazu beraz zure libru hori, eta len baño len bana ezazu Euscalerrietan; batézere non eta Jesusen ballerá santuac jasó dituzón, ta lenágo jasoue ceuden, Iracurricó dute alá Eleizetan, nolá echéetan, eta Eusque-raz utse daquitenac, ta Gastelania arrástaca háicican eztaquitenac ere, naico dute beñi baño gueyágotan aditu, icusi, ta gogoán sartú, hitzéz predicatú ciniena, ta oraingóz bearbada aztoric daucatena", "Aita Manuel de Larramendiren Carta. Libru onen Eguilleari bidalkua", *Jesusen Compañiaco A Sebastian Mendiburu: Euscaraz eracusten duen Jesusen Bihotzaren Devocioa* (Donostia: B. Riesgo Montero, 1747).

gehiago atara baitzen Mendiburuk bere euskarazkoa argiratu aurreko urtean. Jesusen Bihotzaren ballera edo kongregazioetan liburutik irakurri ohi zen, esan bezala, horretarako kargu berezi bat egonik, harako "Irakurle" zeritzona. Horregatik eta horretarako idatzi zituen Mendiburuk bere liburuak eta bereziki *Otoitz-gaiak*, espresuki aditzera ematen duenez¹³. Egia da erlijio-liburuok ahoz irakasteko zirela, edo buruz esanez edo irakurritz, jendaurrean entzuneraziz. Batzu pulpitotik irakurtzeko aginduta zegoen (Fr. Bartolome edo Fr. Pedro Astarloarenak bizkaieraz), Gerritik bere liburuaren hitzaurrean behin eta berriz gomendatzen du pulpitotik irakurtzearen egokitasuna¹⁴.

Baina ez dira soilki ahoz entzunak izan daitezkeen taiututako testuak. Arestian esan bezala, elizgizonentzat ere badira, hauen bakarkako irakurketarako, baita eliztarren bakarkako nahiz familia arteko irakurketarako. Badira edizio askoko liburuak XIX. mendean, batzu mila alekoak guttienez, harrapaka legez saldu zirenak (adibidez, bizkaieraz, Añibarroren aipatu liburuaren *Escu-Librua* eta Mogelen *Confesino ona*). Misioetan e. a. saltzen zituzten, orduan hasten baitziren asko irakurtzen ikasten, Añibarrok aipatu liburuaren hitzaurrean dioenez (Tolosa: De La Lama, 1802), eta familietan etxeoandreek belaunaldiz belaunaldi gordetzen egungo eguneraino. Gure artean nork ez ditu aurkitu euskal liburu zaharrak bere etxean?¹⁵.

Maila apalekoentzat ez ezik jakintza gaiok erabili ez dituen hizkuntza batean beroriek moldatu edo bihurtu beharrak (hasteko, gaiotarako hitzak falta dituen hizkuntza batean) baldintzatzen du euskal idazleon idazlangintza, taiutzen testuon hizkuntzamoldea eta hizkuntza maila ezarten. Adibidez, Mendiburuk ahalik eta euskara ulerterrazenean (gipuzkeran edo giputz-nafarreran) idazteko asmoa agertzen du, nahiz ez hain zehatzean. Berak dioenez, badira Gipuzkoan ulertzen ez diran nafar hitzak eta alderantziz eta horregatik batean eta bestean "Non nai adi ditezqueanac biltatu ditut, al eguñean, arteen ditudala orretaraco, Euscarazcoac uteriric, beste cembait hitz" ("Irakurleari", 1747); "han (Croisset-en frantsesezko jatorrizko tes-

(13) "Arà (Madrilgo koterri) ta laster ezagutu nuen angio nere eguñteco onen luzanac; gogora citzandán euscaldun ón Vicario jaun are len esana, ta congregacioen cargudunei lagundu naiez ta beste euscaldun gucien óneraco así nuen iru libro andiscotau acuntzen dirán otoitz-galetaco lana", *Igande eta feste guetarako Irakurraldiak*, "Irakurleari", in *Mendibururen idazlan argitaragabeak* (P. Altunak paratua), I, 52. Liburu himen izenburuak berak garbi adierazten du zertako idatzia den eta bestela tori hitzaurrean egileak dioen hau: "Eliz-jauñ beren eguñteco hereraco orra orain berriro eguñiac Evangelio berei dagóten iracuriz ta iracur-aldi edereraz *Sermones* edo *Discursos morales* esaten diránac. Eman nai izandu diet leen berri hau, ceren eguñiac dirán gogoz ta memoriz artzecco nequerie begue ta escuan artu ta pulpitiac edo aldaretic leitzu ta hastiro iracuriz Eliz-jauñac errazqui daguiten ermitarrei jai-igandectan eracusteco beren eguñtecoa." *Ibidem*, 54.

(14) "Prologo de la idea, metodo y division de la obra baseongada, cuyo titulo traducido al castellano es: Ensayo de la explicacion de toda la doctrina de Jesu-Cristo dispuesta y repartida en pláticas baseongadas por el Presbítero Don José Ignacio de Guerrico, Beneficiado de Mutilloa en la Provincia de Guipuzcoa en su Dialecto Guipuzcoano para enseñar desde el púlpito cuando los párrocos no lo hagan de memoria en lectura de veinte minutos poco mas ó menos cada vez á todos los baseongados de una misma manera con poco trabajo todo lo que *deben* saber y obrar para hacer una buena vida cristiana, hasta que salga otra mejor. Y á continuación se proponen unas reflexiones muy importantes sobre la gran necesidad, y utilidad de hacer por lo comun la instruccion catequística, y exhortacion general de los pueblos por medio de la lectura publica desde el púlpito en todas las Parroquias de España en un gran catecismo práctico arreglado al Romano de San Pio V. con la autoridad de los Prelados Eclesiasticos y apoyo del gobierno supremo" *Cristian doctrina guatiaren esplanacioaren saiyuqnera, euscarazco plática edo doctriñetan parituric*, Don José Ysnacio de Guerrico, Mutilloaco beneficiadua, eguñia (Tolosa: Mendizabal, 1858, 2 lib.).

(15) Banakañu irakurketa ez zail iruditzen A. Toledok uste bezain hurria. Ikus haren "Estru-tipo berria, harrera-modu berriak" *Hegats* 4, 1998.

tuari) modu eder goratuan, guizon adituentzat eguiñac bezala dauden gauzac” “Ango guisara ba guencartei ango gauzac, ezpa guencartei bezala izain liraque, escolaric ez duten asco Euscaldunentzat”. Mendiburuk, bada, hizkuntza-mailaren axola zuen eta hizkuntza-maila batean erabiltzen ziren euskalki edo toki bateko edo besteko hitzez baliatzen zen¹⁶.

Izan ere, idazleok kontutan zituzten euskalki eta tokian tokiko hizkera arazoak, testu moeta desberdinak egokituz¹⁷. Honetan Mogel ez zen guztiz Mendibururen irizpide berdinekoa, zeinek giputz-nafar euskarari idatzi baitzuen, zehatzago ikusiko dugunez.

Beste kasu batzutan euskalki edo hizkerak jeneroen arabera egokitu beharrean, norako, hots, norentzat idatziak diren izaten da kontutan (Larramendiren “Azkoitiko serm.”, Muniberen *Gabonsariak*, XIX. mende bukaerako Donostiako teatroa...). Izan ere, literatur-gipuzkerari euskalki arazoek berebiziko garrantzia dute, beste euskalkiz inguraturik eta bizkaiera etxeko eta nafarrera mugakide dituzenez gero. Eliza katolikoak batasun-politkarik ez zuen izan, kalbinistek XVI. mendean Ifar Euskal Herriari bezala, hizkuntzari zegokionez eta eliz-barrutien antolaketak (bi eliz-barruti: Gipuzkoa gehiena, Nafarroarekin batera, Iruñekoan eta Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako mugako herriak Kalahorrrakoan) bi euskalki idatziok bata bestetik aldentzen lagundu bide zuen. Giputz apaizok, behintzat, gero eta lotuago agertzen dira Probintziako euskalki bereziari edo ez dute beste euskalkiekiko axola handirik erakusten, esate baterako Gerrikok. Aitzitik, josulagunek eta ordeak herrikoiek, bereziki frantziskotarrak, batetik bestera ibiltzen ohiuak baitziren, bateko edo besteko kutsua jasotzen zuten beren idazkietan, liburuetakoez gainera, eta baterako ala besterako joera erakusten. Bizkaierazko eledunak, mugakoak izaki, ohituta zeuden euskalki bietara eta hor euskalki bietan idatzitako testuak ditugu baina norentzat idazten den da kontua: Antzuolan bizkaierazko dotrinak (1678 eta 1825, Iruñako eliz-barrutia), halaber Oñatin bertako euskarari *Osaba baten instrucciuac* (Arrazola etxeko eskuizkribuak), guztiok herritarrentzat idatziak, baina Aita Palacios oñatarrak gipuzkeraz idatzi zuen bere liburu mardul ulerkaitez alferrik galdua. Bergarako hiriari dagokionez, horko apaizek bizkaierazko liburu eta sermoiak gipuzkeratu zituzten¹⁸.

(16) “Irauritzen zaien guciac hitze ere gal ez dezaten erriar guisoac, iracurleac arquitzen badu libruan lembicuan adituen ez duten hitzen bat, aren ondoan esan behar du ari dagocan ta guciac aditzen duten hura bezalaco besteren bat; eta aditzen ezpadate eer den *laster*, iratsi ari aditzen duten *fito* ta esan *laster ta fito*; orrequin bigarren aldiraco joquinen dute len adizen ezuten hitzac esan nai duena. Hitzetan eguten dezuna eguizu hitzeunzetan ere ta zure hitzeunza bada *badijoa*, mugaz: *etorri da*, *eman diozcat ez*, baicic *badoa*, *garai onez*; *etorri da*, *eman dautzat*, eta libruan arquitzen badezu lembicicooa, aren iracur-aldian esazu: *badijoa edo badoa*, *mugaz edo garai onez*; *etorri da*, *eman diozcat edo dautzat*, eta guertalaco da hitzquetan ere hitzetan gueniona ta une gutiren buruan len *huño* erazquiago elcar adituen uste dute eusal erriico Nafartarrac eta beste euscaldun guciac eta elertuco ta luzatuco da euscara.” *Igualde eta festegunetarako lekurraldiak*, in ap. lib., I, 55.

(17) “[L]ibruetan bacoitzari eman bear zaito. Guiputz izerbiltzen (*ieriditzen* dukar baina liburuari iratorkerez, heterak dago) dancan, guiputz eusquera naaste gabea aleguñez: Labortarrac beren guisara, ta orobat Bizcoitarrae. Baña horuz icasten dan doctrina, obe da eracostea bucnitzaren errian itz eguten dan becela. Ezdago onen premiaric Sermoi ta bestelaco libruetan”. J. A. Mogel *Confesio ta comunioco sacramentuen gancan eracostee* (Iruña: Ezquerro, 1800).

(18) *Eusquerazco Mantala Sacramentuen ganco Eracusalldiac, eta onqui itten laguntceco oracio egocuar daczazquiara*. Lendavicitan Vizcaino Parroco Juan batec ango eusqueran paraturu, orain Vergatan Santa Marinaco Coadjuntore Jaunac Guipuzcoaco eusquerara viurtu duana, Vergatan: D. Jose Urdianoren Moldeteguan 1850. urtean (Azkie Bibliotekari ale bat, 9897 zenb.). Fr. Pedro Astarluaren liburutik gipuzkeraz moldatutako sermoiak ere badira, Bergarakoak, Bizkaiko Foru Aldundian ikusi diudanak (Sala Villarias?).

Nolanahi ere, literatur-gipuzkerak idazleen tokian-tokiko hizkerak gainditzen ditu. Berori sortu aurretik Goiherriko testu franko dugu baina Larramendiz gero, gipuzkerak gramatika bat duenari eta Gipuzkoa osorako liburuak ateratzerakoan, nahiz eta idazle batzuek Goiherri aldekoak izan, edo Tolosa edo erdialdekoak izan, adib. Larramendi, Ubillos, Lardizabal¹⁹... Beterriranzko joera nagusituz doa, eta honetan lapurtar literaturaren eragimenduak baduke zerikusirik. Beterrikoa joan zen ospea hartuz (Larramendi baino aurretik ba ote zuen?). Munibek bere teatrolanaren hitzurrean dioskunez. Hala ere, Mendiburu eta Kardaberazaren garaian baino geroxeago, XIX. mende hasieratik, Mogel, Astarloa, Zabala euskalariak ardura gehiago erakutsi zuten euskalkiak, eta euskalki idatziak, bereizteko (eta ez da kasualitate hutsa haiek bizkaitarrak izatea), eta zer esanik ez geroago, Bonaparte printzeak eta bere laguntzaileek.

Azkenik, eta ikusi dugunez, inprenta-tokiek ere izan zuten eskua gipuzkeraren zabalkuntzan, besteak beste irakurlegotik hurbilago daudelako (egun ere badukete Donostiakoek euskara batuan ateratzen diren liburuen euskaramoduan). Aipatuko dugu Mendibururen *Jesusen bihotzaren devocion*-ren kasua.

ZEIN EGOERATAN liburuak atera zirelako kontuaz ari garela, josulagunen jokabidea aipatu ondoren, hau da, dotrina eta otoitz-liburuak argitaratzeko eta erabilizteko, premia zegoela igar genezake. Adibidez, Jesusen Bihotzaren Batzarre edo Kongregazioak zeuden tokietan —eta Nafarroan bertan herri euskaldun askotan zegoen—²⁰ eta *Eusc.om.vic.*-n bederatziturretarako irakurgaiak izatearen premia adierazten du²¹.

Ikusi dugunez, argitaratzeko baimena, korrejidorearen eskutan zegoenez gero, eragozpen handia izan zen euskal liburuak argitaratzeko, askotan ezinezkoa baitzen hori erdiestea (Gerrikoren kasua) edo oso zaila²². Bestetik, eliz agintariena, hots, edo Iruñako apezpikuarena (Gerriko eta Agirreraren obrak argitaratzeko apaizen eskabi-deak izan ziren 1847 eta hurrengo bi urteetan) edo ordeako buruarena.

Diru arazoak ere eragozpen izan ziren maiz; askotan, Añibarrok dioenez, idazleak berak aurreratu behar izaten zion inprimatzaileari, eta dirurik biltzen ez bazuen ezin argitaratu; horixe gertatu zitzaion Gerrikori 1805ean Tolosa eta Donostiako argitaratzaileekin, eta agian Agirre Asteasukoren *Eracusaldia* mardulari, beste batzu

(19) "Nik aste dut zer ontan gauza oker xamar bai dala, alegia, Lardizabal Zaldibiakoa zan eta badirudi Lardizabalek Zaldibiko izkuntza egin nai zuecala, eta nik ezut uste ori ala danik. Nik uste dut Lardizabalen oñarriak lenagoko autorretan daudela" (L. Mitxelena-k F. Mendizabalen hitzaldiaren ondoren, lk. Mendizabal 1956).

(20) *La devoción al Sagrado Corazón de Jesús... corregida y abreviada en esta última impresión. La escrita en Francés el R. P. Juan Croiset de la Compañía de Jesús. Traducida en castellano por el P. Pedro de Penáloza. de la misma Compañía de Jesús. Maestro en Sagrada Theologia* (Pamplona: Viuda de A. Borguete, por Martin Joseph de Rada, 1746). Laburu honetan Batzarreak zeuden herrien zerrenda dator.

(21) "Euscaldunen artean etzen arquitzen, egun-ori-etaraco izan oi diran, libretatic bai-ere; ta orre gatic moldatu dizut, orain erosten dezun, hau"; "Jesusen Amaren Bederatz-urruna", *Euscaldun onaren vicieta, meczaren entzun-vide labur erreza, Errosarioa amurrecuen usiera eta vembait bederatz- urrun edo novena* (1762?).

(22) "...aun cuando algunos guipuzcoanos quisiesen como Iztueta escribir sobre varias materias, tendrian que sujetarse a la censura del corregidor, cuya autoridad en nombre de un gobierno despótico se hace sentir con tanto más peso en este punto, quanto que es el único en que no esté templado por los fueros y franquicias del país" A. Donostiak argitaratutako paper eskuizkribatu hau. Cfr. L. Mitxelena, *HIV*, 123: "La obra de éste (Iztueta) se imprimió en la época que se proclamaba en España Altar y Religión, trata sobre los bailes y su gran moralidad, y está escrito por un vandolero (...). Iztueta pasa entre los que lo conocen por realista, absolutista o servil, como aquí dicen", Usoz-ek Gräberg kondeari, A. Irigarai-k argitaratua, cfr. L. Mitxelena, *HIV*, 123.

oraindik argitaragabe daudela (esate baterako, D. Agustín Otacgi, Beizamako erreto-rearen platicak)

Eta nork zer nondik edo norengandik IRAKURRIAK edo entzunak? Hots, irakurle-goaz eta harreraz zerbait esan dugu. Aipatu dugu erlijio-idazkiak banaka irakurketa-rako ez ezik askotan jendaurrean pulpilotik buruz esateko edo, askotan, irakurtzeko zirela. Testua taiutzeko eran ahoz esateko eta entzuteko izate honck izan dezake ondorio-rik, perpaus-egituran adibidez, euskara mintzatu edo ahozko literaturara hurbil-duz idazkiok baina hau zehatzago ikuskatu beharko litzateke. Azkenik, oharterazi nahi nuke pulpilotik euskarazko hitz asko entzun eta ikasi dituztela eliztarrek.

Diogun guzti honek hegoalderako balio duke, zeren ifarraldean euskararen ego-
ra bestelakoa eta alderdi askotatik hobea izan baita: frantsesa ez zen hain barrera
sartua XIX. mende arte, eskoletan irakasten zen irakurtzen eta idazten - eta horretar-
rako argitaratu ziren Archu eta abarren liburuak— XIX. mende ia osoan eta batez ere
II. Inperioan harik eta 1880ko Ferry legeak euskara eskola publikotik kanpo ezarri
arte²³ eta euskaraz irakurtzeko ohitura handiagoa egon da jendartean, G. Arruek XIX.
mende erditsuan zioenez (ik. 8. oharra).

2. Literatur-gipuzkeraren sorrera

Aipatu dugu Larramendiren maisutza eta jarraitzaileen (Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos) arteko elkartasun, kutsu, harreman eta batak besteagan eta talde honek on-
dorengoengan izandako eragina, euskalki baterako edo besterako joerak gorabehera.
Bigarren zati honetan, bada, elkarren arteko kidetasun eta ikuskizun horretan sakon-
du nahi dut arlo batzutan: lexiko, hitzordena, morfologia, ortografia, e.a.

Hasteko, Larramendiren asmo eta egintzak, oro har, azalduko ditut. Argi dago
Larramendik hegoaldeko euskararen berrikuntza nahi zuela eta tresna batzu eskaini
zituela, batez ere hiztegia eta gramatika. Aurteko dotrinagileak kritikatu zituen bere
Hiztegiako hitzaurrean ortografia eta euskara txarrean idatzi zutelako. Euskara bere-
gain nahi bide zuen kultur hizkuntz gisa eta beste hauen pareko. Beregain hiztegian,
gramatikan, hitzordenan, ortografian e. a. Hiztegiari dagokionez, berak gai guztietar-
koa nahi zuen, orotarikoa eta orotarakoa. Hitzetan euskarak duen eskasiaz oharturik,
eta ez dela aski euskalkietakoekin eta hitz zahar galduxeekin, batez ere hitz tekniko
edo fakultatibo deriztatzenen arloan, hitz berriak sortzeko bideari ekin zion, maile-
buak onartuz aldi berean.

Larramendik arauak nahi zituen euskarari eta horregatik egin zuen bere Arte edo
Gramatika: arauak morfologian, joskera eta hitzordenan, prosodian, ortografian (gero
Kardaberazek *Eusq.ber.on.-en* zehaztuak). Arauok badukete baliorik euskara ida-
tzirako. Gipuzkerarentzat ereduak nahirik —beste euskalkientzat bezala— bere jaiot-
territik ekialderago jo zuen, Beterrirantz. Bere euskarazko idazkietan ere ageri-age-
rian erakutsi zuen zer-nolako euskara idatzizkoa bilatzen zuen. Larramendik, bada,
literatur-gipuzkeraren batasunaren arazoa praktikan planteatu zuen. Konparatuz ge-
ro, adibidez, Azkoitiko sermoia Otxoa Arinen dotrinarekin ohartuko gara andoaindar-
ra aditz fometan ekialderago doala, aditz trinkoak erabiltzeko joera erakusten due-
la, eta hiztegiari dagokionean garbiagoa, baliabide ugariagokoa —ez soilki *edo*
gaztelaniatiko mailebuak sartzeko—, atzizki askoz gehiago, e. a. Gainera, Maisu gisa

(23) Ik. Txomin Peillen, "Nahasgarri", *Egunkaria*, 1991.6.27 edo inguruko egunetan.

aritu zen hasieran, eredu bilaketa garaian. Hori adierazten dute Mendibururen dotrinari eginiko zensura eta zuzenketek. Berauek itzulpenaren zehaztasun eta edukinari ez ezik ortografia, izen eta aditz morfologia, lexiko eta sintaxi edo hitz ordenari dagozkie. Komenigarria litzateke aztertzea ea Gramatikako ereduok bere euskarazko idazkietan jarraitu zituen, ala jenero batzutan (adibidez, sermoietan) askatasun gehiago onartu zuen.

Beregaitasuna, eredu bilaketa, edertzea. Azken honi dagokionez, Mendiburu eta Kardaberazek aitortu zuten, bai, Maisuaren Gramatikaren eragina: "nondic atera bear den gucia edertceco, ta apainzecco Euscarazco hitzquera leuna" (Mendiburu, *J. B. Dev.*, 1747). Gainera, Larramendigandik hasita, idazle hauek hegoaldean erretorika klasikoa sartzen eta egokitzen dute euskaraz, josulagunek bultzatu eta beren eskolatan irakasten baitzuten. Andoaindarrak bere sermoietan (adibidez Agustín Leizaren omenezko Andoaingoan, edo S. Agustinen doanditzan) hots handiz eta diztiraz erabili zuen, jenero hori egokiagoa delarik erretorikarako itzulpen edo moldaerak baino, esate baterako. Kardaberazek *Eusqueraren berri onac; eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzequiteco Erreglac* (A. Castilla, 1761) idazten du, azken zatiak euskarazko erretorikaz eta kristau dotrinaren erretorikaz izanik). Aitortzen du badela erregela gabeko edo erretorika naturala edo berezkoa, baina jaiotzako hizkuntza Ele Eder edo Eloquentziaren (hots, Erretorikaren) arauen bidez landu eta polikitu behar dela (*Eusq.ber.on.* 40, 46). Idazle hauen baliabide erretorikoen azterketa lagungarria gerta daiteke hizkuntzaren aldetik ere —erretorika hiztegi, joskera eta arlo askotara hedatzen baita— euskal prosa idatzia hobeki ezagutzeko beharrezkoa izateaz gain, eta egin diren azterketatxoak sakondu eta zabaldu beharko lirateke.

Hiztegiari dagokionez, aipatu ditugu Larramendiren garbiketa eta berrikuntza asmoak, baita laburki hark irekitako bideak. Hauen arteko bat, euskalki bakoitzean eta hizkuntza-maila batean beste euskalkietako hitzez baliatzea zen (*Dicc. Tril.* clx, greziar egileen eredu aipatuz)²⁴. Izan ere, beste euskalkiak ezagutzen dituzte eta horietako hitzez baliatzen dira Larramendi bera, Kardaberaz, Mendiburu eta Ubillos, baita geroago Lardizabal. Halaber, sermoigileei dagokionez, hitzak ez ezik beste euskalkietako aditz-formak ere ikasi behar dituztela dio Larramendik (*Corografía*, 293. or.). Beste bide bat, galduxeak diren hitz zaharrak erabiltzea eta honetaz Mendiburuk diosku landu ezik galtzen direla hitz asko: "Galdu dira euscarazco Libruric gabez, euscarazco anitz hitz", *J. B. Dev.* "Iracurleari", 1751.

Hitz tekniko edo "fakultatibo" edo jakintza arloko hitz berriak ez ezik latin edo gaztelaniatik euskarari mailebatuak ere onartzen ditu Larramendik, batez ere eliz-gauzetan (Mendibururen *J. B. Devorioa* liburuko Gutuna, 1747), euskarakoak ondoren eransteko gomendatuz (*Corografía...* aip. ediz., 294). Halaber Mendiburuk: "arteen ditudala orretaraco, Euscarazcoac utziric, beste combait hitz" (*J. B. Dev.*, 1747).

Hitz berriak Larramendik gehienetan eratorpen bidez taiutzen ditu (batzutan aurizki edo artizkien, asko eta askotan atzizki bat edo biren, zenbaitetan kasu atzizki baten eransketaz), beste batzutan hitz elkartetaz. Komeniko litzateke, baitetik, egitura moldeak aztertzea eta, bestetik, hitz berri moetak bata bestetik bereiztea, baita berak sortutako hitz berri bereziok berak eta bestek, batez ere Mendiburuk, garatutako atzizki bidezko eratorpenetik.

(24) I. Sarasolak (1986: 204-205) esana du Hiztegi Hirukoitzari esker hitz asko (*adín* e. a.) berezko eremu tik at hedatu direla, baita hitzak desagertzen edo hakinzen direla hegoaldeko idazlanetatik.

Larramendik sortutako hitz berriak gutxi edo asko bere garaiko eta ondoko edozein idazlek erabili zituzten, batez ere euskara-maila apalenetik goraxeagoko idazlanean, erlijio nahiz bestelako gaiak azaltzerakoan, baina bereziki jenero eta liburu "teknikoetan" (ikus Lakarra 1985 eta Sarasola 1986). Bere garaiko jarraitzaileen artean Mendiburuk hitz berrien bidea baino gogokoago zituen besteak (hots, hitz zaharrak, euskalkietakoak, *edo (ta) bidez* baliokideak) eta Larramendiren labeko hitzei dagokienez, badirudi gorabeherak dituela (*J. B. Dev.-n ez da zale*, Burgosko dotrinaren alderantziz; *Otoitz-g.-en*, aldiz, Larramendiren labeko gehiago daudeke) baina, oro har, Mendiburu ez da oso hitz berri zale, 1747ko dotrina hartan izan ezik. Kardaberaz ere gutxiago da garbizale: erka bedi haren *Aita S. Ignacioren hizitza laburra* Duvoisinen lapurterazko itzulpenarekin (*Liburu ederra...*, Baiona, 1856). Ubillos larramenditarxoagoa da. Ondorengo Mogel Mendibururen bidetik doake, eta halatsu Agirre Asteasuko, hitz berriok neurritz erabili zituena. Beste era bateko garbitasuna bilatzen dute hitzetan, jendearen ahozkotik hurbilagokoa. Lehenak harako zera esan zuen: "No he procurado aprender el vascuence de Larramendi, sino de los labios del pueblo" (esan bezala, bide hau Larramendik ere onartua zuen). Baina Bizenta Mogel berak Larramendiren hitzberrien bidetik jo zuen bere 1820ko itzulpenan²⁵, eta zer esanik ez Iztuetak hitz lauuko liburuetan (ez, ordea, bertsoetan, behin edo behin izan ezik, adibidez *pozkada*, *jostallu* 'diversión') eta geroago Krispin Beobidekok. Iturriagak, aldiz, bat edo beste erabiltzen du soilki: *frutu edo alorta (Jolasak)*, *lepandea* 'collar' (*Ipuiak*). G. Arruek ere —zeinek Larramendiren hiztegiari oharra egin baitzizkion, Azkuek baliatuak— gutxi eta Bilintz bertso-jartzaileak ere bat edo beste hitz-lauzko *Orlando*-ren itzulpenean. Bestenaz, aipatu dugu Bonaparteren aurkako irizpidea.

Larramendiren hiztegiko hitz berri berezi egun idazten ez direnak alde batera utzirik, esan behar da aurrizki, artizki eta batez ere atzizkien bidea emankorragoa gertatu dela. Mitxelena, Altuna eta Sarasolak Larramendi eta Mendibururen berrizaletasuna atzizkien arlo honetan oharretan dute eta literatur-hizkuntzarako atzizkien garapena azpimarkatu (ik. Altuna 1982, Mitxelena 1982). Ildo honetatik, interesgarria litzateke, eta praktikoa egungo euskararako, zehatz aztertzea atzizkien erabilera. Larramendik hauetako zenbait gipuzkera zaharreko dotrinetatik hartu zuen (adibidez, Otxoa Arin 131 *pecataritasun*; Larramendi, Azkoit, serm. 16 *gure pecataritasunear*; Otxoa Arin 100 *Jaquindea*). Mendiburuk bide hau aberastu zuen, baita Ubillosek eta geroago beste batzuek (Lardizabalek esate baterako). Mendiburu hizkuntzaren maisu dugu honetan eta bestetan: atzizki eta kasu atzizkiak, adibidez adlatiboan daudenak, aditz bihurtzen (+ *-ni*, *-zen*, *Otoitz-g.* I 5 *becaturatveco*, *arganaco* (Jaunaganaco) *zara*, *Eusc.on.viciera* 19 *naitua* 'descoso' *nago*, *Otoitz-g.* I 4 *beguietaratven* —gero G. Arruek ere *S. Genovevaren vizitza-n*); edo bikote edo hirukoteak, funtzio erretonikoan zein euskalki desberdinetako hitzak ulertarazteko (*Otoitz-g.* III 133 *jaiqui-erori ceralbiltela* ...*escu-oñac zidatuz*, ...*bular-bihotzac urratzen*, 332 *nere ezpain-mihi-ahoc*), hauc arteko zenbait klisetuta —edo ez— gelditu arren gipuzkerazko idazleek erabili dituztenak (*atseguin-contentuac*, *ineque-penac*, *itentu-pelcac*, azken hau adib. Ubillos

(25) *Luis de Borbón, por la divina Misericordia Presbítero Cardenal de la santa Iglesia Romana... Por mandado de San Ema Lic. José de Cállego*. Traducida del romance al vascuence por Doña Vicenta de Moguel. En Bilbao: por D. Pedro Antonio de Apraz. Año de 1820.

(26) P. Alunaren hitzaren oso aberatsa da Mendibururen notasuna eta idazlangintza kokatzeko, baita haren idaztandera arlo garrantzitsuetan (morfosintaxia, lexikoa, azentua) ezagutzeko. Ik. halaber I. Sarasolaren gorago aip. art., 206 h.

Chr. doct. 78). Berrizalea da ere inoiz izena izenlagun funtzioan erabiltzen (*J. B. Dev.*, Dodgson-en ediz., 1900, 27. or. *haren debocioa gucia debocioa azala ven*, edo *tasun* izen edo hitz banako gisa, geroago Ubillosek bezala, nahiz forma irabiatu zcin deklinatuei erantsitako atzizki gisa (*Otoitz.-g.* II 320 *zaruntasun aren alde*, III 142 *zertakotasuna* 'el fin, el motivo').

Hitz mailebatuen sailean Larramendi, Mendiburu eta Ubillosek maiz baliokideak pilatzen edo jartzen dituzte bata bestearen ondoan *edo* bidez, nahiz bikoteak, nahiz hirukoteak (Axularrek bezala): *Otoitz.-g.* I Congr. Erregl. *onezdamua, edo contriccionea*, Ubillos *Chr. doct.* 28 *aguente, manu edo mandamentuac*, 190 *hecaturaren nariroa, edo mancha* (Axularren eraginez). Hala ere, batzutan *edo* horrek mailebu ez diren baliokideetarako ere balio du, adibidez euskalki desberdinetako hitzak ulertetzeko, goraxeago aipatu bikote batzuek bezala (Mendiburu, *Euse. on. viciera* 20 *zu baitan, edo zu gan*).

Eta Axular aipatu dugunez gero, esan dezagun, bide batez, haren eta lapurtarren eragina handia dela, beste euskalkiena baino handiagoa, dirudienez. Larramendi, Mendiburu eta Ubillosen bederen. Nolanahi ere, komenigarria litzateke arlo honetan sakontzea. Axularrek Ubillosgan izanikoa hitz eta esamoldeetan ez ezik testu osoetan ere nabari da. Mitxelenak erakutsi bezala (1981: 276-278), baita morfologian (*Chr. dot.* 5 *Munduaren ecezezeic eguitearèn gañean*, 13 *adiriaci cion... munduco gucien gaitcea*) eta are grafietan, ikusiko dugunez. Aita P. Altunak ere (1982) lapurtarren eta bereziki Ziburuko Etxeberri eta Mendibururen arteko antzekotasuna oharterazi du. Geroagoko idazleengan ere ageri da esandako eragina: adibidez, Lardizabalek Larregiren liburua aipatzen du hitzaurtean (*Testamen çaharreco eta herri-co historia*, Bayona, 1775).

Ondorengo lerroetan otoitz-liburu eta kristau dotrinako hitzen itzulpenaz ariko naiz. Ezen Ifarraldeko klasikoen itzulpenak bezala, Mendiburu eta Ubillosen kristau dotrinak aztertzea interesgarria gerta baitaiteke eta baliagarria itzulpen-bideak —bereziki lexiko arloan— aurkitzeko eta euskara edozein gaitan trebatzeko. Euskarara erlijio gaiak itzultzeko ere (batez ere hitz kultoak, greko eta latinetik datozenak) arazo handiak zeudenez gero eta, besteak beste, arlo horretako hitz franko euskaraz finkatu gabe, nola egin behar ote zen? Frantses edo gaztelertatik itzultzerakoan ahalik eta zuzenen eta zehatzen. Leizarragak bezala, honetarako latinezko eta erromantzetatik hitzak erabiliz, ala ahalik eta ulerterrazen, esapide edo perifrasi bidez nahiz *edo* bidez baliokideak ezarri e. a.?

Honi erantzun aurretik egin dezagun beste galdera bat: zer dira Mendibururen *Jesusen Bihotzaren Devocioa* eta Ubillosen liburua, itzulpen ala moldaera? Mendibururen liburua Aita Croisset-en obraren euskarazko moldaera dugu, gaztelerazko itzulpenean (Pedro de Peñalosa-renean) oinarritua. Jar dezagun pare bat adibide, frantsesezkoetik itzuli edo moldatu zuelako ustearen zalantzarri nahiz, berak esan zuenez, frantsesezko edizio bat ere aurrean eduki zukeen²⁷. Adibideotan frantsesezko 1732ko edizioarekin²⁸ eta gaztelerazko 1746ko batekin, M. J. de Rada-renean

(27) "Aita Croisset-en Francico bat escuan artu ta eguin nuen eusquerazco nere libri hau; guis artan hau eguific ecusi nuenean, ezagutu nuen hau ere niri Loyolan eraguiteco izandu dela aldi artan Jangoleaco ni arà bidaltze; bada urà ni joan ezpanritz, ez nuen urte artan beintzat liburic eguifien", *Igande eta festeguterarako Irakurtaldiak*, "Irakurleari", in *mp. Mendibururen idazlan argitaragabeak*, 1, 52.

(28) Jean Croisset, *La Devotion au sacré Cœur...* (Lyon: Fretes Bruyset, 1732).

ateratakoarekin (aurreragoko ohar batean jarria) erkatuko dugu Mendibururen itzulpena (1747).

48 *sainte Mechtilde*: 42 *Santa Methilde*: 71 *Santa Metildec*: 61, 66 *sainte Catherine de Siemie*: 51, 55 *Santa Cathalina de Sena*: 81, 85 *Senaco Santa Catalinae ere*: 65 *sainte Gertrude*: 54 *Santa Getrudes*: 85 *Santa Getrudesecc*: 66 *saint Elzear*: 55 *San Eleazaro*: 85 *San Eleazaroc*: 66 *sainte Dauphine*: 56 *Santa Desfina (sic)*: 85 *Santa Delfina*: 69, 71 *Lansperge*: 57, 59 *Lanspergio*: 87 *Lanspergio*: 67 *ce qui est au chef, n'appartient-il pas aussi à tous les membres?*: 56...*pues lo es de mi cabeza, y lo que es de la cabeza no pertenece à los demás miembros?*: 86 *badu nere burua-rena da, ta burua-rena den gauzu, gorputza-ren gauzu da*; 59 *Los que han leido la vida de San Francisco de Axis...*: 90 *San Franciscoren, Santo Thomàs...* (ez dator frantsesez zati hau).

Erdi itzulpena da, zehatzago esan, Mendibururen liburua: zati batzu bai baina heste batzu ez ditu itzultzen. Ez du Croisset-ena osorik itzuli, itzulpen laburtua da, ordena aldatuta. Baina, egileak dioenez, "Escrituraco, ta dacartien Santuen hitzac alic zucenena gure Euscarara ditut". Beraz, arrazoiz esan zezakeen "Librua ez da gucía nereca, ez eta besterena ere", erdia bere burukoa baitzen. Bestalde, itzulpena den zatia egokitua dago euskaldun eliztarrei, hots, ez dago hitzez hitz itzulia, baizik edukina denek ulertzeko moduan. Nolanahi ere, normala dirudi, otoitz-liburua denez gero.

Ubillosen liburua, aldiz, Fleury abadecaren itzulpena da. baina gazteleratik (Fr. Juan Interian de Ayala-k egindakotik), frantsesetik baino areago, eta hau ez dut uste esan denik euskal literaturaren historietan. Adibideak egilearen jatorrizko edizio eta orrialdetik jarriko ditut (Tolosa: F. de la Lama, 1785), gaztelerazko itzulpenekoak 1718ko edizio eta or, eta frantseseakoak 1805eko ed, eta or.²⁹

70 *Qu'est-il donc devenu?*, 115 *Pues qué se hizo de èl?*: 48 *Cer eguinzan badà artza?*: 70 *Ils ont prédit qu'elle serait ruinée et rétablie l*, 111 *Prophetizaron, que havia de ser arruinada, y despues otra vez reestablecida*: 49 *Esan zuen hura ere erorico zala, baina guerò berriz eguingo zala*; 70 *Oui, ils ont prédit tout ce qui lui devait arriver*, 115 *Si: prophetizaron con puntualidad todo lo que le avia de suceder*: 49 *Bai: esanzuen chearo Jesu Christi quertatueo citzaion guci-gucía.* (neuk azpim.)

Itzulpena da goitik behera: jatorrizko testua osorik bihurtzen du, pasarte batzu kenduta, eta perpaus edo esaldiz esaldi, puntutik puntura, eta, beraz, interesgarriagoa da itzulpen modura. Buru bat gehitzen dio, laburpen dena: "XVI. Iracurtza. Oraindaño esan danaren bilgura laburra", baita "XIV. Iracurtza. Amar Mandamentuac") "Edo versutan. Franciaco guisan" (170. or.). "Bai-ta bestela ere" (171-172). Hala ere, Ubillos ez zaio hertsiki lotzen jatorrizko testuari (gazielerazkoa frantsesezkoari lotzen zaion bezala) eta kontzeptu eta termino hauek azaltzeko joera du. Interesgarria dateke, batetik, greko eta latineko etorkiko hitzen itzulpena. Bi molde erabiltzen ditu honetarako:

(29) *Catéchisme historique, contenant en abrégé l'Histoire Sainte et la doctrine chrétienne*; par M. Fleury, Prêtre, Prieur d'Argenteuil, et confesseur du Roi. Nouvelle édition. À Tours, Marc et Pescherard, 1805.

Catecismo historico que contiene en compendio la Historia Sagrada y la Doctrina Christiana escrita en francés por el muy ilustre Sr. Claudio Fleury, y traducido en español por Fr. Juan Interian de Ayala. Madrid, Manuel Román, 1718.

Bata: erlijio arloko hitz "tekniko" bakoitza askotan ez du zuzenean itzultzen euskarazko hitz jakin, finko eta zehatzaz, baizik eta baliokideak edo antzeko adierakoak ezarritz, maiz *edo* (batzutan (*etta*), haien arteko bat askotan gaztelarariko hitz maillebatua izanik. Horrela, bada, batzutan latin etorkiko hitzaren edukina edo esanahia eta zentzua adierazten da bizpahiru hitzez. Adibide batzu:

94 muchos y terribles milagros: 22 mirari, milagro, ta ecusteco asco, ta icaragarriac; (geroago ere), 96 milagros: 24 ecuscari, mirari, edo milagro: 97 grandes milagros: 25 Mirari, ecusteco ta milagro andiac; concupiscencia: 9 guticia, nai eraguille, ta griñarequin; La ignorancia, y la concupiscencia: 11 Jaquin-eza, ta becanuraco guticia, griña, ta jario macurra: 91 El de moderar nuestras passiones, y deseos: 17 Guere escutic iduqui dit-agula gueren pasio, griña, naicunde, gogo gaito, eta gaitzeraco macurtasun oquerrac.

Beste moldea: etimologiazko esanahiaren ereduz euskaraz hitz baliokide batez edo zirkunlokuzio bidez itzuliz. Honetarako Ubillos bere greko eta batez ere latinaren ezagueran oinarritzen zen (gogora Ubillosek gai hauek xehero jorratu zituela bere latinezko hiru tomoian). Hau Axularrek ere egin zuen. Adibideak:

Patriarcas: 20 Patriarcac, edo Aitaurrenac (Larramendiren Hiztegitik hartua); malicia: 6 gaitzquiric; 89 Por envidia de su virtud: 15 Cergatic huru, zàn bezain, ona izatea, ecin ecusi zuan (antzeru beste honetan) 93 llevados de su envidia: 21 ecin eraman zuèn eren anai Joseperen onguia; 90 es la razón, y la inteligencia: 16 Da... cer dån gauz gaitzoa, eracusten digun, gueren buruco arguia, ta ezagumentua; adoraiet, 105, 106 adoraban: 36, 37 agur eguiten cioen; 106 Hacianles oraciones, y sacrificios: 38 Agurrac, esqueac, ta presentac eguiñaz; 107 segun Jacob lo tenia profetizado: 39 Jacob Patriarcac alde-aurretic esanic; 70 Qu' ont-ils dit de la vocation des Gentiles? 116 ¿ Qué dixeron de la vocación de los Gentiles?: 49...Jaincoac beregana deituco cituala sinitsmen-gabeco gendeac; 118 Mongeac, edo Bacartarrac....

Larramendik ere erabili zuen etimologiazko bide hau: Azkoit, serm. 5 *guciaquicoac*, S. Ag. serm. *guziekiko eta guzierakoa* 'Catolico', Ubillos Chr. dot. 144 *Fliza da Catholicoa, edo gucieracoa, Cristinaubaren jaquinvidia* (Kardaberazen dotr., 1783, ustez Mogelek paratua) *guztientzacoa*. Baita Mendiburuk: *Eusc. on. viciera 7 Natividaden, edo Jait-eguna*.

Bestalde, Ubillosek batzutan edukina edo adierazi nahi dena naharago azaltzeko joera du amplifikazio bidez. Adibidez:

6 dans le Paradis terrestre, qui était un jardin délicieux ou vivaient heureux, 82 en el Paraiso terrenal, que era un delicioso jardín, adonde vivían, y se conservaban bienaventurados: 6 Parahisua ceritzan, berjera, lore-baratza, edo toqui zabal eder batean, zorionecoac bezala, atsegin contentuz, ta behar-zuten guciac heteric an vititzeco: 50 parce qu' ils n'avaient point de malice, 82 porque no tenían malicia: 6 Etzuen alabaña gaitzquiric, ez eta gaitzeraco griñaric ta gogoric.

Joskera eta hitzordenari dagokionez, latin eta gaztelaniak zuketan eraginaz euskal idazle hauen joskeran, handi-handika, arituko naiz lehenik, baita zati-galdere eta bes-telakoetan agertzen diren molde eta estilo aldaketaz, aditz aurreratzeaz eta azkenik erlatibo eta czezakako egitura-molde batzuez. Jakina, latinaren eragina ez da joskerara mugatzen soilki; morfologia, hiztegi eta estilora ere zabaltzen da, baina hemen jos-

kerara mugatuko naiz. Beldur naiz, alabaina. Rudolf de Rijk irakasleak iradoki didan gai honi behar bezainbesteko etekinik aterako ez diodan eta arazoa gaingiroegi ez ote dudan jarriko. Latinaren eragina sakonekoa da, frantses eta kaskoinarena baino pisuagoa literatur-lapurteran, eta gaztelaniarena bezain aitzinakoa hegoaldeko testuetan. Dotrina eta otoitz-liburuen egileek oso ongi zekiten latina; hezkuntza eta ikaskuntza hautukoak ziren (gainera, josulagunek XVIII. mendean greko eta latin ikasketen eraberritze bat bultzatu zuten eta, areago, latinzaleak ziren, garaiko kultur-bideak eta beraien jakintza hizkuntza klasikoetan eta batez ere latinean oinarritzen baitziren. Sakonago eta zehatzago aztertu beharko litzateke latinak, haren joskeramolde eta estiloak zer heinetaraino moldatu zuen euskal hitz-laua, estiloa, esaldien luzera, e. a. itzulpen nahiz itzulpen ez direnetan, hots, egilearen burukoetan.

Nolanahi ere, lehenengo eta behin esan beharra dago hegoaldean gure idazle hauek direla joskera arloan latin eta gaztelaniarekiko murrontza jabetu, berori salatu eta euskararen berezko moldeez idazten saiatu ziren lehenak. Larramendik bere aurreko gipuzkerazko dotrinagile eta sermoilariek zuten gaztelaniaren kutsu gehiegizkoa salatzen du, eta Kardaberazek, hari jarraituz, latinarena ere espresuki aipatzen. Larramendik sintaxiari eskaini zion bere *Arte*-ko bigarren zatia. Baina gehienbat latin edo gaztelaniazko sintaxi-moldeak hizkuntza horien gramatiketan agerri ohi ziren eran, eta berauek euskarara aplikatuz. Hau da, kategoriak nola eraikitzen diren euskaraz eta perpausak egiteko era zuzenak erakutsiz. Larramendik euskal sintaxia latinaren antzekotzat jotzen zuen³⁰. Eta latinaren antzekoa nahi du euskara sintaxian. Izan ere, garai hartan normala zenez, latinaren gramatika zen erdua eta honetan Larramendi bere aldiko seme dugu. Geroago, Erromantizismoaurreko garaian, Pablo Pedro Astarloarentzat, adibidez, euskal sintaxia erabat bestelakoa eta are aurkakoa zen latinarekiko.

Esan bezala, Larramendik gaztelaniarekiko murrontza salatzen du. Hiztegian (XXII. buruan, xxxjv. or.) garaiko euskal sermoigintza kritikatzan du euskaraz pentsatua ez delako, gaztelaniatik gaizki itzulita dagoelako (gaztelaniazko hitzak eta esaldien esanahia ondo jaso gabe), sintaxian hizkuntza bien artean dagoen aldeaz ohartu gabe egina delako, euskararena eraikuntza edo egitura pospositiboa izanik³¹, eta gaztelaniaz idazten dituztelako sermoioek. Halaber *Cronografía*-n (287. or.) sermoigileen itzulpen kaxkarrak gaitzesten ditu, batez ere harako sermoi pangiririkoe-tan³². Baita hor bertan aurreratxoago ere, Zarauzko frantziskotar misiolariak gores-tean, horiek euskara ulergarri, garbi eta ongi ordenatuan predikatzen baitzuten (291. or.). Sintaxiaren arlo honetan ez du alderik ikusten euskalkien artean (293. or.).

Arte paradigma bilduma bat da, Mitxelena esan bezala, egilearen idazlanetako beste zenbaitekin osa daitekeena. Adibidez, perpaus kausalci dagokienez, Azkoit.

(30) "Muy parecida a aquella Syntaxis Latina, en que galanamente se cortan las partes de la oración, ya anteponiendo el verbo al nombre, posponiendo el consiguiente al antecedente, encadenando el regimen todo con variedad indiferente, y hermosa, que lisonjea tan diversamente los oídos", *Arte*, 257.

(31) Egitura pospositiboa berarentzat hauxe da: artikulua maskulino edo femeninozik ez izatea, ez jenerotik (honek esan nahi du Larramendirentzat batzutan aditz irabakera aktiboa edo iragankorra erabiltzea egoki litzatekeela, gaztelaniazko neutroa edo absolutoa erabili ordez), eta aditz forma edo adizkietan sing/plur. eta pertsona markak sartuta egotea (Hiztegi Hirukoitza, Ivj).

(32) "Tienen sermones en castellano que encuentran trabajados y de molde en romance. Para traducirlos se necesita de inteligencia y saber bien una y otra lengua, así en la extensión y multitud de voces y sentido de ellas, como principalmente en la colocación y gramática de una y otra lengua".

serm. 15 *cegatia ce...*: edo, erlatiboetarako dagokienez, Azkoit. serm. 16 *ceña izan baitzan* (*Arte*-n honakorik ez dago). Baina *Arte*-n ez du hautatzen hau edo bestea, eta bere idazlanetako erabilera edo iharduerari —Kardaberazek hain usu darabilen hitzez esateko— begiratu beharko litzaioke ea zein hobesten zuen jakiteko. Eta Larramendiren iharduerak, euskaraz idazterakoan, bere itzalak ditu. Galdetzekoa da ea zergatik jarri zituen bere gramatikan honako esaldiak, mendeko perpaus batzuetako paradigma edo ereduaren egituren adibide gisa: *Arte* 273 *eché au. ceñaren zu bidé cerá jabe*. Baita zati-galderetan, erantzunean: *Arte* 327 *nongoa cerá...? naitz Madrivedoa*. Latinaren antzera, euskararen harako "variedad indiferente, y hermosa que lisonjea tan diversamente los oídos" aipatuagatik agian ala, seguraski, garai hartan oraindik euskalgaitzoko joskerak horretaz ohartzen ez bide zelako?. Gainera *Arte*-n latinezko *quod, quia* eta holako juntagailu eta berorickin batean adibide zenbait jartzen ditu euskarazkoen aitzin. Adibidez, *Arte* 313 "Verbos de gozo, admiración..." e. a. atalean, espresuki aipatuz latinezko forma: *quod*.

Kardaberazek ere, Maisuari jarraituz, euskarak latinaren antz handiagoa duela usate du, gaztelaniarena baino (adibidez, latinaren kasuak, antzeko superlatiboa e. a.)³³. Dotrina irakasteko lehenengo norberak ikasi behar omen du berori ongi esaten euskaraz, eta latin edo gaztelaratik bihurtzekotan ezin da hitzez-hitz aldatu, hitzen esanahia zuzen jaso eta hitzak bere lekuan jarriaz baizik³⁴. Halaber, Ubillosek bere liburu "Hitiz-aurrean" hitzak bere tokian jartzeari garrantzizkoa deritzo³⁵.

Aitoru behar da Larramendi eta haren jarraitzaileok euskal joskeraz axolatuak zirela eta beraien iharduerari dagokionean oro har eta egungo ikuspegitik begiratuta zuzen idatzi zutela edo, behintzat, inork ez diela eragozpenik jartzen eta aintzat hartzen dela haien idaztankera. Hala ere, susmatzekoa da latinezko testuetan oinarritu beharrak, latinetik itzuli beharrak (edo latinezko aipamenak jarri beharrak) bere eragintzua izan dezakeela idazle hauek hitzordenan, eta beraz latinaren hitzordena eta idaztankera kutsakorra gerta daitekeela. Batez ere idazleon hasierako lanetan. Adibidez, zati-galdera kasuetan edo korrelazioan dauden perpausenetan:

"quis mei curam geret ac defendet? *nore niaz contu iduquico deu. eta zeu il ezquero, nore ni zaituco nau?*" (Azkoit. serm. 14). "*Berriz ere esango lioque amac semeari, nore niaz contu iduquico deu...? Cer contu besteac eguingo deue niaz?* (id., 17). *Quis est homo, qui non fletet, Christi matrem si videret in tanto supplicio?* Cein

(33) "Erdararequin Eusquera ez aide, ta ez beraje da. Bere era, edo Gramaticuren partea usatzeko moduan Latinaren antz gueiago du: ta icustendegu, Euscaldun gazte ascoc Gaztelaniaz baño lenago Latitez, ta obeto icasten dutela", *Eusqueraren berri onak*, 33.

(34) "Jaimeoren Dotrina berdan fede, ta devocioaz esateko, lenagotik ondo pensatu, begiratu, igusi, ta icasi bearda: eta ori, Latin edo Gaztelaniaric munduan ez balitz bezala... Latin, edo Gaztelaniaric Eusquerari biurtu nai bada, ori ondo biurteco, edo tradujo onaren legueac gunde beardira: eta ez itzai bereac, ezpada orieac esan nai dutena, edo orien sentidua ondo pisatu, ta Eusqueraz nola ondo esangodan contuz consideratu, ta ori eseribitu bearda. Beste izquerac bezala, gureac ere here itzaldi egoqui, chit bicia, berezco, ta berariaco ederrac ditu. Baña Erdarac era baita, ta Eusquerac bestera. Once era postpositivo, ta are prepositivoan. Esan naidu: Gaztelaniac beti aurretic ducarrena, Eusquerac azqueneroniz beti botateen duela: eta itzai bereu lecuari, Gaztelaniaren contra ifintee orretan Eusqueraren era eder, aire, edo chiste gucia dago. Bestela, *ntez* itz Erdaratic Euscarara biurten badezu, chit ihesi, doacabe, edo moldacartz itengoda, eta mutillac esan oidutena: comer avianos echo nosotros: bien que está. Padre, eta: à ti la lengua que no te saque pues. Itzez itz biurteca orra cer dan. Ita edocet Lengoageran orobat da", *Eusqueraren berri onak*, 57-58.

(35) "ta hitz bacoitza, dagocan toquan sartzen ez, palezu, zure hitz-jarioari arantusa, edo *Solecismo* deimco dioe: Bost onelac enzuten degu eusquerazco sermonean! Ala baña, zori gaistari ducascun bezala, euscaldun guchiec necaru nai di eusquerazco hitzaz biltzen, ta bacoitza bere toquan ipintzen". *Christau doctriñ berri-carlea Christianari dagocan egua sinis-beharen-berria ducarrena*. Hitz aurrea.

da guizona, *halecus Christoren ama alavo penaz, negar eguingo ez leuqueana?* "Sicut tenebrae ejus ita et lumen ejus. *Zergatic eze, nola dan aren ilhuna, alase izango ere aren argia*" (S. Agustinen doanditza, 8).

Lehenbiziko adibidean ikusten denez, galdetzailearen ondoren tarte-hitz bat edo sintagma bat dago aditzari lotua eta aditz hau atzera egotzen da. Honakoak, eta hitz andana luzeagoak, latinezko aipamenen itzulpenetan ez ezik bestelakoetan ere jartzen ditu Larramendik. Adibidez, *nola amaren animean ezpata sartuko da?* (Azkoit, serm. 10). Hala Mendiburuk ere batzutan, nahiz gero berak edo Larramendik zuzendu egiten duen Burgosko dotrian, Adibidez, Mendib. *Nola ceruetara igozan?* (ik. P. Altuna, 23); Larram. id.: Burgosko dotr. (1747) *Nola igozan ceruetara?*. Baita Kardaberazek (K) bere bizkaierazko 1762ko (?) dotrian, hurrengo edizioan (Fr. de La Lama: Tolosa, 1783)³⁶ paratzaileak (P), ustez Mogelek, erregulariki aldatzen dituenak. Adibidez, K 39 *cetaraco gueiago Mandumentu onec obliguetan gaitu?*; P 30 *Cetara gueijago obliguetan gaitu agiundu onec?*; K 41 *Noc jai egunac gordeetan ditu?*; P 31 *Noc gordetan ditu Jaijac?*; K 56 *Cegaiti Capitalac dei eguiten deustezu?* P 45 *Cegaiti deituten dira Capitalac...*, e. a. Eta Ubillosek ere adibide mordoa du, Mitxelenak aipatuak (1981a).

Zati-galderetan ez ezik hai-ala-ezkoetan ere ager daitezke hitz andanak. Adibidez, "eztet hura billatzeco nora nere burua irauli. Belaunico Virjiñaren oñetan jarri-co ote naitz?" (Azkoit, serm. 4). Bestenaz, Kardaberazengan inoiz agertzen da baieztapen arruntan ere fokuaren eraskin gisako datekeen zerbait. Adibidez, "Eta orrembestegaz Abade jaquitun ori, ill otza lequez gogortu, ta mututuric Andreac ichi eban" (*Fusqu. berr. on.*, 43-44).

Aditzarekin loturiko hitz andanak direla eta, Mitxelenak ondoko erdaren eraginik ez dagoela dio (ibid.). Baina ezinezkoa ote da latinarena, hizkuntza honek aditza atzera egotzeko ohitura duenez gero? Ohargarria da zuzenketa eta aldaketak daudela (gehienbat idaztanka akletik) idazle hauen idaztaldi edo edizio desberdinetan, eta tarte-esaldion kasuan ere bai, beroriek ez jartzeko joera agertzen delarik. Zuzenketa edo aldaketan berri emango dut ondoren, bereziki zati-galderei dagokienez.

Larramendiren aipatu bi sermoiak egilearen jhen euskal testu luzeak dira, eta urte berekoak (1738) edo garai beretsukoak. Handik urte batzuetara, Mendibururen euskarazko Asteteari buruzko iritzi emate edo zensuran (Tellechea 1967)³⁷ erneago ibili zen, bere maisutza argi eta garbi erakutsi nahiean edo, eta bere zorrotzasuna agertu zuen oihartzuarraren hutsak zuzentzerakoan, eta ez soilki hutsak, gehienak ez bailirateke hustzat hartu behar, orrazketatzat baizik. 1747ko Burgosko argitalpenean (Lakarra 1986, 1987) Mendiburuk ontzat hartu zituen Larramendiren zuzenketa gehienak, curen artean joserka aldetiko batzu.

(36) A. Cardaberaz: *IHS Dotrina Cristiana edo Crisitian Dotrina, bere Declaración laburra gaz. Aita Astete ren Libricho-ri-ri aterea. Azqueunen arimen salvacionaco bear direan gauzaren burzu. Gueta Cura Jaut. ta Escola Maisuati Jesus-en Compañiaco Aita Agustín Cardaberaz: ez ofrezietan, ta dediquetan deustez* (data eta inprenta toki eta izenik gabe, J. de Urquijoren iritzi, 1782koa eta Iruñean A. Costillarenean aterea). Ik. A. Cardaberaz, *Euskal Lan Guzaki* (LGEV, Bilbo, 1973), I, 399-455.

Cristinauboren Jaquinvidia, Aita Astetez erdraz: eguina, Ceinán Aguertu, ta adierazoten dirian itaune, ta erantzuten guezco Fedeco gauzaric biarreneac. Ifuñichan Bizcaico Ensuqeran, Aita Agustín Cardaberaz: Jesuitac, Orain urteten dau esquierda apaindubatan. Tolosan: Fr. dela Lama Liburuaguillaren echian, 1783. "J. de Urquijo Hondoa", Gipuzkoako Foru Aldundiko Biblioteka, J. de U. 2.657.

(37) Ikus Mendibururen dotrina eta Larramendiren zuzenketa (P. Altunaren oharretan) gorago aipatu Mendibururen idazlan argitaragabeak liburuan, I.

Mendib. *Cerade Christaua?*: Lar. *Christaua zera?*: Burgos (1747) *Zu Christava zera?*; Mendib. *Animaren etsaiac, ceñetatic igues eguin beardegun dirade hiru*: Lar. *Igues eguin beardegun animaren etsaiac...*(ik. P. Altuna, 38); Burgos (1747) *Igues eguin beard diotegun animaren etsaiac, dira hiru* (41. or.); Mendib. *Nor dira misericordiosoac? Guçiz heraa diranac ez ezagunaquin ere*: Lar. *Arrotzaquin ere chitez heraa diranac*: Burgos (1747) id..

Hasierako idaztankera baldartxo hau gorabehera, aitortu behar da Mendiburuk ondo irabazia duela ospe ona. Haren joskeraz ari zela, hau zioen Azkuek *Otoitz...*-g. liburuari buruz: "Onetantxe, nik uste dudanez, gutienik erdalantzekotu zuen Mendiburuk bere idaztankera" (aip. art., 171). Landua genuen Mendiburu alor hontan, nafar dotrinagileak (Berriain, Elizalde, Mikelestorena, Lizarraga Elkanokoa...) ez bezala (Mitzelena 1982). Baina, bestalde, motel edo astuntxo ere badela aitortu behar, eta honetan ere bat dator mundu guztia. Batez ere 1747ko *J. B. Dev.* liburuan, non esaldi luzeak moldatzen baititu, are luzeagoak askotan *edo (ta)* juntagailuak jarriez gero. Beste batzutan atzean datorren aditzaren zain egon behar da maiz eta, bestalde, bihurria ere bada oihartzuarra zenbaitetan³⁸, honek zail eta aspergarri egiten duelarik oihartzuarraren hitz lauaren irakurketa, nahiz beste asko eta askotan aditza aurrera botatzen duen eta osagarriak atzera eta, beraz, zalua den. Zorionez, 1751eko edizioan orrazaldi eder bat eman zion, ikusiko dugunez, eta gaitzerdi.

Galde-erantzunetako joskera-aldaketei dagokienez, Kardaberazek oharterazi zuen dotrina galdetzeko modua finkatu gabe zegoela³⁹. Eta puntu honetan Kardaberazek moldea zenbaiten iritziz ez zen hain egokia eta horregatik zuzendua izan zen dotrina batzutan. Aipatu dugu, adibidez, 1783ko Kardaberazek bizkaierazko dotrinaren edizioa, ustez Mogelek egindakoa. Edizio honetan prestatzaileak Kardaberazek dotrina euskara apainduago batean atera duelako ustea adierazten du eta, joskera alderik, molde batzu erabat eta sistematikoki aldatzen ditu, beste batzu ez beti, aldaketok idaztankerari dagozkiolarik, ez gramatika aldeko zuzentasunari. Esaterako, Kardaberazek (K) galdetzailak eta aditza batez ere atzera bota ohi ditu normalki. Edizioaren prestatzaileak (P), ordea, aurrera, perpaus hasieran, Adibidez, *K Irugarren egunean celan biztuzan?*: P *celan vitzuzan irugarren egunian?*; *K biciaç, eta illac juzgaetara noss etorrico da?*: P *Nos etorrico virijac eta illac juzguetara?*.

Erantzuncan Kardaberazek galdegai perpaus bukaeran jarri ohi du normalki edo usu. Hasieran, ordea, prestatzaileak, Adibidez, *K Cer escatuten dozu...?* Erantz. *Jangoicoen icena mundu guztian ezagutua ta onradua izan dedila*: P *Ezagutuba ta honraduba izan dedila Jangoicuaren icena mundu guztian*; *K Cer...?* Erantz. *Jangoicuac gure arimetan...erreinadu daquiula*: P *Aguintau daijala Jangoicuac...*

(38) Erakusburu gisa, hona hemen zatitxo bat: "Emin lurrean ere edoceñec arteen ditu gogotie, ta eguiten Erreguen echeaco eguñteen ohorezuac, edo andiac; baña ezta, Soldaduz beneric dagoen erri bat aru belar denecan, edocein sarteen gogotie su, ta ezpaten arican, ta edoceñec ezaguten du, guciago irabazten duela Erreguerequico, bere biciaz caso guti-eguiñie, su, ta burnien arcan dabilenecan, dabilenecan baña guciac nai dituzten onen echeco eguñtecoetan", *J. B. Dev.* (1747), 34.

(39) "Puntu onetan, nola Fusal errietan era, edo manera jaquime, ta gucienzat berdñie, orafi arcan izan ezta, egoquiro itzeguieca erraz ezta. Gure itzaldi, ta izquera guciencan utseguitendegur ta orañguo ezta. (Badi-rudi Kardaberaz bere ihardueraz ez dagoela ziur). Nulanahi ere, eliztarrei beren erara galdeto beltar zizaiela azpimarkatu zuen, zein galdera eta nola egin falta zelarik: "eta gure gende jaquinez gassoquin paciencia andiagoo naidu, pobrechoai chit beren erara galdetu, ta badere, bearren dan Dotrina ondo aditeen duten, icusteco, edo daquienaa nolerebai ateratecco... (beherago) Emin era batera guciac Dotrina galdetecco Erregla laburcho bat, edo Egenplora falta da", *Eusqueraren berri onac*, 61-62.

Kausazko perpausai dagokienean, *cegaiti* galdetzaileari erantzuterakoan Kardaberazek *cerren* aurrera baina aditza perpaus bukaerara bota ohi du gehienetan. Pres-tatzaileak, aldiz, aurrera aldatu ohi du aditza, *cerren* galdetzailearen ondorik doala maizenik. Adibidez, K...*cerren Cristo crucificaduaren irudia dan; P cerren dan Cristo curutzian josijaren irudia; K...cerren gauza guztiac ecebere eceti eguin cituan; P cerren atera cituban ezeberetic gauza guztiac.*

Ubillosek bere dotrinako "Galdeac, ta eranzuac" direlakoetan, zati-galderetan galdetzailea aurrera bota eta ondorik aditza jarri ohi du (edo ahalik eta hurranen bederen, hitz andanen kasua aipatu baitugu). Honetan, Kardaberaz en alderantziz baina haren bizkaierazko dotrinaren 1783ko edizioak bezala (bere liburua baino bi urtez lehenagokoa eta ustez Mogelek prestatua eta zuzendua, esan nahi baita aldatua).

Aditz aurreratzea dela eta, Kardaberazek zioen euskarak aditza atzera botatzen duela, ikusi dugunez. Baina hau ez da beti hala gertatzen idazleongan. Frakusburu batzu jarriko ditugu soilki:

Larramendi: "¿*Cer da au, esango dit norbaitec, Virjiña orrec icenic ezteu, bein bederic aitarzeco?*...(beherago, galdera honi erantzunez) *Nic esango det ver dan, Virjiñari deritza Maria, ta icen un da alde batetic ezti gozoa, ta adierazotzen digu...* (beherago) *Bestetie da min, garratza, ta adierazotzen diauzcu Virjiñaren doloreac, cer-gatic aibat da Maria edo itsaso miña*" (Azkoit. serm. 2). "*Eta dalaric au eguia, ezetzte arduraric artzen*" (id., 20). S. Agustinen doanditzan ere hainbat eta hainbat aldiz, esan dezagun ordena ez markatu batean, aditza aurrera botatzen du eta osagarriak ondorik jartzen.

Mendiburuk maiz aurreratzen du aditza. Adibidez, Batzarreko arauak itzultzerakoan: "*I Izan behar-dute Congreganteac vicitza-garbituac (...)*" "*Urte oro (...)* 2 *Igaroco dute, alic onguena, Jesusen Bihotzeco Best-eguna*" "*4 Eguinen dute urte oro Jesusen Bihotzaren Bederatz-urruna*" (Otoitz.-g. I "*Jesusen Bihotz maitearen Congregacioco Erregla laburrac*". hasieran). Aditza aurrera egozten du baita osagarriak hain luzeak ez direnean. Adibidez, buru hasieran, Adibidez. "*Anitezec use dute ez dela gucientzat gogozco otoitza*". Ubillosek kontaezan aditza aurrera botatzen du, ohi denez⁴⁰.

Azkenik, zerbait esan nahi nuke bi egitura-molde bitxi baina literatur-gipuzkeran franko aldiz idatzita agertzen direnei buruz. Batetik, erlatiboko perpaus aurrekaria lehenbizi eta atzekaria azkenean jarrita eginikoez. Honetarikoa franko ageri baitira Larramendigan eta usu, eta luzeak gainera. Mendiburugan:

Larramendi, Andoaingo serm. 77, 8-9. er. (J. A. Lakarra-P. Altunaren ediz., 1990) *Eleizá eguingó etzána, orrá eguiñá*; id. 81, 6. er. *arguitará, ta argui beti dicevanéra itzálzteagatic, aritú izandá dála*; id. 82, 19. er. *anima arátzen diránac, cerurá háño lenagó, anché garbitú béarrac diradela*. Mendiburu, *Otoitz.-g. I* "*Jesus Bihotz maitearen Congregacioco Erregla laburtuac*" *...egun, Jesusen Bihotzaren Congreganteac, Elizan, ta gauz on-eian eraman behar dituztenac...*; *...escatu (...)*. *Beste Aita gurea, eta Ave Maria Aingueru zaitzen dituenari...* *Otoitz.-g. I. 5* "*...otoitz hau eguitea, gauz erruz bat eguitea da, ducusuzun bezala; ta eguitea gauz,*

(40) "Cain ta Abel eiran Adan, ta Evaren lenengo semeac. Abel ona zan, baina Cain gaiztoa, ta bere anaia ona izatea egin eraman-zuana, ta orregatic quenducion vicia, Cain bezala, aren ondorenguaric ere / *izanciran gaiztoac*", *Chr. doct.*, 12 "III. Iracuzta (sic). Ugeldea, ta legue naturala". Neronek aspimarkatua da aditz forma, aurretik / jarri ditoxala, etenaldiaren adierazgarri. Halabaina bakanak dira honetarikoa.

ecustera zoacen bezain, ondasun-duna; id. 5 ...guertatuco zaitzu, guertatu oi dena, edo Profetac diona. Cer? Lur. manatcen ez denari, guertatcen zaiona.

Honako erlatiboak Mogelek ere askotan eratzen ditu, oihartzuarrari ikasita, seguru aski, eta, hain zuzen ere, Mendibururen liburuetatik ikasten du Mogelek idazten, idatzi dudanez⁴¹. Geroago ere agertzen dira, adibidez Lardizabalgan, Idazle zaharrek erabili zituzten eta bizirik daude, adibidez Nafarroan (de Rijk 1980: 535-536, Etxep., Leiz., Mikoleta eta Erronkariko adibideekin; ik. halaber Oihartzabal 1985).

Bestetik, ezetzko perpausetan agertzen den ordena arruntaren bihurteta (aditz nagusia + ez + aditz laguntzailea) batez ere Kardaberazengan. Rudolf de Rijk irakasleak oharterazi bezala, eta gutti edo asko gipuzkerazko beste idazle askogan (Larramendi beragan *Arte* eta sermoietan, Mendiburu, Munibe, Ubillos, Agirre Asteasuko, Fr. J. K. Etxeberria, Lardizabal, Gr. Arrue...)⁴².

Larramendik, de Rijk-ek dioenez sistema arruntari jarraitzen zaion arren, ez + laguntzailea aditz nagusiaren aurretik zein atzetik berdintsu dela dio *Arte*-n⁴³ eta adibideetan bietarikoak dakartza: 284 *nizás oroitze ezta, oróitzen ezta nizás*, 295 *zue ezti-tuzu ecarri vs hadituz ordea, zue jancinituen gastañac vs eznituen bada*, 301 *etzera etórten vs banatuz ordea*. Sermoietan ere haditugu sistema arruntaren bihurteta erakusten duten adibideak: Azkoit. serm. 48. 6. er. (Lakarra-Altunaren ediz.) *Beste gurasoac zor eztié beren semeai, aberats, eder, sendo, osasun onecouc izatea*; 53, 23. er. *cergatic hadu deitzen eztiouzu zeure ama?*; S. Agustinen doanditza 61, 28 eta hur. er. *Era batean here erara bizitu etzan? Bazan, Bere amandre gaisouri etzioczan nalgabeac egiñ eunca ta millaca? Baziozcan, Ez zirudien...? Bazirudien, Orrezat gañera, eta gaitzoagoo dana, ichutu ta erori ez zan Munikeo zitulen utseguin likitsetan, eta ondaturic egondu etzan leize izugarri batean? Ala da eguia;* 67, 10 11. er. *Beraz, edo San Agustiñ-en argiaren errañuric eta izpiric-ere gelditu etzaigu, edo nere arroturicaco sermoi-gayac hadu ichura hai, eta kemenic ez;* 68, 27 hh. er. *cer esan ote zuen? Esan zuen ona zala, eta ez hesteric. (...) Eta edolaric, ontasunez itzegiñ nai bazuen zergatic esan etzuen zala argi bat beste guztiaç baño oheugoa? Andoaingo serm. 75, 17 hh. *Atócea, amátzen dezu, maite dezu urlia? Albaldin bere! (...) Onic eguin diozu inoiz, edo nai izándu diozu? Orisé gogoratú ére etzait;* 80, 26. er. *Ecer ere nai ezti orietatic, eztu nai oriétaraco icenguillatu dezutén*. Beste egile batzuenak: Munibe *Gavon-sariac 7 ecussiere ez nevan ecin asmatu nevan* (ikus dagokion oharra cne edizioan), *El Borracho Burlado 16 Baña gure nutillac / aguiri eztera?*. J. K. Etxeberria, *Jesusen imitacioco...librubu* (1829): 12 *cergatic... cuidado gueyago duten, orregatic ascotan uts eguiten dute, ta provechu guchi, edo hatere ateratcen ez dute*. Lardizabal, *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira* (1855) jan ez det, *Atsedon etzuten, egin etzuen, e. a.* (ik. Azkue 1928: 348). Gr. Arrue *Manaren Gloriac**

(41) Mogelek berak ere aipatzen du Mendiburu, Larramendi, Kardaberaz eta Ubillos-en liburuen ezagutza (*Conf. eta comanico...*, 1800, "Eracurle euscalkunari itz-aurrecoa", viii, xiii, xv e. u.). Bestenaz, Mogelen Mendibururekiko zorrak ikus Altzibar 1991a, 1991b.

(42) Ik. de Rijk 1969, bereziki 329-333. Aita P. Altunak hau dio Mendibururen erabilera aztertu ondoren: "Ez du legerik aurkitu eta ez dut uste Mendiburuk berak lege finkorik zuenik, inoiz edo behin esaldi berean bietarikoak ageri bait dira nagusi", Altuna 1982, lxx.

(43) "Pues esta negación tiene dos significaciones, una corresponde al *no*, y otra al *ni*: en la primera significación siempre anda con las terminaciones, y delante de ellas, y nunca de parte del verbo, ya se anteponga, ya se posponga, v. g. *játen ezteç, ezteç játen, ecarri eztoç, eztoç ecarri, emanen eztaç, eztaç emanen*. En la segunda significación no viene de parte de la terminación, sino del verbo, *ez játen utzi dígi, ez edáten*, ni comer nos ha dexado, ni beber", *Arte*, 293-294.

(Azpeitia: P. Martínez, 1881) *ll Orregatic ere beti eguia esaten etzuan, eta aguin-dua beti betetzen etzuan.*

Hautetako batzutan, bai-ala-ezko galderetan adibidez, hitzordenaren bihurtetaren arazoia ez ote da estilo bilaketa erretorika baliabideak erabiliz?. Baiezkoan nago, Larramendik hitz eta egitura aldaketak eta figura asimetrikoak maite baititu (Lakarra-Altuna 1990: 46, 5. oh.).

Morfologiaren arloan, zenbait *exaugari* aipatuko ditugu laburki. Kasu atzizkiei dagokienez, giputz-euskarari bezala gipuzkera idatzian pluraleko datibo eta sozlatibo markak *-ai* eta *-akin* izan dira nagusi eta ez *-ei* eta *-ekin*, lapurteran legez. *-ai* idazten zuten Kardaberaz, geroago Iturriagak (vs Duvoisinek *-ei*) e. a., Mendiburuk izan ezik, zcinck 1751tik aurrera *-ei* idatzi baitzuen. Bigarrena idazle askok *-acquin* ezarri ohi zuten, Larramendik bere Gramatikan hola jarri ondoren, ustez etimologiaren eredurak. Hala ere, zalantzakortasun bat nabari da: Larramendik berak Azkoit. serm. *-acquin*, Mendiburuk *-acquin* eta *-acquin J. B. Dev.* 1747koan (1751tik aurrera *-equin*), nahiz Dodgsonek bere 1900eko edizioan *-acquin* ezarri erregulariki (ikus haren zerrenda, 456-466. or.)⁴⁴, Libillosek ere ez darabil beti. Berandu artekoa dugu zalantzakortasun hau: Bonapartek Iturriagaren *Jolasak* zuzentzerakoan *-acquin* jarzen du baina G. Arrueren *Bearguillearen arguia* (Tolosa: F. Muguerza, 1897) liburuan, bera hil ondoren argitaratua, kendu egiten da herori. Osozaletasun bera salatzen duela dirudi baita XIX. mendetik aurrerako *-aetan* inesibo pluralekoak ere, *-a* bukaeradun hitzetan (Lardizabal, G. Arrue). Destinatio boan gipuzkeran *-(a)(r)entzat* izan zen nagusi hasieratik, Mendiburuk aitortu bezala⁴⁵. Idazle honengan *-a* organikoaren ezabaketa kasuak agertzen dira (*J. B. Dev.* 1751ko ediziotik hasita) Ubillosgan eragina izan zutenak (*Chr. doct.* 28 *sas-arte*, 29 *camp-echecho*).

Aditz morfologiari dagokionez, oro har, Beterriko formak joan dira nagusituz gipuzkera idatzian. Pluraleko 3. pertsonako norik marka gisa *-te* (Larramendiren Gramatikan oraindik *déu(e)idute*) eta, ondoren *-n* datorrela, sing. *duen* /pl. *duten*, lapurteraz bezala (Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz, Mogel, Ubillos, Agirre Asteasuko e. a. *duan/duen*). Egia da, ondorik *-n* datorrela, *-u* eta *-o* bukaeradun adizkiek *-e* loturazko bokala hartzeko joera dutela gipuzkera idatzian (*duen*, *nuen*, *zuen*, adibidez Mendiburu, Lardizabal e. a.). Baina *-e* eta *-a* bukaeradunetan ez dago *-e* hobesteko hain joera garbirik: Kardaberazek *-a* jartzen du (*Aita S. Ignacioren... 15 luqueanac* vs Duvoisin *Lib. eder.* 41 *luqueenac*) eta Mendiburu zalantzakorra da, 1751 arte bederen (*J. B. Dev.* 1747 *den*, *dela*, *zen*, *zinan*, *ziran*... baina 1751an *-e* bukaeradunetan aldatu eta *-a* hobesteko joera du, adib. *ditequean*, *dezaquean*).

Nor eta nor-nork saileko aditz formetan, Larramendigandik hasita, *zera*, *zerate*, *gera*, *det*, *dezu*, *dezu(edezute)*, *du* (Gramatikan oraindik *deu*, aurreko gipuzkera zaharrean bezala) nagusitu bide dira. Hala ere, zalantza agertzen da Mendiburugan, nafarreraren eragina nabaria baita: *ceratzuru*, e. a., *detidut*, *deguidugu*, *dezu*, *dezu*

(44) *Jesusen Compañiaco A. Sebastian Mendiburuac Euscara: eracusten duen Jesusen Bihotzaren Devocion 1747 utetan* (Donostia: Antonio del Pozo, 1900 (H. S. Dodgsonek prestatua).

(45) "Aldi onetan aguerzen dian Libruac Guipuz-tarren buacera dute combait hitz-etan. Orretara oitua ez dagueñ Nafarrae aisa sar dezaque onen lecuari berea. *Guretzat*, edo *Jaincoarentzat* dira bu-dio Libruac, iracur beza *gureaco*, edo *Jaincoarentzaco* dire. Alda hitza guisa berean bere guisara, edo gogara arquitzen ez dituen beste combait, eta arquitaco du emen bere hitzquetta, ta minzoa". *J. B. Dev.* (1747). Zati hau ez da agertzen 1751ean Iruñean eluzturikoan, baina nafar joera erakutsiz zenbaitetan 1747ko gipuzkerako buacera aldatu eta *-(a)(r)entzaco* ezarri zuten (ikus aurrerago).

(*Otoitz-g. dezu, dezute*), baita beste idazki batzutan, oihartzuarraren edo lapurtarren eraginez. Nor-nori-nork sailean *diot, diogu, dizkit* (baina *-rau-, -rauzki-* erabiltzen zituen Larramendi bere idazkietan eta Mendiburuk *Otoitz-g.-en* pluralcan *derozkit* e. a. ere bai) nagusitu bide ziren, baina *-o* hartzailca bitartean sartzen delarik *-ozka-* ere erruz agertzen da, Larramendiren Gramatikako paradigmek babestuta.

Adizki trinkoak balioztatzeko eta erabiltzeko joera nabaritzen da lehen aldiko egi-leongan: Larramendi berak Azkoitiko sermoian, Mendiburuk⁴⁶, eta geroago Lardizabalek (*iardun* aditzarenak, esaterako) edo G. Arruek bere *Peru Abarka*-ren gipuzkerazko itzulpenean (*egon, egin* eta abarrenak, adib. *deguizquiola, deguizcetzu...*). Estilo bilaketak ere baduke honetan zerikusia.

Ortografia eta prosodia kontuek uste baino garrantzitsuagoak ziren Larramendi eta jarraitzaileentzat: haren Gramatikan hirugarren zatia osatzen dute, aurreko dotri-nagileak gaitzesten ditu ortografia txarragatik —esan bezala—, eztabaidak ditu Kardaberazekin... Honek Maisuaren esanak jaso eta arauak ezarri zituen *Eusqu. ber. on.-en*. Gainera, Larramendiren irizpideak eraginkorrak gertatu ziren jarraitzaileon-gan eta ondorengoengan (Mogel, Añibarro e. a.) puntu askotan. Aipa ditzagun hauc-tako zenbait, arazoa zehatzago aztertu beharko litzatekeen arren.

Batetik, Larramendi hasi zen *ts* eta *tz* bultzatzen (*Arte* 339, *Dicc. Tril.* xxxviii, *Corografía* 298), bere idazlanetan ere erabiliz (adib. Azkoit. serm.), nahiz zalantzan dabilen *n, l, r* ondoren. Kardaberaz jarraitu zitzaion (*Eusqu. ber. on.* 28, espresuki mintzo delarik honetaz). Haretz gero, hegoaldean txistukarion arteko bereizketa *s, z, ts, tz* grafien bidez egitea arauzkotzat jo zen, hala aitortzen duelarik Mogelek (*La hist. y geo. de España, Euskera* 1937, 20-21). Berak *tz* ifarraldekoengandik jaso bide zuen (Leizarraga edo Axulargandik, seguraski) eta nahikoa erregulariki erabili. Sabaiaurreko igurzkarri edo txetxekariari dagokionez, */s/, XVIII. mende hasieratik belar-rea, /x/, eta txetxekaria, /s/, x, j, g* grafien bidez hereizi ezinezko izanik, Larramendik *is* proposatu zuen (inoiz *ihsy* ere erabiltzen du, *Dicc. Tril.* xxxviii) eta Kardaberazek, Maisuaren lortzetetik, *x* baztertu eta *s* luzea nahiz bitua erabili, bide honetatik abiatu zirelarik gipuzkerazko idazle asko. Geroxago Agirre Asteasukok beste saio bat egingo du, *s* "txanoduna" ezarritz (txanoa inprenta-kontuengatik hurrengo bokalean jartzen zen), baita Añibarro eta Zabalak *sh* digrafoarekin, azken hau Iztuetak, Iturriagak e. a. jarraitua. XIX. gizaldi amaieran J. I. Aranek *s* arraia bat gainean duela bul-tzatu zuen, eta antzera R. M. Azkuek, harik eta S. Aranarekin *x* nagusitu arte.

*H-*ren erabilera (*h-, -h-*) zilegiztatu zuten Larramendi, Mendiburu eta Ubillosek —Axular eta lapurtarren eraginez—, erakusle, hitz homofono eta homografo nahiz lapurtarazko edo beste zenbaitetan (*hura, haren, han, hordue, humeac, behar, bi-hotz*, azken bi hauek Mendiburuk hederen beti), baina Kardaberaz jokabide honen aurka atera zen (*Eusqu. ber. on.*, 23). Ondorengoek *h* batez ere erakusle eta homografo batzutan erabili zutela dirudi. Adibidez, Agirre Asteasukok (esaterako, *Conf. eta comun.*, 2. ediz., 1823 39 *hori*, 42 *hitz*, 43 *Hirutara*, 44 *hura*), Fr. J. K. Etxeberriak edo G. Arruek (*Aita S. Ignacio Loyolaco gloriosoaren bicitza...* —Tolosa: Gorosabel, 1866— liburuan eta erakusleetan guttienez, nahikoa erregulariki, nahiz ez lainbeste *S. Genovevaren vicitza-n*).

Kontestu fonikoak eragindako bustiduraren sailean hegoaldean aspalditik erabi-

(46) Hogeitalau aditz berenikoiren adizkiak dakurtza Azkuek (1928a).

liak ziren *ñ* eta *ll* gaztelera-zkoak eta Larramendik beroriek *i*-ren ondorik erabiltzeko agintzen du, berak ere erabiliak salbu hitz bukaeran *i* bokalaren ondoren. Baina Kardaberazek *Eusq. ber. on.*-en alferrekoztat joaz kendu egiten du *i* hori bokalardi ondoko *ñ* aurrean (*beñ*), arazo honetaz eztabaida bat izan zutelarik (Tellechea 1968: 19).

B eta *v*-ri dagokionez, Larramendik jadanik euskararen ebakera jatorrari zegokiona *b* zela eta ez *v* defendatu zuen, euskaraz idazterakoan euskal hitzetan *b* eta gaztelera-zkoetan *v* erabili zuelarik, zalantza batzuekin. Irizpide honi jarraituz aldatu bide zuen Mendiburuk 1751an aurreko edizioan latinetiko hitzak idazteko erabili zuen *b*, eta *v* ezarri (*vici, vicitza, vide, valio, devocio*). Maisuaren ildotik, halaber, Kardaberazek euskarak berez gutti behar duela *v* adierazten du eta euskarazko hitzetan *b* hobesten (*Eusqu. ber. on.* 24-25) eta hori erabiltzen, adibidez *Ejercicioac* I. II. III liburuetan. Biok ezarritako banaketaz baliatzeko joera erakusten dute gipuzkerazko idazle askok. Etimologismoaren eragina handia izan zen, hala ere, eta Astarloak, Añibarrok eta Zabala bizkaitarrek *b* bultzatu arren berandu arte normalak ziren *vici, vide* eta gisa bereko idazkerak.

Grafia etimologizaleei dagokienez, gure idazleengan badaude ebakeraren aurkako zenbait grafia euskal hitz nahiz aditz formen elkarketa eta eratorpenean, Larramendik, euskaraz ahoz esan bezala idazten zela adierazi ondoren (*De la antigüedad*, 115), gaitzetsi zituenak (*Dicc. Tril.* xxvii). Talde etimologista ugarietak *itzquetza, itzqueta* moetakoa dira, zenbait idazlek onartu zituztelarik, adibidez Ubillosek, Axularren eraginez edo (*Chr. doct.* 102 *hitzeuntz*), edo geroago Fr. J. K. Etxeberriak (*Devociozco vicitzaraco sarrera*, Tolosa: F. de la Lama, 1821, "Advertencia" 3 *itzcuntzan; Jesusen imitacio... librubu*, Tolosa: La Lamaren alarguna, 1829 15 *itzquetan*). Etimologizaleetasuna hitz eta atzizkien arteko bereizketa grafikoa ere nabari da, Mendiburugan esate baterako, eta honen bidez Ubillosgan (*Chr. doct.* 32 *bazter-etan, famili-etatic*).

"Eufonia" bokaliko direlakoez, Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz eta Ubillosen liburuetan, lapurterazkoetan bezala, *-e, -i, -o, -u* hitz bukatuko nahiz barneko bokalak *-a* artikululukoarekin edo beste batekin elkartzean aldaketarik gabe idatzi ohi ziztuzten, hots, eufoniarik gabe, eta ondorengo ia guztiak ere ildo beretik jarraitu zuten, mende bukaera arte bederen⁴⁷. Bokal bituen edo berorien kontraziozko azentuaren fenomenoak ere, bizkaieraz Mogeldarregan hain arrunta, ez da ia ageri literatur-gipuzkeran, Ubillosgan edo izan ezik, nahiz bokal bituak giputz-euskara zaharreko testuetan eta Munibegan (*-aak*) usu dabilizan.

Azentuaren arloan, Larramendi izan zen teoriko nagusi eta bakarra: bere Gramatikako hirugarren zatia eskaintzen dio gai honi, luze eta zehatz arituz. Haren Gramatika eta Hiztegia azentuz beterik daude eta euskarazko idazlanetan ez du beti markatzen baina heraukek bat datoz bere teorickin. Haren arauak bere eragina izan dute azentu grafikoa markatzerakoan, bere jarraitzaileengan baino gehiago ondorengoenan. Adibidez, Kardaberazek guttitan markatzen du baina Ubillosek askotan⁴⁸ eta Hervás orpoz orpo jarraitzen zaio Maisuari, noski (*Catálogo*, V, 244). Ondorengoen artean Mendibururena zalantzakorra da *Irakurraldiak* deitu liburuan, P. Altunak dioenez (Burgosko dorrian ez da azentu markarik)⁴⁹. Añibarrok azentu Larramenditar eta

(47) Gogora, hala ere, Fr. J. K. Etxeberriari buruz esana, *-r* eta ondoko bokal arteko *b* Otxoa Arin (*Christabarri*) eta Larramendiren Azkarniko sermoinan ere ageri da.

(48) Ik. K. Mitxelena (1981a: 60) Ubillosek zein kasutan markatzen duen azentuz.

hereizgarria erabiltzen du *Escu-Liburua*-n (1802), nahiz 1821eko edizioan ezabatu egiten duen. Larramendiren eragina nabaria da bai ergat. sing. *-ác*, pluralekotik bereizteko (Mendibururen *Irakurraldiak* aipatuan, G. Arruegan, adib. aipatu *Bearguillearen arguia*-n), bai zenbait aditz forma sílaba bakarreko nahiz bikotian: *dá, dán, dirá, dirán, zán...* (bizkaierazko idazleengan, adib. Mogeldarrengan, Agirre Asteasu-koren 1823ko aipatu liburuan, erruz Fr. J. K. Etxeberriaren 1821eko liburuan e. a.).

Amaitu baino lehen, esan dezagun zerbait Mendibururen nafar joeraz, bai eta honek Ubillos eta beste idazle batzuegan izandako eraginaz. Askoren galdera eta zalantza da, izan ere, oihartzuarra giputz ala nafar idazletzat jo behar ote den. Fr. Mateo Zabalak *J. B. Dev.* nafarreraz kutsatutako gipuzkeratzat jotzen duela dirudi⁵⁰. Aita J. I. Aranak, S. J., 1882an (urte honetan hil zeneko mendeurren omenaldia egin zitzaion Mendibururi) *J. B. Dev.* herrargitaratu zuen, 1751ko edizioan oinarrituz baina gipuzkera kutsua emanaz⁵¹. Halaber Gr. Arruek hurren urtean "nafar eusqueraan aterazuan liburufic" izenburuan dakarrenez— moldatu zuela adieraziz, oihartzuarren liburua agortu xamar daudela eta gipuzkeraz ez direla ulertzen esanez (azken honek gehiegizkoa dirudi, holakorik ez baitio Mendiburuk, aitzitik bere eta J. I. Arananen "bergipuzkeratzé" edo berbihurketa on egiteko esana dirudi)⁵². Gure artean

(49) Altunak 1982ko hitzazterean arafixo bat du Mendibururen azentuaren erabileraz (*Irakurraldiak*), lxxv-lxxvii, ondoko kasuetan erabiltzen omen duelarik: *-ic* erg. sing., nominatibo pluraletik bereizteko; *-én* superlat.; *-ágo*, pluralcan; *-tasán* atzizkidunek, ergat. sing.; *-égi*; *-cótac*; hitz berean bi azentu dutenak (erg. sing. *ónac, onác*).

(50) "En Dialecto Guipuzcoano: 15. Jesusen biotz maitearen devocíon, del P. Sebastian de Mendiburu de la Compañía de Jesus, un tomo en 8^o impreso en Pamplona. Andan por separado las reglas de los cofrades, impresas en San Sebastian (en nascuence Donostia) por Bartolome Riesgo Montero en 1747. Su nascuence guipuzcoano mezclado con Navarro es tan bueno, que el P. Larramendi le escribió en el mismo idioma una Carta fechada en Loyola el 15 de Marzo de 1747, toda llena de entusiasmo y complacencia, al ver explicados con tanta pureza, propiedad y elegancia los asuntos de nuestra Santa Religion. Suele andar esta carta al principio de esta obra, y puede servir de ensayo y reseña de la perfección á que pudiera llegar nuestro idioma, si se tratase de cultivarle". *Noticia de las obras bascongadas que han salido á luz despues de las que cuenta el P. Larramendi* (teskuuzkribua). "Julio de Urquijo Hondoa", Gipuzkoako Foru Aldundiarren Biblioteka. Ohar bedi izenburu desberdina duela, ondoren aipatutako dugun edizioaren (1882) antzekoa, 1747 eta 1751ko edizioez gainera besteren bat ote dago?

(51) *Jesusen biotz maitearen devocíon. Jesusen Compañía-co Aita Sebastian Mendiburu-c egin, eta Aita Larramendi ta beste ascoren alabanzaric aundienakñ. bi aldiz argitaratu zuen liburu ederra: orain beccaro Jesusen Layuadi edo Compañi herero Aita Euscaldun batee, animen oneraco, arretaz icustatu, eta utsegíñac kenduric, obetu ta gettu duena*. Tolosan, Eusebio Lopez-en moldetegian, 1882-en urtean. "Orain bertiro irugarren aldiz animen-oneraco, argitaratzen, obetu da, utsegíntso batzuec kenduta, eta utzi ditugu-ere alde-batera librubaren azkencan arkitzen ziran San Inazio ta San Franzisco Jabier-en Bederatzaurrenac, ipifiric ayen-ordez beste gauza batzuec, oso Jesus-Beraren Bimzari ta bere Billera sagraduñ dagozicnac" ("Itzaurrea eta egillearen herri"). Ondoren, ohar bat jarritzen du paratzaileak, "Izeribaera edo ortografía", non ortografi aldaketak azalitzen baititu: "Orregait v, ch, ce, ei, gue, gni, que, qui-ordez, ipifñ dira b, ts, ze, zi, ze, gi, ku, ki; letra utsuetzco, mutu, edo ezerezitaraco-ere kenduric, J. I. Arana-en Jose Inazio-c".

(52) *Jesusen Biotzaren devocíon eracusteo Jesusen Compañía-co aita Sebastian Mendiburu-c nafar eusqueraan atera zuan liburufic D. Gregorio Arruec Guipuzcoacora itzulia* (Tolosa: Fr. Mugurtza, 1883). Hona hemen zer dioen Gr. Arruek: "Liburu au ezta nerec, espada Jesusen Compañíaco Aita Sebastian Mendiburu-c 1751 garren urtean arguitara emana: baña batetic Aita arc Nafar eusqueraan atera baitzuan, eta beragatic emengo euscaldun gueyenai aditzen etzayen, eta bestetic, liburu ayetacoric bat edo beste ozta arquitzen dan, artu det joya eder au Guipuzcoaco gure eusquera garbian emengo guciac erruz aditico duten eran ipitizuarren lan au, beste arazo ascotegin nastuena nagoan garayan;" ("Hitz-aurrea"). Hona hemen Mendibururen hitzak: "Galdu dira, euscarazco Liburic gabec, euscarazco aritz hitz; eta guelditu diranac, ez dituzte Euscaldun guciac aditcen. Ba dira Guipuzcoan, Nafar-tar guey-enac euscarazcoac izana gatic, aditcen ez dituzten hitzquetac; baita Nafarroan ere Gupuz onizat (sic) herriac diruditenac; eta Gupuzcoaco (sic), ta Nafar-tarren bazter batzuetan aditcen dira, beste ascotan aditcen ez diran cembait hitz-eguite. Non nái adi diezqueanac billatu ditut, al eguñean, arceen diudala orretaraco, euscaracnac uteric, beste cembait hitz;" ("Irakurleari").

haren euskara gipuzkera kutsuzko goi-nafarreratzat joa da, jaioterriko euskalkian oinarrituz (ik. Altuna 1982: lxxviii-lxix)⁵³.

Mendiburuk Loiolan zegoela idatzi zuen bere lehen liburua, *Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1745ean, Gipuzkoan ibili baitzen urte hartan misioak egiten, bukatu bezain laster Iruñera itzuli zelarik, egileak berak dioskunez *Igande eta Festegumetarako Irakurraldiak* liburuko hitzaurrean. Donostian argitara zuen lehenbiziko aldiz (Bartholomé Riesgo Montero, 1747), nafar kutsua izan arren gipuzkeratik hurbilago dagoen euskara-modu batean, eta handik lau urtetara Iruñean (Pedro Joseph Ezquerro, 1751)⁵⁴, nafar euskarako hitzak eta kasu-atzizkiak gipuzkerazkoen ordeaz jarritz, adizki batzu aldatuz, ordena eta estilo zuzenketak eginez, e. a. 1751ko edizio honetan 1747an Donostian eta argitaletxe berean ateratako egilearen bi liburu biltzen ditu: bata *Jesusen Bihotzarena* eta bestea *Kongregazioko Erregela* eta zenbait Bederatziurrenena⁵⁵ (azken hauek gero *Eusc. on. vic.* —1762?— liburu txikian ere atera zituen berriz). Zer dela eta atera zuen 1751eko edizioa? 1747koa agortu zelako ala berariaz beste edizio bat nafarrera kutsu handiagoaz atera nahi izan zuelako, edo arrazoi biongatik? Kontutan izaten badugu Nafarroan zuela bere egoitza eta hango Mendialdetik ibili zela batez ere (nahiz eta 1751 aurretik eta geroago ere Gipuzkoan misioak maiz egin, eta hauek urtean bizpahiru hilabetezkoak ziren, Aita P. Altunagandik dakigunez), nafarreraz idatzitako liburuak beharrago eta agian Iruñeko inprentetan erraztasun handiagoak zituakeela eta, noski, bere sorterriko hizkeraren kutsua maiteko zuela, orduan ulergarria dateke. Hirugarrena, *Otoitz g. mardula* ere, Madrideko egotaldian idatzia (1755-1756), Iruñan argiratu zuen, baita *Eusc. on. vic.*, hau, gainera, Iruñean bertan idatzia seguraski (Altuna 1982: xxx-xxxi).

Aipatu ditugu edizio batetik besterako aldakuntza nagusi batzu lexiko, morfologia eta grafia sailei ekitean. Bestelakoak ere badira (adierazteko era eta estiloa, hitz ordena...) eta beraz osoago eta zehatzago ihardungo dugu honetaz I. Eraskinean. Esan dezakegu, zehatzago azieritu beharko litzatekeen arren, Donostian ateratako liburuarekiko (liburuekiko?) aldakuntzak daudela Mendibururen euskara-moduan *J. B. Dev.* obraren 2. liburualdian (1751), berorietan egileak nafar joera areagotzen duela eta ondoko liburu argitaratuek (*Otoitz. g., Eusc. on. viciera...*) horren kutsu eta antz handiagoa dutela.

Azkenik, hiztxo bat Mendibururen eraginaz. Handia izan zen berau, batez ere Ubillosgan: grafietan (ik. gorago), hiztegian eta are morfologian. Adibidez, aurrerago aipatu hitz bikoitzetan nahiz oihartzuarraren kutsuko ondokoetan: *Chr. doct.* 9

(53) Hala ere, harrogarria da Oihartzunen egun bederen erabiltzen den *hai* kausazkoa Mendiburuk ez idaztea, Manuel Lekuonak ustez *Euskera* agerkarian edo, orain pogoatzen ez dudan alean zioenez.

(54) *Jesusen compañaioa A. Sebastian Mendiburuc euscaraz eracusten duen Jesusen Bihotzaren Devocioa*, 1747. urtean, Donostian, Bartholomé Riesgo Montero, Guipuzcoako Imprimatzalearen Echean.

Jesus-en compañaioa A. Sebastian Mendiburuc euscaraz eracusten duen Jesus-en Bihotza-ren Devocioa, Bi-garren aldian, Iruñean, Pedro Joseph Ezquerro, Libruguillea-ren echean. Urte 1751.

Edizio hakanak biak (Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko bibliotekan, "Julio Urquijo" bilduman ale hana aurki dateke).

(55) *Jesusen bihotzaren congregacioo reglac. Obispo Jaunaren manua: Jesusen compañaioa A. Sebastian Mendiburuc eginac. Jesusen bihotzaren. A. San Ignacoren. ta S. Francisco Xavierren Bederatziurrenenaquin*. Donostian: B. R. Montero, 1747.

- Lalinde Abadia 112, 134
- Landerretxe, Martín 177, 192
- Landucci, Nicolao 162, 165, 233, 251, 282-283, 291-292, 294, 298
- Lardizabal, Francisco Ignacio 168, 200, 204, 224, 242, 244, 329-332, 335, 337-338, 347-348
- Larramendi 285
- Larramendi, Francisco 5
- Larramendi, Manuela de 4-5, 33
- Lartegi, Beñal 241, 244, 315, 339
- Larreako 224
- Larrieca de Tovar, Consuelo 361, 371
- Larumbe, Jose de 13, 15, 255
- Laspiur, Imanol 270, 278
- Lavieuxville, Pedro Guillermo de 17, 233, 237, 243-244, 314
- Lázaro Carreter, Fernando 194, 205, 248-249, 261, 264, 311, 361, 364, 371
- Lêcluse, Fleury 283, 290, 308
- Legarde, G. 114, 134
- Legaz Lacambra 134
- Leizarraga v. Leizarraga, Joanes
- Leiza, Agustín de 3, 25, 337
- Leizarraga, Joanes 17, 224, 230-233, 235, 241, 255, 280, 283, 299, 316, 339, 347
- Leizaur 7
- Lekuona, Manuel 246, 265, 352
- Leopold, J. 367, 371
- Lesnyer, G. 113, 135
- Lewy 113, 134
- Lhande, Pierre 244, 283, 304
- Lizaraza, A. 323
- Lizardi, (Jose Maria Agirre) 161, 170, 172
- Lizarraga Elkanokoa, Joakin 230, 242-243, 330, 345
- Llwyd 280
- Lope Blanch, Juan Manuel 194-195, 205, 311
- Lopez 315
- López de Haro, Diego de 109
- López de Zandátegui, Cristobal 82
- Los Arcos Elío 236
- Losada, Luis de 9-10, 18-19, 22, 33
- Loyarte, A. 109, 134
- Ludovicus Magnus 186
- Luis I 12, 44
- Luis XIV 185
- Luisa Miserikordiakoa 158
- M**
- Madera 289
- Madrigal, Alonso de ("el Tostado") 105, 138, 140
- Maister, Martín 231, 315
- Malkiel, Yakov 303, 309
- Mañaricua y Nuere, Andrés 103, 106, 134
- Mañé y Flaquer 146
- Manier 53
- Manjón, Sebastián 13
- Manrique 23
- Manterola 172, 225, 245
- Manuel 5
- Manuel de Garagoni 6
- Manuela 5
- Manzoni, 375
- Manutius 188
- Maravall, José María 113, 134
- Marca 111
- Marchese, A. 323
- Marco Fabio Quintiliano 364
- Margarita 4, 10
- Maria Ignacia 6
- Maria Josefa 5
- Mariana 15, 106, 160
- Mariana, Juan de 65
- Marie 178
- Marin, Michel Ange 315
- Maronginea 85
- Marongiu, A. 89
- Martin 5, 178
- Martínez de Isasti, Lope 102, 107, 109, 111, 134

Martínez de Zaldivia, Juan 36, 102, 106, 109, 134
 Martínez Díez, G. 78, 89
 Masdeu 19
 Masselin 112
 Materre 231-233, 314
 Mathieu 190
 Mañilla, J. 188, 192
 Mayans, Gregorio 15, 22, 154, 159, 251, 288
 Mendiburu, Sebastián de 9, 19, 22-23, 25-26, 32, 35, 41-43, 45-47, 59, 75, 156, 158, 165, 167-168, 171-172, 224, 227, 239, 306, 325, 327, 331-341, 344-353, 358, 379
 Mendizabal 34
 Mendizabal, F. 330, 335, 359
 Mendizabal, Juan Bautista 26
 Michael, I. 189-190, 192, 205
 Michelena, Luis v. Mitxelena, Koldo
 Miguel y Romero 117
 Mihura 231, 242
 Mikelestorena 167-168, 345
 Mikoleta, Rafael 200, 235, 280-281, 307, 347
 Mimendi 7
 Miner, aita 30, 33
 Miner, Antonio de 7
 Miner, Miguel 41
 Miquel i Vergés, Josep M. 289-290
 Miranda, Francisco 18, 20
 Mitxelena, Koldo 11, 15, 21, 26, 28, 40-41, 48, 92-93, 100, 105, 134, 141, 153-165, 167-171, 173, 179, 192, 195, 205, 224, 228, 235-236, 238, 243, 246, 250, 252, 264, 267, 281-283, 285-286, 291-294, 297-298, 302-303, 305, 307, 309, 311, 314, 321, 323, 332, 335, 338, 342, 344-345, 350, 359, 375, 378
 Mogel, Bizenta 224, 329, 332, 338
 Mogel, Juan Antonio 98, 146, 224, 229, 236-237, 243, 244, 285, 307, 326, 328-329, 333, 335, 338, 341, 344-347, 349, 353
 Moguel, Juan Jose 224
 Moguel, Doctor 51
 Molina, Luis de 65, 117
 Moncey, General 75
 Monreal Zia, Gregorio 104-105, 107, 112, 135, 148, 367, 377
 Monreal-Wickert, J. 371
 Montesquieu 66
 Morales 106
 Moret, José de 104, 106, 111, 135, 172, 233-234, 256
 Mugarregui, I. 80, 89
 Mujika Iraola, Inazio 358
 Mujika, Plazido 172, 224

Munibe, Javier de 66, 156, 173, 334-335, 347, 350, 355
 Murillo Velarde 32, 110
 Muxika, J. 224

N

Napoleón 75
 Navarrete, Fernando 8
 Navascués, Rafael de 79
 Nebrija, Elio Antonio 189-190, 192, 194, 196, 202, 205
 Neoburgo, Ana de 255
 Neoburgo, Mariana de 16, 19, 30, 41, 44, 65-66, 99, 256
 Nihederche, H. J. 311
 Nino 106

O

Oberlin, J. 248
 Ocampo, Florián de 105
 Oihartzabal, Beñat 193-194, 205, 281-282, 289, 311, 359
 Oihenart, Amauld 22, 101, 106, 111, 118, 155, 160, 166, 172-173, 193-194, 200, 203, 205, 224, 231, 233-235, 245, 256, 258, 281, 311, 320
 Olabide 171-172, 224
 Olaso, Miguel de 104
 Oleaga, Nazario 223
 Olivares, Conde-Duque de 94
 Oliver, Antoni 288
 Oñate Sagastizabal, F. de 101
 Orkaiztegi 222, 246
 Ormaetxea, Nikolas ("Orixe") 171, 224, 245, 284, 311
 Oroz Arizcuren, Francisco Javier 280, 311
 Ortiz de Zarate, R. 95, 135
 Osorio, Carlos 56
 Ossorio 159
 Otacgi, Agustín 336
 Otxoa Arin 336, 338, 350
 Oudin, Jean 283
 Oxobi, (Jules Moulrier) 224
 Oyangueren, Melchor 281, 313
 Oycnard, Jacobo d' 242
 Oyharçabal, v. Oihartzabal
 Oyhenart, v. Oihenart

P

Padley, G. A. 194, 205
 Pagola, Ines 285, 311

Pagola, Rosa Miren 377
 Palacios, Francisco Antonio de 236, 238, 334
 Pasqualino, Michele 248
 Passicot 191
 Patiño 96, 123
 Paüter, Johannes van 188
 Peillen, Txomin 282, 311, 319-323, 336
 Peñafloreda, v. Munibe
 Peñalosa, Pedro de 339
 Pensado, José Luis 249, 311
 Percopo, Gabriela 133
 Perca, Xabier 223
 Pérez Gaztelu, Elixabete 378
 Pérez y López, A. X. 117
 Pérez y Pérez 117
 Perottus, Nicholas 188-190
 Petit, C. 87, 89
 Petrus Helias 189
 Picard, Aimery 280
 Platone 155
 Pop, Sever 248, 250, 251, 264
 Porquerus, A. 316, 323
 Port-Royal 200-202
 Portal 283
 Portillo, José María 78, 82, 84, 89
 Posada 252
 Pot 112
 Pott, A. F. 367
 Pouvreau, Silvain 208, 219, 231, 242-243, 245, 280, 283, 285, 293, 302, 305-306, 378
 Poza, Andrés de 105, 111, 118, 135, 172, 233-234, 256, 258, 280
 Prado 18
 Prelot, M. 113, 135
 Priscianus 189-190, 195, 199, 201, 202

Q

Queixalos, F. 368, 370
 Quemada, Bernard 297, 311
 Quilis, Antonio 189
 Quintiliano 262

R

Rávago 19
 Real Sociedad Bascongada de Amigos del País 173, 287
 Regisko Franzisko 22
 Reina 15, 18, 31-32
 Reina viuda, v. Neoburgo, Mariana
 Rexac, Baldiri, 287, 290
 Rey(es) Católico(s) 125, 141

Rey Don Alonso 109
 Ribera, Hernando de 81
 Rica, Margarita 315, 323
 Rijk, Rudolf P. G. de 342, 347, 359
 Río, Angel del 248, 250-252, 265
 Robin, Jean 316, 377
 Robins, R. H. 195, 204-205
 Roca, Guillem 288
 Rodríguez Ferrer 28
 Rodríguez Mohedano 327
 Rodríguez, Alfonsa 315
 Rojo, Guillermo 194, 202, 205
 Ros, Carles 288, 290
 Rousseau, J. J. 66, 113, 142, 367, 371
 Rousselot, abbé 248
 Ruiz de Larrinaga, fr. Juan 102, 105-109, 135

S

S. Agustín 158
 Saint Pierre, Jean 224
 Salazar de Mendoza, Pedro 106
 Salazar y Castro, Luis 103, 109
 Salgado de Somoza, F. 72, 126-127
 Samuel 115
 San Francisco de Sales 314
 San Isidoro 105, 120
 San Jerónimo 105
 San Martín, Juan 284, 311
 Sánchez Agesta 113, 135
 Sanctius 194-195, 199, 201
 Sarasola, Ibon 92, 135, 225, 228, 230, 243-244, 246, 267, 281, 284, 286, 290, 292, 304, 306, 311, 326-327, 331, 337, 338, 360
 Sarmiento, Martín 249-250, 261
 Sarrihandy, J. 193, 205
 Sarraoa, Rafael 16
 Sbarbi Osuna, José María 191, 279, 286, 294, 296, 309
 Schlegel 367
 Scupoli, Lorenzo 314
 Sears, D. A. 371
 Segarra, Mila 312
 Seguroola, Iñaki 246
 Seneca 321-322
 Sevilla, Isidoro 155
 Seyssel, Claude de 112
 Siculo, Marineo 280
 Smith, Adam 367
 Sobcranas, Amadeu J. 287, 290, 310, 312
 Soloeta 245
 Sommervogel 28
 Soraluze, Nicolás de 28

Sorarrain 245
 Soroa, Marcelino 358
 Soto, Domingo de 65
 Soto-Michelena, María Jesús 312
 St. Cyrán 66
 St. Tomás 72
 Suarez, Francisco 65, 72, 113, 126-127, 139
 Sulpitius 189-190
 Swinburne 53

T

Tartas, Juan 230, 235, 240-241
 Tejada, Elías de 28, 80, 82, 88, 92-93, 96, 101-109, 123
 Tellechea Idigoras, José Ignacio 3, 5-6, 10-12, 16, 19, 24-26, 40, 48, 69, 74, 77, 89, 92, 96, 101, 104, 127, 135, 137, 163, 169, 187, 237, 254-255, 265, 344, 350, 358, 360, 379
 Thiébaux 194
 Togores i Zanglada, Josep 288
 Toledo, Ana 333
 Tomás y Valiente, Francisco 94, 135
 Tostado, Alfonso 126-127
 Tovar, Antonio 78, 89, 92, 135, 251, 265, 289, 363, 367, 370, 372
 Túbal 101, 105-107, 118

U

Ubillos, Juan Antonio 7, 168, 236, 240, 242-244, 327-328, 332, 335-337, 339-341, 343-344, 346-348, 350, 352
 Ulibarri, José Pablo 287
 UNED-Bergara 270, 278
 Urgell, Blanka 237, 246, 283-284, 290, 294, 304, 308, 310, 312, 378
 Uriarte, José Antonio 224, 331
 Urkixo v. Urquijo
 Urkizu, Patri 160, 252, 265, 280, 283, 303, 306, 312, 315, 323, 377
 Urquijo, Julio de 162, 171-172, 177, 180-188, 192-193, 223, 225, 245, 279, 281-282, 286, 294, 296-298, 309, 312, 314, 324
 Urquijo, Mariano Luis 328
 Urte, Pierre d' 160, 166, 168, 173, 191, 200, 208, 217, 219, 231, 252, 280, 283, 285-286, 297, 303, 305, 313, 323, 378
 Usos 335

V

Val Atvaro, J. F. 362, 372

Van Eys, Willen 204, 224
 Vargas Ponce 102
 Varron 199
 Vater, J. S. 361, 367
 Venturino 280
 Vergara 16
 Vergilius 187
 Villarreal 280
 Villasante, Luis 17, 28, 92-93, 98, 135, 179, 180, 185, 192, 212-216, 219, 222-223, 225-226, 229-232, 235-236, 243-244, 246, 284, 286, 289, 312, 329, 332, 360
 Viñaza, Conde de la 368, 372
 Vinson, Julien 180, 190, 192, 232, 283, 299, 302, 312
 Viterbo, Annio de 105
 Vitoria, Francisco de 65
 Vulcanius 280

W

Walton, Brian 367
 Whitinton 189-190
 Wilkinson 53
 Wittmann, H. 363, 372
 Wordsworth 316

X

Xaho, Agustín 105, 157, 173, 283
 Ximénez de Rada 105
 Xurio, Michel 233, 235, 241, 242, 314

Z

Zabala, Mateo 200, 204, 224, 284, 328-329, 335, 349-351
 Zabala, Antonio 328
 Zabaleta, Mikel Ignazio 328
 Zaldibia 105, 172
 Zamakola, Joan Antonio 329
 Zapata, Lupián 109
 Zarralde 223
 Zavala, v. Zabala
 Zeballos 140
 Zelaleta, Angel 281, 312
 Zipitria, Elvira 223
 Zuaza, Pio de 249
 Zuazo, Koldo 193, 282, 312
 Zumalacarreui 146
 Zumeta, Maria de 4

III. Mendeurrenaren kronika

Euskaltzaindiak, Andoaingo Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak parte-hartu zuten mendeurrenaren antolakuntzan. Erakunde guztion partaidetza gihartu eta antolakuntza burutu ahal izateko Batzorde Programatzaile bat eratu zen, non erakundeetako ordezkariak mendeurrenaren bultzatu beharreko iharduera eta ekintzak erabaki zituzten. Aurrez, iada, Euskaltzaindiak Andoainen, abenduan, bere III. Gramatika Jardunaldi eta XII. Lexikologi Jardunaldiak egitea erabaki zuen, horiek tajutu ahal izateko "Larramendi" Batzorde suntsikorra sortu zuelarik bere baitan. Mendeurrenaren antolakuntzaz arduratu zen Batzorde Programatzaileak lau bilera nagusi egin zituen antolakizunen programa erabaki artean. Andoainen egindako lehen bileran, besietik, Manuel Larramendiren bizitza eta obrari buruzko erakusketa antolatzearen eginkizunaz arduratuko zen bigarren Batzorde bat eratu zen. Erakusketarako batzorde honek hiru bilera nagusitan osatu zuen xede zuenaren erabakia. Ezinbesteko gertatu zen ere, zertutako programa antolatu ahala, beste erakunde batzuren lankidetzaz baliatzea. Horrenbestez, zilegi bekigu Deustuko Unibertsitatearen, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Donostiako "Doctor Camino" Liburutegiaren lankidetzak aipatu eta eskertzea.

* * *

Mendeurrenako ekintza eta ospakizunak honako ataletan banatu ziren: Erakusketa, Hitzaaldiak, Argitalpenak eta Goratzarreko ospakizunak. Lau hauek gain, bereizturik gogora behar ditugu aurretik aipatutako Euskaltzaindiaren III. Gramatika Jardunaldiak eta XII. Lexikologi Jardunaldiak, Euskararen Aholku Batzordeak Larramendiren omenez Andoainen egindako bilera eta abenduaren 23ko Euskaltzaindiaren Agerizko Batzarre Irekia eta, azkenik, Andoaingo Udalak José Ignacio Tellechea Idígoras jaunari emandako Andoaingo Domina. Ihardun guztiauen bila-kaeraz ondokoa adierazi lege dugu:

Hitzaaldiak: ez dugu aipatu beharrik izango, segidan emandako hitzaaldien zerrendaren argitara antzemango bait zaio, zein aparteko garrantzia izan zuen antolatutako hitzaldi sortak. Urri, azaro eta abenduan zehar egin ziren Donostia, Gasteiz, Deustu eta Andoainen.

Has gaitezen Donostian. Urriaren 29tik 31ra bitartean egin ziren Deustuko Unibertsitatearen E.U.T.G.ko hitzaldi ardoan; hitzaldi sortari Joseba Arregi Aranburu Kultura Sailburuaren hitzez eman zitzaion hasiera, eta ondokoak dira Donostian hurrenez-hurren eskaini zirenak:

- "Perfil humano de Larramendi". Jose Ignacio Tellechea Idígoras irakasleak.
- "Larramendi dialektogilari", Rosa Miren Pagola irakasleak.

- “Larramendi Mitxelena-ren begietan”. Elixabete Perez irakasleak.
- “Larramendiren bizitza”, Patxi Altuna irakasleak.
- “XVIII. mendeko hiztegi-gintza”, Joseba Andoni Lakarra irakasleak.
- “Larramendi euskaldun berritua”, Patxi Altuna irakasleak.
- Donostiako saiolari amaiera emanez, mahaingurua bildu zen Gipuzkoako Kutxaren hitzaldi aretoan. Gaia, “Larramendi euskalari” izan zen eta Rosa Miren Pagola, Patxi Altuna, Elixabete Perez eta Joseba Andoni Lakarra irakasleek parte hartu zuten.

* * *

Donostiarako, Ibon Sarasolaren “Larramendiren eraginaz” hitzaldia iragarria zegoen arren, euskaltzainak ez zuen bertaratzetik izan, eta, adierazi legez, Patxi Altuna jaunaren “Larramendi euskaldun berritua” hitzaldia eskaini genuen.

* * *

Gasteizen, berriz, ondokoak izan ziren azaroaren 6tik 9ra EHU/UPV-ko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean egin ziren hitzaldiak:

- “Larramendiren bizitza”, Patxi Altuna irakasleak.
- “Larramendiren gramatika eta gramatikagintza-ren historia”, Ricardo Gómez irakasleak.
- “Larramendi euskaldun berritua”, Patxi Altuna irakasleak.
- “Larramendi aurreko hiztegi-gileak”, Joseba Andoni Lakarra irakasleak.
- “Larramendiren hitz eraketa”, Miren Azkarate irakasleak.
- “Axukar eta Larramendi”, Blanka Urgell irakasleak.
- “Larramendi eta literatur gipuzkera”, Xabier Altzibar irakasleak.
- “XVIII. mendeko hiztegi-gintza”, Joseba Andoni Lakarra irakasleak.
- “Larramendi eta Etxeberri Sarakoa”, Gidor Bilbao irakasleak.
- “Larramendiren eragina Iparraldean”, Patri Urkizu irakasleak.
- “Manuel de Larramendi: de “imposible vencido” a posible vencedor”, Pablo Fernandez de Albaladejo irakasleak.
- “Larramendi: “plenitud y crisis del Régimen Foral”, Gregorio Monreal Cia irakasleak.

* * *

Goian azalduetakoz gain, beste hiru hitzaldi gehiago ere iragarrita zeuden, baina hizlariak, azken orduko gorabeherak bitarte, ez zuten horienik eskaintzerik izan. Hala, Ibon Sarasolaren “Larramendiren eraginak”; Ines Pagolaren “Larramendi XX. mendearen hasierako Gipuzkoako testuetan” eta Jon Juaristiren “Larramendi y las ideas políticas de su época” hitzaldiak ez genituen, azkenik, eskaini. Horietako baten ordez, M. Brea Claramonte irakaslearen “Las ideas lingüísticas del siglo XVIII en Lorenzo Hervás: la descripción de las lenguas del mundo” hitzaldia eskaini zen, Jon Ortiz de Urbina irakasleak irakurria.

* * *

Deustuko Unibertsitatean azaroaren 26tik 29ra bitartean egin ziren Larramendi-
ren pentsakera politikoari atxekituago iragarrita zeuden hitzaldiak:

- “Manuel Larramendi: de “imposible vencido” a posible vencedor”, Pablo Fernández de Albaladejo irakasleak.
- “Perfil humano de Larramendi”, José Ignacio Tellechea Idígoras irakasleak.
- “Larramendi: fuerismo y prenatalismo”, Antonio Elorza Domínguez irakasleak.
- “Las ideas lingüísticas del siglo XVIII en Lorenzo Hervás: la descripción de las lenguas del mundo”, Manuel Brea Claramonte irakasleak.
- “Larramendi: plenitud y crisis del Régimen Foral”, Gregorio Monreal Cia irakasleak.
- “Actualidad y vigencia del pensamiento larramendiano”, Xabier Arzalluz Antia irakasleak.

Azaroaren 29an, “Larramendi y los fueros vascos” gaipcan, mahaingurua egin zen. Moderatzaile José Ramón Scheiffler jauna izanik, bertan, Xabier Arzalluz, Gregorio Monreal, José Ignacio Tellechea eta Mikel Unzueta jaunek parte hartu zuten.

* * *

Andoainen, azkenik, mendeurreneko ospakizunen artean abenduaren 17tik 19ra egin ziren hitzaldiak Udaletxean. Hiru hitzaldi eta mahai-inguru batez eman zitzaion amaiera mendeurreneko hitzaldi sortari. Ondokook izan ziren:

- “Perfil humano de Larramendi”, José Ignacio Tellechea Idígoras irakasleak.
- “La Guipúzcoa de Larramendi”, José Ignacio Tellechea Idígoras irakasleak.
- “Larramendiren bizitza”, Patxi Altuna irakasleak.

Esan bezala, azken eguncan mahaingurua izan zen. “Larramendi euskalari” gaipcan eta Patxi Altuna jauna partaide-moderatzaile izanik, Elixabete Perez, Rosa Miren Pagola eta Blanka Urgell irakasleak izan genituen bertan.

* * *

Euskaltzaindiaren “Larramendi” batzorde suntsikorrek antolatuturik, eta mendeurreneko hitzaldi sorta amaituta, abenduaren 22an, lau ikertlek Larramendiren bizitza eta obrari buruzko bere txostenak irakurri zituzten Andoainen, Euskaltzaindiaren XII. Lexikologia jardunaldiak bukatu ostean. Horrela, bada, ondorengo txostenak eta atzetik ekarri zuten eztabaida-solasaldia entzuteko aukera izan genuen:

- El imposible vencido* obrari buruz, Ricardo Gómez irakaslearena.
- Diccionario Trilingüe* obrar, Joseba Andoni Lakarra irakaslearena.
- “Larramendiren eraginaz”, Ibon Sarasola irakaslearena.
- “Larramendi euskaldun berritua”-z, Patxi Altuna irakaslearena.

Garbi asko azaltzen du eskaini dugun hitzaldien zerrenda honek zein neurritan aztertzen ari diren egungo ikertzaile eta irakasleek Larramendi andoaindarraren bizitza eta obra. Ezin dugu amaitutzat eman hitzaldiei dagokien ataltxo hau bereziki gure eskerrona adierazi gabe hitzaldien programakuntza eta antolakuntzaz arduratu ziren Patxi Altuna eta Joseba Andoni Lakarra irakasleei, ordu luzez aritu bait ziren azken unerarte atze-aurreak batzen.

* * *

Erakusketa: erakunde antolatzaileek bidezko eta beharrezkotzat jo zuten Manuel Larramendiren bizitza eta obrari buruzko erakusketa ibiltari bat antolatzea. Behin erakusketa horren edukina eta egitura zein izan behar zuen erabakirik, Donostiako "K6 kultur ikerketa eta zerbitzuak" enpresari eman zitzaion Donostian, Gasteizen, Deustun eta Andoainen antolatu beharreko erakustaldien itxuraketa eta antolakuntzarako ardura. Hiru ataletan banatu ziren bistaratu beharreko erakuskinak: batetik, Manuel Larramendik idatzitako obra guztien edizio guztiak erakutsi ziren, nola baita ere andoaindarra eta haren obrak idatzitako ia bibliografia eta artikuluko kopuru osoa. Liburu mardul hainbatez osatutako bibliografia ugari hau Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren ondaretik ekarri genuen, eta bertako bibliotekari den Jose Antonio Arana Martija euskaltzainaren egitekoa izan zen bilketa lana.

Bisitarietara Larramendiren bizitza eta obraren berri emateko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak here "Bidegileak" bildumarako argitaratutako *Manuel Larramendi* liburuxka hormairuditara hedatu genuen, hormairudiak liburuak gordetzeko beirararen gainetik ipini zirelarik. Liburuxka honen beraren ale bana bisitari guztietara banatu zitzaion antolatzaileek erakusketarako inprimatu zuten katalogoarekin batera. Aipatu liburuxkaren testua, Andres Alberdi irakasleak idatzitakoa, katalogoan ere gaztelarazko itzulpenaz argitara eman genuen, egoki izan bait zitekeen euskararik ez zekiten bisitariarentzat.

Azkenik, erakusketa ikonografia eta ikusentzutezko materialez gorpuztu zen. Ikonografiaren atala, Donostiako "Doctor Camino" Liburutegiko Manuel Larramendiren oleo batez —A. Valverde-k pintatua eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren ondarekoa— eta Andoaingo Udaletxeko erretratuaz osatu zen —azken hau ere oleoa, baina egile ezezagunarena—. Ikusentzutezko atalari, Mikel Arregi jaunak egin eta utzitako bideofilme batez heldu genion.

Lehen esan bezala, erakusketa ibiltaria antolatu genuen, urritik abendura bitartean zabaldu zena Donostia (Doctor Camino bibliotekan, 1990, urriak 29/Azaroak 3; Gasteiz (EHUaren Filologia-Fakultatean, 1990, azaroak 6/9); Deustun (jesuiten Unibertsitatean, 1990, azaroak 26/29) eta Andoainen (Urigain Kultur Etxean, 1990, abenduak 14/23). Hitzaldi sortarekin batera zabaldua izateko pentsatua izanenez, aipatu lau hirietan ehundaka bisitariak izan zuten berari ikusteko aukera tokian-tokiko hitzaldiak hasi ahala —1300en bat bisitariak ikusi zuten—. Hala ere, mendeurrena amaitua izan arren, etorkizunean izango bide da herriz aukerarik Euskal Herriko beste ezin batzer eta herritan erakusketa hau antolatzeko.

Atal hau ixteko, zifegi da eskerroneko aipua egitea Jose Antonio Arana Martija eta Roman Berriozabal jaunen alde, beraien lanak egin bait zion bide erakusketa osatzeko ahaleginari. Eskertzekoa Donostiako "K6" enpresak egin zuen itxura ederreko lana ere, erakusketara bertaratutako bisitarietara aho batez "dotore eta kalitatezkoa" kritzi bait zioten.

* * *

Argitalpenak: argitalpenen atala izan ohi da denboraren poderioz, gisa honetako antolakuntza batean, garrantzirik haundiena bereganatzen duen atala, iragankortasunetik at betikotasunak eman ohi bait dio garrantzi hori. Manuel Larramendiren jaio-tzaren hirugarren mendeurrenean, lau argitalpen iragarri zituzten antolatzaileek. Dena den, bost dira hemen aipatuko ditugunak:

Bidegileak. Manuel Larramendi. Erakusketaz hitzegiterakoan aipatua, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak argitaratua digu berau. Idazkaritzak dohan eskaini zigun Andres Alberdiren testuaz hornitutako liburuxka hau mendeurrenean zehar Erakusketan eta Andoaingo herrian banatzeko aukera. Liburuxkaren zabalkundeak bisitari eta herritarren arten harrera aparta izan zuela esatearekin bat, eskertzekoa da Idazkaritza horren ekimena.

* * *

Manuel Larramendi: euskal testuak. Zalantzarik gabe, azken urteotan Manuel Larramendi euskalariaz egin den ekarpenik bikainena dugu berau. Patxi Altuna eta Joseba Andoni Lakarra irakasleen eskutik heldu zaiguna. Artikulu honen atariko hitzetan aipatua, ikerketa lana aurkikuntza saioei uztartuz osatutako liburu honek Larramendik euskaraz landutako testu bilduma dakar. Ekarpenik bikainena diogu, eta ez alperrik, liburuaren paratzaileen hitzez ondokoa baita da berau argitaratzearen arrazoietariko bat:

“(…) Batek haino gehiagok uste bide du, eta dagoeneko berekiko esan ere, apeta edo burutazio bitxi eta burugabe berriren baten aurrean dela; izan ere ez ote digute makinatxo bat bider esan eta berresan ikertzaile ospetsu eta omen handikoei Larramendik erdaraz idatzi zuela, ez euskaraz, bere helburuei omen zegokien legez, eta euskaraz idatziaz esenplu eman beharrean gramatika eta hiztegia utzi zizkigula, euskaraz idazteari soilik bere Mendiliburu eta Kardaberatzek ekin ziotela?”

Nekez onar dezake honelako ikuspegi erraxzale eta historiari landakoa gramatiketik eta hiztegiatik beren garaiko idazmoldean izan dezaketean erabateko garrantziaz neurriren batean jabetua denak, (...)”¹.

Beraz, “Euskararen defentsan gazteleraz idaztea”, apologetikoki idaztea ere, behin eta birritan leporatu zaion Larramendik euskaraz egin zuen lanaren neurri eta kalitateaz jabetzeko aukera eskaintzen zaigu liburu honetan, eta, bidenabar, baita gazteleraz hain naharoki idaztearen arrazoietarikoren bat ere lerroartean.

Bihoakie, bada, gure eskerrona mendeurrenko hainbat eginkizunen ardura hartzeaz gain, liburu hau osatzeko eguneroko lanorduei denbora gehituz hain lan balioetsua ondu duten Patxi Altuna eta Joseba Lakarra ikerleei.

* * *

Manuel Larramendi: bizitza eta obra. Andoaindarrok Larramendiren ohorez mendeurrenara egindako ekarpena dugu honakoa. Xabier Lasa Bergara gazteak idatzi eta Andoaingo Udalak, saiakera laburren idazketa sustatzeko bere ekimenari hasiera emanez, 1991an argitaratu zuen. Gure eskoletan diharduten ikasleei zuzendutako saiakera da hau, idazkera ulertzerrezean andoaindarraren bizitza eta obraren deskribapena egiten duena. Egileak bikainki bildu eta itxuratutako lana, badu berezkitasunik: Larramendiren bizitza, gizatasuna eta obraren zantzua egun arte eskura diren obra, iruzkin, berri eta xehetasunen arabera dagokion osotasunean azaltzen digu, josulagunaren ihardun eta alderdi guztiak idazlan bakar honetan

(1) Ikus Joseba A. Lakkarraren aintzinsolasa, 7. orr., in *Manuel Larramendi. euskal testuak*. Andoain: Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Aldundia eta Andoaingo Udala, 1990, Edizioaren prestatzaile: Patxi Altuna eta Joseba A. Lakarra.

bateginda. Egilea beraren hitzetan, Larramendi aztertu duten jakitunen aldean bere lana apala gertatzen den arren, bere ahaleginak izan du xede zehatzik: euskaldun gazteria Larramendiren lanaz jabetzea. Badu bai xede zehatzik, malkorrear gora ibiltzekoa ordea.

Manuel Larramendi: hirugarren mendeurrena. Eskuarlean duzun liburuaz eman nahi diote antolatzaileek amaiera hirugarren mendeurrenako argitalpenen atal honi. Larramendiren bizitza eta obraz egun euskaldun gehienok dakigun gutxi hori osatu eta zabaltzeko izango bada ere, ezinbesteko deritzogu bidebatez Larramendiren obraren gainean urte luzez izandako auriritzi gaitzeskor oro arbulatzeko lanabes izateari.

Azkenik, ezin ahaztu Manuel Larramendik izan duen ikerle eta zuzpertzailerik nagusienetako batek mendeurren honetara egindako ekarpena. José Ignacio Tellechea Idígoras jaunak 1991ko irailean aurkeztu zuen Donostia Gipuzkoa Kutzaren "Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones" argitaldariaaren eskutik Larramendiri buruz eskaini digun laugarren liburua, *Escritos Breves* izenburuaz. Tellecheak Larramendiren idatzi laburrez osatu du obra, hala Agustín Leiza andoaindarrarekin izandako eskutitz-trukea —Ihena Argentinan bizi bait zen—, Agustín Leitzaren testamentua —gogora bere diruez eraiki zela Andoaingo San Martín Parrokia, Larramendi izendatu zuelarik eraikuntza lanen eragile—, Galicanismo eta Jansenismoari buruzko bere idatziak eta beste hainbat gai jorratzen duen idatzi sorta luzea. Andoaindarrari hogeitazortzi urte luzez eskainitako lan etengabeak ez du agortu, nonbait, Tellechea jaunaren larramendizaletasuna.

* * *

Gorazarreko ospakizunak eta Euskaltzaindiaren Jardunaldiak. Larramendiri omenaldi zahala eta ohorezkoa eskaini nahi genion Andoainen. Horretarako hitzaldiak eta erakusketa saihestu gabe, antolatzaileek ekintza kultural zenbaitzu antolatu zituzten. Euskaltzaindiak, lehen esan bezala, Lexikologia eta Gramatika Jardunaldiak, eta abenduaren 23ko gorazarreko Batzarre irekia antolatu zituen, eta Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak, azkenik, ohizko bilgunea utziz, joslalgunaren omenezko bilera egin zuen Andoainen. Omenezko ekintza hauetatik landa, eta herriko eskolume eta gazteei zuzendurik, hitzaldiak antolatu ziren eskolotan —Xabier Lasa andoaindarrak eskainitakoak—, eta eskolarteko *Bost* aldizkaria ia oso-osorik Aita Larramendirena egin zuten umek.

Iharduera guztiauek laburki azalduko ditugu, jarraian:

Euskararen Aholku Batzordea. Adierazi bezala, Batzorde horrek ohizko duen Argomanizeko biltokia utzi zuen bilera Andoainen egiteko Larramendiren omenez, abenduaren 14ean. Batzordeburu Joseba Arregi jauna izan zuen eta Idazkari Mari Karmen Garmendia anderea. Alkateak Batzordeari agurra egin ondoren, Mari Karmen Garmendia andereak Larramendiren euskalaritzaren goraipamen laburra egin zuen, gaur euskararen alde bultzatzen den iharduera ugari andoaindar bidegileak hasitakoan jarraipen direla adieraziz.

27 batzordekide bertaratu ziren Larramendiren omenezko bilkura honetara, eta aztergai nagusia "euskararen normalkuntza udal administrazioetan" izenburukoa izan zen.

Euskaltzaindiaren III. Gramatika Jardunaldiak. Andoaingo Urigain Kultura

etxean egin ziren abenduaren 15ean, goiz eta arratsaldez, Jean Haritschelhar Euskaltzainburuaren gidaritzapean. Manuel Larramendiren *El imposible vencido* euskararen lehen gramatikaren aipamen ezinbestekoa egin ondoren, aztergai nagusia jorratu eta ikerle ezberdinen txostenak ezagutzera eman ziren. Aztergai nagusia, bidenabar, "Perpaua bakunetik perpaua elkartura" izenburukoa izan zen.

Euskaltzaindiaren XII. Lexikologi Jardunaldiak: Urigain Kultura etxean antolatuta ziren ere aipatu jardunaldiok, abenduaren 21ean, arratsaldez eta 22an, goizez. Aztergai nagusia "Eratorpenaren azterketa" izan zuten bildutako irakasle eta ikertzaileek.

Andoaingo Domina Tellechea jaunari: Mendeurreneko ospakizun programatik kanpo, Andoaingo Udalak, abenduaren 21eko aparteko batzarraldian, José Ignacio Tellechea Idígoras jaunari Andoaingo Domina ematea erabaki zuen ahobatez. Andoaingo herriak egin ohi dituen hiru ohorezko goraipamenen arteko bat da domina, eta ezin garbiago azaltzen du Udalak hartutako erabakiak izendapenaren zioa: "...Manuel Larramendiren bizitza eta obra ikertu, sustatu eta argitaratuz urte luze eta zailtan egin duen ikerlari, idazle eta eragile lan etengabe eta oparoaren eskerronez".

Larramendiren omenezko ikerlarien txostenak: hitzaldien azalpenari amaiera emanez aipatu dugun irakurketa hau, abenduaren 22an, arratsaldez, Euskaltzaindiak antolatutako jardunaldiak amaitu ondoren egin zen Andoaingo Udaletxean. Aipagarriak oso irakurketa bukatu ostean partaideek (Ibon Sarasola, Joseba Andoni Lakkarra, Ricardo Gómez eta Patxi Altuna) izan zuten solasaldi-etzabaidaren mamia eta bizitasuna.

Gorazarreko ekintza kulturalak: abenduaren 15etik 23ra bitartean burutu ziren Andoainen. Antolatutako ekitaldi kultural hauen ardatza, neurri batean, Manuel Larramendik berak hurbilean izandako giro edo bizipenen hatsa ezagutzera izan zen eta bere garaian girotutako ikuskizunak eskaintzea. Ondokook dira, horrenbestez, antolatutako ekitaldi kulturalak:

—Abenduak 14ean, ostiralez, *Loiolako Santutegira txangoa*: Josulagunen ekimenez, Euskararen Aholku Batzordeko partaideek Andoaingo udal agintariekin batera Loiolara txangoa egiten zuten abenduaren 14ean. Loiolako Basilikan, Cacho Erretore jaunak berlaratutakoei harrera egin zien, Larramendiri buruzko hitzalditxo bat irakurritz. Ondoren, Manuel Larramendiren langela izandakoa, berak lanerako eskumenean erabilitako liburu eta dokumentuak, Loiolako egonaldi luzean ezagutu zituen aretoak eta, irriki haundiz, Larramendiren obra hainbaten lehen edizioak eta eskuizkribuak ikusteko aukera izan genuen. Horretaz gain, Larramendiren errauntsak gordetzen dituen hilobia eta bere bizitza eta heriotzaren berri ematen duen zenbait dokumentu ezagutu genuen ere.

—Abenduak, 15, *Donostiako Orfeoia*ren emanaldia: San Martin de Tours Parrokian: emanaldi zoragarria Donostiako Orfeoia, bi zatitan polifonia eta folklorezko obrak kantatuz, andoaindarrei eskaini ziena. Polifoniazkoan, Madina, Mozart, Haydn, Fauré, Bardos, Olsson, Medelsohn eta Haendel-en musika lanak. Folklorezkoan, Moreno Torroba, Guridi, Sorozabal, Bello Portu, Zubizarreta eta Aita Donostiarenak. Bi zuzendari izan ziren gidari: Orfeoiko titularra, José Antonio Sainz jauna, eta, zuzendari gonbidatu gisa, Gorka Sierra jauna. Organoaren soinua Gerardo Rifón jaunak jo zuen, bikainki jo ere.

—*Andoaingo txistulari eta dultzainlarien emanaldiak eta eskoletako haurren lore eskaintza*: abenduaren 16an herriko Txistulari eta Dultzainlarien bandak mendeurreneko ospakizunetan parte hartu zuen. Batetik, aipatu bi egunetan herriro kaleetan

barrena ibili ziren bere soinuez andoaindarrak iratzarritz. Bestetik, abenduaren 16an bertan, emanalditxo laburra eskaini zuten Goiko Plazan —hotzak akabatzeke kinka larrian egon bait ziren—, Manuel Larramendiren irudiaren aurrean eskoletako haurrek egin zuten lore eskaintzari hasiera eman aurretik. Abenduaren 23an, berriaz, protokolozko segizioan, "Alkate soinua" ekarri zuten.

Andoaingo eskoletako haurrek egin zuten lore eskaintza ederraz esan, Manuel Larramendiren irudiaren inguruan, aureskua, sagar-dantza, biribilketa eta beste hainbat dantza eskaini zituztela aurretik.

— Haurren lore eskaintza amaituta, "*Argia*" dantza taldearen emanaldia hasi zen Arrate pilotalekuan; beraz, euskal dantzez blaituriko eguna. Ordu t'erdiz, eskenaraketa duin eta zoragarri baten neurrira eta koreografiaren ikutu guztiak zainduz, dantzen gaita hain sutsu eta gartsuki aztertu eta defendatu zuen Larramendiri goratzarrea egin zitzaion. Besteak beste, Nafarroa Behereko karnabala, Bizkaiko dantzari dantza, Irradaka eta Arratiako jotak aurkeztu zituzten. Eskertu beharrekoa dantzariak eta taldeko zuzendari den Juan Antonio Urbeltz jaunak moldatutako ikuskizuna.

Txistu eta organo kontzertua eta Easo abesbatza: abenduaren 16an izan zen, arratsaldeko zortziretan hasita, San Martín de Tours Parrokian, Punta-puntakoa gertatu zen kontzertu hau. Lehen zatian Coro Saenz Agirre andereak —organojolea— eta Javier Hernandez Arsuaga txistularia txistu eta organo kontzertua eskaini zuten Garbizu. Lemmens, Vierne eta Guilmant maisuen lanez. Bigarren zatian Easo Abesbatzak, Ramon Beraza jaunaren zuzendaritzapean, Gonzalez Bastidaren obrak eskaini zituen. Amaiera emateko txistulari, organojole eta abesbatzak bat egin zuten "Agur Jaunak" eskaintzeko.

— "*Capilla Peñafloridu*" taldearen emanaldia: ikuskizun zoragarria eta Larramendik bizitako garaian girotutakoa Santa Krutz Elizan ikusi ahal izan genuena abenduaren 22an. Jose Rada eta Jon Bagües-ek hain bikainki moldatutako taldeak garaiko zortzi maisuren lanak goatzeko aukera eman zigun "Ilustrazioa Euskal herrian" izeneko antzezlan kantatu honetan (Peñaflorida Kontea, M. Gamarra, José de Larrañaga, Pergolesi, Philidor, Juan Andres de Lombide, W. von Humboldt, Felix M. Samaniego). Ez da ahaztu behar, andoaindarrak Peñaflorida Kontearekin harremana izaki, gerutik bizi izan zituela Kontearen lan eta eraginez Euskal Herrira ekarri edo indartu ziren joera berriak.

— "*Arriaga*" soka laukotea: goratzarreko ospakizunak amaituta, abenduaren 23an, arratsaldeko 19,30etan eskaini zuen bere emanaldia. Bach, Dáll Abaco, Scarlatti eta J. C. Arriaga maisuen lanak jo zituen Maite Menedez, Maria Pilar Martinez, Castor Narvarte eta Ignacio Martínez musikariek osatutako laukote honek. Interpretazio eta soinuketa bikain batez ihardun zutelarik, esan beharrik ez dago zein giro goxo eraman zuten andoaindarraren belarrietara.

Larramendiren omenezko goratzarreko ospakizun publikoa eta Euskaltzaindiaren agerizko batzar irekia: goratzarreko ospakizun nagusia Andoainen egin zen abenduaren 23an, menduurrenaren bezperetan. Euskaltzaindiak egun horretarako egindako agerizko Batzarre Irekiaren inguruan beste zenbait goratzarreko ospakizun antolatu ziren, goizeko hamarretatik hasita arratsaldeko ordubata bitartean. Menduurren honetako "Larramendiren egun handia" izan zen:

Goizeko hamarretan, Goiko Plazan, Andoaingo alkateak agintari eta gonbidatuei agurra egin zien, San Martín Parrokiko kanpai errepika jo zelarik aldi berean. Jarraian, Larramendiren jaiotxe izandako Garagorri baserriera igo ziren bertaratuta-

koak, baserrira "Alkate soinua"-z inguratu zirelarik. Baserri aurrean dantzari gazte-
txoek aureskua dantzatu ondoren, ondoko belazean, Joseba Arregi jaunak —Ardan-
za Lehendakariaren izenean bertaratua— eta Carlos Sanz Díez de Uré jaunak
—Andoaingo alkatea— Xabier Laka eskultoreak egindako oroitarria bistaratu zuten.
Imanol Murua Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren, Jean Haritschelhar Euskaltzainbu-
ruaren eta gainerako agintari, gonbidatu eta herritarren aurrean.

—Ondoren, goizeko hamaikak eta erdietan, Garagorri baserritik itzulian protoko-
lozko ikuskizun publikoari hasiera eman zitzaion La Salle etorbidean barrena —Ga-
lardi kaletik hasita— San Martin Parrokiko atariraino. Aipatu ikuskizunean, "Argia"
dantza taldeko ezpatariak Manuel Larramendik bere *Corografía*-n hain bikainki
deskribatutako ezpatadantzarien protokoloa zertu zuten, protokolozko segizioari ha-
siera emanez. Atzelik, Andoaingo estandarte eta Txistulari Banda "Alkate soinua"
joaz, eta dantzari eta txistularien babescan agintari, euskaltzain, gonbidatu eta berta-
ratutako herritarrak, San Martin Parrokiko atarira iristeko unean, dantzariak ezpata
uztaia osatzerainoko biribilketa egin zuten, ezpata uztaiaren barrena agintari eta gonbi-
datuak elizako ate nagusiraino sar zitezten. Bertan, Gipuzkoako Gotzainak, Jose Maria
Setien jaunak, agintariei harrera egin zien. Eliz atarirainoko aipatu ibilaldia egin bitar-
tean, kanpaidorrean hogeitamar kanpai dangada jo zituzten kanpai nagusiaz —dan-
gada bat hirugarren mendeurrenko hamar urteko bakoitzagatik—.

—Goizeko hamaiketan Larramendiren omenezko Meza Nagusia ospatu zen bere
eraginpean eraikitako San Martin Parrokian. Meza emaile, J. M. Setien gotzaina eta
beste lau lagun izan ziren —P. Altuna eta Fr. L. Villasante tarte—, eta meza amai-
tzeko, Andoaingo Alberto Agirre Abesbatzak "Aita Larramendi" obra kantatu zuen
organoaz lagundurik.

Meza Nagusia amaituta, "Argia"-ko dantzariak Gipuzkoako ezpatadantza egin
zuten elizatarian, agintarien aurrean, eta, ondoren, dantzariak berriz ezpata uztaiari
Udaletxeraino osaturik, agintari, euskaltzain eta gonbidatuak Udaletxeko Batzarre
Aretora sartu ziren, eguerdiko hamabietan, Euskaltzaindiaren agerizko Batzarre Ire-
kiari hasiera emateko.

—Euskaltzaindiaren agerizko Batzarre Irekian ondoko agintari eta euskaltzainek
partehartu zuten, hurrenez-hurren: Carlos Sanz Díez de Uré, alkatea, bertaratutako
ongieterria emateko; Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusia, bere agurra egi-
teko; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, agerizko Batzarre Irekiari hasiera ema-
nez. Ondoren, Larramendiren omenezko bi txosten irakurri ziren: batetik, Patxi
Altuna euskaltzainak, "Larramendiren haurtzaroko urteak" txostena agertu zigan,
zeinaz jakinmin handia sortua bait zen Andoainean, Larramendik haurtzaroan bere
jaioterriarekin izan zuen harremanari buruzko datu berriak zekarzanez, Altuna jau-
nak bere saio ederra amaituta, Jose Ignacio Tellechea Idigoras jaunak, betiko bere
estilo zoragarria landuz, "Larramendi: un guipuzcoano trasplantado y vuelto a im-
plantar" txostenaren edukina agertu zien batzartutakoiei.

Txostenen irakurketa amaitu ondoren, eta bukatzean, Euskadiko Lehendakariaren
izenean Joseba Arregi Kultura Sailburu jaunak partehartu aurretik, III. mendeurren-
ko domina oroigarrien banaketa egin zen. Horrela, bada, bertaratutako euskaltzain da
ikerlariak zegokiena jaso ondoren, Andoaingo alkateak zilarrezko domina bana
eman zien Imanol Murua jaunari —Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean—, Jean
Haritschelhar euskaltzainburuari, Mari Karmen Garmendia andereari —Hizkuntza
Politikarako Idazkaritza Nagusiaren izenean—, José Ignacio Tellechea Idigoras

jaunari —Donostiako Doctor Camino Taldearen izenean—, Juanjo Zcarreta jaunari —Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren izenean—, Andoaingo Garagorri familiari, eta, azkenik, Joseba Arregi jaunari —Kultura eta Turismo Sailaren izenean—. Domina oroigarrien banaketaren ondotik, esan bezala, Joseba Arregi jaunaren hitzek agerizko Batzarre Irekiari eta Mendurreneko ekintza eta ospakizunetara amaiera eman zioten.

Beraz, Euskaltzaindiaren agerizko Batzarre irekia amaituta, mendurreneko ekintza eta ospakizun guztiak ofizialki burututzat jo ziren.

Jon Unanue

Erreportai grafikoa



Andoain. 1990-12. Euskaltzaindiaren abenduko osoko bilkura Udaletxean.



Andoain, 1990-12. Euskaltzaindiaren abenduko osoko bilkura Udaletxeko Batzarre Arretuan.



Andoain, 90-12-14. Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordearen bilkura Udaletxeko Batzarre Arretuan.



Andoain, 90-12-14. Euskararen Aholku Batzordearen barrera ekitaldia Udaletxean. Ezkerretik eskubitara: Joseba Arregi jauna, Batzordeburua; Carlos Sinz Diez de Urd, Andoaingo Alkatea; M^o Karmen Garmendia andrea, Idazkaria; eta Mikel Ugalde jauna.



Andoain, 90-12-16. Euso Abesbatza San Martin de Tours Parrokian.




Andoain, 90-12-22. Ikerlarien txostenen azalpena Udaletxeko Batzarre Arretuan. Ezkerretatik eskubitera: Patxi Altuna, Joseba A. Lakarra eta Ibon Sarasola jaunak.



Andoain, 90-12-23. Goratzarreko ospakizunak: Garagorri baserriko belazean Larrumendiren omenezko eskulura bistaratzeko. Ezkerretara agintariak bertsoariaren saioa entzuten.



Andoaín. 90-12-23. Goratzarreko ospakizunak: San Martin de Tours elizarako hideon protokolozko ikuskizuna.



Andoain. Manuel Larramendiren bizitza eta obrari buruzko erakusketa.



Andeain. Manuel Larramendiren bizitza eta obrari buruzko erakusketa.



Andoain. 90-12-23. Goratzarreko ospakizunak: egintariak San Martin de Tours elizara sartzen.



Andoain, 90-12-23, Goratzarreko ospakizunak: Meza nagusia amaítuta elizatik irten eta Udaletxerako bidetan dantzari, txistulari banda, agintari eta hermitarrak.




Antsozin 90-12-15. Donostiko Orfeoiaren eruzakidea San Martin de Tours elizan.



Amilastin. 90-12-22. "Capilla Peñaflorida" jakkearen enamatidia Santa Krutz elizan.



Andoain. 90-12-23. Goratzurreko ospakizunak: Jose M^o Setien Gipuzkoako Gotzaria agintariari harrera egiten elizako atarian.



Andoain. 90-12-23. Euskaltzaindiaren agerizko batzar irekia udaletxeko areto nagusian.

Jose I. Tellechea Idigoras jauna bere txostena irakurtzen.
Ezkerretatik eskubitara: J. Haritscheihar, Joseba Arregi, Imanol Murua,
M. Karmen Garmendia, J. Ignacio Tellechea eta Xabier Eluizi.



Andoain, 90-12-23. Euskaltzaindiaren agerizko batzar irekia. Patxi Altuna euskaltzaina bere txostera irakurtzen. Mahanin eserita ezkerretik eskubiatara: Jose Luis Lazundia, Frantzisko Ondarra, Fr. Luis Villasante, Juan Mari Lekuona eta Patxi Altuna beta.




Andoain, 90-12-23. Euskaltzaindiaren batzar irekia: Jean Haritschelhar Euskaltzainburua domin orotigarria jasotzen Carlos Sanz Díez de Uré Andoaingo Alkatearengandik.



Andoain. 90-12-23. Goratzarreko ospakizunak: "Argia"-ko dantzarien Gipuzkoako ezpata-dantza agintari eta herritarren aurrean.



Andoaingo Udalaltxea. 90-12-21. Jose Ignacio Tellechea Idigoras jauna Andoaingo Alkatearengandik Andoaingo Domina jaso ondoren Korporazioko zinegotziak agurtzen. Ezkerretatik eskubitara: Patxi Irigoras, Fermin Loidi eta Jose Manuel Azpiazu zinegotzi jaunak.



Andoain. 90-12-23. Euskaltzaindiaren agerizko batzar irekia udaletxeko areto nagusian. Ezkerretatik eskubitara: Carlos Sanz Díez de Uré, Andoaingo Alkatea; Jean Haritschelhar, Euskaltzainburua; Joseba Arregi, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua; Inanol Murua Arregi, Gipuzkoako Diputatu Nagusia; M^l Karmen Garmendia, Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia; eta, bere txostena irakurtzen, Jose Ignacio Tellechea Idigoras jauna.




Andoain, 90-12-23. Fr. Luis Villasante domin oroigarria jasotzen J. Haritxelhar Fuskaltzainburuarengandik.



Andoain, 90-12-23. Endrike Knörr euskaltzaina domin oroigarria jasotzen Joseba Arregi Kultura Sailburuarengandik.



Andoain, 90-12-23. "Arriaga" soka laukotearen emanaldia Santa Krutz elizan.



Andoain. Lirjain kultura etxean. I. Aramendi iri buruzko erakusketa



Andoain. Urigain kulturari buruzko erakusketa

